

**LESLIE
FEINBERG**

**MARI-MUTIL
HANDI BATEN
BLUESA**

Itzulpena:
Fermin Zabaltza



Katakarak argitaletxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturaren irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, maketa lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Leslie Feinberg

***MARI-MUTIL HANDI
BATEN BLUESA***

Leslie Feinberg

***MARI-MUTIL HANDI
BATEN BLUESA***

Itzultzailea: Fermin Zabaltza Aleman

Jatorrizko izenburua (1993): *Stone Butch Blues*.

Edizio honen izenburua: *Mari-mutil handi baten bluesa*.

Egilea: Leslie Feinberg.

Lizentzia: Leslie Feinberg CC BY-ND 2.0.

Barruko argazkiaren egilea: Oakland Police Dept

Barruko argazkiaren lizentzia: CC BY-ND 4.0. International

Itzulpena: Fermin Zabaltza Aleman.

Azalaren diseinua: Koldo Atxaga Arnedo.

Lehenengo edizioa: 2018ko maiatza.

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54

Liburu honen amaierako prezioa behar lukeena baino baxuagoa da egileak, arrazoi politikoengatik, uko egin ziolako eskubideengatik dirua jasotzeari eta itzultzaileak filosofia berarekin lan egin duelako.



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa.

Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartean erakusteko betiere asmo komertzialik gabe. Ezin da lan honen lan eratorririk egin.

ISBN: 978-84-16946-16-7

Lege gordailua: NA 1084-2018

Inprimaketa: Alzate Grafikak

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA: «SARREREI» EZ! (Leslie Feinberg).....	11
1	13
2	23
3	45
4	63
5	81
6	101
7	115
8	125
9	141
10	163
11	177
12	183
13	207
14	239

15.....	263
16.....	277
17.....	303
18.....	321
19.....	341
20.....	351
21.....	369
22.....	381
23.....	397
24.....	415
25.....	427
26.....	455





ARGITALETXEAREN OHARRA «SARREREI» EZ!

Hamarkada luzez, hazi nintzenean, sexuarengatik, generoarengatik edota sexualitatearengatik zapaldutako jendearen bizitzari buruzko argitalpen bakarrak psikologian ala psikiatريان «aditu» zirenek idatzitakoak ziren.

Zapaldutako norbanakoaren hitzak, hala, «gaixoaren narrazio» bihurtu ziren, eta luzatzen edota zatitzen ziren, Prokustoren tortura ohe batean bezala, adituaren teoriarekin bat egin arte.

Mari-mutil handi baten bluesak bere kabuz hitz egin dezake eta ez du adituen hitzik behar protagonistaren eta irakurlearen artean. Baimena ematen dut beste hizkuntzetara egindako itzulpenek itzultzailearen oharrak izan ditzaten hizkuntzen arteko aldeak gainditu ahal izateko.

Baina... mesedez ez idatzi sarrerarik nobelari!

Nobela honek bere burua irakurleari aurkezteko gaitasuna dauka, baita Jess Goldberg-ek ere. Zeren *Mari-mutil handi baten bluesa* zapalkuntza, erresistentzia eta harrotasuna bizi duen norbaiten ahotsa da.

Utzi irakurleari Jess Goldbergen beraren ahotsa ezagutzen.

Leslie Feinberg 1993

1

Theresa maitea,

Gaur gauean ohatzean etzanda nago, zure faltan, begiak oso handiturik, malko beroak aurpegian behera. Udako tximista-ekaitz bat orroka ari da kanpoan.

Gaur gauean karriketan ibili naiz, zu bilatzen emakume bakoi-tzaren aurpegian, ibili naizen bezala desterru bakarti honetako gau guztietan. Beldur naiz ez ditudala berriz ikusiko zure begi irribarretsu eta burlatiak.

Kafe bat hartu dut lehen emakume batekin Greenwich Villagen. Bien lagun batek prestatu du hitzordua, ustez-eta gauza asko izanen genituela amankomunean, biak ere baikara «politikazaleak». Hala, kafetegi batean egon gara eta solasean aritu da demokraten politikez, mintegiez, fotografiaz eta bere etxebizitza-kooperatibarekin dituen problemez, eta azaldu du zenbateraino dagoen alokairuen kontrolaren kontra. Ez da harritzekoa: aitatxo promotorea du.

Hari begira egon naiz, hizketan ari zen bitartean, neure artean pentsatuz emakume honentzat arrotza naizela. Niri begira dago baina ez nau ikusten. Orduan, azkenerako, esan du zenbat gorrotatzen duen jendarte hau, «ni bezalako emakumeei» egin digunarengatik: geure burua hainbeste gorrotatzen dugu, non hartu behar izan baititugu gizonen itxura eta jokamoldea. Sentitu dut neure burua gorritzen eta aurpegia pixka bat desitxuratzen, eta hasi natzaio esaten, berotu gabe eta lasai, nola ni bezalako emakumeak existitzen diren denboraren hasieratik beretik, zapalkuntzarik izan aurretik, eta nola jendarte horiek errespetatzen zituzten, eta emakumeak jarri du interes handia izatearren aurpegia... Baina, hara, alde egiteko ordua zen.

Bada, pasatu gara izkina baten ondotik non polizia batzuk ol-dartzen ari zitzaizkion etxegabe bati, eta ni gelditu eta oihu egin diet, eta niregana hurbiltzen hasi dira beren borrorak goraturik, eta emakumeak gerrikotik hartu nau eta beregana tira egin dit. Hari begiratu eta halako batez sentitu dut nire baitatik borborka ateratzen zirela uestez lurperaturik nituenak. Hantxe gelditu naiz, ikusiko ez banitu bezala ni jotzear ziren poliziak, beste mundu batera itzultzen ariko banintz bezala, bueltatu nahi nukeen mundu batera.

Eta bat-batean nire bihotzean halako tristura sentitu dut, ohar-tu bainaiz nire bihotzak zenbat denboraz ez duen sentitu... deus ere.

Gau honetan zuregana bueltatzeko beharra dut, Theresa. Ezin dut. Horregatik idazten dizut gutun hau.

Gogoan dut nola orain dela urte asko, egun batez, poto fabrika hartan hasi nintzen, Buffalon, eta zuk ordurako bazeneramatzan zen-bait hilabete, eta nola zure begiek nire arreta erakarri zuten, eta nirekin jostatu zinen harik eta berriz aske utzi ninduzun arte. Arduradunari segitu behar nion formulario batzuk betetzeko, baina oso lanpeturik nengoen neure artean galdegiten zer koloretakoa ote zen zure ilea pape-rezko sare zuri haren azpian, eta nolako itxura eta ukimena ote zukeen nire hatzen artean, solte eta aske. Eta oroitzen naiz irri egin zenuela, atsegin, arduraduna itzuli eta esan zidanean «heldu zara ala ez?».

Emazte-gizon guztiak ha-se-rre-tu ginen jakin genuenean la-netik bota zintuztela ez zeniolako zuzendariari utzi bularrak ukitzen. Beste pare bat egunez jarraitu nuen zamalanetan nasetan, baina depri-mitu samar nengoen. Ez baitzen gauza bera, zure argia itzali ondoren.

Ezin sinetsi nuen gau hartan West Sideko klub hartara joan nin-tzenez. Hantxe zeunden, barran bermatua, blue-jeanak ezin estuago eta ilea... Ilea solte eta aske.

Eta berriz ere oroitzen naiz zure begirada hartaz. Ez da ezagutu ninduzula bakarrik; aurrean zenuena gustatu zitzaizun. Eta une har-tan, ooo emakumea, une hartan geure eremuan ginen. Zuk nahi bezala mugi nintekeen, eta pozik nengoen goitik behera mari-mutil jantzita nengoelako.

Geure eremuan... «Nirekin dantzatu nahiko zenuke?»

Ez zenuen esan ez bai ez ez, begiekin burla egin zenuen soilik, nire gorbata zuzen paratu, nire atorraren lepoa leundu, eta eskutik har-tu ninduzun. Nire bihotza zurea zen, baita nire kontra hala mugitzen hasi aurretik ere.

Tammy Stand by your man ari zen kantatzen, eta gu «gizon» guztiak «emakume» bihurtzen ari ginen geure buruetan, dena egokia izan zedin. Hala mugitu ondoren, nire bihotzaren zati handiagoa zuretu zenuen. Hasperen eginarazi zenidan, eta gustatu egin zitzaizun. Baita niri ere.

Mari-mutil zaharrek ohartarazi zidaten: bikote-harremanari eutsi nahi badiozu, ez zaitezela tabernetara joan. Baina ni beti izan naiz emakume bakarreko mari-mutila. Gainera, hura zen gure komunitatea, gure komunitate bakarra, eta, beraz, astebururo joaten ginen.

Bi borroka mota izaten ziren tabernetan. Asteburu gehienetan izaten ziren batekoak edo bestekoak, eta batzuetan bietakoak. Izaten ziren mari-mutilen arteko borrokak ukabilka: beterik zeuden edariz, lotsaz eta segurtasun falta jeloskorrez. Batzuetan borrokak ikaragarriak izaten ziren, eta sare bat bezala hedatzen ziren, tabernan zeuden guztiak harrapatzeraino, esaterako gau hartan non Heddyk begia galdu baitzuen, buruan saiheska jo zutenean taburete batekin.

Oso harro nengoen mari-mutilik jo ez izanaz urte haietan denetan. Begira, maite nituen, eta ulertzen nituen haien mina eta lotsa, haien hain antzekoa bainintzen. Maite nituen haien aurpegi-eskuetan zizelkatutako marrak eta lanek makurrarazitako bizkarrak. Batzuetan ispiluari begiratu eta nire baitan galdetzen nuen zer itxura izanen ote nukeen haien adinera iritsitakoan. Orain badakit!

Beren moduan, haiek ere maite ninduten ni. Babesten ninduten, bai baitzekiten ez nintzela «larunbat gauetako mari-mutil» bat. Asteburuetako mari-mutilak nire beldur ziren, «stone emazte-gizon» bat bainintzen. Jakin izan balute zein babesgabe sentitzen nintzen neronen barnean! Baina mari-mutil zaharrek, haiek bazekiten nolako bide luzea nuen aurrean, eta nahiago zuten hura ibili beharko ez banu, hain mingarria baitzen.

Tabernara gizonez jantzita uzkur samar ailegatu nintzenean, esan zidaten «egon zaitez harro zarenaz», eta gorbata ongi jarri zidaten, zuk bezalatsu. Haien gisakoa nintzen; bazekiten ez nuela beste aukerarik. Beraz, ez nintzen inoiz ibili haien kontra ukabilka. Tabernetan bizkarrekoak emanez agurtzen genuen elkar, eta fabriketan elkarren bizkarrak zaintzen genituen.

Baina beste batzuetan gure egiazko etsaiak etortzen zitzaizkigun atarira: marinel mozkorren taldeak, Ku Klux Klanekoen gisako astaputzak eta poliziak. Beti jakiten zenuen noiz ailegatzen ziren, norbaiti beti bururatzen zitzaiolako disko-makina deskonektatzea. Ez du

inporta zenbatetan izaten zen, aldiro esaten genuen «Ai...» musika gelditu eta ohartzten ginenean negoziari heltzeko garaia zela.

Intoleranteak iritsitakoan borrokatzeko unea izaten zen, eta borrokatu egiten ginen. Gogor borrokatzen ere: femme itxurakoak eta mari-mutilak, emakumeak eta gizonak, elkarrekin.

Baldin musika gelditu eta atarian poliziak bazeuden, baten batek berriz ere musika jarri eta dantza-kideak aldatzen genituen. Gu gure traje eta gorbatekin, bikotekide genituela gure ahizpa drag queenak, soineko eta takoiekin. Zaila zaigu gogoratzea ilegala zela bi emakume edo bi gizon elkarrekin dantzan aritzea. Musika bukatutakoan, mari-mutilek erreberentzia egin, gure bikotekide femmeek berdin, eta itzultzen ginen gure eserlekuetara, maitaleetara eta edarietara, geure patuen zain.

Une haietan oroitzen naiz zure eskuaz nire gerrikoan, trajeko jakaren azpitik. Hantxe izaten zenuen poliziak zeuden denbora guztian. «Zaude lasai, maitea. Zaude nirekin, lastana, trankil», xuxurlatzen zenidan belarrira, borrokalariarentzako maitalearen kantu berezi bat balitz bezala, bizirik irauteko borrokak hautatu behar balitu bezala.

Laster ikasi genuen poliziek beti ekartzen zutela furgoneta tabernako ate-atera eta zakurrak barnean uzten zituztela marmarka, guk ihes ez egiteko. Ederki harrapatuak egoten ginen.

Gogoan al duzu gau hartan nola egon zinen nirekin etxean, hain gaixo nengonean? Gau hura izan zen, oroit zaitez. Poliziek, denen artetik, mari-mutilik handiena hartu omen zuten, denek «dutxan zira janzten zuela» zioten emakume hura, umiliatuz txikitzeko. Tabernako guztien aurrean biluztu omen zuten, mantso, eta hartaz irri egin, biluztasuna tapatzen saiatzen zen bitartean. Geroago erotu egin omen zen. Geroago bere burua urkatu omen zuen.

Zer eginen nukeen gau hartan han izan banintz?

Oroitzen naiz Kanadako tabernetako sarekadez. Polizien furgonetetan estu-estu eginda, «larunbat gauetako» mari-mutil guztiak irritxoak egiten, ilea harrotu nahian eta arropak beste emakume batzuekin trukatzten, zulora bota zitzaaten emakume femmeekin batera. Esaten zuten izanen zela «hil eta zerura joatea bezalakoa». Legeak zioen emakumeen hiru janzki behar genituela soinean.

Guk ez genuen sekula arroparik aldatzen. Ezta gure ahizpa drag queenak ere. Bagenekien, eta zuk ere bazenekien, zer zetorkigun. Mahukak bildurik eta ilea atzeraka orrazturik behar genituen hura aguantatzeko. Gure eskuak eskuburdinez estu loturik bizkarrean.

Zureak aurrealdean loturik. Gorbata laxatzen zenidan, lepoko botoia askatu, eta aurpegia laztandu. Aurpegian ikusten nizun niregatik zenuen mina eta beldurra, eta dena ongi joanen zela xuxurlatzen nizun. Bagenekien ez zela hala izanen.

Ez nizun sekula kontatu zer egiten ziguten han —erreginak zulo batean, mari-mutil handiak ondokoan—, baina bazenekien. Banan-banan, gure anaiak ziegetatik ateratzen zituzten arrastaka, zaplaztekoka eta ukabilkadaka, eta burdinak berehala ixten zituzten, badaezpada ere, ez genezan kontrola galdu eta ez gintezen saiatu haiek geldiarazten; ahal bagenu bezala! Anaia bati eskumuturrak orkatiletara lotzen zizkioten eskuburdinez, edo kateatzen zuten, aurpegia burdinen kontra. Ikusarazten ziguten. Batzuetan, biktima ikaratuaren arreta erakartzen genuen, edo biktima bihurtzear zenarena, torturaren atzaparretan harapatua baitzegoen, eta goxoki esaten genion: «zurekin nago, maitea, begiradazu, dena ongi dago, etxera eramanen zaitugu.»

Ez genuen inoiz negarrik egiten polizien aurrean. Bagenekien hurrengoak gu ginela.

Ziegako atea irekitzen zen hurrengoan ni aterako ninduten arrastaka eta burdinetara kateatuko, beso-zangoak zabal-zabalak.

Bizirik atera nintzen? Antza bai. Baina bakarrik banekielako zuregana bueltatuko nintzela, etxera.

Azkenik askatzen gintuzten, banan-banan. Kargurik gabe. Beranduegi lanera deitzeko, gaixorik geundela esateko, dirurik ez, auto-stop egin, muga oinez pasatu, arropa zimurtuak, odoleztaturik, dutxa beharretan, zauriturik, beldurturik.

Banekien etxean topatuko zintudala, iristerik baldin banuen.

Bainua prestatzen zenidan usain gozoko burbuilekin. Prest uzten zenizkidan galtzontzillo eta kamiseta zuri garbi batzuk, eta bakarrik uzten ninduzun, lotsaren lehenbiziko geruza erauz nezan.

Gogoan dut, beti gauza bera izaten zen. Galtzontzilloak jantzi, eta kamiseta buru gainetik pasatzen ari nintzela aitzakiaren bat topatzen zenuen komunean sartzeko, zerbait hartu edo utzi beharra. Begirada batean nire gorputzeko kolpeak buruz ikasten zenituen, erre-pide mapa bat bezala: ebakiak, ubelak, zigarreta erredurak.

Gero, ohatzean, maitekiro besarkatzen ninduzun, dena laztandu, ukipenik eztenak gordez zauriturik nituen tokietarako, ederki ezagaturik mindutako leku guzti-guztiak, barne eta kanpo. Ez zinen orduantxe hasten nirekin maite-jostaketan, jakinik ez nuela aski konfiantzarik sexia sentitzeko. Baina, pixkaka, limurtu eta autoestimua

berreskurarazten zenidan, erakutsiz zenbat desiratzen ninduzun. Bazenekien asteak beharko zenituela nire gogortasuna beratzeko.

Azkenaldian emakume batzuen zenbait istorio irakurri izan ditut; beren stone maitaleekin hain haserre daude, haien gogortasuna dela-eta, non haien irrikaz barre egin duten, azkenean bidea ireki diotenean konfiantzari, ukituak izateari. Eta jakin nahiko nuke: mindu ote zintudan ni ukitzen utzi ez nizun aldietan? Espero dut ezetz. Hala izan bazen, ez zenuen inoiz erakutsi. Nik uste zuk bazenekiela ez zinela zu, ez nintzela zutaz babesten ari. Nire gogortasuna tratatzen zenuen maitasunez sendatu beharreko zauria balitz bezala. Eskerrik asko. Ordutik inork ere ez du halakorik egin. Hemen bazina gau honetan... Tira, hipotetikoa da, ez da hala?

Gauza hauek ez nizkizun sekula esan.

Gaur gauean gogoan dut aldi hartan nola hartu ninduten bakarrik sarekada batean, lurralde arrotzean. Oraindik ere hotzikarak sentituko dituzu, baina hau esan beharra dizut. Gau hartan laurogeita hamar milia egin genituen, inoiz agertu ez ziren lagun batzuekin elkartzeko, taberna batean. Poliziak sarekada egin zuenean «bakarrik» ginen, eta uniformean urrezko marrak zituen polizia niregana etorri zen zuzenean, eta zutitzeko esan. Ez zen harriztekoa, gau hartan emazte-gizon bakarra nintzen han.

Bere eskuak dena barna ibili zituen nire gorputzean, nire galtzontzilloen zerrendatik goraka tira egin eta bere gizonei eskuburdinak jartzeko esan zien; ez nituen emakumezkoen hiru janzki jarriak. Hantxe berean borrokan hasi nahi nuen, bai bainekien aukera berehala galduko nuela. Baina banekien, era berean, denak zanpatuak izanen zirela gau hartan baldin defenditzen banintzen; beraz, geldirik gelditu nintzen. Ikusi nuen besoak bizkarrean eusten zizkizutela eta eskuburdinak jartzen. Polizia batek besoaz eztarria heltzen zizun. Zure begiradaz oroitzen naiz. Oraindik ere min ematen dit.

Eskuburdinak hain estu lotu zizkidaten, kasik garrasi egin nuen. Orduan, poliziak brageta mantso-mantso jaitsi zuen, irribarre harroz, eta belaunikatzeko agindu zidan. Lehenbizian pentsatu egin nuen: Ezin dut! Ondoren ahots goran esan nuen niretzat, zuretzat eta harentzat: Ez dut eginen! Ez dizut inoiz lehenago esan, baina zerbait aldatu zen nire baitan une hartantxe. Ikasi nuen zer desberdintasun dagoen egin ezin dudanaren eta zerbaiti uko egitearen artean.

Ikasgai horren prezioa pagatu nuen. Xehetasun guztiak kontatu behar al dizkizut? Ez, bistan da.

Biharamunean ziegatik atera nintzenean zu han zinen. Fidantza pagatu zenidan. Kargurik ez, zure dirua hartu zuten eta kito. Gau osoa eman zenuen zain komisaria hartan. Nik bakarrik dakit zein gogorra izan zen zuretzat aguantatzea haien begirada lizunak, haien burlak, haien mehatxuak. Banekien uzkurtuko zinela ziegetatik ateratzen sumatzen zenuen soinu bakoitzarekin. Erregutzen zenuen ni garrasika aditu behar ez izatea. Ez nuen oihurik egin.

Oroitzen naiz nola aparkalekura atera ginenean gelditu zinen, zure eskuak arinki paratu zenituen nire soingainetan, eta nire begirada saihestu zenuen. Gozoki igurtzi zenituen nire atorraren odolgunek, eta esan: «Ez ditut sekula orban hauek aterako».

Madarikatua uste duena bizi honetan inporta zitzaizun bakarra zela nire lepoko zolda kentzea.

Oso ongi ulertu nuen zer esan nahi zenuen. Sentitzen zenuena esateko edo ez esateko modu bitxi eta goxoa izan zen. Gutxi gorabehera ni emozionalki ixten nintzenean bezalatsu: sentitzen nituenean beldurra, mina eta babes-gabezia, eta esaten nituenean testuingurutik kanpo ziruditen tontakeriak.

Etxera eraman minduzun autoan, neure burua zure magalean denbora guztian, aurpegia ferekatzen zenidala. Bainua prestatu zenidan. Barneko arropa garbiak prest utzi. Ohatzera eraman minduzun. Kontu handiz laztandu. Maitekiro besarkatu.

Geroago, gau hartan, iratzarri eta ikusi nuen bakarrik nintzela ohatzean. Zu sukaldeko mahaian edaten, burua esku artean. Negarrez ari zinen. Besoetan hartu zintudan irmoki, eta besarkatu, eta zu borrokatu zinen eta nire bularra jo zenuen ukabilez, etsaia ez baitzen han haren kontra egiteko. Geroxeago nire bularreko ubeldurez oroitu, eta oraindik negar handiagoa egin zenuen, zotinka, «Nire errua da, ezin izan nituen geldiarazi».

Beti esan nahi izan dizut hau. Momentu hartan jakin nuen zuk egiaz ententitzen zenuela nola sentitzen nintzen bizian. Haserrez gainezka, halako ezintasuna sentitzen, ezin babestu ez neronen burua ez gehien maite ditudanak, hala ere erasoei erantzuten behin eta berriz, amore emateko batere asmorik ez. Orduan ez nuen hitzik zuri hau esateko. Esan nuen bakarra zen «Dena ongi joanen da, dena ongi joanen da». Eta orduan ironiaz irribarre egin genion nik esandakoari, eta berriz ohatzera ekarri zintudan, eta maitasuna egin nizun nekien modurik hoberenean, nire egoera kontuan izanik. Bazenekien gau hartan ezin

saiatu zinela ni ukitzen. Zure hatzak nire ile artean pasatu eta negar eta negar baino ez zenuen egin.

Noiz ginen elkarrengandik bereizi, emakume borrokalaria maitea? Uste genuen askapenaren gerra irabazia genuela «gay» hitza guretu genuenean. Orduan, halako batez, nonahitik atera ziren irakasleak, doktoreak eta abokatuak, esaten zigutenak bilerak Roberten Antolamendu Arauen arabera egin behar zirela. (Nor hil zen Robert jainkotzeko?).

Kanporatu egin gintuzten, gure itxuraz lotsarazi. Esaten zuten ar chauvinista zerriak ginela, etsaia. Baina emakume batzuen bihotza zuten urratu. Ez ginen bidaltzeko zailak izan, isilik alde egin genuen.

Fabrikak itxi egin zituzten, ez genuen sekula pentsatuko.

Orduan hasi nintzen gizon gisa bizitzen. Estrainioa da zerorren sexutik desterratu izatea, zerorren etxea inoiz izanen ez den lurraldera.

Zu ere erbesteratu zinen beste lur batera, zerorren sexuari eutsiz, zentzugabeki apartatua hainbeste maite zenituen emakumeengandik, zeure burua maitatu nahi zenuen adina maite zenituen horietatik.

Hogei urtetik gora bizi izan naiz lur bakarti honetan, neure buruari galdetzen zer izan ote zen zutaz. Larunbat gauetak makillajea kendu ote duzu lotsaturik? Haserre bizian jarri al zara emakumeek esaten dizutenean «Gizon bat nahi banu egiazko batekin egonen nintzateke»?

Prostituzioan zabilta? Mahaiak zerbitzatzen ari zara edo Word Perfect 5.1 ikasten?

Lesbianen taberna batean ote zaude, begi-bazterrez horko emakumerik mari-mutilenari begira? Hor dauden emakumeek hitz egiten al dute demokraten politikez, mintegiez eta etxebizitza-kooperatibez? Zurekin dauden emakumeek hilabete behin bakarrik galtzen dute odola, hilekoarekin?

Edo ezkondurik zaude, beste langile-herri batean, auto fabriketako langile langabe batekin ote zaude ohatzean —nire antz handiagooa duena emakume horiek baino—, lo diren haurren arnasketari erne? Senarraren zauri emozionalak bendatzen dituzu, nireak sendatzen saiatzen zinen bezala?

Nitaz sekula pentsatu al duzu gau fresko batean?

Orduak eman ditut gutun hau zuretzat eskribitzen. Saihetsak minberaturik ditut, berriki zanpatu binaute. Badakizu.

Ez nukeen bizirik hain luze iraunen baldin zure maitasuna ezagutu ez banu. Oraindik ere hasperen dagit zure falta sentitzean eta zure halako beharra dudanean.

Zuk bakarrik beretzen ahal duzu nire gogortasuna. Inoiz itzuliko ote zara?

Ekaitza joana da. Nire leihotik argi distira arrosa ikusten da zerumugan. Gogoan ditut gau horiek non larrutan egiten nizun sakon eta mantso, zeruak kolore horixe hartzen zuen arte.

Ezin dut zugan gehiago pentsatu, minak ahitzen nau. Zure oroitzapena gorde egin behar dut, argazki sepia baliotsu baten gisan. Oraindik ere hainbeste gauza esan nahi nizkizuke, zurekin partekatu nahiko nituzke.

Ezin dizudanez gutun hau postaz bidali, igorriko dut emakumeen oroitzapenak seguru gordetzen dituzten leku batera. Beharbada, egun batez, hiri handi honetatik pasatzen zarenean, gelditu eta irakurriko duzu. Beharbada ez.

Gabon, maitea.

2

Ez nuen diferentea izan nahi. Helduek nahi zuten guztia izatea irrikatzen nuen, maite nintzaten. Haien arau guztiak betetzen nituen, eginahalik handiena egiten nuen atsegin emateko. Baina bazen nigan zerbait kopeta zimurrarazten ziena. Inork ez zidan inoiz izenik eman nigan makurra zen horretarako. Horrexegatik beldur nintzen gauza larria ote zen. Betiko errepika haren bidez bakarrik igartzen nuen haren nondik norakoa:

—Zer da, mutikoa ala neskatoa?

Gurasoei bizian egokitu zitzaaien beste karta txar bat besterik ez nintzen. Ordurako kiraski desengainatutako jendea zen. Aitak, gaztetatik, irmoki erabakirik zuen ez zela fabrika batean trabaturik geratuko, bere aita bezala; amak ez zuen inolako asmorik ezkontza batean harrapaturik gelditzeko.

Elkar ezagutu zutenean, amestu zuten abentura zirrargarria biziko zutela elkarrekin. Iratzarri zirenerako, aita fabrikari ari zen lanean eta ama etxeakoandre bihurtua zen. Nitaz haurdun zela ohartu zenean, amak aitari esan zion ez zuela haur batekin lotu nahi. Aitak behin eta berriz esan zion zoriontsu izanen zela haurra izandakoan. Natura arduratuko zen horretaz.

Amak izan ninduen, frogatzeko aita oker zegoela.

Gurasoak koleraturik zeuden biziak iruzur egin zielako. Sumindurik zeuden ezkontzak azkeneko ihesbidea itxi zielako. Orduan ni ailegatu, eta diferentea nintzen. Orain nirekin zeuden sumindurik. Nabari nezakeen, entzunda nola kontaktzen zuten nire jaiotzaren istorioa.

Euriak eta haizeak desertua zigortzen zuten ama lanean ari zela. Horregatik izan ninduen etxean. Ekaitza indartsuegia

zen batetik bestera ibiltzeko. Aita lanean zen, eta ez genuen telefonorik. Amak kontatzen zuen ezen, heldu nintzela ohartzean, ikaraz hain ozen egin zuela negar, non korridoreko pareko *dineh*¹ amonak atea jo zuen, eta, ikusirik jaiotzear nintzela, beste hiru emakume ekarri zituen laguntzeko.

Dineh emakumeak kantuz aritu ziren ni jaio bitartean. Halaxe esan zidan amak. Garbitu ninduten, kea zabaldu zuten nire gorputz ttikittoan, eta amari eskaini ninduten.

—Utzazue ninia hor —esan zien, harraska ondoko sehaska seinalatuz. Utzazue ninia hor. Hitz horiek emakume indiarrek hormaturik utzi zituen. Ama ohartu zen horretaz. Handitu ahala askotan aditu nuen istorioa, hitz horiei darien izotza urtzen ahal balitz bezala umoretsu eta alai errepikatuta.

Jaio eta egun batzuetara amonak berriz jo zuen atea, oraingoan nire negarrek asaldatu zutelako. Sehaskan topatu ninduen, garbitu gabe. Amak onartu zuen ni ukitzeko beldur zela, ez bazen pixoihala paratzeko edo ahoan biberioia sartzeko. Biharamunean, amonak alaba bidali zuen, onartu zuena niri kasu egitea bere haurrak eskolan ziren bitartean, amari ongi irudituz gero. Bai eta ez. Amak lasaitu ederra izan zuen, seguru nago; ordea, aldi berean bere kontrako kritika zen. Baina ni eramatea onartu zuen.

Hala, bi mundutan hazi nintzen, bi hizkuntzen musikan murgildua. Mundu bat osatzen zuten Wheaties gosaritako zerealek eta Milton Berle telebistako izarrak. Beste mundua ogi frijituak eta salbiak. Bata hotza zen, baina nirea; bestea beroa, baina ez zen nirea.

Azkenean, gurasoek korridorea gurutzatzea debekatu zidaten: lau urte nituen. Gau batez, afaldu aurretik nire bila etorri ziren. Emakume talde batek afari handia prestatu zuen eta haur guztiak ekarri zituzten oturuntzara. Gurasoei galdegin zieten ea geldi nintekeen. Aita larritu egin zen aditu zuenean nola emakumeetako batek zerbait esaten zidan ulertzen ez zuen hizkuntza batean, eta nola nik erantzuten nion lehenago sekula aditu ga-

1 *Dineh*, Navajo, Navaho ala Naabeehó AEBen hego mendebaldeko jatorrizko herri indigena da (Arizona eta Mexiko Berria estatuetan bizi dira bereziki). 2015ean 300.000 kide zeuzkan, Txeroki nazioaren ostean AEBetako bigarren handiena [Oin-ohar guztiak itzultzailearenak dira].

beko hitzekin. Geroago esan zuen ezin egon zela deus egin gabe ikusirik bere haragi-odola indiarrek bahitzen zutela.

Gau haren gaineko zati eta puska batzuk besterik ez ditut aditu, eta ez dakit gertatutako guztia. Nahi nuke. Baina zati hau behin eta berriz aditu izan dut: emakumeetako batek gurasoei esan zien bide zaila izatekoa nintzela bizian. Hitz zehatzak aldatu egiten ziren kontatzen zuten aldiro. Batzuetan amak igarlearen plantak egiten zituen, begiak itxi, kopeta hatzez ukitu, eta esaten zuen: «bizitza zaila dakusat haur honentzat». Beste batzuetan aitak Ozeko aztiak bezala orro egiten zuen: «Haur hau bide zailan ibiliko da!».

Nolanahi ere, gurasoek handik atera ninduten. Alde egin aurretik, baina, amona hark eraztun bat eman zion amari, eta esan zion bizian babestuko ninduela. Eraztunak beldurra ematen zien gurasoei, baina bururatu zitzaien turkesa eta zilar haiek balioren bat izanen zutela, eta hartu egin zuten.

Gau hartan desertuko beste ekaitz izugarri bat izan zen, gurasoek esan zidatenez, ikaragarri indartsua. Trumoa zartatu zen, eta tximistak dena argitu zuen.

•••

—Jess Goldberg? —galdetu zuen irakasleak.

—Ni neu —erantzun nuen.

Irakasleak begiak erdi itxi zituen nireganantz.

—Zer izen mota da hori? Jessicaren laburdura al da?

Buruaz ezetz, nik.

—Ez, andereñoa.

—Jess —errepikatu zuen—. Hori ez da neska izena.

Burua apaldu nuen. Inguruko haurrek ahoa eskuz tapatzen zuten, irritxoak itotzeko. Miss Sanders anderea haiei begira gelditu zen, isildu ziren arte.

—Izen judua al da? —galdegin zuen. Baiezko keinua egin nuen, bukatu zuen esperantzan. Baina ez.

—Haurrak, Jess juduen erlijiokoa da. Jess, esaiezu nondik zatozen.

Eserlekuan uzkurtu nintzen.

—Desertutik.

—Zer? Hitz egin altuago, Jess.

—Desertutik nator. —Inguruan haurrak ikus nitzakeen elkarri keinuka.

—Zer desertsu? Zer estatutan? —Betaurrekoak sudurrean gora bultzatu zituen.

Beldurrak izoztu egin ninduen. Ez nekien.

—Desertua —sorbaldak altxatuz.

Miss Sanders pazientzia galtzen ari zen, nabarmen.

—Zer dela-eta etorri da zure familia Buffalora?

Nola jakin nezakeen? Zer uste zuen ba, gurasoek sei urteko seme-alabei esaten zietela zergatik hartzen zituzten bizitzan halako eragin potoloa zuten erabaki inportanteak?

—Autoz etorri ginen —nik.

Miss Sandersek ezezko keinua egin zuen. Eman nuen lehenbiziko inpresioa ez zen ona izan.

Sirenak garrasi egin zuen. Asteazken goizetako aire era-soaren entsegua zen. Ikasmahaien azpian bildu ginen, eta besoekin buruak babestu genituen. Bonba atomikoarekin, ohartarazi ziguten jende ezezagunarekin bezala jokatzeko: ez begiratzeko begietara. Bonba ezin baduzu ikusi, hark ere ezin izanen zaitu ikusi.

Ez zen bonbarik, egiazko kasuetarako praktika zen soilik. Baina sirenak salbatu ninduen.

•••

Pena nuen desertuaren berotik hiri hotz honetara etortzeagatik. Deusek ezingo ninduen prestatu ohatzetik ateratzeko, neguko goiz batez, Buffaloko berokuntzarik gabeko apartamentuan. Arropak jantzi aurretik labean berotzeak ere ez zuen askorik laguntzen. Ibili eta buelta, aurretik gure pijamak kendu behar genituen. Kanpoaldean hotza hain zen latza, haizea sudurretik sartu eta burmuina zulatzen zidan. Malkoak begietan izozten zitzaizkidan.

Ahizpa Rachel haur txikia zen oraindik. Gogoan dudan bakarra da elurretako jantzi borobil bat bufandekin bildua, esku-zorroekin eta kapelarekin. Arropak bakarrik, haurrik ez.

Negu gorrian ere, jantzietan bildu-bilduta nengoela eta aurpegiaren bi hazbete bakarrik erakusten nituela txanoaren eta bufandaren artetik, helduek geldiarazten ninduten eta galdetzen:

—Zer zara zu, mutikoa ala neskatoa?

Lotsaturik, begiak jaisten nituen, inoiz auzitan jarri gabe galdetzeko eskubiderik ba ote zuten.

Babespeko etxeetan, udan ez zegoen egiteko gauza handirik, baina bai egonean egoteko nahi adina denbora.

Babespeko etxeak armadaren etxolak izandakoak ziren, eta orain armadaren abioigintzako langileak eta beren familiak bizi ziren bertan. Aita guztiak fabrika berean aritzen ziren; ama guztiak etxean gelditzen ziren.

Martin Zaharra erretiratua zegoen. Etzaulki batean jartzen zen portxean, eta McCarthyren saioak aditzen zituen irratian. Hain altu jartzen zuen, eraikinerako bide guztian aditzen ahal zen.

—Kontuz ibili —esaten zidan bere etxe ondotik pasatzen nintzenean—, komunistak nonahi egon daitezke. Nonahi. Solemneki baieztatu egin eta jostatzeraz alde egiten nuen lasterka.

Baina Martin Zaharrak eta biok gauza bat konpartitzen genuen. Nire lagunik handiena ere irratia zen. *Jack Bennyren showak* eta *Fibber McGee eta Mollyk* irri eginarazten zidaten, nahiz eta ez nekien zer zen hain irrigarria. *The Shadowek* eta *The Whistlerrek* ikaratzeko ninduten.

Beharbada, ordurako, babespeko etxe horietatik kanpo langile familiariek telebista izanzen zuten, baina guk ez. Babespeko etxeetan karrikak ez zeuden ezta zolaturik ere: legarra zegoen bakarrik, eta aparkatzeko tokiak markatzeko, enbor batzuk zeuden, gure jostailuzko Lincoln enbor erraldoien gisakoak. Oso gauza berririk gutxi etortzen zen errepidetik. Pottokek tiratzen zituzten izotz saltzailearen gurdia eta zorrotzailearena. Larunbatetan pottokak bakarrik ekartzen zituzten, gurdirik gabe, eta buelta bat eman zenezakeen zentimo baten truke. Zentimo baten truke erosten ahal zenuen izotz saltzaileak pikotxez askatzen zuen horma puska bat. Izotza dentsoa eta irristakorra zen, eta distiratzeko zuten inoiz urtuko ez zen diamante hotz batek bezala.

Babespeko etxeetan agertu zen lehenbiziko telebista McKensietarren egongelan azaldu zen. Auzoko haur guztiek gurasoei erregutzen genien utz ziezagutela ikusten *Captain Midnight* McKensietarren telebista berrian. Baina gutako askori ez ziguten uzten haien etxera joatera. Nahiz 1955a izan, auzoan oraindik baziren gerra zonalde ikusezin batzuk, jatorria zutenak 1949an izandako greba latz batean. Urte hartan jaio nintzen ni, hain zuzen. «Mac»

McKensie eskirola izan zen. Hitza bera aski zen ni haien etxetik urrutiratzeko. Hitz horren aztarnak topatzen ahal zenituen haien ikaztegiko paretan, nahiz eta gainetik pintatu zuten, desberdina zen berde batean.

Urteak igarota ere, aitek oraindik greba hartaz eztabai-datzen zuten sukaldeetan eta atzeko patioetako barbakoien inguruan. Beren arteko elkarrizketetan, hain greba-gudu bortitzak deskribatzen zituzten, iruditzen zitzaidan Bigarren Mundu Gerra fabrikan gertatu zela. Gaez, aita bere txandara eramaten genuenean, fabrikako ataritik pasatu ahala, autoko atzeko eserlekuan uzkurto, eta kanpoaldera zelatan begiratzen nuen, orain lasai zeuden borroka zelaien aldera.

Babespeko etxeetan baziren bandak, eta greban eskirol izandakoen haurrek taldetxo beldurgarria osatzen zuten.

—E, maritxua! Zer zara zu, mutikoa ala neskatoa? —Babespeko etheen unibertso txikian ez zegoen haiek saihesterik.

Haien errepika iraingarria nire baitan gelditzen zen, haien ondotik pasatu eta denbora luzez.

Munduak gogor epaitzen ninduen, eta, hala, bakardaderantz jotzen nuen edo bulkatzen ninduten.

Errepidea muga zen babespeko etheen eta zelai gaitz baten artean. Arauen kontrakoa zen errepidea gurutzatzea. Ez zegoen trafiko handirik han. Denbora luzea beharko zenuen errei baten erdian jarririk auto batek harrapatzeko. Baina debekaturik nuen errepidea gurutzatzea. Hala ere, gurutzatzen nuen, eta inor ez zen ohartzen, antza.

Errepide bazterreko belar marroi luzeen artean tarte bat zabalitzen nuen. Behin hura iraganda, neure munduan nintzen.

Urmaelerako bidean, gelditzen nintzen zakurrei eta txakurkumeei bisita bat egitera, ASPCAren animalientzako aterpean, atzealdeko kioletan. Zakurrak zaunka hasten ziren eta atzeko hanken gainean zutitzen, ni hesira hurbildu ahala.

—Xxxxo! —ohartarazten nien. Banekien inork ez zuela atzealde hartan egon behar.

Spaniel batek sudurra bulkatu zuen burdin hesiaren kontra. Burua igurtzi nion. Inguruan bilatu nuen gehien gustatzen zitzaidan terrierra. Behin bakarrik etorria zen ni agurtzera, zuhurki usaintzera. Gehienetan, berdin ziren limurtzeko nire saiakera guztiak, burua hanka tartean paratzen zuen, eta begi

tristez begiratzten zidan. Etxera eramanez nukeen. Espero nuen maiteko zuen haur batek eramatea.

—Zer zara zu, mutikoa ala neskatoa? —galdegin nion zakur mestizoari.

—Zaunk, zaunk!!

Beranduegi izan arte ez nuen ikusi ASPCAko gizona.

—E, haurra, zer ari zara hemen?

Harrapatua.

—Deusetan ez —nik—. Deus txarrik ez dut egin. Zakurrekin solasean ari nintzen.

Irribarretxoak egin zuen.

—Ez itzazula hatzak hesitik sartu, mutikoa, batzuek hozka egiten dute.

Belarri puntetaraino gorritzen nintzela sumatu nuen. Buroaz baietz, nik.

—Belarri beltzeko txikiaren bila nenbilen. Familia atsegin batek hartu al du?

Gizonak kopeta zimurtu zuen une batez.

—Bai —esan zuen apalki—. Oso zoriontsua da orain.

Urmaelera presatu nintzen, zapaburuak pote batean hartzera. Ukondoan bermatu nintzen, eta hurbiletik begiratu nuen igel txikiak nola egiten zuten gora eguzkiak berotutako arroketan.

—Kroa, kroa!

Bele beltz handi bat zirkuluak egiten ari zen nire gainean, airean, eta inguruko arroka batean pausatu zen. Elkarriz begiratu genion, isilik.

—Belea, zer zara zu, mutikoa ala neskatoa?

—Kroa, kroa!

Irri egin, eta nire bizkar gainera jiratu nintzen. Zerua urdin zurixka zegoen. Imaginatu nuen kotoi zuriko hodeietan etzana nengoela. Lurra hezea zegoen nire bizkarraren kontra. Eguzkiak bero jotzen zuen, haizea freskoa zen. Pozik sentitzen nintzen. Naturak estu besarkatzen ninduen, eta ez zirudien faltarik ikusten zuenik niregan.

•••

Zelaietatik bueltan, eskirolen bandakoen ondotik pasatu nintzen. Itxi gabeko kamioi bat topatu zuten malda batean.

Mutiko handienetako batek eskuko freno askatu, eta behartzen ari zen mutiko gazteenetako bi azpitik pasatzera, kamioia aldapan behera joan bitartean.

—Jessy, Jessy! —kantatu zidaten, niregana lasterka.

—Brianek dio neska zarela, baina nik uste mutiko mari-txua zarela —esan zuen batek.

Ez nien erantzun.

—Tira ba, zer zara? —esan zidan burlaka.

—Kroa, kroa! —nik irriz, besoak hegaldaka.

Mutikoetako batek, kolpe batez, zapaburuen potea askara-zi, eta legarraren kontra hautsi zen. Ostiko bat eman eta hozka egin nien, baina heldu zidaten, eta eskuak bizkarrean lotu, arropa barreiatzeko soka batekin.

—Ikus dezagun nola egiten duzun pixa —esan zuen mutikoetako batek, aldi berean lurrera botatzen ninduela eta beste bi indarka saiatzten zirela nire galtzak eta azpiko arropa kentzen.

Oso beldurturik nengoen. Ezin nituen geldiarazi. Beren aurrean erdi biluztearen lotsak —erdirik inportanteena erakutsiz— indar gutzia kendu zidan.

Bultzaka, Mistress Jefferson zaharraren etxeraino eraman eta ikaztegian itxi ninduten. Bero zegoen ikaztegian. Ikatza zorrotza zen, eta aiztoek bezala ebakitzen zuen. Mingarria zen geldirik egotea, baina zenbat eta gehiago mugitu, orduan eta min handiagoa ematen zuten zauriek. Beldur nintzen ez nintzela sekula aterako.

Orduak igaro ziren Mistress Jefferson sukaldean aditu nuen arte. Ez dakit zer pentsatuko zuen ikaztegian halako kolpeak eta ostikoak sumatu zituenean. Baina ikaztegiko tranpako atetxoa ireki eta bihurrika atera nintzenean haren sukaldeko lurrera, seko erortzeko bezain beldurtua zirudien. Hantxe nengoen, kedarrez eta odolez estalia, lotua eta erdi biluzik, haren sukaldean. Ni askatu eta, eskuoihal batean bildurik, etxera bidaltzen ninduen bitartean, ahopeka biraoka aritu zen. Eraikin bat pasatu eta gurasoen etxeko atea jo behar izan nuen babesatopatzeko.

Asko haserretu ziren ni ikusitakoan. Ez dut sekula ulertu zergatik. Aitak behin eta berriz astindu ninduen harik eta amak, eskuarekin eta zerbait xuxurlatuz, haren besoa geldiarazi zuen arte.

Astebete geroago, eskirolen bandako mutiko bat harrapatu nuen. Akatsa egin zuen: bakarrik ibiltzea gure etxetik hurbilegi.

Nire bizepsa gogortu, eta ukitzeko esan nion. Orduan, ukabilkada eman nion sudurrean. Negar batean alde egin zuen; zoragarri sentitu nintzen, aspaldiko partez.

Amak afaltzeko deitu zidan.

—Norekin ari zinen jostaketan? —Soingainak igo nituen.

—Giharra erakusten ari zinen?

Harri eta zur gelditu nintzen. Zenbat ikusi ote zuen? Irri-barre egin zidan.

—Batzuetan, hobe izaten da mutikoei pentsaraztea indar-tsuagoak direla —esan zidan.

Nire baitan pentsatu nuen arrunt erotua zegoela, egiaz hala uste bazuen. Telefonoak jo zuen.

—Nik hartuko dut —oihukatu zuen aitak.

Sudurra zanpatutako haurraren gurasoak ziren; hala ondo-rioztatu nuen, ikusita aitak, entzun bitartean, nola begiratzen zidan.

•••

—A ze lotsa —esan zion amak aitari. Aitak atzerako ispi-lutik begiratzen zidan. Ikus nezakeen bakarra bere bekain lodi beltzak ziren. Amari esan zioten ezin nuela gehiago tenplura joan harik eta soineko bat janzten nuen arte, eta nik ez nuen halakorik inola ere nahi. Une hartan Roy Rogersen jantzia ne-raman, errebolberrik gabe. Tenpluarekin problemak izan gabe ere nahikoa zaila zen babespeko etxeetako familia judu bakarra izatea. Bide luzea egin behar izaten genuen autoz sinagoga hur-bileneraino. Aitak beheko solairuan errezatzen zuen.

Amak, ahizpak eta nik bigarren pisutik begiratu behar iza-ten genuen, zineman bezala.

Irudi zuen munduan ez zela judu askorik. Baziren batzuk irratian, baina batere ez eskolan. Jostalekuan egoten ez zieten uzten. Edo hala esaten zidaten haur handiek, eta betearazi egi-ten zidaten.

Etxetik hurbil ginen. Amak ezezko keinua egin zuen.

—Zergatik ezin da izan Rachel bezalakoa?

Rachelek lotsaturik begiratu zidan. Sorbaldak jaso nituen. Rachelen ametsa zen feltrozko gona bat txakurtxo baten adabakiarekin eta plastikozko zapata batzuk fantasiazko bitxiekin.

Aitak autoa gelditu zuen gure etxe pareko bazter batean.

—Zoaz zuzen zure gelara, andereñoa. Eta zaude hor.

Gaiztoa nintzen. Zigortu behar ninduten. Buruko mina nuen beldurraren beldurrez. Ona izateko modu bat topatu nahi nuen. Lotsak itotzen nengoen.

Arratsa zen kasik. Gurasoak entzun nituen Racheli deika, berekin elkar zedin beren logelan, Sabbateko argizariak pizteko. Banekien pertsianak jaitsirik egonen zirela. Hilabete lehenago, irriak eta oihuak aditu genituen egongelako leihotik kanpora, aita argizariak izekitzen ari zela. Lasterka leihoetara joan, eta saiatu ginen iluntasunean ikusten. Bi nerabek galtzak jaitsi, eta ipurdia erakutsi ziguten.

—Judu zikinak! —oihukatu zuten. Aitak ez zien alde eginarazi; gortinak itxi zituen. Handik aurrera, haien logelan hasi ginen otoitz egiten, pertsianak jaitsirik.

Familian denek ezagutzen zuten lotsa eta beldurra.

Handik gutxira, Roy Rogersen mozorroa desagertu egin zen arropa zikinen saskitik. Horren orde, aitak Annie Oakleyren mozorro bat erosi zidan.

—Ez! —oihukatu nuen— Ez dut nahi. Ez dut jantzi nahi. Ergela sentituko naiz!

Aitak besotik tira egin zidan.

—Andereñoa, 4,90 \$ gastatu dut Annie Oakleyren mozorro honetan, eta jantzi eginen duzu.

Saiatu nintzen haren eskutik askatzen, baina besoa indarrez harrapatzen zidan, mingarri. Malkoak masailetan beheiti erortzen zitzaizkidan.

—Davy Crocketten kapela nahi dut.

Aitak estutua handitu egin zuen.

—Ezetz esan dut.

—Baina zergatik ez? —negarrez—. Denek dute bat nik izan ezik. Zergatik ez?

Erantzuna esplikaezina izan zen.

—Neska zarelako.

•••

—Nazkaturik nago jendeak ea mutikoa ala neskatoa den galdetzeaz —entzun nuen ama aitari kexada—. Noranahi eramaten dudala ere, galdetzen didate.

Hamar urte nituen. Jada ez nintzen haur txiki bat, eta ez nuen haurren moñoñokeriaren arrastorik ere, haren atzean ezkutatzeke. Munduak nirekin zuen pazientzia agortzen ari zen, eta horrek ikaratu egiten ninduen.

Txikia nintzenean uste nuen edozein gauza eginen nuela nire baitan makurra zen hura aldatzeko. Orain jadanik ez nuen aldatu nahi, nahi nuen bakarra zen jendea ez zedila denbora guztian nirekin haserre egon.

Egun batez, gurasoek ahizpa eta biok erdialdera eraman gintuzten erosketetara. Allen karrikatik pasatzen ari ginela, pertsona bat ikusi nuen, eta ez nintzen gai izan haren sexua bereizteko.

—Ama, hura emazte-gizon bat da? —galdetu nuen boz goran.

Gurasoek begirada irribarretsua egin zioten elkarri, eta karkailaka hasi ziren. Aitak atzerako ispilutik begiratu zidan.

—Non aditu duzu hitz hori?

Sorbaldak altxatu nituen, ez bainekien seguru hitz hori sekula aditu nuenik ere ahotik atera aurretik.

—Zer da emazte-gizon bat? —jakin nahi izan zuen ahizpak. Ni ere jakin-minez nengo.

—Pertsona estrainio bat da —aitak, irriz—, *beatnikak* bezalakoa.

Rachelek eta biok baiezko keinua egin genuen, ulertu gabe.

Bat-batean bihozkada batek hartu ninduen. Goragalea eta zorabioa sentitu nituen. Baina beldur hori zernahik eragin zuela ere, sobera ikaragarria zen hartaz pentsatzeko. Sentipen hori etorri bezala joan zen.

•••

Gurasoen gelako atea kontuz ireki, eta barnera begiratu nuen. Banekien lanean zirela, baina haien logelan sartzea debekaturik zegoen. Beraz, lehenik so egin nuen, badaezpada ere.

Zuzenean joan nintzen aitaren armairuko aterantz. Han zen haren traje urdina. Horrek esan nahi zuen egun horretan grisa zeramala. Traje urdin bat eta traje gris bat: horixe da gizon

batek behar duen guztia, esaten zuen beti aitak. Haren gorbatak pertxa batetik zeuden dilindan, txukun.

Are ausardia handiagoa behar izan nuen aitaren komoda irekitzeko. Atorra zuriak zeuden tolesturik eta almidoiztaturik, ohol bat bezain zurrinak. Horietako bakoitza zeta-paperarekin zegoen bildua, opari baten gisan. Paperezko zerrenda urratutakoan, banekien saltsa ederrean sartu nintzela. Egindako nahas-mahasa ezkutatzeko tokirik ez nuen, amak berehalakoan aurkituko ez zuenik. Eta ohartu nintzen aitak segur aski zehatz-mehatz jakinen zuela zenbat atorra zituen. Denak zuriak izanik ere, seguruena ere asmatuko zuen esaten zein falta zen.

Baina beranduegi zen. Beranduegi. Kotoizko kulerotan eta kamisetan egon arte biluztu, eta haren atorran sartu nintzen. Hain almidoiztatua zegoen, nire hamaika urteko hatzek justu-justuan lot zezaketen lepoa. Gorbata bat hartu nuen pertxatik. Urteetan ikusia nuen aita trebeki korapiloa egin eta gorbata ongi paratzen, mugimendu zailak eginez, baina ni ez nintzen gauza izan puzzlea asmatzeko. Korapilo baldarra egin nuen. Oinazpiko batera igo nintzen trajea pertxatik jaisteko. Haren pisuak harritu egin ninduen. Izugarria zen. Trajearen jaka jantzi, eta neure buruari begiratu nion ispiluan. Soinu bat atera zitzaidan eztarritik, halako arnasestu bat. Gustatzen zitzaidan niri begira nuen neskakoa.

Oraindik ere zerbait falta zen: eraztuna. Amaren bitxien kutxa zabaldu nuen. Eraztuna gaitza zen. Zilarrak eta turkesak figura dantzari bat eratzen zuten. Ezin asma nezakeen emakumea edo gizona zen. Jadanik ez nituen hiru hatz behar eraztuna betetzeko; orain aski ziren bi, ongi egokitzeke.

Amaren apain-mahaiaren gaineko ispiluan begiratu nuen. Saiatu nintzen etorkizun urruna ikusten. Arropak ongi egokituko zirenean izanen nintzen emakumearen arrasto bat hartu nahi nuen.

Ez nuen antzik Sears katalogoan ikusitako inongo neska edo emakumerekin. Sasoi aldaquitatekin batera iristen zen katalogoa. Ni izaten nintzen irakurtzen lehena, orriz orri. Neska eta emakume guztiek itxura bertsua zuten, baita mutil eta gizon guztiek ere. Ezin topatu nuen neure burua nesken artean. Sekula ez nuen emakume heldurik ikusi handitzerakoan neuk izan nahi nuen itxura zuenik. Telebistan ez zegoen emakumerik ispiluko

emakumetxoa bezalakorik, ezta karrketan ere. Ongi aski nekien. Beti bila ari nintzen.

Ispilu hartan, une batez, bilakatuko nintzen emakumea niri begira ikusi nuen. Beldurtua eta tristea zirudien. Neure buruari galdegin nion ea nahikoa ausarta izanen ote nintzen handitu eta hura izateko.

Ez nuen logelako atea irekitzen aditu. Gurasoak ikusi nituenerako beranduegi zen. Biek ere uste zuten norberak eraman behar zuela nire ahizpa ortodontistarenera. Beraz, uste baino goizago ailegatu ziren etxera.

Gurasoen aurpegiak hormatu egin ziren. Hain ikaraturik nengoen, zur eta lur gelditu nintzen.

Ekaitz hodeiak biltzen ari ziren zerumugan.

•••

Gurasoek ez zuten hitz egin beren logelan aitaren arropetan ni aurkitu izanaz. Libratzeko otoitz egin nuen. Baina egun batean, handik gutxira, gurasoek ustekabea eraman ninduten. Esan zidaten ospitalera ninderamatela, odol analisi bat egitera. Igogailu batean igo ginen, ustez analisisa egin behar zidaten solairura. Uniforme zuriko bi gizon handi-handik atera ninduten igogailutik. Gurasoak ez ziren atera. Orduan, gizonak buelta eman, atea itxi eta igogailua blokeatu zuten. Eskua gurasoengana luzatu nuen, baina begiratu ere ez zidaten egin atea itxi bitartean.

Ikara bularrean pausatu zitzaidan elefante bat bezala. Arnasarik ere ezin nuen kasik hartu.

Erizain batek egonaldiko arauak azaldu zizkidan: Goizean jaiki behar nuen eta pabiloian egon egun osoan. Soineko bat jantzi behar nuen, esertzeko belaunak gurutzatu, atsegina izan, eta hitz egiten zidatenean irribarre egin. Ulertu banu bezala egin nuen baietz. Oraindik ere shockean nengoan.

Pabiloiko haur bakarra nintzen. Bi emakumerekin batera jarri ninduten gela batean. Bata oso emakume zaharra zen, eta ohatzera lotuta izaten zuten. Aieneka aritzen zen, eta han ez zeuden jendeen izenak oihukatzen zituen. Beste emakumea, zuria, gazteagoa zen.

—Paula naiz —esan zidan eskua luzatuz—. Pozten naiz zu ezagutzeaz.

Eskumuturrak bendaturik zituen. Azaldu zidan gurasoek mutil-laguna ikustea ere debekatu ziotela, beltza zelako. Penaren penaz eskumuturrak ebaki zituen, eta gurasoek leku hartara eraman zuten.

Ping-pongean eman genuen egunaren gainerakoa. Paulak erakutsi zizkidan *Are you lonesome tonight?* kantuko hitzak. Irri eta txalo egin zuen boza beheratzen nuenean Elvisena bezain baxu.

—Egin itzazu mantel babesak eta mokasinak —aholka-tu zidan Paulak—. Egin itzazu pilaka. Zenbat eta gehiago, hobe. Gustatzen zaie.

Ez nekien zer ziren mantel babesak.

Gau hartan lo egiteko zailtasunak izan nituen. Aditu nituen gizon batzuk xuxurlaka eta irriz, nire gelan sartu bitarte. Maindireak fuerte bildu nituen nire gorputz inguruan, eta oso geldi egon nintzen, isilik. Kremlera bat aditu nuen irekitzen. Pixaren usainak nire sudur zuloak bete zituen. Irri gehiago, eta gero pauso batzuk handik urrutiratzen. Maindireak mela-mela eginda zeuden. Beldur nintzen errua niri bota eta zigortuko nindutela. Nork egin zidan hori, eta zergatik? Paulari galdetuko nion biharamunean.

Erizainak eta zaindariak gure gelara etorri ziren, argia oraindik ere grisa zela barradun leihoetatik kanpora.

—Altxa! —esan zuten garrasika.

Emakume zaharra izenak oihukatzen hasi zen.

Paula zaindarien kontra borrokatu zen, eskuak hozkatu zizkien. Haiek madarikatu zuten, lotu, eta gurpil aulkian atera zuten gelatik.

Erizain bat nire ohatzera hurbildu zen. Oraindik ere suma nezakeen pixaren usainaren arrastoa maindiretan, baita lehortuta egonik ere. Hark ere usaintzen bazuen gelatik bidaliko ote ninduen? Bere karpeta aztertu zuen.

—Goldberg, Jess!

Beldurtu ninduen nire izena aditzeak.

—Ez dut honen daturik —esan zien zaindariei.

Gelatik atera ziren denak.

—Goldberg, Jess! —oihukatu zuen emakume zaharrak behin eta berriz.

Bazkalondoan, gordeka gelara itzuli nintzen nire yo-yoaren eske. Paula ohatzean jarririk zegoen, bere pantuflei begira. Niri begiratu, eta burua alde batera makurtu zuen. Eskua luzatu zidan.

—Paula naiz —esan zuen—. Pozten naiz zu ezagutzeaz.

Erizain bat gelan sartu zen.

—Zu —esan zuen ni seinalatuz.

Erizainen posturaino jarraitu nion. Paperezko bi baso eskaini zizkidan. Batean koloretako pilula politak zeuden kullankan, eta bestea urez beterik zegoen. Bi basoei begira gelditu nintzen.

—Har itzazu —agindu zidan erizainak—. Ez eman lanik niri.

Ordurako sumatu nuen langileei lana emateak esan nahiko zuela handik inoiz ez ateratzea; beraz, pilulak hartu nituen. Irentsi eta handik gutxira, lurra makurtzen hasi zen, oinez nindoala. Kola itsaskorrean ibiltzen ariko banintz bezala zen.

Egunero mantel babesak eta mokasinak egiten nituen. Emakume batekin kezkatzen hasi nintzen; ikusi ezin nituen mameui hitz egiten zien.

Eta, pazienteen liburutegian, Nortonen poesia antologia aurkitu nuen: bizia aldatu zidan. Behin eta berriz irakurri nituen poemak, esanahia igartzen hasi baino lehen ere. Hitzak nire begiek kanta zitzaketen musika notak ziren, baina ez zen hori bakarrik. Gainera, ikasi nuen denbora luzez hilik zeuden emakume eta gizonak mezuak utzi zizkidatela beren sentipenez eta emozioez, eta konparatzen ahal nituela neure sentipenekin eta emozioekin. Azkenerako topatu nituen ni bezain bakarrik zeuden beste batzuk. Nolabait ere, hori jakiteak hobeki sentiarazi ninduen.

Ni pabiloira ekarri eta hiru astera, erizain batek bulego batera eraman ninduen. Gizon bizardun bat zegoen mahai handi baten atzean pipa erretzen. Nire doktorea zela esan zidan. Orobat, esan zidan bazirudiela aurrerapenak egiten ari nintzela, gaztea izatea zaila zela, etapa gogorra pasatzen ari nintzela.

—Ba al dakizu zergatik zauden hemen? —galdetu zidan.

Asko ikasi nuen hiru astean. Ohartu nintzen munduak gehiago egin zezakeela ni epaitzeaz gain, ikasi nuen izugarritzko boterea erabil zezakeela nire kontra. Jada ez zitzaidan axola gurasoek ni ez maitatzea. Hori onartu nuen ospitale hartan bakarrik

bizirauten eman nituen hiru asteetan. Orain berdin zitzaidan. Gorrotatzen nituen. Eta ez nintzen haietaz fidatzen. Ez nintzen inortaz fidatzen. Nire gogoan ihes egitea besterik ez zegoen. Leku hartatik atera nahi nuen, eta etxetik alde egin.

Doktoreari esan nion pabiloiko gizonezko pazienteen beldur nintzela. Esan nion banekiela gurasoak nirekin atsekabaturik zeudela, baina zoriontsu egin nahi nituela, eta nitaz harro sentiarazi. Esan nion ez nekiela zer ari nintzen gaizki egiten, baina etxera joaterik banu, haren ustez egin beharreko zernahi eginen nuela. Ez zen egia, baina esan esan nuen. Buruaz baietz egin zuen, baina bazirudien interes handiagoa zuela pipa piztuta izatean niregan baino.

Bi egun geroago, gurasoak pabiloian agertu, eta etxera eram ninduten. Ez genuen hitz egin gertatutakoaz. Nik ihes egitean nuen burua, une egokiaren zain. Onartu behar izan nuen erozaina astean bitan ikustea. Espero nuen harengana denbora luzez joan behar ez izatea, baina hitzorduek zenbait urtez iraun zuten.

•••

Gogoan dut zein egunetan zehazki askatu zuen bonba erozainak: berak eta gurasoek erabaki zuten manera onen eskola bat oso lagungarria izanen zitzaidala. Eguna gogoan zizelkatua dut. 1963ko azaroaren 23a. Zorabiatuak atera nintzen bulegotik. Manera onen eskola baten umiliazioak gehiegizkoa zirudien, aguanta nezakeena baino gehiago. Neure burua hilen nukeen, modu ez-mingarririk aurkituz gero.

Irudi zuen jende guztia berdin tontoturik zebilela. Etxerra ailegatutakoan gurasoek telebista oso ozen zuten jarria, eta esatari batek kontatzen zuen nola lehendakaria tirokatu zuten Dallasen. Aita negarrez ikusten nuen lehenbiziko aldia zen. Mundu guztia bere onetik aterea zegoen. Logelako atea itxi eta lokartu nintzen, ihes egiteko.

Ez nuen uste aguanta nezakeenik manera onen eskola batek nire desberdintasunean argia proiektatzea. Baina nola edo hala ere handik igaro nintzen. Aurpegia gorritzen zitzaidan umiliazioz eta amorrazioz, gela osoaren aurrean ibili eta jiratu behar nuen bakoitzean, behin eta berriz.

Manera onen eskolak behin betiko erakutsi zidan ez nintzela polita, ez nintzela femeninoa eta ez nintzela inoiz dotorea izanen. Eskolaren lema zen: «Neska sartu, dama atera». Ni nintzen salbuespena.



Irudi zuenean gauzak ezin zirela okertu, ohartu nintzen bularrak handitzen hasi zitzaizkidala. Hilekoa ez zitzaidan inporta. Gorputz osoa odoleztatzen ez nuen bitartean, kontu pribatua zen nire gorputzaren eta neronen artean. Baina bularrak! Mutilak autoko leihotik gorputza atera eta gustu txarreko gauzak oihukatzen zizkidaten. Singer jaunak, farmazian, bularrak begiratzen zizkidan litxarrerriak erosten nituenean. Utzi nituen boleibol eta atletismo taldeak, gorroto nuelako bularrek ematen zidaten mina salto edo laster egitean. Gustatzen zitzaidan nolakoa zen nire gorputza pubertaroaren aurretik. Nolabait ere sinetsita nengoen ez zela inoiz aldatuko. Bada, ez!

Munduak niregan makur ikusten zuena edozer izanik ere, azkenerako hasi nintzen onartzen zuzen zeudela. Erruak gonbitoak bezala erretzen zidan eztarria. Bakarrik txikitzen zen Inori-inporta-ez-zaion-lurraldera itzultzen nintzelarik. Hala oroitzen nintzen desertuaz.

Behin, amets batean, *dineh* emakume bat etorri zen niregana. Garai batean kasik gauero egiten zidan bisita, baina ez psikiatrikoan izan nintzenetik, zenbait urte lehenagotik. Magalean hartu ninduen, eta esan zidan nire arbasoak bilatzeko eta nintzenaz harro egoteko. Eratzunaz oroitzeko esan zidan.

Iratzarri nintzenean oraindik ere ilun zegoen kanpoaldean. Ohatzeko barnealdean bildu-bildu egin nintzen, eta kanpoko erauntsia aditu nuen. Tximistek gaueko zerua argitzen zuten. Zain egon nintzen gurasoak jantzi arte, eta gordeka haien logelari sartu, eta eratzuna hartu nuen. Egunez, eskolako komunetako gelaxka batean itxi, eta eratzunari begiratu nion, haren botereaz galdezka neure artean. Noiz babestuko ninduen? Pentsatu nuen Midnight kapitainaren eratzun deskodetzaila bezalakoa izanen zela: aurkitu beharko zela nola funtzionatzen zuen.

Gau hartan, afarian, amak irri egin zidan.

—Berriz ere martetarrak bezala solasean aritu zinen amestetan, lotara joan ginenean.

Sardexka kolpean utzi nuen.

—Ez da martetarra!

—Andereñoa! —oihukatu zuen aitak—, logelara joan zaitezke.

•••

Institutuko korridoreetan nenbilela, neska talde batek esan zuen, kantuz, haien ondotik pasatzean:

—Animalia, minerala edo landarea da?

Ez nintzen egokitzen haien kategorietako bakarrean ere.

Banuen sekretu berri bat, zerbait hain izugarria, non bai banekien ezin izanen niola sekula inori kontatu. Nire baitan deskubritu nuen larunbat arratsaldeetako saioan, Colvin zinema aretoan. Arratsalde batez zinema aretoko komunean egon nintzen luzez. Oraindik ez nuen etxera joan nahi. Atera nintzenerako, helduen saioa ematen ari ziren. Gordeka sartu eta ikusten hasi nintzen. Sophia Lorenek bere gorputza aktore nagusiaren kontra nola mugitzen zuen ikusita, urtu nintzen. Sophiaren eskuak gizonaren lepondoa hartzen zuen elkar musukatzen zutenean, bere azazkal gorri luzeak haren larruazalean arrastatzen. Plazerez inarrosi nintzen.

Ordotik aurrera larunbat gau guztietan komunean ezkutatzen nintzen, gordeka sartzeko, eta helduen filmak ikusteko. Gose berri batek higitzen zidan barnea. Beldurtzen ninduen, baina ongi aski nekien ez niola inori ja ere esan behar.

Nire bakardadean hondoratzen ari nintzen.

Egun batez, institutuko Ingeleseko irakasleak, Noble andereak, etxeko lanak bidali zizkigun: gure poema kuttuneko zortzi lerro ekarri eta gela guztiaren aurrean irakurri. Ikasleetako batzuek kexaka eta marmarka esan zuten haiek ez zutela poema kuttunik, eta «as-per-ga-rri-a» zirudiela. Baina ni ikaratu nintzen. Gehien maite nuen poema leitzen banuen, babesgabe geldituko nintzen denen aurrean. Eta bestalde, inporta ez zitzaidan poema bateko zortzi lerro irakurtzea neure buruari traizioa egitea iruditu zitzaidan.

Biharamunean, leitzeko nire txanda iritsitakoan, matematikako liburua eramane nuen aldean gelako aurrealdera.

Seihilekoaren hasieran, testuliburua babesteko estalki bat egin nuen erosketako zorro marroi batekin, eta barneko hegalean Poeren olerki bat kopiatu nuen.

Eztarria garbitu eta Noble andereari begiratu nion. Irri-barre egin, eta baiezko keinua egin zidan. Lehenbiziko zortzi lerroak irakurri nituen:

Txikitatik izan naiz
desberdina, ez dut so egin
besteek bezala, udaberriaren baitatik
ez dut lilurarik atera.
Ez dut hartu nire pena
denon iturrian; ez zait
doinu berean bihotza poztu;
eta maitatu nuen guztia, bakarrik nuen maitatu.

Saiatu nintzen irakurtzen doinu lau batean, sentitu gabe, ikaskide bakar batek ere ez zezan ulertu zer esan nahi zuen poema hark niretzat, baina haien begiak asperduraz lausoturik zeuden. Begirada beheratu eta eserlekura itzuli nintzen. Noble andereak besoa estutu zidan bere ondotik pasatzean, eta begirada goratu nuenean malkoak ikusi nituen haren begietan. So egin zidan moduak niri ere negar egiteko gogoia eman zidan. Egiaz ikusten ahalko banindu bezala zen, eta haren begiek ez ninduten epaitzen.

•••

Mundu osoa mugimenduan zen, baina nire bizitza ikusirik ez zenuke halakorik asmatuko. Eskubide Zibilen mugimendua-
ren berri izateko modu bakarra zen etxean jasotzen genuen Life
aldizkariaren bitartez. Astero, etxean lehenbizikoa izaten nin-
tzen ale berriena irakurtzen.

Buruan ezin ahazturik gelditu zitzaidan irudia da bi iturri agertzen zituen argazkia: *kolorekoak* eta *zuriak* zioten etiketek. Beste argazki batzuek erakusten zuten jendea —azal ilunekoak eta argikoak— hura aldatzeko eginahaletan. Haien pankartak irakurri nituen. Odoletan ikusi nituen kafetegietan, Greensboron, altzairuzko aurpegia zuten tropei aurre egiten, Little Rocken. Ikusi nituen haien arropak gorputzetatik zintzilik, ur-mahukek eta polizia zakurrek

urratuak. Neure buruari galdegin nion ea noizbait horren ausarta izanen nintzen.

Washingtongo argazki bat ikusi nuen: toki bakar batean sekula pentsa nezakeena baino jendetza handiagoa bildu zen. Martin Luther Kingek bere ametsaz hitz egin zien. Hartan parte hartu nahiko nuen.

Gurasoen aurpegiak aztertu nituen, aldizkari berberak irakurtzen zituzten bitartean. Ez zuten inoiz horren gaineko hitzik esan. Mundua hankaz gora jartzen ari zen, eta haiek orriak pasatzen zituzten, Searsen katalogo bat begiratzen ariko balira bezala.

—Gustatuko litzaidake hegoaldera joatea, Askatasunaren Ibi-laldira —esan nuen afaltzen ari ginela.

Ikusi nuen gurasoek larritasun begiradak trukatzten zituztela. Isil-isilik segitu zuten afaltzen.

Aitak sardexka utzi zuen.

—Horrek ez du zerikusirik gurekin —eman zion akabera gaiari, irmo.

Amak aitari eta niri begiratzen zigun, txandaka. Ikusten nuen amak kosta ahala kosta saihestu nahi zuela etortzear zen leherketa. Irribarre egin zuen.

—Badakizue zer bururatu zaidan?

Biek begiratu genion.

—Badakizue Peter, Paul eta Maryren kantu hori, *Erantzuna, ene laguna, haizeak dakar?*

Baietz egin nuen buruarekin, gogoan zuena aditu nahi nuen.

—Ez dakit zer onura izan dezakeen haizeak dakarrenak.

Gurasoak irriz lehertu ziren.

•••

Hamabost urte nituela lan bat lortu nuen arratsaldeetan, eskolatik atera ondoren. Horrek dena aldatu zuen. Gurasoek bai-mena emateko, erozaina konbentzitu behar izan nuen aurretik. Konbentzitu nuen.

Inprimategi batean letrak eskuz konposatzen aritzen nintzen. Gelan nuen lagun bakarretako bati, Barbarari, esan nion lanik eskuratzen ez banuen hil eginen nintzela, eta bere ahizpa zaharragoak bat erdietsi zidan, gezurra esanez eta hamasei urte nuela zin eginez.

Lanean inori ez zitzaion inporta nik blue-jeanak eta kamiseta janztea. Dirutza ederra ordaintzen zidaten aste bukaeran eta lankideak atseginak ziren nirekin. Kontua ez zen ez zirela ohartzten desberdina nintzela; ohartzten ziren, baina bazirudien ez zitzairela inporta institutuko neska-mutilei adina. Eskola ondoren, presaka aldatzen nuen gona eta laster batean joaten nintzen lanera. Lankideek galdetzen zidaten zer moduzko eguna izan nuen, eta kontatzen zidaten nolakoak ziren gauzak haiek institutuan ibili zirenean. Nerabe batek ahaztu dezake helduak ere noizbait nerabe izan zirela, oroitarazten dioten arte.

Egun batez, beste solairu bateko langile batek Eddieri, nire kapatazari, galdegin zion:

—Nor da mari-mutila?

Eddiek irri baizik ez zuen egin, eta alde egin zuten, hizketan. Alde banatan nituen emakumeek begiratu zidaten, jakiteko ea mindurik nengoen. Batez ere, nahasirik nengoen.

Gau hartan, afaltzeko atsedendian, nire lagun Gloria ondoan jarri zitzaidan. Harira etorri gabe anaiari buruz hitz egin zidan: maritxua zela eta emakumeen arropak janztea gustatzen zitzaiola, baina maite zuela nolanahi ere, eta gorrotatzen zuela jendeak nola tratatzen zuen, zeren, azken batean, ez baitzen haren errua zen bezalako izatea. Kontatu zidan nola behin joan zen anaia eta bere lagunak ibiltzen ziren taberna batera, eta nola mari-gizon haiek inguruan ibili zitzaizkion. Hotzikara izan zuen kontatzean.

Zergatik kontatzen zidan hura dena?

—Non dago? —galdegin nion.

—Zer? —Bazirudien gaia atera izanaz damutu zela.

—Non elkartzen da jende hori?

Gloriak hasperen egin zuen.

—Mesedez —eskatu nion. Boza dardarka nuen.

Ingurura begiratu zuen erantzun aurretik.

—Niagara Fallsen —apaldu zuen boza—. Zergatik jakin nahi duzu?

Sorbaldak altxatu nituen.

—Nola deitzen da? —Besterik gabe galdetzen saiatu nintzen. Gloriak sakon egin zuen hasperen.

—Tifka's.

Besterik ez zuen esan.

3

Kasik urtebete pasatu zen Tifka'sen helbidea eskatzeko ausardia bildu eta telefonoz deitu nuenerako. Azkenik karrika hartan nengoen, tabernaren parean, hezurretaraino beldurtua. Neure artean galdegiten nuen zerk pentsarazi ote zidan leku hartan nire tokia topatuko nuela. Eta hala ez bazen, zer?

Jantzi nituen marra urdin eta gorriko atorra, marinel jaka urdin bat bularrak ezkutatzeko, kotoizko galtza lisatuak eta Ked markako kirol oinetako altuak, ez bainuen zapata dotorerik.

Barnean sartu eta... taberna bat besterik ez zen. Ke lainoaren artetik aurpegi batzuk ikusi nituen nire aldera begira, eta ni goitik behera aztertzen. Ez zegoen atzera bueltarik, eta ez nuen nahi ere. Lehenbiziko aldiz, nire jendea topa nezakeen. Baina ez nekien nola sartu sozietate horretan.

Barrara hurbildu eta Genny bat eskatu nuen.

—Zenbat urte dituzu? —galdetu zidan zerbitzariak.

—Nahikoak bai —erantzun, eta dirua utzi nuen.

Tabernan, irribarreak piztu ziren inguruan. Garagardo zurrupa bat hartu, eta lasai egotearen plantak egiten saiatu nintzen. *Drag queen* zaharrago batek arretaz azertu ninduen. Nire garagardoa hartu eta kez betetako barnealdera joan nintzen.

Ikusi nuenak urteetan eutsitako malkoak askarazi zizkidan: emakume bizkorak, sendoak, soinean gorbatak eta traje-jakak. Ilea atzeraka, «ahate buztan» moduko orrazkera perfektuan. Inoiz ikusitako emakumerik ederrenak ziren. Haietako batzuk pega-pega eginda ari ziren dantza mantsoan, soineko estuko eta takoi altuko emakumeekin. Takoidun emakumeek

xamurki laztantzen zituzten. Hura ikusteak behar-hasperen bat sorrarazi zidan.

Hura zen bizian irrika nezakeen guztia.

—Honelako taberna batean izan zara noizbait? —galdetu zidan *drag queen*ak.

—Askotan —nik, berehala.

Hark irribarre.

Orduan, zerbait galdegiteko halako beharra sentitu nuen eta gezurrari eustea ahaztu zitzaidan:

—Egiaz gonbida dezaket emakume bat garagardo bat har-tzera, edo dantza egitea eskatu?

—Jakina, maitea —esan zidan—, baina *femmei* bakarrik.

Irri egin, eta esan zidan Mona zuela izena.

Mahai batean bakarrik zegoen emakume batengan jarri nuen arreta. Jainkoa, zein ederra zen! Harekin dantzatu nahi nuen. The Four Tops taldea kantatzen ari zen *Baby, I need your loving*. Ez nekien seguru kantu mantso bat dantzatzen jakinen nuen, baina harengana joan nintzen zuzenean, ausardia galdu aurretik.

—Nirekin dantzatuko zinateke? —galdetu nion.

Monak eta gorilak hartu ninduten, kasik airean eraman ninduten tabernako aurrealdera, eta taburete batean jarri. Monak esku bat soingainean paratu, eta, begi-begietara so egin zidan.

—Haurra, zenbait gauza esan behar nizkizun. Nire errua da. Esan nizun ongi zegoela emakume bat dantzara gonbidatzea. Baina jakin behar duzun lehenbiziko gauza da: Ez halakorik eskatu Al Mari-mutilaren emakumeari!

Oharra gogoan hartzen ari nintzela, Al Mari-mutilaren itzala nire gainera etorri zen. Gorila tartean jarri zen, eta *drag queen*ek Al atzeko gelara eraman zuten. Aitaren batean gertatu zen dena, baina emakume hura ikuste hutsak hitzik gabe utzi ninduen. Indarra begien parean izatea bezalakoa zen Al Mari-mutila; gogoratzea eta ahaztea beldurgarria den oroitzapen bat bezalakoa.

Dardarka egon nintzen tabernan denbora luzez, gainerako guztientzat momentuko zirrara itzali ondoren ere. Tabernako aurrealdean desterratua sentitu nintzen, sartu nintzenean baino bakarrago nengoen, orain banekielako zer ari nintzen galtzen.

Argi gorri bat piztu zen tabernan. Monak eskutik hartu eta, barnealdea gurutzatuta, emakumeen komunera arrastaka eramán ninduen. Eserlekuko tapa jaitsi eta hartara igotzeko esan zidan. Gelaxkako atea erdi-itxi zuen eta hantxe isilik egoteko agindu zidan. Poliziak han omen ziren. Beraz, han egon nintzen kokoriko. Luze. Harik eta *femme* batek gelaxkako atea zabaldu eta ia seko gelditzeko ikara hartu arte ez nuen jakin polizia aspaldi alde egina zela, nagusiaren eskupekoarekin. Inor ez zen oroitzen haurra komunean gordea zegoela.

Handik ateratzen nintzela, taberna barnealdeko guztiek irri ederrak egin zituzten nire lepotik. Berriz ere aurrealdera erretiratu, eta garagardo bat ahalik gehien irauarazten egon nintzen.

Geroago, esku batek besoa hartzen zidala sentitu nuen. Hantxe zen dantza eskaera egin nion emakume eder hura. Al Mari-mutilaren *femnea*.

—Tira, maitea, eser zaitez gurekin —eskaini zidan.

—Ez, ongi nago hemen —esan nuen ahal bezain ausart. Baina, goxoki, bere besoz inguratu eta eramán ninduen.

—Tira, zatoz gurekin. Dena ongi dago. Alek ez dizu minik eginen —segurtatu zidan—. Haren zaunka hozka baino maku-rragoa da.

Duda egin nuen. Batez ere ikusirik zutik jarri zela gu mahaira hurbildu ahala.

Emakume handia zen. Ez dakit zer altuera izanen zuen zehazki. Haurra nintzen oraindik ere. Gainditzen ninduen garaieran eta zabaleran.

Berehalakoan maitatu nuen haren aurpegiaren indarra. Matrailaren egokiera. Begietako haserrea. Gorputza garraiatzeko modua. Kirol zamarrak aldi berean agertzen eta ezkututzen zuen haren gorputza. Kurbak eta zimurrak. Bizkar zabalak, lepo lodia. Bular handiak, estu bendatuak. Atorra zuriaren zimurdurak, gorbata eta jaka. Aldakak ezkutatuak.

Goitik behera begiratu zidan. Nire jarrera zabaldu nuen. Hura ohartu. Ahoak ez zuen irribarrerik egin, baina begiek bai-edo. Esku sendoa luzatu zidan. Estutu nion. Bere estutuaren irmotasunak ustekabeen harrapatu ninduen. Are gehiago estutu zuen. Nik berdin. Erastunik ez izatea eskertu nuen. Estutzea handitu zuen eta nik ere bai. Azkenik, irribarre egin zuen.

—Bada zuretzako esperantzarik —esan zuen.

Gorritzen naiz oroitzuz zer esker onez hartu nituen haren hitzak.

Segur aski harropuzkeriatzat hartuko zenuen estutu hori. Baina orduan hori baino gehiago izan zen niretzat, eta oraindik ere hala da. Ez da bakarrik indarra neurtzeko modu bat. Halako estutu bat desafioa da. Boterea bilatzen du adorea mailakatuz. Indar handieneko puntuan, behin ekitatea ezarririk, orduan eza-gutu dezakezu norbait egiaz.

Al Mari-mutila egiaz ezagutu nuen. Zirrara nuen. Eta beldurra. Ez nukeen beharko. Inor ez da nirekin atseginagoa izan. Zakar samarra zen nirekin, bai. Baina zakartasun hori zipriztintzen zuen tarteka nire ilea igurtziz, nire sorbaldak besarkatuz, eta aurpegia ukitzen zidan laztana baino gehiago eta zaplaztekoa baino gutxiago zirenak emanez. Atsegina zen. Gustatzen zitzaidan haren ahotseko maitasuna haurra deitzen zidanean; maiz egiten zuen. Haren hegalpean hartu ninduen, eta erakutsi zizkidan bere ustez ni bezalako mari-mutil ume batentzat inportanteenak ziren gauzak, halako bide arriskugarri eta mingarrian hasi aurretik. Bere moduan, pazientzia handia izan zuen horretan.

Garai hartan, Tenderloin distrituko gay tabernak portzentajearen bidez azter zitezkeen. Tifka's %25 zen gay, gutxi gorabehera. Horrek esan nahi zuen mahaien eta dantzalekuaren laurden bat zela gurea. Beste hiru laurdenak beti gure lurraldearen kontra bultzaka ari ziren. Alek erakutsi zidan nola eutsi behar genion geure esparruari.

Ikasi nuen geure etsai mortalen —polizien— beldur izaten, eta putazainak gorrotatzen, menperatzen baitzituzten guk maitatzen genituen hainbeste emakumeren biziak. Eta irri egiten ikasi nuen. Uda hartan, ostiral eta larunbat gauak irriz eta adar jotze —oro har— atsegin bezalakerik egon ziren.

*Drag queen*ak magalean esertzen zitzaizkidan eta Polaroid argazkietarako posatzen genuen. Askoz geroago arte ez genuen jakin argazkiak hartzen zituen gizona polizia ezkutua zela. Lesbiana zaharrengan ikus nezakeen neure etorkizuna. Eta ikasi nuen zer nahi nuen beste emakume batengandik, ikusita Al Mari-mutila eta bere maitale Jacqueline.

Uda osoan haiekin ibiltzen utzi zidaten. Gurasoei esan nien txanda bikoitza egiten ari nintzela ostiral eta larunbat gau-

tan, «unibertsitaterako aurrezteko», eta gaua pasatzen nuela lanetik hurbil bizi zen eskolako lagun baten etxean. Nire alibia sinestea aukeratu zuten. Aste osoan zain egoten nintzen ostiral gaua noiz iritsiko, lanetik goiz atera eta Niagara Fallserako bidea hartzeko.

Taberna itxitakoan karrikan ibiltzen ginen, moxkor samar, Jacquelineen beso banari helduta. Burua atzeraka botatzen zuen, zerurantz, eta esaten:

—Eskerrik asko, Jainkoa, bi mari-mutil eder hauengatik!

Eta Al eta ni aurreraka makurtu, elkarri begia kliskatu, eta denek irri egiten genuen, pozaren pozez ginena ginelako, elkarrekin geundelako.

Astebururo beren sofa zaharra beratzean lo egiten uzten zidaten. Jacquelinek arrautzak egiten zituen goizeko lauretan, Alek irakasten zidan bitartean. Beti ikasgai bera izaten zen: eutsi gogor. Alek ez zuen inoiz esaten zehazki zer zetorkidan. Ez zuen sekula argi eta garbi esaten. Baina beldurgarria zela sentitzen nuen. Badakit kezkatzen zela ea bizirik iraunen ote nuen. Neure artean galdegiten nuen prest ote nengoen. Alen mezua zen: «Ez zaude!».

Horrek ez zuen adorerik ematen. Baina banekien Alek uste zuela lehenbailehen prestatu behar ninduela halako bizi gogorrerako, eta horregatik zirela zorrotzak haren ikasgaiak. Inoiz ez ninduen mindu nahi izan. Nire mari-mutil indarra elikatu zuen zekien bezain ongi. Eta, oroitarazten zidan maiz, inork ez zuen berearekin halakorik egin mari-mutil umea zenean, eta hala ere bizirik iraun zuen. Arraroki lasaigarria zen. Al Mari-mutila nuen gidari.

Alek eta Jackieak apaintzen ninduten. Hitzez hitz. Jacquelinek ilea mozten zidan sukaldean. Eraman ninduten nire lehenbiziko kirol zamarrak eta gorbatak erostera, bigarren eskuko dendetara. Alek esekitokiak goitik behera miatzen zituen, eta kirol zamarrak ateratzen, bata bestearen atzetik. Guzti-guztiak probatzen nituen. Jackieak burua alde batera makurtzen zuen, gero aldeetara astintzen. Azkenerako, Jackieak nire hegala leundu eta baiezko keinua egin zuen, oniritzia emanez. Alek onarpeneko txistu isil bat egin zuen. Hila nintzen eta mari-mutilen zeruan nengoen!

Gero gorbata. Alek niretzat aukeratu zuen. Zetazko beltz mehar bat.

—Gorbata beltz batekin ezin duzu hutsik egin —jakinarazi zidan solemneki. Eta, jakina, arrazoi zuen.

Oso dibertigarria zen. Baina sexuaren gaiak erabat estutzen ninduen, eta Alek bazekien. Gau batez, sukaldean ginela, Alek kartoizko kutxa bat atera eta eman zidan, ireki nezan. Barnean gomazko dildo bat zegoen. Harri eta zur gelditu nintzen.

—Badakizu zer den? —galdegin hark.

—Jakina —nik.

—Badakizu zer egin honekin?

—Jakina —Gezurra.

Jackie platerak garbitzen ari zen.

—Al, Jainkoaren izenean. Emaiozu atsedena haurrari, bai?

—Mari-mutil batek gauza hauek jakin behar ditu —Alek setati.

Jackiek trapua jaurti, eta sukaldetik lekutu zen, bere onetik aterea.

Hau izanen zen gure mari-mutilen «aita- seme» solasa. Alek hitz egin eta nik aditu egin nuen.

—Ulertu duzu? —premiatu ninduen.

—Jakina —nik—, jakina.

Jackie sukaldera itzuli zenerako, Alek nahikotzat jo zuen irakatsitakoa.

—Azkeneko gauza bat, gaztea —erantsi zuen Alek,— ez zaitez izan lesbiana horiek bezalakoa, honelako bat jarrita harropuzkeriatan ibiltzen direnak bezalakoa. Izan dezentzia pixka bat. Ulertzen?

—Jakina —nik. Gezurra.

Alek gela utzi zuen dutxa hartzeko, lotara joan aurretik. Jacqueline platerak lehortzen aritu zen, eta denbora izan nuen nire aurpegiko gorria desagertzeko eta lokien taupadak baretzeko. Sukaldeko aulki batean jarri zen nire ondoan.

—Ulertu al duzu Alek azaldu dizuna, maitea?

—Jakina —nik, eta zin egin nuen ez nuela berriz hitz hori esanen.

—Ba al da ulertu ez duzun zerbait?

—Tira —hasi nintzen pixkanaka—, badirudi praktika pixka bat eskatzen duela, baina ideia orokorra harrapatu dut. Esan nahi dut eguerdi eta gauerdiko zera horrek denak dirudiela, tira... Badirudi praktikatu behar duzula ongi egiteko.

Jacquelinek nahasia zirudien. Orduan irriz hasi zen harik eta malkoak masailetan beheara erori arte.

—Maitea —hasi zen, baina irriak ez zion segitzen uzten—. Maitea. Ez duzu ikasiko larrutan egiten *Popular Mechanics* irakurtzen. Horrek ez du mari-mutil bat maitale on bihurtzen.

Horixe zen jakin beharra nuena!

—Ongi da, orduan zerk bihurtzen du mari-mutil bat maitale on? —galdetu nuen, erantzuna asko ere inportako ez balitzait bezala. Aurpegiara gozatu zitzaion.

—Azaltzeko zail samarra da. Nik uste maitale ona izatea dela *femme* errespetatzea. Haren gorputza aditzea. Baita sexua gogor samarra-edo bihurtzen bada ere, hori da berak nahi duena, eta beraz zure baitan atsegina izaten ari zara. Ulertzen?

Ez nuen ulertzen. Nahi nuena baino informazio gutxiago zen. Baina azkenerako ikasi dut horixe zela behar nuen informazioa. Kontua da bizi osoa behar izan dudala horren gainean pentsatzeko.

Jacquelinek nire eskuetatik hartu zuen gomazko zakila. Eskutan izan al nuen denbora guztian? Izterrean paratu zidan kontu handiz. Gorputza berotu zitzaidan. Goxoki ukitzen hasi zen, oso gauza ederra balitz bezala.

—Begira, oso ongi pasarazten ahal diozu emakume bati honekin. Beharbada bere bizitza guztian baino hobeki.

Dildoa laztantzeari utzi zion.

—Edo egiazko mina egiten ahal diozu, eta oroitarazten ahal dizkiozu bizitzan jasandako zauri guztiak. Horretaz pentsatu behar duzu hau janzten duzun aldiro. Orduan maitale ona izanen zara.

Zain gelditu nintzen, gehiago esanen zuen esperantzan. Baina ez. Ni lotara joan nintzen. Lokartu aurretik, saiatu nintzen esan zidaten hitz bakoitza gogoan hartzen.

•••

Monique nirekin flirteatzen hasi zenean, tabernako guztiak begira zeuden. Moniquek hezurretaraino beldurtzen ninduen. Jacquelinek esan zuen behin Moniquek sexua arma gisa erabiltzen zuela. Egiaz desiratzen ote ninduen Moniquek? Mari-mutilek zioten baietz; beraz, hala izanen zen. Nolabait denek bat-batean jakin zuten nire mari-mutil birjintasuna Moniquekin galduko nuela.

Ostiral gauean mari-mutilek nire sorbaldan kolpetxoak eman zizkidaten, bizkarrekoak ere bai, gorbata ongi paratu zidaten, eta haren mahaira bidali ninduten. Monique eta biok elkarrekin alde egin genuenean ohartu nintzen gainerako *femme* bakar batek ere ez ninduela adoretu. Jacquelinek zergatik ez zidan begirutzen? Bere azazkal luze pintatuekin whisky basoari kolpetxoak ematen ari zen, hari begira, gelako gauza bakarra balitz bezala. Iristear zen ezbeharrak sumatzen ote zuen neuk baino lehen?

Hurrengo gauean berandu joan nintzen tabernara, ustez Monique eta bere jendea ez zela han zain egonen. Han ziren. Gure mahaira ihes egin eta eseri nintzen. Inork ez zekien zehazki zer gertatu zen edo ez zen bezperan. Baina denek bazekiten zerbait oso gaizki joan zela.

Hantxe nengoen jarririk, lotsan itota, bezperako hitzordua gogoan. Ikaratua nengoen Moniqueren etxera iritsi ginenerako. Bururatu zitzaidan egiaz ez nekiela zer zen sexua. Noiz eta nola hasten zen? Zer espero zen nik egitea? Eta Moniquek asko beldurtzen ninduen. Halako batean iritzia aldatu nuen. Ez nuen egin nahi. Honetaz eta hartaz hizketan hasi nintzen urduri. Moniquek harro egin zuen irribarre. Sofatik aulkira mugitu nintzenean atzetik segitu zidan.

—Zer gertatzen da? —nitaz burlaka—. Ez al nauzu gustuko, maitea? Zer gertatzen da, e?

Berriketa tontoan aritu nintzen harik eta Monique bere onetik aterata zutitu zen arte.

—Alde zakurraren ipurdira! —nirekin nazkaturik.

Ahopeka barkamen hitzak lardaskatu, eta lasterka alde egin nuen haren etxetik.

Baina tabernara itzulita, ezin ondorioei ihes egin. Moniqueren pareko mahai batean jarri nintzen eta kopeta hatzekin igurtzi nuen, oroitzapena garbitzen ahal banu bezala. Jakin nahi-ko nuen zenbat irauun zezakeen gau hark. Luze. Oso luze.

Moniquek zerbait xuxurlatu zion ondoan zuen mari-mutulari. Mari-mutila gelako beste puntatik gure mahaira hurbildu zen.

—E, —deitu zidan. Ez nuen begirada altxatu—. E, *femmea*, egiazko mari-mutil batekin dantza egin nahi?

Aulkian bihurritu nintzen. Alek zerbait esan zion ahopeka, aditu ez nuena.

—O, barkatu, Al, ez nekien zure *femmea* zenik.

Al altxatu, eta jo egin zuen, gutako inor deustaz ohartu aurretik. Orduan Alek niri begiratu zidan, esperoan. Mari-mutilari eusten ari zen, zeina tolesturik baitzegoen. Nahi zuen emakumea jo nezala, nire ohorea defendatzeko. Gela hartan ez zegoen inor jo nahi nuenik, salbu beharbada neure burua. Ez nuen defendatu beharreko ohorerik.

Moniqueren ondoko mari-mutilak zutik zeuden, gela gurutatzeko prest. Al eta gure aldeko mari-mutil guztiak lerrokaturik zeuden mahai aurrean, ni defendatzeko. Jacquelinek eskua paratu zidan izterrean, berresteko ez nuela borrokatzeko obligaziorik. Ez zegoen keinu horren beharrik. Mona atzetik etorri, eta eskuak sorbaldetan jarri zizkidan. *Femmeak* nire alde lerrokatu ziren. Burua eskuetan hartu nuen, aldeetara astintzen, dena geldiaraz zedila desiratuz. Baina ez zen halakorik gertatuko.

Azkenerako, Moniqueren jendeak atzera egin zuen. Baina gutako inork ez zezakeen taberna utz haiek alde egin arte, bestela eraso egingen ziguten. Gau luzea izanen zen.

Al haserre bizian zegoen nirekin.

—Lesbiana horri zuri horrela hitz egiten utziko diozu? —
Mahaia jo zuen, hitzen indargarri.

—Zaude isilik, Al! —Jacquelinek, zakar.

Hainbeste harritu ninduen, aurpegia harengana goratu nuen. Ali begira zegoen, kopetilun.

—Uztazu haurra bakean, bai?

Alek niri oihukatzeari utzi zion, baina bizkarra eman zidan, eta dantzan ari ziren bikoteei begira gelditu zen. Bere gorputz-lengoiak esaten zuen oraindik ere haserre zegoela nirekin. Jacquelinek, besterik gabe, kolpetxoak ematen zizkion bere whisky basoari, aurreko gauean bezala. Denbora luzea behar izan nuen *femmeen* Morse kodea ikasteko.

Handik tarte batera, tabernako jendetza murrizten hasi zen. Yvette etorri zen. Jacquelinek kezka nabarmenez begiratzen zion.

—Zer gertatzen da? —galdegin nuen, autoerrukitik atereaz.

Jackiek aurpegia aztertu zidan.

—Zuk esanen didazu.

Yvetteri begiratu nion. Jacqueline bezala, karriketan ari-tua zen nerabea zenetik. Alek Jackie karriketatik aterarazi zuen. Alek bientzako dirua atera zezakeen, auto fabrikari irabazten zuenarekin, sindikatuak babestutako lanpostuan.

Yvettek ez zuen fabriketan aritzen zen mari-mutilik. Yvettek ez zuen inor bere lankideak baizik.

—Badirudi gau gogorra izan duela —ausartu nintzen.

Jacquelinek baietz, buruarekin.

—Karrika krudelak dira hauek. Ederki zauritzen gaituzte.

Txunditu nintzen informazio horrek iradokitako intimitatearekin. Orduan, itxuraz, gaia aldatu zuen.

—Zer nahi du zure ustez, une honetan? —galdetu zidan Jacquelinek.

—Bakarrik utz dezatela —esan nuen, neure beharretan pentsatuz.

Irribarre, hark.

—Bai, bakarrik utz dezatela nahi du. Ez du nahi mundu zerri honetan beste inork berarengandik deus eskatzerik gau honetan. Baina seguru gustura hartuko lukeela kontsolamendu pixka bat; ulertzen zer esaten dudan? —Beharbada bai—. Gerta daiteke oso gustura hartzea zu bezalako mari-mutil bat joaten bazaio eta dantza egitea eskatzen badio, hori besterik ez, bai? Ez flirteatu.

Pentsatu nuen beharbada egin nezakeela. Edozein gauza, neure lotsaren eztena ateratzeko.

Jacquelinek mahukatik tira egin zidan.

—Izan atsegina. Ulertzen?

Baiezko keinua egin eta taberna gurutzatu nuen, mantso, Yvette zegoen lekuraino. Hark buruari eusten zion eskuekin. Eztarria garbitu nuen. Begi nekatuz begiratu zidan eta edariari hurrupa bat egin zion.

—Zer nahi duzu? —galdegin zidan.

—A, pentsatu dut... Nirekin dantza egingen zenuke?

Buruaz ezetz egin zuen.

—Agian geroago, laztana, bai?

Beharbada izan zen hantxe gelditu nintzela. Ez zegoen atzera itzultzerik ez Moniquereren ez nire taldearen aurrean dantzarik egin gabe. Ez nuen horretan pentsatu. Eta Jackiek? Edo beharbada izan zen Jackieren begiek bat egin zutela Yvetterene-kin. Kontua da azkenean Yvettek esan zuela:

—Bai, zergatik ez —eta nirekin dantza egiteko zutitu zen.

Haren zain gelditu nintzen dantzalekuan. Roy Orbinsonen ahotsa leuna eta ameslaria zen. Geldirik egon nintzen, haren

eskua nirean, harik eta lasaitu eta niregana hurbildu zen arte. Pixka bat dantzatu eta Yvettek esan zidan:

—Arnasa har dezakezu nahi baduzu, bai? —Gogotik egin genuen irri, batera.

Orduan, sentitu nuen haren gorputza gehiago hurbildu eta nolabait bat egin ginela. Deskubritu nituen *femme* batek mari-mutil bati ematen ahal dizkion sorpresa goxo guztiak: haren eskua nire lepondoan sentitzea, bizkarrean, eskua zabalik edo ukabilean bildurik. Haren sabel-izterrak nireen kontra izatearen sentsazioa. Haren ezpaineak nire belarriak kasik ukitzea.

Musika bukatu, eta alde egiten hasi zen. Eskuari eutsi nion, atsegin.

—Mesedez? —galdegin nuen.

—Maitea —irriz—, hitz magikoa esan duzu.

Zenbait kantu mantso dantzatu genituen segidan. Gure gorputzak ahaleginik gabe kulunkatzen ziren dantzaleku boro-bilean. Nire eskua haren bizkarrean nuen, eta presio aldaketarik txikiena egin eta haren gorputzaren mugimendua aldatzen zen. Ez nuen izterra haren pelbisean inoiz bermatu. Banekien hor zauritu zutela. Mari-mutil gaztea izanik ere, neuk ere toki huraxe babesten nuen. Haren mina sentitzen nuen, hark nirea ezagutzen zuen. Haren desira sentitzen nuen, hark nirea pizten zuen.

Azkenean, musika gelditu, eta joaten utzi nion. Masailean musu eman nion, eta eskerrak eman. Dantzalekua gurutzatu nuen nire mahairaino. Betiko aldatu nintzen.

Jacquelinek izterrean kolpetxoak eman eta irribarre goxoa egin zidan. Beste *femmeek* —gizon nahiz emakume— desberdin begiratzen zidaten. Munduak txikitzen gintuenez, haiek saiatzen ziren gure samurtasuna babesten eta elikatzen. Nire samurtasunerako gaitasuna zen ikusi zutena.

Beste mari-mutilek izaki sexual gisa onartu behar izan ninduten orain, lehiakide gisa. Alek berak ere desberdin begiratzen zidan.

Hain mingarria izandako erritual hura dena, inimizazio erri-tua izan zen, ez gehiago eta ez gutxiago. Ez nintzen harroputza sentitzen. Horrek erakutsi zidan apaltasuna zela emozio egokia emakume baten pasioaren indarra askatu nahi banuen.

Etsaiekin indartsu, maite eta errespetatzen nituenekin xamur. Halakoxea izan nahi nuen. Laster ezaugarri horiek sutan jarri beharko nituen. Baina oraingoz, zoriontsua nintzen.

•••

Hurrengo ostiral gaua zalapartatsua izan zen. Denak ibili ginen irri eta dantza. Begi bazterretik Yvette bilatzen nuen. Jacqueline ohartu bide zen, izan ere azaldu zidan Yvetteren putazainak ez ziola utziko mari-mutil egonkorrik izaten. Urdaila amorrazioz estutu zitzaidan. Hala ere erne segitu nuen. Ibili eta buelta, putazain batek ezin du jakin gertatzen den guztia, ez da hala?

Argi gorriaren flashak taberna hartu zuenean, emakumeen komunera jo eta gelaxkan zegokidan lekua onartu nuen. Denbora luzea igaro zen. Kolpeak eta zenbait garrasi aditu nituen. Gero dena isilik geratu zen.

Komunetik kanpora gordeka begiratu nuen. *Butch* handiak eta *drag queen* guztiak lerrokaturik zeuden paretari begira, eskuak bizkarraldean eskuburdinez loturik. Poliziek, *femme* bat prostituta zela zekitenean, zanpatu eta gainerakoengandik bereizten zuten. Ordurako banekien gutxienez ere zakil zurrupada bat beharko zutela gau hartan kartzelatik ateratzeko.

Polizia batek ni ikusi eta atorraren lepotik heldu zidan. Eskuburdinak paratu eta gelako beste aldera bultzatu ninduen. Al bilatu nuen, baina ordurako hasiak ziren jendea kanpoaldeko furgonetetara eramaten.

Jacqueline lasterka etorri zitzaidan.

—Zain ezazue elkar —esan zidan—. Izan kontu, maitea —erantsi zuen.

Buruaz baietz, nik. Eskumuturrak modu mingarrian nituen lotuak bizkarraldean. Beldurturik nengoan. Saiatuko nintzen kontu handia izaten. Espero nuen Alek eta biek elkar zaindu ahal izatea.

Harrapatu nindutenerako, mari-mutilen furgoneta beterik zegoen. Monarekin eta beste *drag queen*ekin joan nintzen polizien kamioian. Poztu nintzen. Monak masailean musu eman zidan, eta beldurrik ez izateko esan. Dena ongi joanean zela. Hura

egia bazen, neure buruari galdetu nion zergatik ziruditen *drag queen* guztiek nik bezain ikaratuak.

Komisarian Yvette eta Monique ikusi nituen, ordurako karrikako sarekada batean atxilotuak. Yvettek adore emateko irribarrea egin zidan, nik begia kliskatu nion. Polizia batek komisariako barnealdera bulkatu ninduen. Mari-mutilen zulora eramaten ninduten. Al ateratzen ari ziren ni sartu ahala. Izenez deitu nion. Itxuraz, ez zidan aditu.

Poliziek hantxe itxi ninduten. Gutxienez orain eskumuturak eskuburdinetatik libre nituen. Zigarreta bat erre nuen. Zer pasatuko zen ondoren? Leiho saredun batetik ikusi nuen nola larunbat gauetako mari-mutil batzuei izena hartzen ari zitzaizkien. Al kontrako norabidean eramana zuten.

*Drag queen*ak gure ondoko gela handi batean zituzten. Monak eta nik elkarrirribarre egin genion. Une hartan hiru poliziak agindu zuten Mona handik ateratzeko. Gorputzak atzera egin zion pixka batean. Malkoak zituen begietan. Orduan aurrera egin zuen haiekin batera, ez zuten arrastaka atera.

Itxoin nuen. Zer ariko zen gertatzen?

Ordu bat-edo geroago poliziek Mona ekarri zuten. Bihotza urratu zitzaidan ikusi nuenean. Bi poliziak ekartzen zuten; nekez egon zitekeen zutik. Ilea bustia zuen eta aurpegian itsatsia. Makillajea desitxuratu zuen. Odola zerion josturarik gabeko medietan behera. Nire ondoko gelara bota zuten. Erori zen lekuan gelditu zen. Kasik ezin nuen arnasarik hartu. Xuxurlatu nion:

—Maitea, nahi duzu zigarreta bat? Erre nahi? Zatoz hona, nire ondora.

Tontoturik begiratu zidan, ezin mugituz. Azkenerako, nire ondoko burdinetara arrastatu zen. Zigarreta bat piztu, eta eskuratu nion. Erretzen zuen bitartean, besoa burdinen artetik pasatu eta ilea laztandu nion goxoki, eta nire eskua soingainean paratu. Mantso hitz egin nion. Denbora luzez, bazirudien ez zidala aditzen. Azkenik, kopeta burdinen kontra jarri zuen, eta bi besoz inguratu nuen.

—Aldatzen zaitu —esan zidan—. Hemen egiten dizutenak, egunero karriketari hartzen duzun kaka guztiak... Aldatzen zaitu, badakizu?

Adi egon nintzen. Irribarre egin zidan.

—Ezin naiz oroitu zu bezain goxoa izan ote nintzen sekula zure adinean. —Irribarrea desagertu zen—. Ez zaitut aldatzen ikusi nahi. Ez zaitut ikusi nahi gogortzen zarenean.

Ueltu nion gutxi gorabehera. Baina oso kezkatuрик nengoen Alekin, eta ez nekien zer gertatuko zen nirekin. Eztabaida filosofiko samarra zirudien. Ez nekien biziko ote nintzen esperientziak aldatuko ninduen adin bateraino. Gau hartatik bizirik atera nahi nuen, besterik ez. Al non zen jakin nahi nuen.

Poliziek Monari esan zioten fidantza pagatu ziotela.

—Itxura ezin okerragoa izanen dut —esan zuen.

—Ederra zaude —esan nion, eta egiaz esan ere.

Azkeneko aldiz begiratu nion aurpegira, pentsatuz ea maitatzeko hartzen zuten gizonek nik adina maiteko ote zuten.

—Egiaz mari-mutil goxoa zara —esan zidan lekutu aurretik.

Atsegina izan zen hori aditzea.

Monak alde egin eta poliziek orduantxe ekarri zuten Al arrastaka. Egoera kaskarrean zegoen. Atorra partez irekia zuen eta galtzetako kremlera jaitsia. Benda kendua zuen, eta bular handiak aske. Ilea bustia. Aho-sudurretatik odola zerion. Tontoturik zirudien, Monak bezala.

Poliziek ziegara bultzatu zuten. Orduan niregana hurbildu ziren. Atzeraka egin nuen burdinen kontra egon arte. Gelditu eta irribarre egin zuten. Polizietako batek hankartea igurtzi zuen. Besteak eskuak nire besapeetan paratu, lurretik bi eri altxatu eta burdinen kontra jaurti ninduen. Hatz lodiak sakon zanpatu zituen nire bularretan, eta belaun bat nire zango artean trabatu.

—Laster honelakoxe altua izanen zara, nahikoa altu zure oinak lurrera iristeko. Orduan arduratuko gara zutaz, zure lagun Allison koldarraz arduratu garen bezalaxe —nitaz irri.

Ondoren alde egin zuten.

Allison.

Zigarreta paketea eta Zippo pizgailua hartu eta Al lurrean botata zegoen lekuraino hurbildu nintzen. Dardarka nengoan.

—Al —esan nuen, paketea luzatzen nuela.

Ez zuen gora begiratu. Eskua besoan jarri nion. Gaintetik kendu zuen. Burua beheratua zuen. Haren lepoaren zabala eta bizkarren kurbak ikus nitzakeen bakarrik. Bitan pentsatu gabe besoa bizkarrean jarri nion. Utzi zidan.

Esku batekin zigarreta erre eta bestearekin bizkarra hartzen nion. Dardarka hasi zen. Besoetz inguratu nuen. Haren gorputza nirearen kontra leundu zen. Zauritua zegoen. Aita haur bihurtu zen une hartan. Indartsu sentitu nintzen. Kotsolamendu ematen zion nire besoetan egoteak.

—E, begira ezazu! —polizia batek oihuka beste bati.

—Allisonek mari-mutil ume bat aurkitu du. Bi maritxu dirudite —poliziek, irriz.

Nire besoek gehiago besarkatu zuten, hura babestu nahian, haien trufetatik gerizatzen ahal banu bezala, eta nire besarkadan babesten ahal banu bezala. Beti zirraratu ninduen haren indarrak. Orain haren bizkar, sorbalda eta besoetako giharrak nabaritzen nituen. Mari-mutil handi honen indarra sentitzen nuen, baita nire besoetan eroria eta akitua egonda ere.

Poliziek jakinarazi ziguten Jacquelinek gure fidantza pagatu zuela. Poliziei aditu nizkien azkeneko hitzak izan ziren:

—Itzuliko zara. Izan gogoan zure kideari egin dioguna.

Zer egin zioten? Galderak itzuli ziren. Jacquelinek Alen aurpegiari lehenik eta gero nireari begiratu zien, gauza bera galdeginez. Ez nuen erantzunik. Alek ez zuen eman. Autoan, Jacquelinek Ali heldu zion halako moduz non lehenbiziko kolpean zirudien Alek kotsolatzen zuela bera. Aurreko eserlekuan eseri nintzen, ni ere kotsolamendu beharrez. Ez nuen ezagutzen autoan ginderamatzan gizon gaya.

—Ongi zaude? —galdetu zidan.

—Jakina —erantzun nik, pentsatu gabe.

Alen eta Jackieren etxean utzi gintuen. Alek arrautzak jan zituen dastatuko ez balitu bezala. Ez zuen hitz egiten. Jacquelinek urduri begiratzen zigun Ali eta niri, txandaka. Jan, eta platerak garbitu nituen. Al komunera joan zen.

—Denbora luzez egonen da hor —esan zuen Jacquelinek.

Nola zekien? Lehenago ere askotan gertatu al zen? Platerak lehortu nituen. Jacquelinek oraingoan niregan jarri zuen arreta.

—Ongi zaude?

—Bai, ongi nago —nik, gezurretan.

Hurbildu zitzaidan.

—Minik egin dizute, laztana?

—Ez —gezurretan.

Adreilu pareta bat eraikitzen ari nintzen nire barnean. Paretak ez ninduen babesten, eta hala ere begira segitu nuen, nire eskuak ez balira bezala adreilu bakoitza paratzen zutenak. Harengandik aldendu nintzen, adierazteko gauza inportante bat galdetu behar nuela.

—Jacqueline, aski indartsua naiz?

Atzetik hurbildu eta sorbaldatik hartuta buelta emanarazi zidan. Nire aurpegia bere masailaren kontra erakarri zuen.

—Eta nor da, maitea? —xuxurlatu zuen—. Inor ez da aski indartsua. Norbera ahal bezala moldatzen da, besterik ez. Zu eta Al bezalako mari-mutilek ez duzue aukerarik. Gertatuko zaizue. Baina aguantatzen saiatu behar duzue.

Jadanik beste galdera batek erretzen ninduen.

—Alek nahi du gogorra izan nadila. Zuk, Monak eta gainerako *femmeek* beti esaten didazue goxoa eta xamurra izaten segitzeko. Nola izan naiteke biak?

Jacquelinek masaila laztandu zidan.

—Al zuzen dago, egia esan. Gure neskena egoismoa da, beharbada. Nahi dugu nahikoa indartsua izan zaitezela, hartuko duzuen kaka guztia gaindi dezazuen. Zuen indarra maite dugu. Baina, bestalde, mari-mutilek bihotza majo zanpatua izaten duzue. Eta nik uste batzuetan nahiko genuela moduren bat zuen bihotzak babesteko eta zuek gurekin xamurrak izateko, ulertzen?

Ez. Ez nuen batere ulertzen.

—Al xamurra al da?

Jacquelinek aurpegia gogortu zen. Galdera mehatxua zen, Alen armadura zulatzen ahal zuen zerbait azalera zezakeen. Orduan Jacquelinek ikusi zuen egiaz behar nuela erantzuna.

—Ederki zauritua izan da. Ali zaila zaio sentitzen duen guztia esatea. Baina, bai. Ez dut uste harekin egon ninteenik baldin nirekin xamurra ez balitz.

Aditu genuen nola Alek komuneko atea irekitzen zuen. Jacquelinek barkamena eskatuz begiratu zidan. Adierazi nion ulertzen nuela. Sukaldetik alde egin zuen. Bakarrik nengoan. Zer pentsatu handia nuen.

Sofan etzana egon nintzen. Handik puska batera, Jackiek maindireak ekarri zizkidan. Ondoan eseri zitzaidan eta aurpegia ferekatu zidan. Atsegina zen. Luze begiratu zidan min-keinu

batekin. Ez nekien zergatik baina beldurtu ninduen. Uste dut ikus zezakeela zer zetorkidan, nik jakin gabe.

—Egiaz ongi zaude, maitea? —galdegín zidan.

Irribarre egin nuen.

—Bai.

—Zerbait behar duzu?

Bai. *Femme* bat behar nuen, maiteko ninduen hark Al maite zuen bezala. Behar nuen Alek esatea zer egin behar zidaten zehazki hurrengo aldian, eta nola aguantatu. Eta Jacquelinen bularra behar nuen. Kasik burutik pasatu bezain laster, nire eskua hartu zuen eta bere bularrean paratu. Burua logelarantz jiratu zuen, Alekin erne egoteko bezala.

—Seguru ongi zaudela? —galdetu zidan azkeneko aldiz.

—Bai, ongi nago —esan nuen.

Aurpegia gozatu zitzaion. Nire masaila ukitu eta eskua bu-larretik kendu zidan.

—Egiazko mari-mutila zara —esan zuen, buruaz ezezko keinua egin ez. Harro sentitu nintzen esan zuelarik.

Biharamunean goiz jaiki eta isil-isilik alde egin nuen.

Horren ondoren, Al eta Jacqueline ez ziren tabernara joan. Telefonoa deskonektaturik zuten. Ali gertatu zitzaionaz zenbait istorio aditu nituen. Aukeratu nuen bakar bat ere ez sinestea.

Uda igaro zen. Institutuko azken-aurreko urtea hasteko garaia iritsi zen. Uda udazken bihurtzen hasi zenean utzi nion asteburuetan Niagara Fallsera joateari. Eguberri aurrean Tif-ka'sera joan nintzen, jendea ikustera. Yvette ez zen han. Aditu nuen kalezulo batean hil zela, bakarrik, eztarria belarritik belarrira moztuta. Mona gaindosiz hila, nahita. Inork ez zuen Al ikusi. Jackie karriketara itzulia zen berriz.

Tabernaz taberna ibili nintzen, haize izozgarri baten kontra, Tenderloineko zerrenda guztian barna. Haren irria aditu nuen ikusi aurretik. Hantxe zegoen Jacqueline, kalezulo bateko itza-lean, irri ironikoak egiten beste lankide batzuekin. Ikusi ninduen.

Berehala etorri zen niregana, irribarretsu. Heroinareni begi urtsuak ikusi nizkion. Mehea zegoen, oso mehea. Aurrez aurre jarri zitzaidan. Nire zamarreko lepoa ireki zuen, gorbata zuzen paratzeko. Lepoa igo zidan hotzaren kontra. Hantxe zutik egon nintzen, eskuak poltsikoetan sakon ehortzirik. Yvetterekin dan-tzatu nintzenean bezala sentitzen nintzen.

Gure begiz gauza pila galdetzen eta erantzuten ari ginen elkarri. Dena oso agudo pasatu zen. Malkoak haren begietatik isurtzen hasi eta buelta eman zuen, alde egiteko.

Hizketarako ahotsa aurkitu nuenerako, Jacqueline joana zen.

4

Notak nire mahaia gurutzatu eta lurreraino erori zen. Rotondo andreari erne egon nintzaion, makurtu eta nota hartu bitartean. Zorionez, bazirudien ez zela ohartu.

ARRISKUA!! Gurasoek jakin nahi dute zergatik deitu duten zureek gurera zutaz galdezka. Ezin zaitut gehiago babestu. MESEDEZ, BARKAIDAZU!! Maitasun eternala. Zure laguna betiko, Barbara.

Begiak goratu, eta Barbara begira topatu nuen. Eskuak bihurritzen ari zen, eta barkamena erregutzeko aurpegiera egin zuen. Irribarre nik, eta buruaz baietz. Zigarreta bat erretzearen keinua egin nuen. Barbarak baietz, eta irribarre egin zuen. Berotasuna eman zidan. Barbara: gelan bi urtez ondoan izan nuen neska. Barbara: mutila banintz nitaz maiteminduko zela esan zidan neska.

Nesken komunean elkartu ginen. Azken-aurreko ikas-maillako bi erretzen ari ziren, eta jadanik zabalduak zituzten leihoak.

—Non izan zara azkenaldian? —jakin nahi izan zuen Barbarak.

—Ero moduan lanean. Gurasoen etxetik alde egin behar dut edo hilen naiz. Jasanen ez banindute bezala jokatzeko dute —zigarretari zurrupa luzea egin nion—. Uste dut nahiago dutela jaino izan ez banintz.

Barbarak beldurturik zirudien.

—Ez esan halakorik —esan zuen, eta ingurura begiratu zuen, ea norbaitek adituko ote zigun. Ke zurrupa bat ahoan hartu eta mantso ateratzen utzi zuen, bitartean sudurretik inhalatzen zuela—. Ez al da eroa? Kizkur frantsesa esaten diote. Kevinek erakutsi zidan.

—Kaka! norbaitek ahopeka.

—Ongi da, neskak, denak lerro batean! —Antoinette andrea zen, nikotinaren maitale ziren nesken zigorra.

Manatu zigun lerrokatzeko, gure hatsa usaindu ahal izateko. Ikusi ez nindueenez, aukera izan nuenean ataritik isilka atera nintzen. Korridoreak hutsik zeuden. Minutu batzuen buruan txirrinak joko zuen, eta korridoreak hurrez beteko ziren, koardernoak aurrealdean, borrokan ezkutuak bezala.

Uste dut udak aldatu egin ninduela. Bestela ez nituen sekula hautsiko ohituraren burdinazko uhalak, eta ez nintzen institutuko eraikinetik aterako eskola orduetan. Pistan laster egin nahi nuen ahal bezain agudo, preso egotearen sentipen itsaskorra izerditzeko. Baina mutilak futbolearen entrenatzen ari ziren zelaiaren erdian, eta neska talde bat animatzaileen entsegua egiten ari zen. Beraz, harmailetara igo, eta bukaerako muturreraino joan nintzen.

Zapelatz buztangorri bat zuhaitzen gainetik planeatzen ari zen; ikuspegi ezohikoa zen hirian. Ez nuen nora joan; ez nuen zer eginik. Nire bizitzan gertatu beharreko dena delakoa lehenbailehen gertatzea nahi nuen. Nahiko nukeen futbol amerikarrean jokatu eta gidaria izan. Imajina nitzakeen ekipamenduaren pisua eta uniformeak estu nire bularrean. Eskua nire bular handien gainean jarri nuen.

Ohartu nintzen animatzaileen entsegua egiten ari ziren zortzi nesketatik bost ilehoriak zirela. Ez nituen bost ilehori eza gutzen institutu osoan. Eskolako ikasleen erdiak ziren zuriak, juduak, eta klase ertainekoak. Beste erdiak afroamerikarrak eta langileen klasekoak. Nire familia judua eta langileen klasekoa zen. Amildegi sozial bakartian sentitzen nintzen. Eskolan nituen lagun bakanak ziren hilabete bukaerara iristeko lan egiten zuten familietakoak.

Ikusi nituen animatzaileak zelaitik lekutzen. Sorbalda gainetik begiratu zuten, mutilak ohartzeko ote ziren ikusteko.

Futboleko entrenamendua bukatu zen. Mutil zuri batzuk zelaian gelditu ziren. Haietako batek, Bobbyk, nire aldera egin zuen buruaz. Alde egiteko zutitu nintzen.

—Nora zoaz, Jess? —niri burlaka.

Nireganantz etorri zen. Mutil zenbaitek atzetik segitu zioten. Lasterrago joaten hasi nintzen harmailetan barna.

—Nora zoaz, lezzie²? Jezzie³ esan nahi nuen.

Alde egiteko presatu nintzen, jarraika nituen. Bobbyk keinu egin zion bati, harmailetan gora egin zezan nire aldera. Hura eta gainerako mutilak niregana etorri ziren zuzenean. Harmailetatik salto egin eta zelaian lasterka hasi nintzen. Bobbyk plakatu egin ninduen. Lurra gogor jo nuen. Dena agudoegi joan zen. Ezin geldiarazi nuen.

—Zer gertatzen da, Jess? Ez gara zure gustuko? —Bobby eskua igotzen ari zen nire soinekoaren azpitik, zango artean.

Ukabilkadaka eta ostikoka hasi nintzen, baina gainerako mutilek eutsi zidaten.

—Guri begira ikusi zaitut. Tira, nahi duzu, ez al da hala, Jezzy? Ahotik hurbilen nuen eskua hozkatu nuen.

—Atx, kaka, ostia! —oihukatu zuen mutilak, eta errebeskada jo zidan aurpegian. Neronen odola dastatu nuen. Beren aurpegiek ikaratu egiten ninduten. Ez ziren haurrak jada.

Bobbyren bularra jo nuen indar guztiekin. Ekipamendua joko nuen, zeren hatz-koskorak larrutu nituen eta Bobbyk irri besterik ez zuen egin. Mutiletako batek orkatila zapaldu zidan futboleko oinetakoekin. Indarka egin eta madarikatu nituen. Irri egin zuten, jostaketa balitz bezala.

Bobbyk uniforme askatu zuen eta zakila nire baginan barna indarrez sartu. Minak sabelean gora egin zidan, eta asko ikaratu ninduen. Sentitu nuen zerbaitek barnetik urratu banindu bezala. Erasotzaileak kontatu nituen. Sei ziren.

Bill Turleyren kontra nuen haserrerik handiena. Denek zekiten taldean izena eman zuela besteek irri egiten ziotelako, esanez maritxua zela. Futboleko oinetakoekin belarra igurtzi eta bere txanda itxoin zuen.

Amesgaiztoaren alderdietako bat zen bazirudiela ezin nuela ezer egin. Ezin nuen geldiarazi, ezin nuen ihes egin, eta, beraz, irudikatu nuen ez zela gertatzen ari. Zerura begiratu nuen, ikusiz zein zurbil eta bare zegoen. Imajinatu nuen itsasoa zela, eta hodeiak gain zuriko olatuak zirela.

Beste mutil bat ari zen arnasestuka nire gainean. Ezagutu nuen: Jeffrey Darling, jazarle harroputz bat. Iletik heldu zidan, eta

2 Lesbiana.

3 Puta.

atzeraka hain azkar tiratu non oihu itoa egin bainuen. Nahi zuen bortxaketari arreta jar niezaion. Gogorrago egin zidan larrutan.

—Puta judu zikina, mari-gizon alaena! —Nire krimen guztiak zerrendatuak zeuden. Erruduna nintzen.

Honelakoa al da gizon eta emakumeen arteko sexua? Banekien hura ez zela maitasuna egitea; hura gehiago zen gorrotoa egitea. Baina mugimendu mekaniko horiei buruzkoak al ziren hainbeste txantxak eta aldizkari lizunak eta ahopeka esandakoak? Hura zen?

Irritxoa egin nuen, ez gertatzen ari zena irrigarria zela, baizik sexuaren gaineko zalaparta guztiak bat-batean oso barregarria zirudielako. Jeffreyk zakila niregandik atera eta zaplaztekoak jo zizkidan, ezker-eskuin.

—Ez da irrigarria —oihukatu zuen—. Ez da irrigarria, puta ero hori!

Txistu bat aditu nuen.

—Kaka, entrenatzailea da —Frank Humphreyk, bestea ohartaraziz.

Jeffrey saltoan zutitu, eta galtzak igo zituen. Mutil guztiak gimnasio alderantz barreiatu ziren.

Bakarrik nengoen zelaian. Entrenatzailea nigandik aparte zegoen, begira. Zealdoka, zutitzen saiatu nintzen. Belar orbanak nituen gonan eta odola eta zera itsaskor bat zangoetan behera.

—Alde hemendik, putaxka zikin hori —agindu zuen Moriarty entrenatzaileak.

Etixerako bide luzea oinez egin behar nuen, zeren nire autobus txartelak ez baitzuen balio hain berandu. Ez nuen gehiago sentitzen hura nire bizitza zenik. Gehiago zirudien pelikula bat. 57ko Chevrolet auto batek, mutilez betea, martxa mantsotu zuen.

—Bihar arte, lesbi! —aditu nion Bobbyri, ondotik pasatu zenean.

Haien jabetza al nintzen orain? Behin ez banintzen gauza izan haiek geldiarazteko, esperantzarik izan al nezakeen berriz ere noizbait neure burua defendatzeko?

Etxeratu bezain laster komunera joan, eta gora bota nuen.

Sentitzen nuen zango artean haragi txikitua nuela, eta min ziztakariek ikaratu egiten ninduten. Burbuilazko bainu luze-luzea hartu nuen. Ahizpari eskatu nion gurasoei esateko gaizki

nengoela, eta ohatzera joan nintzela. Iratzarri nintzenean eskolarara joateko ordua zen. Baina ezin nuen, ez nengoen prest!

—Orain! —amak ohatzetik ateratzeko agindu zidan.

Gorputz osoa minberaturik nuen. Saiatu nintzen zango arteko minean ez pentsatzen. Bazirudien gurasoak ez zirela ohartu nire ezpain lehertuaz, ezta zango batetik maingu nenbilela ere. Melaza bezain mantso nenbilen. Ezin nuen argi pentsatu.

—Azkar —amak, errietan—. Institutura berandu iritsiko zara.

Autobusa nahita galdu nuen, institutura oinez joan ahal izateko. Gutxienez, berandu iristen banintzen ez nituen mutilak aurrez aurre ikusi beharko txirrinak jo aurretik. Oinez ibili ahala dena ahaztu nuen. Haizea aditzen zen zuhaitz artean. Zakurrek zaunka eta txoriek txio egiten zuten. Mantso nenbilen, zehazki inora joan behar ez banu bezala.

Orduan institutuko eraikina nire aurrean agertu zen gaztelu bat bezala, eta oroitzapen guztiak itzuli ziren dena azpian hartuz, uholde nazkagarri bat bezala. Honezkero neska-mutilek ba ote zekiten? Ikusirik korridorean, lehenbiziko eskola bukatutakoan, ondotik pasatzen nintzela nola xuxurlatzen zuten, ahoa eskuz tapatuta, baietz uste nuen. Pentsatzen hasia nintzen beharbada paranoikoa nintzela, harik eta nesketako batek oiuhukatu zuen arte:

—Jess: Bobby eta Jeffrey zure bila dabilta.

Denak irriz hasi ziren. Dena nire errua izan balitz bezala sentitzen nintzen.

Historiako eskolan sartu nintzen txirrinak jotzearekin batera. Mr. Duncanek hitz beldurgarri horiek esan zituen:

—Ongi da, hartu orri bat zuen koadernoetatik eta zenbaki-tu batetik hamarrera. Hau azterketa da. Lehenbiziko galdera: zer urtetan sinatu zen Magna Carta?

Saiatu nintzen oroitzen ea noizbait irakatsi ote zigun zer zen ere Magna Carta arraio hori. Hamar galdera eta zer erantzun ez jakin. Lapitza hozkatu eta parean nuen orri zuriari begiratu nion. Eskua altxatu eta komunerako baimena eskatu nuen.

—Azterketa bukatu bezain laster joan zaitezke, Goldberg andrea.

—Em, mesedez, Duncan andrea. Larrialdia da.

—Bai —esan zuen Kevin Manleyk—, Bobbyren eske joan behar du.

Irriak aditu nituen nire atzean, ikaraturik gelatik atera bi-tarte. Korridoreetan ibili nintzen, lagunduko ninduen norbaiten bila. Norbaitekin hitz egin beharra nuen. Eskaileretan gora egin nuen lasterka, kafetegira, gimnasiako nire lagun Karlaren bila. Txirrinak jo zuenean, Karla ikusi nuen, ate bikoitzen artetik sartzen eta ateratzen ziren neska-mutil saldoaren artean.

—Karla! —oihukatu nuen—, zurekin hitz egin behar dut.

—Zer gertatzen da?

—Zurekin hitz egin behar dut.

Bazkariko ilararantz joan ginen.

—Zer dugu gaur bazkaltzeko? —galdegin zidan Karlak—.

Ikus dezakezu?

—Zaborra arrozarekin, kaka ohol batean.

—Hara! Atzo bezala.

—Eta herenegun bezala.

Nolako lasaitua harekin irri egitea.

Erretiluak hartu, eta begiak kliskatu genituen sukaldariak ore bat irauli zuenean gure plateretan. Esne kutzak hartu eta pagatu genuen.

—Hitz egin dezakegu? —nik.

—Jakina —hark—. Bazkalondoan, bai?

—Zergatik ez orain?

Karlak harrিতua begiratu zidan.

—Zurekin eseri naiteke? —premiatu nuen.

Niri begira segitu zuen.

—Neskatoa, non duzu buru ostia hori? —Ez nuen uler-tzen—. Jartzeko antolamendu bat bada hemen. Ez al zara ohartu?

Esandakoan ohartu nintzen egia zela. Jantokiari begiratu nion lehenago inoiz ez bezala. Kafetegia arrunt bereizia zegoen, erdi-erditik.

—Ulertzen, maitea? Non izan zara orain arte?

—Zurekin eser naiteke, nolanahi dela ere?

Karlak burua alde batera makurtu eta begi erdi-itxiekin begiratu zidan.

—Herri libre da —esan, buelta eman, eta aurrera segitu zuen.

—Kaixo, neska zuria. Berrria herri honetan? —egin zidan burla Darnellek, Karlaren ondoan eser nendin mugitu zenean.

Iri egin nuen. Gela handi hartan ez zen beste soinurik. Orratz bat erortzen aditzen ahal zenuen. Urdaila txikitu zitzaidan, eta platereko janak inoiz baino nazkagarriagoa zirudien.

—Karla —haren ondoan jarri nintzen—. Egiaz behar dut zurekin hitz egin, izugarrizko beharra dut.

—O-o! —ahopeka norbaitek, gure mahaian.

Benson andrea ziztuan heldu zen gure mahaira.

—Andereñoa, zertan ari zara?

Airea sakon hartu nuen.

—Bazkaltzen, Benson andrea.

Mahaiko guztiak saiatu ziren irriak itotzen, baina Darnellen sudurretik esnea ihinztatua atera zenean, tira, ezinezkoa izan zen eustea.

—Zatoz nirekin, andereñoa —esan zidan Mrs. Bensonek.

—Zergatik? —jakin nahi nuen—. Ez dut deus egin.

Haserre batean alde egin zuen.

—Erraza zen —esan zuen Darnellek.

—Oso erraza —gehitu zuen Karlak.

—Karla, egiaz behar dut zurekin hitz egin —esan nion.

—O-o —esan zuen Darrylek—, hemen heldu da «Jim Crow».

Baina Moriarty zen. Entrenatzailea zuzenean heldu zen niregana. Niri zerbait esatea espero nuen, baina ez zuen halakorik egin. Besoetatik hartu ninduen, hatzak haragian iltzatuz. Moriartyk erdi arrastatu ninduen kafetegiko atarira.

—Zu, urdanga txiki hori —esan zidan ahapeka.

—Arduratuko naiz honetaz, entrenatzailea —tartean sartu zen Miss Moore, zuzendariordea.

Besoaz inguratu ninduen eta korridorera eraman.

—Haurra —esan zidan—, saltsa ederrean sartu zara. Zer deabrutan ari zinen?

—Deusetan ez, Moore andrea, ez nintzen deusetan ari. Karlarekin hitz egin nahi nuen, hori baino ez.

Irribarre egin zidan.

—Batzuetan ez duzu deus txarrik egin behar ataka txarrean egoteko.

Nire ikara eta beldur guztia negar batean lehertu zen. Behar izugarria nuen Moore andreari bihotza zabaltzeko.

—Maitea, ez da hain larria —lasaitu ninduen.

Ezin nuen hitz egin.

—Ongi zaude, Jess? Problemak dituzu? —Nire ezpain handituari begiratu zion—. Hitz egin nahi duzu, Jess?

Hitz egin nahi nuen, baina ahoak uko egiten zion.

—Hona hemen beste bazter nahastailea —esan zuen Moriartyk. Karlari heltzen zion.

Miss Moorek Karla beregana erakarri zuen.

—Arduratuko naiz honetaz, entrenatzailea. Zu itzul zaitez bazkalordua zaintzera.

Moriartyk ageriko gorrotoz begiratu zion. Ikus zitekeen zein arrazista zen.

—Zatozte, neskatoak —Miss Moorek besoz inguratu gintuen gutako bakoitza—. Zuzendariari azalduko diot ez zenutela makurrik egiteko asmorik.

Karla eta biak aurrera makurtu eta elkarri begiratu genion.

—Barkatu —esan nion—, ez nizun kalterik egin nahi.

Miss Moore gelditu egin zen.

—Neskak, zuek ez duzue okerrik egin. Altxatu zarete isilpeko arau baten kontra, aldatu behar den arau baten kontra. Nahi dudan bakarra da zuek biak honetatik onik ateratzea.

Azkenerrako Mr. Donattok, zuzendariak, bulegora deitu ninduenean, Miss Moorek galdetu zuen ea bera ere sar zitekeen. Zuzendariak bekain lodiak zimurtu zituen.

—Nahiago dut ez sartzea, Suzanne.

Donatto jaunak atea itxi eta esertzeko keinua egin zidan. Bakarrik sentitu nintzen kontrako nuen mundu batean. Bere aulkian hondoratu, eta hatz puntak elkartu zituen. Paretako George Washingtonen koadroari begiratu, eta neure buruari galdegin nion ea ardi larruzko zamar zuri bat ote zeukan jantzirik edo koadroa ez zuten sekula bukatu. Donatto jaunak eztarria garbitu zuen. Prest zegoen.

—Esan didate problemaren bat sortu duzula gaur jantokian, andereñoa. Inportako litzaizuke azalpen bat ematea?

Sorbaldak goratu nituen.

—Ez dut deus ere egin.

Donattok atzeraka egin zuen aulkian.

—Mundua oso leku konplexua da. Zuek, haurrek, uste baino konplexuagoa. —O, Jainkoa, neure artean, orain sermoia

heldu da—. Eskola batzuetan borrokak izaten dira haur beltzen eta zurien artean. Bazenekien?

Buruaz ezetz, nik.

—Harro nago ikastetxe honetan arrazen arteko harreman onak daudelako. Eta ez da erraza, eskola barrutia aldatu denetik. Gauzak lasai izaten segitu nahi dugu, ulertzen?

—Ez dut ulertzen zergatik ezin dudan lagunen ondoan bazkaldu. Ez ginen borrokan ari.

Donattoren matraila gogortu egin zen.

—Kafetegia dagoen bezala antolatua dago erosoena delako ikasleentzat.

—Bueno, niretzat ez. —Nor ari ote zen nire ahoa kontrolatzen? Donattok mahaia zanpatu zuen esku-ahurrez.

Moore andreak atea ireki zuen.

—Lagungarri izan naiteke, jauna?

—Alde, eta itxi atea! —oihukatu zion.

Niregana itzuli, eta sakon hartu zuen arnasa.

—Nahi dut zuk ulertzea guk bilatzen duguna dela ikasle guztien arteko harreman ona.

—Orduan, zergatik ezin dut lagunekin batean bazkaldu?

Donatto niregana etorri, eta hain hurbil makurtu zitzaidan, non haren hatsa sentitzen bainuen aurpegian.

—Andereñoa, adi iezadazu, ongi aditu gainera. Institutu hau baturik izaten saiatzen ari naiz, eta madarikatua ni baldin zu bezalako bazter-nahastaile txiki bati uzten badiot nire eginahal guztia desegiten. Ulertzen didazu?

Begiak kliskatu nituen, listu ziliporta txikiek aurpegia jo ahala.

—Astebeterako ikastetxetik bidalia.

Bidalia? Zergatik?

—Utzi nahi nuen, nolana ere —nik.

Irribarre egin zuen, harro.

—Ezin duzu utzi, hamasei urte izan arte.

—Ezin dut utzi, baina bidal nazakezu?

—Halaxe da, andereñoa. Moore andrea —oihukatu zuen Donattok—, ikasle hau egotzia izan da. Segurta zaitez eraikina berehalakoan uzten duela.

Moore andrea atez bestaldean gelditu zen. Irribarre egin eta eskua soingainean paratu zidan.

—Ongi zaude?

—Jakina —nik.

—Hau dena pasatuko da —segurtatu zidan.

Erregu aurpegia jarri nuen.

—Baina utziko didazu Noble andrearekin eta Candi andrearekin egoten, mesedez? Eta alde eginen dut.

Moore andreak baietz, buruaz.

Harekin hitz egiteko izugarrizko gogoia nuen, baina sentitzen nuen nengoela nora ezera zihoan txalupa batean, jende guztiarengandik urrutiratzen. Adio esan, eta alde egin nuen.

Noble andrea azterketei notak jartzen ari zen. Gelan sartu nintzen, eta begirada altxatu zuen.

—Aditu dut. —Eta azterketak zuzentzen segitu zuen.

Ikasmahai baten gainean jarri nintzen, haren mahaiaren parean.

—Adio esatera etorri naiz.

Noble andreak begirada goititu, eta betaurrekoak kendu zituen.

—Honengatik utzi behar al duzu ikastetxea?

Sorbaldak altxatu nituen.

Bidali naute, baina ez naiz itzuliko.

—Bidali zaituztela? Jantokiko gertaerarengatik? —Noble andreak begiak igurtzi eta betaurrekoak berriz ere paratu zituen.

—Zuk uste duzu zerbait gaizki egin dudala?

Atzeraka egin zuen aulkian

—Zerbait egiten duzunean konbentziturik, maitea, izanen da uste duzulako hori egitea zuzena dela. Denen onespena bilatzen baduzu, inoiz ez zara deus egiteko gauza izanen.

Kritikatua sentitu nintzen.

—Ez diet denei galdetzen, zuri bakarrik —muturturik.

Noble andreak ezezko keinua egin zuen.

—Baina egin gogoeta itzultzeko aukerari buruz. Unibertsitatara joan beharko zenuke.

Sorbaldak goratu nituen.

—Inoiz ez dut institutua bukatuko. Fabrika batean hasiko naiz.

—Trebetasunak behar dituzu, baita langilea izateko ere.

—Ez dut unibertsitatara joateko dirurik, hori hala da — esan nuen sorbaldak altxatuta—. Gurasoek ez didate xentimorik pagatuko, ezta nirekin batera mailegu bat sinatuko ere.

Eskuak ile artetik pasatu zituen. Lehenbizikoz ohartu nintzen zein urdindua zeukan.

—Zer egin nahi duzu zure bizitzarekin? —galdegin zidan. Pixka batean pentsatu nuen.

—Lan on bat eduki nahi dut, lan sindikatu bat. Asko gustatuko litzaidake altzairu fabrikan sartzea, edo Chevroleten.

—Segur aski ez litzateke nire aldetik zuzena izanen zuk gehiago nahi izatea desiratzea.

—Esaterako? —esan nuen haserre, orain hari ere huts egin niolako.

—Irudikatzen zaitut poeta amerikar handi bihurtua, edo langileen lider suhar, edo minbiziaren sendagaia aurkitzen. —Betaurrekoak kendu, eta Kleenex batekin garbitu zituen—. Lagundu nahiko nizuke mundua aldatzen.

Iri egin nuen. Ez zuen arrastorik ere zein indargabea nintzen.

—Ezin aldatu dut deus ere —esan nion.

Buruan erabili nuen futbol zelaian gertatutakoa kontatzea, baina hasteko hitzak ere ez nituen aurkitu.

—Badakizu zer behar den mundua aldatzeko, Jess?

Buruaz ezetz, nik.

—Asmatu behar duzu zertan sinesten duzun egiaz, eta berdin pentsatzen duen jendea aurkitu. Bakarka egin behar duzun gauza bakarra da erabakitzea zer den zuretzat inportantea.

Baiezko keinua egin, eta pupitretik jaiki nintzen.

—Hobe izanen dut alde egitea, Noble andrea, ni kanporatzeko patruila bat bidali aurretik.

Zutitu, eta aurpegia hartu zidan eskuetan. Kopetan musu eman zidan. Zerbaitengatik, gogora ekarri zidan nola sentitu nintzen ziegan Alekin eta Monarekin egon nintzen aldian: nola sentitzen zaren maite duzun jendearengandik aldentzen zaituztenean, eta aldi berean haiengandik hain hurbil sentitzen zarenean.

—Itzuli eta hitz egingen dugu.

—Jakina —esan nuen gezurretan.

Gimnasiorantz joan nintzen Candi andreari adio esatera. Johnson andreak korridorean geldiarazi ninduen.

—Non da zure korridoreko baimena, andereñoa?

—Ez dut gehiago behar. Kanporatu egin naute —bota nuen alai.

Ordu batzuk lehenago pareta haien artean preso sentitzen nintzen. Orain, uztear nintzela, institutuak txikiagoa zirudien. Korridoreetan barna ibili nintzen graduatu bat banintz bezala. Aditu nitzakeen auditoriumetik heldu ziren John Philip Sousaren konpas desafinatuak. Ahaztua nuen batzarra zegoela azkeneko orduan. Hartara joateko beharrik ez nuela egin nuen neure artean. Txirrinak jo, eta ikasleak korridoreetara atera ziren trumilka. Jendetza saretu arte itxoin nuen, gimnasio aldera joaten saiatzeko, korrontearen kontra.

Iritsi nintzenean, ez zegoen inor nesken gimnasioan. Nire kirol oinetakoak eta galtza motzak armairutik atera, eta jantzi nituen. Sokekin hasi nintzen: batetik gora igo, eta besteetara pasatu. Jaitsi nintzenerako hain nengoen energiiaz beterik, beldur bainintzen ez ote nintzen lehertuko. Barneko pistan lasterka aritu nintzen kasik ahiturik bukatu arte.

Bukatu eta Candi andrea niri begira topatu nuen. Gimnasioko bulegotik zerbait hartzetik itzulia zen, eta nire lasterraldiari begira gelditu zen.

—Zenbat daramazu niri begira?

Sorbaldak goratu zituen.

—Bidali zaituztela aditu dut.

—Zuk uste zerbait gaizki egin dudala, Candi andrea? —galdetu bitartean oroitu nintzen Noble andreak onespen beharraz azaldutakoaz.

—Nik, besterik gabe, ez dut sinesten bazterrak nahastean, horixe besterik ez —esan zuen, beste alde batera begiratu.

—Hara —egin nuen hasperen desengainaturik—. Ongi da, Candi andrea, adio esatera baizik ez naiz etorri.

Autoen Mekanikako gela ondotik igaro nintzen; huraxe zen nik ikasi nahi nuena. Horren ordeaz, pasteltxoak limoi saltsan egitera behartu ninduten. Nola uste zuen Noble andreak mundua inoiz aldatuko nuela pasteltxoak eginez?

Institutuko atari nagusiaren gaineko aldean *Optima futura* hitzak zeuden harrian zizelkaturik. *Hoberena oraindik etortzeaz dago*. Egia izatea espero nuen.

—E —oihukatu zuen Darnellek bigarren solairuko zigortuen gelatik, —ongi egina!

Eskuz agurtu nuen.

—Hurrengora arte! —oihukatu, hark.

Irakasle batek barnerantz sarrarazi zuen, eta leihoa itxi.

—Jess! —Karla niri deika entzun nuen—. Jess, zaude!

—Kanporatu naute —esan nion.

—Baita ni ere —hark—. Bi asterako.

—Bi aste? Ni astebeterako bakarrik! Nolanahi ere, utzi egin behar dut.

Karlak txistu egin zuen hortzen artetik.

—Kaka zaharra, seguru al zaude?

Nik baietz, buruaz.

—Ez dut gehiago aguantatzen.

—Jess —esan zidan Karlak—, izandako kaka guztiaren ondoren ahaztu zait galdetzea zer pasatu zaizun. Hitz egin beharra zenuela esan duzu.

Une hura inflexio puntu bat zen nire bizian. Lehertzear zen urtegi bat bezala sentitzen nintzen, baina hitz egin orde z neure buruari aditu nion esaten:

—Ba, ez zen horren inportantea ere.

Karlak kezkatu zirkulazioa:

—Seguru al zaude?

Baietz egin nuen buruaz, azkeneko adreilua nabaritzen nire baitan eraikitzen ari zen paretan, inoiz berriz eraitsiko ez zen paretan.

—Jeffersonera joatekoak gara —esan zuen Karlak—. Etorri nahi?

Ezezko keinua egin, eta adio-besarkada bat eman nion.

Ez nien gurasoei aurre egin nahi. Banekien haiek lanetik etxeratu aurretik iritsiko nintzela, presatzen banintzen.

Etxera ailegatu bezain laster, bi burko-zorro hartu eta galtez eta atorrez betetzen hasi nintzen. Armairuan ongi bilatu eta nahi nuen motxila atera nuen, Alek eta Jacquelinek erositako gorbata eta jaka zituen.

Eraztuna! Amaren bitxi-kutxa txikitik atera eta ezkerreko eskuan jantzi nuen.

Presatu nintzen, gurasoak iritsi eta harrapatuko ninduten beldur. Paper zuri bat eta lapitza topatu nituen. Izerditan nengoan, eta eskuak dardarka.

«Ama eta aita maiteak:» idatzi nuen.

—Zertan ari zara? —galdetu zidan Rachelek.

—Xxxxo! —idazten segitu nuen. Eskolatik bidali naute. Ez da nire errua, axola bazaizue. Kasik hamasei urte ditut. Uztekotan

nintzen, nolanahi ere. Baditut lana eta dirua. Etxetik alde egin behar dut. Mesedez, ez etorri nire bila. Ez dut hemen gehiago bizi nahi.

Ez nekien zer gehiago idatzi. Lanean aurki nintzaketan, nahi izatera, baina agian nitaz libratzeagatik poztuko ziren, alde egiteagatik ni lasaitzen nintzen bezala.

—Zertan ari zara?—beriz ere, Rachelek. Ezpaina dardarka zuen.

—Xxxxxo, ez egin negarrik —nik. Besarkada bat eman nion—. Etxetik ihes egiten ari naiz.

Buruaz ezetz egin zuen.

—Ezin duzu —hark.

Buruaz baietz, nik.

—Saiatu beharko naiz. Hemen erotu eginen naiz.

—Esanen diet —mehatxatu zidan.

Ataritik presaka atera nintzen, gurasoek azkeneko unean harrapatuko ote ninduten beldur. Indarra erabil zezaketan itzularazteko, atxiloarazteko edo erakunde baten esku uzteko. Edo alde egiten uzten ahal zidaten. Beren esku zegoen: ikasia nuen hori. Karriketan lasterka joan nintzen, birikek mina eman arte. Eraikin asko igarotakoan, farola baten kontra bermatu, eta arnasa hartu nuen. Aske sentitzen nintzen. Askea, askatasunak zer esan nahi zuen aurkitu nahi nuen. Erlojuari begiratu nion. Lanera joateko ordua nuen. Kasik hamasei urte nituen. Hogeita hamazazpi dolar nituen poltsikoan.

•••

—Berandu zabilta —esan zidan kapatazak—, fitxatzen ari nintzela.

—Barkatu —esan nuen, eta makina piztu nuen istantean.

—Haur deabrua —esan zion Gloriari.

Gloriak burua apal izan zuen kapatazak alde egin arte. Orduan, begiratu eta irribarre egin zidan.

—Egun gogorra, Jess?

Irri, nik:

—Ikastetxetik bota naute, eta etxetik ihes egin dut.

Txistu egin, eta ezezko keinua egin zuen.

—Etxera eramanen zintuzket, baina oraindik etxean ditugun haurrak oparitu nahi ditu senarrak.

Eddieri galdetu nion ea txanda bikoitza egin nezakeen.

—Gero esanen dizut —hark.

23:00etan lana agortu zen, eta etxera bidali ninduen. Saia-tu nintzen autobus geltokian lo egiten, baina poliziek ez zidaten utzi, denbora guztian etorri eta autobus txartela erakusteko eskatzen zidaten. Txartel bat erosi nuen Niagara Fallserako, baina ur-jauzietara zihoan autobus bat abiatzen zen aldiro iratzartzen ninduten, eta galdegiten ea zergatik ez nintzen hartan joan. Buel-taka ibili nintzen, eta gosaldu nuen, eta kafea edan, eta bueltaka gehiago ibili. Eguerdian, zinema saio batera joan nintzen. Iratza-ri nintzenez, lanera joateko ordua pasatu zitzaidan.

Eddiek ohartarazi zidan ez gehiago berandutzeko.

—Itxura penagarria duzu —Gloriak, ahapeka.

—Eskerrik asko.

Pentsatzen hasi nintzen.

—E, Gloria, oroitzen nola esan zenidan zure anaia taberna batera joaten zela, Niagara Fallsen?

Gloria urduri jarri zen.

—Bai, zer ba?

—Ezagutzen al du horrelako tabernarik hemen? —Sorbal-dak altxatu zituen—. Inportantea da, Gloria. Alafede, egiaz behar dut jakin.

Gloriak urduri zirudien. Tintaz betetako eskuak manda-rrean garbitu zituen, gai honetan eskuak arras garbitu nahiko balitu bezala. Bazkalorduan, paper zati bat zapatu zuen nire eskuaren kontra.

—Zer da hau? —Paperttoan *Abba's* zegoen idatzirik.

—Anaiari deitu diot. Galdetu diot nora joaten zen. Esan dit hara joaten zela.

Irribarre zabala egin nion.

—Ba al dakizu non den?

—Zer egin behar dut, zu hara eskutik eraman?

—Ongi da. —Eskuak altxatu nituen, amore emanik—. Gal-dera besterik ez zen.

Telefono argibideetara deitu, eta helbidea erdietsi nuen. Nire txandaren ondoren komunean garbitu nintzen, eta arropa garbiak jarri nituen. Hatzeko eraztunari begiratu nion. Ongi ego-kitzen zen. Erregutu nuen inoiz kendu behar ez izatea. Beharbada orain zen garaia eraztunak erakuts ziezazkidan neure bidean bi-zirik irauteko sekretuak. Laster batean joan nintzen erdialdera,

Abba'sera, eta han kanpoko aldean egon nintzen, aurrera eta atzera, erretzen. Tabernan sartzeko beldurrez nengoen, Tifka'sera sartzeko egon nintzen adina. Desberdintasun bakarra, orain nire jabetza guztiak nekartzala bi burko-zorrotan. Nora joanen nintzen han onartzen ez baninduten?

Amasa sakon hartu, eta Abba'sen sartu nintzen. Jendetza ederra zegoen han, eta horrek anonimo eta salbu sentiarazi ninduen.

—Genny bat —oihukatu nion tabernariari.

Begiak erdi-itxi zituen.

—Ikus dezagun nortasun agiriren bat.

—Tifka'sen ez didate sekula eskatu —nik, kexu.

Sorbaldak altxatu zituen.

—Zoaz beraz Tifka'sa garagardoa hartzera —esan zuen, alde egin bitartean.

—Ukabilkadaz barra jo nuen.

—Egun zaila izaten ari zara, haurra? —galdetu zidan tabernako mari-mutiletako batek.

—Egun zaila? —irri historiko samarra atera zitzaidan—. Institututik bota naute, bizitzeko tokirik ez, eta lan madarikatua galtzekotan naiz baldin ez badut topatzen lotarako leku bat, lanera garaiz iristeko.

Ezpainak estutu zituen, buruaz baietz egin, eta garagardo trago bat hartu zuen.

—Nahi izatera, gurean geldi zaitezke denbora baterako —esan zuen, alegia deus ez.

—Ni izorratzen? —jakin-minez.

Buruaz ezetz, hark.

—Egoteko leku bat behar duzu? Neskak eta biek apartamentu bat dugu gure garajearen gaineko aldean. Han geldi zaitezke, nahi baduzu. Zuk esan.

Zerbitzariari keinu egin zion.

—Meg, ateraiozu garagardo bat haurrari, nire kontu, bai?

Aurkezpenak egin genituen.

—Jes', zer gehiago? —hark.

—Jess dut izena, Jess besterik ez.

Ufa egin zuen.

—Jes' Jess, e? Tira ba, ni Jes'Toni naiz.

Megek garagardo botila bat kolpean utzi zuen nire aurrean.

—Eskerrik asko garagardoarengatik, Toni —botila alxtatuz—. Gaur joan naiteke zuenera?

Tonik irri.

—Bai, nik uste, ez baldin banago sobera edana giltza sarrailan sartzeko. E, Betty!

Toniren neska-laguna komunetik atera, eta haren ondoan jarri zen. E, Betty, ezagutu ezazu komikietako Dondi. Haur hau umezurtza da. Su hartu zuen auto batean hil zitzaizkion gurasoak, bazenekien?

—Tonik irri egin, eta garagardoari zurrupa bat egin zion.

Betty Tonirengandik bereizi zen.

—Ez da irrigarria.

Parte hartu nuen:

—Tonik esan dit baduzuela niretzako leku bat etxean. Lotarako leku baten beharra dut, izugarritzko beharra esan nahi dut.

Bettyk Toniri begiratu zion, sorbaldak goratu, eta alde egin zuen.

—Ez dago eragozpenik Bettyrekin —esan zuen Tonik—. Bettyrekin esertzera bueltatuko naiz. Lekutu aurretik bilatuko zaitut.

Garagardoa bukatu, eta burua barran bermatu nuen. Taberna bueltaka zebilen, eta lo egiteko behar ikaragarria nuen. Megek hatz koskorrez barra jo zuen nire buruaren ondoan.

—Mozkorra al zaude-edo?

—Ez, kontua da egun osoa eman dudala lanean —nik.

Ez zitzaidan iruditzen gustuko ninduenik. Orduan beste garagardo bat ekarri zidan.

—Ez dut eskatu.

—Tabernaren kontu. —Hara!

Jendetza mehetzen hasi zenean, aulki huts bat topatu nuen atzealde zalapartatsuaren ondoan, eta burua paretaren kontra jarri, eta lo gelditu nintzen. Iratzarri nintzenean, Betty mahukatik tiraka nuen, etxera joateko ordua zela esanez. Ondoren, Betty hasi zen Toni autoan sarrarazten, bitartean hura *Roll me over in the clover* kantatzen zuela. Atzeko eserlekuan etzan, eta lo gelditu nintzen berriz ere.

—Tira, iratzarri —presatu ninduen Bettyk.

Beren etxeko sarreran ginen. Betty eginahaletan zebilen Toni autoaren kontra zutik mantentzeko.

—Ez nazazula zamatu bi kargekin —esan zidan Bettyk, lehor.

Autotik atera, eta Toni eskaileretan gora eramaten lagundu nion.

—Sofan egiten ahal duzu lo gaur —Bettyk.

—Nor da haurra? —jakin nahi izan zuen Tonik—. Nor da, zure mari-mutil berria?

—Haurra zuk gonbidatu duzu garajeko apartamentuan bitzitera, oroitzen? —moztu zuen Bettyk.

Sofan uzkurto nintzen, eta desagertzen saiatu. Handik denbora batera, Betty itzuli, eta manta bat jaurti zidan gainera.

—Gaur lo pixka bat bakarrik egiterik banu... Bihar alde egingen dut —esan nion.

—Ongi da —esan zuen nekaturik—. Lasai, dena ongi joanen da. Goxotasun izpi hari eutsi nion.

Hantxe, iluntasunean etzana, ohartzen hasi nintzen bakarrik nengoela: institutu gehiagorik ez, guraso gehiagorik ez, salbu eta nire eske etortzen baziren. Lotsaren lotsaz goragalea etorri zitzaidan oroitu nintzenez futbol zelaian gertatutakoaz. Gora botatzeko beldur nintzen, eta ez nuen galdetu komuna non zegoen. Gustatuko zitzaidan Alen eta Jackieren sofa izatea. Haien etxean iratzarri nahi nuen. Horrela Jacquelineri kontatuko nion zer pasatu zitzaidan futbol zelaian. Hari esanen nion? Ohartu nintzen beharbada ez niekeela ez Jackieri ez Ali kontatuko mutilek egin zidatena. Lotsatuegi sentitzen nintzen.

Zerbait hitzeman nion neure buruari lokartu aurretik. Neure buruari agindu nion sekula berriz ez nuela soinekorik jantziko, eta sekula berriz ez niola inori utziko ni bortxatzen, zer gerta ere.

Gerora ikusi zen promesa bakarrari eutsi ahal izan niola.

5

—E, gaztea, zer zabilta? —oihukatu zidan Megek, barra garbitzen ari zela.

Aurpegi ezagunek ongiatorri egin zidaten, atsegin. Abba'sen ohiko bilakatua nintzen.

—Meg, garagardo bat, bai?

—Segituan, haurra.

Edwinaren ondoan eseri nintzen.

—Ei, Ed, gonbida zaitzaket zerbeza batera?

—Horixe —irriz—, zergatik esanen nuke ezetz?

Ostiral gaua zen. Sosa neukan poltsikoan, eta ongi sentitzen nintzen.

—Ei, eta ni zer? —irriz, Jan Mari-mutilak.

—Eta garagardo bat ahizpa zaharrarentzat, Meg.

—Aizu! Zer zahar eta zer!

Esku bat sentitu nuen soingainean. Ikusita azazkal gorrien luzera, Peaches behar zuen izan.

—E, maitea —belarrian musu eman zidan, goxo.

Plazer hasperena egin nuen.

—Eta kopa bat Peachesentzat —oihukatu nion Megi.

—Gaztea, demonioaren umore onez zaude gaur —Peachesek—.

Neskaren batekin arrakasta izan duzu-edo?

Gorritu nintzen. Zauria ukitu zuen.

—Besterik gabe, oso umore onez nago. Badituz lana, mo-toa eta lagunak.

Txistu egin zuen Edek.

—Baduzu moto bat?

—Bai! —oihuz—, bai, bai! Tonik bere Norton zaharra saldu dit. Joan ginen supermerkatuko aparkalekura, igandean, eta praktikatu nuen harik eta nazkatu eta ni gabe alde egin zuen arte.

Edek irribarre.

—Uau. Moto majoa —bostekoa eman zidan.

—Jainkoa, Ed, bai al dakizu zer egin nuen atzo, nire ize-nean erregistratu ondoren? Esan nahi dut, egiaz nirea zela ohartu ondoren? Motoa hartu, eta berrehun milia egin nituen, eta beste berrehun bueltan.

Denek zalaparta egin zuten. Nik baietz, buruaz.

—Zerbait pasatu zitzaidan. Azkenik sentitu naiz arras librea. Poz-pozik nago. Maite dut moto hori. Egiaz maite dut. Ostia, hainbestearino maite dut, ezin baitut azaldu ere.

Mari-mutil motozale guztiek baiezkoa egin zuten, berentzat. Janek eta Edwinek bizkarrekoak eman zizkidaten.

—Gauzak hobetzen ari zaizkizu, haurra. Pozten naiz —Janek—. Meg, atera ezazu beste bat Marlon Brando gazte honentzat. Eratzunak lanean behar zuen!

—The Avengers' prest al daude? —galdegin nuen.

Megek ezetz.

—Beste hamabost minutu. Jainkoa, ezin itxoin dut ikusteko zer daraman jantzirik Diana Riggek oraingoan.

Hasperen egin nuen.

—Espero dut berriz ere larruzko mono hori izatea. Nik uste harekin maitemintzen ari naizela.

Megek irri:

—Jarri ilaran.

Taberna betetzen hasi zen. Mutil gazte bat, sekula ikusi gabea, etorri, eta gin-tonica eskatu zuen. Megek basoa haren parean jarri, eta berehala gizon zaharrago bat iritsi, eta polizia ikurra erakutsi zuen. Polizia uniformedunak arrapaladan sartu ziren. Mutil gaztea amua zen.

—Adingabe bati zerbitzatu berri diozu. Ongi da, andreak, jaunak, utzi edariak barran, erakutsi nortasun agiriak, hau sarekada da.

Janek eta Edwinek kamisetatik tiraka arrastatu ninduten atzeko atarira.

—Alde hemendik, segituan, alde egizu hemendik —garra-sika; ni bitartean motoarekin ez moldatzen.

Bi polizia aparkalekuan azaldu ziren. Zangoak gelatina bezala nituen. Ezin nuen martxan jarri.

—Alde egizu, ostia —oihukatzen zidaten.

Bi uniformedun niganantz heldu ziren. Batak eskua arma-
ra eraman, eta:

—Jaitsi mototik —agindu zuen.

—Benga, benga —ahapeka neure buruari.

Hankaz astinaldi on bat egin, eta orro batez motoa piztu zen. Enbrageari bizkor eragin, eta motoa gurpil bakarrean jarri nuen, nahi gabe, aparkalekutik kanporantz. Toni eta Bettyren etxera iritsi, eta sukaldeko atea fuerte jo nuen. Betty asaldatu egin zen.

—Zer dugu?

—Taberna. Denak. Sarekadan.

—Lasaitu —Tonik, eskua soingainean jarriz—. Lasaitu, eta esan zer pasatu den.

Totalka, sarekadarena azaldu nien.

—Nola jakinen dugu zer gertatu zaion jende guztiari?

—Laster aski jakinen dugu, telefonoak jo bezain bizkor —
Bettyk.

Telefonoak jo zuen. Bettyk isilik aditu zuen.

—Inor ez dute eraman, Meg izan ezik —esan zigun—. Jan mari-mutila eta Ed pixka bat jo dituzte.

Eskuaz kopeta igurtzi nuen.

—Min handia hartu dute? —Sorbaldak jaso zituen.

Errudun sentitu nintzen.

—Uste dut makurrago ibili direla ni handik ateratzeagatik.

Betty sukaldeko mahaian bermatu, eta buruari bi eskuez heldu zion. Toni hozkailura joan zen.

—Garagardo bat nahi, haurra?

—Ez, eskerrik asko.

—Nahi bezala.

Beldurraren harra zebilkidan gauetz lokartzean. Baina egiazko ikara agertu zen gauaren erdian iratzarri nintzenean. Kolpean eseri nintzen, busti-bustia, Tifka'seko sarekada gogoan. Eri bat edo bi handitu nintzen ordutik hona. Poliziek harrapatzen ninduten hurrengo aldian adinak ez ninduen salbatuko. Beldurra borborka nuen eztarriko atzealdean. Gertatu behar zitzaidan. Banekien. Baina ezin nuen aldatu neure izaera. Zen amildegi

baten ertzera eramana izatea bezala, zetorrena ikusiz, baina gelditzeko gauza izan gabe.

Nahiko nuen Al hurbil izatea. Nahiko nuen Jacquelinek beren sofán geriza ematea, nire kopetan musu ematea, eta esatea dena ongi aterako zela.

•••

Abba'seko nagusia hain zorpetua egon zen urte pare bat lehenago, berak eraman behar izaten zituen garagardo-kaxak tabernara. Mafiak ez zuen entregarik baimenduko pagatu arte. Beraz, han eta hemen zabaldu zuen taberna gay bat izanzen zela. Dirua esku beteka irabazi zuen gure bizkar. Preso zegoen eta handia zen merkatu bat ginen. Gehienetan, aldi bakoitzean klub bakarra izaten zen irekia guretzat. Beste nagusiek denbora baterako egin nahi izaten zuten negozioa gurekin. Baina Abba'seko nagusia diruzale bihurtu, eta mafiak sarekada bat eginarazi zuen, eta itxiarazi zuten.

Taberna berria hurbilago zegoen Tenderloineko zerrendatik —Buffalo erdialdean—. Malibou deitzen zen: jazz taberna bat zen, eta 01:00etako ikuskizuna bukatu ondoren ongietorri egiten zigun. Kasu honetan ere, krimen antolatua zen Malibouren jabea. Baina lesbiana baten kargura zegoen. Uste genuen horrek aldea ekarriko zuela. Gert zuen izena. Nahi zuen Izeba Gertie esan geniezaion, baina horrek sentiarazten gintuen neska scouten talde bat. Beraz, Cookie deitzen genion.

Klub berriak dantza pista handiagoa zeukan, baina irteera bakarra. Ordea, bazeukan billar mahai bat, eta Edwinek eta biek orduak ematen genituen jokatzeko, eguzkia ateratzen zen arte.

Ed bere neskaren —Darlene— zain egoten zen, eguna argitu arte. Darlene handik hurbil aritzen zen dantzan, Chippewa karrikako taberna batean. Justu Malibouko eraikinetik behereago bazen hotel bat non beren sexu lanak egiten zituzten puta askok —emakume nahiz gizon—. Egunsentian, emakume langile guztiak beren txandatik atera eta Malibou betetzen zuten, bazirudien inoiz ez zela ixten, edo joaten ziren autobus geltokitik hurbil zegoen jatetxe batera, gosaltzera.

Ohartu nintzen batzuetan Ed ez zela etortzen asteburuetan. Beste zer zegoen bizitzan, fabrikez eta tabernez gainera?

—Ei, Ed —galdetu nion goiz batez—. Non izan zinen joan den asteburuan?

Begirada goititu zuen, ematekotan zen billar-kolpetik.

—Bestelako klub batean.

Erantzunak harritu egin ninduen. Nik nekiela, aldiro klub bakarra izaten zen zabalik.

—A, bai? —nik—. Non?

—East Siden —hark, makila klarioneztatuz.

—Esan nahi duzu *negroen* kluba dela?

—Beltzena —hark, eta *high ball* bat gogor jo eta sartu egin zuen—. Beltzen kluba da.

Informazioa niretu nuen, Edek hurrengo kolpea prestatu bitarte.

—Kaka —esan zuen, huts eginda.

—Desberdina al da klub honetatik? —nik, mahaia azter-tzen nuela.

—Bai eta ez —Edek ez zuen gauza handirik askatzen goiz hartan.

Sorbaldak goratu, eta urrutiko izkinara apuntatu nuen. Huts egin nuen. Edek irribarre egin, eta bizkarrekoa eman zidan. Galdera asko nituen, baina ez nekien nola egin.

Edwinek zortzigarren bola sartu zuen nahi gabe.

—Kaka —ahapeka—, kaka.

Goitik behera begiratu zidan.

—Zer? —jakin nahi izan zuen.

Sorbaldak goratu, nik.

—Begira —hark—. Egun osoz aritzen naiz lanean, fabrikan, lesbiana zahar horiekin. Gustatzen zait hona etortzea eta zuekin denekin egotea. Baina gustatzen zait, era berean, neure jendearekin egotea, ulertzen? Nolanahi, Darlenek eta biek ez genuke hilabete ere iraunen baldin East Siden biziko bagina.

Ezezko keinua, nik. Ez nuen ulertzen.

—Darlene ez da kezkatzen ni hemen egotearekin. Nero-nen klubetan sobera denbora emanez gero, bada, esan dezagun tentazioa handiegia izanen litzatekeela.

—Goseak al zaude? —nik.

—Ez, gizona! Humanoa naiz, besterik ez.—Defentsiban zirudien.

Irri, nik.

—Ez, esan nahi nuen ea gosaltzera etorri nahi duzun.

Bizkarrekoa eman zidan.

—Goazen.

Darlene eta beste neskekin elkartu ginen jatetxean. Asaldaturik zeuden. Bezero batekin borroka egin omen zuten; neska guztiek gainera egin omen zioten salto.

—Ei, Ed —galdegin nion, bitartean Darlenek liskarrean nola jokatu zuen antzezten zuen—, zurekin joan naiteke noiz-bait? Esan nahi dut, ez dakit ongi dagoen eskatzea.

Ed harri eta zur gelditu zen.

—Zergatik? Zergatik joan nahi duzu nire klubera?

—Ez dakit, Ed. Lagun zaitut, bai?

Sorbaldak goratu zituen.

—Eta?

—Ba gaur goizean ohartu naiz zenbat ez dakidan zutaz, hori da. Nik uste gustatuko litzaidakeela zu ezagutzea zerorren zelaian.

Darlenek mahukatik tira egin zion.

—Bihotza, han egon behar zenuen. Ipurdia ostikatu ge-nion akabatu arte! Errukitzeko erregutzen zigun.

—Pentsatu behar dut. Ez dakit —Edek.

—Ongi da. Galdera baino ez zen.

•••

Handik gutxira Edek Maliboura etortzeari utzi zion. Granti galdegin nion zer gertatzen zen, baina esan zidan afera zela Ed «erresumindurik» zegoela Malcolm X New Yorken hil zutenetik. Ed deitu nahi nuen eta harekin hitz egin, baina Megek esan zidan ez egiteko halakorik. Esan zidan auto fabrikako mari-mutilek kontatu ziotela Ed oso haserre zegoela, eta hobe zela bakarrik uztea. Ez zitzaidan ongi iruditzen, baina lesbiana zaharrek emana zen aholkua, eta kasu egin nien.

Udaberrian topatu nintzen azkenerako Edekin, kafetegian. Hainbeste poztu nintzen non besoak luzatu bainizkion, berrar-katzeko. Zuhurtziaz begiratu zidan, lehenbiziko aldiz aztertuko banindu bezala. Beldur nintzen ez zitzaiola gustatuko ikusten zuena. Une baten ondoren, besoak zabaldu zizkidan. Bera berrar-katzea etxera itzultzea bezala izan zen.

Ed berriz ere hasi zen Maliboura etortzen. Halako batez ustekabeen esan zidan:

—Horretaz pentsatu dut.

Irrigarria, banekien zertaz ari zen: ni bere klubera eramateaz.

—Ez nekien nola sentituko nintzen zu hara eramanda, bai? Baina heldu den larunbatean bi emakumeren urteurren festa izanen da. Horietako bat zuria da. Ez dakit, beharbada joan nahiko zenuke...

Nahi nuen. Eden autoa hartzea erabaki genuen.

Larunbat gauean, berandu, Ed nire bila etorri zen. Isilik joan ginen autoan.

—Urduri? —berak.

Baietz, nik. Ufa egin eta ezezko keinua egin zuen.

—Igal ideia txarra izan da.

—Ez —nik—. Ez zuk uste duzunarengatik. Beti beldurtzen naiz klub batera joateko lehenbiziko aldian, edozein klub dela ere. Zu hala sentitu zara inoiz?

—Ez —Edwinek—. Tira, bai, beharbada. Ez dakit.

—Urduri zaude, Ed? Hau da, klub batera mari-mutil zuri batekin joateagatik.

—Bai, pixka bat, igal —atzerako ispilutik begiratzen zuela. Ed semaforo gorrian gelditu zen, eta zigarreta bat eskaini zidan—. Nolanahi ere, estimatzen zaitut, badakizu.

Autoko leihotik begiratu eta irribarre egin nuen.

—Nik zu ere bai, Ed. Asko.

Ohartu nintzen lagunekin ibilia nintzela beltzen komunitatearen mugetan, eskola ondoren, baina sekula ez nintzela barneratu East Siden.

—Buffalo bi hiri bezalakoa da —esan nuen—. Apustu egiten nuke zuri asko ez direla sekula santan hiri honetan izan.

Edek kiraski irri egin, eta buruaz baietz egin zuen.

—Segregazioa ederki bizirik dago Buffalon. Horixe da —eraikin bat seinalatuz.

—Non?

—Ikusiko duzu—. Edek autoa aparkatu zuen hurbileko karrika batean.

Atarira hurbildu ginen. Edek atea gogor jo zuen. Begi bat agertu zen behatxuloan. Atea ireki ahala, musika ozeneko olatuek azpian hartu gintuzten. Zuloa jendez bete-betea zegoen.

Mari-mutil pila etorri ziren Edi ongietorri egitera, eta eskua eman edo sorbaldetatik hartu zuten. Keinua egin zuen nire alde-
ra, eta zerbait oihukatu haien belarrietan, baina musika oso gora
zegoen zerbait aditzeko. Zenbait emakumek keinu egin ziguten,
haien mahai inguruan esertzeko, eta bakoitzak eskua estutu zi-
dan ni eseri bitartean. Edek garagardoak eskatu, eta ondoan jarri
zitzaidan.

—Daisyk jadanik zugan erreparatu du —nire belarrarian
garrasika—. Dantza pistaren beste aldean pare-parean eserita
dagoen emakumea, soineko urdinekoa. Zuri begira dago.

Daisyri irribarre egin nion. Lehenik begiak beheratu
zituen, eta gero nireak bilatu zituen, ausarki. Minutu batzuk ge-
roago, lagun zuen neskari zerbait xuxurlatu, eta zutitu egin zen.
Takoï zorroztzak zituen, urdinak, soinekoarekin bat heldu zire-
nak. Pauso irmoz, gure mahairaino etorri zen.

—Jainkoak lagun zaitzala, neskatoa —egin zidan oihu
Edek, Daisyyren aurrean zutitzen nintzen bitartean.

Daisyk eskua luzatu, eta dantza-pistara eraman ninduen
eskutik. Edwinek beste eskutik hartu ninduen, eta bere belarrira
erakarri.

—Oraindik ere urduri? —egin zidan garrasi.

—Egokitzen ari naiz —oihukatu nion, sorbalda gainetik.

•••

—Ezin sinetsi dut nola ibili zaren hor —esan zidan Edek,
orduak geroago, klubetik lekutzen ginela—. «Egokitzen ari naiz»
—ni imitatuz, irriz, eta soingaina jo zidan.— Neskatoa, beharrik
Daysiren neska ohia ez zegoen han. Ipurdi zuri ostia hori txiki-
tuko zizun.

Halako batean eten egin zioten, esku bat sorbaldan jarri
eta buelta eman zioten. Ni atzetik gogor bultzatu ninduten. Itzuli
nintzenean ikusi ahal izan nuen polizia auto bat, ateak zabalik.
Bi poliziek beren borraz bultzatzen gintuzten.

—Paretaren kontra, neskak.

Karrika estu batera bultzatu gintuzten. Edek eskua sorbal-
dan jarri zidan, adore emateko.

—Kendu eskua, lesbiana hori —oihukatu zion polizia ba-
tek, paretaren kontra zanpatzen zuela.

Nahiz eta adreiluzko paretaren kontra estuturik egon, oraindik suma nezakeen haren eskuak emandako beroa, sorbalda une batez ukitzean.

—Zabaldu zangoak, neskak. Gehiago.

Polizietako batek ileetatik hartu zidan, eta burua atzeraka tiratu, bitartean botaz zangoak bereizten zizkidala. Diru-zorroa hartu zidan atzeko poltsikotik, eta ireki.

Eden aldera begiratu nuen. Polizia hura Ed haztatzen ari zen, eta eskuak Eden izter aldera eraman zituen. Poltsikotik diru-zorroa erauzi zion, dirua hartu, eta bere poltsikora pasatu zuen.

—Begiratu aurrerantz —atzeko poliziak ahoa nire belarri-
tik hurbil-hurbila zuen.

Beste polizia Edi oihuka hasi zen.

—Uste duzu gizona zarela, e? Uste duzu gizon batek bezala aguantatzen ahal duzula? Ikusiko dugu. Zer da hau? —esan zuen.

Kamiseta kolpean goratu zion, eta benda jaitsi. Bularrak hain estu hartu zizkion, Edek oihu itoa egin zuen.

—Utzazue bakean —oihukatu nien.

—Zaude isilik, perbertitu zikina —garrasika atzealdeko poliziak, eta nire burua paretaren kontra jo zuen. Koloretako kaleidoskopioa ikusi nuen.

Edek eta biek buelta eman, eta elkarri begiratu genion lipar batez. Bitxia da, bazirudien nahikoa denbora izan genuela kontsulta egiteko. Lesbiana zaharrek esana zidaten, batzuetan hobe izaten da zanpaketa aguantatzea eta itxoitea, harik eta poliziek bukatu eta lurrean uzten zaituzten arte. Bestetan arriskuan egon daiteke bizitza edo arrazoia, eta merezi du borrokatzen saiatzea. Erabaki zaila da.

Istant batean, Edek eta biek erabaki genuen borrokatzea. Bakoitzak ondoan genuen polizia jo, eta ostikoa eman genion. Une batez bazirudien gauzak hobetu zitzaizkigula. Pareko poliziaren berna-hezurra ostikatu nuen behin eta berriz. Edek bestea zango artean jo zuen eta bi ukabilez haren burua astintzen ari zen.

Polizia batek nire aurka egin, eta borraz plexu solarrean eman zidan zuzenean. Paretaren kontra bidali ninduen, arnasa hartzeko ezgauza nintzen. Orduan kolpe izugarria aditu nuen, borrak Eden kaskezurrarekin bat egitean. Gora bota nuen. Poliziek zanpatu gintuzten harik eta neure burua aurkitu nuen arte

galdegiten, minaren artetik, ea nolatan ez ziren eginahalarekin nekatzen. Bat-batean ahotsak aditu genituen oihuka, hurbil.

—Goazen —polizia batek besteari.

Ed eta biak lurean ginen. Ikusi nuen ondoko poliziaren bota atzeraka egiten.

—Traidore zikina —bota zidan, bitartean botaz saihets-
hezurra jotzen zidala, bukaera gisa.

Oroitzen naizen ondoko gauza da zerua argitua, kalezulo-
tik haratago. Zorua hotza eta gogorra sentitzen nuen masailaren
kontra. Ed ondoan etzana nuen, burua beste aldera. Hatzak luza-
tu nituen hura ukitzeko, baina ez nintzen iristen. Eskua pausatu
nuen haren buruaren ondoko odol putzuan.

—Ed —xuxurlatu nuen—, Ed, mesedez, iratzarri. O, Jain-
koa, mesedez, ez zaitzela hilik egon.

—Zer —aiene ahulez.

—Hemendik alde egin behar dugu, Ed.

—Ongi da —hark—, jarri martxan autoa.

—Ez eman irrikirik —nik—. Justu har dezaket arnasa.

Konortea galdu nuen berriz.

Geroago, Darlenek kontatu zigun familia batek aurkitu
gintuela, mezara zihoazela. Jendea ekarri omen zuten, beren
etxera eramaten laguntzeko, handik hurbil. Ez gintuzten ospita-
lera eraman ez zekitelako legearekin gorabeherarik ote genuen.
Edwin oneratu zenean, Darleneren zenbakia eman zien. Darle-
ne eta bere lagunak etorri, eta eraman gintuzten. Darlenek gu
biak zaindu gintuen astebetetz, apartamentuan, Ed eta biak arras
koherente izatera itzuli arte.

—Non da Ed? Ongi al dago? —Oroitzen naizela, hori da
Darleneri egin nion lehenbiziko galdera.

—Horixe da galdegin zidan lehenbiziko gauza: zer moduz
zeunden —erantzun Darlenek.— Bizirik, biak bizirik, alu tonto pareaa.

Ez genuen larrialdietako medikurik ikusi, ez batak ez bes-
teak, beldurrez, poliziari deituko ote zioten, jakiteko zerbaitetan
nahasirik ginen. Esertzeko eta pixka bat ibiltzeko gauza izan gi-
nenean, egunez egongelan egoten ginen elkarrekin, pixkanaka
oneratzen, Darlene lotan izaten zen bitartean. Sofa ohatze gisa
zabaldua genuen.

Edek utzi zidan Malcolm Xren *The ballot and the bullet*. Ani-
matu ninduen W. E. B. Du Bois eta James Baldwin irakurtzera.

Baina biek genuen halako buruko mina, nekez irakurtzen ahal genuen egunkaria ere. Egun santu osoan elkarren ondoan egoten ginen, telebista ikusten: *Get Smart*, *The Beverly Hillbillies*, *Green Acres*. Hala ere sendatu ginen.

Lanik gabe egon bitartean, Edek ezintasun-paga jaso zuen. Nik inprentako lana galdu nuen.

Maliboun agertu ginenean, hilabete geroago, baten batek disko-makina itzali, eta denak gu besarkatzera etorri ziren arrapaladan.

—Ez, zaudete, kontuz —oihukatu genuen, biek atarirantz atzeraka eginez—. Antzik harrapatzen duzue? —galdegin nuen, Edek eta biek aurpegiak elkarren ondoan jartzten genituela.

Biek genituen ebakiak eskuineko bekainaren gaineko aldean.

Nik behinik behin, zanpaketa haren ondotik konfiantza handia galdu nuen. Kaxa torazikoak oroitazten zidan, arnas-keta bakoitzarekin, zein zaurgarria nintzen.

Atzealdeko mahai batean bermatu nintzen, eta ikusi nituen lagunak elkarrekin dantzan. Atsegina zen berriz etxean izatea. Peaches ondoan eseri zitzaidan, besoa sorbaldetan jarri, eta musu goxo luze bat utzi zidan masailean.

Cookiek lana eskaini zidan, gorila gisa, asteburuetarako. Saihetsak ukitu, eta min keinua egin nuen. Esan zidan mahaiak zerbitzatzen ahal nituela sendatu arte, nahi izatera. Dirua behar nuen, alafede.

Justine ikusi nuen, *drag queen* eder-ederra, nola zebilen mahaiez mahai Maxwell House etxeko kafe lata huts batekin, dirua biltzen.

Etorri zen Peaches eta biok ginen mahaira, eta billeteak kontatzen hasi zen.

—Zuk ez duzu eman beharrik, maitea.

—Zertarako da? —galdetu, nik.

—Zure traje berrirako —erantzun zuen, eta billeteak kontatzen segitu zuen.

—Noren traje berrirako?

—Zure traje berrirako, laztana. Ez duzu esperoko Monte Carlo Night *Drag show* Extravaganzako zeremonia maisura jantzi ziztrin horiekin joatea, ezta? —Zur eta lur nengoen.

—Eraman behar zaitugu traje berri bat eroatera —azaldu zidan Peachesek—. *Drag showa* aurkeztuko duzu heldu den hilabetean.

—Esan berri dizut —Justinek, gogaiturik.

—Ez dakit aurkezlearena egiten.

—Ez kezkatu, laztana —Justinek irriz —ez zara zu izarra. Peachesek burua atzeraka egin zuen:

—Gu gara!

—Baina dibinoa egonen zara —Justinek, billete sorta astinduz.

•••

Istorio beldurgarriak adituak nituen mari-mutilez eta beren *femmeez*, traje bat erosi nahi izan zutenean Kleinhan's arropa dendan. Baina oraingoan Kleinhan's dendan bortitzagoa zen egoera: hiru erregina boteretsu, goitik behera jantziak, niri aukeratzen laguntzen.

—Ez —Justinek, buruaz ezetz eginez indarrez—. Aurkezlea da, ez ehorztetxe bateko zuzendari pitoa.

—Lur koloreak —Georgettak esku artean hartu zidan aurpegia—, bere azaleko kolorearengatik.

—Ez, ez, ez —Peachesek—, hau da —gabardina urdin ilun bat erakutsi zigun.

—Bai —Justinek hasperen egin zuen, aldagelatik ateratzen nintzen bitartean—. Bai!

—Oo, maitea, zuretzat mugituko naiz —esan zuen Georgettak.

—Bai, bai, bai —Peachesek, nire papar-hegalak ongi jarritz.

—Hau hartuko dugu —esan zion Georgettak nabarmen gogaitua zegoen saltzaileari—. Egokitu haurarentzat. Eta ongi eman diezaiola!

Saltzaileak zinta metrikoa hartu zuen bere lepo ingurutik, eta saiatu zen galtzak eta jaka markatzen ni ukitu gabe. Azkenik zutik jarri zen.

—Hemendik aste batera jaso dezakezue —iragarri zigun.

—Gaur jasoko dugu —adierazi zuen Georgettak—. Dendan barna ibiliko gara, gauzak probatzen, prest egon arte.

—Ez —saltzaileak, berehala.— Zatozte bi orduren buruan. Orain alde, alde.

—Ordu baten buruan etorriko gara, laztana —Justinek, sorbalda gainetik.

—Gero arte —Georgettak musu bat igorri zion.

—Zatoz —segitzeko keinua egin zidan Peachesek—. Gure txanda da.

Saltokiko hurrengo atarirantz eramán ninduten. Linjeria departamenturantz.

Buruaz ezetz, nik.

—Komunera joan behar dut. Zuekin joan nahi nuke, baina, alajaina, ezin itxoin dut.

Justinek masaila laztandu zidan.

—Sentitzen dut, laztana.

Peaches tente-tente jarri zen.

—Denak elkarrekin sartuko gara berarekin.

—Ez —bi eskuak goratu nituen—. Gu atxilotzearen beldur naiz.

Maskuria lehertzeaz nuen. Ez nuen hain luze itxoin behar. Arnasa sakon hartu, eta emakumeen komuneko atea bultzatu nuen.

Ispilu aurrean, bi emakume ari ziren makillajea ongi jar-tzen. Bietako batek besteari begiratu, eta ezpainak pintatzen bukatu zuen.

—Zer da, gizona ala emakumea? —galdetu zuen, ondotik pasatzen nintzela.

Beste emakumea niganantz itzuli zen.

—Emakumeen komuna da hau —jakinarazi zidan.

Baiezko keinua, nik.

—Badakit.

Gelaxkako atea itxi nuen. Haien irriek barneraino zauritu ninduten.

—Ez dakizu egiaz gizona den —batak besteari—. Zaind-ariet deitu beharko genieke, seguru egoteko.

Ur zisterna hustu eta kreailera tarrapataka igo nuen, beldurrez. Beharbada mehatxu hutsala zen. Beharbada egiaz deituko zieten zaindारीei. Presaka atera nintzen komunetik, behin aditurik emakumeek alde egin zutela.

—Ongi al zaude, laztana? —Justinek.

Baietz nik. Irribarre egin zuen.

—Emakume horien bizia hamar urtez laburtu duzu.

Neronen burua irri egitera behartu nuen.

—Gizon baten lepotik ez zuten hola irri eginen. Beldur nintzen poliziak bidaliko zizkidatela. Haiek kendu dizkidate hamar urte niri.

—Goazen —Peachesek mahukatik tiratu zidan pazientziarik gabe.— Emakume handien unea da. Linjeria departamentura arrastatu ninduen.

—Zer iruditzen? —Zeta gorritzko gaueko jantzi bat erakusten zidan Georgettak.

—Beltza —nik—. Parpailazko beltz hori.

—Jauna, mutiko onek badu gustua —esan zuen.

Peachesek hasperen egin zuen.

—Irrigarria da, zu ikustea traje hori probatzen, aztoraturik-eta. Gogoan dut aita niri traje bat erosarazten, mezarako. Dotore janztea amesten nuenean, hor ez zen trajerik. Hori seguru. Amesten nuen halako... badakizu, gustu oneko zerbait, tirante fineko zerbait. Holakoxeko eskoteduna —behatzez irudikatu zuen bere kanezuan—. Izan nahi nuen balleteko andereño bat bezalakoa, hiru piezako trajean.

Georgettak ufa egin zuen

—Hobeki esan, maitagarri bat bezalakoa.

Peachesek buruaz atzeraka egin, eta handik eraman ninduen.

Kleinhan'sera itzuli ginen ordu bat geroago. Trajea prest zegoen.

—Badugu dirua soberan gorbata eta atorra erosteko —jakinara ziuen Georgettak.

Justinek hartu zuen mahuka luzeko atorra urdin argi bat. Politagoa zen aitak izandako beste edozein atorra baino. Botoiak ziren zeru-urdinak espiral zuriekin, hodeiak balira bezala. Peachesek eta Georgettak ekarri zuten borgoina koloreko zetazko gorbata bat.

Saltzaileek beren buruak esku artean hartzen zituzten, buruko mina balute bezala. Tira, hobe haiek izatea guk baino.

—Ezin eskertu dizuet behar adina —esan nien.

—Bai, badezakezu, maitea. Hobe izanen duzu ni aukeratzea *drag show* horretako irabazle.

—Ikus dezake ni naizela ederrena denen artean.

—Mesedez, laztana, ez eman irrikik.

Eskuak goratu nituen.

—Zaudete —protestatu nuen—, ez zenidaten esan *drag showa* epaitu behar nuenik.

—Bueno, laztana —Justinek, irribarrez, hemendik hilabetera da. Ez nekatu zure buru polit hori kontu horrekin.

•••

Hilabetea agudo iragan zen. Saiatu nintzen ekiditen parte-hartzaileen arteko borroka guztiak, *showa* antolatzeko moduaz. Beranduxe iritsi nintzen *showaren* gauean. Burutik kaskoa kendu, eta Nortonean gelditu nintzen, atzeko aparkalekuan, zigarrata bat erretzen.

—Haurra, non izan zara? —jakin nahi zuen Peachesek, legarrean zealdoka heldu zela, takoi zorrotzen gainean.

—Banoa —oihukatu nuen, zigarrata itzaliz—. Berehalaxe naiz han.

Denak isildu eta begiratu zidaten ataritik sartzean.

—Jateko modukoa zaude —Peachesek, nire papar hegialak leunduz.

Georgettak eskuak batu zituen:

—Nik uste maitemintzen ari naizela.

—Bai, horixe dio zurrupada bakoitzaren ondoren —Justinek ahapeka.

Cookiek nirekin batera erreparatu zuen programa. Hatz lodiko azazkala hozkatzen nuen hark hitz egin bitartean. Bizi osoa eman nuen ikusezina izan nahian. Nola igoko nintzen agertoki batera, fokua niri begira? Pasarelara igo nintzenean, kluba ilunpetan zegoen. Fokuak ni argitu ondoren, nekez ikus neza-keen jendeketa.

—Kantatu zerbait —oihukatu zuen mari-mutiletako batek.

—Zer itxura dut, Bert Parks pito horrena? —erantzun nion oihuka—. Ongi da —hasi nintzen iragartzen—, hemen ditugu, ba-rie-ta-te-ak.

—Buu!

—Aditu —erregutu nuen—, hau serioa da.

—Hau ez da serioa, hau *drag showa* da —esan zuen norbaitek.

—Bai —nik—. Hau serioa da —banekien zertaz ari nintzen—. Badakizue, bizi guztian esan digute gure izateko modua ez dela zuzena.

Marmar batzuk aditu ziren.

—Bai!

—Bada, hau gure etxea da. Familia gara.

Zenbait txalo izan ziren entzuleen artean.

—Arrazoi duzu, bai horixe —oihukatu zuen atzeko *drag queen*etako batek.

—Hortaz, gaur ospatuko dugu gure izateko modua. Ez dago ongi bakarrik, ederra da. Eta nahi dut zuek denek sentiaraztea showko ahizpa eder hauei zenbat maite eta errespetatzen ditugun.

Jendeak onespren orroa egin zuen. Justine eta Peaches lasterka atera, musu eman zidaten, eta berriz beren lekuetara itzuli ziren presaka.

Cookiek emandako fitxak erreparatu nituen.

—Mesedez, egin ongietorri, gaur, Miss Diana Ross-i, kantatuko baitu *Stop in the name of love*.

Musikak gora egin zuen, eta ni alde batera joan nintzen.

Peachesen soinekoak dir-dir egiten zuen fokuaeren azpian.

A zer izaki ederra.

Maitasunaren izenean, *geldi*, gorbatatik hartu zidan kantatu bitartean, nire bihotza *urratu aurretik*. Ezpainak nireetatik hurbil-hurbil zituen. Airea joan zitzaidan, haren antzezpenak harrapatuak.

Txalo burrunbatsua izan zen.

—Eman eskuoihal bat haurrari —baten batek garrasika, kopetako izerdia lehortzen nuela eskuaren atzealdeaz.

—Mesedez, eman ongietorria Miss Barbada Lewisi. *Hello Stranger* abestuko digu.

Justine zuzenean etorri zen niregana; mantso, arrunt egonkor bere takoi zorrotzen gainean, musikak gora egiten zuela.

Kaixo, ezezagun hori, beso batez soingainak hartu zizkidan, *badirudi oso denbora luzea iragan dela*. Honetara ohitu nintekeen.

Hurrengo antzezlea zen Georgettaren mutil-laguna, Booker. Sekula ikusi gabea nintzen Booker *drag queen*ez beztiturik. Soinekoarekin ere, Booker mutil bezala ikusten nuen. Booker ere egitekoa zen *Stop in the Name of Love*. Georgetta kirika zegoen, agertokiko paretaren atzeko aldetik.

—Ez zenuen sekula asmatuko —xuxurlatu zidan—. Uste duzu egiazko gizon batekin ezkondurik zaudela, eta aurkitzen

duzu daukazula ahizpa bat, ezpainenakoa hartu eta itzultzen ez dizuna.

Irritxoa, nik.

—Jainkoa, lagundu —esan zuen—, neska hori larri dabil.

Bookerren soinekoko tirantea aldiro jaisten zen, besoa altxatzen zuenean Stop! esateko. Oso sexia izan zitekeen, baina hain urduri zegoen, aldiro saiutzen zen goratzen.

—Lagun iezaiozu —eskatu zidan Georgettak.

Mikroa Georgettari eman, eta Bookerren parera atera nintzen, agertokira. Haren aurrean belaun bat lurrean jarri nuen, niretzat kantatuko balu bezala. Ondoren atzetik inguratu nuen, eta tirantea jaitsi nion, limurtzaile.

—Utzazu —xuxurlatu nion, soingaina musukatzen niola.

Bookerrek dramatikoki urrutiratu ninduen, kantatuz nire bihotza urratu aurretik. Jendeak orro batez onetsi zuen. Denak gozatzen ari ziren Bookerren antzezipenarekin.

Gutako inork ez zuen ikusi argi gorria dirdiraka.

Musika itzali, eta jende guztia kexatu zen. Orduan polizia pila sartu zen klubean. Eskua altxatu nuen begiak fokutik babes-teko, baina hala ere ezin izan nuen ikusi zer gertatzen zen. Aditu nituen oihuak eta mahaiak eta aulkiak iraultzen. Oroitu nintzen atari bakarra zegoela; oraingoan ez zen ihesbiderik. Hamasei urterekin oraindik adingabea nintzen.

Mantso, nire traje urdineko jaka berria kendu, kontuz tolestu, eta piano gainean utzi nuen, agertokiaren atzeko aldean. Momentu batez, bururatu zitzaidan gorbata kentzea, ustez-eta nolabait gauzak errazago izanen nituela hala eginez gero. Baina, jakina, ez zen hala izanen. Egia esan, gorbatak indarra emanen zidan, parean nuen dena delakoari aurre egiteko. Mahukak bildu, eta agertokitik jaitsi nintzen. Polizia batek hartu, eta eskuak estu lotu zizkidan bizkarraldean. Polizia bat Bookerri zaplazteko-ka ari zen, eta hau negarrez.

Polizia-furgoneta klubaren ate-atean jarri zuten. Poliziek kolpeka ibiltzen gintuzten furgonetara bultzatu bitartean. *Drag queen* batzuek broma urduriak egiten zituzten polizia-etxerako bidean, txantxak eginez tentsioa arintzeko. Nik isilik egin nuen bidea.

Denak batera jarri gintuzten ziega izugarri handian. Esku lotuak handituak nituen, eta hotzak, zirkulazio faltarengatik.

Ziegan itxoin nuen. Bi poliziak atea ireki zuten. Irriz eta elkarrekin solasean ari ziren. Ez nien aditzen.

—Zer nahi duzu, gonbidapen alu bat? Oraintxe! —agindu zuen bietako batek.

—Tira, Jesse —nitaz irriz, polizia batek—, egin irribarre polita kamerarako. Hain neskato polita zara. Ez al da polita, lagunak?

Fitxarako argazkia egin zidaten. Polizietako batek gorba-ta laxatu zidan. Urratuz ireki zidan nire atorra berria, eta botoi urdin argiak airean atera, eta lurrean barreiatu ziren. Kamiseta goratu zidan, eta bularrak agerian utzi. Eskuak bizkarraldean lotuak nituen. Paretaren kontra nengoen.

—Ez dut uste gustuko zaituenik, Gary —beste polizia batek—. Beharbada ni nahiagoko nau.

Gela gurutzatu zuen, niregana. Belaunak dardarka nituen. *Mulroney tenientea* irakur zitekeen haren plakan. Plakari begira harrapatu ninduen, eta zaplazteko gogorra eman zidan. Haren eskuak aurpegia estu-estu hartu zidan.

—Zurrupaidazu —esan zuen isilka.

Gelan ez zen soinurik aditzen. Ez nintzen mugitu. Inork ez zuen deus esaten. Iruditu zitzaidan denak hala segitzen ahal zuela, ekintza oro izozturik, baina ez zen hala izan. *Mulroney* bere zango tartea ukitzen ari zen.

—Zurrupaidazu, lesbiana.

Baten batek borrarekin jo ninduen belaunaren alde batean. Belaunak tolestu zitzaizkidan, gehiago beldurrez minez baino. *Mulroneyk* atorraren lepotik hartu ninduen, eta zenbait metroz arrastatu, altzairuzko komun bateraino. Bazen zulotik joan gabeko kaka zati bat uretan.

—Edo jan idazu, edo jan ezazu kaka, lesbiana. Nahi duzuna. Ikaratuegi nengoen pentsatzeko nahiz mugitzeko.

Arnasari eutsi nion burua komunean murgildu zidan lehenbiziko aldian. Bigarren aldian, hain luze mantendu ninduen, non ura irentsi bainuen, eta kaka solidoa sentitu nuen mingainaren kontra. *Mulroneyk* burua komunetik atera zidanean dena gora bota nion. Goragalea eta okadak nituen behin eta berriz, behin eta berriz.

—O, kaka zaharra, ostia, atera ezazue hemendik —oihukatzten zioten elkari poliziek, gora botaka segitzen nuela.

—Ez —esan zuen Mulroneyk—, lotu eskuburdinaz hor, mahai gainean.

Altxatu ninduten, eta mahai gainera bota, bizkarrez, eta eskuak buru gainetik lotu. Polizia batek galtzak jaitsi zizkidanean, saiatu nintzen urdaileko espasmoak lasaitzen, ez nendin nire gorakoarekin ito.

—O, ez da hain erakargarria. Galtzontzilloak... —polizia batek besteari oihuka.

—Perbertitu zikina.

Sabaiko argira begiratu nuen: bonbilla hori handi bat, saretan metaliko baten atzean. Argiak oroitarazi zidan ikusitako western piloan, iparraldera etorri ondoren. Beti, norbait desertuan galdua zela, ikusten zen gauza bakarra zen eguzki itsugarria: desertuaren edertasun guztia inpresio bakar horretara mugatua. Kartzelako bonbilla horri begiratzeak salbatu ninduen neure degradazioa ikustetik: desagertu besterik ez nuen egin nahi.

Neronen burua desertuan topatu nuen. Zeruak kolore zerrendak zituen. Argi aldaketa bakoitzak ñabardura desberdina proiektatzen zuen naturan: izokin-kolorea, arrosa, labanda. Salbiaren usaina oso indartsua zen. Arrano beltza nire gainean hegan ikusi aurretik ere, haren oihua aditu nuen, hain argi, nire eztarritik atera balitz bezala. Arranoarekin hegan egitea desiratzten nuen, baina lurrean errotua nengoan. Mendiak goratu egin ziren niri harrera egiteko. Haiengana jo nuen, babes bila, baina zerbaitek eutsi egin zidan.

—Kaka zaharra —bota zuen Mulroneyk—. Emaiozue buelta, alua sobera laxoa du.

—Alajaina, tenientea, nolatan dituzte lesbiana zikin hauek halako alu handiak ez badute gizonekin larrutan egiten?

—Galdetu emazteari —Mulroneyk.

Gainerakoek irri egin zuten.

Ikaratu nintzen. Saiatu nintzen desertura bueltatzen, baina ezin topatu nuen dimentsioen arteko irekidura lauso hori, zeinetik lehenago pasatu bainintzen. Gorputzeko min leherketak kolpean itzularazi ninduen.

Desertuan nintzen berriz ere, baina oraingoan harea freskatua zen. Zerua hodeitua zegoen: ekaitz mehatxua. Sargori jasanezina zegoen. Nekez hartzen zen arnasa. Urrutian, berriz

aditu nuen arranoa oihuka. Zerua mendiak bezain ilun bilakatzzen ari zen. Haizeak ilea mugitzen zidan.

Begiak itxi, eta aurpegia desertuko zerurantz goratu nuen. Eta, azkenean, askatu zen: euri atsegina masailetan behera, arindu ongi etorria.

6

Eraztuna joana zen. Existitu izanaren froga material bakarra eraztuna neraman hatzeko odol babak ziren. Dudarik gabe, poliziek kenduko zidaten eskuak loturik eta handiturik nituela. Eraztuna joana zen. Apartamentuan eseri, eta leihotik kanpora begiratu nuen. Ez nekien zenbat denboraz egon nintzen iratzarrik.

Justinek eta Peachesek fidantza pagatu zidaten. Gogoan dut esan zidatela ez zegoela salaketarik gutako inoren aurka. Etxera iritsitakoan, Justinek nirekin egon nahi zuen, baina irmoa izan nintzen: bakarrik egon nahi nuen.

Lehenbiziko gauza, bainu bat hartu nuen. Burua atzeraka jarri, eta bainuaz gozaten saiatu nintzen. Baina ohartu nintzen ura arrosakara bihurtzen zela eta zango artetik ur gorria ateratzen zitzaidala. Berehala oroitu nintzen nola sentitu nuen kaka zatia mingainaren kontra, eta arrapaladan atera nintzen bainuontzitik, komun zulora gora botatzeko justu-justu garaiz.

Orain lasai nengoen. Ez nuen gauza handirik sentitzen gertatutakoaz. Baina zorioneko baretasun honetan ere sumatzen nuen falta nuela babestuko ninduen eraztuna, edo, gutxienez, bere jakituria emanen zidana. Eraztuna joana zen. Orain ez zegoen deus itxaroterik. Eraztuna joana zen.

Bettyk atea jo, eta sartu zen. Ikusi zuen ukitu gabe zegoela bezperan ekarritako oilasko frijituko platera. Oilasko zatiek giza atalak ziruditen, eta ez nintzen gauza haragia hozkatzeko. Pentsatzeak berak eragin zidan komunera joatea laster batean, goitika egitera.

—Sagar tarta ekarri dizut —Bettyk.

Hori biziko kalikoa zeukan esku artean.

—Pentsatu dut gortinak egin nitzakeela leiho honetarako, ados?

Gortinarik gabe bizi izan nintzen etxe honetara ailegatu nintzenetik, sei hilabete lehenago. Baiezko keinua egin nuen. Betty josten hasi zen. Tarteka begirada goratzen zuen niregana. Gortinak plantxatzeko altxatu zenean, banekien segur aski orduak emanak zituela gelan josten, baina segundoak iruditu zitzaizkidan.

Gortinak oso politak ziren, baina nire aurpegiak ez zuen mugitu nahi, ezta irribarre egiteko ere. Betty hurbildu, eta ondoan eseri zitzaidan.

—Zerbait jan beharko zenuke.

Begiratu nion, erakusteko aditu niola. Aterantz jo zuen, alde egiteko, eta orduan gelditu egin zen.

—Badakit —esan zuen—. Uste duzu inork ez dakiela. Ez duzu uste inork uler dezakeenik. Baina nik ulertzen dut.

Ezezko keinua egin nuen, poliki. Ez zuen ulertzen.

Betty aurrean belaunikatu zitzaidan. Elkarri begiratzearekin batera sentitu nuen bat-bateko elektrizitate emozionaleko astinaldi bat. Sentitzen ari nintzen guztia ikusi nuen Bettyren begietan, neronen islari begiratuko banio bezala. Soa desbideratu nuen izuturik. Bettyk baietz egin, eta belauna estutu zidan.

—Badakit —altxatzen zela—, ulertzen dut.

Ez nintzen sofatik mugitu. Iluntasunak gela hartu zuen. Berriz ere atea jo zuten. Nahi nuen denek alde egitea eta bakarrik uztea.

Peaches sartu zen, *hiltzeko jantzia*.

—Nire hitzordua kaka zaharra izan da.

Eta sukaldera joan zen. Geroxeago bi katilu ekarri zituen banillazko izozkiarekin, bi koilara iltzaturekin. Ondoan jarri zitzaidan sofan, eta bat eskaini. Hain zen goxoa izozkia, hain freskoa eztarrian behera, malkoak aterarazi zizkidan.

Peachesek kalparra laztandu zidan. Pentsatzen ari nintzen nolakoa den mundua elur pilaren azpian ehortzirik dagoenean. Adartxo eta telefono linea bakoitzaren gainean elur eria dagoenean, ilargipean dir-dir egiten. Isil eta geldi. Sorgor. Halaxe zegoen mundua niretzat. Peachesi edo Bettyri esan nahi nien zein bakean sentitzen nintzen orain, baina ezin nuen hitz egin.

—Lo egiteko beldur zara, ez da hala, haurra? —Oso goxoa zen Peachesen ahotsa—. Baina Peaches hemen da zurekin. Gaur nire besoetan eginen duzu lo. Ez dut utziko deusek zu mintzerik.

Nire logelara alde egin zuen. Berehala atera, eta ohatzera eraman ninduen. Maindireak aldatu zituen; freskoak eta garbiak zeuden. Umea banintz bezala etzanarazi ninduen, eta ondoan jarri zitzaidan. Gonbitoaren gustua sentitzen nuen eztarrian gora, baina hala ere bere gorputzerantz erakarri ninduen. Nire ezpaineak haren bularraren kurba topatu zuten.

—Hormona horiek puzten dituzte hola, baina orain nireak dira. Ilean musu eman zidan.

Kantu bat kantatu zidan, hain goxo, soinuak berehalakoan lokarrarazi ninduen.

•••

Edwinek nire jaka urdina hartu zuen. Zegozkion galtzak topatu zituen komun ondoko arropa pila batean, eta biak jantzi-garbitegira eraman zituen.

Hurrengo ostiralean Maliboun agertu ez nintzenean, Ed, Georgetta eta Peaches etxera nire bila etorri eta hara eraman ninduten. Cookiek trapu bat jaurti zidan, eta mahaiak garbitzen hasteko agindu. Tontoturik ibili nintzen zenbait astez, ezgauza tenperatura sentitzeko, hotz nahiz bero. Munduak aparte zirudien.

Gau batez, gizon batek keinu egin zidan mahaitik, esan zidan patata frijituak sukaldera itzultzeko. Hotzak zeudela. Cookiek eraman nizkion, baina hark okupatuegi zegoela. Patatak gizonari bueltatu eta barkamena eskatu nion. Hark ur baso bat hartu eta eduki guztia patatzen gainean hustu zuen.

—Hotzak daude —esan zuen.

Bidaia-maleta ireki, suge gaitza atera, eta lepo inguruan paratu zuen. Orduan, basoari hozka egin, eta kristala murtxikatzeko hasi zen.

—Patatak hotzak daude —errepikatu zuen.

—Cookie —oihukatu nuen, sukaldean sartuta—. Eman patata frijitu bero batzuk, oraintxe berean!

Protestaka hasi zen.

—Oraintxe, kaka zaharra. Oraintxe behar ditut!

Gizonak eskupeko ederra utzi zidan.

—Ez dakizu nor zen? —Bookerrek, irriz lehertzen. Denek irritxoak egin zituzten—. Razor Man zen. Hurbileko klub batean ematen du ikuskizuna.

Trapua jaurti nuen.

—Lan hau kaka zahar ostia bat da —kexatu nintzen, baina ni ere irribarrez hasi nintzen.

—Zer da hain dibertigarria? —Tonik, atzetik. Buelta eman nuen esplikatzeko, baina aurpegia haserreak bihurritua zuen.

—Galdetu dut zer ostia den hain irrigarria —jakin nahi zuen.

Mari-mutiletako bat saiatu zen hari eusten.

—Tira, Toni, lasaitu.

Askatu zen, eta zealdoka etorri niregana.

—Uste duzu dibertigarria zarela?

—Baina zer demonio, Toni —nik, nahasirik.

Putata talde bat ataritik sartu zen, eta haiengana joaten hasi nintzen, agurtzera, baina Tonik bueltarazi ninduen.

—Uste duzu ez dakidala zer ari den pasatzen nire *femmeen* eta zure artean?

Denek amasari eutsi zioten. Ahoa bete hortz gelditu nintzen.

—Toni, baina zertaz ari zara?

—Uste duzu ez dakidala, ezta?

Betty Tonirengana joaten hasi, baina Angiek, iritsi berritako puta batek, eutsi egin zion.

—Zatoz kanpora, putakume kakazu hori! —lurrera listua boteaz.

Ez nuen inola ere Tonirekin borrokatu nahi; beraz, kanpora atera nintzen solas egiteko. Denek kanpora segitu zidaten, aditzeko.

—Toni —erregutu nion.

—Ixo eta borrokatu, kabroi zikin hori. Hasi, putakume kakazua.

—Begira, Toni —nik—, jo nahi banauzu, aurrera. Hobeki sentitzen bazara, ez zaitut geldiaraziko. Baina zergatik nahiko nuke zu jo? Behar nuenean lagundu zenidan. Ongi aski dakizu ez nizula errespetua galduko, ez zuri ez Bettyri.

Bettyri begiratu nion, eta barkamena eskatu zidan begiradaz.

—Ez begiratu nire *femmeari*, alu zikina!

—Toni, esaten ari naiz ez nukeela deus eginen, inoiz, zuri faltatzeko.

—Alde egin ezazu nire etxe ostiatik —egin zidan garrasi. Dardarka zegoen—. Alde!

Angie atzean nuen.

—Tira, maitea —besotik tiraka—. Hemen gauzek okerrera besterik ez dute eginen. Tira —berriz ere tabernara sarraraziz.

Grantek eta Edwinek laguntza eskaini zidaten nire puskak biltzeko eta eramateko.

—Kaka —esan nien—, bi burko-zorro besterik ez ditut behar nire gauza guztiak hartzeko. Motoan eraman ditzaket.

Nire gauzeekin klubera itzuli nintzenean, taburete bat topatu nuen barraren bukaera aldean, eta garagardo bat iraunarazten egun nintzen. Angie ondoan eseri zitzaidan.

—Baduzu gaua pasatzeko lekurik?

Zigarreta itzali zuen. Ezetz, nik.

—Begira —besoan kolpetxo emanenez—, nekaturik nago, etxera joan nahi dut, ohatzera: lotara. Zuk lotarako lekua behar duzu, ongi da. Baina ez egin jostaketarako ideiarik.

—Bezeroekin ibili zara gau guztian? —nik.

Angiek mesfidati begiratu zidan.

—Bai.

—Orduan nola demonio gogoratuko zait irrikatan zaudela norbait etxera eraman eta larrutan egiteko?

Whiskia kontrako eztarik joan zitzaion, eta irriz hasi zen.

—Tira, gaztea, gosaltzera gonbidatuko zaitut ateraldi horregatik.

•••

—Esan egia —Angiek, txigortuan gurina zabaltzen zuela—. Gezurrik ez. Zergatik ez zinen harekin borrokatu? Egiaz zen laguna zenuelako edo beldur zinen?

Buruaz ezetz, nik.

—Ez da nire lagunik onena dela, ez deus holakorik, baina asko lagundu dit. Ez dut jo nahi, horixe da. Mozkorra zegoen.

Irribarre gaiztoz:

—Beraz, Bettyrekin larrua jotzen aritu zara?

Ezetz, nik.

—Ez da nire estiloa.

Aurpegira begiratu zidan, sardexkarekin arrautzak zirikatzen zituela.

—Zenbat urte dituzu, haurra?

—Zenbat urte zenituen nire adinean? —gogaiturik, nik.

Bizkarra paretan bermatu zuen.

—Naski karrikek zahartzen gaituzte behar baino lehena-go, e, haurra?

—Ez naiz haurra —ahots gogorra atera zitzaidan.

—Sentitzen dut —egiaz sentitzen zuela zirudien—. Arrazoi duzu, ez zara haurra.

Aho zabalka hasi, eta begiak igurtzi nituen. Irri egin zuen.

—Eutsi beharko dizut?

Angiek begiratu zuen puta zaharrago bat zegoen aldera; hura kontua pagatzen ari zen kutxan.

—Badakizu —esan zidan—, neska txikia nintzela, oroitzen naiz nola jatetxe batean nengoan amarekin eta aitaordearekin, eta ikusi nuen emakume bat holakoxe itxura izanzen zuena.

—Ederra da, ezta? —nik.

Angiek niri begiratu, eta burua alde batera makurtu zuen. Emakume gogorrek gustatzen zaizkizu, ezta, mari-mutila?

Nik irribarre egin, eta sardexka arrautzetan iltzatu nuen.

—Gogoan dut —jarraitu zuen Angiek—, nola aitaordeak esan zuen «Puta nazkagarri zikina», aski gora, emakumeak kontua pagatzen zuen bitartean. Jatetxean denek aditu zioten. Baina emakumeak, besterik gabe, kontua ordaindu, hortzetako txotx bat hartu, eta atera egin zen, oooso mantso, aditu izan ez balio bezala. *Halakoxea izanzen naiz handitzen naizenean* pentsatu nuen.

Baietz, nik.

—Hori da hamalau urte-edo nituenean bezala: emazte-gizon bat ikusi nuen —Angiek, adi, kokotsa esku-oinarrian bermatu zuen—. Ahazturik neukan. Gurasoak ni arrastatzen ari ziren eta bat-batean gelditu ninduten. Badakizu nolako jendetza egoten den eta zer zalaparta, saltegi handietan, Eguberri aurretik? Ba, halako batez, dena isil-isilik zegoen. Kobratzeko kutxen soinua itzali zen, eta inor ez zen mugitzen. Denak zeuden bitxien departamentu aldera begira. Hantxe zegoen bikote hura: emazte-gizona eta haren *femmea*. Eratzunak begiratzen ari ziren, besterik ez, bai? —Angiek eserlekuan atzeraka egin, eta hasperen mantsoa bota zuen—. Denak haiei begira. Presioak bi emakume horiek saltegitik

kanpora jaurti zituen, kortxoak bezala. Haien atzetik lasterka joan nahi nuen, eta erregutu eraman nintzatela. Eta aldi berean pentsatzen nuen, *O, kaka zaharra, halakoa izanen naiz ni.*

Angiek buruaz ezetz egin zuen.

—Latz da ikusten duzunean zer heldu zaizun, ezta?

—Bai —nik—, zera bezala da: errei bakarreko errepidean joatea, eta trailer bat zuzenean heldu zaizula ikustea.

Keinu egin zuen.

—Goazen —esan zidan—, lo egin behar dut.

Angieren apartamentuak etxe itxura handiagoa zuen nire izandakoak baino.

—Gustatzen zait sukaldeko gortinatarako daukazun material hori. Nola esaten diezu? —galdetu nuen.

—Tisu papera —hark.

Bi botila atera zituen hozkailutik.

—Aditu, lekurik behar baduzu, apartamentu hau erabilgarri egon daiteke; oso-oso agudo, ulertzen badidazu.

Burua alde batera makurtu nuen:

—Esaterako bihar?

Irri egin zuen.

—Beharbada lehenago, nork daki?

Garagardoa edan, eta zigarreta piztu nuen. Paketea mahaira bota nuen. Angiek bat hartu, eta parean eseri zen.

—Problema txiki bat izanen dut laster, bai? —Baietz, nik—. Beraz, leku hau nahi izanez gero, merkea da.

—Badakizu? —esan nion—, fakturak pagatzen ere ez dakit. Ez dakit nola den hori dena. Toni eta Bettyrenean baizik ez naiz bizi izan.

Angiek eskua besoan jarri zidan.

—Aholku bat emanen dizut. Ez zaude kasu egitera behartua. Lortu fabrikako lan bat, ez dezazun eman bizi guztia tabernatan. Tenderloinen bizitzea da bizar xafla bat milikatzea bezala, ulertzen? Ez dut esaten fabrikak zerua direnik-edo, baina beharbada fabrika batean sar zaitezke, beste mari-mutil batzuk lankide izan, fakturak pagatu, eta neska batekin egonkortu.

Soingainak altxatu nituen.

—Badakit heldu behar dudala.

Angiek irribarre egin, eta ezetz.

—Ez, haurra. Esaten ari naiz gazte iraun behar duzula. Ez dut nahi sobera agudo zahartu behar izatea. Ni zahartu nintzen lehenbizikoz atxilotu nindutenean: hamahiru urte nituen. Polizia bat oihuka aritu zitzaidan, zurrupada bat egin niezaion, eta jo eta txikitu ninduen egin ez niolako. Ez bainekien zer esan nahi zuen *zurrupatzeak*. Aurretik ez nuen holakorik egin behar izan.

Altxatu eta konketara joan nintzen. Gora botatzeko gogoa nuen. Angie zutitu, eta eskuak sorbaldetan paratu zizkidan.

—Barkatu, bai istorio tontoa. —Ezin nintzen itzuli eta hari begiratu—. Tira, bihotza, eser zaitez —goxoki tira eginez—, ongi zaude? —esan zidan, niri buelta emanaraziz—. Ongi zaude? Irribarre egin nion, baina ez zen sinesgarria. Hatzak ile artetik pasatu zizkidan—. Ez zaude ongi, ezta?

Hark ahots goran esatearekin, halako arindua sentitu nuen, negarrez hasi bainintzen. Bere sorbaldara erakarri, eta kulunkatu ninduen. Konketaren kontra jarri ninduen berriz ere, eta aurpegira begiratu zidan.

—Solas egin nahi? —Ezetz, nik—. Ongi da, —xuxurlatu zuen—, ongi da. Kontua da batzuetan ona dela gauzez hitz egitea.

Eskuaz kokotsa hartu zidan. Aurpegia kentzen saiatu nintzen, baina ez zidan utzi.

—Badakizu, beharbada errazagoa da *femmeentzat* honetaz hitz egitea mari-mutilentzat baino; zer uste duzu?

Sorbaldak goratu, nik. Harrapatua eta zorabiatua sentitzen nintzen.

—Nork zauritu zaitu, haurra? Poliziek? —Aurpegira begiratu zidan—. Nork gehiago? —Ahots goran ondorioztatu zuen— O, haurra, zu ere zaharra zara jada —ahapeka kantatu zidan, bere kontra estu hartzen ninduela. Aurpegia bere lepoaren goxoan hondoratu nuen —Zatoz hona, haurra, eseri—. Sukaldeko aulki bat erakarri zidan.

—Ongi nago —esan nuen.

—Et-et. Ez zaude mari-mutilekin ari orain. Neska-lagunarekin irekitzen zara?

—Ez dut neska-lagunik —onartu nuen gogoz kontra.

Angiek harritua zirudien, eta lausengatua sentitu nintzen. Irribarre lotsatia egin zuen.

—Inoiz ireki zara neska-lagun batekin?

Orratzean harrapatutako tximeleta sentitzen nintzen.

—Nik...

Buruaz ezetz egin, eta begietara begiratu zidan.

—Ez duzu sekula neska-lagunik izan? —Nire altzora begiratu nuen, lotsaturik—. Baina nola egin die ihes zu bezalako mari-mutil eder batek hor barna dabiltzan *femme* goseti horiei? —adarra joz, nire kokotsa goratuz—. Zenbatetan atxilotu zaituzte, haurra?

—Bitan —sorbaldak goratuz.

Baietz, berak.

—Askoz latzagoa da zer heldu zaizun dakizunean, ezta? Utzi nion nire begietan irakurtzen.

—Maitea —altzoan eseri zitzaidan.

Aurpegia bere bularren kontra erakarri zuen.

—Maitea, sentitzen dut zu zauritu izana. Baina batez ere sentitzen dut horrekin nora joan ez duzula. Ekarridazu niri orain. Ongi da —bere goxoan eutsi zidan. Hitzik gabe, sentitzen nuen gutzia esan nion. Deus esan gabe, adierazi zidan ulertzen zuela.

Orduan, ezpainez bularra ferekatu nion, eta soinu batek ihes egin zion eztarritik. Elkarri begiratu genion, ikaraturik. Begirada izutua zuen, izoztua, hala nola orein batena autoaren argien aurrean. Orduan ohartu nintzen sexua zein den indartsua.

Angiek ileetatik hartu zidan atzaparrez, eta burua atzeraka eraman zidan, mantso. Bere ezpainak nireetara hurbildu zizkidan, haren arnasaren epela sentitu ahal izateraino. Marmar bat atera zitzaidan eztarritik. Angiek irribarre. Burua atzerago eraman zidan, eta hatzak eztarrian behera pasatu zizkidan, arinki. Hotzikara izan nuen gerritik belaunetaraino.

Aho osoarekin eman zidan musu. Txikitan uste nuen nazkagarria zela helduek elkarren mihiak milikatzea. Uste nuen beharbada egia ere ez zela izanen. Baina Angieren mihiak nireari egiten zionak gorputza sutan jarri zidan. Ahalegindu nintzen nire mihiak berearen zati handiagoa hartzen.

Halako batez burua berriz atzeraka eraman zidan, eta begirada arraro, basaz begiratu zidan. Beldurtu nintzen, eta ohartu izanen zen, zeren irribarre egin eta erakarri egin baininduen. Eskuez gerria igurtzi nion, eta ezpainez haren titiburu gogortua topatu zuten.

Hitzik esan gabe, zutitu eta eskutik hartu ninduen. Logelan musukatu ninduen, atzeraka bultzatu, niri begiratu, eta berriz musukatu.

Haren eskua nire zango arteraino irristatu zen, eta nik kendu.

—Ez duzu betea? —galdetu zidan.

Ez nion ulertzen.

—Ongi da —hark, komodarantz zihoala.

Beretzat esan zuen:

—Arnesik ez badut, neure burua garbituko dut.

Ohartu nintzen dildo baten bila zebilela. Ezin oroitu nintzen zer erakutsi zidan Alek, ezta hitzik ere. Gogoan nuen guztia zen Jacquelinen ohartarazpena: *Oso ongi pasarazten ahal diozu emakume bati honekin, edo oroitarazten ahal dizkiozu bizian sufriarazitako zauri guztiak.*

—Zer, maitea? —Angiek.

Biek begiratu genien eskuetan zeuzkan dildoari eta arnesari. Angieren aurpegiak hainbat espresio hartu zituen bata bestearen atzetik, identifikatu ez nituenak.

—Ongi da —berak, ni aldentzen hasia nintzela—. Zatoz, laztana —limurtu ninduen.

Angiek buelta emanarazi zidan.

—Erakutsiko dizut nola.

Bizian aditutako hitzik lasaigarrienak.

Irratiraino joan, eta diala mugitu zuen harik eta Nat King Coleren ahots ezta topatu arte *Unforgettable* kantatzen. Nire besoetara etorri zen.

—Dantzatu nirekin, maitea. Badakizu nola ni ongi sentiarazi. Ikusten nola segitzen dizudan? —xuxurlatu zidan belarrira—. Horixe nahi dut zuk niretzat egitea larrutan ari garenean. Nirekin mantso dantzatzea. Nahi dut zuk niri segitzea nik zuri segitu bezala. Zatoz.

Dildoa bazter batera bota zuen, ohatzean etzan, eta haren gainera erakarri ninduen.

—Aditu musika. Ikusten nola mugitzen naizen? Mugi nirekin —esan zidan.

Eta nik hala egin. Dantza berri bat erakutsi zidan. Kantu hura bukatutakoan, beste kantu mantso bat iritsi zen, Humphrey Bogarten film hartakoa: *Casablancakoa*. Iritsi zenean zati

horretara non esaten duen *Emakumeak gizona behar du eta gizonak bikotekidea*, irri egin genuen.

Angiek ahoz gora jarri ninduen, atorra askatzen hasi zitzaidan, eta kamiseta kendu gabe utzi zidan. Belauniko jarri zen, eta, pixkanaka, galtzetako botoia askatu zidan. Galtzak kendu eta galtzontzilloak utzi zizkidan. Arnesa eta dildoa ahal bezala jantzi nituen. Angiek burkoaren kontra bultzatu ninduen, eta gomazko zakila hartu zidan bi eskuez. Nola ukitzen zuen ikusteak hipnotizaturik nindukan.

—Sentitzen nola ukitzen zaitudan? —xuxurlan, irribarrez.

Nire kamisetaren alboetatik jaitsi zituen hatzak, izterretaraino. Ahoa zakiletik oso hurbil zuen.

—Honekin larrutan egin behar badidazu —hura laztanduz—, zuk senti dezazula nahi dut. Fantasia goxoa izanen da.

Zakilaren burua ezpain artean hartu, eta ahoa gora eta behera mugitzen hasi zen, luzera osoan.

Azkenik hitz egin zuenean, *orain* izan zen esan zuen guztia.

Angie ahoz gora jarri zen, bitartean haren arropekin ezin moldatuz nenbilela. Nerabe baten grazia faltarekin ukitzen nuen. Hasieran uste nuen egonarri handia izaten ari zela. Gero bururatu zitzaidan nire baldarkeriarekin ez ote zen gehiago bertuko, eskarmentu handiagoa izanda baino. Uzkur edo zalantzati nenbilenean, gehiago inplikitzen zen, ni adoretzeko. Zaldikoa bezala sobera berotzen hasten nintzenean, kontrola berreskurarazten zidan.

Mari-mutil zaharrek emandako aholku guztiek ere ez ninduten prestatu, ordea, une hartarako: Angieren zango artean belauniko jarri eta ez nuen jakin zer egin.

—Zaude —hatz puntak nire izterretan zapatuz—, utzidazu. Goxo, zakila barneratu zuen.

—Zaude —errepikatu zuen—, ez bultzatu. Izan kontu. Ohi-tu nadila zu barnean izatera, mugitzen hasi aurretik.

Kontuz, Angieren gainean jarri nintzen. Berehala, haren gorputza neurearen kontra lasaitu zen.

—Bai —Angiek, harekin batera mugitzen nintzela, hari segituz.

Ohartu nintzen zertan ari nintzen pentsatzen saiatzen baintzen erritmoa galtzen nuela. Hortaz, pentsatzeari utzi nion.

—Bai —gero eta gehiago berotzen ari zen.

Angie basago bihurtu zen nire beso artean. Ikaratu ninduen, ez nekien zer ari zen pasatzen. Halako batez oihuka eta nire ileetatik tiraka hasi zen. Gelditu nintzen. Geldiune luzea izan zen. Nire azpian, gorputza baretu zitzaion. Beso bat buru gainean utzi zuen, burkoan, gogaturik.

—Zergatik gelditu zara? —galdetu zuen isilka.

—Min ematen ari nintzela uste nuen.

—Min ematen? —ahotsa pixka bat goratuz.— Ez al duzu inoiz? —esaldia eten zuen—. Ene maitea —galdegin zidan, nire aurpegian egia bilatuz—, inoiz emakume batekin izan zara?

Hainbesteko odola igo zitzaidan aurpegira non gela bueltak ematen hasi baitzen. Harengandik apartatu nintzen, baina oraindik haren barnean nintzen.

—Zaude —hark, eskuez nire ipurdia tinko hartuz—. Pixkaka atera niregandik, kontuz, a, bai.

Angie mantso altxatu, eta ekarri zituen zigarreta paketea, pospoloak, hautsontzia eta whisky botila bat.

—Barkatu —esan zuen.

Aldendu nintzaion.

—Aditu, Jess. Sentitzen dut. Ez nekien ez zinela sekula emakume batekin egon. Lehenbiziko aldiak berezia izan behar du. Nolabait ardura handia da, bai? Zatoz, maitea.

Harengana erakarri ninduen. Geldirik egon nintzen bere besoetan. Billie Holiday kantuz ari zen irratian. Biak batera ohar-tu ginen ahoa zein hurbil nuen haren bularretik, eta zerbait piztu zen gure artean.

—Eman buelta —esan zidan.

Hala egin nuen.

—Lasai. Ez dizut minik egingen.

Nire gerri gainean eseri zen, eta sorbaldetan masajea ematen hasi, kamiseta gainetik. Haren izterren indarra sentitzen nuen. Ahoz gora jarri nintzen, eta nire gainean gelditu zen. Eskuz aurpegia hartu nion, eta erakarri, musu eman ziezadan.

Beste aukera bat eman zidan. Hobeki egin nuen aldi hartan.

Elkarri besarkaturik egon ginen luze, isilik. Orduan irri egin zuen.

—Ederra izan da. Egiaz zoragarria.

Oso atsegina izan zen hori esatea. Berarengandik atera ninduen, pixkaka, aurpegi guztia musukatu zidan, eta irri eginarazi.

—Egiaz ezta zara, bazenekien?

Gorritu egin nintzen, eta irri eman zion, eta berriz ere nire aurpegi gorritu guztia musukatu zuen.

—Oso polita zara —esan nion.

Aurpegi txarra jarri, eta zigarreta bat hartzeko makurtu zen. Buruaz ezetz egin nuen.

—Baina nolatan da posible: zure itxuratik ateratzen duzu bizibidea, eta hala ere ez duzu ikusten zein ederra zaren?

—Hori da —kiraski irri eginez— uste dudalako erakargarria iruditzen zaien dena delako hori aski zakarra behar duela izan. Ulertzen?

Ez, baina baietz esan nuen.

—Goizean errespetatuko nauzu? —galdetu zidan.

—Nirekin ezkonduko zara? —nik.

Irri egin, eta elkar besarkatu genuen, baina tristeena da uste dudala nolabait serioan ari ginela.

Angiek luze eta serio begiratu zidan.

—Zer? —nik, kezkaturik—. Zer?

Hatzak ile artetik pasatu zizkidan.

—Besterik gabe, gustatuko zitzaidan zu ere hain ongi sentiaraztea. *Stone* zara jadanik, ez da hala? —Begirada beheartu nuen. Kokotsa goratu zidan, eta zuzen begiratu—. Ez lotsatu puta batekin *stone* izateaz, maitea. Gure lanbidea ere *stone* da. Baina kontua da ez duzula gogortasun horretan atxikirik gelditu behar. Ongi dago *femme* bat bilatzea, harekin ohatzean konfiantza duzun bat, eta hari esatea zerbait behar duzula, edo ukitua izan nahi duzula. Ulertzen?

Sorbaldak goratu nituen. Solasean segitu zuen.

—Ume txikia nintzela, haur handiagoen talde bat ikusi nuen eskolako patioan zirkuluan. Haiengana joan nintzen, ikusteko zertan ari ziren.

Ukondoan bermatu nintzen, aditzeko.

—Kakalardo handi bat zegoen. Haurrak makila batez zirikatzen ari ziren. Xomorroa saiatzan zen ahal bezala bere baitan biltzen, bere burua babesteko. —Ufa egin zuen—. Nahikoa maki-lekin zirikatu naute ni, alafede.

Kopetan musu eman nion.

—Jainkoa! Sexuan aritzeko nahikoa adina dugunerako, jadanik lotsatuegi gaude ukituak izateko. Ez al da izugarria?

Sorbaldak goratu nituen.

—Nitaz fidatuko zara pixka batean? —hark.

Gogortu nintzen.

—Ez zaitut ukituko zauritu zaituzten tokietan, hitzematen dizut. Eman buelta, haurra —xuxurlatu zidan.

Kamisetaren atzeko alde a goititu zidan.

—Jainkoa, haragi xehatua bezala duzu bizkarra. Nik egin al dizut hau?

Irri, nik.

—Jainkoa, odol pixka bat ere baduzu-eta. Minik eman dizut?

Ezetz, nik.

—Zer mari-mutila —hark, irriz.

Angiek, laztan bidez, sorbaldetako eta gerrialdeko min guztiak kendu zizkidan. Azazkalez nire bizkarretik eta aldeetatik behera egin zuen, eta laster ahoak bide bera segitu zuen. Burkoa ukabilen artean estutu nuen. Banekien gustatzen zitzaiola haren ukipenekin ni bihurritzea.

Eskua izterreraino jaitsi zidanean, izoztu egin nintzen.

—Barka, maitea, ongi da —ni adoretuz.

Buelta eman nuen, eta besoetara etorri zitzaidan.

—Gehienetan ni izaten naiz hala erreakzionatzen duena —esan zidan—. Bitxia da. Ispiluaren beste aldean egotea bezalako da, ulertzen didazu?

Ez, baina ezinbestean lokartzen ari nintzela sentitzen nuen.

—Egin lo, laztana —Angiek belarrira, urrumaka—. Salbu zaude hemen.

—Angie —galdetu nion, loan barneratzen ari nintzela—, hemen izanen zara iratzartzen naizenean?

—Egin lo orain, laztana.

7

Fabriketan lana topatzeko ordua zen. Mari-mutilek gomendatu zidaten autogintzan edo altzairugintzan saiatzeko. Banekien, jakina. Ez nintzen zozoa. Industria astun horietan sindikatuek indar handia izatearekin, lortu ziren bizitzeko moduko soldatak eta abantaila egokiak.

Baina Edwinek esan zidan hori baino gehiago zela. Sindikatuek lanpostuaren segurtasuna babesten zuten. Esan zidan sindikatu gabeko langile batek ez bezala, astazakil batekin gorabeheraren bat izatera, horrek ez lukeela ekarriko fabrikatik kanporatzea. Ezin zaituzte bota arduradun bati ez zaiolako zure aurpegia gustatzen. Sindikatuaren babesarekin, eta mari-mutil guztiak horretan ados ziren, emazte-gizon batek bere tokia egin dezake, eta hasi daiteke hain baliotsua den antzinasuna irabazten.

Bitartean, lanpostu huts baten zain nengoela, aldi baterako lanen agentzietan aritu nintzen, gutxieneko soldatarekin. Udazken hasieran, agentziak bidali ninduen egun bateko lanera jan izoztuen fabrika bateko nasara. Bihotza itzulikatu zitzaidan ikusi nuenean Grant fabrika sartzen nire aurretik. Atzeman nuen eta eskua estutu nion.

Nasetako kamioien zamalanak arren eremua ziren. Gauza handia zen ondoan beste mari-mutil bat izatea, bizkarra zaintzeko. Grantek eskularruak zituen jantzirik, eta zamar urdineko poltsikoetan hondoraino sartu zituen.

—Brrr —esan zuen dardarka—, ipurdia izozten ari zait hemen kanpoan, goazen barnera—. Mantso abiatu zen zamalanen nasara. Ez zen inoiz presatzen. Bazekien lasai egoten.

Kamioilarietako batek oihukatu zuen:

—Emazte-gizonak hegoaldean!

Zenbait gizonak fabrika barnetik begiratu, eta buruaz ezetz egin zuten, nazka aurpegiz. Txanda luzea izan behar zuen. Pozik nengoen mantso genbiltzalako, aparkaleku madarikatu osoaren jabe bagina bezala.

Nasara igo ginen. Arduraduna gu ikustera atera zen. Grantek eskularrua kendu, eta eskua luzatu zion. Bazirudien arduradunak ez ziola estutuko, baina azkenerako bai. Grantek zeukan errespetu apurra irabazia zuen.

Arratsaldea apaltzen ari zen. Eguzkia neguko zeruan desagertzen. Haize latzak jotzen zuen laku izoztu aldetik. Deskargatu behar genuen trailerrak haizea geldiarazten zuen, baina ez holtza. Dar-dar egin nuen. Esan ziguten kamioi luze-luze horietako bi deskargatu behar genituela lanaldi hartan. Baietz, guk. Nik duda egiten nuen.

Isilik jardun genuen bi gizonekin batera. Bietako batek ere ez zigun hitzik esan. Elkarri ere kasik ez zioten hitz egin. Haien ondotik pasatu behar genuenean, Grantek eta biekin begirada jaisten genuen. Irain-zaparrada bati aurre egitea baino gogorragoa zen.

Jan izoztuko kaxak ez ziren nik uste bezain astunak, ez behinik behin lehenbiziko hiruzpalau orduetan. Handik aurrera, altzairuz beteak ziruditen. Giharrak minez eta sutan nituen. Pozarren sentitu nintzen kamioia husten ari zela ikusita. Agudoago hasi nintzen. Grantek mantsoarazi ninduen, begirada lagunkoi batekin. Ahaztua nuen gero beste kamioi bat heldu zela, harik eta aparkalekuan zain ikusi nuen arte.

Hamar minutuko atsedena izan genuen kamioi bat atera eta bestea sartu bitartean. Ondoren, berriz hasi ginen trailerreko kaxa ilara amaigabeak deskargatzen.

Izerdi erreka bat jaisten zitzaidan bular artean. Baina burua hormatua neukan eta belarriak erretzen, suak bezala. Orduan ohartu nintzen, ikaraturik, gurekin ari ziren gizonak belarri zatiak galtzen ari zirela. Izoztuta.

Fabrika batzuetan gizonak bi hatz gal zitzaketen, edo erpurua. Hemen kanpoan, nasetan, laku izoztuaren ondoan, gizonak agerian utzitako gorputzeko zati apurrak galtzen zituzten. Ikaratu ninduen. Neure buruari galdetu nion zer sakrifikatu beharko ote nuen bizirauteko.

Hotzikara izan nuen. Grantek bultzadaxoa eman zidan, berriz arretoa jar nezan eskuartearen genuen hartan. Goitik behera begiratu zidan, ongi nengoela berresteko. Ez zuen ahots goran galdeginen. Gizonen lurraldean seguru ibiltzeko, beharrezkoa zen duin lan egitea, lanak eginahalik eskatuko ez balu bezala. Gainera, ez nuen nahi Grantek ikus nintzan hotzak, beldurturik eta nekaturik. Bera ongi zegoela zirudien. Ez zen arnasestuka ere ari.

Azkenik txanda bukatu zenean, arduradunarengana joan ginen, gure fitxatzeko txartelak sina zitzaizkion, eta lekuak hustu genituen aparkalekurantz. Granten auto barnean eseri ginen, zigarretak erretzen, isilik. Besoak dardarka nituen, nekearen nekez. Zortzi orduan izandako lehenbiziko behar bezalako atsedena zen. Gure arnas ketsuek izotzezko kristalak sortzen zituzten parabrisan. Grantek motorrari indarra eman zion, eta irratia piztu zuen apal, autoa berotu arte itxoiten genuen bitartean.

—Ez da hain gogorra izan —nik, alegia deus ez—, e?

—Adarra jotzen? —galdetu zidan sinesgogor—. Uste izan dut hilen nintzela.

Harridura erakutsi nuen.

—Egiaz? Irudi zuen aise ari zinela!

Irriz, hura.

—Txantxetan edo? Segiarazten zidan gauza bakarra zen itxuraz zuri ez zitzaizkula asko kostatzen. Pentsatu dut erakutsi beharra nizula ni bezalako mari-mutil zahar batek eusten ahal ziola zu bezalako gazte txar bati!

Une batez deseroso sentitu nintzen. Nigan bilatu bazuen sostengua, ez zekien zer ihi mehetan bermatu zen. Esker onez gorritu nintzen, oharturik nola aritu zen ni adoretzen, baita une hartantxe ere.

—Lortu duzu, haurra —kolpetxoa emanez sorbaldan—. Jainkoa! —gehitu zuen, beldur aurpegiarekin—. Ohartu zara morroi haien belarrietan?

Zigarretak isilik bukatu genituen, antzeko pentsamenduetan galdurik.

•••

Fabrika berri batean hasten nintzen guztietan gogorra izaten zen; ez zen erraza inorentzat. Langile berri batek denbora

behar izaten zuen fabrika bateko komunitatean onartua izateko. Lankideek zutaz axola izan aurretik, jakin nahi zuten ea gelditzekoa zinen. Langile asko ez zen itzultzen lehenbiziko egunaren ondotik, edo ez ziren kupora iristen. Beste batzuk kasik ailegatzten ziren sindikatuan sartzeko behar ziren laurogeita hamar egunak arte, eta orduan kaleratu egiten zituzten.

Erabaki nuen koadernatze-lantegi hartan irautea, ahal izatera. Lehenbiziko egunean aise bete nuen kupoa, makinak eta paketatze-lerroak elikatzen. Bigarren egunerako, mantsoago aritu nintzen. Kupoa errazegi egiten bazen, arduradunak handitu eginen zuen.

Begira nituen, eta banekien. Lehenbiziko egunean eguzki betaurrekoak jantzi nituen, babesgarri, egun osoz. Blue-jean zamarra ez nuen erantzi, eta goitik behera lotu nuen, kamiseta beltzaren gainetik.

Esplotazio zulo ziztrin bat zen fabrika, nagusien menpeko sindikatua zuena, eta ni nintzen emazte-gizon bakarra. Fabrika handi bat balitz, emazte-gizon askotako bat nintzatekeen ni, askok geure beisbol edo bolo taldea izanen genukeen fabrikari. Hala, segur aski bularrak bendatuko nituzkeen lanean, kamiseta zuri bat jantziko nukeen zamarrarik gabe, eta nire tokia topatuko nukeen geure sozietate-egitura txikian, fabrikako biziaren baitan.

Baina nahiz sozietate hartan oraindik onartua ez izan, atsegin keinuak ez ziren ukatzen. Bazkalorduan, freskagarri bat hartu nuen fitxatzeko gailuaren ondoko makinan, eta muntatze-lerroan eseri nintzen Bolonia sandwich bat jatera. Murielek —lerroan nire ondoan lanean aritzen zen emakume indiarretako bat zen, ni baino zaharragoa— bere sagarraren erdia eskaini zidan. Zutitu eta eskerrak eman nizkion, eta esker onez jan. Hurrengo astean, Murielek, goizero, bere termoko kafea eskaini zidan. Jende guztiak begiratzen zigun, eta ikus zezaketan guztia kontuan hartzen zuten.

Goizeko une haiek, sartzeko txilibitu hotsa aditu aurretik, oso estimatuak ziren, geureak baitziren. Fitxatzeko makinak ematen zien bukaera momentu haiei. Denak lehentxeago arrastatzen ginen gure ohatzeetatik, fabrikari egoteko fitxatu baino ordu laurden lehenago. Kafea edan eta opilak jaten genituen, solasean aritzen ginen, eta irri egiten genuen.

Egun osoan aritzen ginen hizketan. Nagusiek gure eskuak alokatzen zituzten, ez buruak. Baina solasa ere negoziatu egiten zen nagusia zen denboran. Irudi bazuen sobera ongi pasatzen ari ginela, irriz gehiegi gozatzen genuela, arduraduna atzetik etorri eta zurezko mahai trinkoak jotzen zituen berunezko hodi batekin, «Lanera!» esaten zuela marmarka. Orduan denek geure eskuetara apaltzen genituen begiradak, eta ezpainak estutzen, haserre isilean. Uste dut batzuetan arduraduna urduritu egiten zela hori egin ondoren, oharturik nolako begirada hiltzaileak jasotzen zituen bizkarra emandakoan. Baina haren zeregina zen gu kontrolpean izatea. Horrek eskatzen zuen gu zatiturik edukitzea.

Hainbat nazionalitate eta jatorritakoak ginen. Lerroko emakumeen erdiak Sei Nazioetakoak ziren. Gehienak Mohawk edo Seneca ziren. Amankomunean genuena zen elkarlanean aritzen ginela, eguna joan eta eguna etorri. Hortaz, oroitzen ginen galdegiteaz elkarren bizkarreko edo oinetako minaz eta familiako gatazkez. Konpartitzen genituen geure kulturetako zati txikiak: janari gustukoena edota une lotsa-emangarriak. Elkartasunerako potentzial horixe saboteatu nahi izaten zuen beti arduradunak. Azpikeria txikiz egiten zuen, denbora guztian: gezur bat xuxurlatu, iradokizun krudel bat, txantxa zakar bat. Baina zaila zen gu zatitzea. Fabrikako uhal garraiatzaileak bazuten gintuen.

Aste batzuen buruan zirkuluan onartu ninduten, txantxak egin zizkidaten, galderaz josi. Nire desberdintasunak kontuan hartu zituzten, nire berdintasuna bilatu zuten. Elkarrekin aritzen ginen lanean, solas egiten genuen, eta elkarri aditzen genion.

Bestalde, kantuak zeuden. Goizetan, lehenbiziko txilibitu hotsa aditzearekin, halako makalaldi fisiko bat izaten zen haren mendean aritzen ziren emakume eta gizonen artean. Mantso zutitzen ginen, ilaran egoten ginen fitxatzeko zain, eta gure lekuak hartzen genituen muntaketa lerroan; elkarren ondoan, parez pare. Hasierako uneetan isiltasun handian aritzen ginen. Hala-ko batez giroa arintzen zen, emakume indiar baten ahotsarekin. Kantu sozialak izaten ziren, alaiak, ongi sentiarazten zintuztenak, nahiz hitzen arrastorik ere ez izan.

Kantuak aditzen nituen, eta saiatzen nintzen bereizten hitzak, patrioiak eta errepikapenak. Batzuetan, emakumeetako

batek gero azaltzen zigun kantuak zer esan nahi zuen, edo urteko zer sasoitan kantatzen zen.

Bazen kantu bat gehien gustatzen zitzaidana. Ohartu nintzen arratsaldeetan lanetik ateratakoan ahapeka kantatu ohi nuela. Egun batez, oharkabean, kantatzen hasi nintzen. Emakumeek egin zuten ohartu ez balira bezala, baina elkarri irribarre egin zioten begiradaz, eta goraxeago kantatu zuten, neronek ere ahotsa pixka bat goratu nezan. Indiarrak ez ziren beste emakume batzuek ere ikasten zituzten kantuak. Atsegina zen elkarrekin kantatzea.

Neguko ostiral gau batez, lanetik atera aurretik, Murielak gonbidatu ninduen igandean indiarren bilkura batera joatera. Baietz esan nuen, jakina. Ohoratua sentitu nintzen.

Baziren beste langile beltz eta zuri bakan batzuk ere bilkuran, haien adiskidantza baliotsuegia baitzen fabrikako denboran bakarrik partekatzeko. Maiz joaten hasi nintzen, eta ogi frijituz eta arto zopaz lepo jartzen nintzen.

Behin edo bitan altzarazi ninduten, eta dantza zirkulura batuaz. Esan beharra dut nahiz eta danborraren erritmoa bihotzean sumatu, sekula ez zitzaidala oinetaraino iritsi. Deseroso sentitzen nintzen dantzan, eta hain mari-mutil izateaz lotsaturik.

Murielen alaba Yvonne han izateak ere lotsatzen ninduen. Arrunt maitemindurik nengoen Yvonnerekin. Fabrika bereko aurrealdeko bulegoan aritzen zen. Denek zekiten krimen antolatuko nagusi txiki baten neska-laguna zela. Horrek ez zigun eragozten batak jakitea bestea aretoko zer lekutan zegoen bilkura zen bitartean. Nik uste emakume guztiak ederki oharturik zeudela.

Jadanik erabakia nuen ez nuela pentsatu ere egingen Yvonnengana hurbiltzea, nahiz bazirudien gustuko ninduela. Mari-mutil zaharretako batzuek ohartarazi zidaten: batzuetan, lantokian, gizonek emakume bat bultzatzen zuten emazte-gizon batekin oheratzera, txantxa moduan, eta gero denei kontatzen zien. Hura azken eguna izaten zen mari-mutilarentzat: gehienetan lotsaturik alde egiten zuen. Baina lehenago edo geroago estigma bueltan etortzen zen, eta gutako batekin oheratutako emakumeari itsasten zitzaion, eta berak ere alde egin behar izaten zuen.

Horren beldur nintzen hasieran Yvonnerekin, baina hura ez zen inola ere horrelakoa. Gau batez lanetik ateratzean gutako batzuk hor barna joan ginen, mozkortzera, eta esan zidan mutilak iradoki ziola gustatuko zitzaiola ikustea nola larrutan egiten genuen guk biek, eta zakurraren ipurdira bidali zuela. Dena dela, behin ahots goran esanik, zaila zen Yvonnerekin larrutan egitean ez pentsatzea.

Eguberri aurretik, lanekoak fabrikaren ondoko taberna batera joan ginen garagardo batzuk hartzera. Kanpoan elur erauntsi handia ari zuen. Barnean, gu edaten eta irriz. Alde egin genuenerako, elurrak autoak kasik estali zituen. Murielen Dodge zaharreko ateko giltza berotu nuen pizgailuarekin, desizozteko. Azkenean atea irekitzea lortu nuenean, Yvonnek ahoan musu eman zidan. Hantxe utzi ninduen, aparkaleku hartan, zur eta lur eta esziturik.

Hurrengo gauean Maliboura joan nintzen, eta nire golko-rako pentsatu nuen, denbora guztian, nola izanen zen Yvonne hara ekartzea.

Kontent nenbilen fabrikan, Yvonnerekin flirtean, Murielen kontuak aditzen, hurrengo bilkuraren zain. Ostiral gauetan tabernan edaten genuen, txekeak kobratzen genituen hartan. Larunbat gauak gay tabernan ematen nituen. Ederki nengoen.

Halako batez, egun batean, txilibitu hotsa aditu zenean, erabateko isiltasuna nagusitu zen. Bati eta besteari begiratu nien. Zerbait pasatzen zen. Murielek hitz egin zuen lehenik.

—Gaur, zuk hasiko duzu kantua —iradoki zuen, alegia deus ez—, nahi duzun kantua.

Ingurura begiratu nuen, sinetsi ezinik, baina egiaz ari zen. Odola aurpegiratzen sentitu nuen. Ez nuen nire ahotsa bakarrik goratzen aditu nahi, ezta une batez ere, gainerako emakumeen eta makinaren soinuen gainetik. Egia esan, ohartu nintzen nire ahotsaz lotsatzen nintzela.

—Ezin dut —protestatu nuen.

Kasik negarretan nintzen. Inork ez zuen hitzik esaten. Lanean segitu zuten, isilik. Bazkalordurako, konturatu nintzen ez zela kanturik izanen nik bat hasi arte.

Zergatik? Nire baitan. Zergatik egiten didate hau emakumeek? Nitaz irri egiten ari dira? Banekien ezetz. Ohartuak ziren nola, apal,

kantuetako hitzak ahoskatzen nituen. Gonbidatzen ari ziren nire boza haien ahotsekin batzera. Ni ohoratzen ari ziren berriz ere.

Gau hartan ez nintzen lokartu, beldurak jota. Eguneroko errutina ez zen itzuliko nik bakarrik kantatu arte. Pentsatzeak berak zintzurra ixten zidan. Gogoratu zitzaidan deitu eta gaizki nengoela esatea, baina koldarregia zen, eta ez zuen deus aldatuko. Inork ez zuen ahaztuko lehen kantua hasteko eskatu zidatela. Horretaz landa, hurrengo eguna Eguberri gaua zen. Jaieguneko paga galduko nuen baldin gaizki nengoela esaten banuen. Eta Eguberri ondoko egunean jadanik sindikatuan sartzeko eskubi-dea izanen nuen.

Biharamunean, lantokian, saiatu nintzen normal jokatzen. Eguneroko bezain ongi hartu ninduten. Yvonne sartu zenean, niretzat galdetu nuen ea ba ote zekien. Haren irribarreak erakutsi zidan baietz. Txilibitu hotsa. Denek fitxatu genuen. Gure lekuak hartu genituen lerroan. Tentsioa nabari zitekeen. Eztarria zenbait aldiz garbitu nuen. Murierek bere eskuetara begiratzen zuen lanean aritu bitartean; irribarre atsegina egin zuen.

Unea iritsi zen. Saiatu nintzen nire ahotsa topatzen eta hartaz harro egoten. Zenbait saiakeraren ondoren, nire boza goratzen hasi zen, gehien maite nuen kantua kantatzen, ikasi nuen lehenbiziko kantua. Kasik aldi berean gainerako emakumeek beren ahotsak altxatu zituzten nirearekin batera, batere sufri ez nezan. Elkarki irribarre egin genion, malkoak begietan genituela.

Bazkalondoan, arduradunak bere bulegora deitu, eta paper arrosa bat eman zidan, eta «Sentitzen dut» esan. Armairura lagundu zidan, nire gauzak har nitzan. Ez zegoen baimendua besteei agur esatea.

Egiaz lotsatua nengoen kaleratua izateaz. Banekien sindikatuan sartzetik hain hurbil egoteagatik zela. Eta banekien nagusiek kezka handiz ikusi zutela handitzen ari zen elkartasuna. Baina nire lotsak indarra hartu zuen ohartu nintzenean segur aski arduradunak nire ahotsa aditu zuela kantuz, bakarrik goratzen.

Etxera oinez joan nintzen, elur artean. Elur pilak hiriko soinu guztiak baretzen zituen. Triste samar sentitzen nintzen. Eguberri ondo-ondoan lan bila hasi beharko nuen berriz ere edonon. Etxera iritsi, eta telefonoak joko zuen esperantza izan nuen. Baina ez. Ez nuen beste planik *Perry Comoren Eguberrietako saio*

berezia ikustea baino. Askoz makurrago sentitu nintzen. Edateak ez zidan lagundu, inoiz ez du laguntzen.

Maliboura joatea pentsatzen ari nintzela, oin hotsak aditu nituen eskaileretan gora. Atea ireki nuen. Hantxe ziren Muriel, Yvonne eta fabrikako beste emakume indiar batzuk. Ekartzen zizkidaten jana eta bildutako zenbait opari. Bilkura baterako bidean ziren. Gonbidatu ninduten. Murielek aurpegira begiratu zidan solemnitare burlatiz, eta esan:

—Orain dantzan ikasiko duzu.

8

—Bosgarren kategoria lortu duzu?

Mari-mutilen txaloaldiak fabrikako kafetegia bete zuen.

—Primeran! Ongi egina! —mari-mutil guztiek bizkarrekoak eman, eta eskua estutzen zidaten.

Pozarren nengoen. Jan Mari-mutilak beso batez inguratu ninduen.

—Ongi ari zara, gaztea!

Gorritu nintzen.

—Nola lortu duzu? —Frankiek. Egia esan, ez nekien zergatik aukeratu ninduten lanposturako. Izan zitekeen zerarengatik, fabrikako lanpostu asko gure esku jartzen ari ziren arrazoi berarengatik: mutil gazte guztiak errekrutatzen ari ziren ezker-eskuin.

Sei hilabete emanak nituen koadernatze-lantegi hartan. Fabrika handia zen. Grantek eta biek aldi bertsuan lortu genuen lana. Bi hilabete geroago, hezkuntzarako materialen saila ireki zutenean, hartutako langileen artean zazpi mari-mutil gehiago zeuden. Gutako bederatzi ginen. Aurreko udako nire softbol talde osoa kasik. Gutako bederatzi: zerua.

Fabrikan denbora puska bat neramanez, banekien gauzak nolakoak ziren, eta sindikatuan nengoen jada. Beraz, tarteka beste mari-mutilak etortzen zitzaizkidan aholku eske, beren solairuko problemak zirela-eta edo sindikatuko kontuak zirela-eta. Ordura arteko rolen aldaketa gustatzen zitzaidan.

Janekin aritzen nintzen mozketa eta toleste sailean. Maki-na erraldoiek stockeko paper puska gaitzak tolesten zituzten, eta gero orritan zatitzen. Orri pilak paletetan kargatzen ziren, orriak

txukuntzeko makina handiaren ondoan. Emakumeak arineketan ibiltzen ziren paletetatik orriak hartzen eta txukuntzen zuen makina elikatzen. Orriak uhal mugikor batera erortzen ziren. Bu-kaerako muturreko emakumeek azala erantsi, eta grapatu egiten zituzten. Egindako liburuxkak beste palet batzuetan pilatzen ni-tuen nik.

Tartean behin, lan horretatik ateratzen ninduten, eta la-gundu behar izaten nuen paper berriz betetako paletak zituzten kamioiak deskargatzen. Zeregin hori bilatzen nuen, horrek esan nahi baitzuen orga jasotzailea gidatzea. Gustatzen ez zitzaidan gauza bakarra zen gainerako emakumeengandik apartexeago sentitzea. Nire lankideetatik beste inor ez zuten hartzen zeregin desberdin bat egiteko.

Goiz batez, arduradunak beste bat jarri zuen lerroan nire orde.

—Goldberg, zatoz —agindu zuen.

Atzetik joan nintzaion garraio saileraino.

—Zaude hemen —esan zidan Jackek.

Tommyk keinu txarra egin zuen Jacken atzeko aldetik.

—Gorrotatzen dut morroi hori —esan zidan Jackek alde egindakoa—. Oroitarazten dit itsas armadan izandako ofizial bat, beti nitaz burlaka aritzen zena. Muinetaraino gorrotatzen nuen.

Baiezko keinua egin nuen, baina deus esan gabe. Tommy zintzoa zen, baina ez nekien kontakatilua ote zen.

Tommyk erlojura begiratu zuen.

—Kasik atsedean ordua. Jainkoa, gorrotatzen nuen itsas ar-mada. Nire biziko bi urte ebatsi zizkidaten. Egun osoan aritzen nintzen erlojua begiratzen. Edozer egitera behartzen ahal ninduten, baina ezin zezaketen denbora geldiarazi. Goiz edo berandu alde egiten utzi beharko zidaten.

Nik sorbaldak altxatu eta:

—Beraz, zergatik sartu zinen?

—Adarra jotzen? —hark—. Armadan errekrutatua ez iza-teko. Lyndon B. Johnson ari da oinez ibil daitezkeen guztiak Vietnamera bidaltzen.

Jack izkina baten atzetik agertu zen bere laguntzaile Ke-vinekin eta Jim Boneyrekin. Kaka, gorrotatzen nuen Jim Boney.

—E, Tommy, Jess egiazko emakume bihurtzen ari zara? —Boneyk burlaka.

Tommyk begirada lizuna egin, eta zango tarteari heldu zion.

—Tira. —Jackek manatu zidan berari segitzeko.

Buelta eman, eta Tommyri begiratu nion. *Barka* hitza ahoskatu zuen.

Izorra hadi ahoskatu nik.

Jackek eraman ninduen tolesteko makina erraldoi batera; geldirik zegoen. Ikusi nuen Jackek bere tresnak ateratzen zituela.

—Orain, ikusazu —agindu zidan, eta makina doitzen hasi zen, toledura neurri desberdin baterako. Ezin sinetsi nuen. Aprestuz lana zen hura. Beste inori ez zitzaion uzten ikasten nola egin doiketak lan bat prestatzeko edo nola konpondu makinak. Aprestuz aritzeak ahalbidetzen zuen ofizial txartela lortzea. Nire itxaropenak hegaldatu egin ziren.

—Bertikal jarri behar duzu —Jackek.

Trapu bat hartu, eta eskuetako olioak xukatu zuen, bitartean ni saiitzen nintzelarik toledura bertikalak ezartzen.

—Ez, honelaxe —zuzendu zidan.

Bazkalorduko txilibitu hotsak moztu zigan.

—Bazkalondoan —esan zuen.

Kafetegira joan nintzen hegan.

Zergatik dira garaipen uneak hain iheskorak? Zorion emate guztiak bukatu zirenean, Duffy, ordezkari sindikal nagusia, gure mahaira hurbildu zen.

—Goldberg, hitz egin dezaket zurekin minutu batez?

Nire ondoko aukira mugitu nintzen.

—Bai ba.

Keinua egin zuen ate aldera. Korridorera atera ginenerako, susmatzen nuen banekiela zeri buruzkoa zen kontua.

—Duffy, ez iezadazu esan badela arrazoi ostiaren bat bosgarren kategoriarako muga ez gainditzeko.

Besoak gurutzatu, eta lurrera begiratu zuen.

—Aditu, Goldberg, badakit kategoria hori nahi duzula, eta merezi duzu. Fabrikan emakume bakar bat ere ez da inoiz joan laugarrenetik haratago, eta gizonetako bat ere ez da aritu, bat izan ezik, bosgarrenetik behera. Ez da zuzena.

Begiak erdi itxi nituen.

—Beraz?

Hasperen egin zuen.

—Beraz, gustatuko litzaidake kexa bat aurkeztea zu edo beste edozein emakume irits dadin bosgarren kategoriako lanpostuetara. Baina ez lanpostu horretara.

Jo eta lurrera botako nuen.

—Zer ostiagatik ez, Duffy?

Besoa sorbaldan jarri zidan arinki. Gaisetuk kendu nuen. Ukabilak bildurik nituen aldaketan.

—Aditu, Goldberg, Jack eta Boney amarrua egiten ari zaizkizu. Ez nuen ulertzen.

—Zer zerikusi du Jim Boneyk honetan denean?

Duffyk zigarreta paketea atera, eta bat eskaini zidan. Har-tu nik.

—Badakizu nor den Leroy? Ba laugarren kategorian dago. Gehienetan erratza pasatzen izaten dute.

Kea pixkaka bota nuen.

—Kaka, ez nekien.

Duffyk baietz.

—Bosgarren mailako lanpostu horren atzetik dabil duela urtebete baino gehiago. Freddie errekrutatu zutenean, joan den hilabetean, Leroyk Jacki esan zion lanpostua nahi zuela. Jack itzulinguruka ibili zaio. Azkenerako, Leroyk niregana jo, eta laguntza eskatu zidan lanpostuaren alde borrokatzeko, eta kexa bat aurkeztu genuen.

Marrazkia argitzen ari zen.

—Jack zu erabiltzen ari da. Boney sindikatuko kidea da, baina arrazista nazkagarria, hainbestearino non nahiago duen Jackekin bat egin, beltz batekin lanean ari baino. Leroyk lanpostua merezi du —erantsi zuen.

—Baita nik ere —erantzun nion, baina indar handirik gabe.

Duffyk ikusten ninduen berak esandakoarekin borrokan.

—Bai, hala da. Eta lagunduko dizut goragoko lanpostu batera iristen, horren alde borrokatu nahi baduzu, baina ez lanpostu honen alde. Egon zaitez nirekin oraingoan, Goldberg. Oso inportantea da sindikaturako une honetan.

—Zergatik une honetan?

—Gure kontratua urriaren akaberan bukatuko da. Enpresak ahal duen guztia eginen du gu orain banatzeko, gero zailagoa izan dadin greba egitea, behar izanez gero. Elkarrekin egon behar dugu.

Muturtu nintzen.

—Begira, Duffy, ni sindikatuaren alde nago, badakizu. Baina mari-mutilak ezin gara ezta sindikatuko bileretara joan ere.

Duffyk harritua zirudien. Azaldu nion uzten zigutela sindikatuaren aretoko beheko solairuan edaten, baina galarazia genuela gora joatea, bileretara.

—Nork dio hori?

—Hala da. Hala izan da beti, nik dakidala.

Duffyk sorbaldak besoaz hartu zizkidan.

—Begira, lagun iezaiozu Leroyri honetan. Greba bukatu bezain laster, bildu mari-mutil guztiak, nik ahal ditudan ordezkarri guztiak bilduko ditut, eta talde gisa bertaratuko gara akordioa berresteko bileran, eta bertan egoteko duzuen eskubidea aldarrikatu dugu.

Aldaketa izanzen zela zirudien.

—Ongi da —esan nion—. Baina zergatik itxoin behar dugu greba pasatu arte?

Kopeta ilundu zuen.

—Ez dugu itxoinen. Kontua da Leroyren afera lehertu eginen dela, modu batean edo bestean. Saiatzen ari naiz gauzak loturik mantentzen uda honetan, indartsu egon gaitezen greba egin behar badugu, bai?

Sorbaldak goratu, eta baiezko keinua egin nuen. Bazkalorduko txilibitu hotsa aditu zen. Ikaratu nintzen.

—Zer esanen diot orain Jacki?

Jack izkinaren atzeko aldetik agertu zen nik hitz egin bitartean.

—Prest? —galdetu zidan.

Arnasa sakon hartu nuen.

—Ez naiz ongi sentitzen, Jack. Fitxatu, eta etxera joanen naiz. Jackek Duffyri begiratu zion.

—Zuk ikusi.

Jackek alde eginda, Duffyk txistu egin zuen.

—Fidatzekoa zara, Goldberg.

Irribarre egin nuen gogo txarrez.

—Deitu Jess.

Biharamunean, txilibitu hotsak jo zuenean, nire lekua hartu nuen txukuntze makinan, elikatzeko prest. Duffy eta Leroy ikusi nituen Jackekin hizketan. Duffyk besoak astintzen zituen airean, eta oihuka ari zen makinaren zalapartaren gainetik. Jackek eskuak aldaketan zituen, eta haserreak gorritua zuen aurpegia.

Geroxeago begiratu nuenean, Leroy makina batean ari zen lanean Jacken laguntzailearekin. Leroyri aitortu beharra nion: gizon horiek ez zizkioten gauzak errazak jarriko. Gero ikusi zen nirekin ere ez zezudela oso gustura.

—Putakumea —oihukatu zidan Jackek belarrira, ondotik pasatzean. Jim Boneyk begirada hiltzailea egiten zidan gelako beste puntatik. Jan txukuntze lerroaren bukaeran zegoen, dena ikusten.

Gogorrena izan zen gero, bazkalorduan, mari-mutilei esatea berriz ere laugarren kategoriara itzuli nintzela.

—Ez da zuzena —esan zuen Grantek kopetilun.

Johnnyk eta Frankie elkarri begiratu, eta ezezko keina egin zuten. Janek egoera berria kontuan hartu zuen. Denei kontatu nien nola Duffyk hitzeman zidan mari-mutil guztiak sindikatuetakoa bilkuretara joanen ginela.

—Ederra —Grantek, irriz—. Gazte hau da *Jack eta babarruna* ipuinekoa bezalakoa, bai? Behi bat aldatu zuen babarrun magiko baten truke. Kaka zaharra. Ez dut izan nahi nahi ez nauen sindikatu batekoa.

Gorritu nintzen.

—Ezin dugu besterik gabe «pikutara sindikatua» esan: sindikatuan gaude. Kontratua urrian bukatuko da. Zer egingen dugu, fabrikako nagusiarengana banan-banan joan, eta negoziatu? Ez dugu aukerarik. Gizonei ikusarazi behar diegu gu ere behar gaituztela.

Grantek ukabila zanpatu zuen mahaiaren kontra.

—Nik badut aukera —esan zuen—, ez dut sindikatu honetakoa izan nahi. Saldu zara, haurra. Zoaz pikutara.

Txilibitu hotsa aditu zen. Bazkalordua bukatu zen. Denak altxatu eta lanera itzuli ziren. Ni mahaiaren gelditu nintzen une batez; oroitu nahi nuen zeinen ongi sentitu nintzen bezperan. Edozein gauza egingen nukeen galdutako errespetua berreskuratzeke. Jan oraindik mahaiaren zen. Zutitu, eta eskua sorbaldan jarri zidan.

—Tira, haurra. Berandutzen ari gara.

Zutitu, eta hasperen egin nuen. Garaitua eta biluzik sentitzen nintzen. Janek aurpegira begiratu zidan.

—Bizitza zaila da, ez da hala, haurra?

Baiezko keinua egin nuen, begietara begiratzeko gauza ez nintzela. Atsegin, masaila ukitu zidan bere esku latzaz.

—Nik uste dut zuzen jokatu duzula.

Oroitu nintzen nola ingeles irakasleak esana zidan ez nuela besteen onespenik bilatu behar zuzena iruditzen zaidana egiteko. Baina une hartan hain beharrezkoa nuen Janen onespena, non begiak busti baitzitzaizkidan esker onez.

•••

Egun hartatik aurrera Jim Boney gupida gabe jazartzen hasi zitzaidan.

—E, zurrupaidazu!—oihukatzen zidan lantegiko beste puntatik. Inork ez zion aurre egin nahi, jazarle gisa zuen indarrarengatik eta arduradunari hain loturik egoteagatik.

—Zer eginen dut, Jan? —galdegin nion, atsekabeturik, garagardoa aurrean.

—Haren kontra borrokatu behar duzu —Janek.

Ez nuen Jim Boneyren kontra borrokatu nahi. Beldurra nion.

—Ez dago hura geldiarazteko beste modurik —esan zuen Janek.

Banekien zuzen zegoela.

Bi aste geroago, Jim Boney urrutiegi joan zen nire kontra. Makurturik nengoen, paletetik orri batzuk hartzeko, eta zerbait sentitu nuen izterraren atzeko aldean. Eskua atzera bota eta haragia ukitu nuen. Jim Boneyk zakila aterea zuen galtzetatik, eta nire blue-jeanen kontra igurzten ari zen. Beldurrez eta nazkaz zorabiatu nintzen. Makurrena izan zen Jim Boneyk nire begirada ikusi, eta jabetu zela. Berak eta Jackek irri egin zuten nitaz.

Emakume guztiak begira zeuden, lanean aritu ordez, eta, hala, liburuxka guztiak lerroaren bukaeran erortzen ari ziren, eta lurrean barreiatzen. Jackek makina itzali zuen. Dena oso isilik gelditu zen.

Leroyk «ergela» deitu zion Jim Boneyri, eta esan zion bere zakil txiki hori berriz ere galtzetan sartzeko. Boneyk Leroy bulztatu zuen, eta borrokarako prestatu ziren.

—Nirekin duzu borrokatu beharra, Jim Boney —oihukatu nuen. Besteak adina harritu nintzen neroni ausarkeria bat-bateko horrekin. Hitz ausartak ziren, beldurretik jaiokoak—. Tira, borrokarik nahi? Aurrera.

Denak Boneyri begira zeuden. Irribarre harroa egin zidan, hain lizun non ohartu bainintzen bueltarazi nahi ninduela lehen-
txeago sentitutako ezintasun berberera, baina uko egin nion.

—Aurrera —esan nion—. Zer diozu beldurra, e? Lesbiana batek zanpatua izateari?

Halako batez Duffy agertu zen lasterka, eta seko gelditu zen. Egoeraz jabetu zen. Jackek eta Kevinek Jim Boneyri eusten zioten, eta Jim indarka ari zen aurreraka. Baina ez zuen sobera indarririk egiten. Ez dakit zergatik, Boney ez zegoen nirekin borrokatzeko gogotan, eta horrek adoretu egin ninduen.

—Zure kaka honaino jasan dut, Boney. Honaino jasan dugu. Egizu zure lan pitoa behingoan, eta utzi bakean, edo txiki-
txiki eginen zaitut.

Jackek eta Kevinek Boneyri begiratu zioten, ikusteko zer eginen zuen. Askatu zuten. Eskuaz halako keinu bat egin zuen niregana, haserre adieraziz, eta alde egin zuen.

—Ez du merezi —esan zien—. Kaka zaharra ere ez du merezi.

Alde egiten ari zela, Duffyk oihukatu zion:

—Zu baino sindikalista hobea da, Boney!

Janek eskua estutu zidan. Duffyk bizkarrekoa eman.

—Ongi egina, neska —Sammyk, kamioi gidariak, eskua nire sorbaldan jarritz—. Ergela da.

—Ongi da —oihukatu zuen Jackek, makinak piztu ahala—, itzuli denak lanera.

•••

Gutako inor ez zen sindikatuaren piknikera joanen Duffy-rengatik izan ez balitz. Haren ideia izan zen nik mari-mutil guztiak antolatzea piknikera joateko.

—Eta zuen neska-lagun guztiak ekartzen ahal dituzue —erantsi zuen—. Jess, baduzu neska-lagunik?

Nire begiradak erantzun zion. Banekien ni hobeki eza-gutzen saiatzan ari zela bakarrik, baina ez zen oso abiapuntu egokia.

—Jess —esan zuen—, ongi esan al dut? *Neska-lagunak* esan nahi nuen.

Irri, nik.

—Ongi esan duzu, Duffy.

Gainerako mari-mutilak ez zeuden parte hartzeko irrikatan, baina Janek ulertu zuen aurrerapen handia izanen zela, eta agindu zuen bere maitale Edna ere joanen zela. Behin Janek baietz esanda, gainerako mari-mutilak ere ados egon ziren.

Gure beisbol ekipamendua eraman genuen. Abba's udaberrian berriz ere ireki ondoren, Abba Dabba Do's softbol taldea eratu genuen.

Jan, Edna eta ni zuhaitz baten azpian eseri ginen. Duffyk garagardo botilak ekarri zizkigun.

—Gustatzen zait —esan zuen Ednak, hark alde egin ondoren. Irribarre egin nuen.

—Baita niri ere.

Janek bizkarrekoa eman zidan, eta Ednari esan zion:

—Haurra egiazko sindikalista antolatzaile ari da bihurtzen.

—O, ez da egia —ukatu nuen.

—E, haurra —esan zidan Janek—. Lor dezakegun batasun guztia erabili behar dugu. Oso ongi aritu zara lantoki honetan, saiatu zara batasunari eusten. Txalo batzuk merezi dituzu, bai?

Harrotasunez puztu nintzen.

—Kafe bat behar dut —Ednak, zutituta.

Jani begira gelditu nintzen, Edna nola urrutiratzen zen ikusten zuen bitartean. Aurpegia minez beterik zuen. Inkontzienteki jabetua nintzen azkenaldian Janek zuen tristuraz, baina ez nuen hartan pentsatu. Janek begiratu zidan, eta utzi zidan ohi baino sakonago begiratzen bere begietan. Hitz egin aurretik, saiatu nintzen adierazten zenbat inporta zitzaidan.

—Ongi zaude? —galdetu nion.

Janek buruaz ezetz, mantso.

—Uste dut Edna galtzen ari naizela.

Urdaila estutu zitzaidan. Janek zapladatxoa eman zidan izterrean.

—Beste garagardo bat hartuko dut. Nahi duzu bat?

Harekin zutitu nintzen.

—Ez, baina —eskua haren besoan jarriz—, noizbait hitz egiteko beharra baduzu, badakizu...

Janek irribarre egin, eta joan egin zen.

Duffy ondoan eseri zitzaidan.

—E, Jess, ezagutzen dudanen artetik zuri bakarrik galdeztzen ahal dizut hau —lausengatua sentitu nintzen.

—Etheli eta Laverneri buruz galdegin nahi nizun —esan zuen Duffyk.

Ingurura begiratu nuen.

—Hemen al daude? —Duffyk buruaz ezetz—. Lastima —nik—, beti ezagutu nahi izan ditut haien senarrak.

Duffyk kontuz hitz egin zuen.

—Zein da Ethelen eta Laverneren historia? Maitaleak al dira?

—Ez, biak ezkondurik daude. Badakizu.

Duffyk hitzak bilatu zituen.

—Bai, baina ez al dira mari-mutilak?

Ulertu nuen zer esan nahi zuen.

—Bueno, emazte-gizonak dira, baina ez mari-mutilak.

Duffyk ezezko keinua egin zuen, irriz.

—Ez dut ulertzen.

Sorbaldak goratu nituen.

—Egia esan, ez dago ulertzeko askorik. Esan nahi dut, Spencer Tracy eta Montgomery Clift dirudite, baina badirudi egiaz maite dituztela beren senarrak.

Duffyk buruaz ezetz.

—Baina beti elkarrekin daude. Ez duzu uste beharbada maitaleak izanen direla, eta jendeak jakitearen beldur direla?

Horretaz pentsatu nuen une batez.

—Jainkoa, Duffy, ez dituzte gauzak askoz errazagoak ezkondurik egotearekin: hala ere emazte-gizonak dira. Mari-mutilen kaka zahar berari egin behar diote aurre. Pentsa, Lavernek emakumeen komunera joan behar duenean zineman. Edo Ethel, emaztegaiaren konpromiso festan. Ez dut uste gaizki pasarazten dietenei kaka zaharra inporta zaienik norekin oheratzen diren. Are, segur aski gogorragoa izanen da haientzat —erantsi nuen—. Ez dute berentzako tokirik, guk ez bezala: guk tabernak ditugu. Senarra eta batak bestea, ez daukate besterik.

Duffyk irribarre, eta ezezko keinua egin zuen.

—Ethel eta Laverne elkarrekin nola egoten diren ikusita, seguru nengoen maitaleak zirela.

—O, elkar maite dute, hori seguru. Ikus dezakezu. Baina horrek ez du nahitaez esan nahi bata bestea bero-bero jartzen duenik. Oso ongi ulertzen dute elkar. Beharbada gustatuko zaie elkarren ispiluan begiratzea, eta ikustea islak irribarre itzultzten diela.

Duffyk besoaz inguratu zizkidan sorbaldak, eta estutu.

—Oso azkarra zara jendeari dagokionez —esan zuen.

Harrotasunez gorritu, eta lotsaturik apartatu nintzen.

—Jateko zerbait hartzera noa.

Granten ahotsa goratzen aditu nuen, liskarra ikusi aurretik. Oihuka ari zen Boneyrekin, aurpegiak pega-pega eginda.

—Nola ez duzula neska alurik nahi zure taldean? —garrasika.

Boneyk beste gizonen alderantz oihukatu zuen:

—Irabazi egin nahi dugulako, ez da hala, mutilak? —ukabilez beisboleko eskularrua jotzen zuela.

—E, Boney —oihuka nik, haiengana pauso handika hurbiltzen nintzela—, softbolaz ari zarete? Txikituko zaituztegu!

Isiltasunak hartu zuen piknika. Gauza batengatik: denek zekiten kontua softbol jokia baino askoz gehiago zela. Bestalde, beisbola sakratua zen gizon haientzat. Nesken kontra jokatzeko pentsatze hutsa heresia zen kasik. Irabazten bazuten, zein zen garaipena? Galduz gero... pentsatzea ere umiliagarria zen.

Mari-mutilak ere izu aurpegiz nituen begira. Baina beranduegi zen, nire ausarkeria airean zen.

—Tira, Boney —esan nuen—. Ea zeinek lortu hiru barnertze. Akabatuko zaituztegu!

—Ezetz, *Goldberg* —esan zuen erdeinuz.

Deitura nola ahoskatu zuen ikusita, ohartu nintzen zenbat gorrotatzen ninduen judua izateagatik ere.

Irribarre, nik.

—Joka ezazu eskularrua —irribarre gaiztoa urtu egin zitzaion.

Bere lehenbiziko baseko eskularrua maite zuen jende gehienak bere txakurkumeak maite dituen adina. Laneko armaruan izaten zuen egunero, baita neguan ere.

—Eta galtzen baduzu? —hark erantzun. Denak niri begira gelditu ziren. Boneyren aurpegian irribarrea zabaldu zen berriz ere—. Galtzen baduzu, *Goldberg*, musu emanen didazu.

—Aj, hori nazka —denak kexu. Batzuek lurrera listua bota zuten, indargarri.

—Mugi —esan nien mari-mutilei—, har dezagun ekipamendua.

Janek buruaz ezetz egin zuen, zelaian pila batean elkartu ginenean.

—Ez dut hau argi ikusten —marmarikatu zuen Grantek.

—Begira —onartu nuen—, hanka sartu dut, bai? Ohartu naiz hitzak nire aho madarikatutik atera bezain laster. Sentitzen

dut. Egin dezakegun bakarra da ahalik hobekien jokatzea, eta ondorioak nire gain hartuko ditut.

Grantek eskularrua lurrera jaurti, eta eskuak aldaketan paratu zituen.

—Denek pagatuko dugu galtzen badugu, horixe da kaka zahar handiena.

Frankie sartu zen.

—Esan du sentitzen duela. Beraz, irabaz dezagun, bai?

Esatea errazagoa zen egitea baino. Gizonen taldeak bi lasterraldi markatu zituen lehenbiziko sartzean. Bazirudien ez ginela gauza zelaia inola ere maneiatzeko. Jakin nahi nuen zergatik jokatzeko ari ote ginen hain patta. Ibili eta buelta, gizon gehienak ez zeuden oso sasoiak. Geuk jokatzeko genuen astero. Izan zitekeen kikildurik geundela, ustez-eta gu baino hobeak zirela. Halako batez goragalea sentitu nuen, ohartu nintzenez hiru sartze ez zirela nahikoa denbora izanen emazte-gizonen talde honek bere beldurra gaintzeko.

—Ea —esan nuen, sartzean artean elkartu ginenean—. Ezin al diegu erakutsi badugula boterea?

Bi lasterraldi markatu genituen, baina gizonen ere beste bi. Bi lasterraldi atzerago ginen. Sartzean artean, Frankiek galdetu zuen zer gertatuko zen berdinketa izanez gero. Jan lehertu zen.

—Aduka kaka zahar hori —purrustaka.— Zergatik ez dugu besterik gabe orain onartzen jokoa galdu dugula, e? Zertarako jokatu beste sartze bat ere? —Ahotsa apala eta mehatxagarria bihurtu zitzaion—. Hau ez da txantxa ostia bat. Pentsa zer izan behar duen Jess Jim Boneyri musu ematen ikusi behar izatea. Ez nago prest halakorik onartzeko.

Hura zen laguna, Jan Mari-mutila.

Jokatzeko posizioak hartu genituen, eta baita jokatu ere. Hiru lasterraldi markatu genituen: bost eta lau, gure alde. Baina Frankie *home platera* zihoala, Jim Boneyk halako pilotakada jo zion bizkarrean non lurrera bota zuen.

Denak Boneyren kontra oldartu ginen, hura akabatzeko prest. Jack eta bere laguntzailea Boneyri batu zitzaizkion. Inork ez zezakeen esan ea gizon guztiak emazte-gizonen kontra jarriko ziren edo hiru gizaseme bakarrik zeuden gure aurka. Duffy lasterka iritsi, eta mari-mutilen eta gizonen artean jarri zen.

—Jack, Frankie kanpoan utzi duzu, sasikume zikina. Talde-
dekide bat gutxiago badute, zuek ere bai. Kanpoan zaude.

—Kaka zaharra —Boneyk, eskuaz keinu eginez—. Istripu
pito bat besterik ez da izan.

Garbituko genukeen.

—Ez dago jada apusturik —oihukatu zuen Grantek.

—Koldar zikinak —Boneyk.

Apustua berriz indarrean zen. Duffy urduri zebilen.

—Hau akatsa da —marmarikatu zuen.

—Bai? —galdetu nion haserre—. Noren alde zaude?

—Sindikatuaren alde —bota zidan.

—Orduan, nahi izan behar zenuke gure taldeak irabaztea,
eta ez Boney eta Jackenak —erantzun nion.

Duffyk segundu batez hausnartu, eta irribarre egin zuen.

—Arrazoi duzu —Duffyk txalo egin, eta oiuhukatu zuen—:
aurrera, Jan! —Hura platera hurbiltzen ari zela.

Janek airean gora bidali zuen pilota. Denak erne ginen, eta
ikusitakoa ginen nola erortzen zen... zuzenean Jacken eskularrura.
Gure hirugarren kanporatua zen. Lasterraldi bat aurretik geun-
den, baina aurkariek oraindik beste sartze bat zuten.

Sammy zen lehena bateaz jotzeko. Pilota jo, eta Granten
eskularrura joan zen zuzenean. Batea utzi ondoren, begi-kliska
egin zidan; nire lehenbiziko baseko posiziotik argi ikusi nuen.

Tommy zen hurrengoa. Oso jaurtiketa ahula egin zuen,
eta Grantek hirugarren basean jaso zuen, baina Tommy lehenbi-
ziko basera iritsia zen.

—Sentitzen dut —esan zidan ahapeka.

—Izorra hadi —oraindik haserre nengoen harekin.

Jackek oso jaurtiketa apala egin zuen, gure ahulgunea
zelaiaren erdigunea zen, eta nire baserantz etorri zen pauso
handiak emanaz.

—Boneyk zurekikoak egin ondoan, maitasun unetxo ba-
tzuk nahi ditut —esan zuen mespretxuz.

Saiatu nintzen burua jokoan izaten.

Walter zen hurrengoa. Platera hurbildu zen, batearen
kolpetxoz zapatetako zikina astindu, batea giderretik kulunkatu,
eta prest jarri zen. Jaurtiketa altua egin zuen airerantz. Denek
atzeraka eraman genituen txanoak, eta ikusi genuen aise

erortzen zela Janen eskularrura. Walterrek txanoaren biserari tira egin eta *home platetik* alde egin zuen, zalu-zalu.

Boney platera hurbildu zen. Geronen gorrotoaren azken printza ere haren kontra bideratu genuen, baina bazirudien ez ziola eragiten. Egin zioten jaurtiketari indarrez jotzen saiatu zen, eta huts egin zuen.

—Strike bat —oihukatu genuen denek.

Bigarren jaurtiketari erantzuten saiatu zen haserre, eta huts egin zuen.

—Strike bi —oihukatu genuen pozarren.

Gure indar guztiekin zirikatzen hasi ginen.

Hirugarren pilotari emandako batekadak denak isilarazi gintuen. Zeruan gora ikusi genuen, airean hegan zebilela zirudien. Tommy hirugarren basean gelditu zen, gu bezain hipnotizaturik. Jack hirugarrenerantz joan zen lasterka, eta Tommyri laster egiteko oihukatu zion. Jim Boney lehenbiziko baserantz irristatu zen.

Pilota «plop» batekin erori zen, zuzenean Granten eskularrura. Hirugarren kanporatzea zen, beraz ez zegoen arrazoirik pilota lehenbiziko basera jaurtitzeko; baina hala ere jaurti zuen. Pilota kolpean hartu nuen eskularruan. Besoekin indarra hartu, eta eskua eta pilota luzatu nituen Boneyren sudurrerantz, niregana hurbiltzen ari baitzen. Klask txiki bat aditu zen Boneyren sudurrak pilota jo zuenean. Jokoa ofizialki bukatu zegoen. Irabazi genuen. Ez nion musurik eman beharko Jim Boneyri: orain odoletan zegoen lehenbiziko basean. Istripua izan zela zin egiteko prest nengoen, baina inork ez zidan galdetu.

Begiztatu nuen Jackek begirada hiltzailea egiten zidala —betiere arduraduna zen, baita piknikean ere—. Mehatxu begirada hark hotzikara eragin zidan. Baina ahaztu nuen, zeren beste taldeko kasik gizon gehienak guregana etorri eta bizkarrekoak eman zizkiguten, eta esan ziguten pozten zirela guk irabazi izanaz. Ikusi nuen gizon horiek emazte-gizonen talde baten kontra galdu zutela —emazteen eta neska-lagunen aurrean— baina, itxuraz, ez zeudela mindurik.

Mari-mutilak pozik zeuden irabazi izanaz, baina ez zuten bereziki agertzen. Banekien nirekin gogaituak zeudela. Desafio harroa bota nion Jim Boneyri. Lantokian porrota bihur zatekeen mari-mutil guztientzat, eta bazekiten. Janek hautsi zuen izotza.

—Ongi dago ongi bukatzen dena, ezta, haurra? —Besoz inguratu ninduen—. Nik uste hilen nintzatekeela, agure horri musu ematen utzi aurretik.

Harridura aurpegia jarri nuen.

—Ez zenuen usteko galduz gero musu emanen nionik, ezta?

Tommy lasterka etorri zen, arnasestuka.

—Ongi jokatua —eta eskua luzatu zidan.

Oso serio, baina estutu nion.

—Begira, sentitzen dut, bai? —esan zidan.

Sorbaldak goratu nituen.

—Ez zara pertsona txarra, Tommy. Baina beste mutilen aurrean harria bezala hondoratzen zara. Ezin naiz zutaz fidatu.

Ahoa ireki zuen, baina hitzik ez zitzaion atera. Janek eta biek alde egin genuen.

—Gogor samarra zara harekin —esan zidan—, baina seguru baduzula horretarako nahikoa arrazoi.

—Erne denak! Aditu, mesedez! —Tommy zen, piknikoko mahai baten gainean.

Denak hurbildu ginen. Jim Boneyren beisboleko eskularru preziatua zuen esku artean.

—Talde galtzailearen izenean, talde irabazleari eman nahi diot lehenbiziko baseko gizonentzako eskularru hau. Hobeki esan —totelka—, lehenbiziko baseko eskularru hau.

Eskularrua nireganantz bota zuen.

—Garbi eta zuzen irabazi duzue.

Ednak, niregana etortzeko, itxoin zuen Janek nire ondotik alde egin arte. Haren begietan min sakon berbera ikusi nuen, Jan urrutitik begiratzen zuen bitartean. Gustatuko zitzaidan emakume batek ni hala maitatzea. Edna niregana hurbildu ahala, irribarre adar-jotzailea ahoratu zitzaion. Bi eskuez aurpegia hartu zidan ezteki.

—Ongi jokatua, mari-mutila.

Pisua oin batetik bestera kulunkatu nuen, deseroso.

—Tira, Edna, badakizu...

Buruko keinu batekin isilarazi ninduen.

—Bai, badakit, baina dena ongi atera da.

Ohartu ginen Duffy hurbil genuela, zoriontzeko zain.

—Arrazoi zenuen, Jess —esan zidan, eskua indarrez estutzen zidala—. Sindikatuak irabazi du joko hau. Nire hasierako usteak okerrak ziren, barka.

Garagardo hotz-hotz bat eta oilasko frijitu puska bat hartu, eta zuhaitz baten azpian eseri nintzen bakarrik. Bero zegoen, eta haizea atsegina zen. Munduko gailurrean sentitzen nintzen.

9

Jim Boney ez zen lanera agertu astelehenean. Poztu nintzen. Ez nion inori aitortuko, baina oraindik ere haren beldur nintzen. Beraz, astelehen goizean deitu zuenean gaizki zegoela esateko, harro samar ibili nintzen lantokian.

Jackek lerrotik atera ninduen, eta makina ebakitzaille batera eramanean. Ebakitzailleak eskolako ikas-txartelak ebakitzen zituen, sortetan. Gehienetan gizonetako batek aire-mahuka indartsu bat erabiltzen zuen ebakinak kentzeko, makina ez trabatzeko.

—Aire mahuka konpontzen ari dira —oihukatu zuen Jackek makinaren orroaren gainetik—. Jani lagunduko diozu, paletak zamatzan laguntza behar duenean. Tartean behin, kendu zaborra prentsatik, honela. —Eskua pasatu zuen ebakitzailleko azaleraetik, mozketen arteko segunduetan—. Ez utzi trabatzen —gaztigatu zidan, alde egin aurretik.

Janek makinari eta gero niri begiratu zigun.

—Kontuz —ohartarazi zidan.

Ikusi nuen ebakitzailleak nola ebakitzen zituen sortak, haren erritmoa ikasi nahirik, kantu bat balitz bezala. Nire eskua ziztuan atera nuen, eta ebakin batzuk kanporatu nituen. Gehiena hartu nuen. Eskuak dardarka nituen. Makinekin aritzen zarenean, ikasten duzu horien indar hipnotikoa errespetatzen. Saiatu nintzen ebakitzaillearekin sinkronizaturik jarduten. Eskua behin bakarrik ibili zen mantsoegi. Aldi bakarra nahikoa izan zen.

Oso agudo gertatu zen. Une batean hatzak niri loturik nituen. Hurrengo unean sentitu nuen eraztun-hatza ahurrean nuela. Odola zurrustaka ateratzen zitzaidan, arku bat eginez, makinara, paletetako txartel piletara eta nire aurreko paretara.

Saiatu nintzen ezker eskuari ez begiratzek, baina begiratu nion. Urdailak goragalea sentitu zuen, buruak begiek ikusitakoa ulertu ere baino lehen. Ezin zidaten aditu makinak zalapartaren gainetik, baina berdin zen. Ez nezakeen soinurik egin. Gauza guztiak kamera geldian gertatu ziren. Janek besoak astindu eta oihu egin zuen. Jendea hurbildu bai baina ikararak izozturik gelditu zen.

Bururatu zitzaidan ospitalera joan behar nuela. Banekien ezin nuela motoa gidatu. Atarirantz nindoala, niretzat galde-tu nuen ea autobus bonuan nahikoa diru ote nuen. Walter eta Duffy atzetik etorri zitzaizkidan lasterka.

Gogoratzen dudak hurrengo gauza da auto batean nengoela. Walterrek beso batez inguratzen ninduen. Duffy gidatzen ari zen, eta, tarteka, atzera begiratzek, Walterren keinu txikiak ere erne. Esku osoa nuen bildurik odolez busti-bustia zegoen trapu batean. Hatzarengatik hainbesteko lastima sentitzen nuen, tristura-malkoak irristatzen zitzaizkidan aurpegian behera. Pentsatzen ari nintzen beharbada lurperatu beharko nuela. Neure artean galdegin nuen nor gonbidatu beharko nuen.

Walterrek goian eusten zion nire esku zaurituari, bere esku handi eta atseginetako batekin, eta estu hartzen ninduen bere kontra bestearekin. Astinaldi bortitza izan nuen.

—Dena ongi joanen da, maitea —xuxurlatu zidan—. Askotan ikusi ditut honelako gauzak. Dena ongi aterako da.

Gogoan dudak hurrengo gauza da operazio mahaian nengoela etzanik. Izuak hartu ninduen. Eta arropak kentzen bazizkidaten? Ez nuen inor inguruan. Euli bat inguruan ibili zitzaidan eta nire eskuan pausatu zen. Nire gorputza inarrosi egin zen. Eulia itzuli-mitzulika ibili eta berriz pausatu zen. Oraingoan, eskua astindu nuenean, bazirudien hatza beste norabide batean mugitu zela. Konortea galdu nuen.

Duffyren aurpegia ikusi nuen nire onera itzulitakoan. Irribarre egiten zuen, baina triste zirudien aldi berean.

—Duffy —apal—, non da nire hatza?

Keinu tristea egin zidan.

—Ongi dago, Jess. Hatza salbatu dizute.

Ez nuen uste egia zenik. Film askotan ikusia nuen nola esaten zioten gezurra hala zauritutako jendeari. Burua pixka bat goratu nuen, eskua ikusteko. Gaza geruzatan bildua zegoen, eta bazen halako metalezko gailu bat besaurretik gaza barnerraino

zihoana, gero berriz ere azaleratzen zena hatzak egon behar zuen tokian. Duffyk baietz egin zuen buruaz.

—Zure hatza ongi dago, Jess. Hezurra ez zegoen guztiz kaltetua.

Aldendu egin zen hori esan bitartean. Uste izan nuen beharbada gora botako zuela. Oraindik ere laneko arropa odolez-tatuak nituen jantzirik.

—Atera nazazu hemendik, Duffy.

Farmazian gelditu zen, errezetako botikak hartzeko, eta etxera eraman ninduen. Iratzarri nintzenean joana zen. Ohar bat zegoen gau-mahaian, azaltzen zuena noiz hartu behar nituen pilulak. Telefono zenbakia ere utzia zuen, eta esaten zuen iratzarritakoan deitu egin behar niola. Lasaitua hartu nuen, ikusirik oraindik laneko arropetan nengoela.

Geroago deitu nion, gauez, eta berehalakoan etorri zen.

—Jackek zapokeria egin dizu, Jess —Duffy harat-honat zebilen sukaldean—. Juxtu zu han jarri baino lehentxeago mutiletako batek ikusi zuen nola Kevinek segurtasun gailua kentzen zuen. Jackek esan dezake ongi ez zebilelako kendu duela mahaika, baina norbaiti agintzea eskua bertan sartzeko kontratuaren erabateko urraketa izan zen.

Zaila zitzaidan Duffyk zioenari jarraitzea. Ez zen bakarrik burua analgesikoekin nahasia nuela, ulertu ere ez nuen ulertu nahi.

—Baina harrapa ezazu, Jess —Duffy sukaldeko mahaiaren gainean makurtu, eta ukabilez jo zuen—. Zu ospitalera eraman ondoren, Jackek segurtasun gailua ezarri zuen berriz, eta zin egin zuen denbora guztian pizturik egon zela. Sasikumeak zapokeria egin dizu, Jess.

Beldurrez zorabiatu nintzen. Gogora ekarri zidan gurasoek buruko klinika batean sartu ninduten aldia, edo poliziek ziegako atea ireki zuten hura. Munduan, jende askok zeukan ni kontrolatzeko eta zauritzeko boterea. Sorbaldak goratu nituen, niretzat inportantea ez balitz bezala.

—Begira, Duffy, pasatu da. Bestalde, kontratua bi hilabetean bukatuko da. Baditugu kezkatzeko beste gai batzuk.

Duffyk begiratu zidan eroturik banengo bezala, baina hitz egin zuenean ahotsa bare zuen.

—Ez, Jess. Honen gainean asko dugu kezkatzeko. Frogatu behar dugu Jackek zer egin dizun, eta zuzendaritzari esan behar diogu edo kanporatzen duela edo guk denek alde egingen dugula.

Liluraturik gelditu nintzen pentsatuta heteroak nire alde altxa zitezkeela, edo edozein emazte-gizonen alde.

—Begira —erantsi zuen Duffyk—, ez dut uste egiaz ohar-tzen naizenik zein gogorra den zuretzat. Badakit zein ergelak izan daitezkeen laneko mutilak batzuetan —harraskaren kontra bermatu zen, eta besoak gurutzatu zituen—. Baina zurekin ospitalera joan nintzenean, ikusi nuen nola tratatu zintuzten, nola hitz egin zuten zutaz. —Aurpegia igurtzi zuen.

Berriz begiratu zidanean, malkoak ikusi nituen haren aurpegian.

—Halako ezintasuna sentitu nuen, badakizu? Oihuka aritu nintzaie, pertsona zinela, inporta zenuela, eta bazirudien aditu ere ez zidatela egiten. Ezin nuen deus ere egin zuri laguntzeko, eta ezin nituen haiek behartu zutaz nik nahi bezala axola izateko, badakizu?

Baietz egin nuen buruaz. Banekien. Eta orain banekien Duffyk ere bazekiela.

•••

Janek Abba'sera eraman ninduen ostiral gauean. Denek txalo egin zuten sartu nintzenean. Barneko aldean pankarta bat zintzilikatua zuten: *Senda zaitez, Jess!* Frankie, Grantek eta Johnnyk esan zidaten Duffyk sindikatuaren ikerketa bat antolatu zuela «istripuaren» gainean.

Jani begira nengoen. Oso triste zirudien.

—Non dago Edna? —galdetu nion ahapeka Granti.

Grantek hatz erakusleaz zintzurra gurutzatu zuen. Itxoin nuen harik eta Jan atzealdean bakarrik eserita ikusi arte. Bi zer-beza eraman nituen.

—Zurekin eser naiteke?

Keinu egin zuen aulki hutserantz.

—Laguna zaitut, Jan —esan nion—, eta maite zaitut. —Harritua zirudien nik hura esatearekin—. Ez baduzu hitz egin nahi, ongi iruditzen zait. Baina ezin dut egin minduta zaudela ez baneki bezala.

Jan aurrera makurtu zen, eta ukondoak mahaian bermatu zituen.

—Galdu dut. Maite nuen eta galdu dut. Zer gehiago esan daiteke?

Sorbaldak goratu nituen.

—Badakit asko maite zenutela elkar.

Garagardo pixka bat edan zuen.

—Batzuetan maitasuna ez da aski —esan zuen.

Oker egotea desiratu nuen. Hasperen egin zuen.

—Makurrena da nire errua dela. Banekien utziko ninduela eta ezin izan nintzen behar bezain bizkor aldatu geldiarazteko. Nork daki, beharbada zaharregia naiz inola ere aldatzeko.

Ez nekien zertaz ari zen, baina isilik gelditu nintzen. Jan hondoratu egin zen.

—Esaten badizut zergatik moztu duen harremana, agintzen didazu ez diozula inoiz inori txintik ere esanen?

Erantzun aurretik horri buruz pentsatu nuen.

—Nitaz fida zaitezke —esan nuen.

—Denbora behar izan duzu erantzuteko —hark, mesfidati.

—Lehenik segurtatu behar nuen egiaz esaten nuela.

Janen ahotsa lastu egin zen.

—Ezin nion utzi ni ukitzen. Ez genuen horri buruz inoiz hitz egin. Horri buruz nola hitz egin ere ez nekien. Hasieran ongi iruditu zitzaion, ulertu zuen. Baina geroago esan zidan bere buruaz harro zegoela, beti gauza izan zelako bere *stone* maitaleak limurtzeko. Arras ikaratu nintzen, badakizu?

Pentsatzen ari nintzen zein atsegina izanen zen maitale *femme* bat ondoan izatea, ni aldarazten saiatzeko lana hartuko zuena.

—Nolanahi ere —esan zuen Janek—, ezin izan nuen, eta azkenerako utzi egin nau. Hainbeste urteren ondoren. Sinets dezakezu? —irri egin zuen ironiaz—. Hainbesteraino, burua galzteraino, maitatu dudan emakume bakarra, eta utzi egin nau.

Janek besoa harrapatu zidan.

—Edozein gauza eginen nuke itzul dadin.

Hizketan ari zela, malkoak zituen begietan.

—Taberna alu guztiaren aurrean ere belaunikatuko nintzateke. Edozein gauza eginen nuke. Baina ezin aldatu dut izateko modua. Ez dakit zer dudan gaizki. Besterik gabe, ezin dut. Badakizu?

Banekien. Aurreraka makurtu, eta besoaz inguratu nuen. Burua nire soingainean pausatu zuen. Hain mozkortua egon ez balitz, lotsatuko zen.

Sakon-sakonean barnea irakiten nuen. Banekien ni ere stone nintzela. Bazen alarma sistema bat bazirudiena ez zuela pizteko eta itzaltzeko etengailurik. Behin instalaturik, sirenak uluka hasi, eta ateak itxi eginen ziren, intrusoak maitagarria zenean ere. Azkenerrako maitatuko ninduen emakumerik topatuko ote nuen eta horregatik utziko ninduen? Hala bazen, biziak sobe-
ra gogorra zirudien jasateko ere.

Janek esandako gauza batek jaten zidan barnea: Edna bere buruaz harro zegoen, gauza zelako bere stone maitaleak limurtzeko. Nola eginen zuen? Jakin nahi nuen nolakoa ote zen ukitua izanik beldurrik ez sentitzea. Asko pentsatu nuen Ednarengan.

•••

Abba'sen ematen nuen denbora kasik arratsero, kalteordaina jaso eta sendatzen nintzen bitartean. Janek tabernara joateari utzi zion, Ednarekin topo egitearen beldurrez. Edna larunbatetan joaten zen tabernara. Gau horren zain egoten nintzen, aste guztian. Larunbat gau hartan ataritik sartu zenean, hura zen ikus nezakeen guztia. Gainerakoak zuri-beltzean zeuden; Edna bakarrik zegoen kolore bizitan.

Zuzenean nireganantz etorri zen. Hura hurbildu ahala, aulkia libre utzi nuen. Ednak esku zauritua hartu zidan. Eztiki, metalezko trasteari eutsi zion, eta begietara begiratu zidan. Sor-baldak goratu nituen.

—Hobeki dago. Medikuek esan du hatzean sentsibilitatea izanzen dudala —esan nion, lasaitzeko.

—Zenbat denboraz izan behar duzu hau? —galdetu hark.

—Ez dakit. Hilabete esan zidaten.

Kezka ikusi nuen haren begietan. Ohoratua sentitu nintzen. Biak eseri ginen, eta keinu egin nion Megi, bi edari ekartzeko. Diru-zorroa hartu nuen. Ednak eskua besoan jarri zidan.

—Lanean ari naiz, utzidazu ordaintzen.

Ednak tragoxka hartu zuen.

—Oso ausarta zara —esan zidan.

Lotsatua sentitu nintzen; ez zen egia.

—Ez naiz, egiaz —esan nion zintzoki—. Beldurturik egoten naiz denbora guztian, Edna.

Aurpegia gozatu zitzaion.

—Oso ausarta da halakorik niri esatea.

Gorritu egin nintzen. Bere eskua nirearen gainean paratu zuen. Azazkalek dirdira gorri pintatu berria zuten.

—Badakizu zer uste dudan? —galdegin zidan.

Aurreraka makurtu nintzen, aditzeko.

—Nik uste denak gaudela izaturik. Baina beldurrek zu geldiaraztea uzten ez baduzu, horixe da ausardia.

Erabaki nuen inoiz ezagututako pertsonarik argiena zela. Ednak hatzak pasatu zituen bere ile artean. Oso keinu limurtzailea izan zen. Aurpegira begiratu zidan; begirada beheratu, eta irribarre egin zuen. Norbaitek txanpon bat sartu zuen disko makinan. *Zu zara nire arima eta nire bihotzaren inspirazioa* kantatu zuten Righteous Brothersek. Neure buruari galdetzen nion ea dantzara gonbidatzera ausartuko nintzen.

—Edna —lardaskatu nuen—, dantzatu nahi?

Une hartantxe ireki zen tabernako atea, eta denak isildu ziren. Sarreran, zutik, mendi bat zen emakumea zegoen. Larruzko jaka beltza zuen jantzia, lotu gabe. Bularra laua zuen, eta argi zegoen ez zuela bendatua. Bakero eroriak zituen, gerrikorik ga-beak. Esku batean motoko eskularruak eta kaskoa zeramatzan. Rocco. Haren ospea ezaguna zen.

Ednari begiratu nion. Ezin asmatuzko oroitzapenean zegoen galdurik. Haien aurpegiak ikusi nituen, urteetan lehen aldiz elkarri begiratu ziotenean. Txandaka begiratu nien batari eta besteari, tenis partida balitz bezala, ez nuen kolperik galdu nahi. Senti nezakeen zenbateraino maite zuten elkar.

—Kaixo, Rocky —Ednak isilka. Pelikula bateko esaldia zirudien.

—Kaixo, Edna —erantzun Roccok, ahots sakonez.

Aurpegiak elkarrengandik eta niretik hurbil zituzten. Bizar itzal bat ikus nezakeen Roccoren kokots eta masailetan.

Janek behin kontatu zidan Rocco hainbestetan zanpatu zutela non inork ez zekien zehazki zenbatetan. Poliziek zanpatu zuten azkeneko aldian hiltzeko zorian izan zen. Janek aditua zuen Roccok hormonak hartu eta bularreko ebakuntza egin zuela. Orain gizon gisa aritzen zen lanean, eraikuntzako talde batean. Janek esan zidan Rocco ez zela halakorik egin zuen

emazte-gizon bakarra. Ipuin fantastikoa zen. Nik erdizka bakarrik sinistu nuen, baina liluratu egiten ninduen. Emazte-gizona izatea hain mingarria izanik, neure buruari galdetzen nion zer nolako ausardia behar ote zen beti ezagutu duzun sexua abandonatzeko, edo hain bakarrik bizitzeko.

Rocco ezagutu nahi nuen. Milioi bat galdera egin nahi nizkion. Munduari haren begietatik begiratu nahi nion. Baina, oroz gainera, nahi nuen niregandik desberdina izan zedila. Beldur nintzen neure burua Roccorengan ikusiko ote nuen.

Ednaren aurpegiari begiratu nion. Bere burua kontrolatzen zuen halako indarrez eta duintasunez, min eman baitzidan hain agerikoa zena disimulatzen saiatzeak. Ez dezaket esan Ednak egiaz eskua luzatu zuen, Roccoren masaila ukitzeko, edo Ednaren gogoia irakurtzen ari ote nintzen. Dar-dar egin nuen, hain emakume boteretsuengandik hain hurbil egoteagatik.

Roccok Ednaren ukondoa ukitu zuen. Edna zutitu, eta Rocco eraman zuen atzeko aldeko mahai batera. Bakarrik gelditu nintzen, inarrosia. Alde batera utzia sentitu nintzen, jeloskor. Bi emakumeen arreta irrikatzen nuen. Ednari begiratu bat zuzendu nionean, irrikatu nuen hala begira ziezadala. Gustatuko zitzaidan ni hain boteretsua izatea, niri begiratzearekin bakarrik norbait hostoak bezala dardarka hastea. Eta Rocco lagun izatea nahi nuen, murgilduta geunden unibertso haren sekretu guztien berri emateko. Nire babesgune nahi nuen, ahul nintzenean harrengana jotzeko.

Saiatu nintzen haien gorputz-hizkera irakurtzen, solasean aritu bitartean.

Rocco zutitu egin zen. Ednak larruzko papar-hegaletatik hartu zuen. Beren ezpaineak elkar ukitu zuten lipar batez, eta Rocco itzuli egin zen, alde egiteko. Nahiko nuen Roccok Ednaren aurpegia ikustea, bizkarra eman zionean. Oso inportantea izan zen harentzat.

Rocco nire aldera etorri zen, aterako bidean. Burua estutu nuen, zerbait esateko eta, hala, geldiarazi eta solas egiteko. Beharbada nire min begiradak eragin zuen nire parean gelditzea. Bekainekin galdera egin zidan. Ez nuen hitzik topatu nahi nuena esateko; beharbada zer nahi nuen ere ez nekien.

Une batez, zalantza bat agertu zen Roccoren aurpegian. Haren mesfidantza desagertzen hasi zen. Ez nekien zer egin;

beraz, eskua luzatu nion. Begiratu zion, eta gero beste eskuari, bendatua eta errobot batena gisakoa zen horri. Eskua estutu, eta baietz egin zuen buruaz; ez dut inoiz jakin zergatik. Eta tabernatik atera zen.

Alde egindakoan tabernako bolumenak gora egin zuen berri ere. Hutsik sentitu nintzen, galerak hustua. Hala sentitzen banintzen, nola ez zen egonen Edna. Denbora nahikoa itxoin nuen harengana itzuli aurretik.

—Edari bat aterako dizut? —nik.

Harriturik begiratu zidan.

—Zer? —esan zuen zezelka—. Bai, eskerrik asko.

Isilik edan genuen. Haren tristurarekin bat egin nuela sentitu nuen. Bikoteak iluntasun kezkatuan dantzan ikusten nituen. Halako batez, Ednak nire aldera begiratu eta xuxurlatu zidan:

—Mina sentitzen dut.

Hain lasai eta baxu esan zuen, pentsatu bainuen ez ote nuen gaizki ulertu. Baina haren begietan mina ikusi, eta harengana hurbildu nuen aulkia. Edna nire kontra kukutu zen, bere gorputzarekin nirea esploratuz. Hura besarkatzea gozamen hutsa zen. Hasperen egin, eta gorputza negar-zotinka astintzen hasi zitzaion.

Hasieran lotsaturik sentitu nintzen, jendeak pentsatuko zuenarekin kezkatu. Baina gero hari eman nintzaion, haren ongizatearekin bakarrik arduraturik. Konfiantza eman zidan, bere mina nire besoei emateko adina. Ilean musu eman nion. Perfumeak zorabiatu ninduen. Begirada nireganantz goratu zuen. Irrikatu nuen haren kokotsa goratu eta ezpainak musukatzea, sakon eta mantso. Begirada ikusi zidan. Ezkutatzeak ez zuen zentzurik.

—Berehala nator —esan zuen.

Edna luze egon zen komunean. Itzulitakoan, zigarreta bat eskaini eta piztu nion. Ednak ezetz egin zuen buruaz, mantso.

—Min gehiago sentitzerik ez nuela uste nuenean, begira nor sartu den atetik.

Kea bota, eta aurpegira begiratu nion.

—Zer nahi zuen? —ezin sinetsi nuen halako galdera pertsonala egin izana.

Galdera zuzen horrekin zur eta lur gelditu zitzaidan.

—Janek eta biek moztu genuela aditu zuen. Hilabete-edo itxoin, eta hona etorri da, galdetzera ea aukerarik baden biak berriez ere elkartzeko.

Nire Zippoa poliki itxi nuen whisky basoaren kontra: mari-mutilen Morse kodea.

—Eta bada? Aukerarik, esan nahi dut.

Hasperen egin zuen.

—Jendeak boladak izaten ditu, bai? Zikloak. Zortzi urteko harremana utzi berri dut. Rocco luze egon da bakarrik.

Min eman zidan Rocco bakarrik zegoela pentsatzeak.

—Uste dut ez dudala inoiz Rocco bezalako emakumerik ikusi —esan nion.

Ikus nezakeen Ednak ez zekiela seguru zer esan nahi nuen, eta ohartu nintzen Ednak azkeneraino defendatuko zuela Rocco.

—Lagun nahiko nuke —esan nuen agudo, uler zezan.

Irribarre goxoz, besoa ukitu zidan.

—Rocok maitatuko zintuzke.

Poztu nintzen.

—Egiaz uste duzu?

Ednak baietz esan, eta gero buruaz ezezeko keinua egin zuen.

—Hura oroitarazten didazu era askotan. Antz handia duzu hura gaztetan zenarekin.

Zer esan nahi zuen galdegin nahi nion, baina partez erantzunaren beldur nintzen.

—Behin —esan nion—, gure tabernetako bat topatu nuen lehenbiziko gauean, Al ezagutu nuen.

Baiezko keinua.

—Alen laguna zinen? —esan zidan. Begiak busti zitzaizkion.

—Al ezagutu zenuen? —nik.

Ezagutu zentzu biblikoan esan nahi nuen. Ulertu zuen.

—Mundu txikia da gurea —erantzun, hark—. Jende zirkulu honek bere horretan dirau, neurri handi batean.

Besoa ukitu zidan.

—Orain edozein gauza egiten duzula ere, segurtatu bizi osoan horrekin bizitzen ahalko zarela.

Banekien hobe nuela hori oso kontuan hartu.

—Nolanahi ere —esan zuen—, eten egin dizut.

Aurreraka makurtu nintzen.

—Begiak Alengan jarri nituen lehenbiziko aldian, begi-kolpeko maitasuna izan zen, badakizu? —Ednari aurpegia goxatu zitzaion.

—Hau da, bada maitasun mota pila —nik—. Ezin dut azaldu nola den niretzat, baina maitasuna da. Hala sentitu naiz gaur Rocco ikusi dudanean.

Ednak aurpegia ukitu zidan hatz puntekin.

—Zenbat eta gehiago zu ezagutu, orduan eta gustukoago zaitut.

Niregana makurtu, eta ezpainetan musu eman zidan ez-tiki. Behatz puntetaraino gorritu nintzen. Irribarre egin zuen Ednak.

—Etxera joan behar dut, lotara —esan zidan—. Eramanen zaitut?

Nik ezetz, buruaz.

—Hemen geldituko naiz tarte baterako, eskerrik asko.

Ednak alde eginda, behin eta berriz errepikatu nuen gau hartan gertatutako guztia neure buruan.

•••

—Eskiroлак! —oihukatzen genien, eta, bitartean, poliziak saiatzten ziren haiei laguntzen, gure lerroak gurutzatzeko eta gure lanak kentzeko.

Gutako ehunka indarka ari ginen polizien hesien kontra, poliziek eskirolak babestu bitarte.

—Marikoiak! —oihukatu zien gure gizonetako batek greba-hausleei. Mari-mutil guztiek polizien hesietatik alde egin zuten. Hitz horrek burdina goriak bezala erretzen zuen.

—Duffy —besotik erakarri nuen.— Zer da *marikoen* kaka zahar hori?

Bazirudien ez zekiela nola demontre jokatu.

—Ongi da —esan zuen—. Aditu, mutilak. Utzazue marikoen zera hori. Eskirolak dira.

Gizonek ez zuten ulertzen. Argi bat piztu zen Walterren buru barnean.

—A, kaka —eskua luzatu zidan—. Ez ginen zuetaz ari.

Eskua estutu nion.

—Begira —esan nuen—, deitu nahi bezala, baina ez deitu marikoiak.

Walterrek baietz:

—Konforme.

—Zakil jaleak! Ama joleak! —oihukatu zuten, horren orde.

Hesiak bultzatu nituen:

—Eskirol zikinak —garrasika—. Sexua duzue beste gizon batzuekin!

Mutilak harriturik gelditu ziren:

—Zer ari da esaten? —Sammyk jakin-minez.

—Penetrazioa egiten duzue zeuen amekin —oihukatu nuen.

—Nazkagarria da —Walterrek.

Duffy tartean sartu zen.

—Ongi da, eskirolak eta greba-hausleak dira. Beren izenez deitu, bai? —Duffyk haserre begiratu zidan, baina irribarrea zuen azpian.

Grantek bazter batera erakarri ninduen, eta Duffyren aldera keinu egin zuen.

—Badakizu hori komunista dela?

Zur eta lur gelditu nintzen.

—Ez da —erantzun nik.

—Ezetz? Nola dakizu?

Jan kezkatu egin zen.

—Egia al da hori?

—Hori kaka zaharra da —esan nien bie.

Eskirolei eta poliziei oihukatzeraz itzuli zirenean, Duffyren ondora joan nintzen.

—Zer? —hark.

Sorbaldak goratuz:

—Komunista al zara?

Espero nuen irriz hasiko zela, edo gutxienez harrituko zela, baina horren orde begirada tristea egin zuen.

—Orain hitz egin behar dugu horretaz?

—Esan diet kaka zaharra dela —nik—. Eta kaka zaharra da, ezta?

—Hitz eginen dugu hortaz geroago? —eskatu zidan berriz.

Baietz esan nuen, baina nahiago nukeen hantxe berean ebaztea. Aditu nahi nion ez zela egia.

Bat-batean, poliziek kaskoak jarri eta borrarak hartu zituzten. Gu denak larritu eta hesien aurrean bat egin genuen. Prest zeuden eskirolak gure gainetik pasarazteko. Orro egin genuen hain ozen, ondoko babespeko etxeetatik jendea ikustera hurbildu zen. Hesiak astindu genituen, poliziei eta eskirolei oroitarazteko zura zein hauskorra zen, eta kartelak —makiletan nolanahi josiak— goratu genituen.

Eskiolak hurbildu ahala, haietako batek borra bat ateratu zuen, eta Frankieren hatzak jo zituen, hesian baitzituen. Jan hainbeste haserretu zen, eskirola buruan jo zuen pikete-kartelarekin. Poliziek Jan hartu, eta hesiaren gainetik atera zuten. Hiru grebalari saiatu ziren hesia saltatzen, Jani laguntzeko, baina poliziek harrapatu, eta eskuburdinak paratu zizkieten. Lauak polizien furgonetara jaurti zituzten.

—Duffy —oihukatu nuen, nahaspilaren gainetik—. Duffy, Jan atera behar dugu. Lagun iezaiozu!

Duffy ahalegintzen zen jendeketaren artean aurrera egiten.

—Jess, sindikatuko lau lagun ditugu furgoneta horretan.

—Duffy, ez duzu ulertzen. Pentsa. Janentzat desberdina da atxilotua izatea. Mesedez, aditu.

Ez nuen azaltzeko denborarik. Duffyk besotik hartu eta aurpegira begiratu zidan erantzun eske. Utzi nion ikus zitzala beldurra eta lotsa, gizon bati nahita inoiz utzi ez nion bezala. Baiezko keinua egin zidan. Ulertu zuen.

Duffy bultzaka joan zen hesiraino, laneko bota goratu, eta hesia ostikoz irauli zuen.

—Goazen —grebalariei keinu eginez.

Poliziak ustekabean harrapatu genituen trumilka gainditu genituenean. Borrokak izan ziren, baina gutako gehienak polizia furgonetaraino iritsi, eta inguratu genuen. Babespeko etxeetako jendeak zirkulua egin zuen gure inguruan. Furgoneta astindu genuen.

—Aska itzazue! Aska itzazue! Aska itzazue!

Urrezko barrak zituen polizia zurbil batek hurbileko ofizialei zerbait xuxurlatu zien. Haien inguruko zirkulua estutu genuen. Laster furgoneta zabaldu zuten. Lau eskuburdin pare ireki zituzten. Atxilotu bezain agudo askatu zituzten lauak.

Fabrikako atetik hurbil zeuden eskirolen talderantz itzuli ginen. Polizien lerro bat babesgarri izan gabe, arratoiak bezala alde egin zuten. Horietako batzuk fabrika barnera sartu, eta atea

itxirik izaten saiatu ziren. Grebalari batzuk ateari tiraka ari ziren, haiek harrapatu nahian. Beste batzuek eskirolak ehizatzen zituzten karrikan. Poliziak atzeraka ari ziren karrikaren beste aldean.

Pikete lerro bat muntatu genuen fabrikako ateen aurrean.

—Kontratua! Kontratua! —oihukatuz adoretzen genuen geure burua.

—Irabazi dugu —oihukatu nion Duffyri—, irabazi dugu!

Buruaz ezetz egin zuen.

—Bataila hau irabazi dugu. Bihar are latzagoa izanen da.

Zer zapuztailea, pentsatu nuen.

Jan dardarka ikusi nuen. Duffyri keinuz esan nion handik aterako nuela. Jan eta biok eraikin bat haratago joan ginen, autoa aparkaturik zuen lekura. Autoko atearen kontra bermatu, eta gora bota zuen. Eskuak hain dardarti zituen non kasik ezin baitzuen zigarreta izeki. Zippoa atera nuen.

—Ikaraturik nengoen han barnean —esan zidan.

Buruaz baietz.

—Baita ni ere.

—Ez —soingainetik heldu zidan—. Esan nahi dut ez nuela uste aguanta nezakeenik: ez bakarrik, etxera Ednarengana itzulterik izan gabe.

Etxean Edna zain izatearen pentsamenduarekin gorritu egin nintzen. Pentsamendua baztertu nuen.

—Badakit, Jan —esan nuen apal—. Atxilotu zaituztenean, bat-batean burura etorri zaizkit gogoratu nahi ez nituen gauzak, behin eta berriz gertatzen ariko balira bezala.

Begirada niregana altxatu, eta esker onez egin zidan irribarre.

—Ulertzen duzu —esan zuen.

Baiezko keinua egin, eta begiak beheratu nituen.

Jan pozik agertu zen.

—Ezin dut sinetsi zuek ni handik atera izana. Sinestezina izan da. Nireak egin zuela uste nuen, eta atera nauzue! Ostia, sinestezina!

Irri egin genuen malkoak isuri arte.

—Itzuli beharra dut —esan nion—. Joan etxera eta hartu atsedean.

Baietz, hark.

—Bihar goizean? 7etan? Irribarre egin, eta buelta eman nuen.

Janek dei egin zidan:

—Egiazko laguna zara, bazenekien?
Jakinen balu zer sentitzen nuen Ednarenganako, ulertuko
zuen nolako traidorea nintzen egiaz.

•••

Erdi lo erantzun nuen, Duffyk gauean deitu zuenean.
—Zuzen zeunden —oihukatu zuen—. Mahaiari irabazi dugu
gaur gauean! Eta zuzendaritza ados dago Jack kanporatzearekin!
Lozorrotik iratzartzen saiatu nintzen.

—Zer? Zer esaten ari zara?

—Jess, irabazi dugu! —irriz—. Berresteko bilera bihar
gauean izanen da. Nahi dut mari-mutil guztiak antola ditzazula
sindikatu bilerara joateko, botoa emateko, bai?

—Bai ba —esan nion zezelka, eta eseki nuen.

Biharamunean fabrikako mari-mutil guztiei deitu nien,
talde gisa joan gintezen astearte gaueko bilerara. Granti deitu
nionean, berri inportanteak eman zizkidan.

—Altzairu fabrikak berrogeita hamar emakume hartu
behar ditu —esan zidan—. Asteazkenean onartuko dituzte es-
kaerak. Ez dakit zer egingen duzun, baina ni astearte gaueatik
kanpatzen jarriko naiz ilaran. Iluntzen duenerako ilara Lacka-
wannatik Tonawandaraino iritsiko da.

Esajeratuxea zen, baina arrazoi zuen.

Jani deitu nion.

—Ez dakit —esan zuen—. Zure ustez zer egin beharko ge-
nuke?

—Zuk niri esatea espero nuen —nik.

Duffyri deitu nion astearte arratsaldean. Azaldu nion ma-
ri-mutil guztiek nahi zutela altzairu fabrikari sartzeko aukera.
Isiltasun handia izan zen lineaz bestaldean.

—Okerra da —esan zuen.

—Ez duzu ulertzen —oihukatu nion—. Ez dakizu zer den
guretzat halako fabrika handi batean sartzea.

Nirekin eztabaidatzen saiatu zen.

—Bozketa irabazten bada, gutxienez fitxatu asteazken
goizean, edo automatikoki kaleratuko zaituztete.

Bazirudien ez zela ohartzen jadanik kanpoan mintzela.

—Ez dakizu zer izanen litzatekeen altzairu fabrikan ari-
tzea, ezta?

Oihuka erantzun zidan:

—Zer ostia da kontua, gogor plantak egitea?

—Bai —garrasika nik—, nolabait. Baina ez zu esaten ari
zaren moduan. Daukagun guztia da janzten ditugun arropak,
ibiltzen dugun motoa, eta egiten dugun lana, ados? Honda bat
erabil dezakezu eta koadernatze fabrikan aritu, edo Harley bat,
eta altzairu fabrikan jardun. Gainerako mari-mutilek utzi eginen
dute goiz edo berandu, eta ez dut trabaturik gelditu nahi esplota-
zio zulo txiki horretan, sindikatu txatxu horrekin.

Banekien mindu nuela, baina ez nuen atzera egiteko biderik.

—Ulertzen ez baduzu, ezin dizut azaldu —esan nion.

—Tontakeria dela uste dut.

Ume batek bezala esan zuen. Orduan jakin nuen egiaz
mindu nuela.

—Berrogeita hamar emakume hartzeko agindu diote enpre-
sari, baina mantendu beharrik ez dute. Zuetako bostek laurogeita
hamar egun irauten badute, sindikatuan sartu ahal izateko, or-
duan jan eginen dut Jim Boneyren beisboleko eskularria.

Sutan nengoen.

—Nire eskularria da —oroitarazi, eta telefonoa eskegi
nuen.

Astearte gauez demonioaren hotza zegoen. Metalezko
kupeletako suen inguruan bildu ginen. Gau luze-luzea izan zen.
Sabela estutu egiten zitzaidan kontratua berresteko bilera gogo-
ra etortzen zitzaidan bakoitzean.

—Zuk uste akatsa egin dugula? —Janek.

Ez nuen erantzun.

Pikutara Duffy, pentsatu nuen. Ez *gaitu ulertzen*.

Gutako lehenbiziko berrogeita hamarrek eskabideak bete,
eta esan ziguten hurrengo gauean itzultzeko, gauerdian. Egunez
lo egin genuen. Bitartean, kanpoan elur ekaitza egin zuen, baina
Janek eta biek lanera joateko asmo sendoa genuen hala ere.

Planeta herdoildu eta korrugatu batean lurreratu izan
bagina bezala ibili ginen fabrikan. Soinu ozen eta motelduek
ustekabean hartzen gintuzten. Labe garaiek zerua laranjaz eta
gorriz argitzen zuten.

Gure eginkizun-fitxak eman genizkion arduradunari. Goitik behera begiratu zigun.

—Zatozte nirekin —esan, eta kanpora eraman gintuen.

Haizeak elur xehearen goiko geruza altxatzen zuen zirimolatan. Arduradunak pala bat hartu, eta elurra ateratzen hasi zen, harik eta metalaren kontra klank aditu zen arte.

—Aditu? Burdinbidea.

Pala bana eman zigun.

—Garbitu ezazue.

Ezkerreko eskura begiratu zidan. Zapi batez bendatua nuen esku zauritua. Hotzarengatik, metalezko gailuak larruazala erretzen zidan.

—Lanerako gauza izanen zara? —buruaz nire eskurantz keinu eginez.

—Jakina —nik—. Aizu, zer luzera du burdinbideak?

Sorbalda gainetik erantzun zuen:

—Gau osoa eman dezakezu elurra ateratzen, eta ez zara bukaerara iritsiko.

Elur pilari begiratu genion. Janek pala jaurti zuen. Leunki jo zuen elurra. Ni lanean hasteko prest nintzen, baina Janek esan zuen, apal:

—Zaharregia nago kaka honetarako. Gorriak pasarazi behar dizkigute, uzten dugun arte.

Banekien zuzen zegoela.

—Tira —esan zidan—. Etxera eramanen zaitut.

Egunsentia arte egon nintzen elur erauntsiari begira. Banekien bezperan kaleratua izan nintzela, fitxatu ez nuenean, greba ofizialki bukatu eta biharamunean. Zerumuga argitzearekin batera koadernatze fabrikara joan nintzen oinez, Duffy ailegatzen zenerako han izateko. Atearen atzeko aldetik atera nintzen Duffyren autoa iritsi bezain laster. Ezin dut deskribatu ikusi ninduenean zuen begirada.

—Zer nahi duzu?

Jendetasunez galdetu zidan, baina hitzak hotzak ziren.

—Zuzen zeunden —hitzak kasik eztarrian trabaturik.

Ezezko keinua egin zuen.

—Ez naiz pozten arrazoi izateaz.

Sorbaldak altxatu nituen.

—Ez du inporta, egia esan. Sentitzen dudala esatera etorri naiz. Oker nengoen.

Besoaz inguratu ninduen.

—Ni ere oker nengoen. Asko pentsatu dut horretaz. Oroitzen zara nola Leroyk eta zuk lanpostu bera nahi zenuten?

Baietz, nik.

—Bueno —Duffyk segitu zuen—, prest egon zinen atzera egiteko, Leroyk lanpostua eskura zezan. Eta esan zenidan mari-mutilak ez zirela ongi etorriak sindikatuaren bilkuretan. Eskatu nizun greba bukatu arte itxoiteko, horri heltzeko. Kontua ez da zuen aldarrikapenari inportantzia txikiagoa ematen niola. Ez nuen aski indar gauza guztiei aurre egiteko. Baina beharbada hala ikusiko zenuen. Sentitzen dut, Jess. Atzera egiterik banu, Leroy eta mari-mutil guztiak eramanen zintuztedan hurrengo bilerara, eta jendeari esanen nion, «Hemen gauden guztiak gara sindikatua!» Uste dut nik ere okerra egin nuela.

Tommy eta Duffy ziren bizi guztian barkamena eskatu zidaten gizon bakarrak.

—Alde egin behar dut —esan nion—. Berandu iritsiko zara.

—Zaude! —Eskua goratu zuen, eskularruaren barnean—. Zuretzako zerbait dut.

Autoko atea ireki, eta opari bat luzatu zidan, paperean bildua.

—Greba irabazi genuela jakin ondoren, hau hartu nuen zuretzat —Duffyk lotsatua zirudien, eskura eman zidanean.

Eskularrua kendu, eta eskua estutu zidan.

—Adio, Jess. Eskerrik asko.

—Zergatik?

Hark irribarre.

—Eskerrik asko hainbeste irakasteagatik.

Buelta eman, eta alde egin zuen.

Elur artean itzuli nintzen etxera, oinez, deusetan ez pentsatzen saiatzan nintzela. Etxera iritsitakoan, ohartu nintzen paketea oraindik esku artean nuela. AFL-CIO⁴ sindikatu federazioaren buletin batean bildurik zegoen, eta begizta urrekara bat zuen, Eguberrietatik soberan gelditutakoa zirudiena. Liburu bat

4 *American Federation of Labor and Congress of Industrial Organizations* (AFL-CIO: Ameriketako Lanaren Federazioa eta Erakunde Industrialen Batzarra) 1955an sortu zen eta AEBtako sindikatuen federaziorik handiena da hamabi milioi langile eta erretiraturerkin. 1979an, bere une gorenean, hoguei milioi langilek osatu zuten.

zen, sindikalista baten autobiografia, Mother Jones izeneko emakume batena. Liburua ireki, eta azalaren atzeko aldean Duffyk idatzia zuen: *Jessentzat, itxaropen handiekin*.

Leihora hurbildu, eta elur piletarantz begiratu nuen, eta desiratu nuen bizian dena praktika gisa egin ahal izatea, eta ondoren berriz egiterik izatea.

•••

Tabernako barran nengoen, eserita, urduri erretzen, Edna noiz etorriko zain. Justinek bekain bat goratu zuen.

—Oraindik ez da etorri?

—Nor? —galdetu nuen, alegia deus ez.

Justinek irribarre egin, eta basoa altxatu zuen airera, topa eginez.

—Maitasunarengatik —esan zuen—, edo lizunkeria da bakarrik? Nire defentsak behera etorri ziren.

—Bakarrik dakit aste guztia ematen dudala zain hura ikusteko, eta iristen denean...

—O, o —Justinek, irriz—. Berdin sentitzen da bera?

Sorbaldak goraturik:

—Uste dut gustuko nauela.

Justine aurrerantz makurtu zen.

—Beraz, zein da eragozpena, maitea?

—Ez dakit, ez du bikotekiderik, nik ere ez. Ez dago kontrako legerik, ezta?

Justinek ez zuen erantzun.

—Ez dakit, Justine, baina badirudi ez dela zuzena. Hau da, Jan laguna dut. Dena kontatu zidan, nitaz fidatu zen. Gure arteko harremana hondatuko litzateke betiko. Baina orduan, Edna ikusten dudanean, min emateraino desiratzen dut.

Justinek ez zuen hitzik esan.

—Esan zerbait —erregutu nion.

Sorbaldak goratu zituen.

—Zerorrek bakarrik ebatzi behar duzu hau.

—Mila esker.

Edna ataritik sartu zen. Ezin genuen disimulatu. Begiradari eutsi zidan niregana heldu zela. Papar-hegalak leundu zizkidan, eta ezpainetan musu eman zidan arinki. Bihotza ziztuan taupadaka

nuen. Ednak eskutik hartu, eta atzeko aldera eraman ninduen. Edaria mahaian utzi, eta esertzen hasi nintzen, baina Ednak dantza pistara erakarri ninduen. Amestutako unea zen hura.

Dantzaren gozamina hain zen handia, kasik ez nuen aguantatzen ahal. Musika zegoen bitartean behin bakarrik ireki nituen begiak. Jan ikusi nuen guri begira. Silueta bakarrik ikusten banuen ere, haren amorrazio jeloskorra nabaritu nuen. Istant batean joana zen.

Ednak beregana erakarri eta begiratu zidan.

—Zer? —galdetu zuen.

Malkoak askatzeko zorian nintzen. Hatz puntak masailan jarri eta gehiago erakarri ninduen.

—Zerbait gaizki egin al dut?

Ezin azaldu nion Jan ere galdu izanaren beldur nintzela.

Ednak mahairantz eraman ninduen bueltan.

—Edna —hasi nintzen.

Buruz ezetz egin zuen.

—Ez zait horren doinua gustatzen. Ez duzu azalpenik eman behar —esan zuen, bitartean poltsa eta zamarra besoetan hartzen zituela.

—Zaude —esan nion—. Ez duzu ulertzen.

Zamarra utzi zuen, keinu nekatuz.

—Asko desiratzen zaitut, erotzeraino. Kontua da badirudiela ez dela zuzena.

Ednak ez zuen hitzik ere esan. Niri zegokidan azaltzea.

—Ezin diot utzi zugar pentsatzeari.

Niregana makurtu, eta eskua nire beso osasuntsuan pautatu zuen, baina oraindik ere hitzik esan gabe.

—Oroitzen nola esan zenidan behin, jendeak sasoiak izaten zituela? Janekin moztu berri zenuen, eta sufritzen ari zinen. Nik ere Jan maite dut: laguna dut.

Ednak burua beheratu, eta berriz altxatu zuen. Begiak tristuraz beterik zituen.

—Uste nuen esan behar zenidala zuretzako zaharregia nintzela.

—Ez dut uste batere zaharra zarenik, Edna. Uste dut gaztegia naizela zuretzat. Ez naiz ari adinaz, baizik izaera heldua izateaz. Batzuetan neure burua irudikatzen dut tabernan zure-

kin sartzten, eta momentuan helduagoa naizela dirudi, zu nire besotik hartuta egoteagatik.

Ednak isilik segitu zuen. Ez zidan, ez, errazagoa eginen.

—Eta batzuetan, egin beharrekoari buruz hain nahasia na-goenean, uste izaten dut munduari zentzua ematen ahal diozula niretzat.

Ednak irribarre goxoa egin zuen.

—Baina ezin naiz helduago izan istant batean. Ezin dut salto egin ikasi behar ditudan gauza guztien gainera, eta ezin dut dena zuregandik lortu. Nik uste esaten ari naizela, maita-le gisa besoetan hartuko zaitudan lehenbiziko aldian —eta hala eginen dut noizbait— orain naizena baino helduago izan nahi dudala —airea hartu nuen—. Eta bigarren, Jan maite dut, laguna dut. Behin esan zenidan orain egiten dudanarekin bizi beharko dudala bizi guztian.

—Hala esan nuen —Ednak, pentsakor hasperen eginez.

Aulkiaren bizkarrean bermatu zen, justu hurbildu zedila desiratu nuenean.

—Ez nago prest mari-mutil batekin egonkortzeko —esan zidan—. Baina egonen banintz, ohorea litzateke tabernan zure besotik sartzea. Norbaitek esan izan balit halako mina eman dezakedala, eta hala ere norbaitentzat hain erakargarria izan naitekeela, eroa dagoela pentsatuko nuen.

Gorritu nintzen. Hitz horien zain egona nintzen. Irribarre egin zuen.

—Oso lausengatua sentitzen naiz zu bezalako mari-mutil gazte batek halako arretea emanda. Ederra sentiarazi nauzu, ederra ez naizela sentitu dudanean. Baina nik uste dut ez naizela egiaz ohartu nolakoa zaren harik eta arestian hitz egin duzun arte. Maite ditut mari-mutilak —nire besoa estutuz.

Nire eskuak berotzen zituen sua ziren haren hitzak.

—Maite ditut Rocco eta Jan, prest daudelako mundu osoari aurre egiteko beren bizia gezur hutsa bihurtu baino lehen. Eta nolabait moldatzen dira emakume ohoragarriak izateko. Leialak dira, nirekiko eta lagunekiko.

Baiezko keinua egin, eta begirada jaitsi nuen.

—Errespetatzen ditut horregatik —esan zidan—. Partez horregatik maite ditut hainbeste. Eta horixe da zugan ikusten dudana.

Beldur nintzen, solasean segituz gero ez ote nuen nire erabakia ahaztuko, eta ez ote nintzen haren besoetan gerizatu-ko. Eskatu nahi nion erakuts ziezadala ukitua izaten, baina ezin nuen Janen konfiantza urratu.

Ednak hitz egin zuen lehenik.

—Etxera joan behar dut orain.

Arinduta hasperen egin nuen. Zutitu, eta haren zamarrari eutsi nion. Besoak mahuketan sartu, eta niregana itzuli zen. Ez-painetan musu arina eman zidan. Gerria eskuetan hartu nion. Ahoa ireki zuen niretzat, eta haren beroan topatzea espero nuen plazer guztia aurkitu nuen.

Atzera egin zuen. Nik ere bai. Nire esku zauritua jaso, eta hatz puntetan musu eman zidan, eta bat-batean alde egina zen. Hantxe gelditu nintzen, luze, mugitzeko gauza ez nintzela.

Peaches ondoan agertu zitzaidan.

—Tira, haurra —esan zidan, barrara eramaten ninduela.

—Atera garagardo batzuk, Meg, eta segi ateratzen.

Justinek basoa goratu zuen nire omenez.

—Bestela ere ez nuen esanen oker egin zenuenik, baina nire ustez zuzen jokatu duzu.

Barran hondoratu nintzen.

—Jan haserre dago nirekin, nolana dela ere —esan nien—. Elkarrekin dantzan ikusi gintuen.

Justinek ilea igurtzi zidan.

—Oraindik ere zure laguna da.

—Beldur naiz biak galdu ote ditudan —nik—, hasperen eginez.

Justinek buruaz ezetz.

—Jan itzuliko da. Eta Edna negarrez baina irribarrez atera da hemendik. Zerbait ongi egingen zenuen.

Buruaz ezetz, nik.

—Ez dakit, ez naiz sentitzen deus onik egin banu bezala.

Peachesek irri:

—Zaude, eta ikusiko duzu. Dagokizun neska bidean etorri-ko zaizu, zuregana zuzen-zuzenean.

Egia bazen, presatzea irrikatzen nuen.

10

Edwinengatik ez balitz, beharbada ez nuen sekula Milli ezagutuko. Goiz batez, Ed Darlenerekin gosaltzera joatekoa zen.

—Heldu zara? —galdetu zidan.

Ed eta biak jatetxe zulo hartara sartutakoan, poztu nintzen etorri izanaz. Emakume langilez beterik zegoen: ar eta eme. Zalaparta batean eman ziguten ongietorria. Musu eman, eta txantxak egin zizkidaten. Darlenek Edwin bere belaunean jarri, eta mehatxu itxurak egin zizkien beste *femmei*, bere mari-mutila bakean utz zezaten. Dibertigarria izaten zen hala ibiltzen ginenean.

Darlenek telebistako *The Fugitive*ko azken kapitulua kontatu zidan: egiazko hiltzailea harrapatzen zuten, eta David Janssenen errugabetasuna aitortzen, eta ihes egiteari uzten ahal zion.

Ed eztabaidan ari zen gure pareko emakume batekin, Newarkeko eta Detroiteko istiluez.

—Bortizkeria da gerezi tarta bezain amerikarra. Horixe dio Rap Brownek —Edek ukabilaz mahaia jo zuen—. Iraultzarako entsegu orokorra dira.

Beste emakumeak eskuak goratu zituen, errendizio gisa.

—Ados, ongi da. Ez zaitezela berotu.

Denak oihuka ari ziren disko-makina gainditu nahian, oso gora baitzegoen. The Beatles kantatzen ari ziren *Lucy in the Sky with Diamonds*. Darlene soingainean ukitu nuen.

—Baina zer esan nahi du kantua?

Irri, hark:

—Nola demontre jakinen dut?

Begiak minberaturik nituen nekeagatik. Edwini eskatu nion nirekin kanpora atera eta aditu zezala, nire Nortona abiarazten nuen bitartean. Ez zen abiatzen hotz eta heze zegoenean. Ez nekien zergatik.

Eden sorbalden gainetik ikusi nuen Milli lehenbiziko aldiz. Hantxe zegoen, niri begira. Edek Milliri begiratu, eta orduan, lagun onek bezala, alde egin zuen.

Baditut argazki mental batzuk. Haietako batean Milli dago, eskuak aldaketan, niri goitik behera begiratzen, motoa eta ni makina lerdan bakarra bagina bezala. Haren gorputz hizkera, begietako distira, irribarre burlatia... Dena konbinaturik, *femme* baten desafio erotikoa. Millik aski zuen bekain bakar bat jasoztea mekanismoa martxa eutsi ezinezkoan jartzeko.

Hitzik esan gabe, larruzko zamarra kendu, eta eskaini nion. Bietako batek ere ez zuen presarik. Behin dantza hau hasirik, ez zegoen premiatzeko arrazoirik, eta bai arrazoi guztiak goxoki mantso mugitzeko. Nire zamarra janzten lagundu nion.

Uste dut hark zangoa moto gainetik pasatu eta nire atzean jarri zen unean maitemindu nintzela. Bi emakume moto batean erlazionatzen diren modua beren sexu harremaneko zati da; eta oso-oso ona zen motoan.

Ez nintzen ohartu, eskuaz agur egin zuen arte, orro batean alde egiten genuen bitartean, haren lagun guztiak guri begira zeudela jatetxeko leihotik, hari irribarre ezti eta sekretu horiek egiten.

Une hartatik aurrera, ni haren mari-mutila nintzen, eta hura nire *femmea*. Denek zekiten. Baita geuk ere. Elkartu eta txinpartak atera ziren. Neska gogorak ginen biak, eta elkarrekin garaiezinak sentitzen ginen.

Ez zen harropuzkeria. Bat egiten genuen ausardian. Mari-mutil handi batek eta puta handi batek munduari aurre egin behar diote bizirauteko. Esan eta egin egiten genuen, eta hori elkarri es-timatzen. Egunsentian dantza mantsoan, sexuan sutsu, bat eginik bihurgune batean motoarekin bezala... Gero eta hobea zen.

•••

Goiz batez, Milli ez zen tabernara etorri lan egin ondoren, ohi zuen bezala. Ezta Darlene edo haren lagunak ere. Denak

kezkaturik geunden. Azkenerako Darlene auto batean iritsi zen. Atzeko eserlekuan Millie zegoen odoletan. Aurpegia txikitua zuen. Sartu nintzen, eta haren burua altzoan hartu. Albaitari ostia batengana eraman behar izan genuen besoa igeltsuan biltzeko. Beldur ginen larrialdietako langileek poliziei deituko zietela. Lanetik kanpo zegoen polizia batek zanpatu zuen.

Millik denbora luze-luzea behar izan zuen adorea berreskuratzeko. Aldatu egin zen. Zanpatze bakoitzak aldatzen zaitu.

Eguneko txandako lan bat hartu nuen, plastikozko hodiien fabrika batean. Milli aldi baterako langile zebilen koadernatzeko lantegi batean. Dena ongi zegoen, besterik gabe diferentea zen. Orduan lana bukatu zitzaidan, eta Millik esan zidan, alegia deus ez, pentsatzen ari zela berriz ere klubetan dantzatzen hastea, aurrera atera gintezen.

—Ez, ez, ez, ez, ez!

Uste nuen nire jarrera oso argi utzi nuela. Baina Milliren erantzuna ikusita, nola etorri zen nire bila, sukaldeko mahaia inguratuz, atzera egin nuen.

Harraskaren kontra jarri ninduen, eta aurpegia pare-parean paratu zidan.

—Inork —amorrarioz listuak boteaz—, inork ez dit esanen nola bizi nire bizia, ez zuk eta ez inork. Ulertzen?

Onartu nuen bazuela arrazoi pixka bat.

—Eta noiz bihurtu zara bat-batean hain moralki-zuzena? —sukaldean gora eta behera ibiliz.

—Zakurraren ipurdira —oihukatu nion.

Bazekien ez zela egia.

—Ni mintzeko esan duzu bakarrik —aitortu zuen banuela arrazoi pixka bat.

—Kontua da hain nazkagarriki arriskugarria dela karriketara itzultzea —erantzun nuen—. Ez al zara oroitzen zergatik utzi zenuen?

Azkeneko hori oker handia izan zen. Ohartu nintzen hartu zuenean hurbilen zuen platera eta hegaka jaurti zidanean gelako beste puntatik. Saihestu nuen.

—Paternalista, ama jolea, putakumea —oihukatu zidan—. Ez al duzu uste zuk baino hobeki dakidala karrikan aritzea zer den, sasikumea?

Une batez isilik gelditu ginen. Platerak garbitzea erabaki nuen. Milli sukaldeko gainaren kontra bermatu zen, besoak bu-larren parean gurutzaturik, niri begira.

—Kontua da ezin dudala pentsatu ere egin norbaitek, edo-zeinek, zuri min ematea —ahal bezain apal esan nuen.

Millik trapu bat hartu, eta platerak lehortzen hasi zen. Sei-nale ona.

—Nola uste duzu sentitzen naizela —galdetu zidan—, tabernan gorila zabiltzanean eta borroka bat izaten denean? —Berriz ere sutu zen—. Jainkoaren izenean, zer alde ostia dago zu gorila eta ni harreragile izatearen artean?

—Dantzaria —argitu nuen—. Badakizu kezkatu-rik egonen naizela zure txandatik berandutzen zaren minutu alu bakoi-tzean.

—Ongi ba, izorra zaitez. Zure arazoa da, maitea, ez nirea.

Berriz begiratu zidan, eta begirada jaitsi zuen. Uste nuen hori esateaz damutu izanen zela beharbada.

—Barkatu —esan zidan—. Kontua da ez dudala jasaten norbait moral kontuekin etortzea.

—Kaka zaharra! —orain ni ari nintzen garrasika—. Ezagu-tu ninduzunetik zain egon zara, ea akats ostia bat egiten nuen, ea zerbait makurra esaten nuen zu puta izateaz.

—Puta ohia —esan zuen sarkasmoz.

—Ez da txantxa. Inoiz ez dut kaka zaharrik bota horretaz. Badakizu. Baina haserre bat dugun aldiro zain gelditzen zara, esperatuz nahikoa haserretuko nauzula hanka sar dezadan. Eta orduan uzten ahalko nauzu.

Millik irribarre egin zuen, lehenbiziko aldiz, etxeratu eta kaleratu nindutela esan nionetik.

—Zer da hain irrigarria? —nik, mesfidati.

—Gustuko zaitut —hark, leunki.

Harraskara itzuli, eta ezezko keinua egin nuen, ikus zezan amorratua nengoela. Buelta emanarazi zidan. Begirada egiaz go-xoa zuen. Ezpainetan musu eman zidan. Nik hari ere bai. Itzuli nintzen, platerak garbitzez bukatzeko.

Berriz bueltarazi ninduen.

—Alokairua pagatu behar dugu. Tarte baterako da baka-rrik. Ez zait zuri baino gehiago gustatzen.

Irri egin nuen.

—Kaka zaharra!

Bekain bat goratu zuen, eztabaidan segitzera desafiatuz.

—Karriketan aritzearen alderdi batzuk asko gustatzen zaizkizu —esan nion—. Badakit.

Millik harrিতua zirudien.

—Egiaz dakizu?

Baietz, nik. Besoetz inguratu ninduen.

—Ezin hobeki konpontzen gara. —Eskuak gora eta behera pasatu zizkidan bizkarrean—. Gogoan dituzu espioien film zahar horiek, non joko-karta bat bi puskatan zatitzen duten? Gero, espioiak elkartzen direnean, bi puskak elkartzen dituzte. Halakoak dira putak eta mari-mutil handiak. Elkarri egokitzen gara, ados?

Berriz eman zidan musu. Musu emaile ona zen. Ile atza-parkada bat hartu zidan, nire burua erakarri, eta begietara zuzen begiratu zidan berriz hitz egin bitarte.

—Zuek zarete munduko emakume bakarrak kasik nik bezalako mina sentitzen dutenak, bazenekien?

Banekien.

—Eta beste gauza bat —nire eztarrian musu emanez—. Munduko maitale eztiak zarete.

Botoiak askatu zizkidan hitz egin bitartean. Berriketa bukatua zen. Elkarriketa hasi berria. Elektrizitatea trukatu genuen gorputzekin.

Gero, ohatzean, besotan hartu nuen, eta gure haserreaz oroitu nintzen ametsa izan balitz bezala.

—Noiz hasiko zara? —nik.

Gorputza tenkatu zitzaion.

—Bihar deituko dut Darlene.

Aste guztia eman nuen ero moduan fabriketan lan eskaerak aurkezten. Astea bukatu baino lehen lanposturik lortzerik banu...

Ostegunean, afaritan, Millik esan zidan, inportantziarik eman gabe bezala, hurrengo gauean hasiko zela Darlenerekin lanean, Pink Pussy Katen. Sardexka haragi pastelean sartu nuen.

—Ez hasi —ohartarazi zidan.

—Ez dut deus ere esan.

Isilik afaldu genuen. Ostiralean tabernara joan nintzen, arratsean, Milli oraindik lotan zela. Eramateko jana prestatu nion, eta bihotz gorri txikiak paratu nizkion paper marroiko poltsan.

Tabernan denek zekiten triste nengoela. Mari-mutilek bizkarrekoak ematen zizkidaten, eta animatzeko esaten. *Femmeek*, besterik gabe, nire trajeko papar-hegalak leundu, eta begietara begirutzen zidaten une batez; mezu konplexuagoa zen. Orduan Justinek gelako beste aldetik deitu zidan hatzarekin keinu egin ez. Gorbatazik azkar heldu zidan, eta ez ninduen askatu.

—Utzazu —agindu zidan.

—Zer?

—Esan dut —gorbatari estuago heldu zion—, uzteko drama hau. Ez du halakorik behar, maitea. Eta hura galdu nahi baduzu, hauxe da bidea.

Harri eta zur gelditu nintzen.

—Ez dut ulertzen —esan nuen egiaz.

—Heldu bihur zaitez —bukatu zuen, eta joaten utzi zidan.

Eguzkia atera zenerako, Milli ikusteko gogotan nengoen. Iritsi zenean, klubeko beste dantzariekin batera, elkarrekin alde egiteko irrikatan nengoen. Baina denbora luzea eman zuten elkarrekin komunean.

Azkeneko, emakumeak banan-banan atera ziren, beren taldeko kamaraderia uzteko zalantzati, eta gurekin bat egin zuten, bakoitza batekin.

Millik burua nire bizkarrean bermatu zuen etxerako bide osoan, motoan. Beldur nintzen lo egon eta bihurgune batean eroriko ote zen.

Behin etxera ailegaturik, burbuila bainu bat prestatu nion. Logelara joan nintzen, prest zegoela esateko, baina ordurako lo zegoen. Ni ez nengoen nekaturik.

Arratsaldeko seiak aldera iratzarri nuen, afal zezan. Haren janari gustukoena egin nuen, baina berak sardexkarekin pixka bat ukitu baino ez zuen egin.

—Ongi al zaude? —galdetu nion.

—Bai, jakina —erantzun zuen, nik eginen nukeen bezala.

—Tabernara etorriko zara lana bukatutakoan?

Isilik egon zen une batez.

—Elkartuko gara etxean? Oso nekaturik nago.

Zakar jarri nintzen, beldurturik nengoelako.

—Zer du txarra ba nirekin tabernan elkartzeak?

—Hitz eginen dugu honetaz beste une batean? —hark.

—Bai, jakina —nik.

Gau hartan, eramateko jana prestatu nion, zorroan bihotz txiki gorriak jarrita. Hartu eta irribarre egin zuen; zorroari, ez niri.

Arraroa sentitu nintzen hurrengo goizean, beste emakumeak lantokira etorri zirenean, beren mari-mutilekin elkartzera. Zenbat eta gehiagok galdetu Milli non zegoen, orduan eta gehiago nengoen defentsiban eta haserre.

Millik eta biek horren gaineko haserrea izan genuen goizean.

Bururatu al zaizu beharbada deseroso egon naitekeela tabernan? —oihukatu zidan Millik.

Inoiz ez zitzaidan bururatu.

—Zergatik? galdetu nuen zur eta lur.

—Gurekiko dagoen jarreragatik.

—Zertaz ari zara? Tabernako emakume asko dira putak.

—Ohartu nintzen oihuka ari nintzela, eta gelditzea desiratu nuen.

—Herriko neskak dira, eta bezeroekin ibiltzen dira alokairua pagatzeko. Egiten dutenaz lotsatzen dira. Ez dabilta karriketan gainerakoak ibiltzen garen bezala. Gu desberdinak gara.

Ez nuen sekula horretaz pentsatu. Mezua nireganatzen ari nintzen.

—Ulertzen, maitea? Zure jendea da, ez nirea —haren doinu izoztuak ikaratu egin ninduen—. Nirekin dantzan ari diren emakumeak dira nire jendea. Haiek zaintzen didate bizkarra.

Milli beti izan zen puten puta bat. Larruzko zamarra hartu, eta urruti joan nintzen motoan, hiriko mugetatik kanpora, eta errepidetik atera, eta pentsatzera eseri nintzen.

Handik aurrera aste osoan super atseginak izan ginen elkarrekin, apartamentuan. Ez nuen lortu Millik erreakzionatzea. Ez zuen nahi.

—Ez dakit —esan nion Edwini—. Ohitua nengoen ni izatera bere baitan ixten zena.

—Eman denbora —Edek—. Biek behar duzue denbora.

Igande goizean kasik lo nengoen Milli etorri zenean. Komunean egon zen luze, zerbait gaizki zihoala ohartu nintzen nerako. Aurpegia apartatu zidan komuneko atarira hurbildu nintzenean. Lauzazko zoruan eseri nintzen.

—Ongi zaude? —galdegin nion.

—Bai, maitea. Zoaz lotara.

Minutu batzuk iraganda lortu nuen niri begiratzea. Aurpegia handitua zuen alde batean. Odol xirripa bat ateratzen zen haren ezpain lehertutik. Eskuoihal txiki bat hartu, eta txorrotatik ur hotza ateratzen utzi nuen. Milliren parean gelditu nintzen, jakin arte ea aurpegia ukitzen ahal nion. Besoekin estu inguratu zidan gerria. Belauniko jarri, eta besarkatu nuen. Orduan niregandik bereizi, zutitu, eta bainuontzia betetzen hasi zen.

Mezua hartu nuen. Ohatzera joan nintzen. Iratzarririk nengoen erantzi eta etzan zenean, baina ez nuen erakutsi. Bazekien. Nik uste ni harritu nintzela hura baino gehiago negarrez hasi nintzenean. Nire negarrari aurre egiteko gauza zen, ni haren malkoei aurre egiteko gauza nintzen bezala. Sukaldera joan, eta kafea egin zuen. Ni ohatzean gelditu nintzen.

Kafe katilu bat ekarri zuen partekatzeko, eta ohatzean eseri zen. Espero baino doinu atseginagoz esan zuen:

—Oroitzen nola zanpatu ninduten hain gogor eta klubetan aritzeari utzi nion? Oroitzen, elkar ezagutu ondoan?

—Bai, jakina —zer esan nahiko zuen galdetu nion neure buruari.

—Oroitzen nola besarkatu ninduzun eta esan babestuko ninduzula, ez zeniola inori utziko niri minik egiten?

Min keinua egin nuen. Millik eskua bizkarrean paratu zidan, adore emateko.

—Esan zenidana ongi zegoen, maitea. Horixe da denek aditu nahi dutena zauritu dituztenean. Kontua da zuk sinetsi egin zenuela. Ezin nauzu babestu, laztana. Ezin zaitut babestu. Uste dut azkenaldian horri aurre egiteko zailtasuna duzula.

Ez nuen ukatu. Ez nuen deus ere esan. Handik tarte batera lo gelditu nintzen. Lanera joateko jaiki nintzenean, Milli lo zegoen sofan. Tapaki batez estali nuen. Hain maite nuen. Esan zidana egia zen. Milli babestu nahi nuen, eta banekien ezin nuela. Neronen burua ere ez nezakeen sobera ongi defendatu. Ausardia galtzen ari nintzen, baita lanean ere.

Bezperan, ixteko orduaren ondoren, Sal gaztea zealdoka sartu zen barnera, bere odolez hain estalia non kasik ez bai-kenuen ezagutu. Marine baten biktima izan zen. Marineak gay *femme* gazteak lotzen zituen faroletara, eta bizar-xaflez ebakiak egiten zizkien: ehunka mozqueta txiki. Gero taberna pareko jate-

txean esertzen zen, norbait bera geldiarazten ausartuko ote zen ikustera.

Denek genekien inguruetan zebilela, baina gutako inork ez zuen espero tabernan sartzea jendez gainezka zegoen larunbat batean. Ez naiz ongi oroitzen zer gertatu zen lehenik. Bezeroentzako telefonoak jo zuen. Justinek oihukatu zuen niretzat zela, eta esan zidan presatzeko, Milli zela. Hatzetz tapatu nuen belarri bat, disko-makinaren zalapartaren gainetik hobeki aditzeko, eta orduantxe marinea ikusi nuen, jendeketaren artean zuzenean niregana heldu zela. Hatz erakuslez seinalatu ninduen, eta marmar egin zuen.

—Lasai —baretu nuen.

Bookerrek ketchup botila bat hautsi zuen gizonaren buruan. Gero esan zuen larriune hartan eskura zuen gauza bakarra zela. Lan ona egin zuen. Nik uste denek arindua hartu zutela marinea konorterik gabe ikustean, ketchupez estalia. Hurrengo asteburuan aditu genuen marinea hilik topatu zutela. Inork ez zekien nork egin zuen.

Goiz hartan etxeratu nintzenean eszena osoa antzertu nion Milliri. Egiazki, hari maitasuna egiteko gogo bizia nuen. Aste osoan izan nuen. Baina lotara joan ginen oraindik solasean ari ginela, Booker nolako heroia izan zen esanez.

Hurrengo ostiralean izan genuen haserre latz hura. Ez naiz oroitzen ere nor hasi zen. Egia esan, ez du inporta. Kontua da izan zela hain mingarriak diren haserre horietako bat, bihotza larrutzen dizutenetakoa.

Motoan ibiltzera joan nintzen. Baina ezin izan nuen abiarazi. Haserre, etxe-sailari buelta eman nion oinez. Itzuli nintzenean, Milli joana zen. Denbora luzea eman nuen apartamentuan eserita, iluntasunean. Oso triste nengoen. Burua ez nuen batere argi, oroitzen naiz.

Orduan ohartu nintzen nola ari ginen galbideratzen. Batean sentitu nuen barkamena eskatu behar niola, azalpenak eman, edo betiko galduko nuela. Beraz Pink Pussy Katera joan nintzen. Ez dakit zer nuen buruan.

Klubaren kanpoko aldean ibili nintzen gora eta behera, zigarreta bat erretzen. Ezin begira zenezakeen taberna barnera, leiho-ateak tapaturik baitzeuden zilarrezko paper distiratsuz.

Atea ireki bezain laster Darlenek ikusi ninduen. Besoa marinel baten lepo inguruan zuen. Milli zegoen alderantz begiratu zuen, kaiola batean ari baitzen dantzan, justu barraren gaineko aldean. Millik ere ikusi ninduen.

Beharbada usteko nuen Millik janzkiren bat erabiliko zuela dantzarako. Ez zuen inporta, kontua da ohartu nintzela ez nuela inoiz horretaz pentsatu. Barneratu nintzen haren lantokia zen munduko irudietan, soinueta eta usainetan. Dantzatzen ari zen musika aditu nuen: *I never loved a man the way that I, I loved you.*

Hainbeste taberna zulo zikinetan izana nintzen, non bai baitzen zerbaite ezaguna eta ohikoa han. Berehala ikusi nuen nor ari zen lanean aretoan. Emakumeak, bistan da. Baina gehiago ohartzen zinen haien jarreragatik sexuarengatik baino. Ibili eta buelta, hura lan bat zen. Ongi pagatua zen, beren burua babesteko gauza ziren emakumeentzat. Eta Milli bere buruaz arduratzeko gauza zen.

Baina banekien akats larria egin nuela ataritik sartzearekin: egin nezakeen azkeneko akatsa. Orduantxe ohartu nintzen beranduegi zela guretzat.

Apartamentura joan nintzen, hura itxoitera.

Milli handik ordu batzuetara iritsi zen etxera. Apartamentuko atea irekia utzi zuen, haserre biziaren nireganaino etorri zenean. Heldu zena igarriko nuen, zeren eskuak poltsikoetan sakon sartu bainituen. Zaplazteko gogorra eman zidan.

«Sentitzen dut» da esaterik izan nuen gutzia. Egi-egiaz esaten nuen.

—Seguru baietz —Millik.

Ahotsa krudela eta hotza zuen, bera ere mindurik zegoelako.

—Ikusi al duzu nahi zenuen gutzia?

—Sentitzen dut, maitea —saiatu nintzen azaltzen—. Ez nintzen hara joan zuri min emateko. Berriz hasi nahi nuen. Akatsa izan zen.

—Zaude seguru baietz —hark, baina ahots apalagoz. Burlati begiratu zidan—. Zer espero zenuen? —Orduan haserre egoteari utzi zion une batez—. Nola sentitu zinen sartu zinean, Jess? Min eman zizun?

—Bitxia da —nik—. Nolabait zuregandik hurbilago sentitu nintzen. Eta pentsatu nuen zein ausartak zaretzen zuek denak.

—Ausartak? —Millik begiak erdi itxi zituen.

—Bai. Ez dut uste behar bezalako adorerik izanen nuenik arroparik gabe borrokatzeko.

Milli zutik gelditu zen, eta hitzik esan gabe begiratu zidan. Gero gure logelara joan, eta arropak maleta batera jaurtitzen hasi zen. Ez nintzen mugitu nengoen lekutik. Itzuli zenean, alde guztietara begiratu zuen, zerbaiten bila ariko balitz bezala, baina banekien itzulinguruka ari zela.

—Bada zerbait esan dezakedanik? —galdetu nuen, erantzuna alde zurretik banekiela.

Milliren aurpegia goxatu zen, eta hurbildu zitzaidan.

—Sentitzen dut, maitea —esan nion, malkoak masailetan behera nituela.

Nire besoetara etorri zen azkeneko aldiz.

—Badakit akats handia egin dudala gaur, Milli. Sentitzen dut min eman izana.

Buruaz ezetz esan, eta aurpegia eskuetan hartu zidan.

—Akatsa izan da. Baina besterik ez. Nik ere zenbait akats eder egin ditut zurekin. Baina ez noa horregatik.

Maletaren eske joan zen, eta portzelanazko katutxoa atera zuen, hamabost urte lehenago etxetik alde egitean aldean hartu zuena, eta erdiko mahaian utzi zuen, nire ondoan. Niregana etorri, eta esku bat jarri zidan masailean.

—Kontua da ez dudala uste orain baino askoz desberdina-goa izanen denik, ez oraingoz behintzat —azaldu zuen—. Dena hautsi aurretik alde egin nahi dut.

Millik masaila laztandu zidan ezpaineekin, eta gero atari irekitik alde egin zuen. Joana zen.

Sofan eseri, eta negar egin nuen, ez bainekien zer besterik egin. Salto egin, eta lasterka joan nintzen eskaileretan behera, baina ordurako joana zen. Bestalde, ez nekien nola aldatu gauzak lehen bezalakoak izan zitezten.

Berriz eskaileretan gora joan nintzen, garagardo bat ireki, eta ohatze ertzean eseri nintzen. Orduan oroitu nintzen aurreko asteburuaz, Millik lanera deitu zidanean, bezeroen telefonora. Orduantxe oroitu nintzen: marinea niregana heldu zela ohartu nintzelarik Milli negarrez bezala ari zela zirudien, ahaztua nuen. Urduritasun guztiarekin, geroago ez nintzen gogoratu galdetzeaz zergatik deitu zuen. Orain edozer emanen nukeen jakiteagatik.

Telefonoak jo zuen. Lasterka joan nintzen hartzera. Edwin zen. Bazekien, jakina. Darlene zain egon zen behean, autoarekin, Millik bere gauzak bildu bitartean. Darlenek Edi eskatu zion niri esateko zenbat sentitzen zuen eta zenbat maite ninduen.

—Ongi zaude? —Edwinek.

—Uste dut ezetz —nik.

Isilune luzea izan zen.

—Bikote ederra egiten zenuten —Edek.

—Bai, ez da hala?

—Egiaz maite zintuen —oroitarazi zidan Edek—. Oroitzen nola biltzen zenuen jana Millirentzat, paperezko zorro marroi haietan, bihotz gorri txiki haiek paratuta?

—Nola dakizu hori? —nik—. Beste neskek irri egiten al zuten hartaz?

—Jainkoa, ez —Edwinek—. Jeloskor zeuden. Zaila jartzen zenigun beste mari-mutilei. Denek hasi behar izan genuen «maitasun gosariak» prestatzen. Nolanahi, agintzen didazu honako hau ez diozula Darleneri esanen?

Agindu nik.

—Millik Darleneri esan zion bere ustez bere bizi guztian behin edo bitan maitatu zutela, baina inork ez zuela zaindu zuk bezain ongi.

Sakon hartu nuen arnas.

—Aspaldi esan zuen?

—Ez —nondik nora nindoan ulertuz—, berriki.

—Ed, sufritzen ari naiz.

—Badakit —Edek, atsegin—. Ni ere berdintsu nabil. Gauzak zail daude oraintxe Darleneren eta nire artean.

—Zergatik da hain zaila? —nahasia sentitzen nintzen.

—Ez dakit —Edek, hasperen eginez—. Nik uste maitasuna inoiz ez dela erraza. Baina desberdina da mari-mutil baten eta puta baten artean—. Edek bere pentsamenduetan galdua zirudien—. Ez da itxaropen faltsurik izaten.

Isilune luzea izan zen. Biek arnas sakona hartu genuen.

—Nire motoa ez dabil.

—Zoaz lanera gaur gauean —aholkatu zidan Edwinek—.

Goizean zurekin elkartuko naiz, eta begirada bat emanen diogu.

—Ed —esan nuen nik—, oraingoan egiaz sartu dut hanka.

—Ez —adoretu ninduen—, helduago bihurtu behar duzu,
ez da besterik.

—Ez dakit gauza naizen —nik.

Lagunak irri.

—Ez duzu beste aukerarik.

11

Tabernara joateari utzi nion zenbait astez. Aditua nuen Millik hiria utzi zuela, baina ez nuen inor ikusteko gogorik. Bi lan lortu nituen, aldi baterakoak, nire Nortoneko konponketa handi batzuk pagatzeko eta okupaturik egoteko. Bizia hain hutsik sentitzen nuen Milli galdu ondoan.

Egunez, esne kutzak paketatzen nituen Niagara kaleko esnetegian.

Gaeuz, plastikozko hodian fabrika batean aritzen nintzen South Buffalon. Hogeita bost liberako zaku gaitzak, hautsez beateak, husten genituen estrusio makinetan, eta plastikozko hodiak ateratzen ziren beste aldetik. Han hasi nintzen egunean, sake-lako erlojua gelditu egin zen txanda hasi eta hamar minutura: hautsak trabatu zuen. Hauts hark goitik behera estali ninduen.

Bi aste iraganda, neka-neka eginda nengoen txanda bi-koitza egiteagatik. Nahikoa eta sobera aurreztu nuen motoa konpontzeko, eta ez zitzaidan bururatzen beste deus behar neza-keenik. Beraz, ostiral gauean ukoa aurkeztu nuen hodi fabrikan.

Larunbat goizean etxeratu nintzenean, Ed topatu nuen portxean. Jantziak zituen galtza dotoreak eta atorra zuri almi-doiztatua errubizko mahuka-bikiekin. Begiei mina emateko moduko ikuskizuna zen. Hura begira-begira gelditu zitzaidan, mamu bat ikusi izan balu bezala.

—Zer da goitik behera duzun kaka berde hori? —Hauts es-talduaren azpian begiak bakarrik ikusten zitzaizkidan—. Hobe duzu garbitzea —esan zidan—. Ez al dakizu? Hileta elizkizuna dugu gaur. Ro mari-mutil zaharra hil egin da.

Ro mari-mutila asko maite zuten mari-mutil zaharrek. Zaharren zaharra zen. Chevrolet fabrikan aritua zen, gogoan dudan beste inor baino luzeago. Nekez irudika nezakeen mari-mutil zaharrenen min sakona. Luze maitatu izan zuten elkar eta gauza asko konpartitu zituzten.

Ro eta bere maitalea kasik inoiz ez ziren joaten tabernetara. Behin bakarrik ikusi nituen Niagara Fallsen, Tifka'sen. Baina ezagutu edo ez, inportantea zen niretzat hiletara joatea. Mari-mutil guztiak han izanen ziren. Errespetua agertzeko modua zen, gure komunitatean izandako rolangatik.

Dutxa hartu nuen Edek kafea egin bitartean. Lehortzen ari nintzela, zerbait oihukatu zuen ongi jantzita joateaz.

—Zer? —nik, komunetik.

—Ongi jantzita joatea espero dutela —Edek oihuka.

—Bai, jakina.

—Ez —berak, oihu eginez—. Badakizu, neska gisa.

Bainu-bata jantzi eta sukaldera joan nintzen, ongi aditu nuela segurtatzeko.

—Nork esan du?

—Mari-mutil zaharrek —Edek, sorbaldak goratuta—. Baina ez dut soineko bat jarriko inorengatik ere!

Esan zuen beilatokira joan behar genuela hilotza ikustera, ez zeruko atea jo eta sartzera.

Ez nezakeen soineko bat jantzi. Pentsatze hutsarekin hotzikara sentitzen nuen. Bestalde, alferrik zen: ez neukan soinekorik. Baina mari-mutil zaharrek agindu bazuten, arrazoiren bat izanen zen.

—Laster, mugi eta jantzi —premiatu ninduen Edek—. Honezkeroko denak han izanen dira.

Beranduegi zen norbaiti aholku eske deitzeko. Traje urdina jarri nuen, atorra zuri bat, eta gorbata beltza.

Ed autoz joan zen beilatokiraino. Motorrean segitu nion. Behin iritsitakoan, aparkalekuan gelditu nintzen motoan eserita. Errespetua agertu nahi nion Ro mari-mutilari, baina desiratzen nuen sartu behar ez izatea.

—Zertan ari zara, Jess? —Edek, pazientzia galdurik.

—Ez dakit —nik. Izaturik nengo.

Sartu ginenean, une batzuk behar izan genituen gela ego-kia topatzeko. Ohartu ginen aurkitutakoan. Hilkutxa irekiaren

inguruan, hantxe zeuden Ro mari-mutilaren betiko lagunak. Denak soinekoekin. Horrek erakusten zuen zenbat maite zuten.

Emazte-gizon sendoak ziren, bizkar zabalekoak, beren emakumetasuna zeramatenak lanak laztutako eskuetan. Txanxetan bizkarrekoa eman, eta gelako beste puntara bidaltzen ahal zintuzten. Besaurreak eta bizepsak tatuajez estaliak zituzten. Emakume mari-mutil indartsu hauek eroso sentitzen ziren laneko galtzekin. Haien espirituak orro egiten zioten biziari traje gurutzatu bat janzten zutenean.

Soinekoa janzteia umiliazio jasanezina zen haientzat. Soinekoetako asko zaharrak ziren, beste garai batekoak, oraindik ere tarteka atzera egitea beharrezko zen garaietakoa. Soinekoak ziren zaharkituak, zuriak, apainduradunak, parpailadunak, eskote handikoak: batere erakargarriak ez. Zapatak, denak zaharrak edo maileguan hartuak: txarolezkoak, mokasinak, sandaliak. Janzkera horrek beren espiritua beheratzen zuen, beren izaera irriarri uzten. Mozorro mingarri horrekin bazen ere, beharturik zeuden hain maite zuten lagunari azkeneko agurra esatera.

Roren *femmeak*, Alicek, haietako bakoitza agurtu zuen. Ikus zenezakeen zenbat irrikatzen zuen gorputz indartsu haien kontra bermatzea, beso sendo haien indar atsegina sentitzea. Ordea, errespetuz uko egin zion denek konpartitzen zuten mina aitortzeari. Beretzat gorde zuen. Ro —Alice kasik hogeita hamar urtez maitatutako mari-mutila— Aliceren ondoko hilkutxan zetzan, soineko arrosa batekin, lore arrosa eta zurien sorta bati eusten ziola.

Zer esku krudelek kontrolatzen zuten eszena hau? Haiek gu, Ed eta biak, ikustearekin batera ikusi nituen. Roren familia zen: aita, ama eta anaiak. Sartu bezain laster ikusi gintuzten eta beilatokiko zuzendariari belarrira xuxurlatu zioten. Istantean, zuzendariak iragarri zuen beilatokia itxi behar zutela eta alde egin behar genuela. Halaxe.

Ed eta biak inguruko jatetxe batera joan ginen kafea hartzera. Hantxe geunden, mari-mutil zaharrak gure ondotik pasatuz ilaran sartu zirenean. Denek topatu zuten arropak aldatzeko leku bat, baita auto baten atzeko eserlekuan makurtuta ibili behar izan bazuten ere. Ikusi gintuztenean, denak jatetxeko beste puntara joan ziren.

Jan nire kontra oldartu zen begirada hiltzailez, baina beste emakumeek eutsi egin zioten. Jan mari-mutila: aholku emateko nahi nuen mari-mutil zaharra. Jan mari-mutila: nire laguna.

Jan ongi portatu zen nirekin beti, baita Ednarekin dantzan ikusi ondotik ere. Orain gorrotatzen ninduen.

Geroxeago Alice iritsi zen, alde banatan mari-mutil batek laguntzen ziola.

Ed eta biok arras bazterturik geunden. Alde egin nahi nuen. Mingarriegia zen. Geroago Alice etorri zen guregana, mezulari gisa. Gaizki sentitu nintzen diplomazialari aritu behar izateagatik, bere mina hain jasangaitza zen une hartan, baina banekien mari-mutilak haserretuegi zeudela guri hitz egiteko. Mahaira hurbiltzen zela zutitu egin nintzen. Eskua hartu nion; masailean musu eman zidan.

—Mari-mutil zaharrak oso haserre daude zuek biekin —azaldu zigun atsegin—. Batzuei iruditzen zaie lehertu egin duzuela. Begira, uste dute haiek gauza izan baldin badira halako sakrifizioa egiteko, Rori agur esateko, gazteek ere egiten ahal zenutela. Ez da zuen errua, berez. Baina hobe duzue denbora batean ez nabarmentzea, ulertzen?

Aliceren herstura hain agerikoa zen, hura besarkatze-ko irrikatan nengoen, baina ez zidakeen utziko. Ulertzen nuen. Erraza zen niretzat indartsu sentitzea, nire baitatik ematea, nintzen bezala jantzita. Jatetxeko beste muturretik begira genituen mari-mutilentzat, mingarria eta gogorra izanen zen. Alicek masailean musu eman zidan arinki.

—Pasatuko da, ikusiko duzue —xuxurlatu zuen.

Arrazoi izatea espero nuen. Erabaki nuen Aliceren aholkuari jarraitu behar niola, eta ez nintzen nabarmendu astebetetz edo bi astez, harik eta iruditu zitzaidan arte berriz ere tabernan ager nintekeela. Baina deserriko aste horiek iragan ziren jaso gabe dei bakar bat ere, adieraziko zuena izotza urtu zela.

Goizak gero eta hotzagoak ziren. Udazkena nabaritzen zen. Ez zegoen lanpostu askorik. Aldi baterako lanen enpresak bidali ninduen Four Cornersko kontserba fabrikara. Joan-etorria bi ordu ziren bakoitza, pagatu gabeak.

Enpresako autobusera igo nintzen goizeko 4:45ean. Hotz eta heze zegoen. Baten batek whisky botila bat pasatu zuen jen-

dearen artean. Botila hartu, eta edan nuen, leihotik begiratu bitartean.

—E —Jan mari-mutilaren purrustada aditu nuen—, parte-katuko duzu edo zer?

Nire aurreko eserlekuan belauniko jarria zegoen. Arnasari eutsi nion. Niregana hurbildu eta zamarretik hartu zidan.

—Ulertu duzu jada? —galdegin zuen, aurpegia emozio al-dakorrekin bihurritua.

Baietz, nik.

—Bai, ederki ulertu dut, nik uste. Ez nekien zer egin. Sentitzen dut. Asko sentitzen dut. Dena izorratu nuen eta Rori agur esatea galarazi nizuen.

Janek nire zamarra askatu, eta larrua leundu zuen.

—Ba, ez zen zure errua —esan zuen—. Biharamunean, ehorzketan, familiak behartu gintuen hobitik ehun yardara ego-tera. Hori ere ez zen zure errua izan.

Hurbildu nintzaion.

—Begira, Jan —isilka—, dena sentitzen dut, ulertzen zer esan nahi dudan?

Biek genekien solasa eraman nuela Janek Ednarekin dan-tzan ikusi ninduen gaura.

—Ez zen izan zuk uste bezala, egiaz.

Janek leihotik kanpora begiratu zuen, iratzarririk ametsetan balitz bezala. Itxoin nuen. Janek irribarre egin, eta eskua luzatu zuen whisky botilara.

—Ongi dago —trago bat hartu eta hotzikara izan zuen—. Ez da deus izan. Noizbait aritu al zara kontserba fabrika batean?

Ezetz egin nuen buruaz. Irribarre egin, eta masailean kol-petxoak eman zizkidan gogor samar.

—Erakutsiko dizut nolakoa den.

Hitz atsegin haiekin, berriz ere ongietorria eman zidan ezagutu nuen familia bakarrera.

12

Oraindik ere oroitzen naiz kontserba fabrikan sartu eta Theresa ikusi nuen unea. Hantxe zegoen nire parean. Makina batean lanean ari zen, sagarrei bihotza kentzen.

Saiatu nintzen haren ikuspegi hobea izaten, nire golkorako galdeginez zer koloretakoa ote zuen ilea paper zuriko sarearen azpian.

—Bazatoz ala ez? —esan zidan arduradunak. Atzean gelditu nintzen istant batez. Theresaren irribarreak adierazi zidan jadanik bazekiela nire arreta osoa zeukala.

Baita arduradunaren bulegoan inprimakiak betetzen ari ginenean ere, txunditua eta zorabiatua nengoen. Theresak inoiz ez zion utzi ni hainbeste hunkitzeari. Arduraduna ohartu zen, baina ez bide zitzaion inportako, zeren lerroan Theresaren ondoan jarri baininduen.

Ikusi nuen nola emakume bakoitzak sagar bat paratzen zuen ardatz batean eta pedal bat zapaltzen zuen. Prozesuan, sagarrak biratu, zuritu, eta bihotza galtzen zuten. Hura dena erortzen zen nire ondoko uhal garraiatzaile batera. Nire ondotik igaro ondoan, uhala bi uhaletan zatitzen zen.

Arduradunak makil bat eman zidan. Tontoaren moduan begiratu nion. Esan zidan bihotzak eta azalak alde batera eramateko, eta sagarrak bestera.

—Hori da dena? —galdetu nuen.

Ufa egin, eta joan egin zen. Hala hasi zen nire sagar-jotzailearen ibilbide laburra. Banekien Theresa begira nuela; beraz, trebe planta eman nahi nuen, baina zaila zen, eginkizuna kon-tuan izanik.

—Zer egiten duzu? galdetu zidan.

Soingainak goratu nituen.

—Sagarrek ikuskatzen ari naiz: badakizu, fruituaren kalitate, zizare zuloak, eta bihotza eta azala kentzearen efizientzia. Burua atzeraka eraman, eta irribarre egin zuen.

—Hau da, sagar-astintzailea zara?

—Bai —nik, irriz—. Holako zerbait.

—E, ergela! —oihukatu zuen norbaitek uhal garraiatzailearen akabera aldean.

Tira ba, bezaz azal gutxi batzuk utzi nituen sagarren uhailean. A zer gauza!

Theresak irritxo egin, eta lanera itzuli zen. Nirekin jostatzen ari zen. Flirteatze hori zen biziko ustekabeko plazer horietako bat. Kasik hasi bezain agudo bukatu zen. Arduradunak jakinarazi zidan mugitu behar ninduela.

—Hobeki egin dezaket sagarrak jotzeko lana —nabarmendu nuen.

Fabrikako beste alde batera jarraitu nion. Han kontserbak eginak zeuden jada. Zalapartak ikaratzen ninduen. Arduradunak «Y» formako uhal garraiatzaile bat seinالاتu zuen, sabaiaren paraleloa zen. Ikusi nuen pertsona bat han goian, hodi ikaragarri handi batean zangalatrau, uhala bitan zatitzen zen tokitik hurbil. Segundo gutxiro, kutxa bat iristen zen uhal bakarretik. Hark alde batera edo bestera bideratzen zuen, txandaka. Hura ordeztu behar nuen.

Arduradunak erakutsi zidan zutoin bat heldulekuak zituena. Itxoin nuen goian zegoen gizona jaitsi zedin, baina hura hodi batetik bestera zintzilika pasatuz jaitsi zen, eskuak igurtzi, eta alde egin zuen. Argi zegoen bazeramala denbora lan horretan.

Espero nuen han goian zalaparta azpian uztea, baina bai garaierak bai zalapartak zorabiatu egin ninduten. Bazirudien lan honek eskatzen zituela sagar-astintzaile baten trebezia eta adimen guztia. Baina eginkizun zaila ez bazen ere, ez zen ez hasieran zirudien bezain erraza. Sagar konpotako lata pisutsuz beterik zeuden kutxak. Zitzu bizian etortzen zitzaizkidan, eta jo egin behar nituen bideratzeko. Kasik erori nintzen. Ikasi nuen kaxak bazter batetik jo behar nituela, ez aurrez aurre.

Neurria hartu nionean, ohartu nintzen behatoki apartan nengoela. Inoiz ez nuen goitik ikusi fabrika bateko bizia. Nola

zeuden antolaturik makinak, eginkizunen segida eta elkarrera-gina, langileen harat-honatak.

Ohartu nintzen istilu bat zegoela emakumeen komunaren ondoan: Jan mari-mutilak aurre egiten zien bi emakumeri eta gizon bati. Askotan parte hartu nuen halako liskarretan, baina sekula ez nituen ikusi kanpotik eta seguru nengoela. Janek eskuak aldaketan zituen eta ahoa mugitzen zuen, oihuka bezala. Haren gorputza ikusita, nabari nezakeen nola zegoen defentsiban eta lotsaturik.

Ez nukeen sekula adituko arduradunak behetik oihu egin izan balit. Mailukada bat eman zion eserita nengoen hodiari lotutako beste hodi bati. Dardarak ustekabeen harrapatu, eta hurrengo kutzak kasik gaina hartu zidan, eta erortzeko zorian utzi ninduen. Bere erlojua seinالاتu zuen. Bazkalordua izanen zen.

Janekin elkartu nintzen kafetegian. Atsekabeturik zegoen, komunean emakume batzuek esan zutelako uste zutela gizona zela. Esan zuten Jainkoak ez zituela emakumeak sortu gizonen irudia izateko.

—Orduan azaldu nire kasua —erantzun zien Janek.

Kontatu bitartean irri egin nuen, baina egiaz ez zen dibertigarria.

Femme polit hori kafetegian sartzen ikusi nuen, baina Jan haserre marmarikatzen ari zen, eta aditu nahi nion.

—Esan zuten uste zutela gizona nintzela nire tatuajeak ikusi zituztenean —Janek mahaia jo zuen—. Eta nik: «egiaz uste izan bazenute gizona nintzela, komunetik oihuka aterako zinenten.» Baietz, nik. Arrazoia zuen.

Emakume hura lagunekin eseri zen mahai batean. Zin eginen nuen niri begira zegoela. Janek bere sorbalda gaintetik bilatu zuen ea zeri begira ote nengoen.

—Menuan gustuko zerbait? —irriz.

Aulkian bihurritu nintzen.

—O, badakizu. Segur aski nirekin jostatzen ariko da.

—Bai, alafede.

Bazirudien bazekiela zertaz ari zen.

—Zer esan nahi duzu? —berehala nik.

—Aditu dut zure izena galdetu diola norbaiti.

—Adarra jotzen ari zara. Ez dizut sinesten.

Janek mindua zirudien.

—Ez, egiaz.

Itxaropena piztu zitzaidan. Eta berehala hondoratu.

—Bueno, segur aski ez du deus esan nahiko —pentsatu nuen.

Janek irribarre egin zuen, zerbait gehiago balego bezala.

—Tira, ezkongabe zauden galdegin du.

Aho zabalik gelditu nintzen. Ezin nintzen nire onera itzuli.

—Jainkoaren izenean, lasai —Janek, besoan kolpetxo ematen zidala.

—Jan, nola du izena?

—Theresa.

Haren izena dastatu nuen, behin eta berriz errepikatuz buru barnean. Hala egiten duzunean, seinale gauza handia gertatzen ari zaizula bihotzean.

Egunaren bukaeran, Theresa bilatu nuen fitxatzeko makinaren ondoan, baina ezkutaturik zegoen alde egiten ari ziren ehunka langileren artean eta hurrengo txandarako sartzen ari ziren beste ehunka langileren artean. Ez nuen asko hitz egin etxerako bidean. Leihotik kanpora begiratzen nuen. Janek, irri-txo batekin, ezezko keinua egin zuen.

Biharamunean, laneratzeko irrikatan nengoen. Jani eta biei agindu ziguten kamioiak deskargatzeko. Lan gogorra zen. Zutoin baten kontra nengoen, zigarreta bat erretzen, Theresa ondotik pasatu zenean komunerako bidean. Egia esan, komuna kontrako norabidean zegoen. Lotsatu nintzen izerdi patsetan nengoelako eta kamiseta zikin-zikina nuelako. Irribarre egin zuen Theresak.

—Gustatzen zaizkit mari-mutil izerditsuak —esan zidan, pentsamendua irakurriko balit bezala.

Aizu, kutxa horiek guztiak nire eskuetatik pasatu ziren, egun osoan, lumaz beterik baleude bezala.

Hurrengo astean ez nuen lo handirik egin. Salto batean ateratzen nintzen ohatzetik alarmak jo bezain laster, eta kon-tserba fabrikarako bide luzea egiten nuen antizipazio urdurian. Theresa bi aldiz gutxienez ikusten nuen txandan. Airearen gainean nenbilen.

Orduan, egun batez, Janek alde batera baztertu ninduen atsedenaldira baten ondoren.

—Berri txarrak ditut zuretzat, haurra.

Theresa kaleratu egin zuten. Zuzendari nagusiak bulego-
ra deitu omen zion, sei hilabetero egiten den berrikuspenerako.
Bularretatik heltzeko baliatu omen zuen egoera. Janen arabera,
Theresak ostikoa jo zion berna-hezurrean. Ongi egina. Kontua da
kanporatu egin zutela.

Euforiaren gailurretik amildu nintzen. Handik aurrera lan
bat besterik ez zen. Makurragoa, egia esan, halako gozamina
izan ondoren. Banekien unea zela aldi baterako lanen agentziari
beste toki bat eskatzeko.

•••

Hurrengo ostiral gauean, dutxatu, eta dotore jantzi nin-
tzen. Tabernara iritsitakoan, poztu nintzen hala egin izanaz.
Theresa ataritik sartu zen. Ez nuen espero sekula berriz ikustea.
Lagun batzuk konbentzitu zituen Buffalora eraman zezaten, nire
bila. Niretzat zorionez, aldi bakoitzean gayentzako taberna ba-
karra izaten zen.

Theresaren ilearen koloreak gogora ekartzen zizkidan
gaztaina baten distirak. Itxaronaldiak merezi izan zuen. Haren
begiek ez zuten ezkutatu zenbat pozten zen ni ikusteaz. Nik uste
ni besarkatzeko gogoia zuela, baina eutsi egin zion. Nik ere bai.
Eskaini zidan masailean musu eman nion.

Grant ikusi nuen disko-makinaren ondoan. Une bat geroa-
go *Stand By Your Man* aditu zen. Eskerrik asko, Grant. Thesari
dantza egiteko eskatu nion. Denbora hartu zuen nire atorraren
lepoa leuntzeko, eta gorbata egoki jartzeko, eta gero dantza pis-
tara eraman ninduen. Ederki mugitu ginen elkarrekin. Geroago
Megek esan zidan Ginger Rogers eta Fred Astaireren itxura ema-
ten genuela.

Dantzan aritu ginen denbora guztian, Theresak agerian
nuen lepo zatia laztandu zidan. Erotzen ari nintzen. Horixe
nahiko zuen. Banekien hura ere berotzen ari zela, baina oso-oso
kontuz ari nintzen. Batzuetan, pixka bat mugitzen zarenean,
kontu handiz, askoz ere gehiago lortzen duzu eginahaletan ibi-
lita baino.

Kantua bukatu, Theresa askatu nuen, baina hark bere-
gana erakarri ninduen.

—Ez nuen krudela izan nahi fabrikan. Zuk uste hala izan nintzela?

—Ez, ongi zegoen.

Irribarre egin zuen:

—Ez dut uste zuretzat oso atsegina izan zenik. Zirikatzen ari nintzen, zure arreta deitzeko. Gustuko zaitut.

Gorritu nintzen.

—Lehenago inor ez da nirekin flirteatzen ibili tabernetatik kanpo: esan nahi dut, egiazko munduan, entenditzen? Normala sentitu naiz.

Baietz egin zuen, egiaz ulertuko balu bezala.

Gure biziez hitz egin genuen tarte batean. Landa giroko neska zen, Appletonekoa. Itzulingururik gabe esan zidan: lagunei esan zien taberna honetara etortzeko, ni ikusteko.

Orduan norbaitek Theresari soingaina ukitu zion. Buffalora eraman zuten emakumeek alde egin behar zuten. Aurpegia eskuetan hartu zidan, eta ezpainetan musu eman. Behatz puntetaraino gorritu nintzen. Zutitu, eta nire gorritasunaz irri egin zuen, bere lanaz harro.

—Hurrengo larunbatean afaltzera gonbidatuko zaitut, nahi izanez gero —eskaini zidan.

—Konforme —nik, oraindik gorriturik.

Telefono zenbakia idatzi zidan koktel zapitto batean.

—Deitu —oihukatu zidan sorbalda gainetik.

—Horixe baietz —nik. Oraindik ere gorritua.

Pentsatuko zenuen Kentuckyko Derby irabazi nuela, ikusirik nola jende guztia etorri zitzaidan zoriontzera. Lorian nengoen. Nahi nuen bakarra zen gorritzeari uztea.

•••

Larunbat osoa behar izan nuen prest egoteko: jantzi egokiak aukeratu, bainua hartu, dutxatu, berriz dutxatu. Gero erabaki behar zen, esaterako: zer gorbata? Kolonia bai ala ez? Hain gauza goxoak kontu handia eskatzen zuen.

Nartzisoak eraman nizekion. Eskura eman nizkionean, begiak bete egin zitzaizkion.

Iruditu zitzaidan inork ez zuela tratatu norbait berezia baltz bezala. Nire baitan zin egin nuen beti sentiaraziko nuela hala.

—Minutu bat! —oihukatu zuen sukaldetik.

Poztu nintzen denbora izateaz egongelan kuxkuxean ibiltzeko eta Theresaren izaerari antzemateko. Gauza bat seguru esan nezakeen: basa lore idortuak asko gustatzen zitzaizkion.

—Prest —oihukatu zuen geroxeago—. Inporta zaizu sukaldetan afaltzea?

Ez nuen inoiz beste inon afaldu.

Xerra patata zapalduekin eta haragi saltsarekin egin zidan. Jainkoa, itxura aparta zuen. Ondoren halako pila beratz eta berde bat paratu zidan platerean.

—Zer da? —galdegin nuen ahal bezain atsegin.

—Espinakak —hark, begietara begiratuz.

Sardexkarekin ukitu nuen.

—Zer pasatzen da? —Theresak.

—Ez dut sekula barazkirik jaten, hori da dena.

Theresak laberako eskularrua kendu zuen. Aulki batean eseri zitzaidan ondoan, eta eskuak bere eskuetan hartu zizkidan.

—Sekula ez esan sekula ez —esan zidan—. Gazteegiak gara gure bizian zerbaiti atea ixteko.

Ohartu nintzen jadanik harekin maitemindua nengoela. Egia esan, ikusi nuen espinakak ez zeudela hain txarrak, gurin eta gatz pila botaz gero.

Afariaren ondoren lagundu nion sukaldea eta platerak garbitzera. Gero, harraskaren ondoan, elkarrengana hurbildu ginen. Lotsati sentitu nintzen. Onerako izan zen. Goxo, elkarri musu eman genion. Gure mihiek hizkuntza isil bat aurkitu zuten gure beharrak adierazteko. Behin hasita, ez genuen bukatu nahi. Hala hasi zen.

Handik hilabetera, garraio-ibilgailu bat alokatu, eta Buffalo apartamentu berri batera aldatu ginen. Theresak hitz egin zuen jabearekin. Kenmoren bizi zen; beraz, espero genuen ez ninduela inoiz ikusiko.

Behar bezalako altzariak eskuratu genituen. Esan nahi dut, Salbazio Armadakoak, baina behar bezalakoak. Gure ize-nak bihotz baten barnean brodatuak genituen eskuoihal batean, hozkailuko giderretik zintzilik genuen hartan. Crystal Beachen eginarazi genuen. Ausarta zen halakorik egitea. Baina gero ma-susta zukua gainera erori, eta platerak lehortzeko erabili genuen, ez baikinena gauza zaborretara botatzeko. Eta baziren ilenak leiho

koxkan, anbar koloreko edalontzietan, margaritak sukaldeko mahaian, beira landuko loreontzian, eta mendafina eta albaka portxean, loreontzi karratu batean.

Zinez gure etxea zen.

Oso agudo heldu nintzen. Ikasi nuen biziko kezka murizten fakturak garaiz pagatuz, ordainagiriei eta promesei eutsiz, jantziak garbituz azpiko arroparen falta izan aurretik, nik boteak utzitako gauzak jasoz. Eta inportanteena, *sentitzen dut* esaten ikasi nuen. Harreman hau funtsezkoegia zen, bazterretan hautsa pilatzen uzteko.

Hasi nintzen ohartzen zein zauritua nengoen emozionalki, zein kaltetua. Baina Theresak beti nabaritzen zuen noiz nengoen harria bezala gogortzeko zorian. Ikus zezakeen nire gorpuzkerari antzemanda, ataritik sartu ahala. Eguneroko irainei —lantokian, izkinako dendan, karrikan— buruzko kontakizunen bidez aditu zezakeen nola pilatzen zen. Halakoetan, istorioak kontatzen zizkidan ohatzean: fantasia zoragarriak, sentsualak, ukimenezkoak, non azaltzen baitzuen nola sentitzen den zure gorputza harean eguzkitan zaudenean eta itsasoko olatuek hondartza musukatzen dutenean, zure behatzetatik hurbil. Edo zurezko eskailera higatuetan gora zoazenean, gela polit eta eguzkitsu batera, maitalea zain duzula. Istorioak ziren erlaxazio terapia eta sexu fantasien nahasketa bat, ni lasaitzeko eta aldi berean pizteko. Biak lortzen zituzten. Theresak beti urtu zezakeen nire gogortasuna.

...

1968a zen. Iraultzaren izpiak ikusten ziren zerumugan. Milioika lagunek hartu zituzten karrikak, protestatzeko. Mundua aldaketa leherketa batean zegoen. Nonahi, salbu ni lanean ari nintzen fabriketan. Egunero, egunsentian, beti bezala fitxatzen genuen. Gauez bakarrik egiten genuen amets.

Kontua ez zen ez genekiela gerra odoltsu bat bazela. Fabriketan kasik ez zegoen soldadutzarako adinean zegoen mutilik. Lankide bat zenbait egunez etortzen ez zenean, pentsatzen genuen galdu izanen zuela senarra, semea edo anaia. Lantokira itzulitakoan zeuzkaten atsekabezko aurpegi zurbilek berresten ziguten hala izan zela.

Banekien bazela gerra bat. Ez nintzen tontoa. Afera zen ez nekiela nik zer deabru egin nezakeen.

Theresa idazkari ari zen unibertsitatean, eta horrek zabaldu zuen leiho bat, ahalbidetu zidana sentitzea aldaketaren urakanaren indarra. Etxera ekarri zituen eskuorriak, panfletoak eta argitalpen alternatiboak. Irakurri nuen botere beltzaz eta emakumeen askapenaz. Hasi nintzen ulertzen gerraren kontrako haserrea uste nuena baino askoz sakonagoa eta antolatuagoa zela.

—Unibertsitatean elkarretaratzeak eta protestak izaten dira kasik egunero —esan zidan—, ez bakarrik gerraren kontrakoak, baita unibertsitatea denei zabaltzearen aldekoak ere.

Theresak jakin zuenean egunkarietan ez nuela sekula deus irakurri komikiak baizik, harpidetu gintuen goizeko eta arratsaldeko egunkarietara. Egun batez *The Ladder*⁵ ale bat utzi zuen sofan. Aldizkari bat zen, Bilitisen Alabak izeneko talde bategen argitaratzen zuena. Ez nekien nor zen Bilitis. Ordura arte ez nuen sekula ikusi gu bezalako emakumeek inprimatutako deus.

—Non eskuratu duzu hau? —oihukatu nion.

Sukaldetik erantzun zidan.

—Postaz.

—Postaz eskuratu duzu gure helbidea jarrita? Aldizkaria bildurik zegoen? Eta eraikineko norbaitek ikusi badu?

Isilune luze baten ondoren, Theresa etorri zen, eskuko ispilu batekin, eta aurpegi parean jarri zidan.

—Uste zenuen sekretu bat zinela?

•••

Theresak endodontzia bat behar zuen, baina ezin zuen aparteko ordurik egin unibertsitatean. Beraz, aldi baterako lanen agenziak eskaini zidanean txanda hirukoitza egitea elektronikako fabrika batean, ez nuen aukera galdu. Theresak galdegin zuen ea fabrikan zuten larrialdiak zerikusirik izanen ote zuen gerrarekin. Nolanahi ere, dirua behar genuen, eta lanpostua hartu nuen.

5 AEB osoan banatutako lesbianen lehenengo argitalpena. Hilero argitaratu zuten 1956aren eta 1971en artean. Daughters of Bilitis (Bilitisen alabak) taldearen komunikazio tresna izan zen: AEBetako lesbianen lehenengo erakundea.

Ostegun arrats batean hasi nintzen. Mortala zen. Hirugarren txandaren bukaerarako, nekez sentitzen ahal nituen soldatzen ari nintzen hariak. Denbora guztian hatz erakuslea erretzen nuen burdina goriarekin.

Ostiral gauean etxeratu nintzenean, Theresa kanpoan zen. Ohar bat utzi nion, eta ohatzean erori, eta kordea galdu nuen. Iratzarri nintzenean, ondoan etzana nuen, nire zigarreta bat erretzen. Banekien zerbait gertatu zela. Ez zuen erretzen. Theresa gelatik atera, eta itzuli zen nire hatzerako pomadarekin eta tiritekin.

—Bazenekien King doktorea hil egin dutela? —galdetu zidan.

Zigarreta bat piztu, eta berriz etzan nintzen.

—Bai, horretaz zerbait aditu nuen ostegun gauean lanean. Zer egun da gaur, bidenabar?

—Larunbat arratsaldea —hark—. Istiluak izan dira nonahi. Eta Jess —hasperen eginez—, liskar larriak izan ziren tabernan atzo gauean.

Jelosia zitzada sentitu nuen.

—Ni gabe joan zinen?

Theresak ilea lisatu zidan.

—Granten urtebetetzea zen, oroitzen?

Kopetan kolpettoa eman nuen.

—Ostia, ahaztu zitzaidan. Zer moduz jaia?

Theresak beste zigarreta bat hartu zuen. Eskua harrapatu nion.

—Nahikoa da! Zer gertatzen da?

—Borroka handi bat izan zen atzo. Ukabil borroka bat —esan zuen.

Kopeta zimurtu nuen.

—Ongi zaude?

Theresak baietz.

—Poliziak? —nik.

Buruaz ezetz.

—Tira ba, zer pasatu zen?

Theresak airea hartu zuen sakon.

—Ostegun gauean, Armadak Granten familiari jakinarazi zion anaia hil egin zela. Jaira iritsi zenerako, Grant mozkorturik zegoen. Hasieran denek kontsolatu zuten. Gero mari-mutil zaharrenetako batzuk, armadan denbora bat eman zutenak, gerraz hizketan hasi ziren. Esan zituzten gauza guztiak ez zitzaizkien

denei gustatu. —Isilik aditzen nuen.— Grantek esan zuen bonba atomikoa jaurti behar genukeela Vietnamen. Esan zuen inork ez zuela haien falta sentituko. Edek Granti esan zion arrazista hutsa zela eta soldadu guztiak etxera ekarri beharko genituzkeela. Edek esan zuen Muhammad Alik bezala pentsatzen zuela, eta ez zuela deus hango jendearen kontra. Grantek komunista deitu zion.

Buruaz ezezko keinua egin, eta hizketan hasi nintzen. Theresak erakuslea jarri zidan ezpainenetan.

—Askoz makurragoa izan zen, maitea —esan zuen—. Grantek gauza izugarriak esan zituen King eraila izateaz, istiluez. Ez zen isiltzen. Beraz, Edek jo egin zuen.

Zigarreta zapatuz itzali nuen.

—O, kaka.

—Kontua da —segitu zuen Theresak—, une batean Grantek Edi barraren kontra eusten zion, hura itoz. Eta hara non Peachesek Grant buruan jo zuen zapata takoidunarekin. Beste jende bat ere sartu zen, mozkor eginda. Edek ebaki bat izan zuen aurpegian. Grantek garuneko kommozioa. Eta orain Megek dio Abba'sen ez duela beltzik onartuko denbora baterako.

Ezin sinetsi nuen esaten ari zena.

—Kaka zaharra, Theresa, zer egin zenuen zuk?

—Grant saiatu zenean Peaches buruan jotzen taburete batekin, garagardo botila bat hautsi nuen Granten buruan, eta korderik gabe utzi nuen. Nik ere debekatua dut Abba'sen sartzea.

Harengana hurbildu eta ezpainenetan musu eman nion.

—A zer kaka-nahastea.

Eseri nintzen.

—Hobe izanen dut Edi deitzea, jakiteko ongi dagoen —esan nuen.

Theresak besotik hartu zidan.

—Zatoz, laztana. Ez deitu oraindik.

—Zergatik ez?

Theresak sorbaldak goratu zituen.

—Zer esanen diozu Edi?

—Ez dakit. Jakin nahi dut ongi dagoen. Besterik gabe uste dut ez genukeela ibili beharko elkarren aurka borrokan. Baturik egon behar dugu.

Theresak baiezko keinua egin zuen, jadanik bazekien zerbait berretsi banu bezala. Bere gorputzaren kontra erakarri ninduen. Akidura sentsazio batek hartu ninduen.

—Kontu izan —Theresak, isilka—. Ongi pentsatu Edi deitu aurretik.

Atzera egin, eta haren aurpegia aztertu nuen. Ez nezakeen inoiz emakume haren pentsamendua asmatu.

—Goazen norabait —esan zuen.

—Nekatuegia nago —kexatu nintzen.

Ileetatik hartu, eta nire burua erakarri zuen berriz.

—Nekatuegia nirekin musukatzen ibiltzeko hareazko duna baten atzean, Beaver Islanden?

Banekien ongi aski hobe nuela lehenbailehen errenditzea.

—Ongi da. Autoa hartuko dugu?

Theresak buruaz ezetz.

—Atera dezagun motoa garajetik.

—Erotu al zara? —nik, irriz—. Hotz dago!

Theresak eskuez gerria inguratu zidan.

—Apirila da, maitea. Bizi gaitezen jada udaberria balitz bezala.

Zango artean Nortona hartu genuenean jakin nuen erabaki ona zela. Oso atsegina zen bihurguneak elkarrekin hartzea. Theresaren eskuetako bat nire izterrera lerratu zen. Motorra bizkortu nuen erantzun gisa. Haize hotzak irriak ahoetatik xurgatu zizkigun.

Uharteko zingiratik mantso igaro ginen. Theresak seinalatu zuen iparraldera zihoan antzara saldo bat. Hondartza kasik jenderik gabe zegoen. Pare bat ama paseatzen ari ziren ur bazterreko ibiltokian, beren niniekin.

Harean eseri ginen, ibiltokiaren aurrean. Eguzkiak indartsu eta bero jotzen zuen. Urrutian irratia aditzen genuen apal.

Bizkarra duna baten kontra bermatu, eta zangoak luzatu nituen. Theresa nire izterren artean jarri, eta bizkarra nire kontra bermatu zuen. Besoek inguratu nuen, eta begiak itxi nituen. Urak hondartzaren kontra egiten zuen soinuak eta kaioen karrankek giharren gogorra arindu zidaten.

—Laztana —esan zuen. Doinuaren zerbaitek giharrak tenkatu zizkidan berriz—. Zuk eta biek ez dugu sekula gerraz hitz egin. Jakin ere ez dakit zer iritzi duzun.

Ezpainak haren masailetik hurbil nituen.

—Irakurri nituen etxera ekarri zenituen eskuorri haiek.

Theresa niri begiratzeko itzuli zen.

—Baina zein da zure iritzia?

Sorbaldak goratu nituen.

—Zer esan nahi duzu? Gerrak gorrotatzen ditut. Baina Kennedyk ez zidan galdetu ea bat hasi nahi nuen. Nahi dutena eginen dute. Zergatik galdetzen didazu hori?

Theresak nire belaunak bere alboen kontra bultzatu zituen ukondoekin.

—Gorrotatzen dut gerra hau, Jess. Gelditu egin behar da. Haren kontrako elkarretaratzeak izaten dira unibertsitatean kasik egunerok. Langileak horietako batean harrapatzen bagaituzte, kaleratu gaitzakete. Baina, hala ere, hurrengo asteko elkarretaratze handira joatea pentsatzen ari naiz.

Txistu egin nuen.

—Hara joateagatik kanpora zaitzakete?

Theresak baiezkotzen keinua egin zuen.

—Ezin naiz begira geldirik gelditu, Jess. Iritsi da une bat non zerbait egiteko gogo dudan.

Sabel gainean etzan nintzen harea freskoan.

—Bitxia da zuri hori aditzea. Badakizu, orain arte ez nintzen ohartu zein desberdinak diren gura lanak. Istorio hau dena martxan da zure lantokian. Fabrikan berriz ez gaitu ukitzen, salbu mutiletakoa bat errekrutatzen edo hiltzen dutenean.

Theresak baietz:

—Badakit, maitea. Nire bizian lehenbiziko aldiz dut lan bat non ikusten ahal dudan munduan zer gertatzen den. Egun osoan aditzen dut jendea eztabaidan gertatzen ari denaz. Orain arte entzun bakarrik egiten nuen. Baina orain inporta zait. Orain sentimenduak ditut gertatzen ari denaz, eta gauzak aldatzen lagundu nahi dut.

Eskua altxatu nuen Theresa geldiarazteko:

—Zaude, laztana.

Bizkar gainean etzan nintzen. Zergatik ematen ote zidaten halako beldurra haren hitzek?

—Horregatik ekarri nauzu hona gaur? Horretaz hitz egiteko? Begiak eguzkitik babestu nituen Theresari begiratzeko.

Buruaz ezetz egin zuen:

—Hona ekarri zaitut Edi berehala ez deitzeko. Ez behinik behin guk hitz egin arte.

—Zergatik? —nik, kopeta zimurturik.

Theresak irribarre egin, eta hain hurbil etzan zen, arnasa sentitzen ahal bainuen belarrarian.

—Badakizu zein izan zen zugan gehien gustatu zitzaidan gauzetako bat, ezagutu zintudanean?

Ni manipulatzan ari zen, baina goxoki, beraz ez zitzaidan asko inporta.

—Esan —nik, irribarrez.

Irri, hark:

—Bakegilea izaten zinen beti. Mari-mutilak mozkor arraildurik eta haserre bizian jartzen zirenean, zuk beti topatzen zenuen modu bat tartean sartzeko eta gauzak lasaitzeko. Are, ohar-tu nintzen batzuetan mari-mutil zaharretako batzuk elkarrekin haserretzen zirenean zuregana jotzen zutela, banaka, eta zuk ba-koitzarekin hitz egin, eta ukabil borrokarik ez zela izaten.

Burua harengana itzuli nuen.

—Honek denak badu ikasbide bat, apustu eginen nuke.

Theresak besotik heldu zidan.

—Hori da zure indarguneetako bat. Jendea baretzeko duzun gaitasuna, elkarrekin haserre daudenean. Baturik egotea oso inportantea da batzuetan. Baina ez beti.

Eserita jarri nintzen.

—Zer esan nahi duzu?

Ondoan eseri zitzaidan.

—Batzuetan alde bat aukeratu behar izaten duzu.

Zigarreta bat hartu, eta piztu nuen. Theresak hartu egin zidan. Beste bat piztu nuen niretzat.

—Aldea zertan? —nik.

Theresak hatzak ile artetik pasatu zizkidan.

—Zer aldetan zauden gerrari dagokionez, esaterako. Gerraren kontra agertzen bazara, mari-mutil zahar batzuen kontra jarriko zara. Eta uste dut oso gogorra izanen dela zuretzat.

Hasperen egin nuen.

—Horixe gerraren kontra nagoela. Nor dago gerraren alde?

Theresak hasperen egin zuen.

—Mari-mutil batzuk gerraren alde daude, laztana. Eta zu egiaz zaude gerra guztien kontra? Gerraren bati buruz desberdin pentsatzen duzu?

Ustekabean harrapatu ninduen.

—Esaterako?

Theresak zupada luzea hartu zion zigarretari.

—Edi iruditzen zaio hemen ere gerra bat dugula. Oraindik ez dituzu berriak ikusi. Hiriak sutan daude. Soldaduak karriketan.

Soingainak goratu nituen.

—Hori desberdina da.

Baietz, Theresak.

—Bai, hala da. Zer aldetan zauden erabaki behar duzu.

Kea bota, eta begiratu nuen nola haizeak altxatu eta eraman zuen.

Theresak aurpegira begiratu zidan begi-bistako kezka.

—Esaten dudan bakarra da kontuz ibiltzeko, laztana. Pentatu bezperan gertatutakoaz, Edi nahiz edozeini hitz egin aurretik.

Kaioen karranka aditu nuen. Theresak besotik tira egin zidan, erantzun eske.

—Aditzen ari naiz. Pozten naiz ez didazulako utzi Edi deitzen itsu-itsuan. Dena oso arin aldatzen ari da. Batzuetan ulertzen dut zer gertatzen ari den, eta orduan berriz ere haria galtzen dut. Pentatuko dut. Orain ez dakit zer uste dudan ere.

Theresak musu eman zidan ezpainenetan.

—Erantzun ona da. Erabakiko duzu. Beti saiatzen zara zuzen jokatzeko.

Begirada jaitsi nuen. Theresak kokotsa altxatu zidan. Begiradaz galdegin zidan zer sentitzen nuen.

—Beldurtua nago —esan nion—. Istorio honek egiaz ez nau ukitu orain arte. Baina halako batez ohartu naiz zenbat aldatu zaren, eta hezurretaraino beldurtzen nau. Beldurtzen nau zu aldatu eta ni ez aldatzeak.

Theresak haren gainera erakarri ninduen. Ingurura begiratu nuen, jakiteko ea norbait zegoen. Bakarrik ginen.

—Jess —xuxurlatu zuen Theresak—, ez izan beldurrik ni aldatzen uzteko. Denak ari gara aldatzen. Nork daki? Beharbada azkenerako hainbeste aldatuko zara non atzean utziko nauzun.

Hitz horien aurrean irri egin nuen.

—Inoiz ez —agindu nion—. Hori ez da sekula gertatuko.

•••

Apartamentuko ateko giltza nik sarrailan sartu aurretik Theresak ireki zuen.

—Zer moduz joan da? —galdetu zidan.

Sorbaldak goratu nituen.

—Gogorra izan da. Janekin hitz egin dut lehenik. Nik zuri esandakoa esan du gutxi gorabehera: ez genukeela elkarren kontra borrokatu behar. Baina onartu zuen Grant oso astuna izan daitekeela.

Theresak sofara eraman ninduen.

—Megekin hitz egin duzu?

—Bai. Jan nirekin zegoen. Megekin hitz egin genuen beste inor bilkurara iritsi aurretik. Megi esan nion nahiz eta sarrera debekatu mari-mutil eta erregina beltzei horrek ez zuela bakerik ekarriko, zeren Grantek bere kaka zaharra botaz gero neronek ere aurpegira salto egingen bainiokeen. Janek arrazoia eman zidan.

Theresak, irribarrez:

—Aipatu ninduzun?

Irri, nik.

—Ez zuzenean. Megi esan nion ezen baldin Grant mozkorturik dagoenean samintzen duen oro baztertzen badu, hobe duela taberna ixtea. Esan nion zentzuzkoagoa zela Grant oso mozkorturik dagoenean hari debekatzea sarrera.

Theresak baiezko keinua egin zuen. Zigarreta bat piztu nuen.

—Beraz? —premiatu ninduen—. Orduan zer?

Hasperen, nik.

—Esan nuen kontua ez zela Ed eta ni lagunak ginela. Megi esan nion ez zela gauzak ongi maneiitzen ari. Hark, negozio bat aurrera atera behar zuela. Nik banekiela, baina ez nintzatekeela joanen zurienezako bakarrik den taberna batera.

Theresak bizkarrekoa eman zidan.

—Ongi egina, alajaina. Bai horixe!

—Nolanahi, Grant iritsi, eta barkamena eskatu zuen beste guztiakin pagatzeagatik anaiaren heriotzak sortutako amorrazioa.

Theresak baiezko keinua.

—Ongi.

Buruaz ezetz esan nuen.

—Tira, nahikoa ere ez zen izan. Ez zuen barkamenik eskatu nahi izan botatako kaka zahar arrazistarengatik. Grantek

Eden eskua estutu zuen. Edek esan zidan oraingoz bere horrela uzteko.

Theresak besoa inarrosi zidan.

—Hitz egin zenuten Edek eta zuk?

Irribarre, nik.

—Bai, haren etxera joan ginen gero. Edwini esan nion maite nuela: nire laguna dela. Esan nuen mundua ni baino agudoago ari zela aldatzen eta zenbait gauzatan eguneratu beharra nuela, ulertu ahal izateko. Edek pare bat orduz hitz egin zidan.

Theresa hasi zen sorbaldetan masajea ematen. Izugarri on egiten zidan.

—Zertaz aritu zen?

Oroitzen saiatu nintzen.

—Hainbeste gauza! Zaila zait laburpen bat egitea. Bada-kizu, beti pentsatzen dut Edek eta nik, mari-mutilak garenez, egunero antzeko gauzei egiten diegula aurre, bai? Edek oroitarazi zidan beste zenbat gauzaren kontra borrokatu behar den, ni ez bezala.

Theresak irribarre egin, eta baietz esan zuen.

—Zer esan zenuen?

Ezezko keinua, nik.

—Ez nuen deus esan. Arreta handienarekin entzun nuen. Begira zer eman zidan.

Theresari erakutsi nion *The Souls of Black Folk* liburuaren ale bat, W.E.B. DuBoisena. Theresak eskaintza irakurri zuen: *Jess lagunarentzat. Maitasunez, Edwin*. Edek bere izeneko i-aren gainean bihoztxo bat paratu zuen.

Theresak begirada goratu zuenean, malkoak zituen begietan. Nire burua beregana erakarri, eta aurpegi guztia musukatu zidan.

—Nik ere maite zaitut, Jess —xuxurlatu zidan belarrira.

•••

Theresak eta biek aldi berean aditu genuen tabernatik kanpoko zalaparta. Theresak garagardo botila utzi, eta kanpora atera zen lasterka. Nik gure botilak hartu nituen, hautsi eta arma gisa behar bagenituen ere. Biak ere ziplo gelditu ginen kanpoko

aldean. Justine belauniko zegoen. Polizia bat zutik zuen ondoan. Borra aldean zeukan. Justineren aurpegiko alde bat odoletan.

Uztaileko arrats sargoria zen. Zenbait lagun tabernaren kanpoaldera atereak ziren garagardoak edatera. Bi polizia-auto aparkaturik zeuden tabernaren aurrean. Lau poliziak aurre egin ziguten:

—Sartu denak taberna barnera —zaunka, batek.

Gutako inor ez zen mugitu.

Justinen ondoan zutik zegoen poliziak ileetatik hartu zuen hura.

—Zutik —agindu zuen.

Zutitzen saiatu, zealdo egin, eta hormigoia kontra erori zen.

Theresak zapata takoidunak kendu zituen.

—Kenduizkiozu eskuak gainera —esan zion poliziari.

Ahotsa apala eta lasaia zuen—. Utzazu bakean.

Theresa mantso hurbildu zen poliziarengana, zapata takoidunak aldeetan. Arnasari eutsi nion. Georgettak stilettoak erantzi, eta esku banatan hartu zituen. Theresarengana joan zen. Ikusterik ez nuen begirada bat trukatu, eta elkarren ondoan gelditu ziren.

Poliziak eskua pistolaren ipurdian pausatu zuen. Nolabait, senez, bagenekien hobe zela mari-mutiletako bakar bat ere ez mugitzea.

Peachesen ahotsa aditu nuen.

—Zer gertatzen da hemen kanpoan? elkarri begiratu gunion—. O-o —esan zuen.

Theresaren ahotsa apala zen, aiene bat bezalakoa:

—Utzazu bakean.

Bera eta Georgetta pixkaka-pixkaka hurbildu ziren, Justineren bi aldeetan egon arte. Theresak Justineren soingain makurtuak inguratu zituen beso bakarrez. Justinek Theresaren eta Georgettaren besoei heldu, eta zutitu zen. Zealdo egin zuen, eta Theresak gerritik hartu zuen egonkor mantentzeko. Poliziak pistola zorrotik atera zuen.

—Put a zikina —marmarikatu zion Theresari—. Perbertitu zikinak! —oihukatu zigun denei.

Polizia horri beste polizia batek besotik tira egin zion:

—Tira, goazen hemendik.

Pixkanaka, lau poliziek atzera egin zuten.

Airea askatu nuen haiek alde egin ondoan. Theresak eta Georgettak besoetan zuten Justine, negarrez. Theresarengana lasterka abiatu behar nuen, baina Peachesek eskua jarri zidan sorbaldan.

—Emaiezu minutu bat, laztana —aholkatu zidan.

Zirkulu handi bat egiten genuen haien inguruan. Theresa itzuli, eta besoetara etorri zitzaidan. Haren gorputza dardarka sentitzen nuen.

—O, Jainkoa, ongi zaude? —xuxurlatu nion belarrira.

Aurpegia nire lepoan ezkutatu zuen.

—Ez nago seguru. Hemendik tarte batera esanen dizut.

—Uste nuen tiro egin behar zizula —esan nion.

Baietz, Theresak.

—Oso beldurturik nengoen, Jess.

Nik irribarre.

—Oso harro nago zutaz.

Theresak aurpegia aztertu zidan.

—Egiaz? Beldur nintzen usteko zenuela sekulako tontake-
ria egin nuela.

Ezezko keinua, nik.

—Oso ausarta izan zara.

—Beldur handia nuen —hark, hasperen eginez.

Nik, irribarrez:

—Norbaitek, behin, esan zidan ausarta izatea zela egin
behar duzuna egitea beldurtuta egonik ere.

Theresak begietara begiratu zidan.

—Beldurtu al zara, Jess?

Galderak txunditurik utzi ninduen.

—Adarra jotzen? Denbora guztian egoten naiz beldurturik.

Baiezko keinua egin zuen.

—Pentsatzen nuen hala izanzen zela, baina lehenbiziko al-
dia da esaten didazuna.

—A, bai? Ez al dizut hitz egiten nire sentimenduez?

Theresak azpiko ezpainari koski egin, eta buruaz ezetz
esan zuen.

Gorri-gorri jarri nintzen.

—Uste nuen bazenekiel.

Baietz, Theresak.

—Badakit... batzuetan, gehienetan. Baina inoiz ez duzu horretaz hitz eginen.

Hasperen egin nuen.

—Ez dut nahikoa hitzik, laztana. Ez dakit nola hitz egin sentitzen dudana. Jakin ere ez dakit gauzak besteek bezala sentitzen ditudan.

Peachesek, atsegin, Theresa niregandik urrutiratu zuen.

—Tira, jendea. Georgetta eta Theresa edarietara gonbidatuko ditugu, harik eta zutik egoteko gauza ez diren arte.

Ed hogeit hamar minutu beranduago iritsi zen tabernara.

—Galdu dut? —oihukatu zuen—. O, kaka. Zergatik ez nintzen bertan izanen?

Irri, nik:

—Zaude kontent egon ez izanaz. Bestela gerta zitezkeen gauzak. Hortxe-hortxe egon da kontua.

Janek bizkarrekoa eman zidan.

—Bai, baina *femmeek* gaur ikasgaia eman diete: gurekin broma gutxi. Izan da orain dela bi aste Greenwich Villagen bezala.

Kopeta zimurtu nuen.

—Zer gertatu zen?

—Stonewall! —oihukatu zuen Grantek.

Edi begiratu, eta sorbaldak goratu nituen. Janek irri gaiztoa egin zuen.

—Poliziak saiatu ziren sarekada bat egiten Greenwich Villageko taberna batean, baina haien kontra borrokatu ziren. *Drag queenek* eta emazte-gizonek ederki astindu zituzten.

Grantek, irri algaraka:

—Aditu dut saiatu zirela taberna erretzen poliziak barnean gerizatu bitartean.

Hasperen egin nuen.

—Kaka, nahiko nuen han izan.

—Bai —Edek ukabilez barra jo zuen—, hala sentitzen naiz gaurkoa galdu izateagatik.

•••

Lagun guztiak hurbildu zitzaizkidan, Abba'sen oin bat jarri bezain laster. Ni bezain urduri zirudien Edek.

—Erakutsi eraztuna! —esan zuen.

Ingurura begiratu nuen.

—Theresa iritsi da?

Edek ezetz, buruarekin.

—Oraindik ez. Tira, agudo.

Zetazko zapia atera nuen zamarraren barneko poltsikotik, eta ireki. Urrezko eraztunak diamante txikitxo asko eta bi erru-bitxo zituen. Denek aldi berean esan zuten: «Ooo!»

Edek bizkarrekoa eman zidan.

—Zenbat denbora eman duzue elkarrekin?

—Kasik bi urte.

Edek, irriz:

—Eta zenbat denboraz izan duzu gordea eraztuna?

Irribarre egin, eta sorbaldak goratu nituen.

—Demonioaren denbora. Denak prest?

Baiezko keinua, Edwinek.

—Jan eta Frankie komunean daude, apaintzen. Ez zuten lortzerik izan jaka zuririk; hortaz, denek krema kolorekoak hartu ditugu. Ongi da?

Irribarre handiz, nik:

—Ongi dago baldin zuek bezain dotore badaude.

Edek bizkarrekoak eman zizkidan. Urduritu nintzen.

—Denek dakite zer egin behar duten?

Edek, irriz:

—Hainbestetan entseatu dut *Blue Moon* etxean, non Darlenek esan didan San Balentineko opari gisa egiten ahal diodala kantu hori sekula berriz ez kantatzea.

Frankie eta Jan komunetik atera ziren.

—Ostia —nik—. Dotore zaudete!

Egia zen. Irribarre zabala egin zuten. Peaches bultzaka etorri zen jendeketaren artetik.

—Begira! —irribarre harroz.

Altxatu zuen izugarrizko ilargi bete bat, kartoi mehekoa eta urdinez pintatua. Peachesek buelta eman zion; beste aldea urre kolorekoa zen. Harritua gelditu nintzen.

—Nola daiteke gizonak ilargian zuen aurpegia eta zurea hain antzekoak izatea, Peaches?

Peaches zut-zuta jarri zen.

—Non deabru ikusten duzu gizon bat? Ilargia *femmea* da, haurra: erabateko *femmea*. Ez ezazu inoiz ahaztu.

Erlojuari begiratu nion.

—Kaka. Theresa noiznahi irits daiteke.

Jan eta Meg niregana etorri ziren zuzenean. Atsekabeturik ziruditen. Megek hitz egin zuen lehenik.

—O, Jess. Sentitzen dut hau esatea.

Urdaila estutu zitzaidan.

—Zer?

Megek kopeta igurtzi zuen.

—Disko-jogailua piztu dut atzeko aldean. Jan saiatu da hasierako dip-di-dip dioen musika zati hori probatzen. Orratza diskoan irristatu da alde batetik bestera. Hasieran uste genuen ongi zegoela, baina ez dago.

Edi begiratu nion.

—Zer ari da esaten?

—Um —Edek, muturra okertuz—. Uste dut esaten ari dela ez dugula musikarik.

—Zer! —nik, izaturik—. O, gizona, dena izorratu da orain.

Janek sorbaldeetatik hartu, eta bere parean jarri ninduen.

—Jess, hartu arnasa sakon.

Hala egin nuen.

—San Balentin eguna da. *Femme* gorenen jaiegun sakratua. Hau prestatzen aritu zara denbora luzez. Utziko duzu dena komuneko zulotik joatera?

Kexati esan nuen:

—Zer kristo egin dezaket?

Janek, irribarrez:

—Zure neskari kantatzen ahal diozu.

Edek enfasi handiz baietz, buruaz.

—Bai! Guk do-wha-do polita eginez lagunduko dizugu.

—Jan —erregutu nuen—. Ez dut kantatzeko batere balio.

Janek irribarre.

—Badakit. Baina honen guztiaren funtsa da behar den ausardia izatea Theresari esateko zenbat maite duzun. Ednak behin esan zidan mari-mutil batek maitasuna frogatzeko egin dezakeen gauzarik handiena dela irrigarri gelditzeko arriskua hartzea. Ez dut esaten nik egin dezakedanik, erositako prezioan saltzen dizut.

Ikaratzen ninduena zen banekiela Janek arrazoi zuela, eta egitera nindoala.

Justinek musu eman zidan masailean.

—Theresa hemen da —xuxurlatu zidan belarrira.

Frankie, Jan eta Edek beren tokiak hartu zituzten tabernako hasierako aldean. Ni atzean ezkutatu nintzen. Meg ondoan jarri zitzaidan, belauniko.

—Sentitzen dut, haurra —esan zidan.

Eskuaz keinua egin nuen.

—Ahaztu. Honetatik bizirik ateratzen banaiz, ez du inportako.

Isilune luze baten ondoren, Janen ahots durunditsua aditu zen. Ez zuen ahaztu ezta *dip-di-dip* eta *dinga-dong-ding* bakar bat ere, eta gero lerratu zen *Blue Mooooonnn* sakon eta baxu batera.

Tabernako atzeko aldetik azaldu nintzen. Theresaren begiradak eman zidan boza goratzeko ausardia. *You saw me standing alone*. Ahotsa hautsi eta apaldu zitzaidan lotsaz eta hunkiduraz. Theresak kosk egin azpiko ezpainari, eta negarrez hasi zen.

Do-wah-do, lagunak kantuz laguntzen. Peaches atzean nuen, ilargi urdina alde batera eta bestera mugitzen, arku zabala eginez nire buru gainetik.

But then you suddenly appeared before me, eskua Theresarengana luzatu nuen. *And when I looked the moon had turned to gold!* Peachesek ilargia itzularazi zuen urrezko aldera. Denek txalo eta oihu. Peachesek erreberentzia egin, eta ilargia kulunkatzen segitu zuen.

Theresa niregana etorri zen. Kantua harekin dantzan bukatu nuen.

Ohartu nintzen egia zela, ez nengoela bakarrik, niretzako maitasun bat nuela.

Do-wah-do, korua ezta eta gozoa.

Zapia atera nuen bularreko poltsikotik, eta kontuz zabaldu. Eratzuna ikusi zuenean, Theresa desegin zen. Nik ere negar egin nuen. Unea perfektua zen. Eratzuna hatzean lerratu nion. Diskurtso bat nuen prest, esateko zein inportantea zen niretzat, baina ezin oroitu nintzen hitzez.

—Maite zaitut —esan nion—. Izugarri maite zaitut.

—Zu zara inoiz gertatu zaidan gauzarik onena —xuxurlatu zidan. Ezkerreko eskua hartu zidan bere eskuetan, eta erakuslea leunki pasatu zuen nire eratzun-hatzeko orbainetik—. Nahi dut zuk ere eratzuna janzte.

Tristoraz ezetz egin nuen buruaz.

—Horretaz pentsatu dut, baina beldurtuegi egonen nintzateke. Poliziek inoiz kenduko balidate nire onetik aterako nintzateke.

Theresak bere masaila ukitu zuen.

—Maite duzuna galtzeko halako beldurra baduzu, ez zara inoiz gauza izanen askatzeko eta sentitzeko. Nire maitasun guztia jarriko dizut eraztun batean baldin janzten baduzu. Eta norbaitek noizbait kentzen badizu, metalezko zerrenda bat baino ez dute ebatsiko. Orduan joan eta beste eraztun bat eskuratuko dut, eta horretan ere nire maitasun guztia paratuko. Hala, ez duzu sekula galduko, Jess. Bai?

Baietz egin, eta aurpegia haren lepoan ezkutatu nuen. *Do-wah-do*, kantatzen zuen taberna osoak, haien musikarekin kulunkatzen ginela.

Nire biziko unerik goxoena zen.

13

Poliziek asko handitu zuten gure kontrako jazarpena gay harrotasuna jaio ostean. Gure matrikuletako zenbakiak hartzen zituzten, eta tabernetara sartzekoan argazkiak egiten zizkiguten. Gure dantzaldiekin segitu genuen, gayen taberna berri batean, eta polizien irratiak erabiltzen genituen jendeari ohar-tarazteko poliziek noiz egin behar zuten sarekada bat. Aditua genuen emakume erradikalek eta gay askapenaren aldekoek as-tero egiten zituztela bilkurak unibertsitatean, baina gure artean Theresa zen bakarra unibertsitatean mugitzen zekiena. Oraindik ere beste planeta bat zen besteontzat. Dena oso agudo aldatzen ari zen. Iraultza ote zen?

Egun batez lanetik etxera iritsi, eta Theresa haserre bi-zian topatu nuen sukaldeko mahaian. Unibertsitatean sortutako lesbiana talde berri batek irri egin zion *femme* izateagatik. Esan zioten burua garbitu ziotela.

—Oso haserre nago —Theresak mahaia jo zuen—. Esan di-date mari-mutilak ar chauvinista nazkagarriak direla!

Banekien zer esan nahi zuen chauvinista hitzak, baina ez nuen asmatzen ahal zer zerikusi zuen gurekin.

—Ez al dakite guk ez ditugula karta kaka zahar hauek ba-natu, kaka zahar honekin moldatu behar dugula?

—Ez zaie inporta, laztana. Ez digute sartzen utziko.

—Beharbada Janek, Grantek, Edwinek eta nik bilkura ho-rietako batera joan beharko genuke, eta azaltzen saiatu?

Theresak eskua besoan jarri zidan.

—Horrek ez zuen lagunduko, laztana. Oso haserre daude mari-mutilekin.

—Zergatik?

Galderari buruz pentsatu zuen.

—Nik uste marra bat egin dutela: emakumeak alde batean eta gizonak bestean. Hortaz, beren ustez gizonen antza duten emakumeak etsaiak dira. Eta nire itxura duten emakumeak etsaiarekin oheratzen dira. Sobera femeninoak gara haien gusurako.

—Zaude pixka batean —geldiarazi nuen.— Gu maskulinoegiak gara, eta zuek femeninoegiak? Zer egin behar dugu, metro bat irudikatu eta erdia aurkitzen saiatu?

Theresak besoa laztandu zidan:

—Gauzak aldatzen ari dira.

—Bai —nik—, baina goiz edo berandu berriz lehengora aldatuko dira.

—Gauzak ez dira lehengora aldatzen —egin zuen hasperen—, etengabe aldatzen segitzen dute, hori baino ez.

Mahaian esku-zarta bat jo nuen.

—Orduan izorra ditzatela. Nork behar ditu, dena dela?

Theresak kopeta zimurtu, eta nire ilearekin jostatu zen.

—Mugimendu horren beharra dut, Jess. Eta zuk ere bai. Oroitzen nola behin esan zenidan zure fabrika batean jendeak ez zuela nahi mari-mutilak sindikatuaren bilkuretara joatea?

Baietz, nik.

—Bai, eta?

Irribarre, hark.

—Esan zenidan nola Grantek bota zuen *pikutara sindikatua*. Baina zuk bazenekien sindikatua gauza ona zela. Esan zenuen gaizki zegoena zela mari-mutilak kanpoan uztea. Saiatu zinen antolatzen, mari-mutilak sindikatura sartzeko, oroitzen?

Theresak estu hartu ninduen bere gorputzaren berotasunaren kontra, eta ilean musu eman zidan. Denbora eman zidan esandakoaz pentsatzeko, talde hartaz gaizki esaka ibili orde. Beldurra sentitu nuen; beraz, zutitu eta afaria prestatzen hasi nintzen. Theresa mahaian gelditu zen, gure lorategi aldera begira.

•••

Nahiko nuen asteburu hartan lagunak bisitatzera joan ez izana, Rochesterreko taberna hartara. Etxean gelditu izan bagi-

na, poliziak ez nindukeen sarekadan harrapatuko. Baina horiek desirak besterik ez dira.

Komisariako ziegako lurrean nentzan, bakarrik herri arrotzean, ahoa hormigoi hotzaren kontra. Niretzat galdetu nuen ea hiltzorian ote nengoen, bazirudielako mundutik urrutiratzen ari nintzela. Bi gauzak bakarrik lotzen ninduten mundura: bat zen zoru hotza sentitzea nire ezpainen kontra, bestea zen Beatlesen doinu baten erritmo ahula, ziegetako irratiren batetik heldu zena. *She loves you, yeah, yeah, yeah*.

Kordea berreskuratzen eta galtzen aritu nintzen. Hala-ko batez, Theresa niri eusten ari zen adreiluzko pareta baten kontra, komisariako aparkalekuan, begiradaz kalteak aztertzen zituen bitartean. Azpiko ezpainari kosk egin, eta nire atorrako odol orbainak seinalatu zituen.

—Inoiz ez dut lortuko orbain hauek garbitzea.

Burua altzoan hartu zidan etxerako bide osoan. Hatz punteaz ilea laztandu zidan gidatu bitarte, eta, atsegin, burua berezana erakartzen zuen frenatzean.

Eta gero neure burua berriz etxean aurkitu nuen. Theresa ondoko gelan zegoen. Eroso jarri nintzen bainu bero eta xaboi-tsuan, eta burua portzelanaren aurka bermatu nuen. Nire burua besterik ez zen existitzen, burbuilen gainetik. Egoeraren erosoak lasaitu ninduen, baina oraindik ikarak barnea jaten zidan. Ikarren ertzera hurbiltzen nintzen aldiro amiltzen nintzen. Beldurrak itotzen ninduen. Theresa etorri eta laguntzea behar nuen, baina ezin deitu nion: eztarria estu-estu nuen, itotzen ninduen.

Hortzak minberaturik nituen. Mihiaz horietako bat bulkatu nuenean, askatu eta esku ahurrean gelditu zitzaidan, nire odolezko putzu txiki batean. Laster batean altxatu nintzen bainuontzitik, aldeetatik ura zeridala zurrustaka. Baldosetan irristaka, komuneko tapa altxatu, eta gora bota nuen.

Ispiluan begiratu, eta errukia sentitu nuen islarekiko: odolatan eta ubelduraz eta hanpaduraz betea. Ahoa garbitu nuen hortzetako pastarekin eta ur eskukada batekin. Zangoak dardarka nituen.

Theresak azpiko arropa zuri garbia utzia zuen komuneko tangaren gainean. Lehortu eta galtzontzilloak jantzi nituen. Kamiseta burutik behera pasatu berria nuenean, Theresak komuneko atea ireki zuen.

—Nik, e, jakin nahi nuen ea tiritarik zenuen —esan zuen.

Eta une hartantxe, ordura arte gorderik edukitako irudi izugarriak burua bete-bete hartu zidan: Theresaren aurpegiaren oroitzapena, atxilotu nindutenean. Haren begietan ikusi nuen menperaturik eta babesgabe egotearen mina. Hala sentitzen nintzen kasik nire biziko egun bakoitzean.

Oroitzapena indarrez baztertu nuen Theresak begiradaz nire aurpegia aztertu bitartean. Haren begiak gorrituak eta bustiak zeuden. Neronenak hautsa bezain lehorrak. Arnasa mantsotu, eta deseroso bihurtu zitzaidan, airearen ordeztela melaza arnasten ariko banintz bezala. Theresak aurpegia ukitu zidan, nire burua alde batera eramanez kontuz, aho inguruko hantura aztertzeko.

Ez nuen hitzik. Hitzak aurkitzerik izan banu, Theresari ekarriko nizkioken. Baina ez nezakeen hitzik aurkitu. Emozioen segida ikusi nuen Theresaren aurpegian, dunak haizearekin bezala aldatzen. Berak ere ez zuen hitzik aurkitzen. Nola adituko ote zirakekeen haren hitzak, airean gauzatuak?

Theresak azpiko ezpaina hozkatu eta begiak estu-estu itxi zituen. Komunaren tapa gainean eseri nintzen. Theresak ahoko zauria garbitu zuen peroxidoz.

—Bi tirta erabiliko ditut —esan zidan—. Badaezpada ere. Beharbada puntuak beharko dituzu.

Buruaz ezetz esan nuen, mantso. Ospitalerik ez. Gozotasuna eta segurtasuna behar nituen. Theresak biak ematen zizkidan. Ohatzera eraman ninduen, besarkatu ninduen, laztandu ninduen, hatzak nire kalpar artetik pasatu, eta negar egin zuen.

Geroago iratzarri, eta ohartu nintzen Theresa ez nuela ondoan. Oraindik ilun zegoen kanpoan. Zealdoka, sukaldera joan nintzen. Minberaturik nuen gorputza, baina banekien zurruntasunik eta minik makurrenak biharamunean iritsiko zirela.

Theresa sukaldeko mahaian zegoen, burua eskuetan. Ikusi nuen zenbat whisky gelditzen zen botilan. Haren burua nire sabelaren kontra jarri eta ilea laztandu nion.

—Sentitzen dut —esaten zuen behin eta berriz—. Askok sentitzen dut.

Balantzaka zutitu, eta nire besoetan erori zen. Frustrazioa erauntsi baten antzekoa handitzen sentitu nuen haren gorputzean. Haren zintzurteko soinetxo itoetan aditu nuen.

Ukabilez jo ninduen behin eta berriz.

—Ezin izan nituen geldiarazi. Hain agudo lotu zizkidaten eskuak. Ezin izan nuen deus egin —negarrez.

Halaxe sentitzen nintzen ni. Bizi honetan egiaz geunden elkarrekin. Beharbada ez genuen hitzik izanen, baina biek genekien zerekin itotzen ginen. Hainbeste gauza esan nahi nizkion une hartan. Sentimenduek beren bidea egiten zuten nire zintzurreraino, baina han trabaturik gelditzen ziren, ukabil bat bezain estu.

Theresaren kopeta izerditsuari musu eman nion.

—Ongi da —xuxurlatu nuen—. Dena ongi aterako da.

Biek egin genion irribarre nire hitzen ironiari. Eskutik hartu nuen, eta ohatzera eraman nuen. Mairidireak freskoak zeuden. Gaueko zerua izarrez beterik zegoen. Theresak begiratu egin zidan, aurpegia goxo eta maitagarri.

Une batez Theresari kasik esan nion beldur nintzela ez nintzela gai izanen aurrera segitzeko: ezta haren maitasunarekin ere. Emozioak eztarritik ahora egiten zuten bidea; hitzak hortzen atzeko aldearen kontra lehertzen ziren. Eta orduan, atzera egiten zuten. Theresak galdera bat egin zidan begiekin. Ez nuen erantzunik. Ezin nuen esateko deus topatu. Hainbeste maitate nuen emakumeari hitzik ezin nionez ekarri, nire samurtasun osoa eman nion.

•••

Theresa komunean topatu nuen, aurpegia ur hotzarekin bustitzen. Begiak gorriturik eta handiturik zituen gas negar-eragilearengatik. Estu besarkatzen saiatu nintzen, baina urduri zegoen. Apartatu zen, eta hasi zen kontaktzen unibertsitatean zer gertatu zen. Hitz guztiak tarrapatan ateratzen zitzaizkion bata bestearen atzetik.

—Ikasleek grebarako deia egina zuten. Unibertsitatea eta Main kalea hartu dituzte. Poliziak dena barna zeuden, istilueta-rako ekipoekin. Geldirik gelditu naiz, baina gas negar-eragileak egoera jasangaitz bihurtu du, ezin nuen ikusi. Nire lagun Irmak aurkitu nau eta etxera ekarri. Badirudi tarte batean ez naizela lanera itzuliko.

Burua harriduraz astindu dut.

—Ez duzu arazorik izanen fitxatzen ez baduzu?

Theresak irribarre egin eta masaila laztandu zidan.

—Pikete lerro bat gurutzatuko zenuke? —galdegin zidan—. Zatoz sukaldera, zerbait erakutsi nahi dizut.

Kafea egin nuen, bitartean Theresak etxera ekarritako zerbait zabaltzen zuela.

—Poster hauetako zein nahiago duzu? —galdetu zidan.

Bat hartu nuen.

—Ba al dakizu zer dirudien honek?

Theresak baietz:

—Horixe da eta.

Txunditurik gelditu nintzen.

—Ez al dago honen kontrako legerik?

Theresak irri egin zuen, goxo.

—Zer santutxoa! Eta beste hau?

Irudi batean bi emakume agertzen ziren, biluzik, elkarren besoetan. Ahots goran irakurri nuen:

—*Ahizpatasuna: gauzatu ezazu. Zer esan nahi du?*

Theresak irribarre.

—Pentsa ezazu, Jess. Esan nahi du baturik egon behar dugula. Paretan jar dezaket?

Sorbaldak goratu nituen.

—Tira ba, jakina. Ikusten dut emakumeen askapenaren zera horretan buru-belarri zabiltzala, ezta?

Theresak sukaldeko aulki batean eserarazi ninduen, eta altzoan jarri zitzaidan. Ilea begietatik kendu zidan.

—Bai —esan zuen—, hala nabil. Gauza askoz ohartzen ari naiz, nire biziaz, emakume izateaz. Emakumeen mugimenduan sartu arte bururatu ere ez zitzaizkidan egiten.

Aditu nion.

—Ez naiz gauza horietaz asko jabetzen —nik—. Beharbada mari-mutila naizelako.

Kopetan musu eman zidan.

—Mari-mutilek ere emakumeen askapena behar duzue.

Irri, nik.

—Behar dugu?

Theresak baietz.

—Bai, behar duzue. Emakumeentzako ona dena ona da mari-mutilentzat.

—Egiaz?

—Bai —esan zuen—. Eta beste gauza bat.

Hasperen txikia egin nuen.

—O-o.

Theresak irribarre.

—Emakume batek esaten didanean «Gizon bat nahiko banu, egiazko batekin egonen nintzateke», nik esaten diot, «ni ez nago gizon faltsu batekin, ni egiazko mari-mutil batekin nago».

Irribarre egin nuen harro.

—Baina —erantsi zuen Theresak—, horrek ez du esan nahi mari-mutilek ezin duzuenik gauzaren bat ikasi emakumeen mugimendutik, adibidez, *femmeak* nola errespetatu.

Theresa nire altzotik kendu nuen.

—E, zertaz ari zara?

Zutitu eta platerak garbitzen hasi nintzen. Sorbaldatik hartu eta buelta emanarazi zidan.

—Esan nahi dut —jarraitu zuen—, garaia dela emakumeak ohar gaitetzen nola tratatzen dugun elkar. *Femmeek* elkarren artean ere landu behar dute.

Une bateko su-etena izan zen, baina nik berrekin nion.

—*Femmeek* zer ikasi behar dute?

Theresak pixka bat pentsatu zuen.

—Nola egon baturik. Nola izan elkarri leialak.

—Ummm —pixka bat pentsatu nuen horretaz—. Ongi da, eta zer ikasi behar dugu mari-mutilek?

Theresak harraskaren kontra jarri ninduen.

—Mari-mutilak tabernan eserita eta solasean zaudeten hurrengo aldian, ohartu zaitez zenbatetan esaten den: *polittak* edo *atsoak* edo *errapeak* edo *aurreko argiak* —Theresak gorputza nire kontra bermatu zuen—. Laztana? Badakizu zenbatetan esaten duzuen «Ez ditut emakumeak sekula ulertuko?» Ba pentsa horretaz, maitea: zu emakumea zara. Beraz, zer ari zara esaten? Hori da bi muturretatik tiro egiten duen arma bat bezalakoa. Katua sakatzen duzunean, zerorren burua zauritzen duzu aldi berean.

Itzuli, eta platerak garbitu nituen isilik. Theresak besoekin inguratu ninduen.

—Laztana? —pixka bat astinduz.

—Aditzen ari naiz. Horretaz pentsatuko dut —isilune luzea egin nuen—. E, zaude pixka batean —buelta eman eta aurrez

aurre jarri nintzaion—. Nik ez dut esaten ez ditudala emakumeak inoiz ulertuko. Nik esaten dut *femmeak* ez ditudala inoiz ulertuko.

Theresak irribarre egin, nire blue-jeansetako trabilletan hantza sartu zuen, eta nire pelbisa harenaren kontra eraman zuen.

—O, ederra —xuxurlatu zidan limurtzaile—, horretan arrazoi duzu.

•••

—*Sorpresa!*

Gure egongela lagunez beterik zegoen.

—Zorionak, laztana —irribarrez Theresak.

Bat-batean, irribarrea desagertu zitzaion. Burua kontuz hartu zidan, eta alde batera eraman. Begi aldean nuen ebakiak zena baino itxura makurragoa zuen.

Theresak, lasai, eskutik hartu ninduen.

—Tira, garbitu dezagun hori.

Komuneko tapan eseri nintzen. Ebakia arinki ukitu zuen.

—Zer gertatu da?

Sorbaldak goratu nituen.

—Hiru gizon, 7-Eleven dendako kanpoko aldean. Mozkorturik zeuden.

—Ongi zaude? —galdegin zidan.

Irribarre, nik.

—Bai eta ez.

Ebakia bi tiritaz estali zidan.

—Beharbada jai hau ez da hain ideia ona izan —hark, hasperen eginez.

Eskutik hartu nuen.

—Zer? Maite dudan jende guztia gela bakarrean, haien beharra dudanean?

Theresak musu eman zidan kopetan. Nire eskua hartu, eta buelta eman zion. Hatz-koskorrak odoleztatuak eta handituak nituen. Irribarre egin zuen.

—Ongi egina, laztana! Espero dut ederki izorratuko zenituela.

Sorbaldak goratu nituen.

—Bat hiruren kontra izan da, baina oso-oso mozkorturik zeuden. Ahal dudana egin dut.

Theresak nire aurpegia bere sabelaren kontra eraman zuen, atsegin. Ilean musu eman, eta hatz puntekin ferekatu zuen.

—Oso ongi egin duzu, maitea.

Jai aparta izan zen. Ez zen jada alaia eta zalapartatsua izan, baina gutako bakoitzak nabaritu eta sentitu zuen zein inportanteak ginen elkarrentzat.

Jan hozkailuaren alde baten kontra zegoen bermatua. Bi garagardo atera eta bat eskaini nion.

—Ongi zaude? galdegin zidan.

Esan nahi nion ez nuela uste batere ongi nengoenik. Hain gogorra zen desberdina izatea. Presioa ez zen inoiz arintzen. Barnea nahasia, eta neka-neka eginda sentitzen nintzen. Hori esan nahi nion. Baina hitzak ez zitzaizkidan etorri.

Sorbaldak goratu nituen.

—Hogeita bat urte bete ditut gaur, eta zaharra sentitzen naiz.

Tristura ikusi nuen Janen irribarrean.

—Gauza askotatik pasatu zara. Bada adin bat urteka kontatu ezin dena. Badakizu nola mozten duten zuhaitz bat eta gero enborrean eraztunak nola kontatzen dituzten? Zerorren enbor horretan eraztun asko dituzu. Badakizu zer? Uste dut garaia dela zuri haurra deitzeari uzteko. Aspaldi utzi zenion haurra izateari.

Baietz esan nuen. Ed atzetik etorri zitzaidan, eta bizkarretik hartu zidan.

—Zorionak, aizu.

Gerritik hartu nion, eta gehiago erakarri nuen.

—E! —oihukatu zigun Grantek—. Hozkailuaren parean zaudete traban. Zer egin behar da hemen garagardo bat eskuratzeko?

—Besarkada bat eman behar didazu —eskatu nuen.

—O, zatoz —irriz, besoaz inguratu ninduen—. Orain, emaidazu garagardo bat.

Tammy Wynetteren ahotsa aditzen nuen, *Stand By Your Man* kantatzen. Theresa egongelan topatu, eta eskutik hartu nuen. Haren gorputza nireari egokitu zitzaion. Musikarekin batera mugitu ginen. Hatzak nire buruaren atzeko aldetik pasatu zituen. Gehiago erakarri nuen, haren gorputzari ongizatea eskatuz. Eman zidan. Munduko babesleku bakarra balira bezala sentitu nituen haren besoak.

—Maitea —xuxurlatu zidan—, ongi zaude?

—Bai —erantzun nuen—. Ongi nago.

•••

—Kaixo, laztana —Theresa sukaldeko atarian zegoen.

Besoak gurutzatu nituen.

—Afaria alferrik galdu da.

Theresa niregana etorri zen besoak zabalik. Saihestu nituen.

—Non izan zara?

—O, maitea —Theresak musu eman zidan lepoan—. Ahaztu al zaizu? Gauean, lanetik aterata, bilkura batera joan behar nuen.

—Zer bilkura? —kexu, ni—. Oraindik ere saiatzen zara zure bidea egiten feministen bilkuretan?

Mina ematen zion lekuan jo nuen, horixe nahi bainuen.

—Ez, bilkura zen Wounded Kneen dauden indiarren alde egiteko. Uste nuen gustatuko zitzaizula.

Bete-betean asmatu zuen. Doinua leundu zuen.

—Oraindik lanik ez, maitea?

Buruaz ezetz esan nuen.

—Deus ez. Ez nuen inoiz pentsatuko lan faltak honenbeste irauen zuenik. Langabezia saria bost astean bukatuko da.

Theresak baiezeko keinua egin, eta ilea laztandu zidan.

—Konponduko gara.

—Ez, prestatzen dizkizudan afariak alferrik galtzen segitzen baduzu. Ikusiko dugu ea gehiago aritzen naizen zuretzat esklabo bat bezala lanean, sukaldeko suetan.

—Ez kezkatu, laztana —xuxurlatu zuen—. Dena ongi aterako da. Lan bat topatuko duzu agudo, ikusiko duzu.

Oker zebilen. 1973an bazirudien gure ezagun guztiak lanetik botako zituztela.

Theresa unibertsitateko lanetik bota zuten. Horrek zapuztu zituen elkarrekin oporretara joateko genituen itxaropenak; eta behar genituen, alafede. Hilabeteetan lan bila ibili behar izanda, bazter guztietan, eta dirua gero eta urriago izanik... Horrek denak ondorioak izan zituen. Alde egin behar genuen, baina gure ihesbide guztiak itxita zeudela zirudien.

—Oporretara joateko gogorik ere ez dut —esan nion Theresari.

—Eroturik al zaude? —oihukatu zuen—. Burutik eginda bukatuko dugu alde egiten ez badugu. Ez gara inoiz hor barna ateratzen, ez dugu deus egiten.

Sukaldeko mahaia jo nuen.

—Gero eta beldurgarriagoa da kanpoan dagoena, Theresa. Badirudi okertzen ari dela. Ez dut kanpora atera nahi ere.

Theresa sukaldeko mahaiari eseri zen.

—Deprimiturik zaude, besterik ez. Hori arrazoi bat gehiago da hemendik atera behar izateko.

Ez nuen oso ongi ulertzen zer esan nahi zuen horrekin.

—Esaten ari natzaizu kanpoan gauzak okertzen ari direla.

Theresak zartako bat eman zion mahaiari.

—Beti izan da gogorra. Noiz izan da errazagoa?

—Kaka zaharra! Ezin dut sinetsi! —oihukatu nuen—. Azaldu nahi dut ez dudala aguantatzen, eta zuk esaten duzu hondoratzen ari naizela?

Theresak bizkarra aulkian bermatu zuen, eta aurpegia aztertu zidan.

—Jess, ez dut esan hondoratzen ari zarenik.

Hitzek oihartzuna eragin zuten sukalde isilean. Zutitu eta logelarantz joan nintzen.

—Jess, zaude. Nora zoaz?

—Ohatzera —esan nion—. Oso nekaturik nago.

•••

Egunsentian aldi baterako lanen agentziara joan nintzanean, bi gizon ikusi nituen Chippewa kaleko lan bulegoko sarreraren kontra bermaturik.

—E, lesbiana hori —deitu zidan ile beltzekoak. Haren lagunak irri egin zuen. Biak mozkorturik zeuden. Antza, barnean, ez zegoen lanik..

Ile-horikoak zango tartea eskuz hartu zuen.

—Badut lan bat hemen zuretzat, lesbiana. Lan handia da, zuk uste heltzen ahal diozula?

Haien irrien artean bultzaka pasatu nintzen.

—Kaixo, Sammy —esan nion bulegariari.

Barkamena eskatuz bezala egin zuen irribarre.

—Hemen itxoin nahi duzu, Jess? Agian 10:30ak aldera morroi pare bat beharko ditugu.

Neure artean galdegin nuen ea lan kategoria horren barnean ote nengoen: morroi bat.

Ingurura begiratu nuen, lan baten zain zeuden gizonei. Haietako batzuk airera begira zeuden, filtrorik gabeko zigarretak erretzen, tabakoz zikindutako hatzetatik sobera hurbil. Beste batzuk niri begira zeuden, haserrez begiak erdi-itxita. Ez nien deus egin, baina une hartan ni ninduten gorrotoaren xede izateko pertsona hurbilena.

—Ez, Sammy. Deitu gero zerbait izanez gero, bai?

Sammyk buruaz baietz, eta agur egin zidan eskuaz.

—Agian bihar, Jess.

—Bai, agian bihar.

Neure burua adoretzen hasi nintzen, ezagutu nituen eta zain neuzkan gizonen ondotik pasatzeko. Haien albotik iragan nintzenean, ile beltzekoak nire oinetara jaurti zuen pinta bateko ron botila huts bat. Atzeraka erori nintzen, adreiluzko paretaren kontra, txunditurik.

—Emazte-gizon zikinak! Gure lanak ebasten dituzue! — oihukatu zidan, presaka alde egiten nuela.

Neure artean galdetu nuen nik nori botatzen ahal nion errua.

Gau hartan amets batetik iratzarri nintzen. Ilargiak gure gela argitzen zuen. Ametsera itzuli nahi nuen, baina oso iratzaririk nengoen. Hala ere ametsaren eraginpean nengoen.

Ametsean, herri batean barna nenbilen. Leiho guztiak itxirik zeuden. Ez zegoen bizi arrastorik: ez nuen jenderik topatzen ahal. Ez zen zakurren zaunkarik aditzen. Dena isilik zegoen.

Herria zelaiez eta oihanez inguraturik zegoen. Basoaren gainetik ikusten zen ke arrasto ahul bati segitu nion. Argiune txiki batean etxola bat topatu nuen. Su txiki bat zegoen barnean. Lau hankatan jarriz sartu nintzen etxolara. Lurrezko zoruan eseri nintzen, suaren ondoan, eta itxoin nuen.

Drag queen guztiak han ziren: Justine, Peaches eta Georgetta. Al Mari-mutila ere han zen, baita Ed ere. Baziren beste gutxi batzuk ere, baina itzalek haien aurpegiak ezkututzen zituzten. Ohartu nintzen Rocco ondoan eserita nuela. Hurbildu, eta masaila laztandu zidan. Nik

ere neronen aurpegia ukitu nuen. Bizarraren latza sentitu nuen. Eskuaz nire bular laua ukitu nuen. Pozik sentitu nintzen nire gorputzean, lagunen artean eroso.

—Non daude besteak? —galdetu nuen.

Justinek baietz egin zuen buruarekin.

—Bakoitza norabide desberdinean doa.

Galera sentipen batek hartu ninduen.

—Ez dugu inoiz berriz elkar aurkituko.

Peachesek irri egin zuen, atsegin.

—Elkar aurkituko dugu, haurra. Ez kezkatu.

Aurrera makurtu, eta Peachesen eskua nirean estutu nuen.

—Mesedez, ez ahaztu nitaz. Mesedez, zuetako inork ez nazala ahaztu. Ez dut desagertu nahi.

Peachesek besoaz sorbaldak inguratu zizkidan, eta erakarri egin ninduen.

—Gutako bat zara, haurra. Eta beti izanen zara.

Ikara sentitu nuen.

—Egiaz al naiz zuetakoa?

Maitasun irriak aditu ziren niri erantzunez. Etxolako pertsona bakoitzak besarkatu egin ninduen. Seguru eta maitatua sentitu nintzen haien besoetan.

Gora begiratu nuen. Etxolak ez zuen teilaturik. Izarrak dardarka ari ziren, ipurtargiak bezala. Airea freskoa zen, eta eukalipto usaina zuen. Zangoak gurutzatu nituen suaren aurrean, eta gustura berotu nintzen.

—Non da Theresa? —galdetu nuen.

Erantzunik jaso gabe iratzarri nintzen.

—Laztana, iratzarri, mesedez —Theresa mugitu nuen, goxoki.

Burua burkotik altxatu zuen.

—Zer, Jess? Zer gertatzen da?

—Oso amets harrigarria izan dudala.

Theresak begiak igurtzi zituen.

—Oso zaharra zirudien toki batean zen, oihan artean. Peaches, Justine eta Georgettarekin zen. Eta Rocco ondoan nuen eseria. —Ez nekien Theresari nola deskribatu ametsak sentiarazten zidana—. Sentitzen nuen haien artekoa nintzela, ulertzen?

Theresaren eskua nabaritzen nuen nire kamisetako bizkarran laztantzen, eta gero loan murgiltzen hasi zen.

—Theresa —bizkor inarrosi nuen.

Kexatu zen.

—Zati bat kontatzea ahaztu zait. Ametsean, bizarra neukan, eta bularra laua. Oso zorionsu egiten ninduen. Esplikatu ezin dudan neure zati bat bezalakoa zen, ulertzen?

Theresak buruaz ezetz esan zuen.

—Zer esan nahi du horrek, laztana?

Zigarreta zapatu, eta itzali egin nuen.

—Nire baitan zaharra den zerbaiti buruzkoa da. Desberdin izanik hazteari buruzkoa. Bizi guztian, ez zait batere gustatu desberdina izatea. Baina ametsean gustatzen zitzaidan, eta nire gisa desberdinak ziren beste batzuekin nengoan.

Theresak baietz esan zuen.

—Baina esana zenidan hala sentitu zinela tabernak topatu zenituenean.

Horretaz pentsatu nuen une batez.

—Egia da. Hala sentitu nintzen. Baina ametsean kontua ez zen gaya izatea. Gizon edo emakume izatea zen. Ulertzen? Beti sentitu dut frogatu beharra nuela beste emakumeak bezalakoa nintzela, baina ametsean ez nintzen hala sentitzen. Emakume ere ez nintzen sentitzen.

Ilargiak Theresaren kopeta ilundua argitu zuen.

—Gizon sentitzen al zara?

Buruaz ezetz egin nuen.

—Ez. Hori da bitxiena. Ez nintzen ez emakume ez gizon sentitzen, eta gustatzen zitzaidan desberdina izatea.

Theresak ez zuen berehala erantzun.

—Aldaketa asko bizitzen ari zara orain, Jess.

—Bai, baina zer diozu nire ametsaz?

Theresak burko bat jaurti zidan.

—Uste dut lotan segitu beharko genukeela.

Ez dakit zer erantzun lortu nahi nuen Theresarengandik, baina ez hura. Nolanahi ere, auzia ez zen hain aise bukatu.

Udaren bukaera aldera, Edwin eta Grant etxera etorri ziren. Jan geroago iritsi zen, zenbait erosketa zorrorrekin. Janek eta haren maitale berriak, Katiek, oso deseroso ematen zuten, haserearen izan balute bezala.

—Hau egiazko krisia da —azpimarratu zuen Grantek—. Ala gure itxura aldatzen dugu ala goseak hilko gara! Katiek ileorde batzuk eta makillajea erosi ditu. Badira lanpostu gutxi batzuk,

esaterako saltegi handietan. Ene, ez dakit zuek, baina nik lana behar dut. Tarte baterako da, fabrikak berriz irekitzen dituzten arte.

—Katiek eta Theresak sukaldera ihes egin zuten.

Lau *stone butch* modazko ileordeak janzen. Halloween baltz bezala zen, kontu bakarra zen nazkagarria eta mingarria zela. Ileordeekin, bazirudien geure burua irrigarri jartzen ari ginela.

Grantek esan zidan:

—Bat jantzi dut, orain zure txanda da, Jess.

Edwinek ezezko keinua egin zuen, ispilua parean jartzen zidan bitartean.

Ileordea lurrera bota nuen.

—Emazte-gizon baten itxura handiagoa dut «ahate ipurdi» erako orrazkera batekin baino.

—Ba egizu nahi duzuna —oihukatu zidan Grantek.

—Utzi bakean, Grant —nik ere oihuka—. Uste duzu bel-durturik dagoen bakarra zu zarela?

Grantek aurpegia nirearen aurre-aurrean jarri zuen:

—Zer ostia egingen dut etxetik botatzen banaute, e?

Ez nuen harekin haserretu nahi.

—Begira, Grant, zuretzat balio badu, egizu. Baina inork ez nau kontratatuko ileorde alu horrekin. Eta makillajeak ere ez du funtzionatuko. Saski handi bat beharko nuke naizena ezkutatzeko.

Jan zutitu, eta alde egin zuen; halaxe. Ed sukaldera joan zen, Katieri esatera Janek alde egin zuela. Grantek eta biek, gogo txarrez, elkarri eskua eman genion.

—Laztana —esan nion Theresari—, inporta ez bazaizu, Ed, Grant eta ni Janen bila joanen gara, eta beharbada garagardo batzuk hartuko ditugu, bai?

Banekien Theresak ni gelditzea nahiko zuela, baina Katie ere oso atsekabeturik zegoen, eta buruaz baietz egin zuen.

Lauak mahai baten inguruan eseri ginen, isilik, West Sideko auzoko taberna bateko atzealdean. Nahiko hutsik zegoen. Janek, Grantek, Edwinek eta nik ez genion elkarri begiratzen. Gure garagardo botilei begiratzen genien, han topatzen ahal ba-genitu bezala bilatzen genituen erantzunak.

—Azkenaldian asko ibili naiz ametsetan —esan nuen—. Bart gauean amesgaizto hori izan dut; zerbait atzetik nuen eta, ihesean, amildegi baten ertzera iritsi naiz. Atzetik nuenari beldur

nion; ez nekien zer nuen aurrean. Eta halako batez erabaki dut nahiago nuela salto egin harrapatua izan baino.

—Zer esan nahi du? —galdegin zidan Grantek.

—Ez dakit —nik.

Grantek sorbaldak altxatu zituen:

—Badakit zer sentitzen den. Ez dakit zer esan nahi duen.

Edi begiratu nion. Bazekien zertaz ari nintzen. Banekien bazekiela.

—Roccoz pentsatzen aritu naiz —esan nuen.

Janek hasperen egin, eta baietz egin zuen buruaz. Erpu-ruaz garagardo botilako etiketa karrakatzen ari zen.

—Badakit zertaz ari zaren.

Baietz, nik.

—Ezin dut saihestu pentsatzea beharbada salbu egonen nintzatekeela, bai?

—Edek oraindik ez zidan begiratzen.

Grantek baietz, buruaz.

—Jainkoak lagun nazala, ni ere horretaz pentsatzen aritu naiz. Ginni izeneko emakumea ezagutzen duzue? Sexua aldatze-ko programa batean sartu zen; orain, emakumeak Jimmy esaten dio bere buruari.

Edwinek Granti begiratu zion:

—Eskatu zigun gizon gisa tratatzeko, oroitzen? Hala egin beharko genuke.

Janek botila mahaian utzi zuen.

—Bai, baina ni ez naiz Jimmy bezalako. Jimmyk esan zidan bazekiela gizona zela baita txikia zenean ere. Ni ez naiz gizona.

Grant aurreraka makurtu zen:

—Nola dakizu? Nola dakizu ez garela? Gu ez gara egiazko emakumeak ere, ezta?

Edwinek buruaz ezetz esan zuen.

—Ez dakit zer ostia naizen.

Harengana makurtu, eta eskua sorbaldan jarri nion.

—Nire laguna zara.

Edek ironiaz egin zuen irri:

—A, zoragarri. Horrekin alokairua pagatzen ahal banu bezala.

Sorbaldan jo nuen:

—Pikutara.

Grant barrara joan zen, beste erronda baten eske; Jan komunera joan zen. Ateko «Emakumeak» errotulari begiratu nion ireki ahala. Ez zen emakumerik atera lasterka, eta ez zen gizonik lasterka sartu, hura arrastaka ateratzera, beraz zuzen egonen zela pentsatu nuen.

Edek kolpetxoak eman zidan sorbaldan.

—Sentitzen dut —esan zuen.

—Zenbat denbora da lagunak garela, Ed?

Begirada jaitsi zuen.

—Beraz, nola ez didazu kontatu zertan ari zaren? Bazenekien asmatuko nuela, baina ez zenidan esan nahi.

Edek sorbaldak goratu zituen.

—Lotsaturik sentitzen naiz.

—Lotsaturik egin izanaz, edo lotsaturik bakarrik?

Grant mahaira itzuli zen, lau garagardori eusten. Jan geroxeago etorri zen. Edek begiak igurzten zituen behin eta berriz.

—Zer gertatzen da? galdetu zuen Grantek.

Edi begiratu nion.

—Ez dago zertaz lotsatu —esan nion.

Edek baietz egin zuen.

—Bai, badakit.

—Denak gaude bidegurutze berean, ez zu bakarrik —oroi-tarazi nion—. Lagunen aurrean ezin baduzu barnea ireki, nori demoniori hitz eginen diozu?

Edek hasperen egin zuen.

—Badakit horretaz hitz egin behar dudala.

—Norbaitek azalduko dit zer ostia gertatzen ari den hemen? —kexatu zen Grant.

Edek hasperen egin zuen.

—Hormona maskulinoak hartzen hasi naiz. Petrikilo nazkagarri horri erosi nizkion.

—Ostia —esan zuen Grantek—. Uau. E, nola deabru jakin duzu, Jess?

Sorbaldak goratuz:

—Ahotsa aldatzen ari zaizu, Ed. Pixkatxo bat. Sumatzen dut. Bestalde, jakin beharra dut, nik neronek kaka zahar bera baitut buruan.

Grantek ukabilez kolpetxoak jotzen zizkion mahaiari, disko-makinaren musikaren erritmoan.

—E, Ed, emanen didazu mediku horren izena? Ez dut esaten deus egin behar dudanik, baina ongi dago aukerak izatea. Ulertzen?

Edek baietz buruaz.

Mahaia jo nuen zapuzturik.

—Roccorekin hitz egin nahiko nuke. Norbaitek bai al daki non den?

Buruez ezetz esan zuten.

—Eta nolakoa da? Tarte baterako irauten du? Hau da, ge-roago mari-mutil izatera itzul zaitezke, seguruago denean?

Grantek irribarre tristea egin zuen.

—Halako film bat ikusi nuen behin. Gizon batek gaixotasun bat zuen, eta ez zegoen hartarako sendabiderik. Beraz, zientzialariek izoztu egin zuten. Beranduago, etorkizunean, eritasunerako sendabidea topatu zuten. Beraz, beste mediku batzuek desizoztu eta sendatu zuten. Kontu bakarra zen gizona iraganekoa zela. Ezin zen egokitu.

Malkoei eutsi nien.

—Bai, baina gu ez gaude gaixorik.

Janek baietz buruaz.

—Bai, eta zergatik uste duzu noizbait egoera seguruago izatera itzuliko dela? Beharbada bukaera izanen da gu bezalako jendearentzat. Beharbada hemen trabaturik geldituko gara betiko.

Janek burua beheratu zuen.

—Ahizpak esan dit Oleanera joan naitekeela berarekin eta bere senarrarekin. Esnetegi txiki bat daramate. Kontua da, haiekin joateko baldintza bat jarri didatela: bakarrik joan beharko nuke, Katie gabe. Esan didate ez dutela nahi alabek perbertituen gauzak ikustea.

—Janek ukabila zanpatu zuen mahaiaren kontra.

—Berrogeita lau urte ostia ditut, eta ahizpa txikiak tratatzen nau ama balitz bezala. Ez da zuzena. Ez da batere zuzena.

Baietz, nik:

—Zer egingen duzu?

Sorbaldak goratu zituen.

—Ez dakit oraindik —besoaz inguratu ninduen—. Suposatzen da ni naizela mari-mutil zaharra. Baina gustatuko litzaidake zaharrago batekin hitz egiterik izatea. Gustatuko litzaidake Ro Mari-mutila bizirik izatea. Jakinen zuen zer egin beharko genuen.

Irribarre tristea egin nuen.

—Ez dut uste, Jan. Ez dut uste gutako inork dakienik zer egin. Grant zutitu zen.

—Garagardo kutxa bat erosi behar dut, eta etxera joanen naiz telebista ikustera. Nirekin etorri nahi?

Buruaz ezetz egin nuen. Grant eta Jan elkarrekin joan ziren. Edek zamarra jantzi zuen.

—E, Ed —esan nion—. Hitz egin behar dugu, gizona. Hitz egiten ez baduzu lehertu egingen zara. Eta zurekin hitz egiteko behar handia dut. Beldurturik nago, Ed.

Edek azpiko ezpainari kosk egin, eta lurrera begiratu zuen.

—Gogoan duzu eman nizun liburua?

Espero nuen hari buruz galdeketa ez egitea. Estimatu nuen oparia, baina ez nuen irakurri.

—Bai, Du Boisen liburua?

Edek baietz.

—Zuretzat azpimarratu nuen paragrafo hori. Diru-zorroan daramat. Irakurri. Hala sentitzen naiz. Ezin dut hobeki adierazi.

Hain hurbil geunden, usain nezakeen haren larruaren eta ilearen urrina.

—Ed —xuxurlatu nuen—. Ez zaitut galdu nahi. Nire laguna zara. Asko maite zaitut.

Edek irmoki apartatu ninduen.

—Joan beharra dut —esan zuen—. Deituko dizut.

—Ed, zera, mediku horren izena?

Edek hasperen egin, eta izena eta helbidea idatzi zituen paperezko zapi batean.

—Zorte on —esan zuen.

Kolpetxoa eman nion sorbaldan.

—Eskerrik asko. Behar dut.

Kanpoan luze egon nintzen, eta hori ez zen zuzena izan. Mozkorturik iritsi nintzen etxera, eta ez nuen espero Theresa zain izatea. Hain geldirik zegoen sofán, iluntasunean. Kasik sa-bairaino jauzi egin nuen hitz egin zuenean.

—Non izan zara?

Haren ahotseko zerbaitek ikaratu egin ninduen.

Ondoan eseri nintzaion sofán. Hura ukitu nahi nuen, bai-na ohartzen hasi nintzen zein haserre zegoen nirekin. Handik

tarte batera, eskua luzatu, eta nire gorputz osoa haren kontra erakarri zuen. Haserre baino, atsekabetua zegoen.

—Barkatu, maitea, egiaz —esan nion—. Neronen buruan bakarrik pentsatu dut, eta sentitzen dut.

Baietz, hark.

—Non izan zara?

Denbora luzez ez nuen erantzun. Mozkorra eta nahasia nengoen.

—Badakit non egon naizen, baina ez dakit nora noan.

Besterik ezin izan nuen esan.

Aurpegira begiratu zidan, bitartean saiatzen zela nire pentsamenduak eta sentimenduak irakurtzen. Ez dakit bilatzen zuena aurkitu zuen, baina handik denbora batera burua laztandu zidan.

—Oroitzen Al Mari-mutilaz eta Jacquelinez hitz egin nizula?

Min keinua egin zuen.

—Theresa, sentitzen hasi naiz ni ere hondoratzen ari naizela.

Theresak begiratu egin zidan. Aldi berean lasai eta kezkatu rik zirudien.

—Jan, Grant, Ed eta ni solasean aritu gara kasik gau osoan —azaldu nuen.

—Hala dirudi —irribarrez Theresak—. Zertaz aritu zarete?

—Laztana, ezin segitu dut emazte-gizon gisa askoz luzeago. Ezin segitu dut sistemari aurrez aurre egiten orain arte bezala. Ez dut lortuko.

Theresak estuago heldu zidan. Ez zuen hitzik esan.

—Hormonak, hormona maskulinoak, hartzeko aukeraz aritu gara. Pentsatzen ari naiz beharbada saiatuko naizela gizon gisa bizitzen.

Zain gelditu nintzen, Theresak noiz hitz egingen. Arnasa aditzen nion, lasaia eta iraunkorra. Sorbalda eta besoa laztandu nizkion, eta gihar bakoitzaren definizioa sentitu nuen.

—Laztana, honetaz hitz egin behar dugu —esan nuen.

Denbora luzez nire ondoan isilik eserita egon zen. Orduan, hitzik esan gabe, zutitu, eta ohatzera joan zen.

•••

Asteetan ez genuen horretaz hitz egin. Ez genuen asko hitz egin oro har. Baina eztabaidarako arrazoi txikiak topatu genituen, leherketa txikiak, leherketa handiak pizteko mehatxu zirenak.

Sexuan ixten nintzenean, Theresa beti izan zen gauza nire harria urtzeko. Baina arroka emozional handi bihurtu nintzenean, asko itxi nintzenean, granitozko puska handi baten gisan eta hark ni zartatzea behar nuenean aske izateko, nire kontra oldartu zen. Ez zuen funtzionatu. Oraindik ere nire harrian harapatua nengoen.

—Hitz egidazu —oihukatu zidan.

—Telebista ikusten ari naiz! —gezurra.

Altxatu, eta telebista parean jarri zen.

—Ez didazu hitz egiten.

Hasperen egin nuen espantu handiz.

—Ongi da. Orain hitz egin nahi duzu. Zoragarri. Hitz egin dezagun —nire doinua zorrotza zen, kolpean itxitako ate bat bezalakoa.

—Berdin da —Theresa haserre bizian atera zen gelatik.

Telebistari begira jarraitu nuen. Logelako atea zanpateko batez itxi zuen. Orain gure arteko bi ateak zeuden itxiak.

Telebista itzali, eta erretzen hasi nintzen isiltasunean. Inguratzen ninduten harrizko paretak urtzen hasi ziren, eta zaurgarri eta biluzik sentitu nintzen. Orain, aurrez aurreko era-soaren ondoren Theresak atzera eginda, oroitu nintzen zenbat behar nuen.

Bat-batean ikaratu nintzen. Beharbada galdua nuen jada, oharkabean. Zutitu eta logelarantz joan nintzen, poliki. Theresak atea ireki, eta niregana etorri zen. Elkar besarkatu genuen sutsuki.

—Barkatu, maitea —esan nion—. Horrela jartzen naizenean ez dut jakiten nola atera.

Theresak besoetan estutu ninduen.

—Badakit, Jess. Nik ere sentitzen dut.

Marvin Gayeren musikaren zatiak aditzen nituen kanpotik, norbaiten irratitik.

—Badakizu zer nahiko nukeen? —galdegin nion—. Nahiko nuke oraindik ere gayen taberna bat izatea, dantzara joateko, lehen bezala.

Theresak hasperen egin zuen.

—Badira lesbianentzako dantzak unibertsitatean. Gustatuko litzaidake hara joaterik izatea. Gustatuko litzaidake gu biak norabait joan ahal izatea, ongi etorriak izanik.

Elkarri heldurik, musikarekin kulunkatu ginen. Theresa niregandik pixka bat bereizi zen. Goitik behera begiratu zidan irribarre batekin, eta hatza gerrikoan sartu zidan. Goxoki, logelara erakarri ninduen. Let's get it on, kantatu zuen apal.

Haserretzen ginen eta gero maitasuna egiten, konpontzeko. Ohitura kezkarri bihurtu zen.

•••

—Emakumea zara! —oihukatu zidan Theresak gosarian. Platera paretik baztertu zuen. Bere lanaldi erdiko aldi baterako lanak jartzen zuen jana mahai gainean.

—Ez, ez naiz —erantzun nion, nik ere oihuka—. Emazte-gizon bat naiz. Desberdina da.

Theresak esku ahurrez jo zuen mahaia, haserre.

—Hitz izugarria da. Min emateko esaten dizute.

Aurreraka makurtu nintzen.

—Baina esan didate. Larunbat gaueko mari-mutilei ez diete emazte-gizon esaten. Horrek zerbait esan nahi du. Gure desberdintasuna da. Ez du esan nahi bakarrik zera garenik... lesbianak.

Theresak kopeta ilundu zuen.

—Zer gertatzen da?

Sorbaldak goratu nituen.

—Deus ez, ez nuen aurretik sekula hitz hori esan. Zuk oso erraz esaten duzu. Baina niretzat lezzie eta lesbo irainen antz handia du. Mihiarekin biltzeko hitz gogorra zait.

Theresak eta nik elkarri irribarre egin genion, guk nahi gabe ere.

—Laztana —doinua aldatu zitzaidan—, zerbait egin behar dut. Bizi guztia eman dut ni naizena defendatzeko borrokan. Nekaturik nago. Besterik gabe, jada ez dakit nola jarraitu aurrera. Hau da bururatzen zaidan bide bakarra ni izaten segituta bizirik irauteko. Ez dut ezagutzen beste modurik.

Theresa aulkiaren bizkarraren kontra jarri zen.

—Emakumea naiz, Jess. Maite zaitut zu ere emakumea zarelako. Handitzen ari nintzela, erabaki nuen ez nuela nire desira

traizionatuko, onartuz gizon nekazari batekin ezkontzea, edo gasonidegiko mutil batekin. Ulertzen?

Buruaz ezetz esan nuen, triste.

—Nahiko zenuke ni mari-mutila ez izatea?

Irribarre, hark.

—Ez. Maite dut zure mari-mutiltasuna. Baina ez dut gizon baten emaztea izan nahi, ezta gizon hori emakumea bada ere.

—Beraz, zer egin beharko nuke? —esku-ahurrak gora begira.

Ezezko keinua egin zidan:

—Ba ez dakit.

Theresak eskatu zidan, bera lanean zen bitartean, lehorreko garbitegiko arropa jasotzeko, eta janari dendara joateko. Baina etxetik alde egin zuenean, galdurik sentitu nintzen. Atzeko patioan harat-honat ibili, eta Theresaren baratzearen ondoan belaunikatu nintzen.

Eguzkia goi-goian zegoenerako, eserita nengoen kuia-tilaren eta tomate-parren artean. Baratze hori Theresarengan ezagutzen ez nuen zati bat zen. Eta ohartzen hasi nintzen lursailtxo hori zela Theresaren haurtzaroko landa gogoratzeko posta-zigilu bat. Non nengoen ni Theresak baratze hori landatu zuenean, udaberrian? Orain gainezka zegoen.

Pentsatzen aritu nintzen, nola gauzak beren sasoian hazten diren, eta zenbat gauza gertatzen den lurpean. Pentsatu nuen baratzezainak kontrolatu ezin dituen gauzez, esaterako eguraldiaz eta xomorroez.

Ezaguna nuen Theresaren urratsek nire atzean, belarretan, egin zuten soinua, baina hala ere ikaratu ninduten. Ez nintzen ohartu arrastiria zela.

Oroitu nintzen nola lehenago, udan, baratzean topatu nuen, izerditan eta beroak gorritua. Ondoko belardian etzana-razi nuen eta lurraren kontra zapatu nire aldakekin, harik eta ezagunak nituen desirazko soinu txikiak egin arte.

—Jess? —Theresaren ahotsak oroitzapenak eten zituen—. Zertan ari zara nire baratzean?

Hasperen egin nuen.

—Pentsatzen.

—Lehorreko garbitegiko arropa jaso duzu? —galdetu zuen—. Edo dendara joan zara?

Buruaz ezetz, nik.

—Hemen egon zara egun osoan, eseria?

Baietz, nik.

—Kaka zaharra, Jess —marmarikatu zuen Theresak haserre, alde egiten zuela—. Ongi etorriko litzaidake laguntza pixka bat.

•••

Tabernan, Ed eta biak erne ginen hurbil genituen gizonekin.

—Nolakoa da, Ed? —premiatu nuen.

Sorbaldak goratu zituen.

—Ez da oso desberdina. Ez oraindik, behinik behin.

Ahotsa sakonagoa bihurtu zitzaion. Aurpegian ile pixka bat zuen.

—Gizontzat hartzen zaituzte? —galdetu nion.

Edek buruaz ezetz.

—Ez zaituzte gehiago ez gizontzat ez emakumetzat hartzen. Erdibideko zerbait bezala hartzen naute. Beldurgarria da. Nahiko nuke presatu eta gizontzat hartzen nauten egoerara iristea.

—Baina Ed, jendeak beti jokutzen du erdi-emakume erdigizon bagina bezala.

—Egia da. Baina orain jendeak ez daki zer naizen, eta horrek erotu egiten ditu. Begira, Jess, hau agudo aldatzen ez bada, ez dakit askoz gehiago jasaten ahalko dudan. Hormona txertoak bikoizten ari naiz, agudoago gerta dadin.

Eskua sorbaldan jarri nion. Bi gizon biratu, eta guri begira gelditu ziren. Eskua kendu nuen.

—Nola darama Darlenek?

Edek aurpegia niregana itzuli zuen. Begietako tristurak beldurra eman zidan.

—Ez dugu honetaz hitz egiten —esan zuen Edek.

Buruaz ezetz esan nuen sinesgogor.

—Ez duzue horretaz hitz egiten? Nola saihets dezakezue hain gauza handia? Zaude, zer ari naiz esaten? Theresak eta nik ere ez dugu komunikazio handirik, egia esan.

Ed eta biak isilik gelditu ginen, gure garagardoak irau-narazten. Harekin egoteak ongi sentiarazten ninduen. Taberna gizonetz betetzen hasi zen. Alde egiteko ordua.

—Badakizu zein den Theresarekin ez hitz egitearen zatirik makurrena —esan nion Edi, bereiztera gindoazenean—. Egiaz ez dakidala zer esan nahi dudan ere.

Theresa lo zegoen etxera iritsi nintzenerako. Ohatze barnera arrastatu, eta haren kontra bildu nintzen.

—Theresa —xuxurlatu nuen—, zuri gauza asko esaten saiatu naiz, baina ez dakit nola.

Hasperen egin zuen bere loan.

—Sentimendu hori dut, hurrengo borrokak lurrera botako nauela, eta hilen naizela, eta nire biziak ez duela esanahirik izanen. Egun batzuetan, adio esateko musua ematen didazunean, atean, asko haserretzen naiz zurekin, jokutzen duzulako segurutzat joz etxera itzuliko naizela, eta nik nahi dut adio esatea beharbada berriz elkar ikusi behar ez bagenu bezala.

Azpiko ezpaina hozkatu nuen.

—Batere baliorik ez banu bezala sentitzen naiz. Zuk maite nauzunean bakarrik sentitzen dut zerbait balio dudala. Eta zu galtzeko beldurra dut. Zer eginen nuke utziko baninduzu?

Saiatu nintzen negarra isilik egiten, hura ez iratzartzeko.

—Askotatik sentitzen dut askotan ergel baten moduan jokatu izana. Baina asko maite zaitut. Beharbada gehiegi. Mesedez, ez nazazula utzi, maitea. Mesedez, ez joan.

Theresak gorputza biratu, eta aurpegia ukitu zidan. Malakoak lehortu nituen.

—Jess, zerbait esan al duzu? —Theresaren ahotsa loarengatik erlastua zegoen.

—Ez, maitea —ilea laztandu, eta masailean musu eman nion—. Segi lotan.

•••

Theresa niri begira zegoen sukaldeko atetik, zinta belarra loreontziz aldatzen ari nintzenean.

—Loreontzi handiagoa duzu harraskaren azpian —oroitazid zidan.

Buruaz ezetz esan nuen.

—Honako hau hobea da zainak sobera handitu direnerako. Zenbat eta presio handiagoa erroetan, gehiago handituko da zinta belarra.

Theresa atzetik etorri, eta besoak gerri inguruan jarri zizkidan.

—Gu bezala, laztana?

Ez nuen erantzun. Theresak itzularazi egin ninduen, aurrez aurre jartzeko. Ezin izan nion begietara begiratu.

—Zer da, maitea? —premiatu ninduen.

Sorbaldak goratu, nik.

—Ez dakit besteek bezalako sentimenduak ditudan. Batzuetan nahi duzu nire sentimenduez hitz egitea, eta ezin asmatu dut ea besteak bezalakoa naizen nire baitan. Beharbada ez dut egiatzko sentimendurik.

Theresak ez zuen berehala erantzun. Burua sorbaldan jarri zidan, eta estuago erakarri ninduen.

—Jar zaitez, maitea —egin zuen hasperen.

Sukaldeko aulki bat erakarri zuen niregana.

—O, badituzu sentimenduak, maitea. Uste dut maitasuna sentitzen duzula, segur aski gainerakoek baino gehiago.

Nire eskua hartu zuen bereetan.

—Hainbeste gauza dituzu bihotzean, batzuetan izua ematen dit, zeren beldur naiz lehertuko ote zaren ez baduzu nolabaiteko segurtasun balbularik. Uste dut amorrazioa oso gogorra dela zuretzat. Beharbada zerorren amorrazioak beldurtzen zaitu. Eta nik uste umiliazioa denentzat dela maneiatzeko oso sentimendu latza, eta nik uste zu askotan sentitzen zarela horrela.

Kasik ezin izan nuen jasan haren hitzak aditzea. Temperatura handitu zitzaidan, eta zorabiatu sentitu nintzen. Theresak estuago hartu ninduen, eta masaila arinki laztandu zidan ezpaineekin.

—Lasai, maitea —xuxurlatu zidan.

Nik ere estu hartu nuen Theresa.

—Baina beharbada ez dut sentitzen besteek bezala. Beharbada nire hazteko moduak barnea aldatu dit. Beharbada landarea bezalakoa naiz: nire sentimenduak hain trabaturik daude, non desberdin hazi bainaiz.

Theresak irribarre egin zuen pentsamendua baloratzen zuen bitartean.

—Bai, beharbada horrek sentikorra egin zaitu besteen sentimenduekiko. Batzuetan hainbeste ikusten duzu jendearen baitan, biluzik sentitu ohi nintzen zuregandik hurbil.

Hasperen egin nuen.

—Zergatik izan behar dute sentimenduek halako afera handia?

Theresak, irribarrez:

—Esan nahiko duzu zure sentimendueak, maitea. Zuk beti hartzen dituzu besteen sentimendueak afera handia balira bezala. Zaila da zuretzat, maitea. Baina ez nazazula kanpoan bakarrik utzi.

Kopeta zimurten nuen.

—Zer esan nahi duzu?

—Esan nahi dut —Theresak, atsegin—, nik ere baditudala sentimendueak gertatzen ari zaigunaz. Eta, egiaz, soilik zurekin egiten ahal diet aurre, eta batzuetan ez zaude etxean. Oroitzen joan den urtean, traje bat erosi behar genizunean? —galdetu zuen.

Minez, aurpegia ilundu, eta oroitzapenari ihes egin nion.

—Jess —Theresak gogora ekarri zidan—. Amesgaiztoa izan zen. Ni ere han nintzen, oroitzen? Biak sentitu ginen umiliaturik. Etxera itzuli ginenean munduan ezin nuen beste inorengana jo, zu ez beste. Baina ordurako zure baitan itxita zeunden, eta banekien egunak edo asteak iraganen zirela zu berriz lasaitu arte. Behar zintudan.

Nire eskuei begiratu nien, laxo elkaturik nire altzoan.

—Badakizu nola sentitzen naizen batzuetan, Theresa? Zuri deus emateko ez banu bezala. Dudan edozein gauza emanen nizuke, baina sentitzen dut ez dudala zuretzako oparirik. Egiaz. Indartsua zu zara, zu zara gauza guztiei eusten diena, zuk ateratzen gaituzu aurrera. Egin dezakedan gauza bakarra da zu maitatzea.

Theresak eskuak bereizi zizkidan.

—Maita nazazu, Jess. Horrekin aski da. Baina, mesedez, saia zaitez batzuetan niri sartzen uzten.

—Saiatu naiz esaten zerekin aritu naizen borrokan azkenaldian, baina ez duzu horretaz hitz egin nahi izan —sorbaldak goratu nituen—. Ezin dut askoz luzeago iraun zerbait aldatu gabe.

Theresak hasperen egin zuen.

—*Femme* naiz, Jess. Mari-mutil batekin egon nahi dut. Eta emakumeen mugimenduko zati gisa sentitzen hasi naiz, nahiz eta ezin naizen izan ni neroni osorik, nire alderdi guztiekin, denbora guztian. Nire mundua zabaltzen ari da.

—Zoragarri —purrustaka—. Nirea txikitzen ari da. Baina hormonak ispilu bat bezalakoak dira. Ispilua zeharkatzen badut, nire mundua ere handitzen ahalko da.

Theresak ezezko keinua egin zuen.

—Ez dut gizon batekin egon nahi, Jess. Ez dut halakorik eginen.

—Oraindik ere mari-mutila izanen naiz —esan nuen protestan—. Baita hormonak hartuta ere.

Orduan nire egiazko beldurra zen zerbait esan nuen, baina ahots goran aitortzeaz damutu nintzen.

—Beharbada nahiagoko zenuke ni gizona izatea. Errazagoa izanen litzateke nirekin egotea.

Theresa aulkiaren bizkarraren kontra jarri zen, eta haren ahotsaren beroa hoztu egin zen.

—Ezpainak pintatu, takoi handiak jantzi, eta zurekin ibiltzen naiz karrikan besotik hartuta, Jess. Nire bizia da, eta behar bezain ausarta naiz maite dudana maitatzeko. Ez saiatu ni naitzena niregandik kentzen.

Kokotsa dardarka esan nuen:

—Ongi da, zer uste duzu izanen dela niregandik kendua? Zer ostia eginen dut, Theresa? Esan, zer egin dezaket?

Zurrun gelditu nintzen besoekin inguratzen ninduela.

—Ez dakit, Jess —xuxurlatu zuen—. Jada ez dakit.

•••

Theresa eta biak sofan egon ginen luze, hitz egin gabe. Biak ere higaturik eta ahul geunden, hainbeste hilabeteko eztabaida txikien eta distantziaren ondorioz.

—Erabakia duzu, ez da hala? —galdetu zidan. Banekien haren doinua hark nahi baino hotzagoa zela.

Buruaz baietz esan nuen.

—Bai, ehunka aukeren artetik hautatu dut —ez nuen hain sarkastikoa izan nahi—. Jainkoa, Theresa, oso izutua nago. Ez dut hil nahi, eta ez dakit nola bizi. Oso beldurtua nago.

Theresak beregana hurbildu ninduen. Hain estu hartu ninduen, zaila egiten zitzaidan arnasa hartzea.

—Edozein gauza eginen nuke behar bezain indartsua izateko, zu babesteko —esan zuen—. Edozein gauza eginen nuke

zu nirekin seguru izateko. —Hatzak ezpainetan paratu zizkidan, isilarazteko—. Beharbada ulertzen dut esaten ari zarena. Baina ez dut onartu nahi zuzen zaudela uste dudala.

Arindua sentitu nintzen. Hura besarkatzen saiatu nintzen, baina gorputza indarririk gabe zuen. Erakarri nuen, haren aurpegia aztertzeke. Oraindik ez zuen hitz egitez bukatu.

—Ni ere beldurtua nago —segitu zuen—. Mari-mutil batekin ez banago, denek usteko dute heteroa naizela. Irudiko luke ni ere aldeztatzen ari naizela, nire gogoaren kontra. Gogor bozkatu naiz lesbiana gisa baztertua izateko.

Irribarre egin genuen biek.

—Zure erabakia hartu duzu —esan zuen—, badakit baietz. Ez nago oso harritua. Zuregatik oso beldurtua ibili naiz.

Malkoak aurpegian behera hasi zitzaizkion. Lehortzen saiatu nintzen, baina eskuak kendu zizkidan, eta berak bakarrik eutsi zien.

—Baina nik ezin egin dut, Jess. Ezin naiz munduan zurekin ibili eta gizona zarelako itxurak egin. Ezin egin dut heteroa banintz bezala eta zoriontsu izan. Ezin naiz bizi 3G apartamentuko bikote beldurtua bezala, gauza ez dena jendeaz nahikoa fidatzeko eta lagunik ez duena. Ezin naiz iheslari batekin bezala bizi zurekin. Ez nintzateke bizirauteko gai izaneren, Jess. Mesedez, saiatu ulertzen, laztana.

Niregandik bereizi nuen.

—Zer ari zara esaten?

Ezezko keinua egin zuen. Mantso zutitu nintzen.

—Zer ari zara esaten? Ez zarela nirekin egonen? Zergatik? Hori da nirekiko duzun maitasuna?

Theresa zutitu, eta niregana hurbildu zen.

—Mesedez, laztana. Ezin dut. Ezin naiz zurekin egon hori egiten baduzu.

Amorrazioa irakiten nuen zintzurrian.

—Maiteko baninduzu...

Theresaren aurpegia hoztu eta haserretu zen.

—Ez iezadazula berriz halakorik esan.

Begiak haserre malkoz bete zitzaizkidan.

—Tira, egia da, ezta?

Presio guztia askatu zen Theresa negarrez hasi zenean. Aurpegia nire lepoan ezkutatu zuen.

—Ez du esan nahi maite ez zaitudanik. Hainbeste maite zaitut, ez baitakit zer egin. Baina ezin naiz zurekin joan. Saiatzen naiz zu ulertzen. Ezin zara saiatu ni ulertzen?

Buruaz ezetz esan nuen.

—Zergatik inork ez dit bizian aukerarik ematen? Ezin dut honela bizitzen segitu, baina zuk ez duzu gurutzatuko zabalik dudan atari bakarra. Mila esker.

Theresak gogor jo ninduen soingainean. Eskumuturretatik hartu nuen. Indarka aritu ginen, harik eta, ahul, bata bestearen kontra erori ginen arte. Elkarren ondoan eseri ginen sofan.

—Ez dakit bestela nola biziraun dezakezun —esan zuen Theresak—. Baina nik ezin dut horrelakorik egin.

Eztarria estutu zitzaidan. Erabakia aldatuko zuen esperantza nuen.

—Ez saiatu nire erabakia aldatzen —erantsi zuen. Beti irakurtzen zidan gogo— eta ni ez naiz saiaturiko zurea aldatzen, bai? Sinesgogor begiratu nion.

—Mesedez, laztana, ez nazazula orain utzi. Beldurturik nago. Oso gogorra da. Mesedez!

Theresa saltoan zutitu zen.

—Aski da —exijitu zuen.

Min handiegia ematen zion. Berriz hurbildu nintzaion. Harrengana joan, eta aurpegia niregana erakarri nuen, goxo.

—Zer nahi duzu nik egitea? —galdetu nion.

—Hobe duzu alde egitea —esan zuen besterik gabe.

Bitxia zen zenbat maite nuen eta zein urruti sentitzen nintzen.

—Egiaz?

Baietz egin zuen buruaz, eta leiho aldera joan zen, iluntasunean ikusten ahal balu bezala.

—Behar dituzun gauzak bilduko dizkizut. Lagunek lagunduko dizute.

Oraindik iruditzen zitzaidan ezin zela halakorik gertatu.

—Zaude —esan nuen—. Saiaturiko gara? Behar zaitut!

—Ez dakit zer egin bestela —esan zidan Theresak—. Orain nire bidea bilatu behar dut. Ni ere hondoratzen ari naizela sentitzen dut. Oraingoan ezin dugu elkar salbatu.

Lurrera begiratu nuen.

—Eta hormonak hartzeari eta gizon gisa bizitzeari uko egiten badiet?

—Orduan beharbada karriketetan hilen zaituzte, edo zure buruaz beste eginen duzu eroturik, ez dakit.

Isilik gelditu ginen.

—Noiz nahi duzu alde egitea?

—Gaur gauean —esan zuen Theresak, eta hondoratu eta negar zotinka hasi zen.

Estu besarkatu nuen, azkeneko aldiz.

Arrazoi zuen. Behin biek ulertu genuenean ezin genuela segitu, alde egin behar nuen. Mina jasanezina zen jada. Theresak nire aurpegia ferekatu, eta errepikatzen zuen:

—Asko maite zaitut.

Baietz esaten nuen buruaz, malkoak aurpegian behera zurrustaka. Banekien egia zela, baina nire barneko zati bat haren kontra amorraturik zegoen, ez ninduelako behar adina maite, elkarrekin segitzeko.

Logelara joan, eta arropa batzuk sartu nituen motxila batean. Banekien Theresak gainerako gauzak bilduko zituela, txukun.

Theresak ateraino lagundu zidan. Ezin genien malkoei eutsi, baina negar zotinei eusten saiatu ginen.

—Nire zati batek zurekin joan nahi du —esan zuen—. Baina hala eginen banu, zure bizia bizitzen ariko nintzateke, ez nirea. Nire erabakiaren errua zuri botatzen bukatuko nuke.

Aurpegia laztandu zidan hitz egin bitartean. Haren hatz puntak atsegin handia ziren nire azalean.

Lurrera begiratu nuen.

—Nahiko nuen hainbeste gauza esan izana zuri. Ez nuen inoiz hitzik aurkitu.

Irribarre egin, eta buruaz baietz.

—Idatzi gutun bat noizbait.

—Ez dut jakinen nora bidali.

—Idatzi, nolana ere —esan zuen.

—Egiaz bukatu da? —galdetu nion.

Baietz, buruaz.

Elkar musukatu genuen ahal bezain sakon. Ondoren fisikoki bereizi ginen. Ataria zeharkatu nuen, buelta eman, eta begiratu nion. Irribarre egin zuen, kasik barkamena eskatuz. Baietz egin nuen buruaz. Atea itxi zuen.

Bat-batean gogoratu zitzaizkidan esan behar nizkion gauzak, baina banekien ez zuela orduantxe aditu beharrik. Eskailera buruan gelditu nintzen tarte batez. Baina bururatu zitzaidan Theresak lagunen bati deituko ziola kontsolatzeko, eta ez nuen eskaileretan egon nahi.

Eskailerak jaitsi, eta atzeko patiora atera nintzen. Esnetarako zurezko kutxa bat irauli, eta hartan eseri nintzen. Zerua beltza eta izarrez zipriztindua zegoen. Munduan bakarrik banengo bezala sentitu nintzen. Hain beldurtua nengoen, ezin bainuen kasik arnasarik hartu. Ez nekien norantz nindoan. Ez nekien zer egin nire biziarekin. Ez nekien ezta norako bidea hartu ere.

Gau osoa eman nuen kutxa haren gainean, zeruari begira. Batzuetan negar egiten nuen, batzuetan egonean egon. Eginahala egin nuen nire etorkizuna igartzeko, nire aurrean errepide bat irudikatu nahirik, ikusi nahian nor bihur nintekoen.

Gaueko zerua eta izarrak nire gaineko aldean: horixe zen ikus nezakeen guztia.

14

Gaueko zerua argitzen hasi zen, beltzetik indigora. Oraindik ere kutxa hartan eserita nengoen, gure atzeko patioan. Laster eguzkia altxatuko zen. Ez nuen han egon nahi Theresak eta gainerako mundu guztiak eguna hasten zutenean.

Zangoa Nortonaren gainetik pasatu, eta motorra abian jarri nuen. Motoa nire zango artean orro batean iratzartzen zela, kaskoa lotu, eta begi-babesa jaitsi nuen. Une horretan hortxe topatu nuen nire mugikortasuna eta babesa: moto horretan, kasko azpian.

Egunsentiak zerua tindatzen zuen bitartean, hiri isileko karriken labirintoan barna ibili nintzen. Lainoa asfaltoari itsasten zitzaion, airean zintzilik, kea bezala. Euri langarra hasi zuen. Nire etorkizunerantz nindoan, ametsa baino ez balitz bezala. Euria gogorrago hasi zuen nire kontra. Urak tantaz bete zidan kaskoa, lepondoan behera erortzen zitzaidan errekastoetan, eta atorra mela-mela eginda uzten zidan larruzko zamarraren azpian. Blue-jeans bustiak tenkaturik eta hotz nituen izterren kontra. Karrika-izkina bakoitza krisi berri bat zen. Ezkerretara? Eskuinetera? Zuzen?

Azkenik, goseak karriketatik atera ninduen, eta Loblaw's supermerkatu batera sarrarazi. Janen etxera deitu nuen. Eran-tzunik ez. Ez nion Edi hain goiz deitu nahi, Darlene lo egonen zelako.

Plastikozko zorro bat gereziz bete nuen, eta korridoreetan gora eta behera ibili nintzen horiek jaten. Blue-jeansak zangoetara itsasten zitzaizkidan mugitu ahala. Segitu nien eresketa

egiten ari ziren emakumeei, zerealez eta hurrez betetako gurdiak bultzatzen zituztela.

Begirada iltzatzen zidatenak, beste aldera begiratu aurretik, ongi segurtatzen ziren beren nazkaz jabetzen nintzela. Jabetzen nintzen.

—Jess? —ahotsak ustekabea eman zidan. Buelta eman, eta ezaguna zitzaidan emakume bat ikusi nuen aurrez aurre. Haur bat haren zangoak estu besarkatzen. Besteak eskutik hartzen zuen, eta begira-begira nuen.

—Ni naiz: Gloria. Oroitzen? Elkarrekin aritu ginen inprimategian. Eskolatik aterata aritzen zinen lantokian.

Baiezko keinua egin nuen, baina nire buruak gaza batean bildurik zirudien. Saiatu nintzen haren hitzei segitzen, ziztu bizian esaten zidala: dibortziaturik zegoen, arduraduna bera limumurtzen saiatu, eta lana utzi zuen. Eta niri buruz, zer berri?

Azkeneko galderak ustekabean harrapatu ninduen. Sorbaldak goratu nituen.

—Denbora baterako leku bat bilatzen ari naiz, lana eta apartamentua bilatzen hasteko. Bidenabar —esan nion—, beti eman nahi izan dizkizut eskerrak taberna haien izenak emateagatik. Bizia aldatu zidaten.

Gloriak urduri begiratu zien hurrei.

—Hau Scotty da, eta hau Kim. Esan kaixo Jessi. Jessek eta biek elkarrekin egiten genuen lan.

Scotty Gloriaren zangoen atzean ezkutatu zen. Kimek aho zabalik begira segitzen zuen. Haren begiradak deseroso sentiarazten ninduen, baina hartan ez zegoen batere etsaitasunik. Kimen aurpegia zirrarez beterik zegoen, banintz bezala su artifizialen ikuskizun bat zeru iluna argitzen.

—Gurekin geldi zaitezke gaur gauean, nora joan ez baduzu. Sofan, esan nahi dut —Gloriak bere helbidea eman zidan—. 7:30en ondoren —esan zuen—, haurrak ohatzean sartu ondoan. Ordura arte denbora-pasa luzea nuen.

Gasolina hartzeko gelditu nintzen. Auto ilarak etxe-saila inguratzen zuen. Egunkarietako izenburuak gasolina faltaz zala-partaka zebiltzan, eta jende gutzia izutu zuten.

—Txantxetan ariko zara —kexatu nintzaion zerbitzariari, ikusitakoan zenbat balio zuen depositua betetzeak.

—Ez bota niri errua —esan zuen—. Bota errua arabiarrei. Potroetatik gaituzte harrapatuak.

—O, tira —nik, ibaia seinalatuz—. Petrolio-ontzi beteak hantxe daude ainguraturik, prezioak zeruraino noiz igoko zain.

Banekien: saiatu nintzen aldi baterako lanen agentziak haietara bidal nintzan, lasta-sotoak garbitzera, baina esan zidaten gizonen lana zela.

Behin I-190 errepidea hartuta, iparraldera jo eta ederki azeleratu nuen, sentitzen nuen guztia adituz motorraren orroan.

Arrastirian, berriz ere hirirako bidea hartu nuen. West Sideko pizzeria batean gelditu nintzen, oilasko-hegalak jateko. Barran zain egon nintzen, pazientzia galtzen hasi arte, baina bestaldeko gizonak ez zidan zerbitzatu nahi. Buelta eman nuen, ikusteko zeri begira zegoen. Ikusi nuen mahai bat kirolariz betea, niri begira.

Barran kolpetxoa jo nuen:

—Barkatu.

—Nor dugu hemen? —gizon baten ahotsa, nire atzean.

Alde egiteko unea zen.

Gizonetako batek irteera bakarra moztu zidan. Gogor bul-tzatu nuen, eta aparkalekura joan nintzen lasterka. Motora jauzi egitean irauli egin nuen. Asfaltoan botea utzi, eta lasterka alde egin nuen. Birikak min ematen zidaten, lehertzear baleude bezala, baina ez nintzen gelditu harik eta zenbait etxe-sail igaro arte. Azkenik zuhaitz baten azpian eseri nintzen, arnastetuka. Nire baitan galdegin nuen ea segurua ote zen motoaren eske itzul-tzea.

Kasik iluna zegoen bueltatu nintzenerako. Jatetxearen parean nintzen, karrikaren beste aldean. Barnean ez nuen inor ikusten, barrako zerbitzaria izan ezik. Nortona aparkalekuan topatu nuen. Motoan ez zegoen gauza askorik hautsia edo bihurritua ez zegoenik. Burdinazko tresna batekin edo beisbol bate batekin txikitu zuten, nonbait.

Nire kolkorako galdegin nuen nola deseginen zituzten goma lodizko gurpilak.

Banekien moto bat besterik ez zela, baina sentitu nintzen arima bat banintz bezala asfaltoan zetzan neronen gorputz mutilatuari begira. Hondamendi hartatik alde egin nuen. Ez zegoen salbatzerik.

Izugarri kostatu zitzaidan Gloriaren etxera iristea. Buffalon, hil zaitezke autobus baten zain. Gloriari ez nion esan zer gertatu zitzaidan, jadanik nahikoa deseroso geunden elkarrekin. Galdetu nion ea telefonoa erabil nezakeen. Baietz, baldin oso luze ez bazen. Dei baten zain omen zegoen.

Edwini deitu nion. Ahotsa hutsa eta hotza aditzen nion. Darlenek bere gauzak bildu, eta etxetik alde egin zuen.

—O, Jainkoa, asko sentitzen dut —esan nion—. Nik eta Theresak ere hautsi dugu.

Isilik gelditu ginen. Ez nekien nola eman adorea.

—Nire bila etor zaitezke, Ed?

—Darlenek hartu du autoa —Edek.

—Autoa hartu du? Hain gaizki joan al da kontua?

Edek nik bezala ematen zuen. Tontoturik eta isolaturik.

—Ez, autoa har zezala utzi diot.

Gloriak niri arreta deitu eta erlojuari begiratu zion.

—Ed, ez dut motorik. Kontatuko dizut beste batean. Deituko dizut, bai? Eutsi. Ongi zaude?

Ez dakit seguru zer erantzun zuen.

Gloriak lagun bati, neska bati, deitu zion. Aditu nuen nola egiten zuen negar isilka, hizketan ari zirela.

Sofan etzan nintzen. Nire biziko zati handia iragana nuen beste batzuen sofetan. Ordura arte, neure buruari ez nion utzi egiaz deus sentitzen Theresarekin moztu izanaz. Kasik ahots goran egin nuen negar, baina emozioak estutu nituen tornikete batek bezala. Han ez nuen pribatutasunik, ez nuen munduan tokirik dolua seguru egiteko. Beraz, dolua indarrez zapatu, eta nuen ihesbide bakarra aurkitu nuen: loa.

Marrazki bizidunen zalapartarekin iratzarri nintzen. Begiak sutan nituen. Handituak, ezin ireki. Kim eta Scotty lurrean eserita zeuden, lo egin nuen sofaren kontra bermaturik. Kimek sorbalda gaintetik begiratu zidan.

—Iratzarri da? —galdetu zuen Scottyk.

—Bai —erantzun zuen Kimek—, iratzarri da.

•••

—Hobeki zaude hura gabe, haurra —esan zidan Grantek—. Komunista zikin bat zen.

Arnasa sakon hartu nuen.

—Ez, Grant. Maite dut Theresa. Oso atsekabeturik eta minberaturik nago orain. Kontuz, non sartzten duzun hatza.

Grantek sorbaldak goratu zituen.

—Tira, Theresa ahazteko eta aurrera egiteko garaia da.

Txilibituak jo zuen zalaparta betean. Grant eta biak jantoki aldera joan ginen, paleten artean; haietan, kutzak hain gora zeuden pilaturik, desertuko muinoak baitziruditen.

Kontent nengoen lana edukitzeaz. Atzeraldi ekonomikoa sakontzen ari zen. Ford, Chrysler eta General Motors enpresek kaleratze handiak iragarri berri zituzten.

Granti esker jakin nuen aldi luze baterako lanpostu hura zegoela kutxa fabrikan. Estantpatzen genituen uhin-kartoiak, pizza kutxak... era guztietako kutxak. Buruko mina nuen, ebakidurak egiteko mailu pneumatikoen erritmo arritmikoak eragina.

—Beraz, bizilekurik topatu duzu? —Grantek.

Baiezko keinua, nik.

—Bai. Gloriaren etxean bukatu dut, hilabeterako, nahikoa diru aurreztu arte.

Grantek irribarre egin zuen.

—Hain luze utzi dizu bertan egotea? Beharbada gustuko izanen zaitu.

Buruaz ezetz, nik.

—Ez, kontua da ongi heldu zitzaioa. Gaez egiten du lan. Haurrak eskolara eramaten nituen haren autoan, eta gero haien eske joaten nintzen, etxera iritsitakoan lo egin zezan. Eta gero bigarren txandan hasi nintzen. Ezin hobea zen. Gustatzen zaikit haren haurrak. Asteburuetan ere hor barna ateratzen ditut batzuetan.

Grantek irri gaiztoa egin zuen.

—A zer familia girotxoa.

—O, Grant. Utzazu hori. Aizu, baduzu Eden berririk?

Biek elkarri begiratu genion, ustekabea. Une batez ahaztu zitzaidan tabernako borroka, Grantek Ed zanpatu zueneko, amorrazioa gaizki bideratuta. Ez nuen batere maite Granten alderdi hori, hain zitala eta gorrotagarria.

Grantek ikusi zuen oroitzen ari nintzela.

—Edek ez ninduen inoiz gustuko izan —esan zuen—. Ez ninduen gustuko zuria naizelako.

Ezezko keinua, nik.

—O, hori ez da egia, Grant. Zurekin haserre dago esan zenezikion gauzengatik, tabernan haren kontra borrokatu zinenean. Grantek begirada jaitsi zuen.

—Jesus, esan nuen sentitzen nuela.

—Tira, Grant! —mahaiari zaplada jo nion—. Eta norbaitek deituko balizu perbertitua edo anormala eta gero esanen balizu sentitzen duela oihu egin izana? Ez dut ulertzen, Grant. Lanean ikusi zaitut; atsegina zara denekin.

Grantek begiak igurtzi zituen.

—Tira, batzuetan nire ahoak ez daki nire buruak adina, batez ere sobera edan dudanean. Sorbaldak goratu zituen—. Al-proja hutsa naiz batzuetan.

Nire baitan galdetu nuen nor ote zen Grant, min eta amorrazio geruza guztien azpian.

Grant atzeraka jarri zen eserlekuan.

—Egin behar al duzu?

Banekien zertaz ari zen: hormonak.

—Bai. Ez dakit zer egin bestela.

Grantek kafea jarri zidan bere termotik.

—Askoz errazagoa litzateke sexua aldatzeko klinikara joan bagina. Orduan hormonak dohainik emanen lizkigukete. Eragozpen bakarra da azterketa horiek denak egin behar dituzula, eta familiakoei elkarriketa eginen dietela, eta hori dena.

Sorbaldak goratu nituen.

—Bai, baina nik hormonak bakarrik nahi ditut. Eta ebakuntza.

Grantek begiak zabaldu zituen.

—Zer ebakuntza mota?

Keinu egin nuen.

—Zein izanen da ba? Ez dut honelako bularrik izan nahi gehiago.

Grantek txistu egin zuen apal.

—Nola dakizu ez zarela transexuala? Beharbada programara joan beharko zenuke, eta ebatzi.

Ezezko keinua egin nuen.

—Telebistan ikusi dut. Ez naiz sentitzen gizon bat emakume baten gorputzean harrapatua. Harrapatua bakarrik sentitzen naiz.

Grantek kafe pixka bat edan zuen.

—Ez dakit. Beharbada gizona naiz eta makur jaio nintzen. Horrek zera asko azalduko luke.

—Beraz, zergatik ez zara programara joaten? —nik.

Irribarre egin zuen, pentsakor.

—Zeren, eta ez banaiz? Eta azkenerako uste dudana baino zerbait makurragoa banaiz? Agian hobe da ez jakitea.

Irribarre egin, eta eskua bere eskuaren gainean paratu nion. Ingurura begiratu, eta eskua kendu zuen. Hasperen egin nuen.

—Ez dakit zer ostia naizen. Besterik gabe, ez dut gehiago desberdina izan nahi. Ez dago ezkutatzeke lekurik. Nahi dudana bakarra da gauza guztiek hainbesteko mina emateari uztea.

Txilibitua aditu zen berriz. Grant lanera joateko zutitu zen.

—Nik kasik nahikoa diru dut hormonetarako. Zuk?

Sorbaldak goratu nituen.

—Zenbait txanda bikoitz lortzerik banu, laster izanen nuke dirua.

—Itxoinen dizut —esan zuen Grantek.

Une batez eskua nire sorbaldan pausatu zuen.

•••

—Lagunduko didazu nire Texaco gasolindegia muntatzen?

Scottyk eskutan zuen zorro bat kolore biziko plastikozko piezaz bete. Alfonbran jarri nintzen, eta zati guztiak barreiatu nituen.

—Nola dakizu non jarri behar diren piezak? —galdetu zuen Scottyk.

Jarraibideak hartu nituen.

—Hau dut. Mapa baten antzekoa da. Esaten dit hau dela A eta hau dela B, eta elkarrekin paratu behar direla —ez zitzaitzion elkarri egokitzen—. Esan nahi nuen hau dela A eta beharbada hau dela B.

Ez ziren. Isilik egin nuen lan.

Pet Rock harri maskoten iragarki bat agertu zen telebista pantailan. Scotty kexatu zen:

—Harri maskota bat eduki nahi nuke.

—Harri maskota bat? —nik, irriz—. Zer da hori?

Telebistara seinalatu zuen. Burua laztandu nion.

—Ez kezkatu, egiazko harri on bat ekarriko dizut.

Scottyk bira eman zuen sabel gainean, eta oso hurbil begiratu zidan.

—Ez duzu kolaz itsatsi behar harik eta seguru zauden arte piezak non jarri, eta alfonbran egunkari bat paratu behar duzu —ohartarazi zidan—. Badakizu zer izanen naizen handitan?

Gasolina hornigailu txiki bat eta gauza ezagutezin bat hartu nituen eskutan. Nork daki zergatik, egokitzen zitzaizkion elkarri.

—Zer?

—Haizea izanen naiz.

Kimek begiak gora eraman zituen.

—Oso arraroa da. Kanpoan esertzen da, haizea sentitzeko.

Scottyri irribarre egin nion.

—Hori ez da arraroa. Handitzen zarenean haizea bihurtzen bazara, motoan nabilenean kaskoa kenduko dut, eta nire ile artean ibiliko zara.

Kimek ezezko keinua.

—Hori arriskugarria da.

Baiezko keinua, nik.

—Bai, arrazoi. Zergatik ez zara eguzki argi bihurtzen, Scotty? Hala, beroa emanen zenidake.

Scottyk ezezko keinua egin zuen indar handiz, alde bate-tik bestera.

—Ez. Haizea.

Kim urrutira begira zegoen.

—E, Kim? —deitu nion—. Zer izanen zara handitan?

—Ez dakit —erantzun zuen.

—Ongi da —esan nion—. Ez duzu orain jakin beharrik.

Kimek kezkatu zirkulazioa.

—Amak dio zerbait berezia izan behar dudala handitutakoan.

Eskua buruan jarri nion.

—Jadanik bazara —esan nion.

Duda egin zuen aurpegira begiratzen zidan bitartean. Gero irribarra handitzen hasi zitzaion, belaki lehor bat urean sartzean bezala, aurpegi osoa hartu zion arte.

Gloria lanetik goiz etorri zen, gastroenteritisak jota. Eskatu zidan gaua bertan pasatzeko eta goizean haurrak eskolara

eramateko. Aurpegi txarra zuen. Ohatzera joan zedin premiatu nuenean, ez zuen eragozpenik jarri.

Biharamunean, Scotty lozorrotik esnatu zen kolaz itsatsita balego bezala. Kimek begiak ireki, zut-zuta eseri, eta besarkatu ninduen.

Opil txikiak egin nituen gosaritarako. Saiatu nintzen mahaspasekin aurpegi irribarretsua egiten, baina opilei buelta ematean mahaspasak orean hondoratu ziren.

—Uste dut irribarrea topatu dudala —iragarri zuen Kimek, sardexkarekin opila hartuta.

Scotty Kimen platera aztertzen ari zen.

—Hori begia da —esan zuen.

Neronen burua irriz aditu nuen. Gogora ekarri zidan ur minerala lurretik borborka ateratzen.

—Ezkondurik al zaude? —galdetu zidan Kimek.

Nire hatzeko eraztunari begiratu nion. Zintzurra estutu zitzaidan.

—Jadanik ez.

Scottyk baiezko keinua egin zuen.

—Ama eta aita *diborsiatu*rik daude.

—Dibor-tziaturik —zuzendu zion Kimek—. Norekin zeunden ezkondua?

Argi hitz egiten banien, Gloriak debekatuko ote zidan haiekin egotea? Sakon hartu nuen arnasa.

—Theresa du izena.

Kimek informazioa bereganatu zuen.

—Polita zen?

Irribarre, nik.

—Oso polita.

Kimek kopeta zimurtu zuen.

—Zaude pixka batean. Neska bat ezin da beste neska batekin ezkondu.

Scottyri ziropa kokotsean beheara zihoakion mantso.

—Bai, badaiteke —esan zuen.

Erpuruaz lehortu nion kokotsa.

—Ez, ezin dute, ergela —esan zion Kimek. Niri begiratu zidan—. Irakasleak dio mutikoak eta neskatoak elkarrekin ezkonduko direla handitutakoan.

Erlojuari begiratu nion. Kasik eskolara eramateko ordua nuen.

—Bueno, Kim, irakasleek gauza asko dakizkitez, baina ez dakitez dena. Bukatu gosaria.

Kimek opil txikia labankatu zuen, haserre, ez niolako behar bezala erantzun. Hasperen egin nuen

—Begira, edozein maitemindu daiteke edozeinekin —esan nion—. Mutil bat eta neska bat maitemintzen badira, denak oso atseginak dira haiekin. Baina neska bat beste neska batekin maitemintzen denean edo mutil bat beste mutil batekin, jende batek irri egiten die, edo saiatzun da haiek zanpatzen. Eta zuzen zaude, Kim. Ez dute baimenik gizon batek eta emakume batek bezala ezkontzeko. Baina elkar maita dezakete.

Kimen kopeta zimurtu zen. Haren burua lanean ikus nezakeen, jana txikitu bitartean.

—Noizbait musurik eman zenion?

Alarma argiak piztu zitzaizkidan garunean.

—Um, jakina —nik, alegia deus ez.

—Eeee! —Kimek sardexka erortzen utzi zuen—. Mihia-rekin? Aitatxo ikusi nuen mihia amatxoren ahoan itsasten. Aj, nazkagarria zen.

Irri, nik.

—Ez diozu inori musurik eman behar nahi ez baduzu.

—Ez dut sekula halakorik eginen —aldarrikatu zuen Kimek.

—Ezta nik ere —erantsi Scottyk.

Kimek isilik jan zuen. Begirada altxatu zuenean galdera igarri nuen hark egin aurretik.

—Maite zenuen?

Kokotsak dar-dar egin zidan.

—Bai.

—Orduan, zergatik dibortziatu zineten?

Galdera airean gelditu zen.

—Ez dakit —esan nion zintzo—. Ezin dut azaldu.

Eskolarako bidean, Scottyk ahots goran esan zituen igarotzen ziren auto guztien markak. Kim niri begira zegoen, gidatzen ari nintzela.

—Atsegina zen? —premiatu ninduen Kimek.

Baiezko keinua.

—Zuk uste duzu zure falta sumatzen duela?

Nik irribarre.

—Hala espero dut.

Arindua izan zen eskolaren aurrean gelditzea, musu eta besarkadak eman, eta agur esatea. Barnean seguru zeudela egiaztatu bezain laster, kopeta bolantearen kontra jarri eta negar egin nuen.

Auto bat nuen, eta egun oso bat pasatzeko.

Scottyren harri maskota! Ikusi nahi nuen ea Zientzia Museoak oroigarri dendarik zuen, harriak eta kristalak salgai zituena. Museoan sekula izan gabea nintzen. Bufalo diseatu gaitz baten begiradapean sartu nintzen. Eraikin barnea lasai eta isilik zegoen. Bilatzen nuen huraxe bera topatu nuen erakusmahaietan. Ukabil baten tamainako harri bat aukeratu nuen Scottyrentzat. Bitan zatitua zegoen. Barnean bazen zulo txiki bat, kristal purpura eta zurikarekin zipriztindua. Nahi izatera, harri horren barnean galtzen ahal zinen. Nik uste Scottyk hala egingen zuela.

Ez zen zaila izan Kimen oparia hautatzea: harri lau berde eta leundua, nire eskuaren tamainakoa, zirimola zuriak zituen, ibai bizkor bateko ur-lasterren modukoak.

—Bai al dakizu zer diren? —galdetu nion erakusmahaiaren atzeko emakume gazteari.

Sorbaldak goratu zituen.

—Hemengo langilea besterik ez naiz.

Eguna hemen pasatu nahiko nukeen. Eraikin gaitz hartako gela bakoitza zientziaren adar bati eskainia zen. Baten izena Gizonaren aretoa zen: ikusi nuen emakumea ere barne hartzen zuela. Baziren gelak erakusten zituztenak atomoen eta unibertsoen sekretuak.

Nahiko nukeen gelditu ahal izatea, eta jakinduria osoa irenstea. Itxaropena nuen nolabait munduari zentzua emanen ziola niretzat baina maskuria min ematen hasi zitzaidan, eta bi komunak oroigarrien erakusmahaiako emakumearen begi bistan zeuden. Ezin nion aurre egin. Unibertsoaren sekretuak atzean utzi, autoan sartu, eta Gloriaren etxera joan nintzen, komuna pribatutasunean erabiltzeko.

•••

Grant eta biak autoan geunden, medikuaren bulegoaren kanpoko aldean.

—Beldurturik nago —aitortu zuen.

—Baita ni ere. Haurra nintzenean —esan nion—, sentitzen nuen munduan ez zegoela niretzako tokirik. Hala sentitzen naiz orain.

Grantek baiezeko keinua egin, eta zigarretaren kea bota zuen hortz artetik.

—Egiaz esaten dizut, haurra, ez dakit zer den makurragoa. Inoiz ez jakitea zer den onartua izatea, edo duzun apur hori kentzea, badakizu?

Horixe nekiela.

—Tira, goazen —presatu nuen.

Medikuaren izena txantiloiz paratua zegoen ateko beira transluzidoan. Ilun ikusten zen barneko aldea.

—Beharbada ez da egonen —Grantek.

Besotik heldu nion.

—Ez naiz zu bultzatzen ari —nik—, baina ni aukerarik gabe gelditu naiz.

Grantek airea hartu zuen. Atea irekitzeko proba egin nuen: irekia zegoen. Medikua barnean zen. Monroe doktoreak barnagoko bulegora eraman gintuen, eta keinua egin zigun eser gintezen. Ezetz, nik. Bulegoko paretetara begiratu nuen.

—Non daude zure diplomak?

Grantek begirada hiltzailea egin zidan. Monroe doktoreari hitz egin zion.

—Deitu nizun, oroituko zara.

Medikuak goitik behera begiratu zidan. Jainkoa, gorrotatzen gaitu, pentsatu nuen niretzat. Ezpainak busti zituen.

—Pentsatzen dut hau izanen dela zuek biek duzuen hormona desoreka dela-eta.

Baina zer uste zuen gizon honek, grabagailuak genituela ezkutaturik?

—Dirua ekarri duzue? —galdetu zuen.

Diru-zorroak ateratzearekin batera, Monroeek errezeta liburuxka atera zuen.

—Pentsatzen dut oso ongi aztertu duzuela afera hau —esan zuen, inporta balitzaio bezala.

Baiezko keinua, biek.

Erakutsi zigun nola sartu gizon hormonon zentimetro kubiko bat xiringa batean eta nola ziztatu izterreko giharrean.

—Injekzio bat hartu behar duzue bi astetik behin. Galderarik?

—Nik baditut batzuk —esan nuen.

Grantek eta doktoreak harriturik begiratu zidaten.

—Esaterako, zenbat denbora beharko da emaitzak eman arte, eta zein dira albo-ondorioak?

—Bueno —medikuak lapitz bat ibili zuen erakuslearen eta erpuruaren artean—, zaila da esatea.

—Zergatik? —jakin nahi nuen.

—Hau delako nahiko gauza... —duda egin zuen—, esperimentala. Albo-ondorioak izan ditzakezue: ilea galtzea, pisua hartzea, aknea.

Zoragarri, pentsatu nuen, zoragarri.

—Arriskugarria da? —galdetu nuen.

Grant aurreraka makurtu zen, erantzuna aditzeko.

Monroe doktoreak bloketik erauzi zuen errezeta.

—Hormonak besterik ez dira. Zeuen gorputzak berez sortzen ditu hormonak. Hau nahi duzue ala ez? —galdegin zuen, airean eusten ziola.

Baiezko keinua egin, eta hartu nuen. Beste bat erauzi, eta Granti eman zion. Grantek ez zirudien oso seguru, baina poltsikoan sartu zuen. Monroe doktoreak gure dirua kontatu zuen, idazmahaiko tiraderan sartu, eta agur esan zigun.

—Beste gauza bat —esan nuen.

Medikuak hasperen egin zuen nabarmen.

—Bularretako ebakuntza egiteko bideratzea behar dut.

Paper zati batean idatzi zuen.

—Bi mila dolar —esan zidan, eta izen bat eta telefono zenbaki bat eman zizkidan.

Egina zegoen, eta berriz ere karrikan ginen.

—Tira —Granti sorbaldan kolpetxoa eman ez—. Goazen botikara, eta gero garagardo bat hartzera gonbidatuko zaitut.

Gogo txarrez onartu zuen.

Taberna barnean sartu ginen, eguerdian. Bazirudien zerbitzariak nekez onartzen zuela gu han izatea. Gure parean jarri genituen paper marroiko zorro handiak, xiringaz eta hormona flaskoz beteak.

—Bi garagardo eta bi txupito —esan nion zerbitzariari—. Hitz jokoa ez zen nahita⁶ —erantsi nion Granti apalago, baina ez zen aditzen ari—. Zer duzu, Grant?

—Nire bizi ostia guztia buruz behera jartzekotan naiz —esan zuen.

Neure burua islatua ikusten nuen.

—Egin behar duguna afera handia da —esan nuen, ados.

Baiezko keinua egin zuen, baina bazen beste zerbait haren buruan. Beste erronda bat eskatu genuen, eta gero beste bat. Grant pixka bat irekitzen hasi zen.

—Nola izanen da emakumeekin? Esan nahi dut, norbait noizbait gurekin etorriko da? —nahiago nuen hain gora esan ez balu.

—Berrogeita bat urte ditut —esan zidan—. Nire bizia oso izorratua dago. Ez dago guretzako lekurik. Ez dakit zer egin.

Malkoak tantaka erortzen zitzaizkion barran. Biek ere ingurura begiratu genuen, ikusteko ea gizonen bat ohartu zen negarrez ari zela. Gure paketeak hartu, eta mahai baztertu batera mugitu ginen. Grant negar-zotinka hasi zen apal. Hura hala negarrez ikusteak ikaratu egin ninduen.

Mahai gainetik makurtu, eta Granten ilea laztandu nuen.

—Dena ongi aterako da —adorea emanez, nik.

—O, bai? —hark, haserre—. Kaka zaharra. Zuretzat desberdina da.

—Adarra jotzen? Zergatik izanen da ba desberdina niretzako?

Grantek zintz egin zuen tabernako paperezko zapi batekin.

—Badira niri buruz ez dakizkizun gauzak. Inori esan ezin dizkiotanak.

Whiski txupito bat edan nuen kolpean. Eztarria erre, eta gorputz osoa berotu zidan.

—Grant —esan nion boz atseginez—, ez dago deus esan ezin didazunik.

Aurpegia aztertu zidan.

—Ez naiz egiatzko mari-mutila —esan zuen.

Irri egin nuen sinesgogor.

—Tira, zer deabru ari zara esaten.

Ezezko keinua egin zuen.

6 Ingelesez txupito eta injekzio esateko hitz bera erabiltzen da: *shot*.

—Ez nauzu egiaz ezagutzen.

Mozkorrak nire burmuina jo zuen adreilu tona batek bezala. Nahiago nuen hainbeste edan ez banu. Zerbitzaria guregana etorri, eta gure mahaia garbitzen hasi zen.

—Alde egiteko garaia —esan zuen.

Irteera mozten ari ziren gizonen aurpegieta gorrotoa ikusi genuen. Zerbitzariak atzeko aterako keinua egin zuen.

—Alde egiteko garaia.

Gure zorroak hartu, eta laster batean atzeko atetik atera eta Granten autoan sartu ginen. Ateak barnetik itxi nituen Grantek motorra piztu bitartean. Gizonetako batzuk aparkalekuan barreatzen ari ziren. Haietako batek burdinazko tresna bat zuen. Grantek goma erre zuen. Zuzen jo zuen zintarriaren gaintetik, heldu zen auto baten parera; hark bolante kolpea egin, eta apar-katutako auto bat jo zuen. Grantek ziztu bizian alde egin zuen, urruti eta salbu egon arte.

Nire etxe parean gelditu ginen. Zigarreta bana piztu genuen. Eskuak dardarka nituen.

—Jesus, Grant. Baduzu aukera bat Indy 500 lasterketan.

Ez zuen irribarrerik egin. Banekien sobera mozkorra zegoela gidatzeko.

—Zatoz etxera —esan nion—. Geroago hartuko duzu autoa. Grantek ezezko keinua egin zuen.

—Nora zoaz? —nik.

Ezezko keinua.

—Ez dakit.

—Zatoz nirekin gora —esan nion berriz, baina banekien alferrik zela. Grantek zigarreta jaurti zuen leihotik kanpora, eta motorra abiarazi zuen.

Atea itxi aurretik, esan nion:

—E, Grant. Esaiezu gizon haiei ez zarela mari-mutila.

Grantek begiratu egin zidan. Zaila zen begirada ez kentzea begietan zuen tristuratik. Atzerako ispilua seinalatu nion.

—Begiraiozu zeure buruari, eta esan ez zarela mari-mutila. Zarena zara, Grant. Ez duzu frogatu beharrik.

Grantek bere hormona paketea eman zidan.

—Seguru zaude? —Esan nion.

Sorbaldak goratu zituen.

—Orain ez nago deusez seguru.

Ettxera iritsitakoan, Edwinen etxera deitu nuen, eta utzi nuen telefonoak luze jotzea. Garagardo bat edan, xiringak hartu, eta haiei begira gelditu nintzen. Orratzek hainbesteko beldurra ematen zidaten, ezin sinetsi bainuen neure burua ziztatzera nindoanik. Hormonen flaskoak aztertu nituen, horien misterioak hantxe berean argitu behar balitzaizkit bezala. Ez zen misteriorik argitu.

Komunera joan, galtzak kendu, eta komuneko atean zintzilikatu nituen. Komuneko tapan eseri, eta xiringa prestatu nuen. Egiaz egitera al nindoan?

Pentsatu nuen Grantek egindako galderetako bati buruz; oso barnean ukitu ninduen. Berriz ere egonen ote nintzen noizbait emakume baten besoetan? Une batez oroitu nintzen Theresaren besarkada baten gozamen hutsaz. Bakarrik sentiarazi ninduen. Haserre gogoratu nintzen Theresaz. Ez ninduen behar adina maite, une zailean ondoan egoteko.

Nire bizia buru barnean iragan zen, berriz ikusi nahi ez nuen film bat bezala. Gogoratu nuen zer sentitzen zen desberdin izaten haztean. Pentsatu nuen aldi hartaz, gurasoek aitaren arropekin harrapatu nindutenaz.

Oroitzapen goxoek hartu ninduten: lagun mari-mutilak, konfiantzazko *drag queenak*, *femme* maitaleak. Ez nituen ondoan orain. Bakarrik nengoen bidegurutze honetan.

Ez nintzen ausartzen orratza nire izterrean iltzatzera. Orduan nire Nortonaz oroitu nintzen, txiki-txiki eginda pizzeriako aparkalekuan. Orratza izterrean sartu, eta hormonak injektatu nituen. Ez zen uste bezain zaila.

Zirrara batek hartu ninduen: zerbait aldatu zitekeelako aukera, nire gaineko pisu izugarri hura arinduko zela. Beharbada oraingoan ni izan nintekeen, eta bizi. Begiak itxi, eta burua pare-tako lauzetan bermatu nuen.

Handik tarte batera zutitu, eta galtzak jantzi nituen. Komuneko ispiluan nire islari begiratu nion. Oraindik ni, neronen buruari begira.

•••

Ez zen deus pasatu lehenbiziko bi hilabeteetan. Ahotsa ez zitzaidan sakondu. Seguru nekien, zeren egunero deitzen bai-

nuen argibideak emateko telefonora, eta operadoreek oraindik ere andrea esaten baitzidaten. Sumatu nituen aldaketa bakarrak nahi ez nituenak ziren. Azalean pikorrak atera zitzaizkidan. Gizendu egin nintzen. Umore gorabeherak nituen. Etortzekoa zen dena delakoa ez zen iritsi, baina bidean zen.

Kimi eta Scottyri adio esan beharko nien laster. Gloriak ez zidan inola ere utziko haurrekin egoten behin aldatzen hasirik.

Negu gorriko larunbat batean zoor a eramanen nituela hitzartu nuen. Hain gogor ari zuen elurra, bazirudien Gloriaren etxerako bidaiak, autobusean, betiko iraunen zuela.

—Alde egin behar dut —esan nion Gloriari.

—Kafe gehiago nahi? —galdegin zidan.

Eskua katilu gainean jarri, eta ezezko keinua egin nuen.

Gloria ondoan eseri zen.

—Haurrei esan diezu jada?

Nik ezetz.

—Haur horiek uste dute eguzkia zurekin atera eta sartzen dela; ez dakit zergatik.

Hitz horiek min eman zidaten.

—Maitagarria naiz, Gloria, zer esan dezaket?

Ezezko keinua egin zuen.

—Izan kontu esaten diezunean, bai? Oraindik hunkiturik daude aitaren eta nire artekoarengatik.

Baiezko keinua, nik.

Scottyk eta Kimek kasik elkarren kontra jo zuten, sukaldera ni agurtzera sartu zirenean. Arropetan hain bildurik zeuden, haien begiak bakarrik ikus nitzakeen txanoen eta bufanden artean.

Gloriak bere autoko giltzak jaurti zizkidan. Atsekabeturik zirudien.

—Gidatu kontuz elurretan.

Ez nuen uste horrek kezkatzen zuenik.

—Ez kezkatu guregatik —nik.

Zoor iritsi ginenerako, elur handia pilatu zen, eta elur maluta handiek erortzen segitzen zuten. Jende gutxi zebilen kanpoan, guraso gutxi batzuk baino ez, beren haurrekin.

—Egin ditzagun *elur aingeruak* —proposatu zuen Kimek.

—Oraindik ez —esan nion—. Ez gaitezen busti, alde egiteko prest gauden arte.

Arrano beltz bat ikusi nuen haren kotan. Gehiago hurbilduta, ohartu nintzen bi arrano zirela: arra eta emea, elkarren ondoan. Emeak elurretara jauzi egin zuen, hegal sendoak zabalduz. Elurretan saltoka eta bueltaka ibili zen. Gogoan nuen egunkariak esan zuela aurreko astean zabaldu zela arrautza, baina arranokumea hil egin zela. Tristura kiratsez ari ote zen dantzan?

—Zertan ari da? —galdegin zidan Kimek.

—Elurretan jostaketan —iruditu zitzaidan beste edozein bezain erantzun ona zela—. Arrano neska da.

—Nola dakizu? —hark.

—Neskak mutilak baino handiagoak direlako.

Bi haurrek nik baino lehenago ikusi zituzten hartz zuriak, eta lasterka joan ziren haiek ikustera. Hartz ama kumearekin zen kanpoko aldean. Egunkariaren arabera, kumea hiru hilabete lehenago jaioa zen, eta oraindik ez zen haitzulotik atera.

—O —esan zuten haurrek, kumea elur pila batera erori zenean. Hartz ama atzeko hanketan eseri zen. Hartz txikiak amaren bularrak bilatu zituen muturrarekin, eta esnea hartzen hasi zen.

—Gose naiz —iragarri zuen Scottyk.

Janari saltokia kasik hutsik zegoen: zooko mantentze-lanetako bi gizon kafe beroa edaten ari ziren izkin batean. Saltxitxa ogitartekoak eta txokolate beroa eskatu nituen.

—Kakahueteak behar ditugu —oroitarazi zidan Kimek—, animalientzat.

—Uste dut ez diegula jaten eman behar —nik.

—Orduan, guretzat behar ditugu kakahueteak —hark.

—Eta hiru kakahuete poltsa —esan nion barrako gizonari. Nazka aurpegiz begiratu zidan. O, mesedez, pentsatu nuen, *haurren aurrean* ez. Dirua prest nuen: lehenbailehen pagatzea hobe.

Jana eta edaria kartoizko erretilu batean ekarri zituen.

—9,80 dolar izanen dira, jauna —irri gaiztoz.

Hamar dolarreko billetea bota nuen barra gainera, eta erretilua hartu nuen.

—Kanbioak zuretzat, andrea —erantzun nion.

—Tira, haurrak. Janen dugu kanpoan, parkeko banku batean.

Scotty ados zegoen; Kimek zalantzak zituen.

Bankuko elurra eskuz kendu nuen.

—Zergatik deitu diozu andrea? —Kimek.
 Sorbaldak goratu nituen.
 —Nirekin gaiztoa izaten ari zen.
 Ez zuen horretan utzi.
 —Ez zintuen gogoko?
 Ezezko keinua, nik.
 —Zergatik? Nola daki ez zaituela gustuko?
 —Ez dakit —esan nion—. Eskolan ez al duzu inoiz jazarle-
 rik ezagutu, arrazoirik gabe zurekin gaiztoa dena?
 Baiezko keinua.
 —Zergatik deitu dizu jauna? Ez zekien neska zinela?
 Hasperen egin, eta saltxitxa ogitartekoa kartoizko erreti-
 luan utzi nuen. Txikitutako azkeneko zatia zinturrean trabatu
 zitzaidan korapilo bat bezala. Txokolate bero pixka bat edan
 nuen erantzun aurretik.
 —Bazekien neska nintzela. Nire kontra ari zen desberdina
 naizelako —hurrengo galderari aurea hartu nion—. Ez dut zuen
 amarena bezalako itxurarik. Neska gehienengandik desberdina
 naiz. Jende bati ez zaio gustatzen, uste du ez dagoela ongi.
 Kimek kopeta zimurto zuen.
 —Orduan, zergatik ez duzu soinekorik janzten, eta ilea lu-
 zea uzten, beste neskek bezala?
 Irribarre egin nuen.
 —Ez zaizu gustatzen nolakoa naizen?
 Scottyk niri begiratu, eta irribarre zabala egin zuen. Esku-
 larruz sudurreko ketchupu kendu nion.
 —Ez dut aldatu nahi —esan nion—. Uste dut neskek eta
 mutilek aukera izan behar dutela nahi bezalakoak izateko, inork
 haien kontra egin gabe.
 Kim belauniko jarri zen bankuan, niri begira. Eskularruak
 kendu, eta masailak laztandu zizkidan. Ikus ote zezakeen biza-
 rra ateratzen hasia zitzaidala?
 —Zer ikusten duzu? —galdegin nion.
 Sorbaldak goratu, eta eskularruak jarri zituen berriz.
 —Badakizu zer oparituko dizugun Eguberrietan? Irrati bat!
 —esan zidan Scottyk urduri.
 —Scotty! —Kimek haserre—. Ez zenuen esan behar. Za-
 puztu duzu.
 Scottyren begiak malkoz bete ziren.

—Ongi da —besarkatu nituen—. Ongi da. Begira, haurrak: zerbait esan behar dizuet.

Kim astunki eseri zen, honen zain egon balitz bezala. Biak inguratu nituen besoaz.

—Eguberri aurretik alde egin behar dut. Lana topatu behar dut.

Isilune luzea izan zen. Scottyk besoekin inguratu ninduen, eta negar egin zuen.

—Ez! Ez joan —erregutu zuen—. Mesedez? Ona izanen naiz. Mesedez, ez joan.

Musu eman nion elurretako monoaren txanoan.

—O, Scotty, zu ez zara gaiztoa. Biak zarete oso-oso onak. Ez da zuen errua alde egin behar izatea. Asko maite zaituztet. Baina lana topatu behar dut.

Kimek eskuak altzoan zituen, eta aurreraka begira zegoen.

—Asko maite zaituztet —esan nien berriz—. Zuen falta asko sumatuko dut.

—Orduan zergatik joan behar duzu? —Kimen ahotsa haserrez dardarka zegoen—. Zergatik ezin duzu lan bat hemen aurkitu?

Azalpen gehiago behar zuen.

—Kim, niretzat ez da segurua hemen egotea, desberdina naizelako.

Aurpegia goxatu zitzaion, eta horrek malkoei ateratzera utzi zien.

—Seguru egonen naizen leku batera joan behar dut.

—Zurekin joan naiteke? —galdetu zuen.

Scotty estuago erakarri nuen, eta eskua luzatu nion Kimi. Ez zen hurbildu, baina uste dut nahi zuela.

—Ez noa leku batera. —Idatzi gabeko arauak zenbat uzten zidaten esatea haur bati?— Pentsa nire bila zabiltzala gela batean. Dena barna begiratzen duzu: armairuan, ohatze azpian, atearen atzeko aldean... Baina ni ez nago.

Scottyk begiratu zidan.

—Non zaude?

—Seguru nago, inork begiratuko ez lukeen tokian. Goian nago, teilatutik hurbil. Pentsa hemen bilatzen nauzula: zuhaitzen atzeko aldean, bankuen azpiko aldean, elefantearen etxearen atzeko aldean. Non egonen nintzateke seguru?

Bi haurrek elkarri begiratu, eta ezezko keinua egin zuten.

—Goian, zeruan, haizea dabilen lekuan —esan nien—. Zeruan egonen nintzateke seguru, inork bilatuko ez ninduen tokian. Baina oraindik inguruan ibiliko naiz. Oraindik zuek zain-tzen ibiliko naiz.

Scottyk begietako malkoak lehortu zituen mitoiekin.

—Haizea naizenean, zeruan zurekin egoten ahalko naiz.

Baiezko keinua egin, eta hurbilago erakarri nuen. Malkoak Kimen kokotsean behera zihoazen, baina aurpegia lasai zuen.

—Ertotzerik izanen duzu, gu bisitatzera?

Erantzun aurretik pentsatu nuen.

—Ikusiko nauzue, baina ez denbora batean. Ez harik eta niretzat itzultzea segurua den arte.

Hurbil ziren arrano beltzen aldera seinالاتu nuen.

—Badakizue, ez da arrano askorik gelditzen. Jaten duten jana gai kimikoekin kutsatua dago, eta batzuetan jendeak tiro egiten die. Badakizue zer egin zuten arranoek?

Biek ezezko keinua.

—Hegaka joan ziren gora, mendietara, hodeien gainetik, eta han egonen dira, haizean hegan, harik eta itzultzea segurua den arte.

Kim bankuan belaunikatu zen, eta eskularruak masailetan jarri zizkidan. Hotzak eta elurrez bustiak zeuden

—Mesedez, eraman nazazu zurekin —xuxurlatu zuen.

Malkoek begiak erretzen zizkidaten.

—Bakarrik ezkutatu behar dut, Kim. Eta zuen amak asko maite zaituzte. Zuen beharra ere badu. Handitu zaitetz ahalik hobekiena, Kim. Zuregana itzuliko naiz, hitzematen dut.

Elurra hain azkar ari zuen, kasik bankuan ginela estali gintuen. Zutitu, eta elurra astindu nuen. Scottyren sudur hotzari musu eman nion, bufandarekin berriz haren aurpegia tapatu aurretik. Belaun bakarrean bermaturik itxoin nuen Kim niregana etor zedin. Hain indartsu etorri zitzaidan besoetara, biak kasik erori baikin.

Arranoengana hurbiltzen ginela, Kim lasterka aurreratu zen. Gelditu, eta haiei begira gelditu zen.

—Zoriontsuak al dira hor? —galdetu zidan.

Ezezko keinua, nik.

—Zoriontsuago izanen lirateke han goian.

Zerurantz begiratu nuen. Elur malutak erori zitzaizkidan betile eta masailetan.

—Orain egin ditzakegu elur aingeruak? —eskatu zuen Scottyk.

Baietz, nik. Scotty eta Kim atzeraka bota ziren elurretan, eta zango-besoak astindu zituzten.

—Begiraidazu, begiraidazu —oihukatzen zuten biek.

Elur bola bat egin, eta bueltaka ibili nuen harik eta arroka baten neurria hartu zuen arte.

—Zertan ari zara? —galdetu zuen Kimek. Biak hurbildu zitzaizkidan.

—Elurrezko emakume bat egiten ari naiz —esan nion.

Kimek keinua egin zuen.

—Ez da elurrezko emakumea, elurrezko gizona da —esan zuen muturturik.⁷

—Nola dakizu? —nik—. Oraindik ez duzu ikusi.

Scotty elur puskatxo bati bueltak ematen hasi zen.

—Lagun dezaket elurrezko emakumea egiten? —galdetu zuen. Baietz, nik, eta elur bola borobilago bat egiten hasi nintzen harentzat.

Kimek zorua indartsu zapaldu zuen.

—Ez dago elurrezko emakumerik. Elurrezko gizona da.

Scottyren elurrezko bola txikiagoa lehenbizikoaren gainean jarri nuen.

Lagun iezadazue burua egiten —esan nien bie.

Kim haserre bizian jarri, eta negar zotinka hasi zen. Sorbaldeetatik hartu nuen.

—Hain atsekabeturik zaude? —Baietz hark, eta negar egin zuen.

Sudur mukizua lehortu nion.

—Ongi da —esan zuen Scottyk, atsegin—. Elurrezko gizona izan daiteke, ados?

Baietz, nik.

—Lagundu burua egiten, ados? —Kimek negar zotin bat egin, eta buruaz baietz esan zuen. Elurrezko burua bueltaka ibili genuen eta zegokion lekuan jarri. Harriak bilatu nituen elur azpian, eta ahoa, sudurra eta begiak egiteko erabili genituen.

⁷ Ingeleseaz *snowman* esaten diote elurrezko panpinari.

—Bufanda bat behar du, ezta? —galdetu nuen.
Baietz, biek. Nire bufanda kendu, eta lepo inguruan jarri
nion.

Zigarreta paketea atera nuen.

—Ez! —oihukatu zuten aldi berean—, ez erre!

—Tira, ez dut piparik elurrezko gizonarentzat. Zigarreta
bat jarriko diot ahoan?

—Ez! —oihukatu zuten—. Ez du erretzen! Argia da.
Irri egin nuen.

—Ongi da, ongi da. Baina itxura ona du gure elurrezko gi-
zonak, ez da hala?

Scottyk baiezko keinua egin, eta lurrera bota zen.

—Begira nola egiten dudan elur aingeru bat! —Basaki mu-
gitzen zituen besoak eta zangoak.

—Ongi zaude? —galdegin nion Kimi.

Baietz, hark. Bufanda estu paratu nion lepo inguruan.

—Sentitzen dut zu atsekabetzea —esan nion—. Txantxe-
tan ari nintzen.

Sorbaldak goratu zituen.

—Ongi da.

—Sentitzen dut, nolana —esan nuen.

—Ez —esan zidan—. Esan nahi dut ongi dagoela elurrezko
emakumea izatea.

Irribarre egin nuen.

—Eta erabakiko bagenu elurrezko pertsona dela, eta gizon
edo emakume hau gustuko dugula, den bezalako?

Kimek baiezko keinua egin zuen, irribarrerik gabe.

Etixerako bide luzean autoko leihotik kanpora begira egon
zen isilik.

—Zerbait jan dute? —galdetu zuen Gloriak.

Baietz.

—Bainatzeko ordua —esan zien.

—O, amatxo, neka-neka eginda gaude —Scottyk.

Gloriak irri egin zuen.

—Zein azkarra zaren. Baina bihar gauean zuek biek bainua
hartuko duzue, eta ez dut kexarik aditu nahi.

Scottyk irribarre handia egin zuen, garaile.

—Jessek eraman gaitzake ohatzera?

Gloriak begiratu zidan. Baietz, buruaz.

Scottyk eta Kimek pijama jantzi zuten, eta Gloriari gabon esateko musu eman zioten. Biak maindire azpian sartu nituen.

—Kontatu behar diguzu istorio bat, txikiak ginenekoa — agindu zidan Scottyk.

Liburu bat hartu nuen gau mahaitik. Kimek markatzailea seinalatu zuen.

—Amak hemen utzi zuen —esan zuen.

Irakurtzen hasi nintzen, ahots lasai eta apalez:

Nora noa? Oraindik ez dakit zehazki.

Scotty aho zabalka ari zen. Ile izerditsuan musu eman nion. Mugikari bat bueltaka genuen, mantso, buru gainean, eta itsasontzi higikarien itzalak egiten zituen paretetan.

Txoria bazina, eta zeruetan bizi,

Ahotsa hautsi zitzaidan, nerabe batena bezala, eta gero sakonxeago segitu nuen irakurtzen. Hormonak emaitzak ematen hasiak ziren.

Haizeari esanen zenioke, zu eraman bitartean: «Hara joan nahi dut gaur!»

Kimek begiratu zidan. Aurpegia lasai eta triste zuen.

—Ez zaitut berriz ikusiko, ezta? galdegin zuen.

Haren ohatzeraino joan, eta musu eman nion kopetan.

—Zuregana itzuliko naiz segurua denean. Berriz ikusiko nauzu, hitzematen dizut. Maite zaitut, Kim. Orain egizu lo.

Hasperen egin, eta tapakiak kokotseraino igo zituen. Irakurtzen jarraitu nuen, harik eta haren arnasa pisua eta erritmikoa bihurtu zen arte.

Inporta al du nora doan jendea?

Noranahi, noranahi. Ez dakit.

Apirileko goiz batean, bazirudien dena bat-batean aldatu zela. Txoriak txioka ari ziren ozen leihotik kanpora, egunsentian. Ohatzean nintzela buelta eman nuen, nagikeriaz. Maindireak freskoak zeuden, usain gozoa zuen aireak.

15

Eskua luzatu nuen zigarreta bat hartzeko, baina pentsatzeak berak nazka eman zidan. Horren ordez, dutxa luzea hartzea erabaki nuen. Hortzak garbitzen ari nintzela, ispiluan begiratu, eta bigarren aldiz begiratu behar izan nuen. Bizarra hazten ari zitzaidan masailetan. Aurpegia meharragoa eta hezurtsuagoa nuen. Kamiseta eta galtzontzilloak kendu nituen. Gorputza mehea eta gogorra nuen. Aldakak lurrundu zitzaizkidan. Izterretan eta besoetan ordura arte ezagutu gabeko giharrak nituen. Hormonek giharrak handiarazten zizkidaten edo azaleratu bakarrik?

Hau zen kasik nahi nuen gorputza, pubertaroak nahasi aurretik. Kasik.

Gogoan nuen nola, institutuan, neska batzuk kexatzen ziren bular txikiak zituztelako. Nik inbidia nien bularra zapala izateagatik. Orain nire eskura zegoen. Neguan mila eta seiehun dolar aurreztu nituen bularrak txikitzeko ebakuntzarako.

Dutxa bero eta xaboitsua hartu nuen, gozatuz nire eskuek nire larruan zuten sentipena. Oso luze zen nire gorputzean etxean sentitzen ez nintzela. Berehala, hori aldatu eginen zen.

Ilea ispilu aurrean orraztu bitartean, bururatu zitzaidan bizartegi batera joan nintekeela. Gure «ahate ipurdi» motako orrazkera perfektuak —hazbete luze buru osoan— lagun ileapaintzaileen sukaldeetan egiten zizkiguten.

Neguan Triumph moto zahar bat erositako laneko gizon bati. Garajetik atera, galoi laurden olio bota bertan, eta hiria gurutzatu nuen beste muturrean zegoen auzo bateko bizarte-

giraino. Hala, gauzak gaizki ateraz gero ez nukeen hara itzuli beharko.

Bizargileak irribarre eginez hartu ninduen.

—Berehala izanen naiz zurekin, jauna.

Saiatu nintzen nire urduritasuna ezkututzen, Popular Mechanicsen ale bat gainetik irakurri bitartean. Sekula ez nintzen ausartu hau bezalako gizonen eremu batean sartzera.

Bizargileak zapi gorri handi-handi bat astindu zuen airean.

—Jauna? —Keinu egin zidan aulkian jar nendin.

Zapi gorri harekin estali ninduen, eta lepoan lotu zidan.

—Gutxi moztuko dizut?

Neure buruari begiratu nion ispiluan.

—Tira, beharbada egidazu zerbait desberdina. Beharbada aldatzeko garaia da.

Bizargileak irribarre egin zuen.

—Zuk esan.

—Ez dakit. Zerbait txukuna.

Bizargileak atzeraka eraman zidan ilea, eta ezpainak estutu zituen

—Aldeetan motz-motza eta gaina laua?

—Bai! Hori aldaketa litzateke.

Bizar makina zalapartaka pasatu zidan nire «ahate ipurdia»ren atzeko aldetik aurreraino. Ile matazak erortzen zitzaidan sudurrera. Bizargileak eskuilaren zurda atseginekin kentzen zizkidan. Ilea moztu eta murriztu zidan harik eta gain lau simetriko perfektua taxutu arte. Eskuila dena barna pasatu zidan, xehe-xehe. Zutitzen hasi nintzen.

—Oraindik ez —esan zuen.

Ile-zangoetan eta lepondo aldean bizarra kentzeko krema zabaldu, eta marra garbi bat marraztu zuen bizar-labanaz. Eskuoihalez, azkeneko xaboi arrastoak kendu zizkidan lepotik. Bukatu zuela uste nuenean, eskuak lozioarekin busti, eta masailak igurtzi zizkidan. Eskuilan hautsak bota, eta lepondoan pasatu zidan. Keinu dantzariz, estaltzen ninduen zapia kendu zidan, eta ispilu bat eman, orrazkeraren atzeko aldea ikus nezan.

—Zer iruditzen zaizu, laguna?

Oraingoan ez nintzen saiatu zirrara ezkututzen. Gizontzat hartzen ninduten.

Ordua zen probarik inportanteena egiteko: gizonen komuna.

Harat eta honat ibili nintzen saltegi handi batzuetan, gehiago aguantatzerik izan ez nuen arte. Gizonen komunaren aurrean aurrera eta atzera ibili nintzen. Zer gertatuko zen sartuz gero? Goiz edo berandu jakin behar nuen. Atea bultzatu nuen. Bi gizon zeuden pixatokiaren parean. Niri so egin, eta begirada apartatu zuten. Ez zen deus pasatu. Gelaxka huts bat topatu, sartu, eta atea kisketaz itxi nuen.

Begiratzuz gero, oinak ikusten ahal zizkidaten. Gizonak pixa egiteko esertzen ote ziren? Soinua estaltzeko, ur-tanga hustu nuen. Berehala nabaritu nuen zerbait hezea eta hotza ipurdiaren eta izterren kontra. Komuna gainezka egiten ari zen. Saltoan jaiki nintzen, baina beranduegi, nire Levisak mela-mela eginda zeuden. Blue-jeanseko botoiak lotu, eta agudo atera nintzen gizonen komunetik. Erosle saldoaren artean ahal bezala iragan, eta Triumpherraino itzuli nintzen.

Nahi nuen guztia zen etxeraino joan, blue-jeansak kendu, eta dutxa hartuz nire ergel sentsazioa garbitzea. Motoan eseri, eta horretaz pentsatu nuen. Ez zen hain gaizki joan, egia esan. Orain aski ongi nekien ez nuela ur-tanga hustu behar ur mailaren igoerarekin adi ibili gabe. Baina gizonen komunean sartu nintzen uneaz oroitu nintzen. Kasik ez zidaten arretarik eman.

Behar izanez gero, noiznahi eta nonahi joan nintekeen komunera presiorik edo lotsarik gabe. A zer arindua.

•••

Hasieran, dena dibertigarria zen. Mundua jada ez zen ostiko eta irain artean iragan beharreko korridorea. Baina laster ohartu nintzen gizontzat hartzeak ez zuela esan nahi bakarrik gainazalaren azpira lerratzea, baizik bizirik lurperatua izatea. Oraindik ni neu nintzen barnean, harrapatua, nire zauri eta beldur guztiekin. Baina kanpoaldean jadanik ez nintzen ni.

Gogoan dut goiz hura; makarroien fabrikatik atera nintzen eguzkia atera aurretxoan. Elmwooden nenbilen, nire motorantz. Nire espaloian aurrerago zebilen emakume batek soingain gainetik begiratu zidan, urduri. Ibilera mantsotu nuen, hark karrika gurutzatu eta presaka alde egiten zuela. Nire beldur zen. Orduan

hasi nintzen ohartzen gizontzat hartua izateak kasik dena aldatu zuela.

Bi gauza ez ziren aldatu: bizitzeko lan egin behar nuen, eta oraindik ere beldurrez bizi nintzen, baina orain deskubritua izateko etengabeko ikara nuen. Ez nintzen inoiz ohartu Buffalo zein herri txikia izan zitekeen.

—Nora joan zinen institutura, Jesse? Galdetu zidan Eddiek, kamioi batetik kutzak deskargatzez bukatu ondoan.

Gezurra edo egia esan behar nuen?

—Bennettera —esan nuen, egiaz.

—Ez ba! Noiz graduatu zinen?

Zalantza egin nuen. Kamioi banaketako postu hori lortzeko, gezurra esan nuen lan eskaeran. Institutuan graduatua nintzela esan nuen.

—Zera, azken-aurreko kurtsoan joan nintzen hara.

—Bai, noiz?

—O, ez dakit. 65ean-edo, nik uste.

—Hara! Nire koinatua Benettera joan zen urte hartan berean. Bobby deitzen da: futbolearen aritzen zen. Ezagutzen?

Bobby bortxatzailea. Ukabilak estutu eta hortzak karraskatu nituen.

—Ez, ez dut uste.

Eddiek baiezeko keinua egin zuen.

—Galera handirik ez. Ergel hutsa da, nire ustez. Ongi al zaude?

—Bai, zorabio txiki bat besterik ez.

—Tira, eser zaitez pixka batean —Eddiek.

—Begira, Eddie, biltegira joan behar dut laster batean, zerbaiten bila.

Eta alde egin nuen. Oinez segitu nuen, gero eta agudoago. Neronen iraganetik ihesi ari nintzen.

Hiria utz nezakeen, baina iruditzen zitzaidan lurraren ertzetik amiltzea zela hori. Beraz, gelditu egin nintzen. Baina beti sorbalden gainetik zelatan ibili behar nuen etxetik kanpo, beldurrez, ea emakume gisa ezagutu ninduen norbaitekin topatuko ote nintzen. Batzuetan ez nituen ikusten harik eta haiek ni ikusten ninduten arte, esaterako Gloria eta haurrak zentroan erosketak egiten ari ziren hartan. Korridore bat haratago nengoen, gizonen arropen sailean. Gloriak ni ezagutu ninduen nik hura ikusi baino

segundo bat lehenago. Harri eta zur gelditu zen. Kim eta Scotty eskuetatik hartu, eta arrastaka eramaten saiatu zen. Scotty bel-durtu, eta negar egiten hasi zen. Kimek dei egin zidan.

—Jess! Jess da!

Gloriarengana joan, eta eskua sorbaldan jarri nion. Kendu egin zidan izuturik, eta Scotty eta Kim besoez besarkatu zituen, Dracula kondearengandik babestuko balitu bezala.

—Gloria, Jainkoaren izenean, bizirik irauten saiatzen ari naiz bakarrik, ados? Ez da hainbesterako.

—Alde nigandik. Zer egin duzu? —galdetu zidan ahots apal eta arraroan—. Zertan ari zara?

—Bizi nahian, Gloria. Ez nazazu hainbeste estutu, ados?

Kimek eskua niregana luzatu zuen, baina Gloriak gogor harrapatu zion.

—Tira, Kim, Scotty —esan zuen Gloriak, irteerarantz bultzatuz—. Egiaz gaixorik zaude, badakizu? Egiaz behar duzu laguntza.

Esku ahurrak goraka, haserre samar, esan nuen:

—Gloria.

Inguruko jendea begiratzera gelditu zen.

Kim askatu egin zen, eta niregana etorri zen laster batean. Besoetan altxatu eta estutu nuen.

—Oraindik maite nauzu? —xuxurlatu zidan.

Musu eman nion sudurrean.

—Inoiz baino gehiago.

Lurrean utzi, eta lasterka joan zen Gloriarengana.

—Ohia? —galdetu zidan saltzaile batek.

—Zer?

—Neska-lagun ohia? —kokotsez irteerara egin zuen keinu.

—Neska-lagun ohia, bai —nik.

•••

Aldi luze baterako lana lortu nuen koadernatze lantegi batean, mekanikari ikastun gisa. Elkarrizketa egin zidan gizonak goitik behera aztertu ninduen, luze. Aurpegia gorritu zitzaidala nabaritu nuen.

—Itxura txukuneko mutila zara —ondorioztatu zuen—. Denbora gutxi lehenago munstroa izana nintzen.

Lana izatea berri ona zen. Baina ez nuen egiteko beste gauza askorik, ezta norekin egin ere. Hori zen berri txarra. Denbora-pasarik handiena nuen nire motoarekin ibiltzea. Erabaki nuen moto on-ona erostea. Laster, larunbat arratsalde batean, West Sidera joan nintzen, egunkariko iragarki batean ikusitako Harley Sportster bati begiratua emateko.

«Hitz egin Mikerekin» zioen iragarkiak.

—Motoez badakizu? —galdetu zidan Mikek.

Haren etxerako sarbidean geunden, motoaren ondoan makurturik.

Baietz esan nuen, baina gezurretan ari nintzela sentitu nuen. Bitxia da: gizon batek Honda 50 mototxoia erosi, eta motoetan aditua balitz bezala hitz egiten du. Emakume batek plantako Harley bat ibili dezake bizi osoan, eta oraindik ere sentituko du itxuratan ari dela solasean ari denean. Esan zidan motoa maite zuela, eta ikus nezakeen egia zela, hura ukitzeko zuen moduarengatik. Gorrotatzen omen zuen saldu behar izatea, baina emakume batekin maitemindu, eta hark behartu zuen aukera egitera: edo hura edo motoa. Aukera zuzena hartu zuen.

Mikeri billete sorta eman, eta motorra martxan jarri nuen.

—Eramazu Kanadaraino —iradoki zidan—. Hamar minutuan Peace Bridge gurutzatuko duzu, eta errepede horietan ziztu bizian ibil zaitezke.

Kaskoa jarri, eskuaz agur egin, eta alde egin nuen.

Ted'sen gelditu nintzen, oin bat luze zen saltxitxa ogitar-tekoa jatera. Kanpoan eseri nintzen, piknik mahai batean, kaioz inguratua, nire opil hondarraren zain baitzeuden irrikatan.

Peace Bridgeko auto ilara ikus nezakeen. Zenbat ehunka aldiz joan ote nintzen Kanadara bide horretatik? Baina gizon gisa bizitzeak esan nahi zuen ezin nuela Peace Bridge igaro, soldadutza liburuxkarik ez nuelako.

Vietnamgo gerra bukatu berria zen ofizialki. Harrigarria zitzaidan nola hain herri txiki bateko jendeak gerra irabazi zuen halako armada erraldoiaren kontra. Beharbada Theresak parte hartutako elkarretaratze haiek denek lagundu egin zuten. Espero zen Ford lehendakariak intsumisoei barkatzea, behingoen etxera itzul zitezen.

Baina hala ere ezin izanen nukeen muga gurutzatu. Ez nuen baliozko nortasun agiririk, aduanan gelditzen banindu-

ten. Agiri zorroa atera, eta nire nortasun agiririari begiratu nion. Jaiotze agiria, gidabaimena. Denek argi zioten emakumearenak zirela. Nola lortu gizonaren identifikazio agiri bat? Identifikazioa lortzeak eskatzen zuen identifikatu beharra. Kontu korronte bat ere ezin nuen ireki nolabaiteko nortasun agiririk gabe. Kreditu txartela eskuraezina zen. Ez-izakia sentitzen nintzen. Legez kanpokoek ere nik baino nortasun agiri gehiago izanzen zituzten.

Gidabaimenari buelta eman eta iraungitze data begiratu nuen: 1976ko *uztaila*. Beste hamalau hilabeterako balioa zuen. Nola lor nezakeen *Emakumea* markatutako gidabaimen bat Gizona markatuta berritzea? Zer gertatuko zitzaidan estatuko poliziek errepide bakarti batean gelditzen baninduten, gau beltzean, eta gidabaimen hau ematen banien? Baina zer gertatuko zitzaidan baimenik gabe gidatzen harrapatzen baninduten? Batak nahiz besteak amesgaiztoa bazirudien. Eta ezinezkoa zen Buffalon lan egitea edo biziitzea nolabaiteko garraiobiderik gabe.

Niagara ibaiaren beste aldera begiratu nuen, hain ongi ezagutzen nituen errepide haietan Harleyarekin ziztu bizian joateko irrikatan. Klaustrofobia sentimendu batek ito ninduen. Nire mundua zabaltzen ari bazen ere, aldi berean murrizten ari zen.

•••

Bizarra koloretsu handitzen ari zitzaidan: ile-horia, arrasto gorri, marroi eta zuriekin. Biziaren zelai zabaletan, ezkutatzeke sasi bat zen nire bizarra. Bazirudien jada kasik inork ez ninduela ezagutzen karrikan.

Nire bularrak inoiz baino gehiago gorrotatzen nituen. Egu-nero bendatu behar izateak giharrak estutzen zizkidan, eta min ematen zidaten. Baina azkenerako bi mila dolar aurreztu nituen. Monroe doktoreak esandako zirujauari deitu nion. Esan nion bularrak lau izan nahi nuela.

—Bai, bai —hark—. Bularrak txikitzea.

—Mingarria izanen da? Luze egon beharko dut lanik egin gabe?

—Ez. Ez da erabateko mastektomia. Ebaki bat egin, eta gantz-ehunaren zati bat kentzen dugu. Nahiz eta deseroso sentitu, lanera itzultzeke gauza izan beharko zenuke aste bat edo bi geroago.

—Urdaila nahasi zitzaidan, baina ebakuntzen deskribapenek hala sentiarazten ninduten.

—Behar den dirua baduzu? —galdegin zidan.

Bai. Prest nengoen. Ebakuntzarako hitzordua egin, eta asteartean gaixo banengo bezala atera nintzen lanetik.

Astearte gauean ohatzean etzanda nengoen, sapaiari begira. Urduri nengoen, baina ez beldurturik. Zirrara sentitzen nuen, pentsatuz nire gorputzean ongi sentituko nintzela berriz. Desiratu nuen Theresak honaino lagundu izana. Zergatik ezin nuen harekin gau bat izan, maitasuna egiteko, nire gorputzean eroso sentitzen nintzela? Theresa. Behin harengan pentsaturik, beranduegi zen haren oroitzapena baztertzeko. Gorputza inarrosi, eta buelta eman nuen.

Noranahi nindoala ere, banekien bakarrik nindoala.

Biharamunean, hitzordua baino lehenago iritsi nintzen ospitalera, behar ziren inprimakiak betetzeko.

—Norekin egon behar duzu? —irribarrez, harrerako erizainak.

—Costanza doktoarearekin.

Keinua hoztu zitzaion.

—Zaude pixka batean, mesedez.

Bost minutu geroago itzuli zen. Medikua ez zen han. Nonbait, behar ziren prestaketak ez zeuden eginak. Baina esan zidan seigarren solairura joateko, erizainen mahaira.

Hiru erizain zeuden seigarren solairuko mahaian.

—Ebakuntza egiteko hitzordua dut Costanza doktoarearekin.

Erizainek elkarri begiratu zioten.

Batek hasperen egin zuen:

—Une honetan ez dago zuretako leku atondurik. Komunean prestatu beharko duzu.

Zalantza egin nuen.

—Ez dizut ulertzen.

—Zaude pixka batean —esan zuen.

Itzuli zen ospitaleko mantal batekin, bizarra kentzeko labana batekin eta Betadinearekin.

—Ken ezazu ilea besapeetatik, bularretatik eta zango arte-tik, honekin, eta gero jantzi mantala.

—Zango artekoa?

Kopeta zimurtu zuen.

—Horixe da prozedura.

Espero nuen okerreko ebakuntzarik ez egitea. Pentsatu nuen izanen nuela norbaitekin kontsultatzerik, ebakuntza hasi aurretik.

—Ez sartu hor —oihukatu zidan erizainetako batek, gizonen komunera hurbildu ahala.

Emakumeen komunerantz jo nuen.

—Ez, ezta hor ere —oihukatu zidan beste batek.

Geldirik gelditu nintzen. Niretzako gela bat bilatu zuten. Neure burua Betadinearekin garbitu, eta besapeetako ilea kendu nuen, lehenbiziko aldiz urte askoan. Besapeetan ilea lehenbiziko aldiz atera zitzaidanean, amak agindu zidan aldian behin kentzeko. Hau izanen zen azkeneko aldia.

Bizarra kendu bitartean, hitzeman nuen neure burua ongi zainduko nuela. Eta zin egin nuen: edozein gauza gertatuta ere, ez nion neronen buruari utziko eromenaren atzaparretan erortzen.

Gela barnean, aulki batean eseri nintzen, ebakuntzaren zain. Bi erizain ahots gora ari ziren hizketan, kanpoko mahaian. Esan zuten saltsa ederra izanen zela ehun osasuntsua patologia-ko laborategira bidalitakoan. Esan zuten goiz edo berandu hau lehertu egingen zela eta problemak izanen zirela.

Erizain bat gelan sartu, irribarre egin, eta buruarekin agurtu ninduen, lotsati. Korridorean zegoen ohatila baterantz seinalatu zuen.

—Ezin naiz oinez ibili? —galdetu nion.

Ezezko keinua egin zuen.

Ohatilan etzan, eta korridorean barna eraman ninduen. sapaia bakarrik ikus nitzakeen. Argitar batzuk agertu ziren nire gaineko aldean. Ebakuntza gelan nengoan. Aurpegi maskaradunak nituen inguruan. Espero nuen etsaitasun handirik ez izatea.

—Zuetako nor da Costanza doktorea? —galdetu nuen.

Batek erantzun zuen:

—Oporretan da. Ez kezkatu.

Kexatzen hasi nintzen, baina orratz batek besoa zulatu zidan, eta gela urtzen hasi zen.

Iratzarri nintzanean, mundua lauso zegoen. Ezin nuen enfokatu. Pareko ohatzeko gizona begira nuen. Atetik, erizainek

zelatan begirutzen zidaten. Kordea berreskuratzeko eginahala egin nuen.

Apez bat sartu zen gelan.

—Non da emakumea? —Inguruan bilatu zuen.

—Nor? —galdetu nuen.

Gela bueltaka ari zen. Apeza ohatzera hurbildu zitzaidan.

—Bada arima galdu bat nire laguntza behar duena —xuxurlatu zidan.

—Korridorean barna eraman berri dute, aita —esan nuen—. Agudo ibiltzen bazara, harrapatuko duzu.

Esertzen saiatu nintzen. Min sor batek hartu zuen bularra. Sarrerako erizainei deitu nien.

—Zerbait har dezaket minerako?

Alde egin zuten.

Erizainetako bat itzuli egin zen.

—Begira —esan zuen—, ez dut ulertzen honetaz. Baina esaten ahal dizut ospitale hau gaixoentzat dela. Zuek nola-baiteko konponketaren bat egiten duzue Costanzarekin, aparte, baina hori zuen kontua da. Baina ohatze hau eta gure denbora gaixoentzat da.

Zenbat denbora emanen zidaten nire onera itzultzeko? Ordu bat? Bi? Ez nuen minutu bakar bat ere han egon nahi. Etxean egon nahi nuen, seguru. Zangoak ohatze gainetik zintzilikatu nituen, eta saiatu nintzen haien gainean zutik jartzen. Behin egonkor sentituta, kontu handiz jantzi nintzen.

Igogailuari izugarri kostatu zitzaion iristea. Sartu, eta beheko solairurako botoia zapatu nuen. Ebakuntza gelara eraman ninduen erizainak igogailuko ateari eutsi zion, eta zerbait estutu zuen nire eskuaren kontra. Lau Darvon ziren, paperezko zapi batean bilduak.

—Sentitzen dut —xuxurlatu zidan.

Bide luzea egin behar nuen autobusetik etxeraino. Azkenik etxeraino iritsi nintzenez, giltza sarrailan sartu nuen, baina oroitu nintzen atea niregana erakarri behar nuela giltza biratu bitartean. Azkenerako giltza biratzeko behar zen indarrez tira egin nuenean, banekien neure burua pixka bat zauritu nuela. Baina etxean nintzen.

Ohatzean etzan nintzen. Gogoan dudan azkeneko gauza da neronen buruari galdegin niola zer ordu zen.

Iratzarritakoan, ezin asmatu nuen non nintzen. Min sorbat nuen pilpiraka bularrean. Kontuz zutitu nintzen. Armairuko atea zabaltzean, neure burua ikusi nuen barneko ispilu handian. Nire bizarraren luzeragatik esan nezakeen egunak eman nituela lo. Bularra bendatua nuen. Hortxe zegoen: nahi nuen gorputza. Zergatik izan behar zuen hain gogorra?

Zealdoka sukaldera joan, eta Pepsi batetik trago batzuk hartu nituen. Hozkailuan topatu nituen pepperonizko pizza zati hotz bat eta txokolatezko tarta puska bat. Haurra nintzenean amesten nuen gosaria.

Edwinen etxera deitu nuen. *Sentitzen dugu*, aditu nuen grabazioa, txunditurik, *baina markatu duzun zenbakia deskonektatua izan da*. Haren ahizparen etxera deitu nuen. Ahots dardarti batekin, Edwinen ahizpak esan zuen:

—Bere buruari tiro egin zion: duela aste batzuk.

Poliki eskegi nuen, Eden oroitzapenari begirunez.

—Edwin, Ed —esan nuen isilka, besoetan lo banu eta iratzar banezake bezala.

Logelara itzuli, eta kordea galdu nuen. Iratzarritakoan, Edwinen heriotza ametsa izateko itzaropena izan nuen. Ardura-dunari deitu nion.

—Non demonio izan zara, mutikoa? —oihukatu zidan.

—Gaixorik egon naiz. Oso gaixorik.

—Medikuaren agiria ekar dezakezu?

Isilik gelditu eta pixka bat pentsatu nuen.

—Ez —esan nuen.

—Kaleratua —marmarikatu, eta eskegi zuen.

Erdi lo erdi iratzarria eman nituen zenbait egun. Min deseroso batek esnatu ninduen, baina emozionala zen, ez eba-kuntzaren ondoriozkoa. Bendak aldatu nituen komunean. Bi ebakuntza marrek bakarrik gurutzatzen zidaten bularra. Puntuekin batera, burdinbideak ziruditen. Aste bat baino gehixeago igarota, bazirudien franko ongi osatzen ari zela. Kamiseta zuri garbi bat jantzi nuen.

Zerbaitek bultzatu ninduen sukaldera, garagardo bat hartzera. Botila irekitzean minaren iturria identifikatu nuen: Edwinen suizidioa. Ez zen posible Ed mundu honetan gehiago ez egotea. Nolatan joan zen? Ez al nekien barnetik irakiten zegoela? Oroitu nintzen esan zidala eman zidan liburu batean orrialde bat

azpimarratu zuela, bere barneko borroka laburbiltzen zuelako. Nire apaleko liburuen artean tarrapatan bilatu nuen, baina ezin nuen aurkitu emandako liburu fin hura. Azkenerako sarrerako armairuan topatu nuen, oraindik paperean bildua, eta lurrean eseri nintzen, eta liburuko orrien artean bilatu nuen. Tinta urdinez azpimarratu zuen:

Sentsazio bitxia da, kontzientzia bikoitz hau, norberaren burua beti besteen begietatik ikustearen sentsazioa... bi arima, bi pentsamendu, ezin adiskidetuzko bi eginahal; bi kontrako ideal gorputz ilun bakarrean, zeinaren indar setatiak bakarrik galarazten duen bi zatitan puskatzea.

Liburuko eskaintzari begiratu nion, nola jarri zion tintazko bihotz txiki bat bere izenaren i-ari. Minak orro egin zuen nire gorputz guztian, haizeak astindutako su bat balitz bezala.

—Ed —negar egin nuen ozen—. Mesedez, itzuli. Emaidazu beste aukera bat ulertzeko. Lagun hobeia izanen naiz itzultzen bazara.

Isiltasuna.

Garagardo bat bestearen atzetik edan nuen; mozkor samarra nengoen. Eta orduan hondoratu, eta negar egin nuen Edwinen galerarengatik, eta Theresa galdu nuenetik isilarazita-ko malko guztiengatik.

Buelta bat ematera joan nintzen, eta jostaketa parkera zihoan autobusean bukatu nuen. Theresak beti hainbeste maitate izan zituen peluxe-zko hartz handi haietako bat irabazi nahi nuen. Lehenik, erabaki nuen garagardo gehiago behar nuela. Erakusmahaietan zeuden bi emakume gazteek elkarri xuxurlatu, eta irritxoak egin zituzten ni hurbildu ahala.

—Zer nahi duzu, jauna? —galdetu zidan ile ilunekoak.

—Garagardoa. —Diru-zorroa atera nuen.

Ile gorrikoak ukondokada eman eta irritxoa egin zuen.

—Esaiozu.

—Esan zer? —galdetu nuen.

—Uste du moñoñoa zarela.

Ile ilunekoak bultza egin zion.

—Ez egin kasurik. Ergela da.

Gorritu egin nintzen. Garagardoa hartu gabe alde egin nuen. Amorrazioa handitu zitzaidan barnean. Zergatik nengoen

hain haserre? Hau zen nahi nuena, ezta? Ni neroni izatea eta hala ere beldurrik gabe bizitzea? Ez zirudien zuzena. Bizi guztian esana zidaten nire baitan dena zegoela bihurritua eta gaixoa. Baina gizona izanez gero, «moñoñoa» nintzen. Bazirudien ni gizon izanda ere emazte-gizon deituko zidatela.

Kaskoan sartua nuen Theresarentzako hartza irabazi behar nuela. Beisboleko pilotak panpinei jaurtitzen ari nintzela, zitzakoak sentitzen nituen bularreko ebakian, baina berdin zitzaidan. Harrika botatzen nituen, eroa bezala. Erakusmahaietan dirua paratzen segitu nuen, eta gizonak hartzen segitu zuen. Jende multzo bat inguratu zen. Irabazten nituen sariak gero eta handiagoak ziren, baina bazirudien ez nintzela gauza panpina horietako pare bat botatzeko.

—Sentitzen dut, laguna —esan zidan erakusmahaiko gizonak. Hortekin zigarro bati eusten zion.

Bost dolar eman nizkion.

—Hona —esan nion oso gora—. Hartu nire dirua eta hemen dagoen jendeari erakutsiko diot zein panpina dauden aparteko pisuarekin zamatuak.

Mugimendu zabala eginez, hartz arrosa erraldoia hartu, eta eman zidan.

—Urdina nahi dut —nik.

—Pikutara —esan zidan ahapeka, baina aldatu zidan.

Arrapaladan Theresaren eskaileretara iritsi nintzenean, urduri nengoen. Atea jo nuenerako, ikaratua nengoen. Emakume gazte batek, mari-mutil xamur itxurakoak, ireki zuen atea. Hantxe gelditu nintzen, besoetan hartz urdin erraldoia nuela. Theresari deitu zion.

Theresa nirekin hitz egitera atera zen, baina atea erdi irekia utzita.

—Zer moduz zaude? —galdetu nion.

Sorbaldak goratu zituen. Kokotsaz ate alderako keinua egin nuen.

—Etxeko lanak egiteko mari-mutila da?

Hitz zitalak izan ziren. Poztu nintzen ez zidalako erantzun. Isilune luzea izan zen, eta Theresa alde egiteko biratu zen.

Edwinen izena xuxurlatu nuen, aditzeko moduan, malakoak masailetan behera zihoazkidala. Theresak buelta eman, eta besoekin inguratu ninduen. Bazekien. Ulertzen zuen. Malkoetan

itotzen nintzen bitartean besarkatu ninduen. Negar zotinak egin, eta nire botei begiratu nien. Aurpegira begiratu zidan. Haren begietan ere malkoak zeuden. Masailetakoz bizar-itxala ukitu zidan hatz puntekin. Ezin izan nituen haren pentsamenduak irakurri; sekula ezin izan nuen. Alde egiteko ordua zen.

—Lanean zabilta? —galdetu nion.

—Pixka bat —esan zuen.

Berriz masaila laztandu zidan, eta biratzen hasi zen.

—Theresa —deitu nion.

Begiratu zidan.

—Zure baratzean esertzen al da, barazki-ilaren artean?

Ezezko keinua egin zuen Theresak.

—Ez, Jess, zu zara bakarra.

Hartz urdin handia altxatu eta luzatu nion. Irribarre tristez ezezko keinua egin zuen. Atea itxi, eta alde egin zuen.

Etxe-sail pare bat iragan nituen, supermerkatu bateraino, eta ate automatikoen parean gelditu nintzen. Handik tarte batera haur txiki bat agertu zen, amaren eskuari hartuta. Hurbildu ahala hartzari begira-begira gelditu zitzaion, eta ni igaro ondoren sorbalda gainetik begira segitu zuen. Amak tira egin zion pixka bat, harik eta biratu eta zeri begira zegoen ikusi arte.

—Ongi iruditzen? —galdetu nion amari, hartzaren aldera keinu eginez.

Harritu zen, baina baiezko keinua egin zuen. Hartza mutikoari eman nion.

—Ongi zaindu. Hitzematen didazu?

Baietz, hark. Haren besoek nekez ingura zezaketen animalia.

Amak bizkarrean bultzadatxoa eman zion.

—Esan eskerrik asko gizon atseginari.

16

Eguzkia, kirika, zerumugan ateratzen hasi berria zen. Hartsa bizarrean izozten zitzaidan. Lanen agentziako autobusean sartu nintzen nekaturik.

—E, Jesse.

Ben ondoan eseri zitzaidan, eta bere esku gaitz eta latza luzatu zidan, egunero bezala. Nahi izatera, eskua txikitzen ahal zidan, baina haren estutu irmoan aldiro aurkitzen nuen haren izaera atsegina. Hartz handi hari begiratu, eta irribarre egin nuen, hura ikusteaz egiaz pozik.

Bazirudien hotz izozgarri hark ez ziola eragiten. Zergatiaz oroitu nintzen zilarrezko flaskoa atera zuenean zamarreko poltsikotik. Lehenik niri eskaini zidan. Hurrupa handia hartu, eta eztul egin nuen itzultzean.

—Wild Turkey bourbona —irribarrez—. Gustatzen zait goizetan tragoxka txiki bat hartzea martxan jartzeko.

Egia esan, Beni egun guztian gustatzen zitzaion martxan segitzeko tragoxkak hartzea.

Jatetxe baten ondoan geunden aparkaturik. Eserlekutik jatetxe barnea ikus nezakeen. Annie, nire arreta guztia bereganatzen zuen zerbitzaria, kafea zerbitzatzan ari zen, barrako gizonekin irriz. Irrika indartsu batek hartu ninduen bat-batean, kasik malkoak eragiteraino.

—Nahiko zenuke neska horren zati bat? —galdetu zion gure aurreko gizonak bere lagunari.

Benek ikusi zuen ez zitzaidala gustatu.

—E, zaude isilik —esan zion Benek.

Gizonak eserleku gainera begiratu zigan.

—Zer inporta zaizu?

—Nire arrebaz ari zara —Benek bekozko beltzez.

—O, barkatu —gizonak.

Niri begiratu, eta begiak erdi itxi zituen.

—Ez al zaitut nonbaitetik ezagutzen?

—Texasen izan al zara noizbait? —galdetu nion.

Ezetz, hark.

—Orduan ez nauzu ezagutzen —nik.

Autobusa, kolpeka, martxan jarri zen. Tonawandako fabrika batera abiatu ginen. Agentziak aldi luze baterako lana hitzeman zigan, finko bihurtzeko aukerarekin. Ben eta biak isiltasun erosoan geunden. Autobuseko soinu maila zalaparta bihurtu zenean, xuxurlatu nion:

—Annie egiaz al da zure arreba?

Irribarre egin, eta begia kliskatu zidan.

—Egiaz aritu al zara Texasen? —galdetu zidan.

Nik ere irribarre egin, eta begia kliskatu nion.

Fabrikara hurbiltzean, pikete lerroak ikusi nituen sarrera oztopatzen. Orduan ulertu nuen: greba hausteko kontratatu gintuzten.

—Eskirolak! —fuerte aditu zen autobusetik jaitsi ginenean.

Zaila zen arnasa hartzea aire izoztu hartan.

Ben ondoan jarri zitzaidan.

—Ez dut honetan parte hartu nahi —esan zidan.

Emakume baten ahotsa aditu nuen bozgorailu batetik oihuka:

—Lerro honi eutsi behar diogu. Ez dugu utziko eskirol bakar bat ere pasatzen. Prest nago behar den guztia egiteko gure lana eta sindikatua defendatzeko! Eta zuek?

Sindikaturako emakume eta gizonak beren adostasuna adierazi zuten orro batean.

Poliziek istilu-kaskoetako begi-babesak jaitsi zituzten, eta borrei eutsi zieten horizontalki bular parean. Borra horiek kasik beisbol bateak bezain luzeak eta lodiak ziren. Poliziak prest zeuden oldartzeko, eskirol gisa sar gintezen.

Aldi baterako langileen beste autobus bat iritsi zen. Atera ziren gizonak guregana etorri ziren. Hirurogei laguneko multzoa ginen. Ingurura begiratu nuen, autobusean gurekin etorritako gizonen. Zaharrenak ahots goran aldarrikatu zuten:

—Deabruak ez dit arima erosiko!

—Ba nik lana behar dut, kaka zaharra. Familia bati eutsi behar diot —oihukatu zuen nire atzeko norbaitek.

—Ez naiz eskirola —oihukatu zuen Benek—. Ez dut sekula pikete lerro bat gurutzatu, eta ez dut gurutzatuko. Eta halakorik egiten duenarenganako ez dut errespeturik.

Autogintzako Sindikatuaren txartela atera zuen zorrotik, eta buru gagnetik altxatu zuen, piketeek ikus zezaten. Beste gizon batzuk ere sindikatuko txartelak atera, eta harro erakutsi zituzten. Ukabila itxi eta airean astindu nuen. Grebalariek adoretu gintuzten.

Aldi baterako langileen dozena erdik baino gutxiagok onartu zuten poliziak lagunduta fabrikara sartzea. Gizon gehienak berriz autobusean sartu, eta gidariari eskatu zioten berriz ere agentziara itzultzeko. Gizonei aditu nien, itzulerako bidean. Independentziaren Aldarrikapenaren Berrehungarren urteurrena zen, eta abertzaletasuna nagusi izanen zela espero zen, baina gizon horien solasak gero eta antz handiagoa zuen Theresak esaten zituenekin.

—Garai gogorragoak heldu dira, izan gogoan diodana.

—Bai, baina izan zaitezke aberatsa, eta are gehiago aberastu.

—Ez zen Nixon bakarrik: ebasle saldo bat dira. Etxe Zuriko gizontxo berri horrek ez du deus aldatuko.

Haien biziak bat-batean aldatu zituzten kaleratzeez hitz egin zuten. Harrison, Chevrolet, Anaconda. Hamabost urteko antzinatasuna, hogeikoa, hogeita hamarrekoa.

—Chevroleti eman nion nire bizi osoa —esan zidan Benek—. Kaleratu nindutenean pentsatu nuen opor batzuk izanen zirela. Baina egia esan, kaka eginda nago, beharbada ez naizela itzuliko-eta. Nire bizitza osoa fabrika hura da, ulertzen?

Baietz, nik. Benek ukondo kolpea eman zidan.

—Gaur, joan den astearengatik pagatuko digute. Alda ditzagun gure txekeak tabernan, eta edan dezagun zerbait.

Ezezko keinua nik.

—Ez, hobe dut etxera joatea.

—Jainkoa, Jesse. Beti duzu egitekoren bat. Nirekin trago bat hartuko duzu eta kito. Ala uste duzu onegia zarela nirekin egoteko.

Hasperen egin nuen.

—Trago bakarra —Benek irribarre egin, eta esku eskularruarekin kolpea eman zidan izterrean.

Baten batek *Stand By Your Man* jarri zuen disko-makinan. Nire iraganean galdurik nengoen, Ben hizketan ari zela aitarik gabe handitzeari buruz.

—Eta zu zer, Jesse? —galdetu zidan—. Aita hurbil zenuela handitu zinen?

Baietz nik.

—Elkarri loturik zeundeten?

Ezezko keinua egin nuen.

—Ez.

—Zergatik ez?

Sorbaldak goratu nituen.

—O, istorio luzea da. Egia esan, ez dut horri buruz hitz egin nahi.

—Non eman zenuen haurtzarora? —galdetu zidan, zerbitzariari beste erronda bat eskatu bitartean.

—Zenbait tokitan.

Beldur nintzen, hirugarren errondarekin ez nuela izaneren ihesari eusterik.

Zerbitzariak bi txupito eta bi garagardo ekarri zituen. Benek irribarre atsegina egin zion.

—Eskerrik asko, maitea.

Benek arreta niregan paratu zuen berriz.

—Badakizu, zuri buruzko jakin-mina dut —urduri jarri nintzen—. Emazteari hitz egin diot zutaz. Esan diot badela mutil bat gustatzen zaidana —Ben gelditu, eta esku bat altxatu zuen—. Ez gaizki ulertu.

Eskuz keinu eginez baztertu nuen haren beldurra, hots, ez nuen pentsatu nirekin sexu erakarpena sentitzen zuenik. Benen hizketa ez zen jada oso garbia.

—Esan diot: gizon hori ezagutzen saiatu naizen aldiro, ja ere ez du esaten. Badakizu zer esaten duen emazteak? Berdina naizela. Esaten dit horretaz kezkatzen dela beti.

Ben niregana makurtu zen.

—Problemaren bat duzu, Jesse? Zeren, hala bada, esaten ahal didazu. Ez naiz gauza handia. Baina mekanikari ona eta lagun ona naiz. Nire lagun guztiak Chevroleten aritu ziren nirekin. Haien falta sumatzen dut.

Baiezko keinua egin nuen, nire lagun zaharrengan pentsatuz.
—Legeari ihesi zabilta? —galdetu zidan—. Zeren, hala baldin bada, ulertzen dizut —ahotsa apaldu zuen—. Kartzelan izan nintzen. Bi urtez.

Bat-batean zerbait aldatu zen Benengan. Gorputz guztia hain geldi jarri zitzaion, non beldurtu bainintzen: aintzira baten azalera geldia bezala, ekaitzaren aurretik. Zurrumbilo nahasiak nabaritu nituen Benen azaleraren azpian. Benen mina nire aurrean aurkezten ari zen. Itxoin nuen. Oinazea bere erritmoan agertzen da. Geldirik gelditu nintzen, bihotza taupada bizian. Beharbada nire irudimena zen bakarrik, edo Wild Turkeyk eragiten duen dramatismoa. Baina Beni begiratu nionean jakin nuen arrazoi nuela. Ekaitza hurbiltzen ari zen, eta beranduegi zen ihes egiteko.

Benek diru-zorroa zabaldu eta bi argazki atera zituen.

—Noizbait erakutsi al dizkizut emaztea eta alaba?

Down sindromedun irribarre ezin maitagarriagoa ikusi nuen haren alabaren aurpegian.

—Maite dut haur hau —begiak busti zitzaizkion—. Asko erakutsi dit.

Galdetu nahi nion zer erakutsi zion, baina oraindik ere barrikada emozionala jartzen ari nintzen Benen aurrean. Halako gogo zuen ni ezagutzeko, eta nik ezin utzi. Eta hartaz fidatu eta huts egiten bazidan?

Benek argazki zahar txiki bat bota zuen mahaira, nire parera. Aztertu eta irri egin nuen.

—Zu al zara? —baiezko keinua, irribarre egin gabe.

Ben gazteari begiratu nion: mutil mehe bat, esku gaitzekin, atzeraka orraztatutako ilearekin, larru higatuko zamarrarekin.

—Motozalea zinen?

Baietz, berriz.

—Moto ederra —argazkiko Harleya seinalatu nuen. Irribarre egin zuen.

Presioa handitzen ari zela sumatzen nuen.

—Gaztea nintzenezan —esan zuen Benek—, uste nuen gizon gogorra nintzela.

Bitxia da nola gizon askok asko adierazten duten hitz xume gutxirekin. Mari-mutilek bihotza zabaltzeko duten estilo bera zen.

—Orduan, auto bat ebasteagatik atxilotu ninduten. Atxilotu zaituzte noizbait, Jesse?

Airea sakon hartu nuen eta ezetz esan. Benek baiezko keinua.

—Erreformatorioan izana nintzen pare bat aldiz. Mutil basa nintzen, ama gaixoari bihotza hautsi nion.

Benek beste txupito bat edan zuen tragoan. Zerbitzariak begiratu zidan. Beste erronda bat? Ezezko keinu txikia egin nuen.

—Gizon gogorra nintzen. Uste duzu kartzela ez dela deus ere, kartzelari horiek ez naute garaituko.

Harengana hurbildu nintzen. Jadanik banekien. Eta halako batez hantxe zen, haren begietan, haren lotsa guztia. Begiak malkoz beteak. Itxoin nuen, malkoak masailetan behera noiz eroriko, baina ez zen halakorik gertatu. Ukitu nahi nuen, eskua haren besoan pausatu. Baina ingurura begiratu nuen, gurekin lanean aritzen ziren gizonengana, eta banekien ezin nuela. Gehiago hurbildu nintzen Benengana. Begietara begiratu zidan.

Isilik, hitzik gabe, haren begiek kontatu zidaten zer gertatu zitzaion kartzelan. Ez nuen begirada apartatu. Aitzitik, utzi nion bere burua ikustea neronen ispiluan. Bere isla ikusi zuen emakume baten begietan.

—Ez diot inori kontatu —esan zuen Benek, elkarrizketa ahots goran izan balitz bezala.

Bere moduan, egin zuen ni inoiz egiteko gauza izan ez nintzena: bere umiliazioa erakutsi. Eta hartaz fidatu nahi nuen, dena kontatzeko. Baina beldur nintzen. Baina, bestalde, ezin utzi nuen bakarrik bere baitan.

—Badakizu zergatik zaitudan hain gustuko, Ben?

Haren begiak irrikatsu zeuden, haur baten begiak erantzun baten egarri direnean bezala.

—Gustuko zaitut, atsegina bezain indartsua zarelako.

Ben gorritu eta begirada jaitsi zuen.

—Zuregan bada zerbait, Ben, ona dena, eta horretan horretaz fida naiteke. Eta nire baitan galdegiten dut: nola bihurtu zara horrelakoa? Zure oinaze guztietatik nola atera da orain zaren gizona? Zer aldatu da? Zer erabaki hartu zenituen?

Hartz handiak irribarre lotsatia egin zuen. Hura zen nahi zuen intimitatea, behar zuen arreta. Gehiago hurbildu zitzaidan.

—Baldintzapeko askatasunean atera nintzenean, gasolindegi batean aritu nintzen. Hango mekanikaria, Frank. Bizia

aldatu zidan —Benen ahotsa apaldu zen—. Frank nitaz arduratu zen. Erakutsi zidan mekanikari izaten. Gauza askori buruz erakutsi zidan. Baina gauza bat esan zidan inoiz ahaztuko ez zaidana. Egun batez ihes egitekotan nintzen. Bazen gizon bat garajea beti ni izorratzen ibiltzen zena, eta ezin nuen haren aurka borrokatu, hala eginez gero zulora itzuliko bainintzen. Erotzen ari nintzen. Oso gaizki nengoen, ulertzen.

Baietz, nik.

—Gizon hura hil nahi nuen, eta alde egin. Frankek bazezien. Garajeko paretaren kontra bultzatu ninduen, eta oihuka aritu zitzaidan, nik ulertzeko eginahaletan —Benek irri egin zuen—. Jakin beharko zenuke zer gizon lasaia zen, estimatzeko niri hala oihukatu izana. Esan nion frogatu beharra nuela gizona nintzela.

Garagardo hurrupa bat hartu zuen. Irribarre egin nuen, istorioaren mari-mutiltasunarengatik.

—Zer gertatu zen?

—Ez dut inoiz ahaztuko Frankek esandakoa. Esan zidan: Jadanik gizona zara, ez duzu frogatu beharrik. Frogatu behar duzun gauza bakarra da nolako gizona izan nahi duzun.

Begiak malkoz bete zitzaizkidan.

Benen ahotsa bere irribarre bezain intimoa zen.

—Eta zutaz zer, Jesse? Zer eragin du zaren bezalakoa izatea? Nolakoa izan da zure bizia?

Justizia pixka bat duen mundu batean, nire biziaren istorio osoa kontatuko nion. Niri erakutsitako konfiantza itzuliko nion. Baina beldur nintzen, eta traizionatu nuen.

—Ez dago esateko askorik —esan nion.

Begiak kliskatu zituen sinesgogor. Nahiko nuen kontua bere hartan uzteko, baina ez zegoen horretarako prest. Aski ausarta zen berriz ere bere burua nire adreiluzko paretaren kontra jo eta odoletan uzteko.

—Jesse —xuxurlatu zuen—, esan zerbait zuri buruz.

Beldurrak izozturik nengoen, ez nintzela gauza nire pentsamenduak biltzeko eta istorio bat asmatzeko, nitaz zerbait erakusten zuelako itxura behintzat emateko adina.

—Ez dago esateko deus —esan nion.

Itxia eta babestua nengoen. Biluzik utzi nuen.

Goxotasuna aurpegitik joan zitzaion, eta haserreak ordeztu zuen. Sobera atsegina zen nire kontra oldartzeko. Mari-mutil batek bezala, barnean gorde zuen.

Zutitu nintzen.

—Hobe dut joatea —esan nuen. Baiezko keinua egin, eta garagardo botilari begira gelditu zen. Une batez eskua jarri nion sorbaldan. Ez zuen onartu ez kontsolamendua ez niri begiratzea. Esan nahi nion, *Ben, asko sentitzen dut zuri min eman izana. Hala jokatu dut beldurturik nengoelako bakarrik. Ez nekien gizonek mina nik bezala senti zezaketenik. Mesedez, utzi berriz sartzea.*

Baina, jakina, ez nuen halakorik esan. Horren ordeztu esan nuen:

—Astelehena arte.

•••

Bakardadea gero eta jasanezinagoa bihurtu zen. Ukitua izatea desiratzen nuen. Beldur nintzen desagertzen ariko ote nintzen, eta existitzeari utziko ote nion baldin norbaitek ukitzen ez baninduen.

Bereziki emakume batek deitzen zidan arreta goizero: Annie, lantoki ondoko kafetegiko zerbitzaria. Kafea ekartzen zidanean, bazirudien ez zela nigan ohartzen. Baina orduan begiratzen zidan, eta alde egiten zuen, nire arretan bildua, xal bat balitz bezala. Gangster bat bezain gogorra zen. Jainkoa, gustatzen zitzaidan Annie. Bezero bakoitza putazale bat bezala tratatzen zuen. Eskupekoa lortzeko lantzen zituen, eta ez zien joaten uzten eskupekoa utzi arte.

Barran eseri nintzen eta ikusi nuen nola erlaxatzen zen Annie Francesekin, lankidearekin. Itxuraz, jatetxeko gizonek us-teko zuten emakumeen arreta berentzat bakarrik existitzen zela. Ikusi izan balute nolako konfiantza zuten emakumeek elkarrekin, beharbada jeloskor jarriko ziren. Baina ez ziren ohartzen. Ni bai.

Anniek barran ikusi ninduen.

—E, laztana, zer berri gaur?

Irri, nik.

—Zer moduz zaude, Annie?

—Igel baten ile erdibitua baino finagoa, maitea. Zer nahi duzu?

—Kafea eta arrautza frijituak.

—Berehala izanen dituzu —esan zidan sorbalda gainetik, nitaz aldendu bitartean.

Haren gorputzak eskatzen zuen arreta jar niezaiola.

Francesek eta Anniek beren haurren fotografiak erakusten zizkioten elkarri, plantxako eskaeren zain egon bitartean.

—Ikus dezaket? —galdetu nion Annieri, arrautzak ekarri zizkidanean.

Mesfidati begiratu zidan, argazkia luzatzen zidala.

—Zergatik ez.

Lau ilaratan, haur polit batzuen aurpegiak begira nituen.

—Zein da? —galdetu nuen.

Anniek eskuak mandarrean lehortu, eta alaba seinalatu zuen.

—Jainkoa, ederra da —esan nion—. Zure begiak ditu: azkarak eta haserreak aldi berean.

—Non ikusi duzu hori? —jakin nahi izan zuen Anniek, argazkia eskuetatik hartzen zidala.

Haserre bizian joan zen. Geroxeago nire kafea ekarri, eta kolpean utzi zuen barran, hain gogor non kafea katilutik atera baitzen. Orduan katilua altxatu, barra lehortu, eta berriz isuri zuen.

—Liburu bat irakurri nahi duzun hurrengo aldian, joan zaitetz liburutegi pito batera.

Buelta eman zuen. Eskupekoa utzi, kutxazainari pagatu, eta joan egin nintzen.

Biharamunean, lore bat ekarri nion.

—Sentitzen dut arlo pertsonalean sartu izana —esan nion.

—O, tira, ez zait inporta arlo pertsonalean sartzea, maitea.

Baina ez izan presarik, bai?

—Konforme —nik.

—Nolanahi, zer lore mota da?

Irribarre nik:

—Urrelili bat amarentzat⁸.

Kopeta zimurto zuen.

⁸ Krisantemoa eta ama, biak esaten dira *mum* ingelesez.

—O, harrapatu dut.

Annieren gorputz hizkera oso hotza zen nirekin. Baina Annie eta Frances elkartzean, lasaitu zen. Xuxurlatzen aritu ziren. Francesek lorea usaindu, eta eskua bihotzean jarri zuen. Anniek Frances sorbaldan jo zuen.

Annierekin egon nahi nuen haren lanetik kanpora. Jada agerikoa zen.

Anniek paper zuriko zorro bat ekarri zidan.

—Zer da? —galdetu nuen.

Sorbaldak goratu zituen.

—Kafea eta gerezizko pastel daniarra.

Ez nuen ulertzen.

—Ez dut eskatu.

—Nik ere ez dut lorerik eskatu. Etxearen kontura —erantzun azkarra—. Egin berria. Pastela egin berria da.

Iribarre egin, eskupekoa utzi, eta kutxazainari gosaria pagatu nion. Orduan barrara itzuli, eta Annieren arreta deitzen saiatu nintzen. Itxoinarazi zidan.

—Zer ahaztu zaizu? —galdetu zidan.

—Jakín nahi nuen ea zuk... —urduri jarri nintzen.

Akats handia izan zitekeen nire lankideek ezagutzen zuten norbaitekin ibiltzea. Arazo larria izan nezakeen baldin Anniek nirea jakiten bazuen; lana utzi beharko nuen. Baina izugarri bakarrik nengoen.

—Nik zer? —mesfidati.

—Ea nirekin hitzordua egin nahiko zenukeen noizbait?

Anniek eskuak aldaketan jarri, eta goitik behera begiratu zidan zenbait aldiz.

—Eskaidazu berriz beste noizbait.

Zantzu ona iruditu zitzaidan.

Egiazko flirteoa biharamunean hasi zen. Dibertigarria zen. Ongi sentiarazten ninduen. Garai zaharrak oroitarazi zizkidan, *femmeen* eta mari-mutilen artekoak. Baina oraingoan ez zen emakumeen artean. Behintzat munduak ez gintuen hala ikusten. Eta, behin eta berriz oroitarazten nion neure buruari, Anniek ere ez zuen hala ikusten.

Harrigarriena zen gorteatze dantza hau denen aurrean egin zitekeela, eta denek —hala lankideek nola arrotzek— adore eman eta onartzen zutela. Bitartean, Anita Bryantek Biblia

kolpekatzen zuen, ongi hauspotutako kanpaina batean, gay eskubideen ordenantza bat behera botatzeko. Nire golkorako galdegin nuen nola epai zitekeen hain desberdin jendearen arteko maitasuna.

Azkenerrako ausartu nintzenean Annieri berriz ere hitzordua eskatzera, eskuak mandarreen lehortu eta erantzun zuen:

—Bai, nik uste. Zergatik ez?

Ostiral gauean haren atean jo nuen. Denbora luzea behar izan zuen erantzuteko. Zerbait oihukatzen aditu nion. Urdailean sentsazio arraroa izan nuen. Anniek erdizka bakarrik ireki zuen atea.

—E... —hasi zen.

Haur bat ikusi nuen haren zangoak besarkatzen.

—Ongi dago —eten nion.

Bertan behera utzi nahi zuen. Desilusia estaltzen saiatu nintzen.

—Beharbada beste batean.

—Itxoin —atea osorik zabaldu zuen—. Esan nahi dut, sartu nahi baduzu, kafe bat aterako dizut, edo beste zerbait.

Sartu nahi nuen.

Hirurak deseroso gelditu ginen zutik egongelan.

—Umezaina, egia esan nire ahizpa, gaixotu egin da; beraz, Kathy etxean izanen dut gaur, eta sukar pixka bat du.

Eskua altxatu nuen.

—Ongi dago. Ikusten dut oso okupaturik zaudela. Lasai!

Annie pixka bat lasaitu zen.

—Eseri. Jateko zerbait nahi? Zerbait prestatzen ahal dut.

—Ez al zaude jana zerbitzatzeaz nazkatua?

Irri egin zuen.

—Ongi dago. Ez zait inporta.

—Nahi duzu ni sukaldean esertzea, zu gela bakarrean aritu ahal izateko?

Irribarre egin, eta baietz esan zuen.

Aldean ekarri nuen telazko zorroa lurrean utzi nuen, sofaren ondoan, ikusmenetik kanpo. Beharbada dildoa ekartzea sobera optimista izan zen. Baina bestalde, dildorik gabe harrapatua izateak krisia eragin zezakeen. Saiatu nintzen arnasa hartuz urduritasuna gainditzen, Annieren eta Kathyren atzetik sukaldera joan bitartean.

—Lagundu dezaket? —eskaini nuen.

Harritu zen.

—Ez, lasai.

Kathy Annieren zango bati harrapatua zegoen beso batekin, eta peluxezko untxi bati heltzen zion bestearekin. Irribarre egin nion.

—Zure untxiak ere sukarra al du? —Kathyk untxiari begiratu zion, eta gero niri, erantzun gabe.

—Gero —esan nion Kathyri—, uste baduzu untxiak sukarra duela, tenperatura hartuko diot. Neska edo mutikoa da? —Kathyk goian eutsi zion untxiari, sexua zein zen ikus nezan.

—A, neskatoa da —ondorioztatu nuen.

Kathyk amari begiratu zion.

—Joan eta erakutsi untxia —premiatu zuen Kathy.

Kathyk ezezko keinua egin zuen indarrez, eta amari estu heldu zion, babes bila.

—Gustatzen zaizkizu makarroiak eta gazta? —galdetu zidan Anniek.

Gorrotatzen ditut makarroiak eta gazta.

—Bai, zoragarri —erantzun nik.

Anniek zerbitzatu zituen hiru plater urdaiazpikoarekin, makarroi eta gaztarekin, artoarekin eta ogi zuriarekin. Lehenbiziko platerean, janari artean, ikus zitezkeen Harriketarren marrazki batzuen zatiak.

—Nirea da hau? —galdetu nion Kathyri.

Ezezko keinua egin, eta estuago heldu zion untxiari.

Anniek platera nire aurrean jarri, eta eseri egin zen. Kathyk edalontzi huts bat altxatu zuen. Annie berehala jaiki zen esnez betetzeko.

—Garagardorik nahi? —galdetu zidan hozkailuko atea irekita zuen bitartean.

—Bai ba —nik.

—Basorik behar?

Ezetz, nik. Irribarre egin zuen.

Anniek bi garagardo botila ekarri, eta eseri egin zen. Topa egin genuen garagardoekin. Kathy saiatu zen gauza bera egiten. Basoa irauli zitzaion, eta esnea mahai guztian barreiatu zen. Annie berehala saiatu zen bere zapiarekin nire platereko esnea xukatzen. Ni jauzian altxatu, eta harraskatik belaki bat ekarri nuen. Gehiena garbitu genuen.

Anniek deseroso zirudien.

—Afaria zapuztu zaizu.

—Ez —esan nuen—, esnea ona da.

Bazirudien Kathy negar egitekotan zela. Untxia estuago hartu zuen. Irribarre egin nion.

—Batzuetan, ura-edo botatzen dudanean, iruditzen zait denak nirekin haserretuko direla —esan nion—. Ni ez nago zurekin haserre.

Kathyk begiak erdi-itxi, eta begira gelditu zitzaidan, ama bezal-bezalaxe.

—Hobeki sentituko zara nik ere garagardoa botatzen badut? —galdetu nion.

Kathyk irribarre egin, eta baiezko keinua egin zuen indar handiz.

—Ez zaitezela ausartu —ohartarazi zidan Anniek irribarra ezkutatu.

Handik aurrera afarria askoz lasaiago joan zen. Postrearen ondoren, Kathyk untxia utzi zidan.

—Tenperatura hartuko diot? —galdetu nion.

Baietz.

—Untxi honek lotara joan behar du agudo —esan nion—. Nik uste hoztu dela.

Kathyk informazioa kontuan hartu, eta baiezko keinua egin zuen.

—Lehenik bainua beharko du? —nik.

Kathyk ezezko keinua egin zuen, alde batetik bestera.

—O, bai, behar du —irriz Anniek, eta Kathy besoetan hartu zuen.

—Jasoko dut mahaia —esan nion Annieri—. Har ezazu zure denbora.

Anniek mesfidati begiratu zidan.

Azkeneko platera garbitzen ari nintzen Annie atzeko aldetik etorri zenean. Eskuoihal bat hartu zuen hozkailuko atetik. Eltzeak garbitu nituen hark platerak lehortu bitartean. Ongi sentitzen nintzen. Baina Anniek zenbat eta plater gehiago lehortu, haserretuago zirudien.

—Zer gertatzen da? galdetu nion.

Eskuoihala jaurti, eta haserre begiratu zidan.

—Ez naiz larru-jotze erraz bat, ulertzen? Gizonek badakizue haur bat duen emakume bat lehenago ere izorratu dutela, eta uste duzue nahi duzuen lor dezakezuela, ezta?

Belakia txorrota azpian garbitu, eta sukaldeko mahaia lehortzen hasi nintzen.

—Nahi nuena lortu dut afarian —esan nion.

Harri eta zur gelditu zen.

—Zer, makarroiak eta gazta esne saltsan?

Irri egin genuen.

—Besterik gabe, zurekin denbora pasatu nahi nuen lanetik kanpo zeundenean, badakizu.

—Zergatik? —berriz ere begi zorrotz horiekin aztertu ninduen.

—Gustuko zaitut. Uste dut neska gogorrek oso gustuko ditudala, eta, alafede: horietako bat zara.

Ezezko keinua egin zuen.

—Ez zaitut harrapatzen.

—Eta?

—Eta nondik nora doan ez dakizun gizon bat gizon arriskugarria da —esan zidan.

Hurbildu zitzaidan. Nire gorputza harengana biratu zen. Gertatzen ari zen.

—Ez naiz arriskugarria —hitzeman nuen—. Konplexua naiz, baina ez arriskugarria.

—Zeren bila zabilta, maitea? —Anniek hatzak ile artean pasatu zizkidan leunki.

O, Jainkoa, zeinen gustura.

Hasperen egin nuen sakon.

—Mina egin didate. Ez dut ezkontzea bilatzen, eta ez diot inori errespeturik galdu nahi. Uste dut atsegin pixka bat behar dudala.

—Hori nahi duzu? —jakin nahi izan zuen—. *Gau bakarreko* batek bezala?

Sorbaldak goratu nituen.

—Ez dakit —esan nion, egiaz.

Anniek nire hitzak kontuz neurtu zituen, bere beharren eskalan. Niregandik urrundu zen, baina banekien handik gutxira ukitzerik izanen nuela. Hurbilen nuen masailean musu eman nion. Ezpainez belarria laztandu nion, eta lepoan behera joan

nintzen. Haren arnasketa aldatzen ari zen. Bira eman, eta luze begiratu zidan, bere ahoa eskaini aurretik. Sakon musukatu genuen elkar, baina oraindik ere tentuz. Pixkaka, elkarren kontra mugitzen hasi ginen. Senti nezakeen nola eskaintzen zion gorputza gizon bati proba gisa. Atsegina izan nintzen. Mantso ibili nintzen. Pixkanaka, haren gorputza ohartu zen nire tempoa apur bat atzetik zihoakiola. Aurpegia gorritu egin zitzaion, beroak. Bere pelbisa nirearen kontra bultzatu zuen, eta burlati begiratu zidan. Biek genekien zakila ez nuela gogorra.

—Amatxo! —deitu zuen Kathyk bigarren pisutik.

Anniek barkamen begirada egin zidan. Kathyren ahotsa heldu zen aldera keinu egin nuen. Annie pixka baterako leku-tu zen. Sukaldera itzuli, eta Errauskineren plastikozko baso bat urez bete zuen.

—Berehala itzuliko naiz —esan zuen ahots latzez.

Beste gelan utzitako zorroaz oroitu nintzen. Dudarik gabe, eskuratzeko momentua zen. Zorroa hartu, eta komunean sartu nintzen laster batean. Atea kisketaz itxi, eta galtzak eta galtzontzilloak kendu nituen.

Arnesa eta gomazko zakila ongi egokitu zitzaizkidan galtzontzilloetan. Galtzak jantzi, eta kondoi bat bilatu nuen nire diru-zorroan. Aditu nuen Anniek sukaldetik deitzen zidala. Ur-tanga hustu, txorrota une batez ireki, eta komunetik atera nintzen, harengana. Arnasestuka nengoen.

—Zertan aritu zara hor barnean? Lasterka? —irriz.

Denbora behar izan genuen zirrara berreskuratzeko. Hatzak ile artean pasatu nizekion.

Begiak itxi, eta ezpainak bereizi zituen. Telefonoak jo zuen. Biek irri egin genuen.

—Ahaztu —esan zuen.

Joka segitu zuen. Niregana erakarri nuen. Bere pelbisa nirearen kontra bultzatu zuen. Oraingoan irribarre egin zuen.

Beregana erakarri ninduen, eta aurpegia aztertu zidan. Harraskaren kontra jarri nintzen, eta niregana etortzea itxoin nuen. Orduan eskutik hartu ninduen, eta logelara eraman.

Annie beldur zen. Banekien baietz. Ez zekien nik ere beldurra nuela. Halako gogoia nuen haren besoetan egoteko, non prest bainengoen agerian gelditu eta umiliatua izateko arriskua hartzeko.

Logelan sartu, eta argia piztu zuen. Harley-Davidsonen gasolina tanga bat tetxutik zintzilik zuen.

—Motoak gustuko dituzu? —galdetu zidan. Baietz, nik. Argi etengailuraino joan, eta itzali egin nuen. Annie ohatze ondoan zegoen, deseroso. Haren atzeko aldean jarri, eta eskuak sorbaldetan jarri nizkion. Esku bakarrez ilea altxatu, eta ezpainekin zimikoa egin nion lepondoan. Goxo, pelbisa ipurdiaren kontra bultzatu nion, sorbaldak atzeraka erakarri bitartean, nire ahoak haren lepo gehiago izan zezan.

Annie biratu zen eta, poliki, ohatzera bota ninduen. Dardar egin zuen.

—Beldur zara? —nik.

—Pikutara —erantzun zidan irribarre oker batekin.

—Noizbait min eman dizute —esan nuen niretzat ahots goran.

—Zer emakumeri ez? —bota zidan.

Nire bizkar gainera biratu nintzen, eta nire gorputz gainera erakarri nuen.

—Egiaz gogoia dut zu ongi sentiarazteko —xuxurlatu nuen—. Baldin nitaz nahikoa fidatzen bazara erakusteko zer gustatzen zaizun.

—Zertan zabilta? —esan zidan ufaka—. Larrutan egin nahi duzu edo ez?

—Egin dezakegu nahi baduzu —esan nuen—. Edo beste gauza batzuk egin ditzakegu, nahi duzuna.

Annie harri eta zur gelditu zen.

—Zer esan nahi duzu «nahi duzuna» horrekin?

—Zure gorputza da. Zer nahi duzu? Hau da, erakusten ahal didazu egiaz nola izan nahi duzun ukitua. Edo bero-bero jar zaitezke, eta ni korritu arte itxoin, ez agudoegi, ezta beranduegi ere, ulertzen?

Anniek ezezko keinua egin, eta zut-zuta jarri zen.

—Ni beldurtzen ari zara —esan zuen.

—Ukitzen zaitudanean zu presente egotea nahi dudalako? Baiezko keinua.

—Bai, justu horregatik.

Etzanik eta isilik gelditu nintzen.

—Ez dakit badezakedan —esan zidan.

Eserita jarri, eta besoetan hartu nuen

—Saiatu —xuxurlatu nion, eta nire gainera erakarri nuen.

Bere bizkar gainera birarazi nuen, sakon eta luze musukatzen nuen bitartean. Atorraren botoiak askatu nizkion, hatz irmo eta mantsoz, eta bularrak tentatu nizkion denbora luzez, titiburuetara nire hatz puntak hurbildu aurretik. Orduan laztandu nituen, arinki, eta gorputzaren zirrara nabaritu nion. Titiburu bakoitza ahoarekin hartu nuen, eta haiekin jostatu, oso kontuz betiere. Nolabait, gorputzarekin adierazi zidan non ukitu, nola ukitu, noiz ukitu. Haren blue-jeans-en aurrealdea igurtzi nuen, pasioa handitzen nabaritu nuen, baina oso-oso biziki desiratzeraz iristearen oparia merezi zuen.

Orduan, zerbait esan zidan, eta banekien adore handia eskatu ziola:

—Beti nahi izan dut larrutan egin aurretik korritu.

Aurpegia lotsaz biratu zuen. Agerian utzi zuen eztarri zatian musu eman nion.

—Nahi duzuna —nik.

Aurpegia niregana bueltatu zuen. Begiak bustirik zituen.

—Nahi dudana? —galdetu zuen.

Elkarrekin, hura biluzten hasi ginen: nire beharra, haren premia. Galtzak eta atorra dotorea erantzi nituen. Kamiseta zuri bat eta galtzontzilloak bakarrik nituen.

Hatzak pasatu nizkion izterretatik eta barne zirrikituetatik. Beroa eta hezetasuna sentitzen nituen haren azpiko arropa zeharkatzen. Gorputza beheraka eramaten hasi nintzen, ezpainak eta mihia erabiliz zona erotiko berriak sortzeko haren saihetsaldean eta sabelean. Nire hatzek haren azpiko arroparen zerrenda elastikoari heldu, eta izterretan behera jaisten ari zirela, Anniek belarriak irmoki hartu zizkidan eta geldiarazi ninduen.

Begiratu nion, aurpegiarekin galdera eginez.

—Hilekoa izan berri dut —esan zidan.

Sorbaldak goratu nituen.

—Eta?

Hainbat emozio agertu zituen Annieren aurpegiak: sinagogortasuna, haserrea, lasaitua, gozamena. Gozamena zen, dudarik gabe, aurpegian iraun zion emozioa, ahoz izterrak zirrikatzen hasi nintzaionean. Bere desira onartu zuen, eta, hala, orgasmora iritsi zen, konfiantza kasik lasaiaz.

Estu besarkatu nuen arnasa mantsotu zitzaionean. Hatzak nire ile artean pasatu zituen, eta bizkarra laztandu zidan. Hain

atsegina zitzaidan haren ukitua, malkoak atera eta masailetan behera erori baitzitzaizkidan.

—Zer duzu, maitea? —galdetu zuen kezkatu-rik.

Ezezko keinua egin, eta aurpegia haren sorbaldan ezku-tatu nuen. Une horretan haren besoek neronen bizitik babesten ninduten.

Ahoa haren titiburutik hurbil nuen. Annieren arnasa biz-kortzen sentitu nuen. Kamisetatik tira egin zidan.

—Ken ezazu —setatu zen.

Urduri jarri nintzen. Gela iluna zegoen. Haren gainean nengoan, eta ezin zizkidan ikusi bularreko bi marrak, erakusten zutenak moldatua nuela.

Kamiseta kendu nuen. Anniek azazkalak soingainetatik pasatu zizkidan, bizkarrean behera. Plazer hotzikara izan nuen. Azazkalak haragian sakonago zapatu zituen, bere pelbisa nirear-ren kontra mugitu ahala. Lasai zegoen nirekin, hari eta haren gainean, haren barnean sartzeko prest, egon nintzen arte. Izte-rrak laztandu nizkion, begirada niregana altxatu zuen arte.

—Nahi baduzu bakarrik, bestela ez —esan nion.

—Asko desiratzen zaitut —xuxurlatu zidan ahots latzez.

Hori esan zuenean, biek plazer intziri isila egin genuen. Iluntasunean, dildoa galtzontzilloetatik atera nuen kontuz, des-kubritua izatearen beldur. Zerk pentsarazi ote zidan hau ongi aterako zela?

Kondoia dildoan zabaldu nuen.

—Ez dut uste ume gehiago izan dezakedanik —esan zidan.

—Ez dut arriskurik nahi, eta nire erabakia da, nolnahi ere —esan nuen.

—Hau aldaketa —esan zuen, irriz.

Nire zakilaren muturra pixkaka bultzatu nuen. Gorputza tenkatu zuen; itxoin nuen. Orduan Annie lasaitu, eta aldakak mugitzen hasi zen, eta bere barnerantz erakarri minduen. Ez nin-tzen mugitu bera mugitu arte. Haren mugimenduak eskatzen zuena baino mantsoago mugitu nintzen; haren gorputzak gehia-go eskatu zuen.

Haren orgasmoa etortzen sumatu nuen iritsi baino askoz lehenago. Korritu bitartean nire bizkarra harramazkatu zuen. Ileetatik hain gogor tiratu zidanean harekin batera oihuka-tu nuen. Haren orgasmoa bukatzen hasi zenean atsegin segitu

nion: zirkuluak, putzu bateko ur gain hautsi batean. Harekin batera hurrengo orgasmoa bilatu nuen, aurrekoa osotara itzali aurretik. Elkarrekin topatu genuen, eta gero beste txikiago bat.

—O, Jesse —oso atsegina zen nire izena haren hasperenean aditzea.

Hatz puntak nire bizkarrean behera jaitsi zituen, euri tanta beroak bezala.

Oraindik ere gogor-gogorra nengoen haren barnean. Biak aldi berean ohartu ginen.

—Zer, maitea, ezin izan duzu bukatu?

—Ezin naiz korritu goma bat jarria dudala —esan nuen—. Utzidazu kentzea, eta korritu aurretxoan aterako naiz, egiaz.

Aurpegia alde batera biratu zuen.

—Aditu dut hori lehenago ere.

—Hitzematen dut. Sinetsidazu.

—Erruki zakizkigu! Horiek dira hitzik arriskugarrienak gizon baten ahoan. Ongi da, laztana, eskerrak uste dudan ezin naizela berriz haurdun gelditu.

Egia da, eiakulazioaren itxurak egin nituen, baina plazera egiazkoa zen. Annieren gorputza hain zen atsegina. Musu eman zidan sakon eta poliki, niretzat mugitu zen, maitale bati emakume batek ematen ahal dion guztia eman zidan, eta berotu nintzen. Gehiago ezin izan nuenean, pixkaka atera nintzen, pel-bisa maindireen kontra jarri, eta intziri egin nuen.

Ohatzean, ahoz behera begira gelditu nintzen, burua haren sabelean pausaturik. Haren eskuak nire ilearekin jostatu ziren. Hatz puntak nire soingainetan ibili ziren, nire larruazala kitzikatuz. Desiratu nuen une huraxe betikotu ahal izatea.

Elkarrekin etzanda egon ginen isilik, tarte batean.

—Komunera joan behar dut —esan nuen.

—Nik ere bai —hark, irriz.

—Ni lehenbiziko.

Oraindik ahoz behera, dildoa galtzontzilloetan sartu nuen. Annieri bizkarra eman, kamiseta jantzi, eta komunera joan nintzen ilunpetan. Atea kisketaz itxi, zorroa bainuontziaren atzeko aldetik atera, eta dildoaren ordeztu galtzetin bat jarri nuen galtzontzilloetan. Ispilura begiratu nuen, aurpegia ur hotzarekin busti bitartean. Oraindik ere ni, neronen buruari begira.

Atean jo zuten. Kisketa ireki nuen. Annie besoetara etorri, eta sakan eman zidan musu. Eskua atsegin jarri zidan izter artean, eta galtzetina estutu zuen.

—Gau honetatik plazer handia atera dut —esan zuen—. Magikoa izan da.

Gorputza tenkatu zitzaidan, eta eskua kendu zuen.

Ilea laztandu nion.

—Magia guztia ilusioa da —aitortu nuen.

Argia piztua zegoen logelara itzuli nintzenez. Itzali nuen. Annie etorri, eta ohatze ertzean eseri zen.

—Goseak? —galdetu zidan.

—Mmm. —Nire gainera erakarri nuen, eta musu ematen hasi nintzen, harik eta ohartu nintzen arte bete ezin nituen promesak egiten ari nintzela.

—Nekaturik nago —esan nuen—, baina besarkatu nahi zaitut.

Annie nire besoetara etorri, eta nire soingainean babestu zen.

—Gizon bitxia zara.

—Zer esan nahi duzu?

—Lehenik, ez dut gizonik ezagutu emakumearen odol pixka bati beldurra ez dionik. Baina badakizu zer den arraroena zugan?

Gorputzeko gihar guztiak gogortu zitzaizkidan, galtzetina izan ezik. Anniek irri egin zuen.

—Lasai, haurra. Ez naiz kezkatzen ari. Txunditu nauena izan da bazenekiela nire haurraz arduratu behar nuela, eta ez didazula arretarik eskatu ohatzera joan den arte. Horrek, eta nire senar ohiak ere ez zituela sekula platerak garbitu, eta hark zikitzen zituen gehienak.

Anniek ezezko keinua egin zuen.

—Eta ez duzu beste gizonik bezala egiten larrutan.

Ahoz behera jarri nintzen, babes bila. Soingainetan masajea egin zidan.

—Hau da, denbora hartzen duzu, bai? Zakilean burmuina bazenu bezala, eta ez burmuinaren ordezkila, bai?

Biek irri egin, eta elkarrekin biraka ibili ginen ohatzean.

Lokartu nintzen, haren besoetan seguru.

Kathyren ahotsarekin iratzarri nintzen.

—Marrazkiak jar ditzaket?

—Bai, segi —marmarikatu zuen Anniek.

Geroxeago belarrian musu eman zidan, eta gosaria egiteko jaiki zen. Anniek opiltxoak egin bitartean, Kathy altzoan eseri zitzaidan, eta Bidelariaz eta Koioteaz pentsatzen zuen guztiaren berri eman zidan. Annie saiatu zen ezkututzen gu biak elkarrekin ikustearen plazera.

—Gizonei beldurra izaten die —esan zuen Anniek Kathy gelatik ateratakoan—. Oso ona zara harekin.

Zerbait nabaritu nuen Annieren gorputz hizkeran, kozinatzten zuen bitartean.

—Zer duzu buruan? —galdetu nion.

Biratu, eta eskuak mandarrean lehortu zituen.

—Badakit hau galdetzea erokeria dela.

—Aurrera —esan nuen.

—Tira, ahizpa bihar ezkonduko da, eta, bueno, erokeria da, hau da, abisatzeko oso denbora laburra da, eta atzo ez zinen deusetara konprometitu...

—Bai, jakina —esan nuen.

Annie sukaldeko aulki batean eseri zitzaidan ondoan.

—Egiaz ez zaizu inporta?

—Egiaz ez zait inporta, baldin ulertzen baduzu...

Hatz puntak nire ezpainen aurka zapatu zituen.

—Bihotzak gehiago eskatzen dit batzuetan —esan zuen—, baina buruak zuk nahi duzun gauza bera nahi du.

Baiezko keinua egin nuen.

Annie zutitu, eta sukaldeko suetarantz joan zen.

—Bada eragozpen bat —erantsi nuen.

Ez zen biratu, baina gorputz guztia gogortu zitzaion, ukabil bat bezala.

—Zer? —soingain gainetik.

—Nire Harleyan joan behar dugu. Ez dut beste ibilgailurik.

Mandarra kendu, harraskara jaurti, eta altzoan eseri zitzaidan. Ahoan oso ezti eman zidan musu.

—Bederatzietan —esan zuen—, puntu-puntu.

Egia esan, 8:30ean hurbildu nintzen haren etxera. Motorra etxe-sail bat lehenago itzali nuen, eta abiada isilean iritsi nintzen etxeraino, auzotar guztiak ez iratzartzeko. Portxean eseri nintzen, zigarreta bat erretzen, aditu nuen arte atea irekitzen eta Annie esaten:

—Sartuko zara edo ez?

Goitik behera begiratu zidan, onespena emanez.

—Oso dotore zaude, maitea.

Gorritu egin nintzen, eta gustatu zitzaion.

—Janztez bukatzen ari naiz. Kafea egin dut —oihukatu zuen logelatik.

—Hartuko dut —oihukatu nik—, zuk ere nahi?

Bere logelako atera hurbildu zen, soinekoaren atzeko aldeari eutsiz.

—Bai —irribarrez.— Baina lehenik lagundu soinekoaren kremaiera ixten.

Soingain gainetik begiratu zidan nik lagundu bitartean. Aurpegiaren alde horretan musu eman nion. Ilea bildua eta ile-orratzekin hartua zuen. Lepoaren beheko aldean musu eman nion.

—Segi horrela eta ez naiz sekula prestatuko, maitea —apartatu ninduen.

Bi kafe katilu prestatu, eta logelako atera eraman nituen. Atea erdi irekia zegoen, baina ate-saihetsean jo nuen.

—Hemen duzu kafea.

Geroxeago atera zenean, aireari eutsi, eta pixkaka ateratzen utzi nuen. Soinekoa leundu zuen.

—Zer itxura dut?

Hasperen, nik.

—Hil eta zerura joan banintz bezala.

Aurpegi-keinu bat egin, eta besoak altxatu zituen, nire lepoa inguratzeko, baina atzeraka egin, eta orkidea sorta bat eman nion, bezperan eresia.

Malkoei eusten saiatu zen. Gero haserre hitz egin zuen.

—Baina zertarako egin duzu? —eman zidan errietan.

Parean nuen emakume indartsua ikusita, irribarre egin nuen. Aurpegia gozatu zitzaion, eta musu eman zidan.

—Non dago Kathy? —nik.

Kopeta ilundu zuen.

—Francesekin: jatetxekoa. Nire senar ohia ezkontza inguruan ibiliko da gordeka.

Ez nuen ulertu, baina bere horretan utzi nuen.

Ezteia elizako ospakizun formala izan zen. Eztei batean inoiz izan gabea nintzen. Jende guztia begi bustiekin eta ospakizunarekin beraturik zegoen. Annieren ahizpak zintzoki

hitzeman behar izan zuen gizon horri obedituko ziola bizi guztirako, apezak aldarrika zezan ezkondurik zeudela. Gauza feudala iruditu zitzaidan.

Eztei bazkaria aire zabalean izan zen. Belardi osoan mahaiaik eta aulkiak jarriak zeuden. Edaria eta jana banatzen ziren denda marradun gaitz baten azpian.

Anniek aurkeztu zidan Buffalora, ezteira, etorritako jende guztia. Anniek eskutik heldu zidan denbora guztian. Wilma lehengusua ezagutu nuen. Irribarre gaiztoa egin zigun.

—Zeinen ongi, gaur Annierekin etortzea onartu duzu — Anniek tornikete bat bezala estutu zidan besoa.

—Plazera da —eskua Annieren eskuan jarri nuen, besoko zirkulazioa mozten ari zitzaidan horretan.

Annieren begietatik soa kendu gabe, Wilmari esan nion:

—Annie bezalako emakume indartsu eta eder batek niri arreta ematea ez da eguneroko gauza.

Wilmak buelta eman, eta alde egin zuen, eta Anniek irria ito zuen nire soingainean.

—Eskuratu xanpain botila bat —esan zuen.

Hala egin nuen.

—Zenbat baso, jauna? —galdegin zidan zerbitzariak.

—Bat.

Nik soda botila txiki bat hartu nuen.

—Har dezaket?

Zerbitzariak baietz.

—Zertarako da? —jakin nahi izan zuen Anniek.

—Demontre, norbaitek gidatu beharko du etxeraino.

Hantxe berean hain xamur eman zidan musu, denda azpian ez baitzegoen ez gizonik ez emakumerik melankoliaz begiratzen ez zigunik.

Anniek eta biek itzal bat topatu genuen zuhaitz baten azpian, handik gorabehera guztiak ikusteko. Oinekin zapatak kendu zituen. Trajeko jaka lurrean jarri nuen, eser zedin. Anniek ezezko keinua egin zuen.

—Amatxok mutikoari manerak irakatsi zizkion, ez dago dudarik.

Bere familiako guztien txostenak egin zizkidan: nor zen ezkutuko mozkorra, nork jotzen zuen emaztea, edo nor zitzaion desleiala emazteari, eta nork egiten zuen esnezalearekin.

—Maritxu hori —esan zuen mespretxuz.

Haren begien gorrotoarekin harri eta zur gelditu nintzen. Berrogeita hama-gutxiko gizon bati zuzentzen zion begirada hiltzailea. Besoa bizkar gainean jarria zion ezteian zebiltzan izeba askotako bati.

—Nork utzi dio etortzen marikoi horri? —esan zuen ahapeka.

—Gaya al da egiaz? —galdetu nion.

—Egizu apustu baietz. Segur aski familiako haur guztiak izorratzen ariko da.

—Jesus, Annie —odola izoztu zitzaidan—. Nola gorrota dezakezu norbait maite duenarengatik bakarrik?

Txundituta begiratu zidan.

—Marikoiak gustatzen zaizkizu?

Sorbaldak goratu nituen.

—Ez gara denak berdinak, Annie. Eta zer?

Ezezko keinua egin, eta lurrera listua bota zuen.

—Ez nuke utziko marikoi bat alabarengandik hurbil egotea.

Hitz egin aurretik pentsatu nuen

—Annie, norbaitek Kathyrekin sexurik izatekotan, hetero batek izanen luke, ez gizon gay batek.

—Bai? —oihukatu zuen.

Annie zutitu, eta xanpain botila estu-estu hartu zuen aldean.

—Bueno, ba ez dut utziko alabaren inguruan gizon arrarorik izatea. Neronen gizona utzi nuen Kathy gogaitzen topatu nuelako. Esku hutsekin hura hiltzen saiatu nintzen. Marikoi nazkagarririk ez zaio nire neskatoari hurbilduko, ulertzen?

Ulertu nuen elkarrizketa hau ez zela inora iritsiko. Anniek, zapaten ostiko batez, lurra eta belarra altxatu zituen, eta berriz eseri zen.

—O, kaka, nolana ere, zergatik xahutuko dugu denbora gaur maritxuez hizketan?

Ezteitik alde egiteko unea irrikatan itxoin nuen. Motoan, Anniek besoez lepoa inguratu zidan, eta aurpegia bizkarraren kontra jarri. Etxera iritsi ginenerako, bi zapatak galduak ziren eta motoaren ihes hodiak zuloa egin zion soinekoaren azpilduran.

—Ez egin kasurik —esan zuen Anniek. Mozkorturik zegoen.

Portxean besarkada eman zidan.

—Sartuko zara, maitea?

—Ba, ez —esan nuen—. Goizean lanerako prest egon behar dut.

Bere hanka hutsei begiratu zien, eta gero soa altxatu zuen.

—Ez zaitut berriz ikusiko, ezta? —galdetu zuen.

Nire zapatei begiratu nien.

—Uste dut ezetz.

Baiezko keinua egin zuen.

—Zergatik ez? —galdetzeko moduak bihotza urratu zidan.

—Uste dut zurekin maiteminduko naizela —esan nuen.

Partez egia zen, baina ez zen egia osoa. Gauza bat da mago batek ilusioaren artea deskubritzea. Beste bat da emakume hetero bati esatea harekin ohatzean egondako gizona emakumea dela. Anniek ez zuen halakorik onartuko. Goiz edo berandu kontua lehertu egingen zen. Eta arratsalde horren ondoren, are arrazoi gehiago nuen leherketari beldur izateko.

—Zer du txarra maitemintzeak? Zer gertatzen zaizue gizonei, nolana ere? —zezelkatu zuen.

—Min eman didate, Annie. Denbora behar dut.

—Kaka, uste nuen desberdina zinela. Ez zara desberdina, pixa zutik egiten duen beste edozein gizonen aldean.

—Tira —sorbaldak goraturik—, agian desberdinagoa naiz.

—Esaiozu min eman dizun emakume horri haren bila joanen naizela, eta larrutu egingen dudala. Gainerako guztiei zapuztu digu—. Annieren irribarra joan egin zen—. Ez du zentzurik hemen kanpoan solasean segitzeak, ezta? Hobe duzu alde egitea.

Baiezko keinua egin nuen. Elkarrri begiratu genion luze. Giltzak eskuetatik hartu nizekion eta ate nagusia ireki nion. Ezpainetan musu arin bat eman nion.

—E, eskerrik asko Wilmari esandakoarengatik.

—Bihotzez esan dut hitz bakoitza.

Begietara begiratu zidan.

—Eskerrik asko gauza guztiengatik, maitea —irribarre egin, eta alde egiteko biratu nintzen. Portxean gelditu, eta motoa hankaz nola abiarazten zuen ikusten gelditu zen.

—E —oihukatu zidan, motorraren orroaren gainetik.

—Zer? —esku ahurra belarrarian jarri nuen, aditzeko.

—Untxia.

—Zer?

—Kathyren untxia.

Baiezko keinua egin, eta errepikatzen ari zena aditzen saiatu nintzen.

—Kathyren untxia ez da neskatoa, mutikoa da!

17

Zorabiatua eta nahasia sentitu nintzen. Urdaila estuturik nuen. Gora botatzeko gogoia nuen. Makurrena zen ezin nuela utzi esku artean nuen injekziozko moldekatze makina. Itzaliz gero, plastikoa makina barnean gogortuko zen. Makina etengabe ari zen lanean: zalaparta errepikakorraren musikarekin aritzen ginen lanean moldekatze sailean.

Ingurura begiratu nuen, arduradunaren bila, baina ez nuen lantegian ikusten. Saiatu nintzen nire lanean kontzentratzen. Paletetan plastikozko pikorrez beterik zegoen kupela aztertu nuen, nire ezkerrean, eta xurgatzeko mahuka sakonago bultzatu nuen. Makinak lurrun ufadak botatzen zituen, pikorrek plastikozko zati txiki bihurtu bitartean. Sekulako usain txarra zerion, gomazko plater-xukadera bat erretzean bezalakoa.

Borondateak materia gainditu behar zuen. Neure burua behartu nuen ez pentsatzera kiratsaz, nire urdailaz eta fabrikako aire bero eta geldiaz. Materiak irabazi zuen. Gora bota nuen, makinaren alde batean eta hormigoizko lur koipetsuan.

Bolt lasterka etorri zitzaidan. Muntaketa taldeko burua zen. Eskua soingainean jarri zidan, gosaria botatzen nuen bitartean.

—Ongi da, ongi jarriko zara —adoretu ninduen.

Lotsatuago nengoen beste deus baino. Ahoa lehortu nuen eskuaren atzealdearekin. Boltek trapu koipetsu bat atera zuen laneko galtzen atzeko poltsikotik, eta eman egin zidan.

—Txanda honetan goitika egiten duen hirugarren gizona zara.

—Zenbateko beroa ote dugu gaur, Bolt?

—Ehun eta hamar gradu.⁹

Txistu egin nuen.

—Segur aski bete-betea asmatuko zenuen. Nola egiten duzu?

Boltek irri.

—Mihiztatze tokiko paretako termometroa ikusi dudalako. Ongi zaude?

—Bai —irribarre lotsatiz.

Oka egiteak usain okerragoa besterik ez zuen ekarri.

Boltek bizkarrekoa eman zidan.

—Ez lotsatu gora botatzeaz. Neronek hala egiten dut kasik larunbat gauero. Mantentze-lanetako bati esanen diot hau dena garbitzeko.

—E, Bolt, zer dira egiten ari garen pieza hauek?

Boltek sorbaldak altxatu zituen.

—Ordenagailuetarako zerbait.

Ezezko keinua egin nion.

—Bitxia da iratzarrita nagoen denboraren erdia ematea zer demonio den ere ez dakidan zerbait egiten.

Boltek irri egin zuen.

—Poztu zaitez ordenagailuekin zerikusia duelako. Horrek esan nahi du segur aski guk biek lana izanen dugula.

Alde egiten hasi, eta zalantza izan zuen. Boltek buelta eman, eta eskua soingainean jarri zidan.

—Begira —esan zuen—, interesik baduzu, seguruenera ere gero eta lan gehiago izanen da bidalketa eta jasotzeetan. Hor guxtienez arnasa har dezakezu. Zenbat daramazu hemen lanean?

Pentsatu nuen.

—Kasik urte bat. Baina lehenbiziko hiru hilabeteetan aldi baterako langilea nintzen, ez dakit horrek balioko duen.

Boltek baiezko keinua.

—Fabrikan harat-honat ibiltzen naiz. Erne egonen naiz zuretzat.

Bizkarrekoa eman, eta alde egin zuen.

Minutu batzuk geroago, Jimmy iritsi zen gorakoa garbitzera. Jimmy mohawka zen. Mantentze-lanetako eta muntaketa taldeetako gainerakoak zuriak ziren.

9 110 gradu fahrenheit 43,3 gradu celsius dira.

—Lagunduko dizut hau garbitzen? —galdetu nion—. Nire saltsa da, ibili eta buelta.

Jimmyk ezezko keinua egin zuen.

—Lana besterik ez da.

—Boltek askotan uzten dizu makinak konpontzen, edo batez ere garbitzen aritzen zara?

Jimmyk mesfidati begiratu zidan, gero sorbaldak goratu zituen.

—Bolt ez da pertsona txarra. Saiatzen da niri zenbait lan on ematen.

Bazkaltzeko txirrinak jo zuen.

—Hobe dut ez bazkaltzea —esan nion Jimmyri—. Seguru nago nahikoa lan baduzula arratsaldean.

Irri, hark.

—Hemengo airea ez da mugitzen. Kanpora atera behar zenuke arnasa hartzeko.

Bazkarirako fitxatu nuen, eta fabrikan bidalketak eta jasotzeak egiten ziren aldera jo nuen. Supermerkatu handi baten tamainakoa zen fabrika. Alde honetako langileak ez nituen ezagutzen; inoiz ez nintzen hemen izan. Beste mundu bat zen, eta, bestalde, beldur nintzen makina batean bakarka aritzearen segurtasuna uzteaz. Bidalketa eta jasotze sailera iritsi nintzenean, langileak bazkaltzera joanak ziren. Kanpora atera nintzen, aire zabaleko nasara. Hogeita hamar gradu gutxiago zegoen. Udako airea freskoa zen.

Fabrika honetan gelditu nahi nuen. Inork ez ninduen ezagutzen hemen, Tonawandan, Buffaloko periferian. Baina makina hartan aritzeak gaizkitu egiten ninduen. Agian merezi zuen arriskatzea eta lanpostu honetarako eskaera gitea.

•••

Scotty gutxienez ere ni baino hogeita hamar urte zaharra goa zen, baina azkeneko kutxa hori ez nukeen kamioira igoko eta behar zen lekuan jarriko hura gabe. Kutxa hori jaso ondoan, besoak gelatinazkoak balira bezala nituen. Scottyri arnasa azkartu ere ez zitzaion egin.

—Beraz, zer iruditzen zaizu bidalketa eta jasotzeetan aritzea, gaztea? —galdegin zidan Scottyk.

—Arnasa har dezaket lehenik?

—Bai ba. Lanean aritu ahala erritmoa hartuko diozu. Hasieran gogor lan egin, eta gero errazagoa eginen zaizu. Kasik bazkaltzeko ordua da. Tira, goazen garbitzera.

Arnasa sakon hartu nuen gizonen komunera elkarrekin sartu ginenean. Fabrikako beste muturrean zegoena bezal-bezalakoa zen. Hormigoizko konketa zirkular handi bat zegoen gelaren erdian. Scottyk eta biek zapatu genuen xaboaia ematen zuen potoa, konketa erdiko aldean zegoena, eta pedala zapaldu genuen txorrotak ura eman zezan.

—Armairurik eman dizute? —galdegin zidan Scottyk.

Ezetz, nik.

—Tira —esan zidan—. Segi niri.

Scottyk aldagelako txantxak isilarazi zituen.

—Zuetako batzuek Jesse ezagutu duzue goizean. Makinetatik hona aldatu berri dute.

Scotty eta Walter kenduta, gainerakoak hogeita-asko edo hogeita hama-gutxi zituzten. Walterrek eskua estutu zidan.

—E, gaztea. Luze daramazu hemen lanean?

Ezetz, nik.

—Urte bat.

Irri egin zuen.

—Non aritu zara lehenago?

Sorbaldak goratu nituen.

—Inguruetan. —Walterrek eta Scottyk elkarri begiratu zioten.

Lasaitua hartu nuen gizonetako batek eten zigunean.

—Ni Ernie naiz. Hona hemen nire adiskidea, Skids. Ni lehen operadorea nintzen. Eztularekin odola botatzen hasi nintzanean utzi egin nuen.

Skidsek eskuoihal bat jaurti zion.

—Odola botatzen hasi zinen erretzeagatik, alua.

Erniek, giltza bat eginez, Skidsen burua hartu zuen, eta hatz koskorrekin igurtzi zion ilea.

Mototsa zuen mutil gazte batek eskua eman zidan.

—Pat naiz.

Erniek irri egin zuen.

—Ez al zenuen Patty ezagutzen?

Patek aurpegi-keinua egin zion Ernieri.

—Zaude isilik. Besteek esan aurretik esanen dizut: konzientzia eragozlea naiz. Horrekin problemarik izanez gero, gorde zuretzat.

Skidsek bularra harrotu zuen.

—Ni Vietnamen izan nintzen. E, Jesse. Errekrutatua izan zinen edo boluntario joan zinen?

Odol guztia aurpegira joan zitzaidan. Desiratu nuen moldekatze sailean egotea, non zalapartak babesten ninduen denbora-pasarako galderez.

—Ez nintzen joan —esan nuen zezelka.

Erniek marmar egin zuen.

—Beste bat. Zer egin zenuen, ipuinen bat kontatu?

Azkar pentsatu nuen.

—Salbuetsi ninduten. Kontu medikoak.

Walterrek eten egin zuen.

—Utzazu haurra bakean. Armairurik baduzu? Tori, erabil ezazu hau.

—E —esan zuen Erniek—. Armairu hori pixka bat animatu beharko zenuke.

Ulertu nion. Beste guztiek posterrak zituzten beren armairuko ateetan.

—Eskuratu egutegi bat izkinako jatetxean. Denak hara joaten gara elkarrekin ordainketa egunean. Miss Abuztuk potroak dantzan jarriko dizkizu. E, Walter, zuk ere holako bat hartu beharko zenuke.

Walterrek ezezko keinua egin zuen poliki.

—Batzuek posterrak behar dituzte, beste batzuek egiazkoak behar dituzte. Ez da hala, Jesse?

Irribarre egin nuen.

—Nik nire posterra ekarri dut lehengo armairutik.

Erniek bi tiritita eman zizkidan, paretako lehen laguntzako kitetik. Nire Norton zaharraren koloretako iragarki bat paratzeko erabili nituen.

Patek txistu egin zuen.

—Nahiago dut Jesserena muntatu zurea baino, Ernie.

Bazkaltzeko orduko txilibituak jo zuen. Scotty bilatu nuen inguruan, baina ez zegoen.

—E, Walter, non dago Scotty?

Walterrek sorbaldak goratu, eta botila batetik edateko keinua egin zuen.

—Gaizki pasatzen ari da. Emaztea minbiziz hiltzen ari zaio. Ez da hemen gelditzen, mutilak neskez hizketan hasten direnean.

•••

Udaren bukaerarako, beste bat nintzen mutilen artean. Egia esan, goiz gehienetan lanera joateko gogotan egoten nintzen, nire giza harreman bakarrak baitziren.

Ostiralean, bazkalorduan, izkinako jatetxe italiarrera gindoazela, Boltek geldiarazi ninduen.

—Frankie izeneko bat ezagutzen al duzu?

Aurpegia gorritzen zitzaidala nabaritu nuen.

—Nolakoa da gizona?

Boltek ezetz egin zuen buruaz.

—Ez da gizona. Mari-gizona da. Zurekin aritzen zen lanean koadernatze lantegian; esan zidan greba batean elkarrekin izan zinetela. Kontatu zidan lan handia egin zenuela sindikatuarekin.

Frankiek nitaz hitz egin bide zion Bolti. Nahitaez. Neure artean galdetu nuen ea lana orduantxe utzi behar nuen. Besterik gabe nasa utzi, sarreraraino joan, eta nire motoraino segi oinez.

—Non ezagutu zenuen Frankie? —galdetu nion Bolti.

—Bigarren txandan zegoen. Astelehenean eguneko txandan hastekoa da. Operadorea da. Esan zidan gizon ona zinela.

Begiak kliskatu nituen.

—Hori esan zuen?

Baietz, Boltek.

—Esan zuen sindikatu-gizon ona zinela.

Irri egin nuen lasaiturik.

—Nola zekien hemen ari nintzela?

—Aparkalekutik ateratzen ikusi zintuen. Laguna duzu? galdetu zidan Boltek.

—Ez —distantzia paratu nuen—. Lankide izandakoa bakarrik.

Nire leialtasun faltak nazka eman zidan.

Boltek nasarako keinua egin zuen.

—Bazatoz bazkaltzera?

Ezetz, nik.

—Hemen geldituko naiz, segi zuek.

Lasaitua zen bakarrik gelditzea. Biltegian ibili nintzen harat eta honat, eta palet pila baten gainean eseri nintzen, Boltek askatutako bonbaz pentsatzeko.

Frankie eguneko txandara etortzekoa zen. Ikaratu ninduen ohartzeak beharbada deskubritu ninduela. Baina, itxuraz ez. Frankie argia zen. Egoera berehalakoan harrapatuko zuen.

Poz sentsazio batek hartu ninduen. Beste mari-mutil batekin aritzea! Elkarrekin ibil gintezkeen. Agian jakinen zuen non zebiltzan lehengo lagunetako batzuk. Agian femmeren bat aurkezten ahalko zidan.

—E, gaztea —Scottyk nire pentsaketa eten zuen. Lurrean eseria zegoen, paleten kontra. Scottyk Jack Daniels botila bat ireki eta eskaini egin zidan.

—Eskerrik asko —esan nuen, eta hurrupa bat hartu nuen.

Scottyk botila ezpainetara eraman, eta hiru aldiz irentsi zuen. Isilik gelditu ginen.

—Ezkondua? —galdegin zidan.

Nik ezetz.

Kokotsa bularrera eraman zuen.

—Emaztea oso gaizki dut.

Begiak eskuekin igurtzi zituen. Aurpegia alaitu zitzaion.

—Erakutsi al dizut inoiz emaztearen argazkirik?

Ezetz, nik. Larruzko diru-zorroa atera zuen, fina eta erabiliaren erabiliaz leuna.

—Hona hemen. Hau da nire neska.

Irri egin nuen, eta txistu.

—Hau zu zara?

Irribarre, hark.

—Bai. Uste duzu oraingo adinarekin jaio nintzela? Mutil gaztea izan nintzen garai batean, zu bezalakoa. Bizi osoa aurrean nuen.

Biek egin genuen irri. Baina berriz begiratu nionean, begiak malkoz beterik zituen. Ahotsa latza zuen.

—Nahiago nuen hura baino lehen partitu. Badakit izugarria dela hori esatea. Esan nahi dut, nork zainduko luke, ezta? Baina batzuetan iruditzen zait ez dudala jasanen alde egiten uztea, unea iristen denean.

Kokotsa jaitsi zuen berriz. Eskua harengana luzatu, eta bizkarrean jarri nion atsegin, betiere prest agudo kentzeko, baldin gaizki hartzen bazuen. Ez zen hala izan.

—Gaztea zara —esan zuen Scottyk bat-batean—. Ez gelditu trabaturik honelako lan batean.

Sorbaldak goratu nituen.

—Lan hau on samarra iruditzen zait.

Scottyk ezezko keinua egin zuen.

—Esan nahi dut egiazko lan bat. Hogeï urte egin nituen Chevroleteko fabrian. Autogintzako Sindikatuaren txartela egin nuen, ikusi nahi? Nire biziko hogeï urte lantegi hartan, eta bota egin ninduten. Sinets dezakezu?

—Chevroleten? Boltekin aritu zinen?

Scottyk baiezko keinua egin zuen.

—Bai. Baina hura ez zen aritu ni bezain luze. Tarte batean Harrisoneko fabrian aritu zen. Eta hura ere bota egin zuten.

Interesa nuen Boltengan.

—Sindikatu berean zegoen?

—Garai zaharretako guztiak ginen Autogintzako Sindikatu-koak —hark—. Sindikatuko kidea izanen naiz nire hilkutxa lurpean sartzen dutenean ere. Sindikatu bat izan behar duzu, gaztea. Sindikaturik ez baduzu, hobe duzu sindikatu bat izateko borrokatzea.

Irri egin nuen.

—Ez dirudi hemen halakorik izanen dugunik momentuz.

Scottyk sorbaldak goratu zituen.

—Tira, ezin jakin. Hitz egin izan da. Sindikatu bat behar dugu hemen. Zaharregia naiz bat eratzeko. Zuek, gazteek, egin beharko duzue.

Hasperen egin nuen.

—Nik ere sindikatu bat izan nahiko nuke. Baina nire lanpostuari eutsi nahi diot, Scotty. Bidenabar, zer pentsatzen duzu Boltez? Pertsona ona dirudi.

Scottyk hatza astindu zuen nire sudurretik hurbil.

—Erne Boltekin. Jadanik ez da gutakoa. Partez brigada arduraduna da, partez taldeburua. Gogoan hartu nire hitzak: gauzak asko okertzen direnean, ez du jakinen zer aldetan egon. Ez fidatu hartaz.

Ohartarazpen horrek desilusionatu egin ninduen, Bot gus-tatzen baitzitzaidan. Baina, niretzat zorionez, ez nintzen egiaz inortaz fidatzen.



Astelehen arratsaldean fitxatzen ari nintzenean esku bat sentitu nuen sorbaldan.

—Ei —Frankiek birarazi ninduen.

—Ei, Frankie. Aditu, hitz egin behar dugu.

Hatz erakuslea ezpainetan jarri zuen.

—Bai, badakit.

Aparkalekuraino segitu nion.

—Egiaz pozten naiz zu ikusteaz eta hori dena, Frankie. Kontua da beldurtua nagoela. Lan ona dut hemen. Eta egunkariak diote beste atzeraldi ekonomiko bat izanen dela.

Frankiek isilarazi egin ninduen.

—Ulertzen dut, Jess. Zer uste duzu ba, ezetz?

—Nola iraun duzu hain luze? —galdetu nion.

Sorbaldak goratu, hark.

—Hemen bizi izan naiz, Tonawandan, gurasoekin, harik eta nire txokoa izateko aurreztu dudan arte. Ez dago oso gaizki. Asteburuetan neska-lagunarenean egoten naiz.

Txistu egin nuen.

—Neska-laguna duzu? Zorionekoa zu.

Frankiek ezpainak estutu zituen. Klaxon baten zalaparta aditu zen.

—Ezagutzen duzu nire neska-laguna, Jess. Johnnyk eta biek urtebete daramagu elkarrekin —irribarre egin zuen—. Kantuak dioen bezala.

Bat-batean gelditu nintzen.

—Nor da Johnny?

Frankiek hasperen egin zuen.

—Ezagutzen duzu Johnny. Elkarrekin aritu ginen greba aurretik. Softbolean aritzen ginen elkarrekin.

Ezezko keinua egin nuen.

—Ezagutzen dudan Johnny bakarra mari-mutila da, eta badakit hori ez dela —irriz.

Frankiek zangoak pixka bat zabaldu zituen.

—Bai, horixe esan nahi dut. Gure autoan zain dago, hortxe.

—Ei, Jess! —aditu nuen Johnny oihuka autotik—. Zatoz hona.

—Adarra jotzen ari zara —esan nion ahapeka Frankieri.

Frankiek eskuak aldaketan jarri zituen.

—Nire maitalea da, Jess. Adarra jotzen ari naizela iruditzen zaizu?

Ahoa zabal-zabalik gelditu nintzen. Ezezko keinu zabala egin nuen.

—Egiaz, Frankie, ez dut ulertzen. Besterik gabe, ez dut ulertzen.

Frankie sutan zegoen.

—Ez duzu ulertu behar, Jess. Baina onartu egin behar duzu. Ezin baduzu, besterik gabe alde egizu.

Horixe egin nuen. Ezin nuen onartu; beraz, aurrera segitu nuen oinez.

Horren ondoren, ez zen zaila izan Frankie saihestea: fabrikako bi muturretan aritzen ginen lanean. Arratsaldeetan atzeratzen nintzen. Ez nuen ez batarekin ez bestearekin topo egin nahi fitxatzeko makinan.

Zenbat eta gehiago pentsatu haiek biak maitale izateaz, gutxiago gustatzen zitzaidan. Ezin nuen burutik kendu: bi haiek elkarri musuka. Bi gizon balira bezala zen. Bueno, bi gizon gay balira, ongi egonen litzateke. Baina bi mari-mutil? Nola izan zitezkeen elkarren gustuko? Nor izanen zen *femmea* ohatzean?

Ohartu nintzen obsesionatua nengoela Frankie eta Johnnyrekin. Asteazken goiz hartan hain murgildua nengoen nire pentsaketan, non ez bainintzen ohartu Scotty eta ni geundela bakarrik gure sailean. Scottyk gizonen komunerako keinua egin zuen.

—Hobe duzu hara joatea —esan zuen.

—Zer?

Berriz ere gizonen komunerako keinua egin zuen.

Ez dakit zer espero nuen atea ireki nuenean. Jendez beterik zegoen: batzuk gure departamentukoak, beste batzuk ez nituen ezagutzen. Boltek hitz egin zuen lehenik.

—Zure zain egon gara —esan zuen.

Ukabilak bildu nituen. Frankiek nitaz hitz egin izanen zien, mendekuz. Zuhurragoa izan behar nuen. Nola fidatuko nintzen harekin? Gure artean edonolako gaizki ulertua izanik ere, gure artean konpondu behar genuen. Hitz eginen nuen harekin gero. Une honetan, desabantailan nengoen, ni baino askoz gehiago ziren.

Boltek eskua niregana luzatu, eta hurbildu egin zitzaidan. Paretaren kontra egin nuen atzera. Lokiak odolez taupadaka nituen. Boltek soinginetik hartu zidan; eskua gainetik kendu nion. Inguratua nengoen.

—Utzi bakean —oihukatu nion.

Walter niregana etorri zen.

Lasai, gaztea. Zurekin hitz egin nahi dugu bakarrik.

—Bai, zertaz? —Boltek eta Walterrek elkarri begiratu, eta niregandik bereizi ziren.

—Sindikatuaz —esan zuen Walterrek.

Ezezko keinua egin nuen, nahasirik.

—Ernieren emaztea lanean aritzen da ehungintzako sindikatu batek antolatutako fabrika batean. Eta harremanetan jarri gaitu haiei lagundu zien tipo on batekin. Jakin behar dugu zer aldetan zauden.

Kostatu zitzaidan nire onera etortzea.

—Esan nahi duzu hau sindikatu bat eratzeko bilera dela?

Boltek sorbaldak goratu zituen.

—Orain arte hizketan aritu gara. Sindikatu bateko antolatzaile bat ekarri behar dugu, eta bilkura orokor baterako deia egin. Kaka zahar honek ezin du askoz gehiago iraun lehertu gabe.

Lan hau ez zitzaidan hain txarra iruditzen niri.

—Zein dira aldarrikapenak? —galdetu nuen.

—Esaterako, soldatak kaka hutsa dira, eta kasik astero eginarazten dizkigute aparteko orduak —esan zuen Erniek.

Baiezko keinua egin nuen.

—Bai, baina gero egun libreak ematen dizkigute.

Skidsek erantzun zidan.

—Bai, ez digutelako pagatu nahi ordu eta erdiko tarifa.

Walterrek baiezko keinua egin zuen.

—Izan daiteke bi pertsona makina berean aritzea eta desberdin kobratzea. Eta dena arduradunei eman diezun koipearen arabera.

—Kutsadura izugarria da —erantsi zuen Erniek—. Gutako inork ez daki zer ari garen arnasten. Eta hain bero egoten da, egun batzuetan nekez har dezakegu arnasa.

Boltek eskua besoan paratu zidan. Salto egin nuen atzera; ka; mindu egin zen.

—Eta, gainera, segurtasun problema handiak daude hemen. Guk gauza asko ikusten ditugu mantentze-lanetan eta abiarazteetan zuek ikusten ez dituzuenak. Jendeak istripuak izaten ditu: moldeetan harrapatutako hatzak, eta horrelakoak. Enpresa saiatzen da jendea beldurtzen, kalte-ordain bat ez eskatzeko. Oharrak idazten ditugu ekipamenduetako problemei buruz, eta zuzendaritzak zaborrontzira botatzen ditu.

Aditu eta baiezko keinua egin nuen. Boltek sorbaldak goratu zituen.

—Beraz, jakin behar dugu, Jesse. Zer aldetan zaude?

Hasperen egin nuen. Lan ona zen niretzako. Desiratzen nuen hala segitzea. Baina dena aldatzen ari zen beti.

—Begira —esan nien—. Sindikatu bat ekarri nahi duzue hona, eta ongi iruditzen zait.

Bolt gehiago hurbildu zitzaidan.

—Hori ez da aski. Antolaketa batzordean nahi zaitugu.

Ez nuen problemarik sortu nahi. Zergatik ezin nuen, besterik gabe, sindikatuko txartela egin, beste guztiek bezala, eta nire lanarekin segitu?

—Ez dut inplikatu nahi —esan nion.

—Begira —esan zidan, niregana makurtuz. Atzera egin nuen pixkatxo bat.

—Honekin arriskatzen ari naiz, eta ez dakit ezta sindikaturako aukeratzen ahal nauten ere, lan arloko batzordeak brigada bateko nagusizat har nazakeelako.

—Zu hauta zaitzaten lagunduko dut —esan nion—, baina ni ez naiz antolatzaile bat.

Boltek ezezko keinua egin zuen.

—Hori ez da Frankiek esan zidana. Esan zidan greba batean irabazten lagundu zenuela.

—Begira, Bolt, ez dut inplikatu nahi. Zuen alde egingen dut, eta nire lana beteko dut. Baina utzi bakean.

Boltek ezezko keinua egin zuen.

—Desberdina zinela uste nuen.

Hasperen egin nuen.

—Ez dut desberdina izan nahi.

•••

Fabrikako beste muturretik aditu genituen oihuak. Lasterka egin genuen distantzia osoa. Iritsi ginenerako, gelditzen zen guztia zen hormigoizko lurreen zegoen odola.

—Nor zauritu da? —xuxurlatu nion Bolti.

Haren esku latzak ukabiletan zeuden itxiak.

—George.

Lurreko odol putzura begiratu nuen.

—Hilik dago?

Sorbaldak goratu zituen.

—Ez dakigu oraindik —ondoan genuen orga jasotzaileari ukabilkada jo zion—. Neronek egin nuen oharra, joan den hila-betean, orga honi buruz. Frenoak izorraturik zituen.

Fabrikako zuzendariak besoez keinuak egin zituen.

—Denak lanera. Hemen egoteak ez du deus konpontzen.

Nire harridurarako, denak beren lanetara itzuli ziren. Nik kasik altxamendu bat espero nuen. Hori bi aste geroago etorri zen.

Istripuari buruz besterik ez genuen hitz egiten. Molde handiagoak ari zen probatzen enpresa, plastikozko zaborrontziak egin zitzaizkion. Georgeri agindu zitzaion orga jasotzailea erabiltzea, moldea injekzio makinara eramateko. Orgaren aurrean zegoela, moldea ongi paratzen, frenoek huts egin zuten. Orga jasotzailearen beso batek Georgeren bizkarra zulatu zuen, justu birikaren azpian.

Haserrea su geldian egosten ari zen oraindik astebete geroago. Walter lasterka etorri zen gure departamentura asteazken arratsaldean.

—Aditu duzue? Zuzendaritzak Georgeren kontrako txostena egin du istripuarengatik! Errua hari bota diote.

Bolt haren atzean zegoen.

—Aditu. Bileran eginen dugu ostiralean, errepidean aurrerago dagoen Atzerriko Gerretako Beteranoen lokalean. Ehungintzako langileen sindikalista bat etorriko da. Oraingoan urrutiegi joan dira.

Arrazoi zuen.

Denek hiruretan fitxatu genuen ostiral arratsaldean. Ez nintzen lasterka atera; ez nuen Frankierekin topo egin nahi. Neure buruari galdetu nion ea bilkurara joanen ote zen.

Atzerriko Gerretako Beteranoen lokalera laurak laurden gutxitan iritsi nintzenerako, hogeita bost langile zeuden han.

Departamentu guztiak zeuden ordezkatuak. Sekulako emozioa nabaritzen zen, jendea keinuka eta ziztuan solasean. Boltek gelako beste aldetik begiratu zidan. Buruz keinua egin, eta irribarre egin nuen. Frankie ondoan zuen. Hari begiratzea saihestu nuen. Oraindik ere nahasia nengoen, jakinda Johnny eta Frankie maitaleak zirela, baina ez nezakeen esan zergatik.

Ohartu nintzen Frankiek gizon bati xuxurlatu ziola belarri-
ra. Biratu zenean, Duffy ezagutu nuen. Ikusi nindueanean Duffyk egin zidan irribarreak barne berotasuna eman zidan. Frankiek besotik heldu zion, eta zerbait xuxurlatu zion. Nire egoera azal-
tzen ariko zitzaion?

Duffy zuzenean niregana etorri zen.

—Jess —eskua estutu zidan. Estutua ezaguna egin zitzai-
dan—. Askotan pentsatu dut zuregan. Zenbat denbora daramazu
hemen lanean?

—Urte bat baino gehiago.

Irribarre egin zuen.

—Zure laguntza beharko dugu.

Protesta egiten hasi nintzen, baina Duffy ohartu zen Ernie
eta Scotty edariak ekartzen ari zirela tabernatik bilkura gelara.
Keinu egin zien.

—Atera edaria hemendik. Serio ari gara hemen.

Mahukatik tira egin nion.

—Kontuz zaharrenarekin. Edaria da haren Akilesen az-
tala, baina pertsona ona da. Autoginzako Sindikatuko kidea da.
Baita Bolt ere.

Duffyk baiezko keinua egin zuen.

—Hitz egidazu Boltez.

Bi emakume beltz, ezagutzen ez nituenak, Duffyrekin hiz-
ketan hasi ziren.

—Barkatu —esan zuen haietako batek—. Dottie naiz.
Mihiztatze departamentuan aritzen naiz. Hau nire laguna da,
Gladys. Ni baino luzeago aritu da hemen lanean.

Duffyk eskuak estutu zizkien.

—Zenbat zaudete zuen departamentukoak?

—Sei —esan zuen Dottiek—, eguneko txandako hogeitik.
Badira beste hamabost bat bigarren txandakoak.

Norbaitek gelako beste puntatik oihu egin zuen.

—Has dezagun bilkura.

Jendeak baietz esan zuen, zalapartaka.
Duffyk barkatzeko eskatu, eta gelako erdigunera joan zen.
—Kexa asko aditu ditut arratsalde honetan.
—Bai! —diziplina hautsi zen.
Denak oihuka hasi ziren fabrikako baldintzez.
Duffyk eskuak altxatu zituen.
—Zuen kexa bakoitza idatziz hartuko da, hitzematzen di-
zuet. Denak dira inportanteak. Baina, lehenik, ikus ditzagun zein
diren denei eragiten dietenak.
Boltek kolpetxo eman zidan sorbaldan.
—Goazen kanpora une batez. Zurekin hitz egin nahi dut. —
Protestaka—. Tira, bilkura honek aurrera jarraituko du.
—Bolten atzetik joan nintzen tabernara.
Bi garagardo eskatu, eta pagatu zituen. Botila goratu zuen.
—Sindikatuaren alde —esan zuen.
Baiezko keinua nik.
—Horren alde edanen dut.
—Aditu, Jesse. Duffy ongi ezagutzen duzu?
Sorbaldak goratu nituen.
—Nire ustez pertsona ona da. Harekin fidatzen naiz.
—Batzuek zerbait aditu dute hartaz. Norbaitek esan du ko-
munista dela.
Irri egin nuen.
—Ez da komunista. Fidatzekoa da.
Boltek irribarre egin, eta baiezko keinua egin zuen.
—Ongi da. Norbaitek ezagutzen badu.
—E, Bolt. Galdetu al diozu Duffyri ea sindikatuan sartzeko
aukera zaitzaketen?
Boltek ezezko keinua egin zuen.
—Gero galdetuko diot. Bikuraren ondoren.
Orro bat aditu genuen ondoko gelatik.
—Tira —esan nion—, itzul gaitezen.
Emozio pixka bat sentitzen hasi nintzen.
—Bil ditzagun sinadurak orain! —oihukatu zuen Erniek.
Duffyk eskuak goratu zituen.
—120 lagun zarete lantegian. Ehuneko 30 gehi bat behar
dira gutxienez hauteskundeak eskatzeko. Jende asko gaude he-
men, baina gehiago behar ditugu.

—Non demonio dago jende guztia? —oihukatu zuen baten batek.

Duffyk ezezko keinua egin zuen.

—Jende asko dago, lehenbiziko bilkura izateko. Baina departamentu bakoitzeko langile gehiago behar ditugu.

Boltek oihu egin zuen:

—Mantentze-laneko eta abiarazteko sailak tinko daude.

—Eta mihiztatzekoak, zer? —oihukatu zuen Erniek—. Neska horiek ez dira gurekin egonen. Haiez arduratuko diren senarrak dauzkate. Kaka, ba omen da bat oraindik ere gurasoekin bizi dena.

Dottie zutitu egin zen.

—Ni naiz horietako bat. Bai, gurasoekin bizi naiz. Saiatzen naiz bi haur hazten senarrik gabe. Eta Gladys gurasoekin bizi da haiek mantendu behar dituelako, eta bere kasa bizitzerik ez duelako. Baina hemen gaude biak. Gure departamentuaz txintik ere ez dakizu.

Gladys haren ondoan zutitu zen.

—Hala da. Hatzak eta eskumuturrak kaka eginik daukagu, egun osoan zitzu bizian ebakitzen aritzeagatik. Soldata ziztrina pagatzen digute, eta asteburuetan aritu behar izaten dugu. Nesketako askok badituzte senarrak, etxera soldata bat ekartzen dutenak, egia da. Baina asko nazkaturik daude, eta sinatuko dute: ikusiko duzue.

Duffyk irribarre egin zien.

—Arreba hauek argi hitz egin dute. Hobe duzue aditzea.

Denek adostu genuen bilkurari bukaera ematea, eta beste baterako hitzordua egin genuen, hurrengo asterako. Baina inork ez zuen alde egiteko gogorik. Inguruan gelditu ginen, hizketan.

—E, Duffy —deitu zion Boltek—. Sindikatuan sartzerik izanen dut? Taldeburu naiz.

Nahiko nuen Duffyri alde zuretik hitz egin izana Bolten balioaz, baina Duffy jadanik ohartua zen.

—Zuzendaritzak badaki liderra zarela —esan zion Bolti.

Ikusi nuen Bolt zutago jarri zela.

—Baina kontratatzen eta kaleratzen duzu? Jendea gainbegiratzen duzu ala zigortzen?

Boltek sorbaldak altxatu zituen.

—Lauso samarra da. Taldean eskarmentu handiena duena naiz, baina brigadako nagusi bezala ere tratatzen naute.

Duffyk baiezeko keinua egin zuen.

—Enpresak auzitan jarriko du zer aldetan zauden, hauteskundeak atzeratzeko eta denbora erabiltzeko jendea izutzeko. Uste dut jadanik badakizula zein aldetan zauden, baina oso garbi utzi behar duzu. Sindikatua ekartzeko borrokatzen bazara, errazagoa izanen zait zu sindikatuaren egotea defendatzea.

Boltek Duffyren eskua estutu zuen.

—Zuk uste duzu irabaziko dugula?

Duffyk, irribarrez, baiezeko keinua egin zuen.

—Bai. Baina borrokatu egin beharko dugu. Jende indartsua dugu departamentu bakoitzean. Jess bezalako gehiago baditugu, irabaziko dugu inolako dudarik gabe. Konfiantza dut Jessengan. Emakume honek erakutsi du sindikatuaren alde dagoela ehuneko ehunean.

Dena kamera mantsoan gertatu zen. Duffyri aditu nionean emakume hau esaten, izutu egin nintzen, ahoa zabal-zabala. Frankie bere kopeta jo zuen esku ahurrez, eta ezezko keinua egin zuen. Jendeak Duffyri eta niri begiratu zigun txandaka. Atzerriko Gerretako Beteranoen lokaletik atera nintzen haserre bizian, nire motorantz.

—Jess, zaude! —aditu nuen Duffy oihuka. Nireganaino iritsi, eta besotik harrapatu zidan. Eskua kolpean kendu nion.

—Eskerrik asko, Duffy.

Haren begietan malkoak ikusteak dena makurrago bihurtu zuen.

—Asko sentitzen dut, Jess. Atera zait. Nahi gabe izan da. Sorbaldak goratu nituen.

—Ez du inporta nahita izan den edo ez. Lan honetatik kanpo nago orain.

Ezezko keinua egin zuen.

—Konponduko dugu, Jess. Geldi zaitezke. Lankideei hitz eginen diet.

Irri kiratsa egin nuen.

—Ez duzu ulertzen, ezta? Zer komun erabiliko dut astelehenean, Duffy?

Duffyk besotik heldu zidan. Haserre begiratu nion.

—Jess, inoiz ez nuke deus eginen zu mintzeko. Badakizu.

Eskua nire besotik kendu nion.

—Bueno, ba egin duzu —buelta eman eta alde egin nuen.

—Jess, itxoin! —Frankie zen—. Jess, badakit haserre zaudela. Kaka zahar ederra izan da. Baina akatsa izan da. Oso atsekabetua dago.

—Utz nazazu, Frankie. Zuk ere ez duzu ulertzen.

Frankie harri eta zur zegoen.

—Zer ostia duzu nirekin? Bizkarra eman behar diozu beste mari-mutil bati bakarrik ezin duzulako onartu nor gustatzen zaidan?

Nahiago nuke norbaitek bozatu izan banindu, zeren hain haserre nengoen, ezin izan baintuen nire hitzak kontrolatu.

—Zergatik uste duzu oraindik ere mari-mutila zarela? —galdetu nion sarkastikoki.

Haren irribarrea krudela eta defentsiboa izan zen.

—Zergatik uste duzu zuk oraindik ere mari-mutila zarela? —erantzun zidan.

Buelta eman, eta haserre joan nintzen. Nire zati batek nahi zuen Frankiek edo Duffyk alde egiten ez uztea. Baina utzi zidaten.

18

Hostoa handia zen eta bustia zegoen, eta udazkeneko laranja eta gorrien distira zuen. Nire Harleyko eserlekuan itsatsia topatu nuen larunbat goizean. Triste jartzen ninduen hostoak erortzen hasteak. Beste hasiera bat nahi nuen, beste aukera bat.

Gorrotatzen nuen Harleya garajea utzi behar izatea negurako. Niretzat arriskugarria zen motoan ibiltzea —hiru urte neramatzen gidabaimenik gabe gidatzen—, baina moto horretan ibiltzeko bizi nintzen. Nire jostaketa eta askatasuna zen.

Egunero, bi gauza bakarrik gustatzen zitzaizkidan: hurbileko YMCAREN lokalean pisuak altxatzea eta moto gainean haize kontra ziztuan ibiltzea.

Goizetan alarmak jotzen zuenean, iratzartzen nintzen txikia eta ikaratua sentituz. Ez nezakeen neronen burua topatu neure bizian; ezin nion eutsi niri buruzko inolako oroitzapeni. Neure buruaz aparte, ez nintzen deusen partaide. Beraz, goizero neure burua behartzen nuen berriz jaiotzera. Gimnasia joaten nintzen, jadanik kirol jantzian. Han askatzen nituen tentsioa eta frustrazioa, haserrea eta beldurra. Hori dena erabiltzen nuen entrenamenduan.

Asko pentsatzen nuen nire gorputzaz, metal hotzeko pisuen kontra indarra egiten nuenean. Gozatzen nuen gero eta finagoa eta gogorragoa bihurtu bitartean. Munduak niri irakatsitako helburu bat ote zen? Segur aski. Nire maitale *femme*etan pentsatu nuen: beren gorputzetako gizen eta toles bakoitza mardarikatzen zuten: nik maitatzen nuen haragi eder huraxe bera. Baina pisuak altxatu eta giharrak estutzen nituen bitartean, aurkitu nituen nire gorputzerako gustatzen zitzaizkidan pisua eta

forma. Nire diziplinan eta erresistentzian kontzentratu nintzen. Saiatu nintzen, nekien bezain ongi, neure burua maitatzen.

Ikasi nuen ezen indarra, garaiera bezala, neurtzen dela ondoan duzunaren arabera. Mutil txarttotzat nindukaten gimnasioan. Iritzi hori idatzia ikusten nuen nireak baino gihar handiagoak zituztenen aurpegietan. Eta, denbora guztian, nire gorputzari eta neure buruari buruzko epai krudelen bizi oso bat taupadaka sentitzen nuen, sendatu gabeko zauriak balira bezala.

Hala ere, batzuetan, etxean ispilu aurrean jartzen nintzenezan, neronen burua botereitsu ikusten nuen. Ezin nion irudi horri eutsi, ordea. Irrist egiten zidan, merkurio tanta batek hatz erakusletik bezala.

Beharbada hori zen errepikapen bakoitzarekin neure buruari erakutsi nahi nion irakasgaia: boterea indarra baino askoz gehiago dela kualitatiboki. Eta mundua nirekin okertu egin zela. Banuen bizitzeko eskubidea.

Egunero, nire inguruko gizonak beren gorputzak lantzerantz etortzen ziren; ni nire deabruak egoztera etortzen nintzen.

Udazkeneko goiz hartan, euforia izan zen nire entrenamendu setatiaren saria. Larunbata zen. Inora joaterik ez, egitekorik ez. Larruzko zamarreko lepoa goraka jarri nuen. Udazkena hemen zen, eta negua atzetik. Zerua hodeitua zegoen. Hodeiak baxu zeuden, lauak, eta ubel bat bezain ilun.

Motoa abiarazi nuen, nora joan jakin gabe. Dirua nuen diru-zorroan, eta asteburu oso bat motoan ibiltzeko, gasolinak uzten zidan bezain urruti.

Lehenbiziko euri tantak gasolina tangan erortzen hasi zirenean, gelditu eta arropa jantzi nuen. Tximistek aparkaleku gaineko zerua argitzen zuten. Asko gustatzen zitzaidan eguraldi dramatikoa. Egun bat beste egunetatik desberdintzen zuen zirrara zen.

Zooko sarrera gelatxoan zeuden emakumeak egun lasaia gozatzen ari ziren. Pagatu gabe pasatzeko keinua egin zidaten.

Kondorrak burua haize kontra zuen, hegalak zabal-zabal zituen, nire garaiera baino zabalago. Nik ere nire besoak zabaldu nituen, aurpegia zerurantz, eta irri egin nuen.

Elur-hontzaren lepoa handitu egin zen ni hurbil pasatzean, eta ufa egin zuen arnasestuka balego bezala. Presaka igaro nintzen.

Euri tantak erortzen ziren zapelatz buztangorriaren mototik. Ezkerreko hegalaren zati bat falta zitzaion, jasotako tiro baten ondorioz. Itxura negargarria zuen.

Arrano arrak orekari eusten zion adar batean: lumak gorputzari itsatsiak zituen, euri eta haizearengatik. Haizearekin batera kulunkatzen zen, hegalak zabalik, hegan eginen balu bezala. Begirada urrutian ezarria. Ez zegoen mugarik haren frustrazioaren eta eromenaren artean. Une batez, begirada niregana jaitsi zuen, eta begirada urrekara finkoaren indarrak besarkatu ninduen. Begirada berriz altxatu zuen, bere basatasuna begietan distiratsu, bere iraganean hegan ariko balitz bezala, hegalak zabalik.

Ekaitza atertu ondoren, motoan ibili nintzen euriak bustitako karriketan, izendatu ezin nituen hainbeste gauza irrikatzen. Batzuetan eguneroko egitekoek sentimendu hori estaltzen zuten; erabaki nuen jana eroatera joatea.

Supermerkatua emakumez gainezka zegoen. Ordaintzeko kutxako uhal garraiatzailea ez zebilen; beraz janak bultzatu nituen, kutxako emakumeak markatu ahala.

—22,80 dolar izanen dira —esan zuen.

Hogeiko bat eta hamarreko beste bat luzatu nizekion; hark billeteak hartu zituen. Gure begiradak gurutzatu ziren.

Haren izena ahots goran esan nuen, apal:

—Edna.

Harrigarria da nola, urteak iraganda ere, oraindik ere harrigan pentsatzen nuen Jan mari-mutilaren maitale ohi bezala, eta neure buruarengan pentsatzen nuen harentzat mari-mutil haur bat banintz bezala.

Begirada azertu zidan. Aurpegia goxatu zitzaion.

—Jess.

Ilaran atzean nuen emakumeak hasperen ozena egin zuen.

—Maitea, agudoago joan zaitezke?

Edna ikusi nuen azkeneko aldian esan nion gazteegia nintzela harentzat izan nahi nuen maitale klasea izateko. Orain biziak beste aukera bat ematen zidan.

Nire erosketak zorroan sartzen lagundu nion. Bietako inork ez zuen hitz egin. Ezpainak estutu nituen, «Norbaitekin zaude?» ez galdetzeko. Galdera neutral bat pentsatu nuen:

—Hitz egin dezakegu?

Atzeko emakumeak arropa garbitzeko xaboi kutxa bat kolpean utzi zuen uhal garraiatzailean, eta Ednari galdetu zion:

—Maitea, atsedenaldea laster izanen duzu?

Ednak txunditurik begiratu, eta baiezko keinua egin zuen.

—Beraz, segituko duzue zuen hizketa orduan?

Irri egin genuen biek. Edna gorritu egin zen.

—Hiru eta erdietan aterako naiz.

Ordu biak ziren bakarrik.

Nire Harleytik hurbil zegoen espaloian ibili nintzen harat eta honat, motoarekin zortziak egin nituen aparkalekuan, erakusleihoei begira egon nintzen, kafea hartu nuen... Oraindik ere hirurak ziren bakarrik.

Hiru eta erdietan motoa supermerkatuaren parean gelditu nuen. Desiratu nuen beste kasko bat ere izatea. Ednak Harleya goitik behera begiratu, eta irribarre egin zuen, ikusten zuena gustuko balu bezala. Gero, niri berdin begiratu zidan.

—Pozten naiz zu ikusteaz, Jess. Zenbat denbora igaro da?

Galdetzen ahal nion ea noiz moztu zuen Janekin, baina pentsatu nuen hobe zela halakorik ez egitea.

—Bueno, eskua traste hartan bildua nuen, eta greban ginen. Nik uste 67a zela; beraz, hamabi urte dira. Kasik hogeita hamar urte ditut, sinets dezakezu?

Ednak baietz.

—Horrek esan nahi du gutxi gorabehera duzula nik nuen adina, uste zenuenean hain emakume zaharra nintzela.

Ezezko keinua egin nuen.

—Hori ez da zuzena, Edna. Kontua zen ni nintzela oso gaztea. Ez nuen inoiz pentsatu zaharra zinenik.

Ednak aurpegia eskuetan hartu zidan. Masailak gorritzen zitzaizkidala sentitu nuen.

—Barkatu —esan zuen—, hori zen nire beldurra.

Kaskoa eskaini nion. Zangoa moto gaintik pasa, eta nire atzean egokitu zen. Demonioaren atsegina zen haren gorputza nirearen kontra sentitzea.

—Nora goaz? —hark.

—Ez dakit —ez oso bortizki, enbragea zapaldu nuen.

Zooan bukatu genuen. Airea freskoa zen han, euriak garbitua. Hosto bustien ohatze batean ibili ginen, adar sareta baten azpian. Haren eskua hartzeko desiratzen nengoen. Gauza ez

inportanteez solas egiten saiatu ginen, baina esaten genuen deusek ez zirudien inportantziarik gabea. Itxoiteko eginahala egin nuen, zintzurra estutzen zidan galdera egin aurretik, baina ezin nuen gehiago atzeratu.

Harengana itzuli nintzen.

—Ezin dut beste urratsik eman gauza bat galdetu arte.

Lotsati, ezezko keinua egin zuen.

—Ez.

—Ez, ezin dizut galderarik egin?

Irribarre, hark.

—Ez, ez nago inorekin.

Irribarre handi bat zabaldu zitzaidan aurpegian, eta gero kontrolatu egin nuen.

—Besterik gabe, jakin-mina nuen.

Aurrez aurre gelditu ginen astigar baten azpian.

—Eta zutaz zer? Norbaitekin al zaude? —galdetu zidan.

Ezetz, nik.

Astigararren haziak zirimola batean inguratu gintuzten.

Bat hartu nuen esku ahurrean.

—Helikoptero esaten genien hauei —esan nuen, bueltaka erortzen uzten nuela.

Ednak hatzak pasatu zituen nire masailetakoz bizar itzale-tik. Desiratu nuen bizarra kendu izana gimnasia joan aurretik. Ukitu zizkidan ezpainak, ilea, lepoa... eskuekin nire bila ariko balitz bezala.

—Hainbeste aldatu naiz? —galdetu nion, haren erantzunaren beldur.

Irribarrez, ezezko keinua egin zuen.

—Ez dakit nola, munduan, norbaitek pentsa dezakeen gizona zarena, batez ere begietara begiratzen badizute.

Ukitze arin batekin aurpegia harengana biratu zidan. Orduan eskuak bularrean pausatu zizkidan, txori baten hegala atsedean hartzean bezala. Aurpegiak oso hurbil genituen. Iruditu zitzaidan nire bizi osoa une horren gainean balantza egiten ari zela. Edna niregandik urrutiratu izan balitz, ez dakit nora joanen nintzatekeen edo nola aurkituko nukeen aurrera segitzeko indarra. Baina ez zuen halakorik egin. Ezpainak hurbildu zizkidan, eta, hala, ahalbidetu zidan gertatu aurretik ospatzea, eta gero bere ahoa eman zidan. Eskaintzeko neukan gutzia musu hartan

zegoen. Ednaren eskuek lepondoa hartu zidaten, eta harengana erakarri ninduten.

Musuak irauñ zuen harik eta bukatuko zelako beldurra izateari utzi nion arte, eta hasi berritako bidaia gisa gozatu genuen. Haizeak goiko adarretako tantak gure gainera bota zituen arte ez ziren bereizi gure ezpainak. Niregandik bereizi zen, eta oinez hasi. Harengana iritsi, eta eskutik hartu nuen. Gure eskuak hain eroso egokitzen ziren, nire bakardadeko lehenbiziko geruzaz gabetu nintzen.

—Goseak zaude? —galdetu nion.

Gelditu, eta niregana itzuli zen berriz.

—Etxera laster joan behar dut.

Nire desilusioa agerian gelditu zen.

—Sentitzen dut —esan zuen.

—Berriz ikus zaitzaketa? —nire itxaropen guztiak erantzunaren menpe zeuden.

Zalantza egin, eta baietz.

—Ostiral gauean.

Ostirala! Gaur larunbata zen, eta zaila izan zitzaidan hura lanetik ateratzeko ordu eta erdia pasatzea. Ednak gure gaineko adar bati tira egin zion. Euri tanta zaparrada erori zitzaigun.

Etxera neramala, haren eskuak nire sorbaldetan pausatutik zeuden, haren aurpegia nire bizkarraren kontra.

—Hau da —seinalatu zuen.

Mantsotu, eta aparkatu nuen.

—Seguru zaude heldu den ostiralean nirekin egon nahi duzula?

Berrestea behar nuen. Ednak masailak laztandu zizkidan. Ezin izan nituen haren hatz puntak behar bezala sentitu; bixarra latzegia nuen. Bizarra atera zitzaidanetik lehenbiziko aldiz, desagertzea desiratu nuen.

Ednak ezpainean hozkadatxoa eman zidan, aurreraka mugitu nintzenez apartatu zen, eta gero berriz erakarri ninduen, irrikaz.

—Asko pozten naiz zu ikusteaz, Jess.

Egiaz zioela zirudien. Sentimenduak handitu zitzaizkidan eztarrian. Listua irentsi, eta baieztako keinua egin nuen.

—Hemen, 9:00etan, ostiralean? —hark.

Berriz baiezko keinua egin, eta ikusi nuen nola joan zen espaloitik bere portxeraino. Atzera begiratu, eta eskuz agurtu ninduen. Ate nagusia itxi, eta gortinen atzean argiak piztean ere ez nuen alde egin. Euri arin bat hasi zuen. Haizeak udazkena eta hosto erorien usaina zeraman.

•••

Zerbitzaria gure mahaitik aldendutakoan, Edna niregana makurtu zen.

—Nolakoa da, gizontzat hartua izatea? —nire ustez arrats osoa eman zuen hori galdetu nahirik.

—Bizi guztian esan didate niregan zerbait gaizki zegoe-la, emakume izateko nuen moduarengatik. Baina gizona baldin banaiz, orduan jada gizon gazte atsegin bat naiz. Nire izateko modua ongi dago.

Edna gehiagoren zain gelditu zen.

—Alde batetik dibertigarria da. Oso estu nengoen loturik denbora guztian emazte-gizon gisa. Atsegina da gauza txikiak egiteko askatasuna izatea, esaterako komun publiko batera lasai joateko, edo bizargile batengana. Atsegina da ezezagunek irribarre egitea edo jatetxe bateko barran flirteatzea.

Ednak aurpegia aztertu zidan.

—Orduan, zergatik dituzu begiak gogoan dudana baino are tristeago?

—O, nik uste... —egin nuen hasperen.

Ednak eten egin zidan.

—Zer uste duzun jakin nahi dut, Jess. Baina esan nola sentitzen zaren.

Ahaztua nuen zenbat maite nituen *femmeak*. Mari-mutil batek buruaz baietz eginen zuen nik hasperen egitean, kontent, istorio osoa aire bafada batean azaltzeagatik. Baina Ednak nire hitzen bila joatera premiau ninduen.

—Mamu bat sentitzen naiz, Edna. Bizirik lurperatua barenngo bezala. Munduari dagokionez, gizontzat hartua izaten hasi nintzanean jaio nintzen. Ez dut iraganik, ez dut maite du-dan jenderik, ez oroitzapenik, ez ni neroni. Inor ez da nirekin egiaz egoten, inork ez dit egiaz hitz egiten, ez nau ukitzen.

Ednaren begiak malkoz bete ziren. Nire eskua bere eskue-
tan hartu zituen. Zerbitzariak eten egin zigun.

—Kafe gehiago, jauna?

Ezetz, nik.

Alde egin, eta gure solasa aditzerik ez zuenean, Ednak
esan zidan:

—Ni ere mamu bat sentitzen naiz, Jess. Oraindik ere Jess
deitzerik badut?

Iribarre lotsatia egin nuen.

—Batzuetan jendeak Jesse deitzen dit, eta ez diet zuzentzen.
Nahi bezala dei nazakezu, baina, mesedez, saiatu jendaurrean gi-
zon bati bezala hitz egiten. Egoera asko oker daiteke.

Ednak hasperen egin, eta baietz esan zuen buruaz. Ahaz-
tua nuen Roccoren maitalea ere izan zela.

—Ba al zenekien, Edna —galdetu nion—, ba al zenekien
Roccon hartutako erabaki bera hartuko nuela?

Ednak ezetz esan zuen buruaz.

—Nekien bakarra zen zure aukerak harenak bezain eska-
sak zirela. Baina gaztea zinenean zuregan zerbait nabaritu nuen
Roccorengan ere ikusia nuena.

Azpiko ezpaina hozkatu nuen, ezagutzen ninduen ema-
kumearen hitzen zain.

—Ez dakit nola esan hau. Beldur naiz hanka sartuko duda-
la —zalantza egin zuen.

—Probatu —premiatu nuen—. Mesedez. Aditu behar dut.

—Ez dut uste *femmeek* mari-mutilak talde homogeneo bat
bezala ikusten dituztenik. Denbora bat iraganda, ikusten duzu
zenbat modu desberdin dauden mari-mutila izateko. Ikusten di-
tuzu gazte eta ausart, ikusten dituzu aldatzen, ikusten duzu nola
gogortzen diren edo nola diren suntsituak. Mari-mutil xamurrak,
mari-mutil erresuminduak, mari-mutil nahasiak. Zu eta Rocco
granitozko mari-mutilak zineten, zuen ertzak leundu ezin zeni-
tuztenak. Ez zetorren bat zuen izaerarekin.

Ednak janari hozkatxo bat hartu zuen. Nahi nuen jana txi-
kitzen presatzea eta hizketan segitzea.

—Izan daitezkeen mari-mutil mota desberdin guztiak
maite ditut. Maite dut mari-mutilen bihotza. Baina gehien kez-
katzen nautenak dira barnean gogorrek ez direnak.

Kopeta zimurtu, eta begirada jaitsi nuen. Edna niregana makurtu zen.

—Begira, min eman nizun. Sentitzen dut. Rocco eta zu, biek, bihotz ederra zenuten, mintzeko oso errazak, eta maite zintuztedan horregatik. Baina ez nekien zenbat denboraz irauten ahal zenuten bizirik.

—Asko pentsatzen dut harengan —esan nion Ednari.

Bere platerari finko begiratu, eta baietz egin zuen buruaz.

—Nik zugan ere bai.

—Edozein gauza eginen nuke Roccoarekin hitz egiteko —esan nuen, desiratuz Ednak jakitea nola iritsi harengana.

Ednak irribarre egin zuen.

—Seguru baietz.

Aulkian atzeraka jarri, eta zapataz alfombra arraskatu nuen.

—Milioi bat galdera eginen nizkioke.

Edna aurreraka makurtu zen.

—Zer da ez dakizuna?

Sorbaldak goratu, eta sardexkarekin jana zirikatu nuen.

—Ez dakit seguru. Egoera honetan nola biziraun, nik uste.

Ednak irribarre egin zuen, atsegin.

—Eta nola dakizu Rocco jakinen duela?

Erantzunak ustekabea harrapatu ninduen.

—Ni ez naiz Rocco bezalakoa —esan nuen—. Hura nolabaiteko mito bat da. Hain indartsua da, bere buruaz hain segurua. Ez naiz halakoa sentitzen inola ere. Hura ezagutzerik banu.

Ednak, atsegin, sardexka eskutik hartu zidan, eta mahai-zapian utzi zuen. Hatz puntak nire besaurrean pausatu zituen.

—Jendea mitoen azpian lurperaturik gelditzen da. Rocco ez ditu erantzun guztiak. Berak galderak ditu, zuk bezalaxe. Saiatzen ari da aurrera ateratzen ahal bezain ongi, zu bezalaxe. Horrek egiten zaituztete hain indartsu. Gauza bakarra dago Rocco zeukana eta zuk ez daukazuna —esan zidan Ednak.

Aurreraka makurtu nintzen:

—Zer?

Irribarre egin, eta esan zuen:

—Geroxeago erakutsiko dizut.

Beti aritu behar al zuen itxoinarazten?

—Edna, non izan zara urte hauetan denetan? —galdetu nion. Irribarre egin, eta sardexka lasagnan sartu zuen.

—Taberna giroa aldatu ondoan, joateari utzi nion. Maite nituen mari-mutilik ez zegoen gehiago. Batez ere unibertsitateko emakumeak ziren. Hasi nintzen lotsaturik sentitzen, soinekoarekin eta makillaturik agertzeaz. Bazirudien tabernako jende guztiak janzten zituela flanela atorrak, blue-jeansak eta botak. Baina ez nik. Baina ez zegoen joateko beste lekurik.

—Gutako batzuk unibertsitateko dantzetara joaten ginen —esan zuen—. Baina desberdin janzten ginen, desberdin dantzatzten ginen —ukabilak itxi zituen haserre—. Dantzalekuko emakume batek irri egin zion nirekin zegoen mari-mutilari, lagundu zidalako zamarra kentzen. Halako atsekabea hartu nuen, istantean alde egin genuen.

Baiezko keinua egin nion:

—Nire maitale ohiak, Theresak, Buffaloko Unibertsitatean egiten zuen lan. Gogoan dut nola amorratzen nintzen eta esaten nion zenbat gorrotatzen nituen emakume haiek gu arbuiatzeagatik. Esaten zidan: «Zuzen daude iraultza behar dela esatean, baina oker daude uste dutenean gu denak gabe egin dezaketela».

Ednak sorbaldak goratu zituen.

—Badakit ez naizela heteroa, eta lesbianek ez naute onartzen haietako bat bezala. Ez dakit nora jo gustatzen zaizkidan mari-mutilak topatzeko, edo beste *femme* batzuk topatzeko. Arras ez ulertua sentitzen naiz. Ni ere mamu bat sentitzen naiz, Jess.

Tarte luze batean, hitzik gabeko elkarrizketa izan genuen. Gure begiek ongietorri egin zioten elkarri. Zerbitzariak niri ekarri zidan kontua; keinu automatiko bat.

Neure artean irri egin nuen. Ednak kopeta ilundu zuen.

—Zer da hain irrigarria?

—Gaur zurekin hitz egin arte, nire baitako zati batek egiaz uste zuen nire ezagun guztiak elkarrekin zeudela beste nonbait, taberna batean, ni gabe ongi pasatzen.

Haren etxera eraman nuen isilik. Hura ukitu nahi nuen. Hark nire axola izatea nahi nuen. Eta biziki desiratzen nuen haren gorputza ondoan nuela lo egitea, babesean.

Haren etxe parean gelditu ginen. Kaskoa kendu, eta keinu egin zidan, segi niezaion. Egongelan gelditu nintzen, saiatuz Edna ezagutzen haren etxearen bitartez. Ednak sarrerako armairua goitik behera miatu zuen.

—Topatu dut! —Gelara itzuli zen irribarrez—. Gauza bakarra dago Roccoek zeukana eta zuk ez daukazuna. Armadura!

Ednak motozaleen zamar beltz pisu bat eman zidan, kre-mailera zilarreztatu distiratsuak zituena. Eskuetan hartu nuen. Jantziaren jantzia leundua zegoen. Eskuineko ukondoa oso kal-tetua zuen.

—Ukondoaren gainean irristatu zen, Harleya irauli zue-nean, Niagara Fallsetik bueltan. —Mahuka ukitu zuen—. Kasik motoa adina maite zuen zamar hau. Bigarren azala deitzen zion.

Ednari begiak busti egin zitzaizkion.

—Nire babesgarri utzi zuen. Hori esan zuen. Hainbestera-ko da haren zati, ez bainaiz sekula ausartu janztera.

Ezin nuen hitz egin.

—Jar ezazu —premiatu ninduen Ednak, eta nik jantzeko ertsu zion.

Pisua zen; pisua lasaigarria zen.

—Ezin hobeki duzu —hatz koskorrak ezpainen kontra es-tutu zituen.

Besoak zabaldu nizkion. Ezezko keinua, hark.

—Bakarrik egon behar dut. Barkatu, oraindik ez nago prest. Espero dut ulertzea.

Ez nuen ulertzen. Baina halako beldurra nuen hura galtze-ko, neure burua behartu nuen irribarrez baietz esatera.

Nire Harleya itzuli, eta haren gainean jarri nintzen. Nero-nen boterea aditu nuen motorraren orroan.

Roccoen armadura jantzita joan nintzen.

•••

—Kontuz! —oihukatu zidan Ednak, esku-eskailera makur-tu bitartean.

Metalezko erretiluari heldu nion, pintura kanpora isuri aurretik.

—Alde hortik! —agindu zidan Ednak.

Eskaileratik jaitsi, eta besaurreaz kopeta igurtzi nuen. Ed-nak irri egin zuen.

—Aurpegia pinturaz zikindu duzu, zatoz hona.

Besotik hartu ninduen goxoki, trapu batekin kopeta garbi-tzen zidala. Nire bizepsak gogortu nituen.

—Entrenatzen aritu naiz —nik, espantuka.

Ednak irribarreari eutsi, eta esan zuen:

—Ohartu naiz.

Nik ez nion nireari eutsi. Musu eman zidan ezpainenetan.

—Eskerrik asko nire egongela pintatzen laguntzeagatik.

Irribarrez, sorbaldak goratu nituen.

—Zertarako gaude mari-mutilak?

Hiru hitz horietan zegoen bildurik nire min eta nahas-mendu guztia: zergatik Ednak, elkartu eta hilabetera, oraindik ez zidan uzten harekin maitasuna egiten?

—O, ez —esan zuen Ednak, burua aldeetara mugituz mantso—. Mari-mutilak zoragarriak dira laguntzeko. Baina ez zarete onak horretan bakarrik. Mari-mutilek mundua aldatu didazue. Ederra sentiarazi nauzue, munduak sentipen hori ebatsi didanean. Mari-mutilen maitasunak iraunarazi dit.

Begiak busti zitzaizkidan, esker oneko malkoez, eta Edna ukitzetik neure burua gordetzeak zekarkidan frustrazioaz.

Desiratzen ninduten hatz puntez laztandu zidan aurpegi-a, baina hala ere ez nekien seguru haren gorputz osoak berdin sentitzen ote zuen.

—Oso polita zara —xuxurlatu zidan—. Ederra: ederra zarelara esan behar nuen.

Irri egin nuen.

—O, oraintxe berean bietako edozein onartuko dut.

Ikusten nuen guztia haren ahoa zen; niretik hain hurbil zegoen, arnasaren beroa sentitzen nuen. Hala ere ez nintzen haren gana mugitu. Ednak zalantza egin zuen. Arnasari eutsi nion, hura niregana noiz etorriko zain nengoela; etorriko zelako esperantaz, etorriko ez zelako beldurrez. Nire besoetara etorri zen, beldurrez, baina niregan konfiantza izanez. Besarkada batez eman nion ongietorria.

Edna borrokatu zen pinturaz ziliportatutako nire atorraren botoiekin. Egongelako lurrean utzi genuen. Logelan blue-jeansen kremailera ireki zidan. Orduantxe bakarrik utzi nion nire grinari harenarekin bat egiten.

Behin hasirik, gure behar guztiak askaturik ziren. Zehazki zekien zer nahi zuen, eta hara eraman ninduen, eman nezakeen guztia eskatuz. Eta nik pozik eman, eutsi gabe. Baita haren gorputza ukitzen nuenean ere, ahoarekin, eskuekin, izterrekin...

ongi nekien saiatzen ari nintzela ez bakarrik plazera ematen, baita nire maitasun guztia ematen ere. Eta, txandaka, eskuekin ferekatzen ninduenean eta azazkalak bizkarrean iltzatzen zizkidanean, haren maitasun osoa senti nezakeen.

Haren besoetan gelditu nintzen, soinean kamiseta bat eta galtzontzilloak bakarrik nituela. Haren hatz puntak nire lepoan behera egin zuten, nire sorbaldak zeharkatu. Irribarre egin zidan limurtzaile. Ahaztua neukan muturreko *femme* baten flirteatzearen gozamen betea.

Edna nire kontra mugitu zen, bere azazkal eta ezpaine-kin ni torturatzen, harik eta gehiago irrikatzearen irrikaz erotu nintzen arte. Beldurrak zintzurra estutu zidan. Ez nekien nola errenditu, baina erakuts ziezadala nahi nuen. Haren azazkalek nire izterren barneko aldetik gora egin zuten.

—Izutua nago —aitortu nuen ahots goran.

Ni ukitzeari utzi zion, eta nire besoetan gelditu zen. Be-sarkaturik lokartu zitzaidanean ere, sabaira begira jarraitu nuen; irrikatzen nuen nire beldurraren gainetik eraman nintzala, eta ez nekien nola eskatu.

•••

Edna, liluraturik, arnasarik gabe gelditu zen ekarri nizkion loreak ikusita.

—O, lirioak. Oso politak dira.

Musu eman nion masailean.

—Zu ekartzen didate gogora.

Barnean sartu nuen txartela aurkitu zuen Ednak.

—Zaude —haren eskuari heldu nion.

Ednak irri egin zuen.

—Zer gertatzen da? Idatzi behar ez zenuen zerbait idatzi duzu?

Urduri mugitu nintzen.

—Poema bat idatzi dizut. Ez dut aurretik sekula egin. Beharbada pentsatuko duzu gauza tontoa dela.

Ednak nire aurpegia bere leporantz erakarri, eta besoekin inguratu ninduen.

—O, maitea, poema bat idatzi duzu niretzat? O, eskerrik asko. Asko esan nahi du niretzat. Ez dut irakurri beharrik ere, nahi ez baduzu.

Femmeak oso argiak izan daitezke gauza hauetan. Nahi nuen irakurtzea, batez ere niri aukera bat ematen ari zelako.

—O, ongi da, irakurri, aurrera —esan nion, eta adorea bildu nuen, haren erantzunaren zain.

Gorritu egin nintzen, ustekabean hartu baininduen ahots goran irakurtzeak. Baina gustatu zitzaidan haren ahotsak nola goratzen zituen nire hitzak:

Berdearen seta leunari
bide ematen dioten hostoak bezain hori
ukitu zenuen nire bakardadea
eta nire azal kurruskariak, marroiak,
tokia utzi zion berritasun xamurrari.

Edna negar batean jarri zen. Aurpegi osoa musukatu zidan, lotsa guztia itzali arte.

—O, Jess. Egiaz idatzi duzu hau niretzat? Oso polita da.

—Edna —xuxurlatu nion belarrira—, hori izan al da sentimendu bat adieraztea?

Ednak atzeraka egin, eta aurpegia eskuetan hartu zidan. Azpiko ezpainak dar-dar egin zion.

—O, bai, maitea. Horixe izan da.

Elkar besarkatu, eta geuk bakarrik aditzen ahal genuen musikarekin mugitu ginen. Eskutik hartu, eta bere logelara eramandu ninduen. Saiatu nintzen maitasuna ongi egiten. Baina ezin nituen haren gorputzaren zeinuak irakurri: dena geldi sumatzen nuen. Ez nuen asmatzen zer egiten ari nintzen gaizki.

Ednaren titiburua lore-begi bat bezala gogortu zen, eta nire ahoan loratu. Haren arnas itoa aditu nuen. Zotin baten ondotik beste bat etorri zen. Nire aurpegia haren aurpegira hurbildu nuen, eta hark kamisetatik heldu zidan bi esku itxiekin. Gorputza bortizki inarrosi zitzaion. Aurpegia nire lepoan ezkutatu, eta hain fuerte egin zuen negar, ikaratu ninduen. Estu heldu nion.

—Ezin dut —esan zuen.

—Xxx. Ongi da.

—Ez haserretu nirekin —erregutu zidan.

—Ez —xuxurlatu nion—. Ez nago zurekin haserreturik.

Ednak ez zuen esan zer zuen barnean, eta ni galdetzeko beldur nintzen. Desiratua izateko gauza ez banintzen, ez nuen jakiteko presarik. Bestalde, hain jasanezinki bakarrik egona nintzen hain luze, sexua ez zen hain inportantea niretzat, ez intimitate hura adina. Hura besarkatzen segitu nuen, eta haren hurbiltasunak eskaintzen zuen kontsolamendu soilean pausatu nintzen.

Hitz egin gabe egon ginen oso luze. Azkenik, isiltasuna hautsi egin nuen galdera batekin.

—Uste duzu emakumea naizela?

Edna ukondo batean bermatuz altxatu, eta begiratu zidan.

—Zer uste duzu zuk? —galdetu zidan atsegin.

Hasperen egin nuen.

—Ez dakit. Munduan ez da inoiz emakume askorik izan ni haiekin identifikatzeko modukorik. Baina seguru demonio dakit gizon ere ez naizela sentitzen. Ez dakit zer naizen. Erotzen nau horrek.

Nire bizkarrean bermatu zen.

—Badakit, maitea, egiaz badakit. Ez dut uste inoiz maitale mari-mutilik izan dudarik hala erdibitua sentitzen ez denik.

—Bai —sorbaldak goratu nituen—, baina desberdina da niretzat, zeren gizon gisa bizi naiz. Jakin ere ez dakit jadanik mari-mutila naizen.

Baiezko keinua egin zuen.

—Egia da, Roccok eta zuk garai gogorak izan dituzue, zeuek izateko eta hala ere bizirik irauteko. Baina sinetsidazu, maitea, ez zara bakarra sentitzen duena ez dela ez gizona ez emakumea.

Hasperen egin nuen.

—Ez zait gustatzen ez bata ez bestea izatea.

Ednak aurpegia niretik hurbil-hurbil jarri zuen.

—Bata edo bestea baino zerbait gehiago zara, maitea. Bietako bat izatea baino aukera gehiago dago. Ez da hain sinplea. Bestela ez zen izanzen hainbeste jende egokitzen ez dena. Ederra zara, Jess, baina ez dut hitzik jendeak hori ikus dezan laguntzeko.

—Nahiko nuke atzera egin eta dena lehen bezalakoa izatea —esan nion.

Ednak urrutira begiratu zuen.

—Nik ez —esan zuen—. Ez dut itzuli nahi tabernetara eta borroketara. Nahi dudan bakarra da maite dudan jendearekin egoteko toki bat. Nahi dut naizen bezala onar nazatela, eta ez bakarrik gay munduan.

Fantasiatik kanpo sentitu nintzen.

—Eta ni, zer? Ni ere onartua izan naiteke?

Ednak nire eskua hartu, ahora hurbildu, eta hatzak musukatu zizkidan.

—Ez naiz onartua izanen zu onartua izan arte.

Irribarre egin nuen.

—Amets atsegina da. Nola gauzatuko dugu?

—Ez dakit —esan zuen—. Hortxe dago koska.

Ednak izterra luzatu zuen nire aldaka gainetik. Ezpainak nire kamisetan pausatuak zituen.

—Nahiko nuke zu salbatu ahal izatea —xuxurlatu zuen—. Kendu dizuten gutzia izan nahiko nuke zuretzat.

Irri egin nuen.

—Izan nire maitalea, besterik ez.

Edna ukondo batean bermatu, eta begietara begiratu zidan.

—Nahiko zenuke nik zu salbatu ahal izatea, ezta?

—Ez —nik gezurretan, hura galtzearen beldur.

Zuta jarri zen.

—Ez dakit nolatan ez. Ikaragarria zait pentsatzea zer gutxi duzun, zenbat beharko duzun. Ez dut zuri emateko hainbeste.

Biratu nintzen, eta haren gerria besarkatu nuen.

—Orduan saiatuko naiz gutxiago behar izaten.

Ileetatik heldu zidan, eta burua atzeraka eraman, begietara begiratu nion arte.

—O, Jess. Asko sentitzen dut zu mindu izana. Uste duzu ez dakidala zenbat mindu zintuen ni ukitzen ez uzteak, lehenbiziko aldiaren ondoren? Eta ez dakit nola azaldu ez duela zurekin zerikusirik.

—Eskerrik asko —nik irri kiratsez—. Ni naiz nahi ez duzun hori, beraz nirekin zerikusi handia du. Honek denak esan nahi du nik ez dezakedala deus egin konpontzeko.

Ednak hatz puntak ezpainetan jarri zizkidan, isilarazteko.

—Zerbait ni barnetik urratzen ari da, Jess, eta ezin esplikatu dut.

Eserita jarri nintzen, irrikatan.

—Orduan hitz egidazu horretaz, Edna. Beharbada lagun nezake.

Buruaz ezetz esan zuen.

—Ezin konpondu duzu, laztana. Mari-mutilek beti nahi izaten duzue mingarria den hori konpondu.

Hasperen egin nuen.

—Ezin badizut maitasuna egin, eta ezin badut konpondu mingarria zaizun hori dago nire mari-mutil xarma? Zer ematen ahal dizut?

Ednak irribarre egin, eta berriz ere nire besoetan jarri zen.

—Eman denbora —esan zidan—, eta espazio pixka bat.

•••

Edna ni baino lehen ohartu zen zuhaitzetako lore-begiez, zooan. Jada ez ninduen gehiago ukitzen. Lore-begiak nola ukitzen zituen inbidiatu nuen.

Kakahueteak erosi, eta harat eta honat ibili ginen, nora ezean. Tigre bat ikusi nuen kaiola baten barnean, aurreraka eta atzeraka ziega txikian. Burua apaldu, eta orro egin zuen. Ednak begiratu egin zidan.

—Batzuetan iruditzen zait, inor ez dagoenean, animalia hauei hitz egiten ahal zaiela, eta haiek erantzunen dutela.

Irribarre, nik.

—Kaiola horietan beldurrik gabe sartuko nintzateke.

Ednak kopeta ilundu zuen.

—Seko akabatzen ahal zintuzkete.

Baiezko keinua, nik.

—Baina ez dut horien beldurrik.

Isilik ibili ginen urmael geldiraino, non ahateak igerian ibili eta murgiltzen baitziren. Putzuaren ondoan eseri ginenean, ohartu nintzen zerbait gertatu behar zela. Eta deusek ezin zuen saihestu une hura iristea.

—Badakizu —hasi zen Edna—, beti itxoin dut mari-mutil bat zaldi gainean etorri eta ni salbatzea. Beti bermatu izan naiz nire mari-mutilarengan ahul sentitu naizenean.

Kakahueteen kaskalak hausten hasi nintzen, bata bestearen atzetik, eta ahate gosetuei jaurtitzen. Banekien hobe nuela hitzik ez esan. Edna luze egon zen ahateei begira, deus esan

gabe. Nire gorputzaren kontra estutu zen. Aurpegia niregana biratu zuenean, malkoen arrastoak ikusi nituen.

Uste dut banekiela orduantxe, baina batzuetan jakitea geruzaka etortzen da. Haren izena ahots goran xuxurlatu nuen.

—Gauzak konpon ditzakegu —esan nion.

Ezezko keinua, hark.

—Ezin naiz orain inorekin egon, Jess. Zergatik ere ez dakit. Ez du zentzurik. Inoiz heroirik balego, zu izanen zinateke seguru nirea. Zu zara mari-mutil batengan nahi izan dudana guztia. Indartsua zara, eta atsegina, eta aditzen duzu, eta oso gogor saiatzen zara. Asko maite zaitut, Jess.

Negarretan zegoela, Ednak aurpegia niregana biratu zuen. Ez nuen ukitu. Irrikatan nengoen, baina banekien ez nuela hala-korik egin behar.

—Badakizu? —esan nion—, bizian gogoan gehien ditudan uneak dira horiek non nahi ez nuen zerbait gertatu zen, nik kontrolatu ezinik.

Ednak, zotinka, baiezko keinua egin zuen.

—Trabaturik nago, Jess. Eta nolabait neronen burua salbatu behar dut. Zuk ezin duzu nire orde egin. Eta nik ez dakit nola. Oso beldurtua nago.

Instintiboki, eskua harengana luzatu nuen. Berak beso batego tarte jarri zuen, ukitu arin baten bidez.

Begiak malkoz bete zitzaizkidan, baina neure burua kontrolatu nuen, jakinda aurrean gau asko nituela penatzeko.

—Zergatik? galdetu nion—. Ezin dut ulertu zergatik ezin zaren saiatu.

Azpiko ezpaina hozkatu zuen.

—Saiatzen ari naiz, Jess. Saiatu naiz. Ez dakit ordea zer gertatzen den. Zu bezain bakarrik nago. Asko behar dut. Horrek beldurtzen nau, horrek eta zuk zenbat behar nauzun.

—O, Edna. Ez dago zerbait nik egin dezakedanik, utz ez nazazun? Ez dago deus ere zure erabakia aldatzeko?

Ednak buruaz ezetz esan zuen. Malko errekaak zituen aurpegian behera.

—O, Jess. Asko maite zaitut. Mesedez, sinetsidazu.

Arindua sentitu nuen nire besoetara etorri zitzaidanean negar egitera, ohartu nintzen arte azkenekoz besarkatzera uzten

ari zela. Ikara olde batek kasik ito ninduen. Erraietan senti neza-
keen nolakoa zen nire bizia Edna itzuli aurretik.

—Edna —esan nuen apal.

Hatz puntekin ezpainak estali zizkidan.

—Ezin dut —esan zuen.

Ednak aurpegia bi eskuekin hartu zidan, eta begietara begiratu.

—Zer eginen duzu, Jess? O, jainkoa, biak salbatzeko bezain
indartsua izan nahiko nuke.

Begirada apartatu nuen.

—Ongi egonen naiz —esaten nuela aditu nuen.

Biek ere irri egin genuen ahots goran.

—Oso mari-mutila da hori esatea, ezta? —aitortu nuen.

—O, oso —Ednak, irriz.

Irrietatik malkoetarako mugaz gaindi irristatu ginen be-
rriz ere.

Nire baitan galdetu nuen ea utziko nindukeen baldin nire
baitan maitatzeko gehiago izan balitz, edo behinik behin nik gu-
txiago behar izan banu.

Ednak musu eman zidan ezpainetan. Harengana mugitu
izan banintz apartatuko nindukeen. Eta, beraz, oso geldirik gel-
ditu nintzen, eta haren musua gehixeago luzatu zen.

Altxatu zen.

—Asko sentitzen dut, Jess.

Erregutzeak nire bizian mantendu balu, belauniko jarriko
nintzatekeen, baina banekien ez zela geldituko.

—Etxera eraman zaitzaket? —galdetu nuen, haren eraba-
kia aldatzeko denbora izateko esperantzan.

Ezezko keinua egin zuen.

Zutitu egin nintzen, eta nire ezpainei utzi nien gogoan har
zitzaten haren kopeta, haren masailak, haren kokotsa. Gusta-
tzen zitzaidan adinak nola gozatu zion aurpegia.

—Noizbait zu ikusterik izanen dut? Zurekin hitz egiterik?

Eskua bularrean jarri zidan.

—Beharbada noizbait. Ez orain.

Ezpainak nireetatik hurbil zituen. Musu eman nion za-
lantzati. Ez zen niregandik bereizi. Une batez zeukan beharra
sumatu nuen, eta gero Ednak atzera egin zuen. Ikusi nuen nola
nire ondolik joaten zen.

Banan-banan, kakahueteak zuritu nituen. Batzuk ahateei bota, eta beste batzuk neronek jan nituen. Inoiz baino bakarrago eta beldurtuago sentitzen nintzen.

19

Beste edozein bezalako larunbat goiz bat zirudien. Egun bakoitza hurrengoaren oso antzeko bihurtu zen. Ordu bakoitza hain mantxo arrastatzen zen, ez nuen arretarik jarri hilabeteak urte bilakatu bitartean.

Kafea egiten nuela, ikusi nuen nola eskinoso urdin bat bo-rrokatzen zen arabazozo batekin, janontzian, apur batzuegatik. Bietako bat ere ez zen ohartu beren azpiko aldean ezkutaturik zegoen katuaz, jauzi egiteko prest baitzegoen.

Dutxan denbora eman nuen, saiatuz isolamenduaren zolda gaisetarik kentzen, ur bero eta xaboitsuarekin. Bakarda-dea ingurumen bihurtua zen: arnasten nuen airea, harrapatua nindukan dimentsio espaziala. Txalupa batean nengoen arrunt geldirik zegoen itsasoan, nire belak beteko zituen brisaren zain.

Eta, hala, ez zitzaidan inoiz bururatuko bizia hain errotik aldatuko zitzaidanik egun hartan. Egia esan, oso sinplea izan zen. Zentimetro kubiko bat hormonaz bete nuen xiringa bat, nire izter biluziaren gaisetarik eutsi nion... eta orduan gelditu egin nintzen. Esku ikusezin batek besoa eutsiko balit bezala izan zen. Eginahalak eginda ere, ezin nuen orratz hori nire koadrizepsean sartu, aurretik ehunka aldiz egin bezala.

Altxatu eta komuneko ispilura begiratu nuen. Nire begie-tako tristura sakonak ikaratu egin ninduen. Goizetako bizar jaio berria aparrez estali, labana batekin ongi kendu, eta ur hotzez aurpegia garbitu nuen. Bizarraldea oraindik latza nuen. Nire gorputzeko zati gisa maite nuen bizarra, baina neurri berean sen-titzen nintzen haren atzean harrapatua. Ispiluan ikusten nuena ez zen gizon bat, baina emazte-gizon bat ere ez nuen ikusten.

Nire aurpegiak jada ez zituen erakusten nire generoaren kontrasteak. Ikus nezakeen gizon itxura nuela, baina neronek ere jada ez nezakeen ikus larruazal azpiko ni konplexuago hori.

Nire iraganean oso atzera begira gelditu nintzen, eta oroi-tu nintzen haur hartaz, Searsek katalogatu ezin zuenaz. Haur hura ikusi nuen bere ispilu aurrean, aitaren trajean, niri galde-tzen ea ni ote nintzen bera handitutakoan bihurtuko zena. Bai, erantzun nion. Eta pentsatu nuen zein ausarta zen, bidaiari honi hasiera emanda, epai ikaragarriari aurre eginez.

Baina zer nintzen orain: emakumea edo gizona? Luze eta gogor borrokatua nintzen emakumeen artean emakume izateko, baina beti oso baztertua sentitu nintzen nire desberdintasunengatik. Ez nuen uste izan gizon gisa bizitzeak ezkutatuko ninduenik. Espero izan nuen utziko zidala adierazten nire parte bat emakume ez zirudiena. Ordea, ez nintzen iritsi esploratzera emazte-gizon izatea zer zen. Besterik gabe, gizon bihurtu nintzen: iraganik gabeko gizon.

Zer nintzen orain: gizona edo emakumea? Galdera horrek ez zuen erantzunik izanen bi aukera bakarrik izan bitartean; ez zuen inoiz erantzunik izanen galdetzea behar zen bitartean.

Egina nuen bide luzeaz pentsatu nuen. Ez nion inoiz utzi mundua nire begien bidez begiratzeari. Ez nion inoiz utzi nire baitan ni neroni sentitzeari. Zer gertatuko litzateke nire egiazko nia azaleratuko balitz, bidaiak aldatua? Nor izanen nintzate-ke? Bat-batean, jakin beharra nuen. Merezki ote luke nire biziak baldin ikertzeari kolpean utziko banio? Urduritasunaren eta bel-durraren hatzek zintzurra estutu zidaten. Nora nindoan orain? Nor ari nintzen bihurtzen? Ezin nien galdera horiei erantzun, baina galderak egiteak berak erakusten zuen aldaketa irakiten izan nuela kontzientziaren azalaren azpitxoan.

Zigarreta bat bilatu nuen apartamentuan, baina paketea hartutakoan, nire eskua ikusi nuen hura txikitzen.

Gau hartan, amets egin nuen ur uher sakonetan murgildua nenbilela, eginahaletan. Beso-zangoak astintzen nituen melaza-ren gisako erresistentziaren kontra. Birikek min ematen zidaten arnasari eusteaz. Airea hartzeko behar gorria nuen. Pixkaka, azalerarantz joaten hasi nintzen igerian. Nire gorputzak jasaten zuen presioa arindu egin zen. Eskuetan belusaren gisako liki-doa sentitzen nuen, uretan aurrera egin bitartean. Nire gainean

ikus nezakeen zerua, argi puskak distiratzten. Birikak lehertzear nituen. Uraren azalera hautsi nuen. Eguzkia eta haizea senti nitzakeen aurpegian, aldi berean epel eta fresko. Neronen irria aditu nuen.

•••

Nago egiaz uste nuela hormonon efektua joatean deskubrituko nuela zirkulu oso bat egina nuela, eta etxera itzuliko nintzela, neure iraganera. Baina nire bidaia ez zen bukatu oraindik. Horretaz ohartu nintzen Theresa ikusi nuenean K-Martent erosketak egiten.

Hura ezagutzean arnasari eutsi nion. Ez zen kasik bate-re aldatu. Gauza bera esanene ote zukeen nitaz? Gizonen azpiko arropen erakustoki baten atzean ezkutatu, eta hari begira gelditu nintzen. Zer eginen zukeen deituko banio? Nahi nuen besarka nidezala eta etxera eramane. Ibili eta buelta, utzi ninduen hormonak hartzen hasi nintzelako; orain utziak nituen. Berriz maitatzen ahalko ninduen?

Ikusi nuen norbaitek, besoarekin, Theresa inguratzen zuela. Korridoreen aldera jarri nintzen, Theresaren ikuspegi hobea izateko. Bi urte lehenago haren atea ireki zuen soft *butch* bera zen; maitale bera. Zer ikusiko zuen Theresak larunbat gaueko mari-mutil hartan? Askoz gogorragoa zen ni izatea; askoz gehiagoko behar nuen Theresaren maitasuna hark baino. Gorrotatzen nuen aitortzea berezia behar zuela izan baldin Theresak maite bazuen.

Theresa irriz aditu nuen, atsegin eta lasai. Aurpegia maitasunez zimurtu zitzaion. Eta orduan jakin nuen ez nindoala etxera, ez nintzela itzulerako bidea egiten ari. Aurreraka amiltzen ari nintzen, ikusi ezin nuen helmuga batera. Eta noizbait Theresaren besoetara itzuli behar banuen, urrutiko etorkizunean izanen zen, ez orain.

Saltegitik presaka atera nintzen, haiek ni ikusi aurretik, eta motoan ziztuan joan nintzen etxera, malkoak iritsi aurretxoan. Orduak eman nituen ohatzean etzanda, harik eta arratsalde sargoria gau bihurtu zen arte. Haizeak haritzen hostoak laztantzen zituen kanpoan; farolek itzalak proiektatzen zituzten nire paretan. Txixarren negarrak goratu eta apaltzen ziren.

Theresak eskatu zidan noizbait gutun bat bidaltzeko. Orain idatzi nahi nuen. Irrikatzen nengoen Theresari esaldi sorta bat bidaltzeko, opari bat bezala bildua: gaueko zerua argituko zuten hitzak, hitz lasaigarri eta sendagarriak. Baina hitzak, ordea, ez ziren etorri.

Gau luzean ohartu nintzen ezen, maitasuna nahikoa izan balitz, beharbada inoiz ez nukeela Theresa galdu izanen. Esan nezakeen bidebanatze batera iritsi ginela. Hori zen egia, baina ez zen egia osoa. Banekien Theresa galdua nuela modu txikietan, bereizi baino askoz lehenago. Haren munduaren erdigunean izan nintzen; bera nire mundu osoa bihurtu zen. Nire unibertsoa txikitu ahala, behar nuen Theresa niretzat dena izan zedila, eta, ordain gisa, irrikatzen nuen ni neu izatea hark behar zuen guztia. Ez bata ez bestea ez ginen gauza espektatiba horien arabera bizitzeko.

Eta hala ere, nola izan zitekeen bestela? Nola ez nintzen belauniko jarriko egunaren bukaeran, eta haren geriza eskatu? Nola ukatuko zidan hark, maite ninduen bezala maitatuta? Nire burua bere altzora ekarri eta aurpegia laztantzen zidan une haiek ziren ezagutzen nituen babes eta onarpen bakarrak. Nire beharra aitortzea zen hamaika modutan eskatua zidana. Ez nekien beste nora jo nezakeen segurtasun bila mundu arriskugarri batean. Eta ez dut uste nireganako maitasunari eusterik izanen zuenik gotorturik irauin izan banu. Beharbada problema zen hasi nintzela sinesten haren maitasunak babesten ahal ninduela, hasi nintzela hori itxaroten, hori eskatzen. Beharbada hark sinetsi zuen gogor saiatuta salba nintzakeela. Aurpegitik odola xukatu behar izaten zidanean, horrek haren boterea iraintzen ote zuen? Zerbait aldatuko zen berriz elkarren besoetara itzuliko bagina?

Noizbait esanen nizkion ulertzen hasia nintzen gauza txiki horiek. Baina oraingoz, zazpi lerro bakarrik idazten ahal nizkion: poema labur bat, emazte-gizon baten bihotz estutu batetik:

Gau hozkirrietan gehienbat
Abar hostotsuek hormetan marrazten dutenean
Eta barrena denean iraultzen
Loak nire itsasertzak milikatzekeo
Kontrolik gabeko une luze horretan
Oroitzapenen brasek dir-dir dagite leunki
Iluna dute mudatzen.

Ez zen deus pasatu hormonak hartzeari utzi nionean. Hilabe-teetan, ohatzetik altxatu ,eta laster batean joaten nintzen ispilura, urduritasunez aireari eutsiz. Ez zen deus aldatzen. Etsigarri sama-rra zen. Elektrolisiko ordu asko behar izan nituen nire masailak berriz guri sentitu arte. Goiz batez, ohatzetik altxatu, eta hilekoaren odola aurkitu nuen galtzontzilloetan. Bota egin nituen, garbitegian inork ez zezan ikus kontraesan argi hura. Baina egiazko gorabehera nire baitan ari zen gertatzen. Nirekin zintzoa izan behar nuen, ar-nasa bezain premiazkoa nuen. Bakarrik gelditu eta nire baitan zer nahi nuen galdetzen nuenean, aldaketa zen erantzuna.

Ez nintzen damutzen hormonak hartzeko erabakiaz. Ez nukeen askoz ere gehiago bizirik iraunen gizon gisa bizi gabe. Eta ebakuntza oparia izan zen niretzat, gorputza etxera itzuli balitz bezala. Baina zerbait gehiago nahi nuen justu-justu bizirik egotea baino, arrotz bat izatea baino, beti ez inplikatzeko eginahaletan. Nahi nuen deskubritu nor nintzen, neure burua definitu. Normahi nintzela ere, aurre egin nahi nion, berriz ere bizi egin nahi nuen. Nahi nuen gauza izan neronen bizia esplikatzeko, mundua nire be-gietatik nolakoa zen azaltzeko.

Ordea, oraindik beldur handia nion kanpora atera eta mun-duari berriz aurre egiteari. Neronen buruari galdetu nion zergatik aukeratu ote nuen Reaganen gobernuaren hasiera eta Gehiengo Morala erakundearen goraldia ni neroni izateko eskubidea aldarri-katzeko. Nekazariak armatuko ote zituzten zuzi eta makilekin, eta landan etorriko ote ziren nire atzetik? Bakarrik edukiko ninduten, eskuak loturik ziega batean, norengana jo izan gabe, amesgaizto horretatik bizirik ateraz gero? Baina orduan aitortu behar izan nuen ez zuela inporta nor zegoen Etxe Zurian, beti izan zela gogorra ni neu izatea. Beti kinka larrian; zerbaitek esaten zidan nire bizitza ez zela batere errazagoa izanen. Nolanahi ere, gauza asko gaindituak nituen, eta ez zirudien askoz ere makurragoa izan zitekeenik.

Berriz ere, ez nezakeen ikus aurrean nuen bidea. Oraindik ere neure bidea egiten ari nintzen esploratu gabeko uretan, finkatu gabeko konstelazioak lagun. Desiratzen nuen hor nonbait norbait izatea, galdetzeko: *Zer egin beharko nuke?* Baina nire munduan ez zen halakorik. Ni neroni nintzen aditu bakarra neure bizia bizitze-ko, neronen buruarengana bakarrik jo nezakeen erantzun bila.



Jakin nuen aldatzen ari nintzela jendea berriz ere niri aho zabalik begiratzten hasi zitzaidanean. Urte bat behar izan zuen. Nire aldakek gizonen galtzen josturak behartzen zituzten. Bizarra bakan eta fin ateratzen zitzaidan, elektrolisiarengatik. Aurpegia goxatu zitzaidan. Hala ere, behin hormonek nire aho-tsa apaldurik, hantxe gelditu zen. Eta bularrak lau segitu zuen. Nire gorputza generoen ezaugarriak nahasten ari zen, eta ez nintzen ni ohartzen bakarria.

Berriz ere ikusi nuen zer zen begira-begira nituen arrotzen artean ibiltzea: begirada haserreak, nahasiak, jakin-minekoak. Emakumea edo gizona: iraindurik sentitzen dira nahasten ditudalako. Zigorra jarraian. Haien begiradan topa dezakedan aitorten bakarria da ni «beste zerbait» naizela. Desberdina naiz. Beti izanen naiz desberdina. Inoiz ez naiz gauza izanen berriz nire larrua arrimatzeke berdina izatearen erosotasunera.

—Nola demonio jakinen dut zer den hori? —esan zion erakusmahaiaren atzeko gizonak bezero bati, ni urrundu ahala.

Galderak oihartzun egin zuen nire belarrietan. «Zer da hori» izatera itzuli nintzen.

Lehenago, jende ezezaguna nirekin amorratzen zen, nintzelako emakume bat muga debekatu bat gurutzatu zuena. Orain, ez zekiten seguru zer sexu nuen, eta hori pentsaezina, ikaragarria zen haientzat. Emakumea edo gizona: haien hankapeko zorua desegin egiten zen ondotik pasatzen nintzenean. *Nola demonio jakinen dut zer den hori?* Ahaztua nuen zein gogorra zen halakoak jasatea. Baina banekien nire biziko hurrengo fasera iristen ari nintzela. Beldurrak eta zirrarak barnea jaten zidaten.

Jada gauza gutxik lotzen ninduten Buffalora. Eta hala ere alde egiteko beldur nintzen. Sinetsi nahi nuen ezen, bilatzen nuen neure etxea edozein izanik ere, hantxe egonen zela. Baina unea iritsi zen onartzeko etxea beste nonbait izanen nuela zain. Edo beharbada bidaiatu beharra nuen, etxea nire baitan topatzeko. Betiere, baziren lanak New Yorken. Aldi baterako lanen agentziako langileak esan zidan Manhattanen lana topa neza-keela. Eta Times Squareko hogeita lau orduko zinema aretoak zirela hiriko hotelik merkeenak. Neure buruari esaten nion bitartean ezin nintzela joan aski dirurik ez nuelako, barne-barnean

beldur nintzen New Yorkek ez ote ninduen ahoan hartuko, txiki-
txiki eginen eta gero ttu egin eta botako.

Ez zen bakarrik lan egonkor baten esperantza hara era-
kartzen ninduen, nolana ere; partez, anonimotasunak
erakartzen ninduen. Nolabait, errazagoa zirudien arrotza izatea
arrotzen hiri batean. Eta itxaropena nuen nire gisako beste ba-
tzuk aurkitzeko. Beldurak bakarrik atxikitzen ninduen Buffalori.

Goiz batean, eskailerak jaitsi, eta olio orban bat bakarrik
topatu nuen Harleya aparkaturik izandako lekuan. Ezin sinetsi
nuen ebatsi zidatela. Ordu bat eman nuen etxe-sailaren ingu-
ruan bueltaka, neure burua konbentzitu nahirik ezen, besterik
gabe, ahaztu zitzaidala non aparkatu nuen. Azkenerako zin-
tarrarian eseri, eta motoa galdu nuela onartutakoan, jakin nuen
Buffalo uzteko ordua zela.

•••

Amtrak enpresako trenak Buffaloko geltokia utzi bi-
tartean, sentitu nuen nire izatea atzean uzten ari nintzela. Ez
nekien zer nuen aurrean, baina trena agudo zihoan, ilunpeetan
barna, dena delako helmuga hartarantz.

Neguko zerua zen haurtzaroko amets bat bezain urdi-
na, eta hodeiek taxutzen zituzten izena hartzeko zain zeuden
formak. Paisaia berri bat ziztuan iragaten zen nire leihoaren
kanpoko aldean. Landa agertu zen: batzuetan zuhaitzekin, ba-
tzuetan babesgabe eta elkor. Bidaia luzea nuen aurretik.

—Nor bait eseriko da hemen? —galdetu zidan emakume
batek. Ezetz, nik. Maletak goiko apalean jarri zituen. Emakumea-
ren zangoen atzetik neskato bat begira nuen.

—Joan naiz, eta hau da nire alaba Amy.

Amyk finko begiratzen zidan. Buru keinua egin nuen irribarrez.

—Jess naiz.

Leihotik kanpora begira jarri nintzen. Bakarrik egon eta
pentsatu egin nahi nuen.

Amy amaren altzoan kiribildu zen.

—Kontatu ipuin bat —Joanek irribarre egin, eta burua
atzeraka bermatu zuen eserlekuan.

—Bazen behin...

Neskato bati buruzko istorioa asmatu zuen, mundura atera baitzen bidaiatzera, azti bat topatzera, esanen ziona zer egin behar zuen bere biziarekin. Baina, bidean, sua botatzen zuen herensuge bati aurre egin behar izan zion, bidea moztu baitzion. Herensugeak beldur handia ematen zion.

—Zer eginen dut? —oihukatu zuen neskatoak.

Halako batez, goiko amildegi batean arroka gaitza ikusi zuen, ia erortzeko zorian. Arroka bulkatzerik balu, herensugearen gainera erori, eta garbituko zuen. Baina nola iritsiko zen haraino? Neskatoak arranoari deitu zion:

—Anaia arranoa, mesedez, lagundu herensugea akabatzen!

Eta arranoa berehalakoan jaitsi, eta neskatoa amildegi gainera eraman zuen. Herensugeak ikusi zuen arroka gainera zertorkiola, baina beranduegi izan zen. Arroka herensugea txikitu zuenean, ke hodei batean desagertu zen. Neska asko poztu zen, baina beldur zen nahasmendu guztiak berandutu ote zuen, eta ez zuela jada aztia inoiz topatuko. Gau hartan, zume negarti baten azpian kanpatu zen, ibaiaren ondoan. Su txiki bat egin zuen, saltxitxa ogitartekoak prestatzeko, eta oihanean sartu zen egur gehiago bilatzera. Itzulitakoan, aztia sutondoan aurkitu zuen, malba zuriak txigortzen. Bazekien aztia zela zeren txano luze puntaduna baitzuen, izarrak eta ilargiak zituen. Beraz, ondoan eseri, eta galdetu zion:

—Azti jauna, mesedez, esadazu zer egin beharko nukeen bizian.

Eta aztiak irribarre egin, eta erantzun zion:

—Herensuge bat hil beharko zenuke.

Amyk amari irribarre egin, eta haren bularraren kontra bildu zen.

—Amatto, hori neska da edo gizona? —galdetu zuen, begirada Joanengana altxatuz.

Joanek barkamen keinua egin zidan, eta Amyri begiratu zion.

—Jess da —esan zuen.

—Ekarriko dizut zerbait kafetegi bagoitik? —galdetu nion Joani, zutitu eta haien ondotik pasatzen nintzen bitartean. Amak ezezko keinua egin zuen.

Freskagarri bat eta karta sorta bat erosi nituen, eta kafetegi bagoian eseri nintzen, eta bakar jokoan aritu. Nire eserlekura

itzuli nintzenerako, Joan eta Amy joanak ziren. Rochesterren jaitziko ziren. Intimitatea gozatu nuen.

Mundua presaka pasatzen zen nire leihotik kanpora: orban gorrinak, magentak, okre gorriak. Urki dilindariak eta elur petatuak. Hosto kurruskari okreak oraindik adarrei itsatsiak. Belar txarreko ondulazio urrekara dotoreak, zingiradian nagusi. Ahate marroiak harat-honat putzu geldietan. Zerua betea belez, belatzez eta sai papargorritz. Eguraldiak zigortutako etxeak mendixketan ezkutatuak, baso betiberdeen artean. Lugorriak eta silo distiratsuak.

Landako herri logaletuak, beren atzealde korrokoilduak trenbiderantz zituztenak. Etorbide nagusien luzapenak: dena bost eta hamar zentaboa zuten dendak, burdindegia, auto zatiak saltegiak, gasolindegia, etxeko jana ematen duten jatetxeak. Lima, limoi, mertxika pastel koloreko etxeak. Portxe sabelduak. Kamionetak, eta haurrentzako zabuak atzeko patioetan herdoiltzen. Karabana-kanpinak: atzoko mugikortasun ametsak, gurpilik gabe. Fabrika abandonatuak, maitalearen hasperena bezain ezagunak. Errepide, zubi eta trenbidez egindako xingolek gure biziak biltzen zituzten, opari bat bezala.

Bidaian, tarteko egoera horretan, egotearen arintasunaren plazera hasi nintzen sentitzen.

Baina ordu batzuk geroago landa atzera egiten hasi zen, eta haren ordezkari fabrika eta apartamentu eraikinen azalera handiak iritsi ziren. New York Cityra iristen ari ginen. Eraikinak gero eta handiagoak ziren, zerua estali zuten arte. Barnago sartu nintzen etxebizitza blokeen oihanean. Horietako batzuetan jendea bizi zen, beste batzuk abandonatuak zeuden; desberdintasunak txikiak ziren: oholak edo oihalak iltzaturik leihotetan. Arropa barreiatua, haizeak astindua, su-eskaileretan zintzilikatua. Paretetako azkeneko bazterra ere espraiz marraztutako izenez betea.

Pobrezia dasta nezakeen; hortzen arteko hondar bat bezain ezaguna nuen.

—Hau Harlem da —azaltzen zion gizon batek bere bidaideari. Harlem! Zirrarak arnasarik gabe utzi ninduen.

20

Grand Central Station geltokiaren kanpoko aldean gelditu nintzen mugitu gabe eta gora begira. Berriz ere haur bat sentitzen nintzen, hormigoizko arroila baten barnean, aldeetan zerurainoko paretak. Jende pila presaka zebilen, ur-lasterrak bezala. Ezezagunek bultzatu egiten ninduten ondotik pasatu ahala. *Mugi zaitez, ergela*. Oroitu nintzen nolakoa zen helduen munduan handitzea: denek elkar ezagutuko balute bezala, eta ekintza plan bat balute bezala, eta nik ez nuen arrastorik ere.

Espaloiko bazter bateraino joan, ahal bezala, eta kazeta saltzaileari galdegin nion:

—Non da 42. karrika?

—Hementxe berean —bota zidan kolpean.

—Nola aurkitzen da apartamentu bat hiri honetan? —galdetu nion.

—Apartamentu bat nahi? Joan eta topatu alokairu kontrolatua duen norbait, eta hil ezazu.

Ez zuen irribarrerik egin *Village Voiceren* ale bat eman eta nire dirua hartu bitartean.

Bizkarra eraikin baten fatxadaren kontra bermatu, eta ondotik pasatzen zen jendeketa oldeari begiratu nion. Ohartu nintzen hiri honek estrategia bat eskatzen zuela, eta nik ez neukala. Seiehun dolar nituen. Horrekin apartamentu bat erdietsi behar nuen, eta soberan nahikoa izan behar nuen jateko eta aurrerakinak ordaintzeko, lehenbiziko soldata jaso arte.

Egia zen 42. karrika gau osoko zinema aretoz betea zegoela. Sarrera hiru dolar zen, kung fuko filmak ikusteko bata bestearen atzetik, etenik gabe. Zinema areto bat aukeratu, eta

gizonen mundu batean sartu nintzen. Zigarreta zaharmindu eta porro usaina zegoen. Eserleku asko hautsirik zeuden, eta ez nintzen ohartu harik eta eseri eta zoru itsaskorrera erori arte. Hurbilen nuen gizonak begiratu egin zidan, eta pantailara itzuli zuen begirada.

Asko gustatu zitzaizkidan filmak. Gaia partekatzen zutela zirudien. Gizon gazte batek etsai boteretsu bati aurre egin behar dio. Behartua dago irakasle bat topatzera, entrena dezan hainbat estilotan: tximinoa, marisorgina, tigrea, arranoa, atzaparra, eskorpioia. Kontua da irakaslea ez dela aski boteretsua, edo hiltzen dela mutil gaztea prest egon aurretik. Beti izaten da beharrezkoa zenbait trebezia eta azkartasun konbinatzea arerioa garaitzeko. Heroia ohargarria izaten zen: apala eta diziplinatua, eta errespetu handia dio neska-lagunari, edo harekin kastoia da.

Baina emakumea pantailan agertzen den aldiro, nire inguruko gizonak oihukatzen zuten:

—Jan iezaiozu alua! Izorratu puta hori!

Hasieran beldurtu egin ninduen. Gero ohartu nintzen ni ez besteak gizonak zirela ikusle guztiak. Nori hitz egiten zioten, elkarri ez bazen? Mozkorturik oihukatzen zuen gizon bakoitza saiatzten ote zen inguruko gizoni sinetsarazten oraindik ere emakume batek zakila gogortzen ahal ziola? Karriken zamak hainbestearaino kraskatuta ere gizon izaten segitzen zuela?

Komunera joan behar izatea ahal bezainbeste atzeratu nuen, baina azkenik hartaratu behar izan nuen. Kiratsak astindu egin ninduen gizonen komuneko atea ireki ahala. Gizon zahar bat komun batean eserita zegoen, orratz bat besoan sartua, baiezko keinua egiten. Lauzak itsaskorrak zeuden zikinkeriarakin. Gelaxketan ez zegoen aterik. Komun gehienak kakaz eta komuneko paperez ganezka zeuden.

Ezkutuka, emakumeen komunean sartu nintzen. Itxi usaina zegoen, erabilera faltaz. Galtzetako kremailera igotzen ari nintzela, atea ireki zen.

—Zertan ari zara hemen? —galdetu zidan jaka gorriko gizon batek.

Ahotsa lastu egin nuen.

—Kaka egiten. Inporta zaizu? —haren ondotik pasatzean bultzatu egin nuen, eta eserlekura itzuli nintzen. Film bakoitza bi aldiz ikusita nengoela, lokartzen hasi nintzen.

Biharamunean oinez ibili nintzen, kasik ondotik igarotzen ziren guztiei helbideak galdezka, harik eta Voicen aurkitu nuen lehenbiziko alokairu agentziako atarira iritsi arte.

—Bai al duzu gauza merkeagorik? —galdetu nion langileari.

—Zer nahi duzu, apartamentu bat edo hondakindegri bat? Berrehun eta berrogeita hamar; pagotxa da.

Pixka batean pentsatu nuen.

—Noiz sar naiteke?

—Hona giltzak —esan zuen.

Giltzak hartzera joan nintzen, eta berriz hartu zituen.

—Hilabete bateko alokairua pagatu behar duzu, gehi hilabete bateko bermea, eta gure komisioa: 750 dolar, orain pagatzekoak.

—500 dolar dauzkat bakarrik —esan nion, espero izanez gainerako 100 dolarrak irauen zidatela lana lortu eta paga jaso arte.

Goitik behera begiratu, eta eskua zabaldu zidan.

—Eman 500 dolarrak orain. Komisioa zor didazu. Ostirala arteko epea duzu. Ordurako dirua ekartzen ez badidazu, kanpora. Eskerrak eman, eta kontratua sinatu nuen.

Ez zidan giltzarik eman beharrik. Apartamentuak ez zuen sarrailarik. Ezta sukaldeko surik, hozkailurik, urik edo zoruko oholik ere. Kontuz ibili nintzen, oinak habeen artean paratuz.

Laster batean jaitsi nituen bost eskailera tarteak, eta agentziara deitu nuen.

—Sinestezina da —esan nion langileari.

—Ez da nire problema —hark.

—Nire dirua nahi dut!

Irri egin zuen, kasik atsegin.

—Kontratua sinatu zenuen, maitea. Zurea da hogeita hamar egunez.

—Nire dirua nahi dut! Legeak izanen dira. Ezin duzu hori egin —nik ziliportaka, entzungailu itzaliari.

Arratsa zen eta hotzak nengoan. Izkinako likore dendako gizonak kartoizko kutxa pare bat eman zizkidan. Berriz ere bost eskailera tarteak igo nituen. Kartoi zati batekin ziria sartu nion ateari, itxita izateko, eta gainerako kartoiak lautu nituen, ohatze gisa erabiltzeko. Hantxe gelditu nintzen, arrunt tontoa sentituz. Orain nire diru gehiena joana zen, eta ez nuen diru-sarrerarik.

Urratsak aditu nituen eskaileretan. Nor ote zen, eraikinak hutsik bazirudien? Urratsak ozenago aditu ziren, nire eskaile-ra-buruan gelditu, eta nire atera hurbildu ziren. Geldi-geldirik gelditu nintzen, amasari eutsiz. Atea bultzatu, eta arrotz hark jakinen zuen atean ziria sartu nuela barnetik. Isilik egon nintzen luze, atearen beste aldean norbait isilik egon bitartean. Orduan aditu nuen nola urratsek atzera egiten zuten, eskailere-tan behera. Saltoan zutitu, eta nire poltsa hartu nuen, zabortegi arriskutsu hartatik ateratzeko irrikatan. Nola pentsatu nuen hiri honetan bizirik iraun nezakeela?

Ez nekien beste non eman nezakeen gaua, ez bazen kung fuko zinema aretoetan. Askoz seguruago ziruditen eraikin abandonatu batek baino. Gizon txinatar bat geldiarazi nuen karrikan, eta non nengoen galdetu nion.

—Mott karrika —erantzun zuen—. Nora joan nahi duzu?

Hasperen egin nuen.

—Times Squareren eta 42. kalearen arteko gurutzera.

Esku keinu batekin adierazi zidan distantzia.

—A tren.

Non deabru zeuden trenak? Jendeak nola aurkitzen zuen metroa hiri honetan? Galdetu eta galdetu nuen harik eta batek seinalatu zuen arte lurpera zihoan eskailera bat. Txartel bat erosi, eta New York Cityko metroen munduan barneratu nintzen. Bizian deusek ez ninduen prestatu halako zerbaitetarako.

Buffalon beti neronen ibilgailua izan nuen. Eta autobusa hartu behar izan nuenean ere, denak esertzen ginen aurrera begira, gure pentsamenduetan galdurik. Metroan, parez pare esertzen ginen.

Metroko bagoia jendez lepo zegoen. Ez nuen sekula izan jendeari horrela begiratzeko aukerarik. Bidaiari gehienek zutik lo ziruditen, begirada lausoa. Beste batzuek sudurra egunkari eta liburuetan sarturik zuten. Halako batez ohartu nintzen gutxi batzuk behinik behin nire gauza bera egiten ari zirela. Jendeari begiratzen ari ziren; niri begira ari ziren.

Nire parean eseria zegoen emakumea niri begira-begira zegoen, beste planeta batekoa banintz bezala. Mutil-lagunari ukondokada eman zion.

—Mutila edo neska da?

Goitik behera begiratu zidan.

—Nola jakinen dut?

Espero nuen agudo iristea 42. kalera.

—E —jakin nahi izan zuen—, gizona zara ala zer?

Ni ere begira-begira gelditu nintzaion, keinurik egin gabe.

—E, galdera ostia bat egin dizut. Gorra al zara?

Ez nion erantzun.

Nire parean zutitu zen, eskulekuei eutsiz. Nireganantz makurtu zen. Garagardoa usain nezakeen.

—Berriz ere galdetuko dizut, putakumea. Zer ostia zara zu?

Trena 42. kaleen gelditu, eta ateak zabaldu egin ziren. Hura nire ihesbidea mozten ari zen.

—Ea, maitea —neska-lagunak tira egin zion.

Altxatu nintzen. Biak prest, aurrez aurre. Ukabilak bildu nituen aldeetan.

—Tira, maitea —limurtu zuen—. Hitzeman didazu gaur ez zenuela beste borrokarik izanen.

Biak biratu ziren, trenetik ateratzeko. Erabaki nuen bertan gelditzea.

—Maritxu zikina —oihukatu zidan.

—Izorra hadi —oihukatu nion bueltan.

—Gizona da —esan zion neska-lagunari.

Hurrengo geralekuan atera nintzen, eta 8. etorbidean atzera joan nintzen oinez, 42. kaleraino. Behar adina diru lortuz gero, beharbada Buffalora itzultzerik izanen nuen. Une hartan horixe nuen gogoan.

—Ongi pasatu nahi, maitea? —emakume bat parera atera zitzaidan espaloian, lehoinabar itxurako zamarra ireki zuen, eta body beltza erakutsi zidan.

—Utzidazu zu ongi zaintzen.

Ezpainak zimurtu, eta besotik heldu zidan. Oroitu nintzen nola atera nintzen armairutik mari-mutil gaztea nintzela, eta nola hazi nintzen hura bezalako puten indarra lagun. Garai batean, mundu honetan haien bandoan izana nintzen. Orain putazale gisa ikusten ninduten. Ikaraturik, alde egin nuen.

—Izorra hadi —nire parean listua bota zidan.

Ohartu nintzen patruila auto bat zegoela aparkaturik diagonalean, bidegurutzearen beste aldean. Nire atzeko aldean sirenak etortzen aditu nituen.

Polizia taldetxo batengana hurbildu nintzen. Batek patruila autoaren kontra bultzatu zuen galtzerdi sareduneko *drag queen* beltz bat, eta eskuak atzeko aldean lotu zizkion. *Drag queen*ak aurpegia niregana biratu zuen. «Lagundu», eskatu zidan hitzik gabe. «Ez dakit nola», erantzun zioten nire begiek.

Bi polizia beste *drag queen* baten ondoan zeuden, hura asfaltoan botea zegoela. Odola borborka zerion kopetako zauri zabal batetik. Polizietako bat haren ondoan belaunikatu zen. Poliziak denbora guztian niri begiratu zidan, *drag queen*aren hormonaz-hazitako bular bat harrapatu bitartean.

—Honk, honk —irriz, estutzen zuela.

Hantxe berean gelditu nintzen, ikaraturik eta gorrotoz beterik. Ez zitzaidan beste modurik bururatzen esku hartzeko, ez bazen hantxe gelditu eta lekuko izatea. Hurbilen nuen polizia etorri zitzaidan. Aurpegia aurre-aurrean jarri zidan.

—Zer ostia duzu? —galdetu zidan.

Baratxuria jana zuen berriki.

Ez nintzen mugitu, ez nuen hitzik esan. Borraren muturra saihetsetan sartu zidan.

—Zu atxilotzea nahi?

New York Cityn bakarrik atxilotua izatearen ideiak izutu egin ninduen.

—Erantzun, e? Bai edo ez?

Isilik, ni. Borra bi eskuez hartu, eta horizontalean jarri zidan bularrean.

—Bai edo ez, alua?

Airea askatu nuen.

—Ez.

—Esan nahi duzu «Ez, jauna» —nitaz irri egin zuen.

Ezpainak estutu nituen. Begietara begiratu zidan.

—Alde hemendik, ostia —agindu zidan.

46. kalean barna joan nintzen lasterka, haien irriak aditzetik izan ez nuen arte. Arnasestuka nengoen. Haize hotza heldu zen ibai aldetik.

Haur gazte bat zutik zegoen auto bateko gidariaren leiho ondoan, barneko gizonarekin solasean. Takoiak izan ez balitu, ez zen nahikoa altu izanen gidariaren begiak ikusteko. Jaka motz, fin bat zeraman, eta atzeko aldean marra zuten galtzerdiak. Ho-

tzak akabatzen egonen zen. Ikusi nuen nola inguratzen zuen autoa, kopilotuaren alderaino, eta nola sartzen zen.

Ezin nuen gehiago laster egin edo ibili. Kopeta bermatu nuen eraikin baten adreilu hotzen kontra. Min fisikoa bularrean hasi, eta zintzurreraino iritsi zitzaidan. Ahoa ireki nuen oihukatzeko, baina ez nuen soinurik egiten ahal.

•••

Biharamunean, zain nengoen 42. kaleko aldi baterako lanen bulegoan, zabaldu zutenean. Kiroleko jaka zuen gizon batek nire eskaera irakurri zuen.

—Zer salbuespen mota? —galdetu zidan.

—Barkatu?

—Soldadutza. Nola salbuetsi zinen?

Sorbaldak goratu nituen. Ez nuen bete eskabidearen zati hori.

—Ez nintzen joan.

Atzeraka eseri zen.

—Zergatik?

Aurreraka makurtu nintzen.

—Jauna, baduzu niretzako lanik edo ez?

Bolaluma mahaiaren kontra zanpatu zuen.

—Baduzu gidabaimenik?

Ezezko keinua, nik.

—Lortu bat —hark.

—Ez —esan nion—. Ez dut hiri honetan gidatu nahi. Eroegia da.

Zerbait idatzi zuen paper zati batean.

—Badakizu jasomakinak maneiatzan?

Baietz esan nion.

—Josteko makinaren fabrika da —esan zuen—. Paletak.

Hitz gutxikoa zen.

—Zenbat pagatzen da?

Irribarre egin zuen.

—80 dolar astean. 40 kenduko ditugu aste honetan eta hurrengoan.

Aurreraka makurtu nintzen, haserre.

—Zergatik?

—Zuri lana topatzeagatik. Nahi duzu ala ez?

Hortz estutuen artetik airea bota nuen.

—Bai, hartuko dut.

Alaitu zela zirudien.

—Ongi da, hona hemen helbidea. Aditu, haurra, bizi hone-tan deus ez da dohainik.

Astez bizi izan nintzen kakahuete gurinezko sandwichak janez. Ordainketa egunean, fabrikaren aurrez aurreko kafetegira joan nintzen, neure buruarentzako opari.

—Hegala —seinalatu nuen.

Barraren beste aldeko gizonak baiezkoko keinua egin, eta haragia zatikatzen hasi zen.

—Lo mismo —esan zion nire ezkerreko emakumeak.

Urdailak mar-mar egin zidan. Emakumeak irribarre ulerkorra egin zidan. Biek ere goseak begiratu genuen nola zatikatzen zuen okela.

Nire plateroko haragi pilak handitzen segitzen zuen, eta hala ere gizonak gehiago metatzen zuen. Emakumeak baiezkoko keinua egin zidan. Bekainak altxatu nituen.

Hasperen egin zuen.

—Gizon batek jan gehiago behar du —esan zuen.

Lana bukatutakoan, burdindegian erosi nituen bi itxigailu sendo eta bi giltzarrapo, eta Mott karrikako eraikin abandonaturara itzuli nintzen. Denak ezarri nituen, atea barnetik edo kanpotik itxi ahal izateko. Gero taula kontratxapatu bat erosi nuen, lurreko habeen arteko zati bat estaltzeko, eta airezko lastaira merke bat, ohatzetarako. New York Cityn eman nuen lehenbiziko gauean beldurrez hiltzeko zorian izan nintzen eraikin hartan. Orain, astebete geroago, uste nuen hil egingen nintzela baldin gauez in-timitate pixka bat lortzen ez banuen.

Eraikinean ez zegoen urik. Zinema aretoko komunetan kamiseta bat garbitzen aurkitu ninduen gizon batek esan zidan Grand Central Station geltokia askoz leku hobea zela horretarako.

Egunez, aldi baterako lanak egiten aritzen nintzen, platerak garbitzen edo kamioien zamalanetan. Lanetik aterata, puntako ordua igaro ate itxoiten nuen, Grand Central Station geltokiko gizonen komunetan sartzeko eta kamiseta garbitzeko. Gero etxera eramaten nuen lehortzen uzteko. Egunsentian Grand Central Stationera itzultzen nintzen, neronen burua garbitzeko. Ordu hartan gizonen komuna etxegabeena zen, zeinak, ni bezala, saiatzen baitziren azken duintasun apurrari eusten.

Bi aldiz susmatu nuen ezen gizon etxegabe bat, zamar geruza askoren artean bildua, egiaz emakumea zela.

Beste lan agentzia baten bidez gauzain lana topatu nuen. Gutxienez komuna pribatuki erabil nezakeen. Itzulia egin behar izaten nuen hirurogei minutuero. Iratzargailu bati esker berrogeita hamabi minutuz lo egin nezakeen orduero.

Txanda bikoitz haiek ni akabatzen ari ziren, baina nahikoa diru aurrezten ari nintzen egiazko apartamentu bat edukitzeko.

Eguraldia hoztearekin, eztula hasi zitzaidan, eta ezin nuen pilula eta jarabeekin baretu. Eztarria erretzen neukan. Espero nuen eztula joatea.

—Zoaz etxera, Jainkoaren izenean —esana zidan egun batzuk lehenago zamalanetako nasako gizonetako batek.

—Dirua behar dut —esan nion.

Sukarrak ahitzen ninduen. Espaloiak biraka zihoazkidan oin azpian. Eraikinak nire gainean makurtzen ziren, eta zerua estaltzen zidaten. Haizeak arropak erauzten zizkidan. Apartamenturaino iritsi nintzen eskubanda ahulean bermatuz eta eskailera-buru bakoitzean atsedean hartuz.

Lo zakua eta burkoa erakargarri ageri ziren. Gela ilunpetan zegoen. Hainbat astez lehenbiziko aldiz behar adinako beroa zegoen. Beroegi, egia esan. Lotarako etzan bitartean, iruditu zitzaidan ikusi nuela nola saguzar itxurako deabru bat hegaldaka zebilen nire gainetik, gela beteaz bere hegal-ukaldien marmarrarekin. Beldurrari ihes egiteko lokartu nintzen. Iratzarritakoan, Theresa ikusi nuen ondoan eserita. Burkoa txela-txela eginda nuen. Haren eskua freskoa zen nire masailean. Kasik ahaztua nuen haren irribarrea zen oparia.

—Theresa —xuxurlatu nuen—, asko maite zaitut. Zure falta sumatzen dut, laztana. Mesedez eraman berriz zurekin.

Eskuaz isilarazi ninduen. *Jess, ospitalera joan behar duzu* esan zidan, baina nik ezetz esan nion buruarekin.

—Ezin dut. Gaixoegi nago neure burua babesteko.

Hatz puntekin lasaitu ninduen. *Unea duzu, laztana. Egin dezakezu.* Badakit badezakezula.

—Theresa, hain ikaraturik nago.

Baiezko keinua egin zuen, hatzak ile artean pasatzen zizkidala. *Badakit, Jess. Badakit.*

Nik buruaz ezetz.

—Ez dut esan nahi ospitalea bakarrik. Ez dakit gehiago nire bizia nola bizi. Beldur naiz.

Baietz, hark. Egiten ari zara, Jess. Eutsi, besterik ez.

Ukondoan bermatzen saiatu, baina hondoratu nintzen.

—Hain bakarrik nago, Theresa. Ez naiz deusen partaide. Ez dakit ezta existitzen naizen ere.

Theresak malkoak xukatu zizkidan. Eskua hartu nion.

—Mesedez, Theresa, egon nirekin. Mesedez, ez joan. Oso beldurtua nago.

Hementxe nago, laztana, adoretu ninduen. Beti egon naiz zurekin.

Kordegabetzerantz amildu nintzen.

—Baina desagertzen ari zara —nik, isilka.

•••

Eginahal guztiak egin nituen haize izozgarriaren kontra ibiltzeko. Ezin nuen ospitalerainoko bidea egin. Zangoek ez ninduten askoz urrutiago eramanen, eta ahulegi sentitzen nintzen azterketa mediko bat jasateko. Theresak sobera estimatu zuen nire indarra, fisikoa eta emozionala.

Halako ez tul bortitza egin nuen, beldur nintzen saihetsak hautsiko zitzaizkidala. Urrutian, sirena baten hotsa bere baitan makurtzen zela zirudien. Hiriko argiek dir-dir egiten zuten. Nora ezean ibili nintzen Lower East Sideko karriketan, apartamentura nola itzuliko nintzen jakin gabe.

—Salgaiak —xuxurlatu zidan mutil gazte batek ondolik pasatu nintzenean —zeren bila zabilta?

Buruaz ezetz egin nuen.

—Ez dakit.

Begiak argitu zitzaizkion.

—Zer behar duzu? —eztulka eta ez tulka hasi nintzen harik eta farolak bueltaka hasi zitzaizkidan arte.

—Gizona —esan zuen—, gaixorik zaude, e?

—Eztarriko minez hasi nintzen bakarrik, baina orain ezin dut ez tula geldiarazi.

—Zenbat diru duzu? —galdetu zidan.

Sorbaldak goratu nituen.

—Badituzu hogeidolar?

Baietz, nik.

—Zaude hemen —esan zidan.

Izkina hartan egon nintzen hain luze, ahaztu baitzitzaidan zeren zain nengoen. Anbar koloreko flaskotxo batekin itzuli zen. Ni hartzera joan, eta atzera eraman zuen. Hogeï dolarreko billetea eman nion.

—Har ezazu egunean lautan. Dena hartu, bai? Hori esan dit gizonak.

Kopeta zimurtu nuen.

—Zer da?

Sorbaldak goratu zituen.

—Medizina. Esan nion zuk esandakoa. Badituzu beste hamar dolar?

—Zer ba? —erantzun, nik. Hori bai zen.

—Baditut lau kodeina hemen. Eztula kenduko dizu, edo behintzat ez zaizu inportako.

Irribarre egin, eta beste hamar dolar eman nizkion.

—Eskerrik asko —esan nion, eta egiaz nioen.

Eskua estutu zidan.

—Orain zaindu zeure burua, aditu?

Bi galoi-laurden zuku erosi, eta itzuli nintzen etxe deitzen nuen toki abandonatu hartara. Ordu gutxiro, eztulak iratzartzen ninduenean, pilula bat eta kodeina konprimitu bat hartzen nituen, eta lotara itzultzen nintzen. Igandean iratzarri nintzenean, lo zakua txela-txela eginda zegoen. Eserita jarri, eta begiak igurtzi nituen. Indartsuago sentitzen nintzen. Gaitza desegiten ari zen, eta niregandik aldentzen.

Aste bukaeran bukatuko zen toki honen alokairuko epea. Hotel merke bat topatua nuen aldi baterako lanen agentzietatik hurbil, eta asteka har nezakeen ostatu, apartamentu duin bat izateko aurreztu arte, egiazko etxe bat lortu arte. Ingurura begiratu nuen. Ezin nuen sinetsi zabortegi honetan bizi izana hilabetez.

•••

—Zenbat da? —galdetu nion etxezainari.

—Hiru eta hogeita bost hilabetean, berokuntza eta ur beroarekin. Komuna korridorean dago. Hiru eta hogeita bost fidantza.

Baiezko keinua, nik. Bazituen logela txiki bat, sukaldea eta egongela, dena lerro zuzenean. Dirua eman nion; hark kontratua eman zidan.

—Zaude —esan nuen, alde egiteko biratu zela—. Ez dago bainuontzirik?

—Hor —sukaldeko izkina baterantz seinالاتu zuen. Hantxe zegoen bainuontzia, metalezko xafla batekin estalia. Hiri bitxia.

Apartamentuko atea barnetik itxi, eta buelta eman nuen, ingurura begiratzeko. Pintatzea behar zuen: horia sukalderako, zeru-urdina logelarako, boli-krema egongelarako. Alfonbrak behar nituen. Eta platerak, mahai-tresnak, eltzeak eta zartaginak. Harraskaraka detergentea.

Nire bidaia-poltsa ireki nuen, koadernoa eta bolaluma bilatzeko eta zerrenda egiteko. Han zen Millik emandako portze-lanazko katutxoak. Egongelako apalean jarri nuen kontu handiz. Anbar koloreko baso bat, Theresak eta biek behin izandako etxe-koa, sukaldeko leiho koskan jarri nuen, eta loreak erosi behar nituela erabaki nuen. Theresak oparitutako ezkon eraztuna apalean utzi nuen.

Erabaki nuen kaliko-horiko gortinak erostea egongelako leihoetarako, Bettyk nire garajeko apartamenturako egindakoak bezalakoak. Beste behin ere atera begiratu nuen, itxita zegoela segurtatzeko.

Su-eskaileretara ematen zuen leihoa ireki nuen. Handik East River ikus nezakeen. Auto eta etxeetatik heldu ziren soinu latinoek, elkarren arteko lehian, bete zituzten nire belarriak. Haurrak karrikan jostatzen ari ziren. Haien amek leihoetatik oihukatzen zuten. Zen hizkuntza zela «kontuz!» esaten zuten.

Karrikan lerro-lerro zeuden zuhaitz ahuletan lore-pipil berriak loratzen ari ziren. Udaberria zen. Ikusi nituen belar txar kementsuak, kasik zuhaixkak bezain garaiak, hazten eraikin artean eta orube hutsetan. Zementuko arrakaletan gora bultzatzen zuten, apenas lurrik edo argirik gabe handitzen. Arraroki adoregarria zen ikuspegia. Pentsatu nuen ezen, hemen bizi bazi- tezkeen, nik ere ahal izanen nuela.



Supermerkatuan emakume bat niri begira gelditu zen, zango tartea indarrez arraskatzen nuela. Haznaha eta erremina jasanezina bihurtua zen hilabeteetan. Ez zen berez joanen. Baginako infekzioa nuen. Ahalik eta gehien ibili nintzen luzamendutan deus egin gabe, medikuarengana joan behar nuela aitortu gabe. Zergatik izan behar nuen hortxe infekzioa? Ezin zen belarrian izan?

Hozkailuko atean eskuorri bat nuen paratua, farola bate-tik hartu nuena, auzoko emakumeentzako klinika bat iragartzen zuena. Asteazken gauean nire adore guztia bildu, eta hara joan nintzen.

—Klinika hau emakumeentzako da —irribarrez, harreragileak. Baiezko keinua egin nuen.

—Badakit. Baginako infekzioa dut —esan nuen isilka.

—Zer? —galdetu zuen.

Arnasa sakon hartu, eta ahots sendoagoz esan nuen:

—Baginako infekzioa dudala.

Mukuru zegoen itxaron gela soinurik gabe gelditu zen. Isiltasunak zigortu egin ninduen. Harreragileak goitik behera begiratu zidan.

—Txantxetan?

Ezezko keinua egin nuen.

—Baginako infekzioa dut. Laguntza bila etorri naiz.

Harreragileak baiezko keinua egin zuen.

—Eseri zaitez, jauna.

Alde egitekotan egon nintzen, baina haznahiak eta erreminak okerrera egiten zuten egunetik egunera. Ikusi nuen harreragileak nola agurtu zuen justu nire atzetik etorri zen emakumea.

—Har ezazu zure txosten medikoa eta eser zaitez —esan zuen—, doktorea berehala egonen da zurekin. Hartu menda infusio bat, ados?

Itxaron gelako denak niri begira zeuden. Nik iragarki oholera begiratu nuen: emakumeen dantzak eta errituak; terapeutak, masajistak eta kontableak. Ikur berriak: bi ahoko aizkora, zirkulu bat barnean gurutze bat zuena. Izen berriak: Goodwomyn, Silverwomyn.

Aditu nuen nola ari ziren nitaz solasean ahots goran.

—Eroturik dago.

—Tira ba, zergatik ezin dira eroturik egon beren lekuetan?

Aulki huts bat topatu, eta eseri nintzen. Ondoko apal ba-tean liburu bat ikusi nuen, *Gure gorputzak, gu geu* izenekoa, eta liburu dendan erosi behar nuela pentsatu nuen.

Itzal bat nire parean jarri zen: emakume bat karpeta ba-tekin. Bere izen-plakak *Roz* esaten zuen. Behin kontsulta gelan, *Rozek* karpeta mahai gainera jaurti eta aulki baterako keinua egin zidan.

—Zein da kontua?

Hitz guztiak tarrapatoka atera zitzaizkidan. Saiatu nintzen dena esaten: nor nintzen, zergatik etorri nintzen.

Roz atzeraka eseri zen aulkian, eta baiezkoko keinua egin zuen, ulertuko balu bezala. Orduan esan zuen:

—Ez dakit zein den zure problema, baina hau da gaixorik dauden emakumeentzako klinika bat, eta zu baliabide hau alferrik erabiltzen ari zara.

—Zer?

—Usteko duzu emakumea zarela —segitu zuen *Rozek*—, baina horrek ez du esan nahi emakumea zarenik.

Sutu nintzen.

—Izorra zaitetz —oihukatu nuen.

Aulkian atzeraka eseri, eta irribarre harroa egin zuen.

—Zer matxoa.

Aurpegia amorrazioz gorritua sentitu nuen.

—Izorra zaitezte denak! —Alde egiteko altxatu nintzen.

Doktore batek bidea itxi zidan.

—Zer gertatzen da hemen? —galdetu zuen.

Ikusi ez nuen keinuren bat egin bide zion *Rozek*. Dokto-reak baiezkoko keinua egin zuen.

—Zatoz nirekin —esan zuen dokto-reak.

Korridorean barna segitu nion.

—Zer gertatzen da? —galdetu zidan.

Hasperen, nik.

—Baginako infekzioa dut.

Nire aurpegia aztertu zuen.

—Antibiotikorik hartu duzu berriki?

Adoretu nintzen.

—Beharbada. Duela bi hilabete zerbait hartu nuen ez tul zakarra nuela-eta.

Baietz, hark.

—Zenbat denbora da baginako infekzioa duzula?
Sorbaldak goratu nituen.
—Pare bat hilabete.
Begiak zabaldu zitzaizkion.
—Duela bi hilabetetik hona duzu eta ez duzu deus ere egin?
—Bueno, espero nuen berez joatea.
Irribarre txikia egin zuen.
—Ikus dezagun. Zatoz nirekin.
Beldurrez zurrundu nintzen. Sobera gauza gertatu zitzaiz-
kidan hemen jadanik. Ezin utzi nion ni ukitzen.
—Ezin dut —esan nion—. Mesedez. Oso gogorra izan da
hau egitea. Ezin dut.
Ezkutatu ezin nituen emozioak irakurri zituen.
—Hau Monostat hartzeko preskripzioa da —koaderno ba-
tean zerbait idazten zuela—. Haznahia eta erremina geldiarazi
beharko litzuzke. Antibiotikoak hartzen dituzun hurrengoan, jan
pare bat jogurt egunean.
Nire kolkorako galdetu nuen ea adarra jotzen ari ote zi-
tzaidan, jogurtaren kontu horrekin.
—Sinesten didazu, ezta?
Sorbaldak goratu zituen.
—Gizona izan zaitezke. Baina emakumea bazara, ez zaitut
bidali nahi. Ez zait deus kostatzen zuri preskripzio bat ematea.
Noiz egin duzu azkeneko aldiz Papanicolauren testa?
Geldirik gelditu nintzen. Estutu ninduen.
—Azken hiru urtean?
Begirada jaitsi nuen, baina ez zuen gaia bere horretan utziko.
—Azken bost, sei urtean?
Buruaz ezetz egin nuen.
—Ez dakit zer den hori —aitortu nuen.
Begirada goratu nuenean, begiak bustiak zituen.
—Orain sinesten dizut —esan zuen.
—Zergatik? —nik—. Gizon askok ere ez dute halakorik ja-
kinen, ezta?
Baietz, hark.
—Bai, baina ez dira horretaz lotsatuko. Nor da zure ohiko
medikua?
—Ez dut.
Segitu zuen niri begira urduritzen ninduen modu batean.

—Berriz ikusi nahi zaitut, azterketa bat eta Papanicolau-
ren testa egiteko.

—Ongi da —nik, gezurretan.

Ez nuen uste gauza izanen nintzenik behar adinako au-
sardia biltzeko, berriz ere harrerako egoerari aurre egiteko, ez
banengoen oso-oso larri. Eta, bestalde, doktoreak nire zangoak
zabaldtu eta aztertzearen ideiak hormaturik uzten ninduen.

—Eskerrik asko aditzeagatik —esan nion—. Kasik inork ez
dit aditzen jada.

Besoa estutu zidan.

—Hitzordua eska dezakezu harrerako mahaian, ateratzen
zarenean. Ez ezazula gehiegi atzeratu.

Alde egin zuenean ere haren eskua sentitzen nuen besoan.
Bat-batean ohartu nintzen ez nekiela haren izena. Beharbada
noizbait itzuli beharko nuen. Korridorean haren atzetik joaten
hasi nintzen. Roz kontsulta gelatik atera, eta bidea itxi zidan.

—Nola du izena? —galdetu nion Rozi—. Galdetzea ahaztu zait.

Rozek hotz erantzun zidan.

—Lortu duzu nahi zenuena, orain alde.

—Oker zaude, Roz —zuzendu nion—. Lortu dut behar nue-
na. Ez duzu ideiarik ere zenbat nahi dudana.

•••

Txekea kobratzen nuen aldiro zati bat apartamenturako
erabiltzen nuen. Asteburu oso bat eman nuen paretako eta teila-
tuko arrakalak orez betetzen. Gela bakoitza pintatzen nuenean,
brotxakada zabalez, sentitzen nuen aldarte hobetzen zitzaidala.

Nire astebururik anbiziosoenean, zurezko zoru guztiak
lixatu nituen. Gero, apartamentuko urrutiko izkinatik hasi nin-
tzen bernizatzen, ni kanpoan gelditu arte. Gau hartan berriz ere
42. kaleko zinema aretoan egin nuen lo; gau batez bakarrik!

Zoruak distiratsu zeuden. Oinpean espazioa zabaldtu
nuen, zapaia goratu izan banitu bezala, edo apartamentua han-
ditu izan balitz bezala.

Azokan Guatemalako alfonbra beltz bat topatu nuen. Zu-
rizko ziliporta txikiak zituen. Egongelan zabaldtu, eta berriz ere
zutitu nintzen, ikusteko. Izarrez betetako gaua ekartzen zidan
gogora.

Pixkaka, altzariak erosi nituen: sofa sendoa eta besaulki bat, kaobako sukaldeko mahaia eta aulkiak. Salbazio Armadan ohatze bat topatu nuen; oheburua eta ohe-oina gerezi zurez eginak zeuden, eta obalak ziren. Erotu egin nintzen Macy's saltegi handietan maindireak erosteko.

Nire etxeak itxura hartu ahala, bat-batean desiratzen hasi nintzen nire gorputzari itxura ona ekarriko zioten gauzak. Nire blue-jeans zaharrak bota, eta erosi nituen galtza txino berriak, azpiko arropa, atorrak, eta kirol oinetako berriak, karrikak beti oinetako pare berarekin ez zapaltzeko.

Eskuoihal lodi eta goxoak erosi nituen, eta bainurako lurrin atseginak.

Eta orduan, egun batez, apartamentuari begiratu, eta ohartu nintzen nire habia egina nuela.

21

New York Cityn bizitzea ez zen erraza; batzuetan nire nerbioak gazta xehatua bezala egoten ziren. Baina inoiz ez zen aspergarria. Gustatzen zitzaidan hori. Beti ari zen zerbait gertatzen Manhattanen, on edo txar. Bazen zer egitekorik kasik eguneko edo gaueko edozein ordutan.

Baziren liburu dendak ia New York Cityko izkina bakoitzean. Liburuak erdi ezkuturik irakurri nituen harik eta ohartu nintzen arte inori ez zitzaiola inporta han orduak ematea. Poesia eta fikzioa bakarrik irakurtzen nituen. Ez nuen deskubritu nahi ez nintzela nahikoa azkarra fikzioa ez zena entenditzeko.

Baina Emakumeen Azterlanak atalak tentatu egiten ninduen. Liburuak gainetik irakurrita, emakumeen artean izaten ari ziren eztabaidak zelata nitzakeen ikusia izan gabe. Egia zen ez nuela ulertzerik teoriaren zatirik handiena. Baina sentitzen nintzen sutan zegoen eraikin batean lasterka sartuko banintz bezala, neure bizian behar nituen ideiak erreskatatu beharrez.

Hasieran, azaletik gainbegiratzen nituen ugalketa eskubi-deei buruzko hitz eta orri guztiak. Ez nuen harremanik neronen umetokiarekin. Baina gogoratu nuen nolako atsekabea izan zuen Theresak ni Rochesterren atxilotu ondoan, ezin zelako oroitu noiz izan zuen azkeneko hilekoa. Ez nion inoiz nire hilekoari segimendurik egiten. Baina Theresak beti zekien nola nuen hilekoa bere hilekoarekiko. Halako batez ohartu nintzen: beldur zen ni haurdun gelditu izanaz. Inoiz ez zitzaidan gogoratu. Zer eginen nukeen haurdun gelditu izan banintz bortxatua izan ondoan?

Utzi egin nion liburuen atal hauei ihes egiteari, hots, emakumeak beren gorputzen jabe izatearen gaineko atalei ihes

egiteari. Beharbada beste emakumeentzat hain inportanteak ziren gauza hauek niretzat ere esanahiren bat izan zezaketen. Liburu dendetan asko irakurrita ere, azkenerako nire txekeen zati handi bat ere liburuetan gastatzen nuen.

Musika klasikoa ere deskubritu nuen. Goiz batez, lanera nindoala, metro geltokian txeloa jotzen zuen gizon bati aditzen gelditu nintzen. Musikak lepotik harrapatu ninduen, eta ez ninduen askatuko. Kokoriko jarri nintzen hurbilen zuen pilarearen ondoan, hark jo bitartean. Musikak emozioak eratzen zituen niretzat, poesiak bezala. Puntako orduko jendeketa gutxitzen hasi zenean, ohartu nintzen lanerako berandutu nintzela.

Musikariak erreberentzia egin, eta kopeta xukatzen hasi zen.

—Zer ari zinen jotzen? —galdetu nion.

Irribarre, hark.

—Mozart.

Musika dendetan ere ibiltzen hasi nintzen. Estereo bat erosteko dirua bildu nuen. Orobat, esploratu nituen reggaea eta merengea, txaranga eta guaguankoa, jazza eta bluesa. Udaberri bateko arratsaldean apartamentua urez garbitzen ari nintzen. Pachelbelen Kanona Re Maiorrean ozen-ozen jarria nuen.

Ohartu nintzen aldatzen ari nintzela barnetik kanpotik adina.

•••

—Sindikatuaren 6. ataleko antolatzailea bazara —esan zuen nagusiak, mahai gainean makurtuz—, sarrera fitxatzen ahal duzu, baina beharbada ez duzu irteera fitxatuko.

Ironikoa. Beldur zen, sindikatuak bidali ote ninduen haren tipografoak antolatzeko. Ni beldur nintzen ohartuko ote zen berriki ikasi nuela tipografia.

Arduradunak makina bateraino eraman ninduen.

—Hona hemen eskuliburua. Ez dut denborarik zuri erakusteko. Hasi testu hau konposatzen. Egina dagoenean, inprimatu eta pasaiezu zuzentzaileei. Gero erakutsiko dizkizut formatu kodeak, edo bilatu zerorrek. Bai?

Baietz, nik.

—Itxoin —geldiarazi nuen—, nola inprimatuko dut?

Buruaz ezezko keinua egin zuen, nazkaturik.

—Horretarako duzu eskuliburua.

Lanean ari nintzen tokitik lau emakume ikus nitzakeen zuzentzaileen gelan. Haien irri lasaia adi nezakeen. Arduradunak, gizona bera, burua sartu, eta aditzerik ez nuen zerbait esan zuen. Solasa eten zuten. Emakume batek baiezko keinua egin zuen. Gizonak alde egin zuen. Irriak berriz ere hasi ziren.

Gizonek ba ote zekiten emakumeek desberdin hitz egiten dutela beren artean? Pentsatu nuen gauza bera izanen zela langile beltz edo latinoen artean ere, inguruan zuririk ez zegoenean.

Emakumeak elkarrengana bildu ziren sekretu bat partekatzeko.

Testua makinaz idatzi, eta kodeak bilatu nituen inprimatzeko. Egia esan, bilatzen nuena zen une batez zuzentzaileen espazioan sartu ahal izatea, emakumeen espazioan. Ni sartu, eta emakumeek hizketa eten zuten. Erreprografiak goratu nituen.

—Utz itzazu hor —esan zidan batek. Ez zidan begiratu esan bitartean.

Hasperen egin, saskira bota, eta alde egin nuen. Urrutiratu ahala, aditu nuen nola solasa berreskuratu eta ahotsak eta irriak berriz goratzen ziren.

Txanda bakarra iraun nuen lantegi hartan. Baina New York City 24 orduko tipografia lantegiez betea zegoen. Beti ari ziren jendea hartzen hirugarren txandarako, gaueko txandarako. Itxurak eginez hainbat lantegitan sartu, bakoitzean pixkatxo bat ikasi, eta berehala ohartu nintzen ez nintzela jada iruzurretan ari. Egiazko tipografo bihurtua nintzen.

Ez zen bizi-erritmo txarra. Urtean sei-zortzi hilabete eginda diruketa egiten nuen.

Asko gustatzen zitzaidan egunsenti aurretik etxera bueltatzean nuen lasaitasuna, kontrako norabidean, puntako orduko tren bete-beteen eta mukuru ziren karriken kontrara. Baina iratzartzen nintzenean ilun zegoen, eta sator bat bezala sentitzen hasi nintzen. Justu erotuko nintzela pentsatzen hasi nintzenean, uda zen: lanik gabeko sasoa. Langabeziako prestazio handiena jasotzeko baldintzak betetzen nituen.

Udan hiria esploratu nuen. Bakardadea zen nire problemarik handiena. Ez nuen norekin hitz egin uda osoan. Udazkenerako, irrikatan nengoan lankideekin nituen hizketa arinak berreskuratzen.



Billek indarrez jo zuen jantokiko mahaia. Egunkaria irakurtzen ari nintzen.

—Ez al da egia? —galdetu zidan.

Aurreraka makurtu zen.

—Ostia, arraroezia da gaez lan egitea leihorik ez duen fabrika batean. Goizean atera zaitezke, eta ohartu hondamendi nuklearra izan dela, eta ez duzula horren berririk izan.

Jimek irri egin zuen:

—Ongi da, eguzkia mendebaldetik ateratzen ikusten baduzu, etorri eta kontatu gainerakooi, bai?

Jimek hasperen egin zuen.

—Baina ulertzen dut zer esaten duzun. Gogoan dut egun batean lanetik atera nintzela, egunsentian, eta bi oin elur zeudela. Jakin ere ez nekien elurra egin behar zuela. Iruditu zitzaidan galdu nuela gainerako mundu guztiak zekien zerbait, eta ni beste nonbait izan nintzela.

—Submarino pito batean aritzea bezalakoa da —Billek, ados.

—Badakizu zer gorrotatzen dudan gehien? —segitu zuen Jimek—. Arras nahasten naiz, noiz den gaur eta noiz bihar. Gaue-tan, lanera etortzeko jaikitzen naizenean, neska-lagunak esaten dit bihar arte. Baina niretzat, nik geroxeago ikusiko dut, egun berean.

Baiezko keinua, nik.

—Oso ongi dakit zer esan nahi duzun. Iruditzen zait bizi naizela gaurraren eta biharraren arteko arrakalan.

—Ooo —esan zuen Billek—, gustatzen zait hori. Erabil dezaket aipamen hori?

Denek irri egin genuen.

—Badakizue zer gorrotatzen dudan gehien laneko txanda honetan? —esan nuen—. Nola mundu osoa dabilen lehenbiziko txandaren inguruan. Lanetik ateratakoan ez dut xingarrik eta arrautzarik nahi. Xerra eta patatak labean nahi ditut. Afaria nahi dut!

—Bai —Jim sartu zen—. Eta film bat ikusi nahi dut.

—Eta dantzara joan atsoarekin, hain klub basara non eguerdia pasatuta ere irekirik iraunen duen —Billek.

—Eta telebista pizten dudanean —erantsi nik—, ez dut ikusi nahi joko programarik ez folletoirik. Deprimitzeko modukoa da.

—E, mutila —esan zuen Billek—. Zergatik ez zara etortzen gimnasia gurekin, goizean? Igeri egitera joaten gara lanetik ateratakoan. Sauna ere badute. Txartel bat ematen ahal dizugu.

Zoragarria zirudien, baina, zezelka, aitzakia bat bilatu nuen.

—Ez dut ez bainujantzirik, ez esku-oihalik, ez deus ere. Agian beste batean.

Jimek moztu zidan.

—Badituzte esku-oihalak han. Jainkoa, ez litzaieke inportako biluzik igeri eginen bazenu ere.

Ezezko keinua egin nuen.

—Banekien ez nituela gaur jantzi behar Pedro Harriketarren galtzontzilloak. —Mutilek irri egin zuten—. Beste batean. Baina eskerrik asko gonbidapenagatik.

Billek sorbaldak goratu zituen.

—Nahi bezala.

•••

Udan, erdietsi nahi nituen gauzen zerrenda bat egin nuen: gimnasio batean izena eman, sindikatuko antolatzaile izandako nire izeba batez gehiago ikasi, eta neronen buruaren argazki bat egin Stonewall tabernaren parean, 1969ko matxinada izan zen tokian.

Gimnasio asko bisitatu ondoan, bat topatu nuen Chelsean, atsegina zirudiena. Gayak ziren gehienak, eta baziren lesbiana batzuk. Zenbait nazionalitate. Garestia zen, baina urtearen zatirik handienez ongi pagatutako lana izatearen alde ona zen hango kide izan nintekeela.

Ondoren, abiatu nintzen nire izebaz gehiago ikastera: New York Cityn hil zen 1929an. Ehungintzako Emakume Langileen Nazioarteko Sindikatuko antolatzaile bihurtu zen senarra hil ondoan. Gure aita oso harro zegoen izebari heriotza-oharra jarri ziotelako *New York Times*en. Gogoan nuen etxeko ebakin-albumean ikusi izana.

Bi aste eman nituen heriotza oharrak bilatzen liburutegian, arrakastarik gabe. Bertan behera uztekotan egon nintzen, baina 1930. urtearekin saiatzea erabaki nuen.

—Gaur ordu erdiko muga dago, lanpeturik gabiltzalako —
esan zidan kontsultarako erakusmahaiko emakumeak, bobina
ematen zidala.

Filma jarri, eta berehala sartu nintzen izenburuak azter-
tzearen errutinan. Honako hau kasik pasatu nuen esanahiaz
ohartu gabe: *Gizon maiordomoa emakume bat zela ikusi zen hil ondoan.*

Arnasa mantsotu zitzaidan. Makinan hogeita bost zenta-
bokoia sartu, eta artikulua inprimatu nuen. Hitz bakoitza erne
irakurri nuen. Heriotza-oharrak azaltzen zuen zerbitzari baten
heriotza, 1930ekoa. Gorpua pentsio batean aurkitu zuten. Ha-
ren izena ez zen aipatzen. Deus gehiago ez: ez egunerokorik, ez
arrastorik. Orrialde hartako hitz gutxi haiek besterik ez nituen
hura ezagutzeko. Begiak itxi nituen. Ez nuen inoiz izaneren haren
biziaren xehetasunik, eta hala ere senti nezakeen hatz puntekin
uki nezakeela.

Orain banekien bazela beste emakume bat munduan Roc-
cok eta nik hartutako erabaki zail bera hartu zuena. Denborak
bereizten ninduen zerbitzari anonimo harengandik. Espazioak
bereizten ninduen Roccorengandik.

Izenburuak izoztu egin ninduen: haren bizia zortzi hitz
lautan laburtua. Nire bizia zortzi hitzetan edo gutxiagotan erre-
gistratuko ote zen? Paretan, goian, zegoen puntu bati begira
gelditu nintzen, hutsa eta txikia sentituz.

—Jauna —liburuzainaren ahotsak pentsamenduak eten
zizkidan—, denbora bukatu zaizu.

•••

Neure buruari jarritako azkeneko zeregina zen Stonewall
topatzea. Gogoan nuen nolako eragina izan zuen, ikasi genu-
nean polizien kontra 1969an izandako borroka. Oinezko bati
eskatu nahi nion nire irudia har zezala haren aurrean. Pentsatu
nuen ezen, noizbait, ni hil ondoan, norbaitek argazkia aurki ze-
zakeela, eta hobekixeago ulertuko ninduela.

—Bai al dakizue non dagoen Stonewall taberna? —gal-
degin nien farola baten kontra bermaturik zeuden bi gayri,
Sheridan Squaren.

—Hura zen taberna haietako batek erroskillara denda bat
seinalatu zuen.

Etsiturik eseri nintzen parkeko banku batean. Etxe gabeko gizon bat hurbileko zaborrontzian bilatzen ari zen. Ikusia nuen lehenago ere. Haren afrikar estiloko gona koloretsuak espaloia eskuilatzen zuen. Ehun fineko jantziek biltzen zuten gorputzaren goiko zatia, soingain bakarretik zintzilik, Indiako sari batek bezala. Dotore eta duin mugitzen zen. Une batez begirada goratu zuen, berak bakarrik ikusten zuen norbaitekin eztabaidatzeko. Haren hitz guturalak arraroki ederrak ziren. Munduan beste inork ulertuko ez zuen hizkuntzan ari zen. Hitz egin bitartean, eskuak astintzen zituen aurpegitik hurbil, nola txori ilunak aire epel korronteetan hegaldaten.

Begiak itxi nituen. Eguzkia altu zegoen, eta berotzen zuen. Saiatu nintzen gogora ekartzen nolakoa izan zen nire bizia Buffalon. Nire iraganak jadanik ametsa zirudien, iratzarritakoan bukatua. New York Cityko bizia zitzu bizian pasatzen zen nire ondotik egunero, sekulako abiadan, metroko bagoi zalapartatsuak bezala. Ezin gogoratu nuen garai bat non mundua mantoago zihoan, non ni haren partaide nintzen.

Gurpil batzuen azelerazio hotsak iratzarri ninduen nire pentsamenduetatik. Emakume baten garrasiak oilo larrua eragin zidan besoetan. Izkinaraino hurbildu nintzen

—Deitu anbulantziari —oihukatu zuen—. Laster! Jainkoaren izenean, laster!

Anbulantziak ez zuen presatu beharrik.

Gorpuaren ondoan belaunikatu nintzen. Eskuak geldirik zituen azkenerako. Ezpainetik zerion odol negarra garbitu nion erpuuarekin. Bor-bor soinu bat atera zitzaion ahotik, eta ondoren odola ezpain gaintara eta masailean behera. Odol putzu bat hedatu zen haren buru azpian.

Borra baten muturrak kolpetxoak eman zizkidan sorbaldan.

—Espaloiara, gizona.

Poliziak alde batera bultzatu egin ninduen. Patruila autoa 7. etorbidearen erdian zuen aparkatua.

Kazeta saltokiko gizona gorpua ikustera hurbildu zen.

—Zer darama jantzita, gona bat? —galdetu zion poliziari.

—Ideiarik ere —poliziak, sorbaldak altxatuz.

Emakumea negar zotinka zegoen.

—Nahita harrapatu dute, agentea. Lau ziren: bi gizon eta bi emakume. Semaforoa gorri zegoen. Azeleratu eta harrapatu egin dute. Irriz ari ziren.

—Hitzak tarrapatata ateratzen zitzaizkion, negar zotinek eteten zutela.

Belauniko erori eta auhenka hasi zen.

—Ene Jainkoa —zotinka, gero eta gorago—. Ene Jainkoa!

Gizon zaharrago batek maletatxoa lurrean utzi, eta hurbildu egin zitzaion.

—Ongi zaude? —galdetu zion.

—Ene Jainkoa! —ahotsa altxatu zuen.

—Andrea, zauriturik zaude? —beldurtua zirudien—. Ongi zaude?

Emakumeak ezezko keinua egin, eta aurreraka-atzeraka kulunkatu zen belauniko.

—Jainkoa —errepikatzen zuen—, irriz ari ziren.

Gizonak bizkarrekoak eman zizkion.

—Trankil, andrea —lasaitu zuen—. Eskale bat besterik ez zen.

•••

New York Cityko udako gau sargori horietako bat zen, non tenperatura ehun gradu madarikatuetan itsatsirik gelditzen baitzen. Txandal galtza arin batzuk eta kamiseta mahukarik gabeko bat jantzi, eta gimnasia jo nuen.

Arratsetan ez nintzen gimnasia joaten. Gorrotatzen nuen lanetik ateratako jendeketa, pisuak altxatzeko ilaran. Baina pentsatu nuen gau hartan ongi egonen zela. Hiriko biztanleak bero handi harekin ihartzen ari ziren, eta hiriko gune freskoagoetara jo zuten. Gimnasia kasik niretzat bakarrik nuen. Gorputza landu nuen altzairuaren itxura izan arte, eta marmario egin nuen entrenatzaileak esan zuenean gaueko 11:00ak pasatuak zirela, ixteko ordua zela.

Etixerantz jo nuen pantera baten moduan, sasoiari sentitzen nintzela. A etorbideetik 4. kalera biratu nuenean, ikusi nituen argi gorriak bueltaka, eraikinak eta jendea argitzen. Auzotar guztiek norabide berean begiratzen zuten, zirraturik. Mantsoago segitu nuen. Karrika bustia eta distiratsu zegoen. Ez zuen euririk egin asteetan. Are mantsoago segitu nuen.

Sua aditu egin nuen ikusi aurretik. Infernuko garrak orroka ateratzen ziren nire eraikineko leihoetatik zuzen zerurantz. Txinpartek sumendi batetik bezala egiten zuten jauzi, eta hurbileko teilatuetara jaisten ziren poliki-poliki. Nire kaliko-horiko gortinak leihotik kanporantz hegaldatzen ziren, beira zati hautsien artean, nire apartamentu barnean ekaitz amorratu bat balego bezala. Sugar txiki bat agertu zen gortina bakoitzean, eta istant erre ziren, kotoi gozoa mihian urtzen den bezalaxe.

Theresak oparitutako ezkon eraztuna! Erotasun une batean pentsatu nuen beharbada apaleko metalezko ore hoztua aurki nezakeela eta eraztuna berreginarazi. Imajinatu nuen Milliren zeramikako katutxoa nola lehertzen zen. Irudikatu nuen sukaldeko leiho koskako anbarrezko edalontziko urak nola irakiten zuen indarrez, labe haren beroan. Ikusi nuen nola sugar txiki batek milikatzen zuen edalontziko nartziso bakoitzaren zurtoina, harik eta beren baitan biribilkatu eta lehertzen ziren arte, inoiz baino hori eta laranja distiratsuagoetan. Irudikatu nuen Edwinen W.E.B. Du Boisen liburu fina, Edwinek markatutako orri bakoitza ere suak kiskalia.

Jabeak zergatik ez zuen besterik gabe esan eraikinari sua emanarazi behar ziola? Denek genekien zailtasunak izaten ari zela hura saltzeko. Toki hartako eraikin gehienak ere erreak izan ziren gentrifikazioaren hamarkadan. Zergatik ez zuen ohar txo bat lerratu gure sukaldeko ate bakoitzaren azpitik, goizean, ohartaraziz gehien maite genituen gauzak atera behar genitue-la? Alokairua igo baino lehenago majo ohartarazten zigun ba, garaiz.

Diru zorroa! Etxean utzi nuen gimnasia joan aurretik. Nire pagaren gainerakoa ere han nuen. Inportanteagoa: There-saren argazki bakarra han gordetzen nuen. Dena galdu nuen. Dena, Roccoren larruzko zamarra izan ezik. Arropa garbitegira eramana nuen, kreamailera bat konpon ziezaioten.

—*Abuela! Abuela!* —emakume bat askatu egin zen maite zutenen besoetatik, eta jendeketaren artean aurrera egin zuen, erretzen ari zen eraikinerantz. Lagunek geldiarazi egin zuten. Emakumea askatzen saiatu zen.

—Zer ari da esaten? —galdetu nion etxezainari.

Begirada goiko pisurantz altxatu zuen.

—Amona.

Hotzikara izan nuen. Zertaz ari zen, emakume xahar hartaz, etxea inoiz uzten ez zuenaz, seigarren solairuan bizitzea-gatik? Noizean behin gaztelaniaz eskatu zidan ekartzeko ogia, kafea, esnea edo azukrea; bilgarriak erakusten zizkidan ulertzen ez nuenean.

—Rodriguez andrea? —galdegin nion sinesgogor.

Etkezainak baiezko keinua egin zuen. Emakume gazteak oihu egiteari utzi zion aditu zidanean amonaren deitura esaten. Gure begiradek eta biziek bat egin zuten une eternal batean. Negar zotinka hasi zen, ezin kontrolatuz. Lagunek handik eraman zuten.

Bira eman, eta ikusi nuen nola sugarrek solairu guzti-guztiak kiskaltzen zituzten, eta galdetu nuen nire baitan: *Nora joan ote dira nire malkoak? Zergatik ezin dut negarrik egin behar dudanean?* Baina banekien malkoak geroago etorriko zirela ustekabean, amañi-lili batzuen lurrinarekin, edo txelo baten murmur apalarekin.

Azkenetako, zero beltza argitu egin zen East Riverren gainean. Zintarrian eseri nintzen, bizkarra emanez su motelean erretzen ari zen eraikinari. Gandu fin bat erori zen nire gainera, suteetako mahukek zituzten zulo txikietatik, oraindik ere ura botatzen ari baitziren gure etxeetara. Eserita segitu nuen, oso geldirik, nora joan jakin gabe.

•••

Hutsetik hasi behar nuen. Banku batean eseri nintzen, Washington Square Parken, eta nire jabetzen inbentarioa egin nuen: txandal galtza batzuk, kamiseta bat, eta hogeit hamar dolar poltsikoan. Nire diru guztia apartamentuan ezkutatua nuen. Berriz ere txanda bikoitzak egitera. Berriz ere asteburuetan 42. kaleko zinema aretoetan lo egitera. Ez nuen indarririk; ez nuen beste aukerarik.

Nire burmuinak ezin zuen galera arras onartu. Saltxitxa ogitarteko bat eta freskagarri bat erosi nituen dolar batean, eta parkean paseoan hasi nintzen, dibertsio gosez. Ikusle multzo batek erakarri ninduen; ikusten ari ziren kapela luzea eta fraka zituen mutil bat, malabarismoak egiten ari zena zuziek. Halakoxea zen biziaren alderdi absurdoa hiri hartan, gogoz kontra hainbeste maite bainuen, han bizirik irautea hain izugarri mingarra izanik ere.

—Nork izan nahiko luke malabarista? —galdegin zion nire ondoko emakumeak bere lagunari—. Esan nahi dut: zer zentzu du? —Biek ere buruaz ezezko keinua egin, eta alde egin zuten.

Malabarista ikusteak ekarri zidan gozamenak aurpegitik ihes egin zidan. Emakumea hizketan ari zela, ni pentsatzen ari nintzen zein zoragarria izanen zen ikastea halako trebezia bat, bakarka praktika zitekeena, norberaren plazer hutserako.

Eskuinean nuen gizonak begietara begiratu zidan, eta burua alde batera makurtu zuen. Haren begirada finkoak deseroso sentiarazi ninduen. Harengandik urrutiratu nahi nuen. Iruditzen zitzaidan sentitzen nituen emozio guztiak irakur zitzaieela. Baina, nolabait, lortu zuen nik berari arreta handiagoz begiratzea. Ikusi nuen gizon atsegin bat, bere sentimenduak aurpegira azaleratzen zituen. Bazirudien elkarrizketa emozional bat izaten ari ginela hitzik gabe.

Bekainak goratu zituen, galdeginez. Sorbaldak altxatu nituen:

—Zinikoak —esan nuen irribarrez.

Buruaz ezetz esan, eta mugimendu dotoreak egin zituen eskuekin: gorra zen. Nire aurpegian ikusi zuen ulertu nuela. Irribarre nik. Irribarre hark. Orduan, trabaturik gelditu nintzen. Nire eskuei begiratu nien; aldeetan nituen, adierazteko ezgauza. Beste behin ere hitzez gabeturik nengoen, bihotzetik mintzatzeko hizkuntza baten beharretan.

Esku ahurrak goratu eta sorbaldak altxatu nituen, ezintasunez. Hatz erakuslea altxatu zuen. Bat? Ez. Zaude, adierazi zuen.

Lurra aztertu zuen. Zuhaitz baten atzeko aldean zegoen zerbait seinalatu zuen, eta, irribarrez, baiezko keinua egin. Orduan, hiru hatzekin, gauza imajinario bat hartu zuen zorutik. Zer zen? Borobila zen. Hala zela esan nezakeen, ikusiz nola altxatu zuen bi eskuekin aurpegraino. Oraindik ere hiru hatzekin hari utsiz, atzeraka mugitu zuen, ariko balitz bezala... birla jokoa! Birla jokoko bola bat zen.

Baiezko keinua egin nuen indarrez. Bigarren bola bat topatu zuen nire gaineko aldeko adar batean. Kontu handiz, eskuineko oinean jarri zuen. Begiekin hirugarren bola bat bilatu, eta aurkitu zuen. Bola bat eskuineko eskuan eta beste bat oinean zuela, poliki makurtu zen, hutsik zuen eskuarekin hirugarren

bola altxatzeko. Balantza egin zuen. Eutsiko ote zion oineko bolari, erori gabe? Bai, lortu zuen!

Arnasari eutsi nion malabarismoak egiten hasi zenean. Ikus nezakeen birla jokoko bolen zama, eta bola bakoitza gero eta gorago jaurtitzeko behar zen indarra. Haren abilezia handitu egin zen: bolak pasatzen ziren zango baten azpitik, bizkarraldetik eta soingain gaineratik. Hiru bolak oso gora bidali zituen airean... eta ez ziren itzuli. Gelditu zen eta zerurantz begiratu zuen, harri eta zur burua arraskatuz. Bat-batean aurreraka etorri eta bola bat hartu zuen ezkerreko eskuarekin, orduan zealdoka eskuinera jo, eta beste bat hartu zuen. Hirugarrena oin puntara erori zitzaion, eta behartu zuen txingoka joatera zuhaitz baten atzeko aldera, larritasun espantuak egiten. Zuhaitzaren atzeko aldetik burua atera, eta begi bat kliskatu zuen.

A zer arindua zen irri egitea; ez penatuta egonda ere irri egitea, baizik penatua egoteagatik. Elkarrekin egin genuen irri. Irri sakona zen, sabeletik heldu zena. Malkoak eragiten dizkizun horietakoa. Lohia bezain lodi diren emozioak askatzen dituen horietakoa.

Bi gizon hurbildu zitzaizkion aldeetatik. Irribarre egin zien, eta beren besoak errotak bezala hasi ziren elkarrizketa bizian. Nire presentzia adierazi zuen. Elkarri eskua eman genion.

Alde egin aurretik, eskua niregana luzatu zuen, oso mantso, eta malko bat hartu zidan masailetik. Nire malkoarekin bere begia ukitu zuen. Eta alde egin zuten.

22

Sentitu nuen suak ez zidala aukerarik utzi. Nola errendituko nintzen? Etsitzea mila aldiz arriskugarriagoa zen bizirauteko borrokatzea baino.

Tipografia industria ez zen berriz ere martxan hasten udazken hasiera arte, baina ahal bezala, handik eta hemendik, topatu nuen lana.

Irailerako, kontratua sinatu nuen apartamentu batean sartzeko, justu Canal karrikaren gaineko aldean. Tren formako eta logela bakarreko etxebizitza handi samarra zen, baina zikin-zikina zegoen. Hara aldatu nintzenean, ez nuen garbitzeko indarririk. Pentsatu nuen pixkaka-pixkaka eginen nuela. Erosi nituen aire lastaira bat, tapaki bat eta burkoa. Hura zen apartamentuan egiaz behar nuena. Lotarako leku seguru bat, besterik ez.

Han eman nuen lehenbiziko gauean, su-eskaileretara atera nintzen. Ikus nitzakeen zuhaitz berde gutxi batzuk, inguratzen zutenak hiri honetako jendeak parke esaten zion zerrenda txiki-txiki bat. Brooklynerako zubirantz bueltan heldu zen trafikoa arindua zen. Mariachien musika eta mandarin-txinera nahasten ziren gauean. Hiru neskatiko su-eskaileretan eserita zeuden karrikaren beste aldean, elkar orrazten, Hong Kongeko pop kantua abesten zituztela. Beherago nuen apartamentu batean, gizon bat eta emakume bat haserre bizian zebiltzan. Krak bat aditu nuenean larritu egin nintzen. Kezkagarriagoa izan zen ondorengo isiltasuna. Nire ondoko ateko auzotarraren egongelako leiho irekitik, josteko makina baten marmar egonkorra aditzen nuen.

Hiriaren dirdira lausoak gauaren iluna leuntzen zuen. Oraindik ere zeruan izarrik baldin bazen, ez zeuden nire ikusmiran.

•••

Ondoko ateko auzotarra hilabete geroago ezagutu nuen. Nire apartamentura sartzear nintzela, emakumeak atea ireki zuen. «Kaixo» esan nuen begirada altxatu aurretik. Berak ez zuen erantzun.

Haren aurpegiak harri eta zur utzi ninduen. Alde bat oso ubeldua zuen, ortzadar bat bezala: hori, gorri, urdin. Ile gorri bizi zalapartatsua zuen. Esan nezakeen feminitatea ez zitziola aise iritsi. Eta ez bakarrik zintzur sagarrarengatik edo esku zabal eta hezur handikoengatik. Hitz egin nionean begirada jaisteko eta ihes egiteko izan zuen moduagatik ere bai.

Egunero ni bezalako beste batzuk ikusten nituen hirian: geurekin herri oso bat popula zitekeen. Baina elkarri begirada iheskor bat bakarrik egiten genion, arreta guregana erakartzeko beldurrez. Jendaurrean bakarrik egotea aski mingarria zen, gutako bi zirku jasanezin bateko erdigune bihurtzen ahal ginen. Bazirudien ez genuela tokirik guretzat, komunitatean biltzeko, geure gisakoen artean murgiltzeko, geure moduetan eta geure hizkuntzetan bizitzeko.

Baina orain, ni bezala desberdina zen auzotar bat neukan. Asteak pasa ahala, nire jakin-mina handitu egin zen haren apartamentutik etorritako soinu eta usainen gainean. Etengabe josten zuen. Miles Davis izugarri maite zuen. Eta labea irekitzen zuen aldiro, haren apartamentuaren kanpoko korridorea betetzen zen urrin tentagarrienez.

Larunbat arratsalde batean topatu nuen, janariz betetako zorro gaitz batzuei ahal bezala eusten eta eraikineko atea ireki nahian. Nire giltza atera nuen:

—Zaude, utzidazu. —Ez zidan «eskerrik asko» esan. Eskaileretan presaka abiatu zen nire aurretik—. Lagunduko dizut horiek eramaten?

—Ahula naizela iruditzen zaizu? —galdegin zuen.

Eskaileretan gelditu nintzen.

—Ez. Nire herrian errespetu keinua da, besterik ez.

Eskaileran gora segitu zuen.

—Tira ba, nire herrian —oihukatu zuen—, gizonak ez dituzte emakumeak saritzen moldakaitz itxurak egiteagatik.

Haren apartamentuko atea ixten aditu ondoan, maila bati ostikoa jo nion, amorruez eta zapuzturik.

Egun osoa eman nuen, apartamentuan, neure burua nola aurkeztu entseatzeko. Auzotarraren atearen parean gelditu nintzen, Motown disko etxeko musika aditzen nuela haren estereoa zalapartaka, harik eta atea jotzeko ausardia bildu nuen arte. Norbaitek musika apaldu zuen, emakumeak atea ireki bitartean. Eskua altxatu nuen, hura solasean hasi aurretik isilarazteko.

—Sentitzen dut eragozte —esan nuen—, baina ez dizut oso irudi onik eman hasieran. Badakit uste duzula gizona naizela, baina ez. Emakumea naiz.

Hasperen egin, eta ateko katea askatu zuen.

—Begira —atea zabalxeago ireki zuen—, ez dut genero identitate krisirik behar nire atarian. Hau nire etxea da, eta lagunekin nago. Mesedez, uler ezazu, ez dut batere gogorik gogaitua izateko.

Drag queen baten ahotsa aditu nuen apartamentu barnetik.

—Nor da, Ruth? Ooo, polita da! Utziozu sartzen.

—Tanya, mesedez. —Ruthek *drag queen*a isilarazi egin zuen begirada zorrotz batez. Beste norbait ere ikusi nuen egongelatik niri kirika begiratu nahirik.

Ruth nabarmen gogaitua zegoen ikusirik zer jakin-minez aztertzen genuen elkar haren lagunek eta nik.

—Ez dut zakarra izan nahi —esan zidan—, baina utzidazu gauza bat argitzen: hau nire etxea da. Ez dut molestaturia izan nahi.

Eskua ate-laukian pausatu nuen:

—Baina zurekin hitz egin behar dut —nire eskuari begiratu zion, haserre. Kendu nuen.

—Baina nik ez dut zurekin hitz egiteko beharrik. Barkatu —atea itxi egin zuen.

Ez nuen beste aukerarik izan Ruthengandik urrutiratzea baino, berak eskatu bezala.

•••

Dar-dar egin nuen su-eskaileretan, tapaki batean bildurik, ez nuen eguna joaten utzi nahi. Tenperatura hirurogeita hamabost gradura iritsia zen; ezohikoa, urriaren akaberan. Hala ere arratseko haizea hotza zen, Manhattango estandarrak kontuan harturik.

Ruthek burua atera zuen bere egongelako leihotik.

—O —harritua zirudien.— Ez nekien hemen zinenik. Leihoia ixtera noa, hotza baitago.

Nik hasperen egin, eta zerurantz begiratu nuen.

Atseginago hitz egin zuen:

—Gau zoragarria, ezta? —Generoaren ñabardurak konplexuak ziren haren ahotsean, nirean bezala.

Irribarre egin nuen:

—Ilargi betea: uzta ilargia dugu gaur goian.

Ruthek irri egin zuen:

—Zer daki zu bezalako kalekume batek uztei buruz?

Haren hitzek eta doinuak amorratu egin ninduten. Nazkatua nengoen jende guztiarentzat «bestea» izateaz. Baina nire zati batek, hala ere, Ruthen laguntasunaren behar bizia zuen. Beraz, une batez itxoin nuen erantzuteko, haserririk gabe hitz egiteko.

—Badakit zer den zelai batean egotea gau ilunean, milioika izarren azpian, kilkerren eta txitxarren musika besterik aditzen ez dela. —Ruthek baiezko keinua egin zuen, begirada ilargitik kendu gabe. Burua atzeraka bermatu nuen adreiluetan—. Eta badakit nolakoa den ibai bizia ur-jauzira hurbiltzen denean: nola den transluzidoa eta berdea amildegian tolesten den tokian, botilaren beira olatuetan bezala.

Irribarre egin nion Ruthi.

—Eta badakit zure ilea dela zumakea udazken hasieran bezain gorria.

Ruthek harriturik begiratu zidan.

—Zeinen gauza polita esan duzun. Zu barnealdekoa zara. Zure doinuagatik diot. Ni ere hala naiz.

Baietz esan nion:

—Badakit.

Ruthen nireganako jarrera arras aldatu zen. Bazirudien prest zegoela bere atea niri pixka bat irekitzeko. Orduan ohar-tu nintzen oraindik mindua eta haserre nengoela haren aurreko

ukoengatik. Besterik esateko denbora izan aurretik «Gabon» esan nion, eta nire egongelara sartu nintzen berriz.

Leiho koskaren kontra bermatu, eta ikusi nuen ilargiak nola segitzen zuen Manhattanen gaineko aldean goratzen. Ez nuen jakinen Ruth ere gauza bera egiten ari zela ez banu aditu pospolo bat pizten eta haren zigarretaren kea usaindu ez banu.

Pare bat hilabetez ez nuen berriz ikusi. Zenbait astez oporretara joan zela uste nuen, ez bainuen aditzen ez bere musika ez josteko makina, eta, horretaz landa, korridoreak pixatoki baten antzeko usaina hartu baitzuen berriz ere.

Nazkatu nintzen aire lastaira batean lo egiteaz, eta ohatze bat erosi nuen Salbazio Armadan. Orobat, eskuratu nuen diskoak eta kaseteak aditzeko gailu bat, hain zaharkitua non berdin zitzaidan ebasten bazidaten ere.

Larunbat arratsalde batean, aparteko orduak egiten asteak eman ondoren, berandu jaiki nintzen. Apartamentua hain zikina iruditu zitzaidan, nazka eman zidan. Egun-argia gris bihurtzen ari zen ni jantzi eta kanpora joan nintzenerako, garbiketako lanabesak erostera.

Ruthek eta biek batera ireki genituen ateak, eta nik begirada apartatu nuen, lotsaturik. Atzean gelditu nintzen, nire aurretik joan zedin. Eskailera burutik oihukatu zidan:

—Ez nuke zakarra izan nahi, baina zer musika zen atzo aditzen ari zinena? Oroitzen?

—Zer ba? —erantzun nion—. Sobera altu zegoela esateko modu bat da?

Isilune luzea izan zen.

—Ez —hark—. Gustatu zitzaidan, hori besterik ez. Galde-tzea inporta zaizu?

—Afrikar estilokoa bazen, King Sunny Ade.

—Eskerrik asko —esan zuen lehor.

Kaleko atea ixten aditu nuen.

Orain banekien nire musika aditzen zuela, nik harena bezala. Beraz, bientzako kaseteak jartzen hasi nintzen, eta, bi-tartean, neure buruari galdetzen nion nori gustatuko zitzaion gehien. Irudikatu nituen gure biziak elkarrekin konektaturik, nahiz eta pareta finek eta ate itxiek gu bereizi. Orduan ohartu nintzen zein bakarra nengoen.

Udaberriko ekinozioko goizean, eskaileretan gora nindoan egunsentian, irrikatan dutxa beroa hartu eta lo handia egiteko. Su geldoan egindako arabararen usain minak eraman ninduen eskalera mailak binaka igotzera. Ruthen sukaldetik heldu zen eutsiezinezko urrina. Arabarba kozinatzen usaindu nuen azkeneko aldian haurra nintzen oraindik. Burua haren atean pausatu nuen. Ahoa listuz bete eta nire guruinek urrina irrikatu zuten.

Giltzak ateratzen ari nintzela, Ruthek atea ireki zuen.

—Barkatu —esan nuen—. Ez nintzen zelatatzen ari, egiaz. Kontua da oso aspalditik ez nuela usaintzen arabarba kozinatzen. Oroitzapenak ekarri dizkit.

Ruthek baietz egin zuen buruaz:

—Pastelak egiten ari naiz. Kafe bat hartu nahi?

Zalantza egin nuen. Lehorrak ginen elkarrekin. Baina oso nekatua nengoen gure zuhurtziaz eta defentsa jarreraz.

—Eskerrik asko —esan nion irribarrez—. O —esan nuen sukaldean sartzen nintzela—, oso usain ona du.

Ruthek irribarre egin zuen:

—Tira, pastel zati txiki bat emanen nizuke eramateko, baina ospitalean diren laguntzat da.

Baiezko keinua, nik.

—Haurra nintzenean, bere horrela jaten nuen, katilu batean, azukre beltzarekin.

Ruthek eltzea nahasi zuen.

—Seguru horretarako nahikoa izanen dela. —Gauzak egiteari utzi, eta eskuak sartu zituen modaz pasatutako mandar loreduen poltsikoetan.

Sukaldeko paretako akuarela txikietako bat seinalatu nuen.

—Ezagutzen ditut mandaperrexilak, baina zer dira lili more horiek?

—Asterrak —esan zuen—. Eta horiek, urrezko makilak.

Gehienetan ez zitzaizkidan loreen koadroak gustatzen, baina hauek oroitarazi zidaten nolako itxura zuten loreek lehenbiziko aldiz ikusi nituenean.

—Oso politak dira —esan nuen.

—Eskerrik asko.

—Zuk margotu dituzu? —galdegin nuen nik. Baietz. —Ederrak.

Marko baten barnean jarritako zapi bat seinalatu nuen, bioletak brodatu zituen.

—Asko gustatu izan zaizkit bioletak betitik, baina lotsarazi ere egin naute, haurrek horixe deitzen baitzidaten neska txikia nintzenean.¹⁰

Ruthek begietara begiratu zidan, eta eltzeari eragiten hasi zen berriz.

—Kasik prest dago —esan zuen—. Jar zaitez. Deskafeinatua nahi duzu, lo egin ahal izateko? Gauez aritzen zara lanean, bai?

Irribarrez, baiezko keinua egin nuen. Arreta pixka bat behintzat eman zion auzokoari, nik bezala.

—Kafe arrunt pixka bat primeran etorriko zait. Saiatzen ari naiz asteburuetan iratzarrita egoten eta pixka bat garbitzen, baina lortzen dudan guztia da zolda geruzetan beheraxeago egi-tea. Ruthen etxe garbi-garbiak adoretu ninduen.

—Nongoa zara? —galdetu zidan.

—Buffalokoa.

Irribarre egin zuen.

—Auzotarrak gara. Badakizu non dagoen Canandaigua Aintzira?

Baietz esan nion. Buffalotik pare bat ordura dago.

—Vine Valleykoa naiz.

Kopeta zimurtu nuen.

—Ez dut sekula Vine Valley izena aditu. Landa ingurunea da? Ruthen baiezko keinua egin zuen.

—O, bai: mahastiak. —Kafea zerbitzatzen zidala, kanela zeukala usaindu nuen.

—Buffaloren falta sumatzen dut —egin nuen hasperen—. Tira, gutxienez iraganeko Buffaloren falta. Langileen herria zen, nire haurtzaroan. Ez nuen sekula pentsatuko fabrikak itxiko zituztenik eta kanpoaldeko jendea bertara joan eta gure etxeak lau sosetan erosiko zituztenik.

Ruthek baiezko keinua egin, eta bere kafea nahasi zuen.

—Badakit. Landa giroko bizia ere aldatzen ikusi nuen. Upeltegi handiek lur zelaiak hartu zituztenean, zailago bihurtu zen muinoetako familia-mahastizain txikiek bizirik irautea. Hiriek jendea eraman zuten, lanera eta eroatera.

Irribarre egin nuen.

—Beti uste izan nuen bizia ez zela asko aldatu landa giroan.

¹⁰ *Pansy* aldi berean da bioleta lorea eta maritxua.

Iri atsegina egin zuen Ruthek.

—Hiritik hala ikusten dute.

—Badakit zer den Buffalon haztea. Baina gogorra behar du izan halako toki txikian haztea. —Esan berri nuena sobera pertsonala ote zen?

Ruthek hasperen egin, eta atzeraka jarri zen bere aulkian.

—Ez dakit gogorra zen. Bakarrik dakit ez zela erraza. Ez dut uste ibar osoan berrehun biztanle baino gehiago izanen ginenik. Baina, nolabait, uste dut horregatik iraun nuela bizirik. Ez genuen kanpoko laguntzarik mahastietan: elkarri lagundu behar genion. Lankidetzako lotura haiek ez zeuden arras hautsirik. Banuen toki bat han. Baina alde egin izan ez banu, ez nuen sekula Miles Davis deskubrituko, eta nire ilea lohia bezain marroia izanen zen beti.

Ruth altxatu, arabarba samurra plater batean zerbitzatu, eta azukre beltza desegin zuen gainean. Koilara ahoan sartu, eta hasperen egin nuen.

—Dastamena ahaztua nuen.

Kopeta zimurtu zuen.

—Zer esan nahi duzu?

—O, goseagatik bakarrik jaten dut. Janari lasterra, eramatekoa. Ez dut dastatzen. Baina hau hain goxoa dago, negarra eragiten dit.

Ruthek baiezko keinua egin zuen irribarre egin gabe.

—Nire gozamenerako kozinatzen dut. Prestatzen jaten adina gozatzen dut.

Sorbaldak goratu nituen.

—Nik, egia esan, ez dut kozinatu nahi.

Aurreraka makurtu zen.

—Hau oso pertsonala da. Ez duzu erantzun beharrik, baina, zergatik ez duzu gortinarik?

—Tira, apartamentua lotarako dut bakarrik.

Ruthek ezezko keinua egin zuen.

Hori arraroa da niretzat. Ni hemen bizi egiten naiz.

—Desberdina da gauez lan eginda. —Aitzakiak bilatu nituen—. Jota iristen naiz etxera. Bestalde, joan den udan dena galdu nuen sute batean. Lan handia hartu nuen toki hura txukuntzen eta nire habia egiten. Orain, ez dut kezkatu nahi.

Ruthek ezpainak estutu zituen.

—Esan nahi duzu gauzarik ez baduzu galtzeko deus ez duzula izanen?

Baietz esan nion.

—Bai, horrelako zerbait.

Ruthek triste begiratu zidan.

—Orduan, esanen nuke jadanik dena kendu dizutela. Ez duzu galtzeko deus, ez da hala?

Ez nekien zergatik erabaki zuen azkenik ni etxera gonbidatzea, baina bat-batean biluztua eta babesgabe sentitu nintzen. Beraz, azkeneko kafe hurrupa hartu, azken arabarba mokadua jan, eta alde egiteko altxatu nintzen.

—Eskerrik asko —esan nion—. Gozamena izan da.

Ruth niri begira gelditu zen aterantz nindoala.

—Union Squareko nekazari merkatura joatekoa naiz gaur. Nahi duzu zerbait ekartzea?

Nire etxeko atea ireki, eta buruaz ezetz esan nuen.

—Ez, baina eskerrik asko.

Behin barnean nintzela, leihoak zabal-zabal ireki eta ero moduan hasi nintzen garbitzen.

Ordu batzuk geroago, harraskaren azpiko zolda indarrez marruskatzen ari nintzen, musika zalapartaka. Apartamentuko atea jotzeak ustekabearen hartu ninduen, eta kaskatekoa hartu nuen hodian kontra. Burua haserre igurzten ari nintzen atea ireki nuenean. Ruthek besakada bat ezpata-lore laranja luzatu zidan.

—Iruditu zait hauek gustatuko zitzaizkizula. Garbitzen aditu zaitut, eta nahiko nuke loreek tokiaren edertasuna nabarmentzea, halako lan handiaren ondoan.

Atea gehixeago zabaldu nuen.

—Mila esker. Ez dut uste deus dudanik loreak barnean sartzeko.

Ruth geroxeago itzuli zen, kristal landuko loreontzi batekin. Ezin izan zuen bere izua ezkutatu nire apartamentu hutsa ikusitakoan. Balantza pixka bat egin nuen, deseroso.

—Ez dut denborarik izan ez altzariak ez deus ere erosteko. —Loreak uretan jarri, eta egongela hutsaren erdian paratu nituen—. Oso ederrak dira, Ruth. Loreak oparitu izan dizkiet emakumeei, baina orain arte emakume batek ere ez dizkit niri oparitu. Oso keinu polita da.

Ruth gorritu egin zen.

—Jendeak loreak behar ditu. —Lekutzeko biratu zen, baina gelditu egin zen—. Badakizu? Zure izena ere ez dakit.

—Jess.

Irribarre egin zuen.

—Jesse izeneko osaba bat nuen. Jesseren laburdura da?

Ezetz egin nuen buruaz.

—Jess bakarrik.

—Garbitzen utziko dizut, Jess.

Baiezko keinua egin nion.

—Eskerrik asko loreengatik.

Hark alde egin ondoan, garbitzen segitu nuen. Ordu batzuk geroago, nekaturik eseri nintzen egongelako lurrean, loreen ondoan. Beharbada Ruth zuzen zegoen: inporta zitzaidan guztia galtzeko beldurrez bizitzeak esan nahi zuen jadanik galdua nuela. Berriz ere atean jotzen zutela entzun nuen, eguneko bigarren aldia zen. Ruth zen. Zuritu gabeko muselina fardel bat luzatu zidan.

—Hauek dira egongelan lehen nituen gortinak. Nire leihoek zurean neurri bera dute, eta eskaintzea bururatu zait. Nahi baduzu.

Hantxe gelditu nintzen, Ruthen esku handietan zegoen opariari eta Ruthi begira, eta biei baietz esan nien.

Aste bat geroago loreontzia itzuli nion, lirioz beterik. Haren irribarrea nire saria izan zen.

—Baduzu loreontzirik? —galdegin zidan. Ezetz esan nion—. Sartu. Begira, hau gustatzen zaizu? —Kobalto-urdineko kristalezko loreontzi bat eskuratu zidan.

Hasperen egin nuen.

—O! Kolorea hain bizia da, barnera erakartzen nau. Kasik kolorea dasta dezaket.

Ruthek hatz puntak masailean jarri zizkidan.

—Goseak zaude, Jess. Zure zentzumenak goseak amorratzen daude.

Urdin biziaren sakonari begira-begira gelditu nintzen.

—Afaría prestatuko banizu, zer nahi zenuke? Arrainkia?

Irri egin nion.

—Arraina jana al da?

Ruthek ezetz egin zuen buruaz.

—O, ez. Ez zara izanzen haragia-eta-patatak motako gizon horietako bat, ezta?

Begirada jaitsi nuen.

—Ez naiz gizona, Ruth.

Baiezko keinua egin zuen.

—Tira, beraz nahasmendu txiki bat izan dut, ezta? Ongi da, haragi gorria eginen dizut. Baina ohartarazten dizut, zure apetitua zabalduko dut.

Zeinen eskaintza zoragarria! Baina zergatik izaten ari zen orain nirekin atsegina?

Arratsalde hartan galtza berriak eta atorra dotore bat erostera joan nintzen. Nekazarien azokan gelditu, eta mandaperrexil marmelada erosi nuen, izena asko gustatzen zitzaidalako bakarrik. Ahabia handiak topatu nituen Balducci'sen, eta, Tower Recordsen, Miles Davisen kasete bat, Ruthek ez zuela seguru nekiena.

Ruthek pozik egin zuen irri opari sorta txikiarekin.

—Ahabia hauek gure postrea izanen dira. Eta uste dut marmelada honen koilarakada bat erabiliko dudala tearekin. Baina nola zenekien kontzertu honen kasetea nahi nuela?

Irribarre egin nuen, lotsati.

—Zure auzokoa naiz.

Ruthek irri egin zuen.

—Horixe zarela. Jar zaitez.

Sukaldea usain-geruzez estalia zegoen. Ruthek entsalada gaitza jarri zuen nire parean. Baziren lili hori eta laranjak ontzian, inoiz ikusi ez nituen berde batzuekin batera. Begiak busti zitzaizkidan.

—Ruth, loreak ditut entsaladan.

Irribarre egin zuen.

—Kapatxinak dira. Ederrak dira, ez da hala?

—Jan daitezke?

Baietz, hark. Buruaz ezetz egin nuen.

—Ez dut inola ere jan nahi. Arte lan bat bezalakoa da.

Ruth ondoan eseri zitzaidan.

—Izan duzun gosearengatik da hori. Nik uste beldur zarela hau izanen dela gertatuko zaizun azkeneko gauza ederra, eta eutsi egin nahi diozu.

—Nola dakizu?

Irribarre egin zuen.

—Zure auzokoa naiz. Entsalada zoragarria da, Jess. Goza dezazun bakarrik egin dut. Baina hurrengo ere ahotik ezin utzia izanen da.

Gorritu egin nintzen, eta sardexka mahaian utzi nuen.

—Badakizu zangoak lokartzen zaizkizunean nolako mina izaten den odol-zirkulazioa berriz hasten denean? Ez dakit seguru esperantzarik izan nahi dudana. Ez dut berriz desilusionatu nahi.

Ruthek kolpetxo eman zidan besoan.

—Biek ere jadanik dena dakigu desilusioari buruz. Ez dezagun antizipatu. —Altxatu, eta ekarri nion musika paratu zuen.

Entsalada jan bitartean, malkoak erortzen zitzaizkidan masailetan behera, ageriko arrazoirik gabe. Irribarre egin zuen Ruthek.

—Ozpin baltsamikoa da. Ez al da zoragarria?

Nola azalduko nuen kaputxinen eta ozpin baltsamikoaren gustua mihian izateak negarra eragiten zidala?

—Sentitzen dut. —Begiak xukatu nituen—. Honengatik ez zenidan utzi nahi zure etxean sartzen, ezta? Zergatik izaten ari zara hain atsegina orain?

Ruthek sardexka mahaian utzi, eta nire eskuak bereekin estali zituen.

—Barkatu hain hotza izan izana. Ez nizun ongi ulertu. Uste nuen beldurtua eta nahasia zeundela, eta beldur nintzen nire indarrak ahituko zenituela. Bakean utzi ninduzunean, ohartu nintzen ezin nuela zure izaera ongi igarri eta hori oso ezaugarri erakargarria da, nik uste. Hasieran uste baino askoz indartsuagoa eta lasaiagoa zinela zirudien. Beraz, iritzia aldatu nuen. —Irribarre egin zuen—. Emakumeon pribilegioa da.

—Zerk bultzatu zintuen azkenik ni sartzen uztera?

Ruthek eskua estutu zidan.

—Nire ilearen kolorea da munduari egiten diodan adierazpena, esateko ez naizela ezkututzen. Gogorra da kolore hau eramatea, baina nire modua da bizia eta nire erabakiak ospatzeko. Jende asko lotsatu egiten da nire ilearen kolorearekin. Oso pertsona berezia behar du izan zumakearen kolorearekin alde-ratzen duena.

Irri egin, eta sardexka entsaladan sartu nuen.

—Badakizu gizona edo emakumea naizen?

—Ez —esan zuen Ruthek—. Horregatik dakit hainbeste zuri buruz.

Hasperen egin nuen.

—Lehenbizikoz ezagutu ninduzunean, gizona nintzela uste izan zenuen?

Baiezko keinua egin zidan.

—Bai. Hasieran uste nuen gizon heteroa zinela. Gero pentsatu nuen gaya zinela. Shocka izan zen ohartzea nik neronek ere egiten nituela sexuari eta generoari buruz zuzenak ez ziren suposizioak. Uste nuen gauza horietatik arrunt askatua nengoela.

Irribarre egin nuen.

—Ez nuen nahi zuk uste izatea gizona naizela. Nahi nuen zuk ikustea askoz ere konplexuagoa naizela. Nahi nuen ikusten zenuena gustuko izatea.

Ruthek masaila laztandu zidan hatz puntekin. Hotzikara izan nuen.

—Bueno, ez nuen berehalakoan ulertu, baina azkenean pentsatu nuen izugarri polita, eta ederra, eta itxura interesgarrikoa zinela. —Ruthen hitzak ere oparia ziren.

Begirada jaitsi nuen, ez zezan ikusi nola irrikatzen nuen haren arreta.

—O, Ruth. Gustatuko litzaidake geure hitzak edukitzea geure buruak deskribatzeko, elkarrekin konektatzeko.

Ruth zutitu, eta parrila atera zuen.

—Ez dut beste etiketarik behar —egin zuen hasperen—. Ni naiz naizena. Neure buruari Ruth deitzen diot. Gure ama Ruth Anne da, amona Anne zen. Horixe naiz ni. Hortik heldu naiz.

Sorbaldak altxatu nituen.

—Nik ere ez dut beste etiketarik behar. Baina gustatuko litzaidake geuretzat hitz ederrak izatea, ahoskatzea mereziko luketanak.

Ruthek platera mahaian jarrita, haragi xerrari begira gelditu nintzen.

—Zer dira gainean dituen sortatxo horiek? —galdetu nion.

—Salbia.

Azenario txiki-txikiak eta kuia miniaturak bota zituen nire platerera. Labea ireki, eta ogi lurruntsua eta gurin gozoa zerbitzatu zizkidan. Hozkada bakoitza musika zen nire ahoan.

—Orain, ekarri duzun postre zoragarria janen dugu —esan zuen Ruthék. Buztinezko bi katilu bete zituen ahabiaz, esnegain lodiz zipriztindu zituen, eta azukrez hautsezatu.

Begiak kliskatu nituen malkoak uxatzeko, eta Ruthen be-soa estutu nuen.

—Ruth... —Hitzak trabaturik gelditu zitzaizkidan zintzurrean.

Nire eskuak estali zituen bereekin.

—Dena dakit goseaz, beharraz, Jess. —Bere katilua altxatu zuen—. Topa laguntasunari?

Nire katiluarekin topa egin nion.

—Bai —erantzun nik—, gure laguntasunari.

•••

Bigarren eskuko altzariak erosi nituen: neure udaberriko urtze-aldiaren lehen zantzua. Ruthék nik baino urduriago zirudien entregen fluxu egonkorra iristen zenean. Pixkaka, gelak formak hartzen hasi ziren. Ruthék sukaldean zintzilikatu zuen bioletak brodaturik zeuzkan zapi laukitua, eta amonarekin batera egindako edredoa eman zidan nire ohatzerako.

Baina egiaz jakin nuen Ruth eta biak adiskide min bihurtzen ari ginela onartu zuenean zenbat gustatuko zitzaion bere apartamentua berriz pintatzen laguntzea. Erabateko plazera izan zen ikustea nola alaitzen zitzaion aurpegia paretak kolore berriz estaltzen nituenean. Urduri, apaletarako papera mozten zuen, bitartean armairuak oraindik esmalte zuriz itsaskorrek zeudela.

Hiriko geruza konplexuak gozatzen nituen, eta desiratzen nuen azkeneko zokoak ere esploratzea Ruthekin batean. Baina ez ginen gure eraikinetik elkarrekin sekula ateratzen, berak bere *teoria geometrikoa* deitzen zuen horregatik: gu bezalako bi jendaurrean elkarrekin egotea zen problemak bikoiztea baino gehiago.

Horren ordez, eguneroko gure joan-etorrietatik opariak ekartzen genizkion elkarri. Nik Villa-Lobos oparitu nion, hark niri Keith Jarrett. Nik forsitiak ekarri nizkion, hark alegria loreak ekarri zizkidan. Eta denbora bat pasatu ondoan, malkoak eta frustrazioak ere trukatu genituen.

—Zergatik, Ruth? —haserre nengoen haren sukaldean—. Zergatik jiratzen dira buruak karrikan gabiltzanean? Zergatik gorrotatzen gaituzte hainbeste?

Ruthek labearen barneko paretak garbitzeari utzi zion.

—O, maitea. Erakutsi digute desberdinak direnak gorrotatzen. Burmuinetan sartu digute. Eta horrek denak mantentzen gaitu elkarren kontra borrokan.

Nire pisu guztiarekin eseri nintzen aulki batean.

—Lehen, mundua aldatu nahi nuen. Orain munduan bizi-rik iraun besterik ez dut egin nahi.

Irri egin zuen Ruthek. Gomazko eskularruek klaska egin zioten kendu zituenean.

—Bueno, ez etsi oraindik, maitea. Batzuetan gauzak ez dira aldatzen denbora luzez, eta halako batez hain agudo eguneratzen dira, zorabiatu egiten zaituzte.

Hasperen egin nuen.

—Handitzen ari nintzela, sinetsita nengoen oso inportantea zen gauzaren bat eginen nuela bizian, esaterako unibertsoa esploratzea edo gaitzak sendatzea. Ez nuen inoiz pentsatuko hainbeste denbora emanen nuenik erabil nezakeen komuna zein zen erabakitzen, burua hausten.

Baiezko keinua egin zuen Ruthek.

—Tira, ikusia dut jendea beren bizia arriskuan jartzen kafetegi batean esertzeko eskubidearengatik. Zu eta biak ez bagara borrokatzen bizitzeko dugun eskubidearen alde, orduan atzetik heldu diren haurrek beharko dute borrokatu.

Burua atzeraka eraman eta irri egin nuen.

—Zu zara nire plazera, Ruth. Zu zara azkeneko Coca Cola hotza desertuan. —Irribarre egin nion, eta poz-pezik utzi nuen, agerikoa zen. Ahaztua nuen halakorik egin nezakeela.

Arratsalde hartan su-eskaileretara atera ginen, eta elkarren ondoan eseri, arratsaldea arrats bihurtu bitartean. Aurretik sekula ez nuen besarkatu nirea baino handiagoa zen gorputzik. Gure azpiko aldeko karrika moztua zegoen jai bat egiteko: argi txikiak zintzilik, janari postuak eta bikoteak dantzan bidegurutzean, zuzenean ari zen mariachiaren erritmoan.

—Ruth, biziko bagina mundu batean non nahi duguna izaten ahalko ginatkeen, zer egin nahiko zenuke?

Ruthek irribarre egin zuen, pentsakor.

—O, josten segituko nuke. Jendea jantziko nuke haiek amestu bezala, karrikan harro ibili ahal izateko moduan. Eta inoiz goseak izandako jende guztiarentzako kozinatuko nuke.

Ez nuke beldurrik izanen etxetik ateratzeko. O, asko gustatuko litzaidake mundua esploratzea. Eta zuk, Jess?

Burua atzeraka, paretaren kontra, bermatu nuen.

—Nik uste lorezain izanen nintzatekeela, haurrentzako bakarrik diren basoetan, eta, haurrak iritsitakoan, eseri eta haien galderak adituko nituzke. Eta itsasoa hurbil izanen litzateke. Itsasertzean biziko nintzateke, etxe txikitxo batean. Egunsentian, biluztu eta igeri eginen nuke. Gaez kantatuko nuke kantu bat lehengo bizimoduari buruzkoa. Hain kantu tristea izanen zen, zaharrek baietz eginen lukete buruaz eta hurrek negar. Baina gauero kantatuko nuke, inork ez nahasteko nostalgia eta garai zaharrak itzultzeko nahia.

Ruth negarrez hasi zen.

—O, Jess. Zure ametsetan ere sumatu daiteke zure mina.

Haren ile gorri-gorriari musu eman nion.

—Jess, hain eroso hazi naiz bakarrik, ahaztua neukan zein bakarrik nagoen sakonean. Baditut maite ditudan lagunak, esaterako Tanya, Esperanza eta jantziak josten dizkiedan vedetteak. Baina zuregandik hain hurbil sentitzen naiz... Ezin esplikatu dut.

Atsegin kulunkatu nuen.

—Ruth, zure biziari musika jarriko balitzaio, zer instrumentu adituko litzateke?

Nire babespean uzkurdu zen.

—Saxofoi soprano bat.

Irribarre egin nuen.

—Oso tristea delako?

Ezezko keinua egin zidan.

—Ez, ebokatzeko duen indarragatik. Zer instrumentuk joko luke zure musika, Jess?

Hasperen egin nuen.

—Biolontxeloak, nik uste.

Ruthek estuago heldu zidan.

—Oso tristea delako?

Ezezko keinua egin, eta hirirantz begiratu nuen.

—Ez, oso konplexua delako.

23

Galoi laurden intsusa-fruituri heldu nion nire larruzko zamarraren kontra, eta irribarre zabala egin nuen, jakinik zenbat poztuko zen Ruth neguan halakoak topatu izanaz. Etxearen zaporea zuten harentzat, bere biziaren urtaroena. Jadanik usain nezakeen intsusa-fruituen tarta beroa. Aurreraka makurtu nintzen, metroan nindoala, eta ahalik eta urrutien begiratu nuen. Etxera iristeko irrikatan nengoen. Ordu batzuen buruan eguzkia aterako zen. Ruthen josteko makina marmarka hasiko zen. Zau-de, intsusa-fruituak ikusten dituen arte. Haren irribarrea izanen zen nire egunsentia.

Hiru nerabeak aditu egin nituen ikusi aurretik. Lagun arteko zalapartan oihuka ari ziren eta sarrerako tornuen gainetik salto egin zuten. Mutil zuriak ziren, kimikaz lepo. Haien lehenbiziko jomuga izan zen banku batean lo zegoen gizon zahar bat. Bankutik bultzaka atera, ostikatu zuten, eta eskuz esku ibili zuten bortizki. Irriz ikusi zuten nola egiten zuen ihes lasterka, tornutik igarota.

Orduan egin nuen akatsa. Atzeraka jo nuen geltokian, haiengandik urrutiratzeko. Hala, irteeratik urrutiratu nintzen, baita laguntza jasotzeko aukeratik ere. Akats batzuk barkagarriak dira, beste batzuek erakusten dizute sekula ahaztuko ez zaizun ikasgai bat.

Haien urratsak hurbiltzen aditu nituenean, ez nintzen zutabearen atzeko aldean ezkutatu. Ongi aski bainekien askoz makurragoa dela jarrera beldurtuan harrapatua izatea. Eskua zorro barnean sartu, eta intsusa-fruitu eskukada txikia atera nuen. Haien gustu minak nire zentzumenak zorroztu zituen.

Eskuak zikindu zizkidaten, irabazitako eta galdutako borroken kolorez. Gainerako baiak lurrean utzi nituen, desiratuz Ruthek jakin zezala intsusa-fruituak topatu nituela, neguan, asfaltozko hiri honetan. Denbora gehiago nahi nuen Ruthekin. Desiratzen nuen eskerrak eman izana, bizi-hats pixka bat berreskuratzen laguntzeagatik.

Etxeko giltzak hatzen artean jarri nituen, nire ukabilak kobrezko arantzak izateko. Harrapatua nengoan, geltokiko azken muturraren eta hurbiltzen ari ziren hiru aurpegien artean. Ehiztariak ziren; ni, haien harrapakina. Hasi aurretik, lipar batez, Ruth madarikatu nuen, berriz ere esperantza pizteagatik. Ondoren, dena alde batera utzi nuen, aurrean nuena ez beste.

Saldoko liderra nabarmendu zen. Eskua nire aurpegirantz luzatu zuen.

—Zer dugu hemen? —galdegin zuen, kasik atsegin.

Nire eskuaz baztertu nuen harena. Irribarre hark. Hasia zen. Nire ukabil arantzaduna ezkutuan nuen. Ez nuen erakutsi prest nengoela. Haren lagunak irribarre gaiztoka eta burlaka. Baina liderraren irribarreari aurre egitea zailagoa zen. Oroitarazten zidan polizia baten irribarre maltzurra, nire babesgabetasuna aitortzera behartu nahirik.

—Zer ostia zara zu? —galdegin zuen apal—. Ezin asmatu dut zer zaren. Agian deskubritu beharko dugu, e, mutilak?

Haren irain eta mehatxuak ez ziren nigan barneratu, ez nigan eraginik ez zutelako, baizik jadanik halakoez gainezka bete nengoelako.

Saiatu nintzen ez aditzen. Ez zuen inporta zer esaten zuen. Ez zuen inporta zer erantzuten nuen. Inporta zuen bakarra ekin-tza zen, haien gorputzen eta nirearen kokapena, materiaren eta espazioaren justaposizioa, eta ageriko eztarriak eta belaun babes-gabeak. Ekintza lehertzen zenean, jotzeko aukera bakarra izanen nuen, indar erlazioak aldatzeko aukera bakarra. Haien ukabilkada bat nire gorputzari lotutakoan, odolak nire begiak betetakoan, arnasari eusterik izanen ez nuenean... Orduan haiena izanen nintzen. Hortzen artean gelditutako intsusa-fruituetatik hartu nuen indarra. Edozein unetan lehertuko zen. Edozein unetan.

Liderrari begietara begiratu nion, nire beldurra agertzeari uko egingez. Jakina, biek genekien beldurrak nengoela. Hiltzeko prest nengoan. O, demonio ikaratua nengoan. Baina nire amorrua

zen oraindik erakutsi ez niona. Jazarleak nire kontra askatzen eta bideratzen zituzten indarrak ez nituen beharbada sekula eskura izanen, baina hiltzera banindoan, saiatuko nintzen haiek nirekin eramaten, alafede. Haizekirri bat sumatu nuen aurpegian: trena hurbiltzen. Ni salbatzeko garaiz iritsiko ote zen?

Orduan hasi zen eraso. Gorputzak salatu zuen. Mugitze-ko asmoa telegrafiatu zuen. Nire ukabil arantzaduna kokotsera bideratu nion kako batean. Inpaktuaren unean mihi punta hozkatu eta erauzi zuen. Haren odola parrastan aurpegiratu zitzaidan. Ukabil arantzaduna ateratakoan odol gehiago erori zen nire eskumuturrean behera. Trena orro batean sartu zen geltokian.

Beste zintzur bat agerian. Indar guztiz sartu nuen ukabila. Trenaren zalapartaren gainetik ere aditu nuen bor-bor soinua giltzak kanpora atera nituenean.

Ingudea bezain indartsua zen ukabil batek matraila txikitu zidan. Kaskezurreko kontrako aldeak metalezko zutabea jo zuen. Zealdoka aldendu nintzen, beste norbaiten odola nire giltzetatik garbitzen nuela.

Treko atea ireki ziren. Goiz-goizeko puntako orduko jendeketa niregandik urrutiratu zen, izuturik. Ateak itxi zirenean, ingurura begiratu nuen. Ez ninduten tren barnera segitu. Eskuetara begiratu nuen, intsusa-fruituz eta odolez zikinduak nituela. Odol horretatik zenbat ote zen nirea? Burua taupadaka nuen, gero eta indartsuago. Ziri zorrotz bat bezalako minak matraila zulatzen zidan: sua bezain beroa, izotza bezain hotza. Ikusmena bikoizten zitzaidan, enfokatu eta berriz lausotzen zen. Ezin nituen trenaren soinuak aditu nire belarrietako burrunbaren gainetik.

14. karrikan atera nintzen trenetik. Ruth ikusi nahi nuen. Hil behar banuen, ulertuko ninduen norbaiten besoetan egon nahi nuen. Baina banekien eszena izugarria izaten ahal genuela ospitalera elkarrekin joanez gero. Beharbada, bakarrik joanez gero, eta kamiseta kenarazten ez bazidaten, lagunduko zidaten.

Inor ez zen niregan ohartu hasieran, St. Vicent's Ospitaleko ate bikoitzak gurutzatu nituenean. Gero, eskuak niregana luzatu zizkidaten, gidatu ninduten. Erizain batek aurpegia aztertu zidan inprimakiak eman bitartean. Identitate bat asmatu nuen, aseguru zeukan eta lokalizatua izatearen beldurrik ez zuen batena. Zenbat denbora beharko zuten nire gezurrez ohartzeko?

Beste erizain batek atsegin etzanarazi ninduen. Zorabio handia sentitu nuen. Doktoreak eta erizainak ohatila gainera makurtu, eta begira-begira jarri zitzaizkidan. Zer ikusiko ote zuten? Sapaia mugitzen hasi zen. Norabait ninderamaten. Oroitzen naiz nola begiak ireki eta ikusi nuen doktore bat nire ahoa josten. Ez nion utzi nahi, baina geldirik gelditu nintzen. Buruak min ematen zidan.

Begiak berriz ireki nituenean, erizain bakarra zegoen gela, karpeta batean idazten. Esertzen saiatu nintzen. Niregana etorri, eta geldiarazi ninduen.

—Lasai —xuxurlatu zidan. Begiradan beldurra nabaritu zidan— Badakizu non zauden?

Nik baietz esan nion buruarekin.

—Hona etorri zarenetik kordea galtzen eta kordera etortzen ibili zara. Matraila hautsia daukazu. Hurrengo bi hila-beteetan irabiaki pila edanen dituzu. Burua bendatuko dizugu. Garuneko kommozioa duzu. Doktorea X izpien emaitzen zain dago. Beharbada medikuak nahiko du gaua ospitalean eman dezazula, behaketapean egoteko. —Aurpegia eta burua handituak sentitzen nituen.

Irribarre atsegina zuen.

—Polizietako batek lagunduko dizu polizia txostena betetzen.

Begiak zabaldu zitzaizkidan beldurrez.

—Legeak hala agintzen du —esan zuen—. Zu zaude etzanda orain. Ez saiatu altxatzen. Hemendik denbora batera etorriko naiz.

Alde egin bezain laster zutitu nintzen. Gela biraka hasi zen nire oinen ardatzaren inguruan. Enfokatzeko zailtasuna nuen. Burua ez zebilkidan ongi.

Laster ohartuko ziren ez nuela aseguratik. Noiznahi, polizia bat iritsiko zen. Emanen nion azkeneko datua ere gezurra izanen zen. Oraindik ere generoko legez kanpoko nintzen: poliziarekin nuen edozein topaketa buka zitekeen haien zaintzapean nengoela. Izutu egin nintzen. Ihes egiteko ordua zen. Diru zorroa miatu nuen. Nahikoa eta sobera nuen taxiz etxeratzeko.

Larrialdietako aretoa hain kaotikoa zegoen, inor ez zen ohartu alde egiten nuela. Kanpoko haize bolada hormatuak on egiten zidan aurpegi hanpatuan, baina buruko larruazalean min ematen zidan. Behaztopaka 14. karrikako izkinara iritsi, eta taxi bati keinu egin nion. Gidariak atzeraka begiratu zuen.

—Nora, laguna?

Ezin erantzun nik. Kopeta zimurtu zuen.

—Nora, jauna?

Ezintasunez, eskuak mugitu nituen.

—Mozkorra al zaude edo?

Ruth. Ruthengana joan nahi nuen. Keinuka, erakutsi nion hortzoiak alanbrez loturik nituela.

—Kaka zaharra —esan zuen.

Idazteko imintzioa egin nuen. Koaderno bat eman, eta helbidea idatzi nuen. Gidatu bitartean, atzerako ispilutik begiratzen zidan.

—Zer pasatu da? —Sorbaldak goratu nituen—. Egia, ezin hitz egin duzu. Ahaztu zait.

Nire eraikinaren parean gelditu zen.

—3'40 dolar izanen dira —esan zidan.

Bost eman, eta soberakoa hartzeko keinua egin nion.

Ruthen besoak ziren buruan nuen gauza bakarra. Baina haren atera iritsi nintzenerako, zalantza egin nuen. Apartamentuan zela aditu arren, ez nuen atean jo. Isilik, neronen apartamentuko giltzak atera nituen. Odol gatzatuz zikindurik zeuden. Arnasa lasaitu nuen, beldurturik, ea itota hilen ote nintzen baldin gora botatzen banuen. Atea itxi, eta berehala kaxka jo zuten. Ruth behar zuen. Geldirik gelditu nintzen, eta ez nintzen mugitu harik eta alde egin eta bere atea itxi zuen arte.

Zergatik? Zergatik nuen halako beldurra hura ikusteko? Haren behar handiegia nuela erakustearen beldur nintzelako? Eta gehiegi eskatzen banuen, zer? Eta niregandik aldentzen bazen? Eta galtzen banuen?

Hala ere, harengana joan nahi nuen. Haren aurrean be-launikatu nahi nuen eta ezkuta nintzala eskatu, babespean izan nintzan. Nahi nuen haren maitasunak minetik babes nintzala. Beste deus baino gehiago, besarkatua izan nahi nuen. Baina eskatzeko beldur nintzen.

Buruak min eta min eta min ematen zidan. Ezin nituen matrailak ireki. Ikarak azidoak bezala erretzen zidan zintzurra. Klaustrofobia sentitzen nuen, neure buru barnean harrapatua. Kaskezurra taupadaka nuen, eta gela alde batera makurturik zegoen, Crystal Beacheko irriaren etxea bezala. Unetxo batez, askoz izu handiagoa eman zidan behar nuena ez eskatzeak ukoa

jasotzeak baino. Haztamuka, nire atea ireki nuen. Zanpateko batez itxi nuen ateratzean, eta Ruthen aterantz amildu nintzen, eta ukabilez jo. Erantzuten ez bazuen, ausardia joanen zitzaidan.

Ruthek atea ireki zuen, modaz pasatutako mandar horia soinean. Azkeneko ile gorri-gorria ere baztertu zuen bere begi ikaratuetatik. Kokotsa minez eta dardarka nuen. Hitz egiteko eginahala egin nuen. Hortzoiak ikusi zizkidan alanbrez loturik. Ruthek esku bat luzatu zidan, sukaldarantz eraman, eserarazi ninduen. Saiatu nintzen bi hitz errepikatzen behin eta berriz, baina ezin ulertu zidan.

Koaderno bat eta lapitza ekarri zizkidan. Ezin hartu nuen lapitza eskuineko esku handituarekin. Plater xukaderatik labeko erretilu zahar bat atera, eta Crisco lata bat ireki zuen. Gurin geruza lodi bat zabaldu zuen aluminio gainean, eta mahai gainean paratu zuen, nire aurrean. Ezkerreko hatz erakuslearekin idatzi nituen errepikatzen aritutako bi hitzak: *Lagunduko didazu?*

Ruth parean belaunikatu zitzaidan, eta burua nire altzoan ehortzi zuen. Hain kiraski egin zuen negar, saiatu nintzen hura kontsolatzen, ilea laztanduz eta haren soingain zabalak estaltzen zituen mandar loreduna leunduz.

—Honengatik ez nizun utzi nahi nire bizian sartzen — hark, negar zotinka—. Banekielako ikusi beharko nuela. Niri pasatzen zaidanean ez dut begiratu beharrik. Baina zutaz arduratzen banaiz, ikusi egin behar dut. Ikusten dut eta ez dut nahi.

Haren hitzek nire beldur handiena berretsi zuten: gehiegi eskatu nuen. Poliki zutitu, eta aterantz jo nuen zealdoka. Ruthek eskua atean jarri zuen.

—Jess, eser zaitez. Nora zoaz?

Begiak lehortu zituen eskuaren atzealdearekin. Lasai begiratu nion, ukoaren krisia ezkutatuz.

—Maitea. —Masaila laztandu zidan—. Asko sentitzen dut. Besterik gabe, ez nuen nahi zuri gertatzea. Zatoz, maitea. Mese dez. Zatoz.

Logelara eraman ninduen. Begiak babestu nituen leihotik heldu zen eguzki argitik. Pertsianak jaitsi zituen.

Ruthek ohatzean etzanarazi ninduen. Burkoaren bazter brodatuak nabaritzen nituen masailean. Buruko mina are handiagoa zen etzanda. Eseri egin nintzen, zergatia esplikatu ezinik.

Ruthek buruaren atzeko alde akitu zidan. Min keinua egin nuen. Bere eskuari izaturik begiratu zion. Odola zuen.

—Jess —xuxurla batean—, beldur naiz.

Begiak erdi itxi nituen, beste uko baten zain. Ruthek nire eskua bereen artean hartu, eta hatz-koskor bakoitza musukatu zuen. Ez nuen heriotzaren beldurrik, haren ohatzean eta nire eskuak bereen artean.

Goxo, neure burua haren gorputzaren kontra estutu zuen. Min ematen zuen, baina haren hurbiltasuna behar nuen. Ahotsa apaldu zitzaion, xuxurla batean bezala:

—Behin irakurri nuen, *drag queen*en aldizkari zahar batean, nola oso aspaldian gu bezalako jendea ohoratua zen. Ahalmena banu, Jess, zu hartu eta hara eramane zintuzket, nik adina zainduko zintuzkeen jendearekin. Jakinen nuke seguru egonen zinela, eta maitatua.

Esertzen saiatu nintzen.

—Zaude nire kontra, Jess. Atsedena behar duzu.

Burua haren bularrezurrean jartzen saiatu nintzenean kexa egin nuen. Ruthek ongi jarri ninduen burkoekin. Nire izterren artean bildu-bildu zen eta bularra laztandu zidan bere esku zabalarekin.

—Xxx —esan zuen—. Badakit zu ere ikaratua zaudela, baina dena ongi aterako da. Makurrena izaten da burua zauritzen didatenean. Beti izaten dut beldurra pentsamenduak galduko ditudala, oroitzapenak. Beldur izaten dut neronen izaera galduko ote dudana. Hala sentitzen zara? —Masailetatik malkoak lehortu zizkidan.

Begiak kliskatu, kontzientziara itzuli, eta baiezko keinua egin nuen. Ruthek masaila nire bularraren kontra zuen, eta estu hartua mindukan.

—O, Jess. Nahiko nizkizuke mahastiak erakutsi. Nahiko nuke mahatsak usaindu ahal izatea udazkeneko airean. —Ruthek begirada niregana altxatu, eta irribarre egin zuen—. Noizbait mahats tarta egingen dizut. Anne amonaren eta gure amaren ondotik nik egiten dut ibarreko mahats tartatik hobereana. —Mahats tarta ez zitzaidan oso erakargarria, baina ez zuen inporta une horretan.

Ruthek bere ahotsaz hipnotizatu ninduen.

—Hura dena erakutsi nahiko nizuke: nola muinoak aldatzen diren sasoiekin batera. Neguan, osaba Dalek zuhaitz bakoitza zer den esan zezakeen, zeruaren kontra zuen silueta ikustearekin bakarrik. Baina mahastiak ziren udaberriaren etorreraren berri ematen zigutenak. Ez genuen ezagutuko desiozoten ari den lurraren usaina, ez bazen egin beharra genuen lanarengatik. Gizonek mahastiak inauten zituzten, eta guk algarrobozko zutoinetara lotzen genituen.

—Emakume guztiak elkarrekin lanean mahastietan: nire biziko garairik hoberenak, Jess. Ongi aski dakit lan gogorra zela mahats saski pisu haiek eramatea. Baina gogoan dudan guztia da nola aritzen ginen elkarrekin solasean eta irriz. Bazirudien istorio guztiak berdin hasten zirela: «Oroitzen aldi hartan nola...»

Ruthek begirada altxatu zuen, ziurtatzeko iratzarrita nengoela.

—Zortzi edo bederatzi urte nituela, osaba Dale saiatu zen ni gizonekin eramaten, mahastiak kimatzera. Baina amak ezetz esan zuen. Berak, izebak eta amonak berekin eraman ninduten lanera. Jadanik bazekiten nire izaera zein zen.

Buru barnean mina handitu, eta zurrun jarri nintzen. Ruthek nire bularra laztandu zuen, mina apaldu arte.

—Gogoan dut nola osaba Dalek amari esaten zion gizon bat behar nuela inguruan. Oso gazte nintzela hil zen aita. Dale etortzen zen ni ehizara eramatera. Batez ere oihanean ibili egiten ginen. Erakutsi zidan Bare Hill errespetatzen: Seneca nazioaren jaioterria. Gobernuak errepide bat egin zuen hango hilerrien erdi-erditik.

Kontua da ni zenbat eta gehiago handitu, Dalek gero eta atsekabetuagoa zirudiela nire izaerarekin. Bistan zen ez nintzela batere maskulinoa, eta nik uste sentitzen zuela bere hutsa zela. Udaberriko egun batez, Bare Hillen barna genbiltzan. Hodeiak agudo mugitzen ziren, beren azpiko ibar eta aintziretan itzalak hedatuz. Osaba Dalek hain atsekabeturik zirudien nirekin, uste bainuen utziko ziola ni txango haietara eramateari.

Muino baten goiko aldean gizon bat ikusi nuen, ile luze eta marroi iluna zuena, humusaren antzekoa. Egunen batean erakutsiko dizut zer lur motari esaten diogun humusa: oso emankorra eta ederra da. Solasean gelditu ziren. Orduan Dalek nire alderako keinua egin zuen buruaz, eta esan zuen: «Saiatzen ari naiz mutikoari gizon izaten erakusten.» Haren ahotsarengatik bazirudien hutsegina zuela jada. Oso lotsatua sentitu nintzen hantxe, eze-

zagun batek osabaren desilusia aditzen zuela, nik aditzearekin batera. Baina gizonak eskua osabaren soingainean jarri, eta esan zuen: «Utzi lasai haurra.» Minutu baten buruan, Dalek beherantz begiratu, eta baiezko keinua egin zuen. Handik aurrera diferente begiratu zidan, lehenbiziko aldiz ikusi izan banindu bezala.

Ruthek negar egin zuen isilka nire sabelaren kontra. Hatzak haren ile artean pasatu nituen.

—Hainbeste irrikatzen nuen hark ni maitatzea. Eta horren ondoren maitatu ninduen. Banekien nitaz arduratzen zela lehenagotik ere, baina ez nuen uste gauza izanen zenik onartzeko ez nintzela gizonduko. Baina egun hartatik aurrera ez genuen ehitatzeko itxurarik egin gehiago. Ibiltzera joaten ginen. Mendixka haiek maite zituen beste edozeinek baino gehiago. Oso harro nengoen ni leku haietara eramateaz.

Kleenex bat hartu, eta zintz egin zuen.

—Gauza bitxi bat aditu nahi? —irribarrez—. Urteak geroago oroitarazi nion nola topatu genuen gizon hura muino hartan, eta esan zidan ez zela inoiz halakorik gertatu. Esan zuen izan behar zuela mendixka haietan ibiltzen den Senecatarren espiritu bat. Ez dakit seguru egiaz gertatu zen. Jakin badakit zerbait aldatu zela Daleren eta nire artean egun hartan, eta badakit harrentzat gogorra zela onartzea.

Burua pixkaka biratu nuen burkoaren kontra, kaskezurrean minik ematen ez zuen toki bat topatu arte. Begiak kliskatzen ari nintzen.

—Jess, egin ahalegina iratzarri egoteko, maitea. Mesedez. Iratzarri, Jess. —Hori da kordea galdu aurretik aditutako azkeneko gauza.

Hurrengo egunetan kontzientzian sartu-atera ibili nintzen. Emakume bat etorri zen logelara Ruthekin batean. Haien eskuak nire gorputzean, hobeki sentitu nintzen. Ruthek ongi jarrarazi zidan burkoekin, bitartean beste emakumeak buruko tokiren bat garbitzen zidala, min handia emanaz. Bukatu ondoan, buru guztia bendatu zidan gazaz. Ruthek esertzen lagundu zidan, eta lasto batetik edanarazi. Ikusi nuen nire odola dena barna zegoela: esponja arrasto borobilak ohatzearen atzeko paretan, Ruthen burko azal brodatu ederrak orbainez bustiak.

Egunak iraganda, aditu nituen Ruthen negarrak, josteko makinaren marmar egonkorra ordeztuz. Erdi korderik gabe

egonda ere, banekien Ruthi gehiegi eskatzen ari nintzaiola. Nire odola dena barna zabaldua zegoen haren bizian, eta orbainak ez ziren garbituko.

Goiz batez haren ezpainak sentitu nituen kopetan, eta begiak ireki nituen. Nire matrailaz ahazturik, hizketan saiatu nintzen. Ezin izan nuenean, nire aurpegiari heldu nion eskuekin. Bere eskuak nireen gainean jarri zituen.

—Ongi da, maitea. Hobetzen ari zara. Begiraidazu. Utzidazu begietara begiratzen.

Burua esku artean hartu zidan, kristalezko bola bat balitz bezala. Haren aurpegiera ikusi nuenean, nire baitan galdegin nuen zerk pentsarazi ote zidan haren maitasuna eskatu beharra nuela.

Begirada jaitsi zuen.

—Gauza izugarri bat egin dut. Jess, lagundu nahian egin dut. Ausartu naiz zure etxean sartzera eta zure lantokiaren izena topatu dut, sukaldeko mahaian dituzun txeke gordekinetan. Bururatu zait ezen, deitzen banuen gaixorik zeundela esateko, beharbada lanari eutsiko zeniola. Esan diet karrikan ebatsi eta eraso egin dizutela eta aste bat edo bi faltatuko zinela. Jess, zutaz emakume gisa hitz egin dut. Ez dut pentsatu. Aditu dute. Asko sentitzen dut. Badakit horrek esan nahi duela lana galarazi dizudala.

Ruthek aurpegia laztandu zidan.

—Badakit oso haserre egonen zarela nirekin.

Ezetz egin nuen buruaz. Akats bat besterik ez zen. Duffy-rengan pentsatu nuen, sindikatuko antolatzailea, gauza bera egin baitzuen, eta atzera eginez barkatu nion.

Eskuz keinu bat egin nuen, idazteko zerbait eskatzeko. Ruth joan, eta paperarekin eta lapitzarekin itzuli zen. Eskuineko eskua zurruna eta minberatua nuen, baina idatzi nituen hitzak uler zitezkeen; biziak beste aukera bat eman zidan mezu hori adierazteko. Ruthek ahots goran irakurri zituen: *Eskerrik asko zure maitasunagatik*. Eta elkarrekin negar egin genuen.

•••

Arte grafikoetako lanen agentziara joan nintzen eta, idatziz, adierazi nuen lan bila nenbilela. Gau hartan berean hasi nintzen lanean. Orduan ohartu nintzen tipografo baliotsua bihurtu nintzela. Hilabete eta erdi falta zen Eguberrietarako,

eta hirugarren txandak nekez egiten ahal zion aurre iragarki agentziek bidalitako lan gaitzari. Eskaintzen zuten aparteko lan gutzia onartu nuen. Diru puska bat behar nuen, eta laster.

Gauetz kode-ilaren artean bizi nintzen, nire aurpegia terminalaren argi espektralak argitua. Kode-esaldiak bihurtu ziren nire poesia. Espazioan karaktereek zituzten bihurtu kantatu egiten zidaten: melodiak zuen esanahi osoa, hitzek zeresan gutxi zuten.

Egungo gimnasioan entrenatzen nintzen, eta buruko taupadek beldurtzen nindutenean bakarrik gelditzen nintzen. Nire borondatea behartu nuen gorputzean barnago bizitzera. Iaketa nire amorrazioak eta frustrazioak ezin zuten ihes egin nire matrail itxietatik, giharren bidez egiten nuen oihu. Uste nuen amorrazioz lehertuko nintzela. Hasieran, gimnasioan aritzeak presioa murriztu zuen, baina handik denbora batera entrenamendu eroak presioaren zati bihurtu ziren. Denbora bonba bat ziren, tik-tak, tik-tak, lehertzeak.

Ez nuen lo askorik egiten; ordu gutxi batzuk goizean eta arratsalde bukaeran. Kordea galtzearen beldur nintzen, berriz ez iratzartzearen beldur.

Bazirudien Ruth kezkatu zegoela apartamentutik kanpo denbora asko ematen nuelako. Hala uste dut, ikusita nolako arindua erakusten zuen haren aurpegiak egunero, haren atea josten nuenean harekin egoteko.

—Nora joaten zara? —esaten zuen hasperen eginez, proteina irabiaki bat zerbitzatzen zidala. Uste dut ez zuela erantzunik espero.

Urduritasunak Far Rockawayko hondartzara eraman ninduen abenduko goiz hotz batean. Hondartzan paseoan ibili bitartean, pentsatu nuen nola beldurrak eta isiltasunak nire matrailak soldatu zituen nire biziko zati handi batean, ni ohartu gabe. Isiltasunak hil ote zuen Rocco, eta maiordomo anonimoa, horiek ere pixkaka. Zer esanen nuen, matrailak itxirik zituzten alanbreak moztutakoan?

Eguberrietako asteburua baino bi egun lehenago, gaueko txandako arduradunak behar nuen azkeneko txeketa eman zidan. Goizean, txeketa kobratzeko bulegora joan nintzen, enpresako nire txartela erakutsi, eta behar nuen diruarekin aterako nintzen, Ruthi oparia erosteko.

Gordeka, jantokian sartu nintzen irteera fixtatu gabe, eta izkinako bi janari makinaren artean sartu nintzen, nire ezkutaleku maiteena baitzen lantokian, eta burua paretaren kontra bermatu nuen, kontuz. Buruko minak arinagoak ziren, baina oraindik ere beldurtzen ninduten.

Marija eta Karen, biak tipografoak, aditu nituen jantokian sartzen, irriz.

—Diru xeherik baduzu? —Marijak. Oso geldirik egon nintzen, harrapatua izatearen beldur.

Marijaren eskuak beti jabetzen ziren nire arretaz. Jende batek bere eskuak arrastatu egiten ditu bizian, zama pisuak bailiran; beste batzuek eskuekin hitz egiten dute. Baina Marijaren eskuak desberdinak ziren. Komunikatzen bazuten ere, bazirudien ahozko elkarrizketaz arras bestelako elkarrizketa zeramatemala. Beste tipografo batzuekin solasean ari zela, urduri irri egin eta ezpaina hozkatzen zuen. Baina eskuak lasai izaten zituen. Haren hitzak oso mingarriak izaten ahal baziren ere, haren eskuek lankideen gune minberatuak topatzen zituen, soingainetan edo lepoan. Esku aparteko horiek irudikatzen nituen nire burua laztantzen, nire lepoa ferekatzen.

—Esaten dizut nazkagarria dela —Marijak—, niri begiratzeko duen modua.

—Nortaz ari zara? —galdegin zuen Karenek.

Hasperen egin zuen Marijak.

—Inoiz hitz egiten ez duen gizonaz: Jessez. Esaten dizut, niri begiratzeko duen moduak beldurtu egiten nau.

Karenek irri egin zuen.

—Beharbada bero-bero jarriko duzu.

—Ajjj! —Marijak—. Haragi zati bat banintz bezala-edo begiratzen dit.

—Ez da arriskugarria —Karenek, irritxo batez.

—Ez dakizu —Marijak erantzun.— Psikopata bat izan daiteke.

Karenek eten egin zion.

—Oso femeninoa da. Gaya behar du izan.

Alde egiten aditu nituen.

—Esaten dizut —bururatu zuen Marijak—, kontu izateko horietako bat da.

Ikusi nuen Marijaren eskua goxoki pausatua Karenen bizkar txikian. Begiak itxi, eta itxoin nuen, joanak zirela segurtatu arte. Eta lantegitik atera nintzen, jakinda ez nintzela inoiz itzuliko.

Ettxera iritsitakoan, komuneko ispilua hartu, sofaren kontra bermatu, eta guraize eta pintza batzuk hartu nituen. Lasto batekin, whisky hurrupa handi pare bat egin, eta nire hortzoiak itxita zeuzkaten alanbreetako bakoitza moztu nuen. Zati bakoitza mugimendu seguruz atera nuen, tirta zaharrak erauzten nituen bezala: ez agudo, ez mantso, mugimendu irmoz. Behin seguru nengoela hortzoietakoa azkeneko zatia ere kendu nuela, ahoa whiskiz garbitu nuen, eta gero gainerakoa edan nuen, lo egin ahal izateko, gogoratu gabe nola Marijaren hitzek nire jendetasunaz gabetu ninduten.

Iratzarritakoan, 34. karrikaraino joan nintzen oinez, erosle saldoaren artean nire bidea eginez, gudari batek bezala. Zehazki nekien zer behar nuen. «Josteko duzun makinariak hoberena», idatzi nuen paper zati batean, eta saltzaileari eman nion. Eta orduan ohartu nintzen jadanik ez nituela matrailak loturik. Isiltasuna ohitura bihurtua zen.

Erakusgai zeuden modeloetarantz eramán ninduen. Denek antzeko itxura zuten: batek izan ezik. Ez nuen josten, baina huraxe zela jakin nuen seinalatu bezain laster. Motor batena bezalako distira zuen. Saltzaileak hitz egin zidan zeuzkan gailuez eta harekin egin nitzakeen hamaika gauzez. Irribarre egin nuen, deus ulertu gabe. Jada Ruth ikus nezakeen makina zoragarri haren gainean makurturik, ehunetan bere magia josten. Eskudirutan pagatu bitartean poz-pozik sentitu nintzen; aspaldi sentitzen ez nuen sentimendua.

Itzuleran, makina jendeketaren artean neramala, elur ari-ri ari nuen. Taxi bati keinu egin nion.

Ettxera iritsi bezain laster apartamentua amorrazioz garbitu nuen. Etxea garbi-garbia gelditutakoan, ohartu nintzen ni zikin-zikina nengoela. Dutxa luze eta beroa hartu nuen, urari utziz nire matrailak lasai zitzala, ez zezaten klik egin ahoa irekitzen nuen aldiro. Lehortu, eta jantzi nituen kamiseta zuri garbi bat eta galtza txinatar kaki batzuk. Ilea orraztu bitartean, neronen buruari begiratu nion sukaldeko ispiluan. Nire begiek hain tristeak ziruditen, ezin nion nire begiradari eutsi. Gogoan nuena baino askoz zaharragoa nirudien. Hatzak pasatu nituen

nire soingain, bular eta besoetako giharretan. Halako batez, gimnasioan emandako ordu luze haiek bizirik irauteko nire setaren froga ziruditen. Neronen buruari opari bat bidalia nion: gorputz baten oroitzapena, neure buruaren oroitzapena.

Grand kalean, oparitarako eskuz egindako paper txinatarra aurkitu nuen. Behar nuena seinalatu nuen. Oraindik ez nuen hitzik egiten.

Esan nituen lehenbiziko hitzak Ruthentzat izan ziren. Haren atean jo nuen, Eguberri bezperan.

—Jess, non zeunden? Ederki beldurtua nengoen. Sartu. Tanya eta Esperanza hemen daude. —Ez nintzen mugitu—. Ongi al zaude? —Kezkatua zirudien.

Matrailak poliki mugitu nituen.

—Ruth. —Begiak malkoz bete zitzaizkion nire ahotsa aditzean—. Eskerrik asko —esan nion—. Eskerrik asko niregatik egin duzun guztiarengatik.

Gure kopetak elkartu genituen.

—Sentitzen dut —esan nuen—. Badakit izugarri eskatu dizudala.

—Ixo —xuxurlatu hark.

—Ruth, maite zaitut.

—Xxx, badakit. —Aurpegia bi eskuekin hartu zidan—. Nik ere maite zaitut, maitea.

Ruthek bere gorputzaren kontra estutu ninduen. Elkar besarkatu genuen; sekula ez ginela askatuko zirudien.

—Ooo, eman niri pixka bat —esan zuen Tanyak—. Sartu barnera, mutikoa.

Ruthek, irribarrez, ezezko keinua egin zuen.

—Jess M-neska da —esan zion Tanyari. Hitz hori urte luzez aditu gabea nintzen. M-neska: hori zen *femmeek* jendaurrean erabiltzen zuten kode hitza, mari-mutilei deitzeko, entzunak izatearen beldur zirenean. Oraindik ere baziren gauza asko Ruthez ez nekizkienak.

—Ooo, maitea —Tanyak goitik behera begiratu zidan mi-resmenez—. Zuregatik beste aldera pasatuko nintzateke, neska.

Ruthek Esperanza aurkeztu zidan.

—*Mucho gusto* —xuxurlatu zidan Esperanzak, Ruthena eta nirea bezain konplexua zen ahotsarekin. Zuhaitza apaintzen ari gara. Lagunduko diguzu? —Apaingarri bat eman zidan.

Irribarre lotsatia egin nuen.

—Ez dut halakorik inoiz egin.

Esperanzak kopeta zimurtu zuen.

—Ez duzu inoiz Eguberrietako zuhaitz bat apaindu? —
Ezetz, nik—. Ez al zenuen Eguberriarik umea zinela? —Berriz ere
ezetz esan nion—. Sobera pobreak?

Irri egin nuen. Matrailak klik egin zidan erantzutean.

—Sobera juduak.

Ruthek apaindu berri zuen galleta bat eskaini zidan.

—Oraindik bero dago, beraz beratza dago. Jengibrez egina.
Probatu. Hozka bat bakarrik. —Dastamena birdeskubritu nuen—.
Galletak egiten ari gara, ospitalean HIESarekin dauden lagunentzat.

Ordura arte iruditu zitzaidan epidemia niregandik milioi
bat miliatara gertatzen zen zerbait zela.

—Zuekin joan naiteke? —galdetu nuen.

Hasperen handia egin zuen Ruthek.

—Bai, nahi izatera.

Tanyak katilu bat eskaini zidan.

—Tanyaren pontxe hiltzailea da. Honek ez badizu jai-espi-
ritua pizten, deusek ez dizu piztuko.

Ruthek eskuak mandarrean lehortu zituen

—Kontuz horrekin.

Tanyak aurpegi-keinua egin zion.

—Ez egin kasurik. Bera Bill W-ren¹¹ laguna izateak ez du
esan nahi guk harekin bat egin behar dugunik.

—*Drag queenen* klub batera joanen gara gero, gauean. Eto-
rri nahi duzu? —Esperanzak. Ruthi begiratu nion. Irribarre egin,
eta sorbaldak goratu zituen.

—Dantza pistan zirri egiten erakutsiko dizut, maitea —
esan zidan Tanyak.

Irri egin nuen.

—Nik erakutsiko dizkizut pare bat gauza dantza pistan.

—Jainkoa, erruki zakizkigu. —Tanyak haizea egin zion
bere buruari, bere esku handiarekin—. Hil nazazu orain.

Esperanzak irribarre egin zuen.

—Lehengo esklaboen dantza bat erakutsiko dizut, merenguea.

Ruthen opariaz oroitu nintzen.

¹¹ Alkoholiko Anonimoen sortzaileetako bat.

—Berehalaxe heldu naiz —esan nuen.

Opari errektangular pisua egongelara ekarri nuenean, Ruth sofan eseri zen astun, berri txarrak jaso balitu bezala.

—Zuretzat da —nik, irribarrez.

—Ireki ezazu, neskatoa —premiatu zuen Tanyak.

Ruthek ezpain bat hozkatu zuen.

—Ez zenuen halakorik egin behar.

Nire maitasun guztia zegoen nire irribarrean.

—O, ixo.

Hasperen egin, papera kontuz ireki, tolestu, eta alde batean utzi zuen. Josteko makinaren estalkia kendu zuenean, Ruth airerik gabe gelditu zen. Ikusita nola pasatzen zituen hatzak makinan, banekien zeinen pozik zegoen.

—Traje bat eginen dizut —xuxurlatu zuen.

Irribarre zabala egin nuen.

—Egiaz?

Ruthek baietz egin, eta hatz-koskorak hozkatu zituen. Zutitu, eta erdizka apainduta zegoen pinurantz joan zen.

—Hau zuretako da —bi fardel xabal eman zizkidan.

Liburu bat zen, *Ameriketako gayen historia* izenekoa. Eskuak dardarka pasatu nituen orriak.

—Begira. —Ruthek liburua nire eskuetatik hartu, eta aurkibidera jo zuen—. Oroitzen zara nola esan nizun *drag queen* aldizkari zahar batean irakurria nuela gu bezalako jendea ohoratua zela? Ikusazu atal hau, dena Ameriketako indiarren jendarteei buruzkoa. Baina zaude, begira hau. —Beste orri batean ireki zuen liburua.— Atal hau osorik da zu bezala gizon gisa bizi izan ziren emakumeez.

Malkoek ikusmena lausotu zidaten.

Esperanzak izenburuari begiratu, eta ezezko keinua egin zuen.

—Gustatuko litzaidake gu beti gayen multzoan ez sartzea.

Ruthek gaia aldatu zuen, ohi zuen bezala. Zetazko paper gorritz bildutako fardel bat eman zidan.

—Zabaldu hau.

Barnean zegoen akuarela bat, emozioz betetako aurpegi batena, milaka izarri begira. Aurpegi ederra zen, inoiz ikusi gabe nuena. Nire aurpegia zen.

—Utzidazu ikusten, maitea. —Tanyak hartu zuen—. Ooo, Ruth. Oso polita da. Bera bezal-bezalakoa da.

—Ruth —azpiko ezpaina hozkatu nuen,— egiaz al naiz honelakoa?

Buruaz baietz egin, eta malko artean irribarrez esan zuen:

—Uste nuenean hil zintezkeela, hasi nintzen zure aurpegiaren zirriborroa egiten. Nahi nuen zure oroitzapena baino zerbait gehiago izan zutaz. Begiak itxirik zenituen, baina nireak itxiz gogora ekartzen ahal nuen nola aldatzen den zure begien kolorea argiarekin.

Ruth ondoan eseri zitzaidan sofán. Elkar besarkatu, eta kulunkatu ginen. Esperanza eta Tanya lurrean eseri ziren gure ondoan.

Kokotsak min ematen zidan eta dardarka nuen.

—Badakizue —esan nien—, zuen bila ibili naiz denbora luzez. Ezin sinetsi dut azkenik topatu izana. —Ruth estu-estu hartu nuen besoetan, eta biek ere negar egin genuen.

Esperanzak eskua izterrean jarri zidan.

—Badakizu zer esan nahi duen nire izenak?

Ezetz, nik.

—Ez, baina polita izanen da, seguru.

Irribarre egin, eta seguru eta irmo begiratu zidan.

—Esperanzak —azaldu zidan—, itxaropena esan nahi du.

24

Udaberriko lehenbiziko eguna zen: hiri honetako jende guztia ados jartzen da pozik egoteko aldi berean; egun bat non badirudien azkeneko emakume, gizon eta haurra ere flirteatzen ari dela nire desberdintasunarekin. Union Squareko nekazarien merkatuan nenbilen ikusmiran, denbora pasan. Eguzkia erai-kinen atzeko aldean ezkutatu zen, uharteko mendebaldean. Ruthek agindu zidan etxera ez iristeko arratsaldearen bukaera arte. Nire oparia zein zen jakiteko ordua arte.

Neronen apartamentuko atean jo, eta Ruthek erantzun arte itxoin nuen. Eskuak trapu batean lehortu, eta logelara eram ninduen.

—Itxi begiak —premiatu ninduen.— Oroitzen nola esan zenidan nahi nuena egin nezakeela?

Irribarre egin, eta baietz esan nuen.

—Ongi da, ireki begiak.

Ingurura begiratu, gero sabaira... eta han zen.

Ohatzean eseri, eta etzan nintzen, sabaira begiratzeko. Ruthek beltz belusatuz margotu zuen, ezagunak zitzaizkidan konstelazioen puntutxo betetik. Iluntasuna argitasun bihurtzen zen, pixkanaka, bazterretan. Zuhaitzek zeruaren kontra zituzten siluetak ikusten ziren.

Ruth ondoan etzan zitzaidan.

—Gustatzen zaizu?

—Sinestezina da. Ezin sinetsi dut zerua oparitu izana, azpian lo egin dezadan. Baina ezin asmatu dut egunsentia edo arratsa den pintatu duzuna.

Irribarre egin zuen gora begira.

—Edozein. Biak. Ezinegona sortzen dizu?

Baiezko keinua egin nuen, mantso.

—Bai, irrigarria bada ere, bai.

—Pentsatu nuen hala izanen zela —hark—. Hori da nire barnean onartu beharra dudan zerbait. Pentsatu dut beharbada zuk ere hori onartu beharko duzula.

Hasperen egin nuen.

—Egiaz zaila egiten zait jakiterik ez izatea ea pintatu duzuna egunaren edo gauaren hasiera den.

Ruth niregana biratu, eta eskua bularrean paratu zidan.

—Ez eguna ez gaua ez dira etortzekoak, Jess. Beti izanen da aukera infinituko une hori, biak elkar lotzen dituen.

Ruthen aurpegia nire aurpegitik oso hurbil nuen. Gure arnasan simetriaz ohartu ginen. Eskua nire gorputzean barna pasatu zuen, mantso, bularretik sabelera. Begirada jaitsi zuen. Azpiko ezpaina hozkatu nuen.

—Beldur naiz —ahots goran egin ez zuen galderari erantzun nion.

—Zergatik? —galdetu hark—. Ez naizelako ez gau ez egun?

Begiak estu-estu itxi nituen. Banekien zintzoa ez banintzen galdu eginen nuela; banekien zintzoa izanez gero gal nezakeela.

—Bai —esan nion—. Alde batetik bai. Oroitzen zara zure teoria geometrikoaz? Bikoitza baino, hirukoitza?

Ruth biratu, eta ahoz gora gelditu zen.

—Ez dut proposatzen karrikan egin dezagula.

Nire zeruari begiratu nion.

—Badakizu zer esan nahi dudan. Baina zati bat besterik ez da. Egia esan behar badut, beldurtzen nau ez gau ez egun ez den batekin egoteak. Esanen nuke nirekin egondako *femmeek* ainguratu egiten nindutela. Normala izatetik inoiz baino hurbilago sentitu nintzen haiekin.

Ruth nire besoan bildu zen.

—Eta zu zer zinen, haren egunsentia edo arratsa?

Irribarre tristea egin nuen.

—Hasieran, haren egunsentia nintzen. Bukaerarako, haren arratsa. —Hasperen egin genuen biek.

—Egia gehiago nahi dituzu, Ruth? Nire baitan bada toki bat inoiz ukitu gabea. Beldurtzen nau zuk hor ukitzeak. Eta beldurtzen nau ez ukitzeak. Nire maitale *femmeek* ongi ezagutzen

ninduten, baina ez zituzten sekula gurutzatu nire barneko muga horiek. Saiatu ziren ni limurtzen, mugak gurutzta nitzan beren besoetara joateko, baina haiek sekula ez ziren nire atzetik etorri. Zu hortxe zaude nirekin batean. Ez dut ezkutatzeko lekurik. Horrek beldurtu egiten nau.

Ruthek irribarre tristea egin zuen.

—Ez al da irrigarria? Horrexegatik egin nahi nuke maitasuna zurekin.

Geldirik egon ginen. Haren ileari musu eman nion.

—O, Ruth, ez dut ohaidetik behar izan denbora luzez. Maitale gisa nor naizen ere ez dakit jada. Baina zuk ni uztearen beldur naiz. Ebatziko dugu bidea egin ahala? Mesedez, zaude nire bizian. Zure behar handia dut.

Ruth ukondo baten gainean jarri, eta musu eman zidan ezpainenetan.

—Nik ere zure beharra dut.

Haren eskuetako bat hartu nuen, liluraturik, ikusita nirea zein txikia zirudien haren eskuen aldean. Begirada jaitsi zuen haren hatz-koskor bakoitzari musu ematen niola.

—Matraila hautsi nuenetik asko pentsatu dut nire biziaz —esan nion—. Behin irakurri nuen gudari batzuek erabakitzen zutela, gudura joan aurretik: «Gaur heriotza aurkitzeko egun ona da.»

Ruthek irribarre egin zuen.

—Pentsamendu ausarta da, baina nik ez dut hil nahi.

Baiezko keinua egin nuen.

—Hasieran uste nuen horrek esan nahi zuela nire heriotza onartzea. Baina orain uste dut esan nahi duela nire biziari aurrez aurre begiratzea etsaiari aurre egiten ari naizenean. Beharbada hori da beldurrik gabe borrokatzeko gakoa, biziraupena helburu. Gauza asko utzi ditut bukatu gabe nire bizian. Horrek heriotzaren-ganako beldurra handitzen dit. Horrek borrokan mantentzen nau.

Ruthek kopetilun:

—Esaterako?

—Beti utzi nahi izan dut zerbait inportantea bizi honetatik alde egitean. Gogoan duzu Eguberrietan oparitu zenidan liburua?

Ruthek baietz.

—Liburutegira joaten aritu naiz, geure historia arakatzeko. Horri buruzko pilaka liburu daude antropologia liburuetan,

pilaka, Ruth. Ez gara beti gorrotatuak izan. Zergatik hazi gara hori jakin gabe?

Ruth erosoago jarri zen bere ukondoan bermaturik, eta aurpegira begiratu zidan hitz egiten nuen bitartean.

—Nire pentsatzeko modua aldatu du. Handitu nintzen ustez eta gauzak beti izan direla orain bezala; beraz, zertarako saiatu ere mundua aldatzen? Baina ikusteak noizbait desberdina izan direla, nahiz oso aspaldi izan, sentiarazi dit gauzak berriz alda daitezkeela. Kontuan hartu gabe nik halakorik ezagutzerik izanen dudan.

—Lanean, gainerako guztiak bazkaltzen aritu direnean, ni aritu naiz aurkitu dudan historia osoa inprentarako taxutzen, itxura inportantea eman nahian, niretzat den bezain inportantea. Horixe da atzean utzi nahi dudana, Ruth: aspalditik ibiltzen ari garen bide zahar honen historia. Lagundu nahi dut gure duintasuna berreskuratzen. Ruthek nire eskua bere ezpainen kontra zapatu zuen.

—Baina gehiago nahi dut, Ruth. Badira bizian egitea beldurra eman didaten gauzak. Irudi dezake txikiak direla, baina neure buruaz harro egotea eragozten didate. Gogoan duzu Al Mari-mutilaz hitz egin nizula? Jakin nahi dut zer gertatu zitzaion.

—Eta bada mari-mutil bat baztertu nuena ezin nuelako onartu beste mari-mutil batzuegana erakarria sentitzea. Uste nuen mari-mutila izateak berez zekarrela *femmeak* izatea gustuko, uste nuen bezala trabestismoak esan nahi zuela gaya izatea.

Ruthek irribarre egin zuen.

—Erraza da gaizki ulertu hori izatea. Gay tabernetan ibiltzen zinen.

Baietz esan nion.

—Bai, baina beti nahi izan nuen desberdinak ginen guztiak geronen artean berdinak izatea. Ezin sinetsi dut mari-mutil lagun bat baztertu izana maitale mari-mutil bat hartzeagatik. Frankieri esan nahi diot sentitzen dudala.

Ruthek musu eman zidan masailean.

—Beste zerbait?

Baietz esan nion.

—Bai. Badira bi haur: Kim eta Scotty. Agindu nien noizbait itzuli eta aurkituko nituela. O, eta bada beste gauza bat egin behar dudana.

Ruthek hatzak ile artean pasatu zizkidan.

—Zer?

Etzan, eta sabaiko unibertsoari begira gelditu nintzen.

—Gutun bat idatzi nahiko nioke Theresari, oraindik ere noranahi bihotzean daramadan emakumeari. Oso modu latzean bereizi ginen. Behingoan hitzak topatu nahi ditut, nahiz hark sekula ez irakurri.

Betazalak pisu sentitzen nituen. Ruth nire kontra bildu zen, aho zabalka hasten nintzela.

—Topatuko dituzu hitzak —adoretu ninduen.

Hasperen egin nuen.

—Lehenik, utzi behar dut nire oroitzapenak itzul daitezela. Alde batera utzi nituen nolabait, min ematen zidatelako. Orain, oroitu behar dut non jarri nituen.

Leihoko haizekirriak hoztu egin ninduen. Edredoaia gure gainera ekarri nuen, eta Ruthen kontra uzkurto nintzen. Bero eta seguru sentitzen nintzen haren ondoan.

—Logaleak? —galdetu zidan.

Baietz, nik.

—Egon zaitez nirekin tarte batean, Ruth. Bai?

Baiezko keinua egin zidan. Aurpegia haren lepoan ezkutatatu nuen.

Ilea laztandu, eta kopetan musu eman zidan.

—Egizu lo orain, nire *drag king* ezti horrek.

•••

Kasik eseki nuen Frankieren ahotsa telefonoaren beste aldean aditu nuenean.

—Ni naiz: Jess. Oroitzen zara nitaz, Frankie? —Esatea bururatu zitzaidan guztia zen.

Isilune luzea izan zen.

—Jess? Jesus, zu al zara egiaz? Aspaldiko.

Zintzurra garbitu nuen.

—Bai, aspaldiko. Begira, Frankie, gogo handia dut zurekin hitz egiteko. Nahi ez baduzu, entendituko dut. Baina barkamen eskaera bat zor dizut, aspaldi-aspalditik. Aurrez aurre eskatu nahiko nizuke, ikusi nahi banauzu. Orain New York Cityn bizi naiz, baina Buffalora joan naiteke.

Beste isilune luze bat.

—Badakizu, Jess? Oraindik ere zurekin haserre nago, baina ez zuk uste bezainbeste. Eta beste zerbait esanen dizut. Estimatzan dut hori esateko deitu izana. Manhattanen izanen naiz hilaren 15ean, Sindikatuaren Ikastetxean. Nahi baduzu Duchessen elkar gaitezke zerbait hartzeko, 11:00etan.

Isilik gelditu nintzen.

—Sheridan Squareko lesbianen taberna hori?

—Bai.

—Tira, ez dakit sartzen utziko didaten. Tabernaren kanpoko aldean elkar gaitezke?

—Bai ba —Frankiek—. Ordura arte.

Azkenik gau hura iritsi zenean, farola baten azpian nengibilen harat eta honat, erpurua hozkatu eta hozkatu. Karrikaren beste aldetik Frankie heldu zela ikusi nuen. Elkarren parean gelditu ginen, deseroso. Ez bata ez besteak ez genekien nondik hasi. Eskua luzatu nion; hark estutu. Gure iragan partekatua topatu nuen haren bostekoan.

Ahaztua nuen zenbat maite nituen mari-mutilak, hura hantxe ikusi nuen arte: defentsako jarrera desafiatazalea, esku bat poltsikoan sartua, burua alde batera.

Ez dakit zerk harritu ninduen gehiago; nola aldatu zen Frankie, edo nola segitzen zuen zehazki gogoan nuen bezal-bezalaxe. Bitxia zen zimur txiki batzuk ikustea nerabe aurpegi orezatsu hartan, ile zuriak ile gorri sendoen artean.

—Pozten naiz zu ikusteaz, Frankie.

Zapata arrastatu zuen lurraren kontra.

—Bai, ni ere bai zu ikusteaz.

Nire ezpainaren dardarari eusten saiatu nintzen.

—Ez dut esan nahi bakarrik atsegina dela zu ikustea, Frankie. Zu ikustearekin batean, itzuli naiz nire biziko beste zati batera, eta haren behar handia dut orain. Asko pozten naiz zu ikusteaz.

Besoak zabaldu nituen, eta estu besarkatu genuen elkar. Gero, erdi borrokatu ginen jostaketan. Lepondotik hartu nuen, hark soingainean jo zidan.

—Jess, ez du inporta iraganean gauza batzuk makurtu izana, oraindik ere garai zaharrekoak gara. Oraindik ere estimatzen zaitut —esan zuen Frankiek.

Oso eskuzabala iruditu zitzaidan.

—Lehengo jendetik norbait ikusten duzu? —galdegin, nik. Baietz.

—Grant ikusten dut askotan.

—Eta Theresa? —Arnasari eutsi nion.

Frankiek ezetz, buruaz.

—Oroitzen al zara Jan mari-mutilaz? Berak eta maitaleak loradenda bat dute Elmwood Avenuen: Bioleta urdinak. Ez zait beste inor bururatzten, Duffy ez bada. Oroitzen zara Duffyz, sindikatuko antolatzaileaz?

Irribarre egin nuen.

—Bai, oroitzen naiz Duffyz.

Frankie hurbildu egin zitzaidan.

—Ez dakizu zenbat sentitzen duen zure lan hura izorratu izana. Osotara nahi gabe egin zuen, Jess.

Baiezko keinua egin nuen.

—Bai, badakit. Haren telefonoa nahi dut, baldin badaukazu. Harekin ere hitz egin nahi nuke.

Frankiek baietz esan zidan.

Isilik gelditu ginen.

—Frankie, sentitzen dut. Beti pentsatu izan nuen oso irekia nintzela. Baina neronen beldurrei aurre egin behar izan nienean, zuregandik bereizten saiatu nintzen. Pixka bat ikasi dut ordutik. Ezin dut atzera egin, baina asko sentitzen dut.

Frankiek Duchesserantz seinalatu zuen erpuuaz.

—Ez dakizu sartzen utziko dizuten? Tira ba, garai hartan beldur nintzen, nork erakartzen ninduen erakusten banuen, nire jendeak atea aurpegian itxiko ote zidan. Izugarria da hala sentitzea. Sentitzen dut orain zuri gertatzea. Kaka zaharra, Jess, min handiena eman zidana zen errespetatzen zintudala. Nahi nuen zuk ni errespetatzea.

Begiak igurtzi nituen, tristura uxatzeko.

—Tira, merezi zenuen. Tira. —Sorbaldatik hartu nuen—. Goazen ibai bazterreko pasealekura.

Poliki ibili ginen Christopher kalean barna, Hudson ibairantz.

—Badakizu, Frankie, gazteagoa nintzela, uste nuen gauzak argi nituela: mari-mutila nintzen *femmeak* gustuko nituelako. Gauza ederra zen. Inork ez zuen sekula gure maitasuna ohoratu. Beldurtu egin ninduzun. Iruditu zitzaidan hura kentzen zenidala.

Frankiek buruaz ezetz egin zuen.

—Ez nintzen ari zuri deus kentzen. Baina nola uste duzu sentitu nintzela esan zenidanean ez nintzela egiazko mari-mutila, beste mari-mutil batzuekin oheratzen nintzelako? Neronen izaera kentzen ari zinen. Jainkoa, Jess. Karrikan, gizonak izoratzen naute. Haiei ez diet frogatu behar mari-mutila naizela. Nolatan frogatu behar nizun zuri?

Ezezko keinua egin nuen.

—Ez zenuen beharrik.

Beso batekin inguratu nuen. West Sideko errepidea gurutzatatu, eta pasealekuaren bukaeraraino joan ginen. Ilargi beteak hodeiak argitzen zituen. Argiak dir-dir zegien ur ilunean.

Frankiek ahotsa apaldu zuen.

—Jess, zer mari-mutil zaharrek lagundu zizun adorea izaten?

Oroitu eta irribarre egin nuen.

—Al mari-mutila, Niagara Fallsekoa.

—Niretzat Grant izan zen —Frankiek.

—Grant? —Grant gogoan nuen mozkor gaizto baten gisan. Edozein iraintzen ahal zuen.

Frankiek aurpegiera ikusi zidan.

—Grant dena zen niretzat. Erakutsi zidan ni naizela naizena, ez dudala deus frogatu beharrik. Oso ideia askatzailea da mari-mutil ume batentzat.

Irribarre atsegina egin nuen.

—Sekula ez nuen ikusi Grant oso pertsona askatu gisa; ezta gutako inor ere.

Baiezko keinua egin zuen Frankiek.

—Grantek ez zuen sekula bere jakituria beretzat erabili. Bere lotsaren presoa zen, baina ez zuen nahi gazteok berak bezala bukatzea. Oso mozkorturik zegoela bakarrik limurtzen zituen mari-mutil umeak. Baina ez nuen sekula sentitu guk zoriontsu egiten genuenik. Uste dut pasio sekreturen bat izanen zuela, he-zurretaraino beldurtzen zuena.

Kopeta zimurtu nuen.

—Esaterako?

Sorbaldak altxatu zituen Frankiek.

—Nik uste izutua zegoela bere barneko zerbaitekin, bere ustez okerra den zerbaitekin, fantasiaren batekin, esaterako mari-mutil zahar indartsuekin egotea, edo gizonekin, edo hola-

ko zerbait. Grant gaixoa. Gustatuko litzaidake nirekin irekitzea. Asko maite dut lesbiana zahar hori.

Isilik gelditu ginen, eserita, olatuek gure azpiko piloteak nola jotzen zituzten aditzen. Frankiek hasperen egin zuen:

—Badakizu, Jess, ez nuen sekula ikasi neronen burua maitatzen harik eta onartu nuen arte beste mari-mutil batzuk maitatzea.

Irri egin nuen:

—Ez dakit zergatik, baina gogoan dut zure irudi hori: aste-ro *femme* desberdin batekin oheratzen.

Frankiek baiezko keinua egin zuen, irribarrerik egin gabe.

—Uste nuen hori espero zela niregandik. Buru barnean, bakoitzari galdegiten nion: *Maita nazakezu? Maite nauzu? Maitatzeko modukoa naiz?* Jakina, nitaz arduratzen ziren unean berean banekien ezin nuela haien iritzia aintzat hartu, eta hurrengoarengana jotzen nuen. Jainkoa, kaka zaharra nintzen *femmeentzat*.

Frankiek uretara begiratu zuen.

—Gauzak aldatu ziren bakar-bakarrik onartu nuenean mari-mutil baten eskuak nahi nituela nire gorputzean. Zenbat eta gehiago ikusi zer maite nuen beste mari-mutilengan, orduan eta gehiago onartzen nuen neure burua. Badakizu zerk erakartzen nauen, Jess? —Ezezko keinua egin nuen irribarrez—. Mari-mutil zahar batek: ile urdindua, irribarre harroa, begi tristeak. Badakizu mari-mutil horiek, zure izterra bezalako besoak dituztenak? Holako besoek besarka nazatela nahi dut.

Izter ondoan nuen zur ilunean pausatu nituen hatzak.

—Nik ere asko maite ditut. Baina erakartzen nautenak high *femmeak* dira. Bitxia da: ez du inporta emakumeak edo gizonak diren; beti dira high *femmeak* gerritik hartu eta izerdiarazten nautenak.

Frankiek eskua besoan jarri zidan.

—Zuk eta biek sortu behar dugu mari-mutil hitzaren beste definizio bat, kanpoan utziko ez nauena. Nekatua nago *mari-mutil* hitza aditzeaz sexu agresibitatea edo ausardia esateko. Mari-mutil hitzak hori esan nahi badu, horrek zer ordain du *femmeentzat*?

Ezezko keinua egin nuen.

—Ez nuen halakorik inoiz pentsatu. Baina onartu behar dut ezen, esan zenidanean Johnny eta zu elkarrekin zinetela, neure buruari galdetu niola: nor ote da *femmea* ohatzean?

Frankie aurreraka makurtu zen.

—Ez bata ez bestea. Esan nahi duzu nor den izorratzailea eta nor izorratua? Nork gidatzen duen larrutan egitea? Ez da mari-mutila edo *femmea* izatea bezalakoa, Jess.

Frankie niregana gehiago hurbildu, eta sorbalda ukitu zidan. Zurrun jarri nintzen.

—Lasai —xuxurlatu zidan—, ez naiz ari zu limurtu nahian, Jess.

—Barkatu. Ez nago ohitua ukitua izatera.

Frankieren eskuek masajea eman zidaten sorbaldetako gunen minberatueta.

—Badakizu? Aitorpen bat egin behar dut. Garai zaharretan zurekin maitemindua nengoen.

Irri egin nuen urduri.

—O, kaka. Zurekin lasaitzen hasia nintzen.

Bizkarrekoa eman zidan.

—Gaudituko duzu. —Frankiek lepoa igurtzi zidan—. Kon-daira ostia bat bezalakoa bihurtu zinen gizon gisa bizitzen hasi zinenean. Nolakoa da, Jess?

Sorbaldak goratu nituen.

—Ez dakit. Bizirik irauten saiatzeak bultzatu ninduen honetara, baina ez dit denbora libre askorik utzi horretaz pentsatzeko.

—Oso diferentea naiz zuregandik? —Buruan zeukan pentsamendua boz goran bota zuen.

—Zerorrek erabaki behar duzu. Niretzat oraindik ere familiakoak gara.

Gurutzontzi bat pasatu zen; ontziko jendearen irriak aditu ziren ur gainean. Hantxe nengoen, New Jerseyri begira, Frankieren eskuak nire sorbaldetan.

—Oraindik ere Johnnyrekin zaude?

Haren gorputza nirearen kontra hondoratzen sentitu nuen.

—Zaila da bi mari-mutilentzat, Jess. Oso zaila.

Baietz nik, hasperen eginez.

—E, Frankie. Bi mari-mutil elkarrekin daudenean —maitale gisa, esan nahi dut— beren sentimenduez hitz egiten dute?

—Sentimenduak? —Frankiek.— Zer da hori?

Biek irritxo gozoa egin genuen, lasaiturik. Irria handiago bihurtu zen, harik eta malkoak masailetan behera erori arte. Ukitu ninduenetik lehenbizikoz, nire gorputza Frankierenaren kontra lasaitu nuen. Neure buruari baimena eman nion inguratzten ninduten besoen indarraz gozatzeko.

—Badakizu, Frankie —xuxurlatu nion—. Badira niri gertatzen zaizkidan gauza batzuk, emazte-gizon izateagatik, inoiz *femme* bati kontatu ez dizkiodanak. Ez dut inoiz hitzik topatu.

Frankiek baietz.

—Nirekin ez duzu hitzik behar, Jess. Badakizkit.

Ezezko keinua, nik.

—Behar ditut hitzak, Frankie. Batzuetan sentitzen dut nire sentimenduekin itotzeko zorian nagoela. Hitz egiteko beharra dut, eta ez dakit nola ere. *Femmeak* beti saiatu dira erakusten nola hitz egin nire sentimenduez, baina beren hitzak erabiltzen zituzten, beren sentimenduetarako erabiltzen zituztenak. Nik neronen hitzak behar ditut: mari-mutilen hitzak, mari-mutilen sentimenduez hitz egiteko.

Frankiek estuago hartu ninduen. Begiak busti zitzaizkidan.

—Sentitzen dut zabor toxiko honekin tratatua nagoela, Frankie. Baina ezin aditu dut neure burua hitzak goraki esaten. Ez dut lengoaiarik.

Frankiek besoak zabaldu zituen, nire zati handiagoa hartzeko. Aurpegia haren besoaren kontra bermatu nuen. Babesa eskaini zidan, aspaldian ziega hartan Al mari-mutila besarkatu nuenean bezala.

—Frankie, ez dut hitzik ni erdibitzen ari diren sentimenduetarako. Nolako soinua ote lukete geure hitzek? —Zerura begiratu nuen—. Ostotsarena bezalakoa, beharbada.

Frankiek ezpainak nire ilearen kontra zapatu zituen.

—Bai, ostotsarena bezalakoa. Eta irrikarena bezalakoa.

Irribarre egin, eta haren bizeps gogorrari musu eman nion.

—Irrika —errepikatu nuen apal—. Hitz ederra, mari-mutil batengandik ahots goran aditzeko.

25

—Zuk egizu zerorren bidaia Buffalora, eta nik neronena eginen dut, etxera —esan zidan Ruthek setati.

—Baina zergatik? —Ez nuen ulertzen zergatik egiten zion uko Esperanzaren eskaintzari, autoa guri uztekoari—. Esan duzu ez zarela etxean izan amona hil zitzaizunetik. Esaten aritu zara joan beharko zenukeela. Ikus nezake nongoa zaren. Ikusi nahi nituzke aintzira, mendixkak eta hainbeste aipatu dituzun mahastiak.

Ruthek hasperen egin zuen:

—Zuretzat polita da. Baina nik bizia salbatzeko egin nuen ihes. Niretzat ez da erraza hara itzultzea. Bakarrik joan nahi dut. Nik ezetz.

—Besterik gabe, hantxe utziko zaitut eta Thruway autobidea itzuliko naiz, Buffalora joateko. Gure helmugak elkarrengandik bi ordura bakarrik daude, eta ezin gidatu dut gidabaimenik gabe. Senar-emazte atsegin batzuen itxura eman dezakegu.

Ruthek keinu bat egin zuen.

—Jess, ez duzu ulertzen. Ezin gelditu zara norbaiten etxe parean, hura hantxe utzi, eta alde egin. Aurkeztu behar zaitut. Kafea eskainiko dizute.

Muturtu egin nintzen.

—O, orain ulertzen dut.

Ruthen haserrea lehertu egin zen.

—Ez, ez duzu ulertzen. Ez nago zutaz lotsaturik. —Ahotsa jaitsi zuen—. Haietaz lotsatzen naiz batzuetan. —Kexaka hasi nintzen, baina esku bat altxatu zuen ni geldiarazteko—. Irabazlerik gabeko egoera da. Oso gustuko badituzu, zurekin haserretuko

naiz, ez ulertzeagatik zergatik izan zen niretzat hain gogorra haiekin haztea. Eta gustuko ez badituzu, mespretxatuko zaitut, haien balioa ez aitortzeagatik.

Sorbaldak altxatu nituen.

—Ongi da, ulertu dut zaila dela. Gaia alde batera utziko dut. Baina Buffalora noa bisita egitera. Aurre egin behar diet zenbait gauzari, eta nire oroitzapenak aurkitu behar ditut.

Nahiz ez nuen gehiago eztabaidatu, biek bagenekien gaia ez zegoela alde batera utzia. Nire bidaia atzeratu nuen, batetik banekielako mingarria izanen zela, baina batez ere oraindik ere espero nuelako Ruth nirekin etortzea.

Irail hasieran Esperanzari galdegin nion ea haren autoa har nezakeen bidaia egiteko. Ruth inguruan zebilen sukaldean gauzak egiten, guri aditzen ariko ez balitz bezala.

Abiatu baino egun batzuk lehenago, galoi erdi sagardo espeziaduna ekarri nion Ruthi. Sukaldeko aulki batean eseri zen nire ondoan, eta bere katiluari begira gelditu.

—Zanpatzen nautenean —hasi zen apalki—, beti makurragoa izaten da agerikoa denean. Horrek esan nahi du jendeak ikus dezakeela zauritua izan naizela. Umiliagarria egiten zait.

Segi zezan itxoin nuen.

—Nire jendea ez da gaiztoa —esan zuen—. Gehiago maite ditut alde egin ondotik. Dakiten bezain ongi maite naute. Familia gara. Baina gogorra da, eta ez dut nahi familiakoa ez den inork ikustea. Nik uste ongi sentiaraziko zaituztela gonbidatu gisa, baina ez nago seguru. Zurekin zakarrak izanez gero, gorrotatuko ditut horregatik. Ez dira krudelak. Baina arriskua da niretzat, ez niekeelako sekula barkatuko zu minduz gero.

Nire sargardoa nahasi nuen kanela zotz batekin.

—Noiz abiatuko gara, Ruth?

Harritu zen.

—Ez dut esan joanen garenik.

Nik baietz, irribarrez.

—Bai, laztana. Ez zu ez ni ez ginen hain gogor borrokatuko ez balitz egoerari aurre egiteko prest gaudelako.

Ruthek hasperen egin, eta eskuan kolpetxoa eman zidan.

—Ostegunean.

•••

Mundua da gure komuna! Hori zen gure lema iparralderako bidaian. Komuneko paper nahikoa eta sobera generaman, ez zedin beharrezkoa izan atsedean eremu batean gelditzeko arriskua hartzea. Eguzkia atera baino frankoz ere lehenago abiatu ginen gure sei orduko espedizioan. Eguzkiak argitu zuenerako, oso pozik nengoen bidaia zail hau elkarrekin egiteaz.

Ruthek prestatu zituen Muenster gaztako sandwichak, tomate lehorrarekin eta errukularekin, ogi egin berriarekin. Te hotz pila edan genuen. *Mundua da gure komuna!* esaten genuen irriz.

Ruthen aurpegia goxatu zen nik gidatu bitartean. Basa landare guztien izenak esaten zituen ahots goran. Manhattango antsietatea urtu egin zen urrutiratu ahala. Heldu zen tentsioa ehunka milia aurrerago zegoen. Bi puntuen artean, Ruthek eta biek berriz ere sakon ezagutu genuen elkar.

Azkenerako Thruway autobidea utzi eta Canandaigua Lakerantz jo genuenean, Ruth gero eta emozionatuagoa zegoen.

—Ikusten? —Etxebizitzen eraikin multzo bat seinalatu zuen—. Roseland Jostaketa Parkea zen hura. Gelditu autoa. Utzi niri gidatzen. —Ruthek errepide haiek ezagutzen zituen eskuko zainak nola.

Eguzki lore zelaien ondotik pasatu ginen.

—Labore berria da hori, txikitan ez zegoena.

Ezagutu nituen Ruthek bere akuareletan oroitzapen gisa harrapatutako urrezko makilak eta aster purpurak.

Aintziraren ondoan gelditu zuen autoa, eta aparkatu, gehienez hiru autoren zabalera zuen tokian.

—Ezin izan nuen inoiz asmatu ea aintzirak nire aldarte aldaketak islatzen zituen edo nire aldarteak aintziraren aldaketak. Aintziraren inguruko azkeneko hazbetea ere pribatua da, salbu hau bezalako bi toki txiki eta landa dendaren atzeko aldeko lur-saila. Mendixkak ere erregistratzen ari dira orain.

Motorra piztu, eta autoa atzeraka atera zuen.

—Udatiarrek gure aita hil zuten. —Ahotsa laua eta hotza zuen—. Auto pare bat gelditu zen bihurgune batean, orein bat ikusteko. Aitak bolante kolpez saihestu zituen. Hortxe atera zen errepidetik —isilik pasatu ginen ondotik—. Gorrotatzen ditut udatiarrak. Eragozpen bakarra da ama haietako bat dela. —Ez

nuen deus esan. Ruthek bazekien zer esateko eta isiltzeko prest zegoen—. Jakina, ama maizterra zen. Haren familiakoak ez ziren yuppieak. Aitarekin maitemindu zen uda igaro aurretik. Baina gizon hori maite bazenuen, bazenekien ez zuela sekula ibar hau utziko. Aitak eta osaba Dalek mendixken deia aditzen zuten, maitaleak balira bezala.

Ruthek irribarre egin zuen.

—Ama hiriko emakumea zen, baina aita hil ondoan hemen gelditu zen, aitak hainbeste maite zituen mendixketan. Ni hura bezalakoa naiz. Nire bihotza mendixka hauetan dago, baina hirira egin nuen alde.

Etxe txiki baten aurrean gelditu ginen, oihanaren bazterrean. Labrador retriever hori bat zaunka hasi zen, eta etxeko ate sareduna harramazka, Ruthek autoa itzali bitartean.

—Daleren etxea da hau. —Paper zati bat eman zidan—. Hau da amaren etxeko helbidea, hara joan zaitezen gero nire eske.

Nik baietz. Autoan eserita egon ginen harik eta gure etorreraz ohartu ziren arte.

—Robbie! —Aditu nuen Dale, Ruthi deika—. Robbie, hemen zaude!

Hasperen egin zuen Ruthek. Autotik atera ginen. Ikusi nuen nola haien gorputzak egokitzen ziren besarkada batean, nola haien eskuek elkarren soingain eta bizkarrak ezagutzen zituzten. Ruth harengandik bereizi zen.

—Dale, hau nire lagun Jess da. Bera ere Manhattanen bizi da.

Zakurrak jauzi egin, eta aurpegia milikatu zidan. Dalek lepokotik hartu zuen.

—Bone, utzazu bakean. Non daude zure manerak?

Dalek eskua estutu zidan. Estutu atseginean nabaritu nuen esku zaildua eta latza zuela.

—Kafea hartu nahi? Egin berri dut.

Begiak argitu zitzaizkidan. Ruthek ezetz esan zuen buruaz.

—Hobe duzu joatea —esan zidan—. Thruway autobiddera itzultzen asmatuko duzu?

Irri, nik.

—Bai, aintziraren parez pare joan, eta ezkerretara jo eguzki loreak dauden lekuan.

—Seguru ez duzula sartu nahi eta atsedeen pixka bat hartu? —Dalek.

Ruthi begiratu nion. Ez zuen keinurik ere egin.

—Eskerrik asko, Dale. Baina oraindik ere puska ederra dut egiteko. Buffalora noa. Beharbada bueltan ikusiko zaitut, Ruth hartzera etortzen naizenean.

Izoztu nintzen. Gaizki egin ote nuen Ruth esatearekin?

Dalek baiezko keinua egin zuen.

—Hala bada, zatoz afalordu inguruan. Daleren kuiatxo fritu famatuak eginen dizkizut. Robbiek esanen dizu zeinen ongi egiten ditudan. Aurten kuiatxo zoragarriak atera ditut baratzetik.

Ruthek hasperen egin zuen. Alde egiteko gonbidapen gisa hartu nuen. Autora itzuli, eta pizten hasi nintzen. Dalek oraindik Bone lepokotik hartua zuen, eta beste eskuarekin agur egiten zidan. Ruthek hunkituta begiratzen zidan.

•••

Buffaloko karridak ziren neronen burua ispiluan bezain ezagunak.

Theresa eta biok bizi izan ginen eraikinaren parean gelditu nintzen. Haren izena ez zegoen jada gutunontzian. Ingaratu nuen, esperoko banu bezala neure burua, gazterik, ikustea oraindik ere esnetarako kutxa batean eserita, zerura begira, etorkizunaren arrastoren bat ikusteko eginahaletan. Hementxe nintzen berriz ere, Theresaren bila.

Halako batez oroitzapen batek harrapatu ninduen: Theresaren begiradak erakusten zuen mina, Rochesterren atxilotu ninduten gauean. Aurpegia eskuez estali nuen, halakorik ez ikusteko, baina irudia nire begien atzeko aldean zegoen. Utzi etortzen, esan nion neure buruari. Nolanahi ere, barnean duzu hori dena. Utzi etortzen.

Izkinako telefono kabinara joan nintzen, eta informazio zerbitzura deitu nuen. Kimi eta Scottyri agindutakoa bete nahi nuen; itzuli eta bisita egin niela, alegia. Gogoan nuen nola nire etorrerak goitik behera hunkitu zuen Kim, eta nola alde egin behar izateak mindu zuen. Nitaz oroituko ote zen? Eta Scotty? Haize bihurtu ote zen? Ezin izan nituen haien izenak topatu te-

lefono aurkibidean. Beharbada oraindik Gloriaren etxean biziko ziren. Gloriaren izena zerrendan ageri zen.

Gloria ez zen jabetzen nor nintzen.

—Jess Goldberg —errepikatu nuen—. Elkarrekin aritu ginen inprimategian. Zure etxean egoten utzi zenidan. Egun pare baterako-edo etorri naiz, eta Kim eta Scotty ikusi nahiko nituzke.

Isilune luze-luze bat izan zen. Gloriaren ahotsa xuxurla erlats bihurtu zen.

—Utzi nire haurrak bakean. Aditzen didazu?

Eseki, eta telefonoa eskuan utzi ninduen. Entzungailuari begira gelditu nintzen, zur eta lur. Pixkaka, ohartzen hasi nintzen Gloriak bere esku zuela haurrak ikustea eragozteko boterea. Berriz deitu nuen. Berriz eseki zidan. Eskua irekia, kabinako kristalezko pareta jo nuen behin eta berriz, erretzen zidan arte. Gero ahal bezain indartsu jo nion ostiko bat. Polizia auto bat espaloira erdi igo zen.

—Zer dugu? —oihukatu zidan polizia batek.

Airea hartu nuen sakon.

—Barkatu. Txanpon batzuk irentsi dizkit.

—Zaude lasai, gaztea. Txanpon batzuk besterik ez dira. — Eskuz agurtu, eta alde egin zuen.

Ikusmiratik galdu ondoan, kristala behin eta berriz ostikatu nuen. Neure buruari esan nion Kim eta Scotty topatuko nituela, nahiz eta orduantxe ez jakin nola.

Operadoreak eman zizkidan Jan Mari-mutilaren Elmwood etorbideko dendako helbidea eta telefonoa. Lore dendara sartzen nintzela letoizko ezkilatxoek dilin egin zuten. Arrosa eta lirio usaina sumatzen nuen.

—Lagunduko dizut? —Aurpegi ezagun batek begiratu zidan. Zur eta lur gelditu ginen.

—Edna —xuxurlatu nuen.

Aurpegia hormatu egin zitzaion. Ez nuen ulertzen zer ari zen han, erakusmahaiaren atzeko aldean lanean. Eta orduan oroitu nintzen Jan mari-mutilaren maitale ohia zela. Berriz elkartuko ziren.

Ez zen bidezkoa! Uler nezakeen Ednak ni uztea inorekin egoteko gauza ez izateagatik. Baina orduan nolatan zegoen Janekin? Galderek aurpegia gorritzen zidaten: Jan ukitzen zuen?

Nirekin bakarrik ez zuen nahi? Nola lortzen zuten gainerako guztiek *betiko-zorionsu* izatea?

Halako mina ematen zidan hura hantxe ikusteak, lasterka kanpora joan nahi nuen, autoan sartu eta alde egin. Baina duintasun puska ederra deskubritu nuen ikusita nola gorputzari eusten nion, eta nolako indar leuna nuen bozean, xuxurlatzen nuela: «Kaixo, Edna.»

Erakusmahaiaren atzeko aldetik atera, eta niregana hurbiltzen hasi zen. Nahi gabe, gorputza zurrundu nuen. Gelditu zen.

—Jess. Askotan pentsatu dut zukan.

Nabaritu nuen nola nire haserrea altxatzen zen, haren hitzak geldiaraziz, ez zitezen sar nire defentsen gainetik.

—Jan ikustera etorri naiz. Hemen da?

Ednak azpiko ezpaina hozkatu zuen.

—Atzeko aldeko berotegian dago.

Telefonoak jo zuen. Ednak erantzun bitartean aprobeztatu nuen alde egiteko. Kanpoko aldeko pareta hotzaren kontra bermatu nintzen. Uste nuen minak dendako paretan kontra lehertuko ninduela, baina ez. Mina sentitu nuen bakarrik. Handia.

Ba ote zekien Janek Edna eta biak maitaleak izan ginela? Laster jakinen nuen.

Berotegiak zirudien helduentzako panpina-etxe bat: mundu independente bat. Hezetasunak barneko kristalak lausotuak zituen. Atea ireki, eta barneratu nintzen. Nire botak hondoratu egin ziren zorua estaltzen zuen lasto umelean. Arnasa sakon hartu, eta lur hezearen usain ona barneratu nuen.

Jan makurturik zegoen bioleten kutxa baten gainean. Haren bizkar zabal eta sendoak ezagutu nituen. Ilea urdinu zitzaion. Altxatu, eta begiratu zidan. Betaurrekoak buruko gaineko aldean pausatuak zituen. Sudurrera lerratu zituen.

—Hainbeste zahartzen ari naiz, ezin naiz neure begiez fidatu? —Galdegin zuen—. Zu al zara egiaz, Jess?

Esku-oihal batez eskuak xukatu, eta besarkada batez ongi etorria eman zidan. Ilea igurtzi zidan, eta buruan musu eman, nik negar egin bitartean.

—Asko pentsatu dut zukan —xuxurlatu zuen.

Nire ezpainak dar-dar egin zuen.

—Ez nuen egiaz uste inoren gogoan nengoenik, neurean ez beste.

Kolpetxo eman zidan masailean.

—Ezin zintuzket ahaztu. Banekien zenbait mari-mutil umerekin zahartuko nintzela, zurekin besteak beste. Zenbat denborarako zaude hemen? Non bizi zara? Nola topatu duzu leku hau?

—Manhattanen —erantzun nik—. Frankiek eman zidan zuen dendaren berri. Hemen nagoen denboran zerbait deskubritu nahi dut, ahal badut. Jakin nahi dut zer gertatu zen Al mari-mutilarekin. Jakin nahi dut ea oraindik bizirik dagoen.

Janek bere aurpegia igurtzi, eta airea hartu zuen.

—Bueno, norbaitek jakin badezake, hori Edna da. Ikusi al duzu Edna?

Baietz esan bitartean Janen aurpegiari begiratu nion.

—Ednak oraindik badu harremana Lydiarekin, eta haren mari-mutila luze aritu zen lanean Alekin batera, fabrikan.

Ahotsa goratu zitzaidan.

—Zuk uste Lydiak jakinen duela?

Sorbaldak altxatu zituen.

—Beharbada. Eta Ednak badaki nola topatu Lydia.

Airea sakon hartu nuen.

—Eskatuko zenioke Ednari?

Janen aurpegiari begiratu nion esaten zuenean:

—Bai, atsegin handiz.

Orduan jakin nuen seguru Janek ez zekiela Edna eta biak maitale izan ginela.

—Aizu, zer iruditzen —Janek, irribarrez—, zer iruditzen gaur denak elkartzea zerbait hartzeko?

Izugarri mingarria iruditu zitzaidan, eta saihetsezina. Baietz esan nuen.

—Beharbada Frankiek ere etorri nahiko du?

Janek bizkarrekoa eman zidan.

—Ideia ona.

Tabernaren helbidea idatzi zidan.

Janek berotegiko atea ireki zuenean, aire hotzak ikaratu egin ninduen. Haren kamioneta dendaren atzeko aldeko gara-jean zuen. Ondoan Triumph moto zahar bat zeukan. Janek nire begiradari segitu zion.

—Ez dut denbora luzez erabili, baina ibiltzeko moduan mantentzen dut. Erabili nahi duzu, hemen zauden bitartean?

Irribarrez, baiezko keinua egin nuen indarrez. Urteak ziren zango tartean motorik ez nuela. Janek irribarre zabala egin zuen motorra zalapartaka jartzen zuen bitartean. Soingaina estutu zidan.

—Pozten naiz zu hemen izateaz. Plazera da zu ikustea, haurra.

Berriz dendara itzuli zen arte itxoin nuen, apalki esateko:

—Ez naiz haurra jada.

•••

Gau hartan elkartu ginen, Buffaloko periferiako langile taberna batean. Aspaldi zen ez nintzela izan lesbianen taberna batean. Oraindik arratsaldea zen, eta tokia ez zegoen bete-betean. Hogei edo hogeita hamar bat emakume zeuden tabernaren aurreko aldean. Pentsatu nuen laster iraganen zirela barneko aldera, dantzara. Nire imajinazioa zen, edo baziren emakume gazte batzuk mari-mutilak zirenak, eta beste batzuk *femmeak*?

Sartu nintzenez, denek niri begiratu eta gero elkarri begiratu zioten, baina inork ez ninduen geldiarazi. Barne alderantz begiratu nuen, espero izanez Edna ez zedila han izan, Janekin. Han zen. Frankierekin eta Grantekin zegoen, mahai baten inguruan eseria. Jan zutitu egin zen ni hurbildu ahala.

—Jess!

Ondorioztatu nuen oraindik ez zekiela. Ednak begirada jaitsi zuen, edukazioz masailean musu ematen nion bitartean. Frankiek eta biek elkar besarkatu genuen. Grantek eskua estutu zidan.

—Demonio! Begira nor dugun hemen! —Zerbitzariari keinu egin zion—. Denek duzue edaria? —galdetu zuen.

—Ginger ale bat niretzat —esan nuen. Burua argi izan nahi nuen, batez ere Edna han izanik.

—Zer, sobera ona zara gurekin batean edateko? —Grantek, erronkari.

—Whiski bat —eten zuen Frankiek—. Hutsa.

—Bi garagardo honako —Janek—. Bai, maitea?

Ednak, bere altzora begira, baiezko keinua egin zuen. Isiltasun deserosoan gelditu ginen.

Janek jakinaren gainean jarri ninduen

—Solasean ari ginen: ea zer pasatu zitzaizen garai bateko mari-mutilei eta *femmei*.

—Nik uste nolabait ezkutuan gaudela —esan nuen apal. Nire arreta zegoen Edna eta biak izaten ari ez ginen elkarriketan—. Aire zabalera ateratzea segurua den garaiaren zain.

Grantek hasperen kiratsa egin zuen:

—Baina gaurko gazteak zertan ari ote dira? Zer diren ere ezin esan duzu: ile berde ostia bat eta kateorrazak aurpegian.

Denek batera egin genuen hasperen.

—Grant —nik, sorbaldak goratuta—, nori inporta zaio?

—Ez dago ongi —mahai gaina jo zuen.

Irri egin nuen, eta gehiago haserrearazi nuen.

—Grant, horixe da gutaz esaten zutena!

—Bueno, hori desberdina da —Grantek, eskuarekin keinu eginez.

Harengana makurtu nintzen.

—Badira gauza asko gaztea nintzela onartu ezin nituenak, esaterako modu asko daudela mari-mutila izateko. —Ikusi nuen nola aldatzen zitzaion aurpegiera. Frankiek arnasari eutsi zion—. Baina orain saiatzen naiz jendea den bezala onartzen.

Jan saiatu zen hizketagaia aldatzen. Niregana makurtu, eta nire larruzko zamarraren besoa laztandu zuen.

—Polita —esan zuen.

Ednak begirada ikaratua egin zidan. Roccoren armadurako larru leun, higitua ferekatu nuen.

—Eskerrik asko. —Bukaera eman nion gaiari. Ednak airea askatu zuen, arindurik.

—Oso pozik nago hormonak hartu ez izanaz —adierazi zuen Grantek.

Ahoan nuen plastikozko lastoari hozka egin nion gogor.

—Zergatik, Grant? —Neure burua prestatu nuen.

—Bueno, trabatu samar zaude, ez da hala? Esan nahi dut, ez zara ez mari-mutila ez gizona. Gizon baten itxura duzu.

Denak zurrundu ziren, baina inork ez zion erantzun. Lastoari bueltak eman nizkion.

—Kontuz, Grant —ohartarazi nion—. Aurrean duzuna zerorren isla da.

Grantek irri egin zuen:

—Ez naiz zu bezalakoa. Nik ez nuen aldaketa egin.

Nire haserrea handiagoa zen egoerak eskatzen zuena baino. Ahoan sentitzen nuen, kiratsa nire mihian.

—Noraino iritsi nahi duzu, Grant? Zerorren buruaren zenbateko zatiari eman nahi diozu bizkarra, niregandik urrutiratzeko?

Aurpegiak Grant traizionatu zuen. Une batez nire boterea sentitu zuen, eta erakargarri egin zitzaion. Banekien hala zela, haren begietan ikus nezakeen. Granten desirari buruzko sekretua ezagutzen nuen, eta arma gisa erabili nahi nuen. Une hartan nahi nuen mari-mutiltasuna kantitatea izatea, ezaugarri bat izan ordez, Grant mari-mutiltasunean gainditzeko.

Grantek bere edaria nahasi zuen hatzarekin. Gorritu zen. Edna eta Jan beren altzora begira zeuden. Senti nezakeen Frankie isilka erregutzen ari zela Grant askatu nezan.

Grant beste ikuspuntu batetik begiratu nuen, eta mari-mutil garaitu bat ikusi nuen, alkoholean kontserbatua. Haren umiliazioa usain nezakeen. Oroitu nintzen nola, fabriketan, gizonak behartzen zituen bera errespetatzera. Pixkaka, errespetua merezi izatearen ustea higatu zitzaion. Eta bat-batean neure hitzak aditu nituen neure buruan: *Neronen buruaren zenbateko zatiari eman nahi nion bizkarra, harengandik urrutiratzeko?*

—Badakizu zertaz oroitzen naizen, Grant? —Denek begiratu zidaten—. Gogoan dut nola deskargatzen genuen janari izoztua, aintziraren ondoko nasa haietan. —Ednari begiratu nion. Haren ezpagnetako irribarre ahula oparia zen niretzat.

Grantek baietz esan zuen.

—Bai, garai zahar onak ziren haiek, ez da hala?

Ezezko keinua, nik.

—Neurri batean amesgaiztoa zen. Ez nuke itzuli nahi tabernetako sarekadetara eta mozkorren borroketara. Garai zahar onak dira ez ditudalako berriz bizi behar.

Grant aurreraka makurtu zen.

—Ez zinateke egun haietara itzuliko?

Irri egin nuen.

—Ezta pistolaren mehatxupearan ere. Elkar nola laguntzen genuen, horren falta sumatzen dut, nola saiatzen ginen elkarren familia izaten. Eta oraintxe berean ere hala egin dezakegu.

Gaia aldatzeko unea zen. Ednari begiratu nion.

—Janek esan al dizu jakin nahi dudala zer pasatu zitzaion Ali?

Ednak Janengana eraman zuen begirada, ez niregana. Janek begirada jaitsi zuen.

—Beharbada ez da sobera ideia ona, haurra.

Ednak nire begietako haserreugarri ikusi zuen.

—Bizirik al dago? —galdetu nuen.

Isiltasuna. Aire sakon hartu, eta Jani hitz egin nion, Ednarentzat ziren hitzekin.

—Badakizu Al izugarri inportantea dela niretzat, gauza pila esanen nizkioke. Gaztea nintzenez, uste nuen munduko denbora guztia nuela. Jada ez dut halakorik uste. Bizirik badago, ikusi nahi dut.

Ednak bere garagardo botilari begiratzen zion, deus esan gabe. Halako beldurra nuen haserre lehertzeko, altxatu eta emakumeen komunera abiatu nintzen, ohartu gabe zein aspalditik ez nintzen halako batean sartu. Aurpegia ur hotzez freskatu nuen.

Ustekabea hartu nuen Edna sartu zenean.

—Sentitzen dut —esan zuen atsegin—. Badakit oso haserre zaudela nirekin.

Biek genekien ez zela Alez bakarrik ari, baina onartzeari uko egin nion.

—Jainkoaren izenean, Edna! Berdin zait Al kartzelan, heriotzara kondenaturik, badago ere, edo ezkondua, haurrekin, takioiak jantzita. Maite dut eta ikusi egin nahi dut. —Hortzak estutu nituen—. Adio esan nahi diot bakarrik. Hain zaila al da ulertzea?

Ednak ezezko keinua egin zuen.

—Ez. Egitea da zaila. —Eskua kontuz luzatu zidan, hozka egin nezakeen zakur bat banintz bezala—. Mesedez, Jess. Mesedez, ez zaitez nirekin haserretu. Kontua da hobe dela gauza batzuk bere horretan uztea.

—Eskubidea dut neronen ikasgaiak ikasteko. —Boza leuntzen saiatu nintzen—. Begira, Edna. Badira gauza batzuk barnetik jaten nautenak, minak baino gehiago; esaterako, beti halako ezintasuna sentitzea. Theresa aurkitu nahi dut, baina inork ezin esan

dit nora joan den. Duela urte batzuk neskatiko bati agindu nion itzuliko nintzela, eta haren amak ez dit esan nahi non dagoen. Orain zuk esaten didazu Al bizirik dagoela eta ezin dudala ikusi.

Edna niregandik urrutiratu zen nik segitu bitartean.

—Esanen dizut zer deskubritzen ari naizen bisita honetan, Edna: uste baino askoz min handiagoa manea dezaket. Baina ez dakit nora jo frustrazio honekin. Al Mari-mutila topatu nahi dut.

—Ez da ideia ona —Ednak hain simple esan zuen, gaia itxia balego bezala.

—Nola ausartzen zara? —amorrazioz oldartu nintzaion—. Ez duzu eskubiderik informazio hori niri ezkutatzeko.

Janek komuneko atea ireki zuen. Frankie eta Grant atzetik heldu ziren. Janek kopeta zimurtu zuen.

—Dena ongi hemen? —Edna eta biak elkarri begira geunden.

Egoerak eskatzen zuen jarrera hartu zuen Grantek.

—Utz ditzagun hemen bakarrik —Jani mahukatik hartuz.

Uneoro Ednari begiratzen nion. Ironia hotz-hotzez hitz egin nion.

—Orain babestu behar nauzu, Edna? Orain babestu behar nauzu?

—Kaka zaharra, Jess —xuxurlatu zuen—. Kaka zaharra. Al eroetxean dago.

Begiak zabaldu nituen.

—Elmwood etorbidean? Hain hurbil dago?

—Kaka zaharra —errepikatu zuen Ednak, laster batean komunetik atereaz.

Frankiek eta Grantek alde egin, eta Jan eta ni bakarrik utzi gintuzten, aurrez aurre.

—Haurra, uste dut hobe duzula segituan alde egitea —esan zuen ahapeka Janek, hortz estutuen artetik.

—Ez naiz haurra jada —esan nion, aterako bidea hartzen nuela.

•••

Autobideko bihurguneak zorrozki hartzen nituela, Triumpharekin konektaturik sentitu nintzen. Botere zahar bat nire baitan zebilela sentitzen nuen. Eroetxeko aparkalekuan motorra itzalitakoan zirrara guztia agortu zen. Kaskoa kendu, eta

Erdi Aroko eitea zeukan eraikinari begiratu nion. Leiho bakoitza burdinazko barrekin itxia zegoen. Ikara hotza izan nuen. Baina Al ikusteko gogoia alde egitekoa baino handiagoa zen.

Gau luze, lorik gabekoa, eman nuen Esperanzaren auto-ko atzeko eserlekuan, Janen eta Ednaren dendaren parean. Gau osoa eman nuen pentsatzen zer esan nahi nion Ali. Baina bisitarienezako harrera-lekuan sartu ahala izuak hartu ninduen, ahaztu baitzitzaidan zer esan nahi nion. Denbora guztian bi gauza sinple etortzen zitzaizkidan gogora, ahots gora sekula esan ez nizkionak: «Eskerrik asko» eta «Maite zaitut».

Igogailuko atea irekitzen zirela, saiatu nintzen oroitzen zaindariak esandakoa. *Seigarren solairua*: letra lodiz idatzia zegoen bisitarienezako nire plastikozko txartelean, uneren batean emana zidaten hartan.

—Ahaidea al zara? —Begiak kliskatu nituen. Erizain batek egin zidan galdera. Erizainen postuan nengoan. Arreta paratzeko unea zen.

—Iloba —erantzun nuen. Ikusterik ez nuen agiriei begira ari zen—. Mmm —esan zuen.

—Denbora luzea da ez dudala izeba ikusi —hizketan hasi nintzen urduri—. Ongi dago?

Erizainak betaurrekoen gainetik begiratu zidan.

—Esan nahi dut... —eta isildu nintzen.

—Sentitzen dut, baina terapiari dago —bururatu zuen erizainak—. Ez dakit nork eman zizun hitzordua, baina gaur ez da posible izanen.

Zurbildu nintzen.

—Gaur ikusi behar dut.

Erizainak betaurrekoak kendu, eta mutur bat ezpainen ondoan jarri zuen.

—Zergatik?

Une batez beldur izan nintzen, ea, zein atsekabeturik nengoan erakusten banien, beren boterea erabiliko ote zuten ni hantxe geldiarazteko.

—Bisita hau egiteko hegazkinean etorri naiz. Haren familiarekin egin zen hitzordua, nire familiarekin. Beste hegazkin bat hartu behar dut lanera itzultzeko. Oso luze egon naiz izeba ikusi gabe. Beldur naiz ez ote den hilen berriz ikusi gabe. Begira, oso

inportantea da niretzat. —Erizaina oso harrিতua zegoen. Ingurura begiratu zuen.

—Ezin dut itxoin terapian den bitartean? Zenbat denborako izan daiteke? Ordu bat? Berrogeita hamar minutu?

—Terapia fisikoan dago, jauna... mmm. —Alen historialari begira zegoen, eta harekin nuen ahaidetasuna auzitan jartzen, ziur nengoen—. Itxoin hemen, mesedez. —Aulki batzuetarako keinua eginez.

Eseri nintzen, ezinegenez beterik. Eta deskubritzen bazuen ez nintzela iloba, edo familiari deitzen bazion? Trabesismoa oraindik ere delitua ote zen, zigorra zekarrena? Indarra erabiltzerik ote zuten, ni hantxe ixteko? Niregan zuten boterea sentitu nuen. Batez ere, boterea zeukaten Al ikusten ez uzteko. Ordu bat igaro zen. Ohartu nintzen erizainak medikuari xuxurlatzen ziola. Alde egin nahi nuen, baina ez nuen lekutu nahi Alekin egon gabe.

—Jauna... mmm. —Erizaina nire parean zegoen. Istantean zutitu nintzen. Hitzik esan gabe, biratu eta oinez joan zen. Las-terka abiatu nintzaion atzetik. Pazienteentzako egongela batera iritsitakoan gelditu, eta leiho ilara baten aldera seinالاتu zuen.

Norabide hartan begiratu nuen.

—A, terapia fisikoa esan duzu? Horregatik dago Al... izeba hemen?

—Aplopexia izan zuen hemen zela. Beso eta zango banatan mugimendu gehiena galdu du.

—Ibil daiteke?

Erizainak betaurrekoak sudurrean gora bultzatu zituen, adieraziz gure elkarrizketa bukatzear zela.

—Ez du deus egiten. Eseri eta begiratu egiten du. Ez dut uste ezagutuko zaituenik —esan zidan bizkar gainetik, alden-tzen zela. Hantxe utzi ninduen, izaturik.

Burdinazko barren artetik heldu ziren argi izpiek hauts pila erakusten zuten airean. Dozena bat paziente zeuden egongelan. Gutxi batzuk elkarrekin solasean ari ziren.

—Gaztea, ez zenuen etorri behar —errieta egin zidan emakume zahar batek. Haren hatz bihurrituek nire sudurra sein-alatzen zuen indarrez—. Ez du gauza onik ekarriko! Esana dizut lehenago, behin eta berriz, behin eta berriz. Esana dizut, esana dizut.

Zaharra zen, eta oso ederra, hain justu ere zuen adinaren-
rengatik. Irribarre egin, eta haren ondotik igaro ondoan arindua
sentitu nuen, espero izanez ez zela orakulua izanen.

Aise ezagutu nuen Al mari-mutila. Leihoen parean eseria
zegoen. Aulkian hondoraturik zegoen, leihoetan zehar begira,
edo leihoei berei. Ezin esan nuen. Ospitaleko mantal luzea eta
txapinak zituen jantzirik. Niregandik urrutien zeukan besoa
plastikozko babes batean bildurik zuen. Hurbilduta, ikusi nuen
aulkiari loturik zegoela, maindire zerrenda batekin.

—Ez die hilkorrei hitz egiten —esan zuen orakuluak nire
atzean—. Aditu ezin dituzun bozak entzuten ditu. Ezin dizu aditu.

Bizkar gainetik irribarre egin nuen.

—Ongi da —lasaitu nuen—, mamua naiz.

Emakume zaharra hurbildu eta aurpegira begiratu zidan.

—Bedeinkatua bedi! —egin zuen oihu, gurutzearen seinalea
eginez—. Egiazko mamua da —iragarri zien beste pazienteei:
itxuraz ez zioten kasurik egin.

Aulki bat hurbildu nuen Alen ondora. Alde batetik, izu-
garri aldatu zen. Ilea zuria zuen kasik osorik, eta sekula baino
luzeagoa. Garai zaharrak balira, xaxatuko nuen esanez Prince
Valianten itxura zuela. Bistan da, garai zaharrak balira ilea moz-
turik izanen zuen.

Haren ondoan eseri nintzen. Alen aurpegiak oroitarazten
zidan ibai ohatze lehortu bat, jadanik ez zebiltzan ur korrontee-
k zizelkatua. Haren masailak hain guri zirudien, neure buruari eu-
tsi behar nion ez laztantzeko. Sudurluzea sentitu nintzen, haren
aurpegia hain hurbiletik aztertzen; beraz, aulkian atzeraka eseri
nintzen. Beste alde batetik, Al ez zen kasik batere aldatu. Haren-
gan dena zen nolabait ezaguna eta pozgarria.

Leihotik kanpora begiratu nuen. Ikusi nahi nuen zeri begira
zegoen, eta denbora eman nahi nion nire presentzia jabetzeko.
Kanpora begirata, zati batean ikusten zen adreiluzko pareta
bat, leiho barradunekin. Beste zatian aparkaleku bat. Aurreraka
makurtuz gero, nire motoa ikus nezakeen. Une batez gogoratu
zitzaidan beharbada Alek gelditzen ikusi izanen ninduela, eta,
nolabait jakinen zuela ni nintzela. Jakina, nire fantasia besterik
ez zen.

Aparkalekutik haratago bazen belardi zerrenda bat,
zuhaitz gutxi batzuekin. Urrutiko zeruan, kaioak biraka ari ziren.

Ikuspegi osoaz jabetu nintzen, urteak ikusten eman banitu bezala, eta zerumugan beste paisaiarik ikusteko esperantzarik ez banu bezala. Orduan jakin nuen Al ikusten ari zen huraxe bera ikusten ari nintzela.

—Ez dago ikusteko askorik, ez da hala? —esan nuen, ahots goran baina kasik niretzat.

Alek begiratu egin zidan une batez. Begiak lausotuak zituena, katarata emozionalak balitu bezala. Gero berriz leihoetara begiratu zuen.

Oina leiho koskan jarri, eta atzeraka bermatu nintzen.

—Gaztea, mesedez ez egin hori —ohartarazi zidan erizain batek. Ongi eseri nintzen, zapuzturik. Alek berriz niri begiratu, eta begirada aldendu zuen. Une batez iruditu zitzaidan haren irribarrea ikusi nuela, baina oker nengoen.

Al gotorleku batean itxirik zegoen. Ez nekien nola eskalatu haren paretak. Gogora etorri zitzaidan ipuin bat, non printze batek kristalezko mendi bat igo behar zuen, maite zuen emakumea askatzeko. Ezin nuen gogoratu nola erdietsi zuen.

Nonbait aditua nuen koman zegoen jendeak aditzen ahal dizula. Banekien ez zegoela koman, baina ez nuen uste kaltegarria izanen zenik hari hitz egitea.

Kasik iruditzen zitzaidan ez zela denbora pasatu. Hitz egokiak aurkituko banitu, besterik gabe segituko genuen mende laurden lehenago utzitako solasarekin.

—Al —esan nuen apalki. Ingurura begiratu nuen, baina inork ez zigun arretarik egiten, salbu orakuluak—. Al, ni naiz, Jess. Beharbada ez nauzu ezagutuko, baina begiratzen badidazu beharbada bai.

Al ez zen mugitu, baina, esan nahi niona hobeki zehazteko, irudikatu nuen niregandik hurbilago zegoela, aditzen ari zela.

—Banituen gauzak zuri esateko, baina beti pentsatu nuen berriz ikusiko zintudala. Badakizu, horrelakoak dira haurrak, uste dute gauzek ez dutela sekula bukaerarik izanen.

Iruditu zitzaidan baiezko keinua egiten zuela. Beharbada nire irudipena zen. Eskua Alen besoan pausatu nuen, oso arinki, eta luze eta tinko begiratu nion haren soslaiari. Minutu batzuk geroago biratu, eta begiratu egin zidan. Ondoren, beste alde batera begiratu zuen. Istant labur hartan pareta baten atzetik zelatan bezala ikusi nuen.

—Al —saiatu nintzen esaten, baina hitzak trabatu egin zitzaizkidan.

Kopeta haren besoan jarri eta negar egin nuen. Ezin nion nire gorputzari gehiago eutsi. Malkoak geldiarazi, eta begiak xukatu nituen. Kleenex bat bilatu nuen poltsikoetan. Bat agertu zen nire begien aurrean, orakuluak luzatua. Eskerrak eman nizkion buruaz.

—Al mari-mutila —esan nuen isilka—, aditzen ahal badi-dazu, mesedez, esan baietz buruaz, kliskatu begiak, egin zerbait. Niregana biratu zen.

—Al —irribarre egin nuen.

Eskuarekin besoa hartu zidan zepo batek bezala, aurpegia haserrearekin bihurritua.

—Ez nazazula bueltan eraman —marmarikatu zuen.

—Alde egizu: orain! —ohartarazi zidan orakuluak.

—Ez —nik. Neronen beldurra aditu nuen nire ahotsean. Ez nuen Alengandik ihes eginen, edozein gauzari aurre egiteko prest nengoan. Une hura zen Alekin nuen guztia, eta azkenekoa izanen zen.

—Ez nazazula bueltan eraman —errepikatu zuen Alek. Haren azazkalek nire besoetako haragia mozten zuten. Lasaitzen saiatu nintzen.

Bat-batean ulertu nuen zer ari zen esaten, eta lotsatuta sentitu nintzen. Nola biziraun zuen Alek? Ahaztuz, lotara joanez, ihes egin ez! Lurpera joan zen, ezkutatu egin zen seguru egoteko, nik egin bezalaxe.

Haren begirada finkoari aurre egin nion. Altzairuzko begiak zituen, baina malkoz bustiak. Nireak ere bai. Libre nuen eskua haren hatzen gainean jarri nuen goxoki, eta horiek lasaitzen hasi ziren.

—Sentitzen dut —esan nuen—, barkatu, Al. Oso nirekoia izan naiz. Ez naiz ohartu oraintxe arte hau dena niregatik egiten ari nintzela. Ez nuen pentsatu zer izanen zen hau zuretzat. Jendea saiatu da niri ohartarazten, eta ez diet kasurik egin. —Nire aurpegia eskuarekin tapatu nuen—. Itzul zaitetz segurutasun bila joaten zaren leku horretara, ez dizut gehiago enbarazurik egiten. Sentitzen dut.

—Ongi da, haurra —esan zuen lagun zahar baten ahots ezagunak—. Ongi da. —Begirada altxatu, eta Al mari-mutila niri

irribarrez ikusi nuen. Negar malkoak zihoazkidan masailetan behera. Esku bakarraz lehortu zizkidan. Ikus nezakeen nolako eginahala zen harentzat besoa altxatzea.

—Itxura ona duzu —esan zidan—. Beste norbaitek ikus zaitzake, edo nik bakarrik?

—Egiazkoa naiz, baina zuk bakarrik ikus nazakezu.

Alek nire gainetik begiratu zuen, eta gero berriz nire begietara.

—Gazte itxura duzu —esan zidan.

Irribarre egin nion.

—Berrogei beteko ditut hemendik bi urtera, nire kartak ongi jokatuz gero.

Alek baiezko keinua egin, eta berriz leiho aldera biratu zen.

—Garai zaharretakoak gara. —Oroitzen zen!

Ekaitz emozional batek hartu zuen haren aurpegia. Hase-
re biratu zen niregana.

—Utzi garai zaharrak bere horretan. Ez nazazula bueltan eraman, hilik nago.

Atzeraka egin nuen, eta ondoren neure burua behartu nuen berriz aurreraka egitera.

—Ez zaude hilik, Al. Larriki zauritua bakarrik. Luze eta gogor borrokatu zinen, baina larriki zauritu zintuzten. Oso ongi egin zenuen.

Burua niregana itzuli, eta erortzen utzi zuen. Eskuaz nire besoari eusten saiatu zen.

—Ezin izan nuen, ezin... Nik...

Ahotsa apaldu zitzaidan, maitale batena bezala.

—Ongi da, dena ongi da. Oso ongi egin zenuen, eta orain atsedean hartu behar duzu. Ongi da, Al.

Esku bat buruan jarri zidan. Haren pisuak ume sentiaraz-
ten ninduen.

—Jackiek egin al dizu ile mozketa hori?

Bihotza gelditu zitzaidan, eta gero irribarrez baietz esan nion. Alek besoa estutu zidan.

—Haurra, esaiozu sentitzen dudala.

Eskuak haren esku gainean jarri nituen.

—Jackiek esan dit ez dagoela haserre, Al.

Aurpegira begiratu zidan, egia esaten ari ote nintzen jakiteko.

—Egia da —nik, gezurretan—, esan dit ez kezkatzeko. Maite zaitu, Al. Ez dago egunik zukan pentsatzen ez duenik, eta nik ere berdin.

Alek irribarre egin, eta kolpetxo eman zidan masailean.

—Al —esan nuen, baina haren espiritua joana zen, hai-zeak ate bat zanpatekoz ixten duenean bezala.

—Al?

Leihotik kanpora begira gelditu zen. Haren gorputzeko tenperatura zenbait gradu jaitsi zen.

—Joana da —orakuluak.

—Al —nik, haren besoa inarrosiz—. Al, mesedez, ez zaitela joan, mesedez, emaidazu beste minutu bat.

Neure burua gorrotatu nuen hori egiteagatik. Lehentxeago zin egina nuen bakera itzultzen utziko niola, eta orain hantxe ari nintzen, arrastaka ekarri nahian. Ezpaina dardarka hasi zitzaidan, eta gero kokots osoa. Matrailak min ematen zidan. Bigarren aukera bat izan nuen bizian hari esateko maite nuela, eta alferrik galdu nuen, nerabe nintzela egin bezalaxe. Eta, haur batek bezala, ez nion alde egiten utzi nahi harik eta berresten zidan arte hark ere ni maite ninduela. Aurreraka makurtu, eta bi besoez lepoa inguratu nion.

—Sentitzen dut —esan nuen—. Utziko zaitut, Al. —Malkoak ez zitzaizkidan gelditzen.—. Kontua da honainoko bidea egin dudala, hainbeste urte gurutzatuz, zuri esateko zenbat maite zaitudan, eta orain beranduegi dela. Eskerrak eman nahi dizkizut. Zuregatik ez balitz, ez nuen inoiz jakinen ni neroni izateko eskubidea nuela. Erakutsi zenidan nola iraun bizirik urte hauetan denetan. Ez dago egunik zurekin eskerturik ez nagoenik, eman didazun guztiarengatik. Oso inportantea izan zara nire bizian, Al. Beti nahi izan dut handitu zu nitaz harro egoteko moduan. Al, orduan maite zintudan eta orain ere maite zaitut.

Besotik malkoak bitan xukatu behar izan nituen, ohartu aurretik ez zirela nire begietatik heldu.

—Esan nizun, hobe zen ez etortzea —xuxurlatu zidan orakuluak nire sorbalda gainetik.

—Ez, inportantea zen etortzea —esan nuen.

Zutitu eta besoez Al inguratu nuen berriz ere. Buruan musu eman nion goxoki, eta ezpainei haren ilean egoten utzi nien.

—Maite zaitut, Al Mari-mutila —esan nion isilka.

Erizaina atetik begira nuen. Alde egiteko altxatu nintzen. Orakulua parean jarri zitzaidan.

—Bedeinkatua bedi —esan zuen, niri begira eta buruaz ezezko keinua eginez. Oso mantso, eskua hartu nion, eta musu arin bat eman. Begirada apaldu, eta gorritu egin zen.

—Adio, amona —esan nion—, eskerrik asko etortzen uzteagatik.

•••

Blue Violets dendaren atzeko aldeko sarreran utzi nuen Triumpha. Jan eta Edna denda barnean topatu nituen. Mutur beltza zuten biek ere. Ednak ez zidan begiratu; Jan sutan zegoen. Kanpora atera nintzen, berotegiaren atzeko aldera, eta Janen zain gelditu nintzen. Niregandik hiru urratsera gelditu zen. Aldeetan ukabilak bildurik zituen.

—Zer ostiagatik ez zenidan esan? —galdetu zuen.

—Ez zegokidan —sorbaldak goratuz—. Ez nuen zuek bien tartean jarri nahi.

Jan hurbildu egin zitzaidan.

—Nahita ere ezin izanen zenuen.

Hortz estutuen artetik airea hartu nuen.

—Egia esan, badakit. Ezin izan nion Ednari eutsi. Baina zu ere galduko zaitut? Ez dizut deus egin. Ez da zuzena.

—Zuzena? —ezezko keinua eginez—. Ez du zuzena izan beharrik. Haserre egoteko eskubidea dut.

—Ez, ez duzu —oihukatu nion—. Zerorrek duzu Edna. Zuek biek batak bestea duzue. Ni naiz mindua egoteko eskubidea duena.

—Nik jakin gabe, nire neskarekin txortan egin zenuen! —garrasika.

—Zer? —Esku ahurrez nire izterra jo nuen—. Txantxetan edo?! Hamabi urte ziren zu eta Edna maitale ez zinetela!

Bistan zen, Janek logika bazter utzia zuen. Irribarre egin nuen.

—Zer ostia da hain irrigarria? —galdegin zuen.

Sorbaldak goratu nituen.

—Nirekin haserre zaude Ednarekin ibiltzeagatik zuek moztu eta handik dozena bat urtera. Ni Ednarekin haserre nago zurekin itzultzeagatik guk harremana utzi eta handik hamar urtera kasik. Badakizu zer uste dudan?

Janek ostikoa jo zion zementuzko lurrari.

—Kaka zaharra ere ez zait inporta zer uste duzun.

Bizkarrak goratu nituen.

—Esanen dizut, nolanahi. Nik uste ez dagoela nahikoa maitasun denentzat. Eta esanen dizut beste zer uste dudan. Denek ere bide luzea egin dugu. Elkarren egiazko beharra dugu, nahiz eta orain oso atsekabeturik egon. —Ahotsa leundu nuen—. Neure buruaz hitz egin dut bakarrik. Egiaz behar zaitut, Jan. Ez zintudan traizionatu. Beti izan naiz zure laguna.

Janek ezezko keinua.

—Oraingo, utzazu. Ez idazu esan ez dudala eskubiderik sentitzen dudana sentitzekeo.

Sorbaldak goratu nituen.

—Zu galtzeko beldurra dut. Zer gertatuko da denbora pixka bat uzten badut, eta saiatzen banaiz ausardia biltzen eta zuri deitzen? Hitz eginen didazu?

Hasperen egin zuen Janek.

—Eman denbora.

Motoaren giltzak bota, eta alde egiteko itzuli nintzen.

—Ikusi zenuen? —oihukatu zidan Janek.

—Bai.

—Ezagutu zintuen? —Baietz, nik—. Gogorra izan zen?

Nire irribarrearen tristura sumatu nuen.

—Nolanahi ere izanen zen gogorra. Kasik ezin nuen aguantatu arrotz batzuek hura ukitzearen ideia, arrotz batzuek haren gorputza kontrolatzearen ideia. Asko izutu nintzen. Haurra nintzenean, Ali begiratu eta nire etorkizuna ikusten nuen harengan. Gaur egun hari begiratu, eta pentsatu dut oraingoan ere nire etorkizuna izan daitekeela.

Janek bizkarrak goititu zituen.

—Ez dakizu biziak zer ekarriko dizun.

Boza hondoratu zitzaidan.

—Edwinen suizidioaz ere pentsatzen aritu naiz. Uste nuen gauza segurua zela Edwin gure artean izanen genuela. Eta bere buruari tiro egin zion. Bat-batean beste aukera bat nahi nuen eta beranduegi zen, joana zen. Beraz, nire gogoan lurperatu nuen, min handiegia ematen zuelako. Beharbada beldur nintzen hura ere nire etorkizuna izan zitekeela. —Aurpegia igurtzi nuen—. Alde egin behar dut, Jan.

Baiezko keinua egin, eta alde egiten hasi zen.

—Jan. Esan agur Ednari nire partez, bai?

Janek bizkar gainetik erantzun zidan.

—Ez zaitezela pasa, haurra.

•••

Autoa Ruthen amaren etxe pareko legarrean gelditu nuen, eta auto barnean itxoin nuen, norbait etorri arte. Ganduak mendixkak estaltzen zituen. Canandaigua aintziraren azalerak urdin distiratsua islatzen zuen. Aditu nuen etxeko atea irekitzen zela. Patsy Cline kantatzen ari zen *Crazy for thinking that my love could hold you*.

Ruthek dei egin zidan:

—Zatoz, sartu, maitea. —Azkenekoz ikusi nuenetik alaia-go eta lasaiago zirudien.

Ruthek bere amaren —Ruth Anne— eta Hazel izebaren aurrean aurkeztu ninduen. Tomateak potoetan sartzez bukatu berri zuten. Hiruek ere estilo bereko mandar lorehunak zituzten jantziak. Irriz lehertzen ari ziren gelan sartu nintzenean. Hazelek malkoak xukatu zituen.

—Garai zaharretako istorioak kontaktzen ari ginen.

—Sartu sukaldera, eseri, haurra. Bazkaldu duzu? Gauzatzoren bat prestatuko dizut? —galdegin zidan Ruthen amak. Ruthi begiratu nion. Irribarrez, baietz esan zuen buruaz.

—Bai, andrea. Oso atsegina zara.

—Deitu idazu Anne. Denek deitzen didate gure amaren ize-narekin. Zer iruditzen zaizu intsusa baien tarta puska handi bat?

—O, bai. Mesedez! —Annek tarta zati gaitza jarri zuen nire parean—. Jan ezazu dena. Handitu beharra duzu, mutikoa.

Ruthek urduri begiratu zidan. Begiradaz esan nion ez zuela inporta.

—Ama, Jess da New Yorkeko nire laguna, esan baitizut. Lehen Buffalon bizi zen.

Hazelek begiak goratu zituen.

—Ez dakit, neskak, nola bizi zaitezketen hiri horretan, hainbeste zerarekin...

—Izeba Hazel —Ruthek lehor moztu zuen.

—Ez nuen deus txarrik esan nahi —Hazelek—. Bakarrik uste dut...

Annek eten egin zuen:

—Hazel, jan ezazu zure puska.

Begiak goratu zitzaizkidan plazerez.

—Zuk egin al duzu tarta hau?

Hazelek irribarre egin zuen:

—Annek ibarreko intsusa baien tartarik hoberena egiten du. Galdegin edozeini. Hain tarta onik jan al duzu inoiz?

Ruthek begirada jaitsi zuen.

—Bueno —esan nuen—, Ruthena jan dut. —Ingurura begiratu nuen urduri, ikusteko ea norbaitek gaizki hartu ote zuen nire lagunarekin nerabilen izena. Ruthek sorbaldak goratu zituen—. Esan dezaket, andrea, familiako inspirazioa dastatzen dudala zure haurraren tartan.

—Bueno, badu bere lana. —Annek irribarrez ikusi zuen nola irensten nuen bere tarta.

Hazel irriz kulunkatu zen.

—Anne, oroitzen nola egin zenion tiro lehenbiziko aldiz orein bati? —Hazel istorioa kontatzen hasi zen—. Hiriko neskatxa bat zen anaia Codyrekin ezkondu zenean. Hemen eman zuen lehenbiziko neguan, kasik ez zen deusetan moldatzen. Berrogeita hamar urte izanen du. Ba, goiz batez, gosaritan, anaiak esan zion ehizara joatekoa zela. Anneri esan zion orein haragiak lagunduko ziela negua pasatzen, eta goiz edo berandu ikasi beharko zuela prestatzen. Nik esan nion erakutsiko niola nola. Baina setatia zen. Codyri esan zion: «Nik eginen diot tiro orein madarikatuari. Hori da errazena. Garbi ezazu zerorrek animalia madarikatua!» Tira, anaiak egin zuen bakarra izan zen irri egin eta goiko solairura joatea bizarra kentzera.

Annek segitu zuen istorioarekin:

—Beraz, platerak garbitzen ari nintzen, hortxe berean. —Seinalatu zuen.— Pentsatzen ari nintzen, ororen gainetik, zer deabru egin ote nuen gizon horrekin ezkontzearekin. Nolanahi dela ere, sukaldeko leihotik kanpora begiratu, eta orein ar bat ikusi nuen kanpoko aldeko soil batean. Pentsatu ere ez nuen egin. Codyren eskopetetako bat hartu eta tiro egin nion oreinari. Kanpora atera laster, eta adarretatik arrastatzen hasi nintzen. Pisua zen, baina hain haserre nengoan Codyrekin, zezen baten

indarra neukan. Cody goiko solairutik jaitzi zen geroxeago, eta orein ar bat topatu zuen sukaldeko lurrean. Esan nion, «Orain, garbi ezazu animalia madarikatua».

Ohartu nintzen asteburu osoan hala ibili zirela, irriz kontu kontari sukaldean.

—O, gustatuko zitzaidan kamera bat izatea, Codyren aurpegia erakusteko. Oraindik ere ikus dezaket. —Annek irri algara egin zuen. Haren irribarreak dar-dar egin zuen—. Gustatuko zitzaidan zuk ezagutzea —esan zidan—. Uste dut asko gustatuko zitzazula. Oso pertsona ona zen. —Hasperen egin zuen—. Tarta gehiago nahi?

Baiezko keinua egin nuen indarrez. Ruthek ezezko keinua egin zuen.

—Morea gora botaka hasiko zara autoan.

Annek eskuak jarri zizkion ezpainenetan.

—Mutil honek ez du ibar hau utziko nire mahats tarta das-tatu gabe.

Eskuak altxatu nituen, errendizio gisa.

—Bai, andrea.

—Hori hobeki dago —esan zuen, are puska handiagoa jarritz nire aurrean.

Anne, Hazel eta Ruth zain gelditu ziren, nik lehenbiziko hozka egiten nuela. Bularra jo nuen.

—Hil eta zerura iritsi naiz. Hau da nire bizi osoan probatutako tartarik hoberena.

Anne pozez gainezka jarri zen.

—Robbie, eraman itzazu nire tarta pare bat.

Ruthek sorbaldak goratu zituen.

—Neronen tarta eginen diot, ama. Gora noa, nire gauzak prestatzera. Eta gero alde eginen dugu.

Annek beheko solairutik oihukatu zion.

—Maitea, begira ezazu zedrozko kutxan. Amonaren mandarra han dago. Beharbada eraman nahiko duzu.

Hazel kanpora joan zen egur eske. Annek eginahala egin zuen aukitrik altxatzeko.

—Ez da samurra zahartzea —esan zidan.

Harekin batera zutitu nintzen.

—Horretantxe pentsatzen aritu naiz. Egia esan, ez nuen sekula espero izan hain luze bizi zena.

Anne hurbildu egin zitzaidan:

—Laster aski iritsiko zaizu. Baina bizi osoa zure aurrean duzu oraindik. Ez duzu denbora alferrik galdu behar horrekin kezkatzen. —Irribarra itzali zitzaion—. Zu ere uzta jaso ondoko buruxkaria zara, ez da hala? Nire Robbie bezalaxe. Badakizu zer den hori? —Nik ezetz, buruaz.

—Nekazariak uzta jasotakoan, bildu gabeko buruxkak pobreentzat uzten ditu. Nire haurarentzat hori baino gehiago nahi nuen. Pentsatzen dut zuk ere gehiago mereziko duzula.

Bizkarrak goratu nituen.

—Ahal bezain duin moldatzen ari gara. Eta lagunek asko maite dute Robbie —Ruth—, New York Cityn.

Annek baiezko keinua egin zuen, irribarrerik gabe.

—Hemen ere asko maite dugu. Jendeak beharbada ez du ulertuko, eta beti ez dute jakinen zer esan, baina badakite gutako bat dela.

Ruth goiko solairutik jaitsi zen.

—Prest, Jess?

Hazelek eta Annek Ruth besarkatu, musukatu eta mimatu zuten.

Annek dei egin zidan.

—Jess, zatoz hona. —Besarkatu ninduen. Ukitua izatea ez dut sekula gutxietsi—. Etor zaitez nahi duzunean, bai? Txapela kentzeko moduko beste mahats tarta bat ginen dizut.

Gorritu nintzen.

—Eskerrik asko.

—Zaindu ongi nire haurra —xuxurlatu zidan.

Sorbaldak estutu nizkion:

—Bai, andrea.

Autoz, isilik joan ginen mahastiz betetako mendixken artean. Mahatsak usaintzen nituen; jaioterriko usaina Ruthentzat.

—Gidatzeko laguntzarik behar, Jess? —galdetu zidan logaleturik.

Baietz, nik:

—Laster, nik uste.

—Orduan kafe pixka bat beharko dut. Abiatu aurretik termoak bete behar genituen.

Urduri begiratu nion.

—Zuk uste arriskatu behar dugula jatetxe batean sartzera?

Zutago jarri, eta hasperen egin zuen.

—Kafea behar dugu. Geldi zaitez kafetegi hartan. Bizi gaitezen arriskugarriki.

Irri nik.

—Bai. Orain arte hala egin ez bagenu bezala.

Inork ez zigun batere kasurik egin kafetegian. Flanelaz jantzirik eta kamioilarien kapelak zituzten gizonak beren gauzez hizketan ari ziren mahaietan eta txokoetan. Zerbitzariak nekatu itxura zuen. Pagatzeko kutxaren parean geunden, ordaintzeko zain, iskanbilarik izan baino lehen lekutzeko irrikatan. Sukaldetik gizon bat atera zen. Ez zen izanen hiru oin baino altuagoa. Taburete batera igo zen, kutxaren parean, eta gure kontua kalkulatu zuen. Ruthen aurpegira begiratu zuen, eta gero nirera. Aurpegiera goxatu zitzaion. Ruthek eta bieki elkarri begiratu genion lotsati, eta irribarre egin genion. Irribarre egin zigun.

—Zer moduz bidaia, neskak?

Ruthek eta bieki elkarri harri eta zur begiratu, eta irri egin genuen ahapeka. Hurbildu nintzaion.

—Bidaia harrigarria izan da. Eta nolabait bizirik iraun dugu. Honaino, behintzat. Eta zurea?

Haren irribarreak hainbat gauza adierazi zituen.

—Ez da uste nuena bezalakoa, baina bihurtu nau norbait zeinarekin bizitzen ahal naizen.

Ruthek eskua estutu zion.

—Zu ere hemen ingurukoa zara?

Baietz.

—Hemen jaioa eta hazia. Carlin dut izena.

Ruthek irribarre egin zuen.

—Vine Valleykoa naiz ni. Ruth naiz. Jess Buffalokoa da. New York Cityra itzultzen ari gara.

Begiek distira egin zioten.

—Hemendik atera nahi dut. Hiri handi batera joan nahi dut, aspertzeko astirik ez dagoen batera.

Irri egin zuen Ruthek.

—Orduan, Manhattan da zuretzako lekua.

—Zatoz gurekin —esan nion—. Zatoz! Sar gaitezen autoan eta goazen.

Carlinek buruaz ezetz esan zuen, triste.

—Nire zati batek irrikatzen du halakorik egiteko gauza den pertsona izatea. Baina hemen dut nire jendea. Mantoago askatu behar dut.

Ruthek bere izena eta telefono zenbakia idatzi zituen perezko zapi baten atzeko aldean.

—Deitu. Etorri bisitan. Erakutsiko dizugu zergatik maite dugun New York.

Baietz esan nuen.

—Eta zergatik gorrotatzen dugun ere bai.

Guregana gehiago hurbildu zen.

—Neskak, egiaz ari zarete?

Aurreraka makurtu nintzen, gure kopetek kasik elkar ukitu arte.

—Ez dugu denborarik galtzeko, itxuratan ibiltzeko.

Carlinek kolpetxo eman zidan masailean.

—Nahi duzue mertxikazko tarta goxo egin berri bat bidaiarako? Helen, ekar ezazu tarta hori, mesedez.

Carlinek eta Ruthek elkarri eskua ematen ziotela, ohartu nintzen zein ederra ageri zen Carlinen esku txikia Ruthen esku handia estutzen zuen bitartean. Elkar agurtu genuen.

Ruth eta biok autora itzuli ginen. Bientzako kafea zerbitzatu nuen.

—Zuk uste berriz ere Carlinen berri izanen dugula?

Baietz, hark.

—O, seguru baietz. —Ruthek eskua besoan jarri zidan—. Zer moduz Buffalon? Bilatzen zenuena aurkitu zenuen?

Hasperen nik.

—Ez dakit. Zerbaiten bila noan aldiro, beste zerbait topatzen dut. Geroago hitz eginen dizut bidaiaz. Orain nekatuegi nago horretarako. Eta zurea, zer moduzkoa?

Ruthek hasperen egin zuen.

—Txatalez egindako edredoi bat bezalako. —Niregana hurbildu, eta musu eman zidan masailean. Gorritzen nintzela sentitu nuen—. Atsegina da oroitzea nondik heldu zaren. Baina orain prest nago etxera itzultzeko —esan zuen.

Ruthek eskua estutu zidan:

—Tira, Jess. Goazen etxera.

26

Metroko eskaileretan gora Christopher kalera igotzen ari nintzela, bozgorailu batek *lesbiana* eta *gay* hitzak esaten zituela aditu nuen. Karrikara iritsitakoan, neure burua topatu nuen ehunka lagunen artean, elkarretaratze batean. Bozgorailuei adi zeuden.

Aurretik ere ikusiak nituen gayen manifestazioak karrikan. Beti gelditu nintzen espaloitik begira, harro, gazte mugimendu hori ez zutelako behartu armairura itzultzera. Baina beti urrutiratzen nintzen mugimendu horretatik, aparte eta bakarrik sentituz. Oraingoan ahots batek hantxe berean geldiarazi ninduen. Mutil gazte batek mikrofonoa hartu zuen, eta, ahots sendoz, hunkiduraz dardarka, deskribatu zuen nola, eusten zioten bitartean, behartu zuten ikustera nola talde batek bere maitalea beisbol makilez zanpatzen zuen heriotzaraino.

—Espaloian hiltzen ikusi nuen —esan zuen negarrez—, eta ezin izan nuen salbatu. Zerbait egin behar dugu. Honek ezin du honela jarraitu.

Mikroa emakume bati eman zion. Ilea Afrikar estiloko zapien bildua zuen. Emakumeak jendea gonbidatzen zuen hitz egitera.

Emakume gazte bat, jendearen artetik, oholtzara igo zen.

—Nire auzoan, Queensen, baziren mutil batzuk. —Haren boza nekez aditzen zen, baita mikrofonoarekin ere—. Gauzak oihukatzen zizkiguten maitaleari eta bioi. Gau batez, nire atzetik aditu nituen. Bakarrik nengoen. Burdindegia atzeko aldeko aparkalekura eramane, eta bortxatu egin ninduten. Ezin izan nituen geldiarazi.

Malkoak irristatu zitzaizkidan aurpegian behera. Ondoan nuen gizonak eskua soingainean jarri zidan. Hark ere begiak bustiak zituen.

—Maitaleari inoiz ez nion kontatu gertatutakoa —xuxurlatu zuen mikrofonora—. Iruditzen zitzaidan biak egonen ginela bortxatuak kontatuz gero.

Oholtzatik jaisten ari zela, pentsatu nuen: horixe da adorea. Kontua ez da bakarrik amesgaiztotik bizirik ateratzea, kontua da horrekin zerbait egitea ondoren. Kontua da behar bezain ausarta izatea horretaz jendeari hitz egiteko. Da gauzak aldatzeko antolatzen saiatzea.

Eta halako batez hain nazka-nazka eginik sentitu nintzen neure isiltasunaz, non nik ere hitz egiteko beharra izan bainuen. Kontua ez zen gauza zehatz bat esateko beharretan nengoela. Zer esanen nuen ere ez nekien. Behar nuen behingoan nire ezarrria zabaldu eta neure ahotsa aditu. Eta beldur nintzen une hori igarotzen uzten banuen beharbada ez nintzela berriz saiatzera ausartuko.

Oholtzara hurbildu nintzen, neronen ahotsa aurkitzetik hurbilago. Buru zegoen emakumeak begiratu egin zidan.

—Hitz egin nahi duzu? —Baietz esan nion, antsietatez zorabiaturik—. Zatoz gora, anaia —premiatu ninduen.

Zangoek nekez eraman ninduten oholtzara. Begira nituen ehunka aurpegiei begiratu nien.

—Ez naiz gizon gaya. —Neronen boz goratuak ustekabeen hartu ninduen—. Mari-mutila naiz, emazte-gizona. Ez dakit erraietaraino gorrotatzen gaituztenek jada horrela deitzen diguten. Baina adjektibo horrek nire nerabe urteak taxutu zituen.

Denak oso isilik gelditu ziren solasean ari nintzela, eta jakin nuen aditzen ari zirela; jakin nuen aditu zidatela. Nire adintsuko emakume *femme* bat ikusi nuen, jende multzoko atzeko aldean. Buruaz baietz egiten zuen nik hitz egin bitartean, ezagutuko banindu bezala. Begiak oroitzapenez berotuak zituen.

—Badakit zer den zauritua izatea —esan nuen—. Baina ez dut esperientzia handirik horretaz hitz egiten. Eta badakit zer den erasoei erantzutea, baina batez ere bakarka. Borrokatzeko modu gogorra da, zeren gehienetan ni baino gehiago dira, eta galdu egiten dut. —*Drag queen* zahar batek, elkarretartzeko

bazter batean zegoenak, eskua astindu zuen mantso, buru gainetik, lekukotza isila eman bezala.

—Manifestazioak eta elkarretaratzeak espaloitik ikusten ditut. Eta nire zati bat zuekin oso konektaturik sentitzen da, baina ez dakit ongi etorria naizen. Gutako asko gaude kanpoan, eta ez dugu hala egon nahi. Atxilotzen eta zanpatzen gaituzte. Karriketan hiltzen ari gara. Behar zaituztegu; baina zuek ere behar gaituzue. Ez dakit zer behar den mundua egiaz aldatzeko. Baina ezin al gara saiatu elkarrekin asmatzen? Ezin al dugu lortu *gu* hori zabaltzea? Ez al dago modu bat elkarren borroketan laguntzeko, beti bakarrik egon ez gaitezen?

Txalo zaparrada jaso nuen, hitz egiteko ausardia bildu zuen pertsona bakoitzak bezala. Niretzat, esku-zartak erantzun bat ziren: bai, oraindik ere posible zen esperantza izatea. Elkarretaratze hark ez zuen dena bat-batean aldatuko, baina ikusi nuen jendea elkarri hizketan eta elkarri aditzen.

Buru ziharduen emakumeari mikroa ematean, besoaz inguratu ninduen.

—Ongi egina, ahizpa —xuxurlatu zidan belarrira. Inork ez zidan horrela deitu sekula.

Oholtzatik jaitsi, eta jende artean egin nuen bidea. Eskuak luzatzen zizkidaten eta nirea estutzen, edo bizkarrekoak ematen. Mutil gay gazte bat orriak banatzen ari zen eta irribarrez baiezko keinua egin zidan.

—Oso ausarta izan da hara igotzea eta esan duzuna esatea. Irri egin nuen.

—Ez dakizu zenbateraino.

Orri bat eman zidan, manifestazio baterako deia egiten zuena, HIESaren izurritearen aurrean gobernuak zuen axolagabekeria salatzeko.

—Eutsi —aditu nion norbaiti.

Gazte mari-mutil bat eskua luzatzen ari zitzaidan. Hainbeste oroitarazten zidan nire lagun zahar Edwin, non lipar batez uste izan bainuen Ed berpiztu zela, nire laguntasunari beste aukera bat emateko.

—Bernice dut izena. Asko gustatu zait esan duzuna. —Eskua eman nion, eta haren boterea sentitu nuen estutu irmoan—. Denbora luzea daramazu kanpoan, e? —galdegin zidan.

Ez nekien esan nahi ote zuen denbora luzea neramala gaya izaten edo denbora luzea neramala gay mugimendua kanpotik ikusten. Biak ere egia ziren.

—Badira lesbianen dantzaldiak zentro komunitarioan, hilabeteko hirugarren larunbatetan. Nire lagunen aurrean aurkezten ahal zaitut. Beharbada hitz egin dezakegu.

Sorbaldak goratu nituen.

—Ez dakit gauza izanen naizen eztabaida batean hasteko, emakumeen dantzaldi batean sartzeko dudan eskubidea defendatzeko.

Bernicek sorbaldak altxatu zituen.

—Kanpoko aldean elkartu gaitezke. Eta gero elkarrekin sartu. Nire laguna egoten da atean. Inork ez dizu trabarik jarriko denak elkarrekin bagaude. Neurri batean horrexetaz hitz egin duzu, ez da hala?

Irri egin nuen.

—Ez nuen espero hain ongi ulertzea.

Bernicek oin batetik bestera egin zuen balantza.

—Beraz, zer diozu? Etorri nahi?

—Bai —nik—. Ikaratua nago, baina joan nahi dut.

—Primeran —hark—. Hona hemen nire zenbakia. Deitu.

Zaborrontzi baten gainera igo nintzen, eta jendekearen bazterretarantz begiratu nuen, ezagutu ninduen *femmearen* bila.

Joana zen.

Presaka joan nintzen etxera, eta eskaileretako mailak binaka igo nituen.

—Ruth —haren atean joaz—. Ireki.

Aztoratua zirudien.

—Jess, zer dugu?

—Hitz egin dut, Ruth. Bazen elkarretaratze bat Sheridan Squaren, eta utzi dute jendeak oholtzan hitz egitea, eta hala egin dut. Hitz egin dut, Ruth. Ehunka lagun aurrean. Nahiko nuen zu han izatea. Nahiko nuen niri aditzea.

Ruthek besoekin inguratu ninduen, eta hasperen egin zuen.

—Zuri aditzen egon naiz, maitea —xuxurlatu zidan belarrira—. Behin isiltasuna hautsita, hori hasiera besterik ez da.

—Telefonoa erabil dezaket?

—Bai ba —sorbaldak goratuz.

Banekien zehazki nor ikusi nahi nuen. 17. kaleko sindikatuaren bulegora deitu, eta Duffyz galdegin nuen. Haren ahotsa istantean ezagutu nuen. Horrek berotasuna eman zidan.

—Duffy, ni naiz. Jess. Jess Goldberg.

—Jess? —Nire izena hasperen batean ahoskatu zuen—. O, Jess. Barkamena eskatu beharra nizun aspalditik. Barkatuko didazu, lantoki hartan zu agerian uzteagatik?

Irribarre egin nuen.

—O, aspaldi barkatu nizun. Baina gaur oso emozionaturik nago. Zurekin hitz egin nahi dut. Oraintxe berean elkartu nahi dut zurekin.

Duffyk irri egin zuen.

—Non zaude? Nola aurkitu nauzu?

—Hemen bizi naiz. Frankiek esan zidan non aritzen zinen lanean.

—Zenbat denbora beharko zenuke hona etortzeko? —galdetu zuen.

Erlojua begiratu nuen.

—Hamabost minutu gehienez.

—Bada jatetxe bat 16.ean, Union Squareko mendebaldean. Han elkartuko gara.

Nire baitan galdegin nuen ea Duffyk eta biek oraindik ere elkar ezagutuko ote genuen. Horixe baietz. Jatetxean sartu zen, eta berehala ikusi ninduen. Nengoen txokora hurbildu ahala zutitu egin nintzen.

—Jess. —Eskua estutu zidan. Berehala, begiak malkoz bete zitzaizkion.— Jess, urteak itxoin ditut esateko zenbat sentitzen dudan.

—Ongi dago, Duffy. Badakit ez zenuela nahita egin. Akatsa besterik ez zen izan.

Duffyk lurrera begiratu zuen.

—Beste aukera bat izan dezaket?

Irri egin nuen.

—Oraindik ez dituzu zure aukerak xahutu.

Duffyk begirada jaitsi zuen.

—Sindikatuako antolatzaile izan naizen urte hauetan denean egin dudan akatsik handiena dela uste izan dut. Eta pentsa nezakeen bakarra zen nolako kostua izan duen zuretzat. Edozein

gauza eginen nuen zure bizia errazteko, Jess. Eta hanka sartu nuen, eta nola. Sentitzen dut.

Irribarre egin nuen.

—Badakizu, Duffy, bada pertsona bat maite dudana, Ruth izenekoa. Bera ere, nire gisa, diferentea da. Behin zanpatu ninduten eta nire lantokira deitu zuen, esateko gaixorik nengoela, eta akats madarikatu bera egin zuen. Badakit asko haserretu nintzela zurekin aldi hartan. Baina orduan ere banekien nire alde zeundela. Ez neukan jende askorik ere lagunduko ninduenik, baina banekien zu haietako bat zinela. E, nik ere akatsak egin nituen, eta barkatu zenizkidan.

Duffyk irribarre egin eta ezpaina hozkatu zuen.

—Eskerrik asko, Jess. Aise barkatu didazu.

Irri egin nuen.

—Bueno, beti izan zara lagun ona. —Gorritu zen—. Jar zaitetz, Duffy.

Gure bizien berri eman genion elkarri, hitz gutxirekin.

—Koadernatze lantegitik bidali ninduten, gorria izatea leporatuta —azaldu zuen Duffyk—. Erre-edo egin nintzen, asko edaten nuen. Gero edateari utzi, eta antolatzaile lana eskuratu nuen, eta oraindik ere sindikatu berarentzat ari naiz.

Nik esan nion hormonak hartzeari utzi niola eta New York Cityra etorri nintzela, eta orain tipografoa nintzela.

—Sindikatu gabea? —galdetu hark.

Baietz nik.

—Bai. Ordenagailuak iritsitakoan, enpresaburuak izan ziren lehenak ikusi zutenak nola aldatuko zen inprenten industria zaharra. Beraz, langile espezializatuen sindikatuak oharkabean antolatu gabe utzitako jende guztia kanporatu zuten. Horrela de-segin zuten sindikatuaren Buffaloko adarra.

Begietara begiratu zidan, deseroso jartzeko modu batean.

—Oso gogorra izan da zuretzat, ezta, Jess?

Sorbaldak goratu, eta baiezko keinua egin nuen.

—Aurpegian ezagun zaizu —esan zuen—. Ez dirudizu hain beldurtua, baina bai zaurituagoa. —Bitxia, hark ni hala ezagutzea.

Gaia aldatu nuen.

—Gauza harrigarria gertatu zait gaur, Duffy. Elkarretaratze baten aurrean jarri, eta mikrofonora hitz egin dut. Esan nahiko nien nolakoak ziren gauzak fabriketan, nola kontratua

kasik bukatzear zela enpresaburuak aparteko orduak ematen zituen, jendea zatitzeko. Ez nekien zer ulertuko zuten esan izan banie kide guztiak behar izan zirela greba irabazteko.

Duffyk irribarre egin zuen.

—Bai, eta gaur egun sindikatu bat baino gehiago behar da irabazteko.

Hasperen egin nuen.

—Hona etorri naiz zuri galdetzeko: uste duzu mundua alda daitekeela? Edo borroka beti defentsiboa izanen da?

Duffyk oso mantso egin zuen baiezko keinua.

—Bai, Jess. Egiaz uste dut mundua alda dezakegula. Etengabe ari da aldatzen, baina askotan makurrerako. Ez naiz baikorra. Uste dut egoerak behartuko gaituela aldaketaren alde borrokatzera.

Duffyk irribarre egin zuen ukabilaz mahaia jo nuenean.

—Aldaketarekin lotutakoak ulertu nahi ditut; ez dut haren mendean egon nahi. Sentitzen dut iratzartzen ari naizela. Historiaz jakin nahi dut. Badut informazio berri pila: nire gisako jendea izan da historian, baina ez dakit deus ere historiaz.

Duffy aurreraka makurtu zen, kafetegiko gure txokoaren barnean.

—Hau da ezagutzen nuen Jess: goseak dagoena, borrokarako prest dagoena. —Irri egin nuen—. Beraz, Jess, zergatik ez duzu kontuan hartzen nirekin antolatzaile gisa aritzeko aukera.

—Zer? —oihukatu nuen.

Duffyk bi eskuak altxatu zituen, bakea eskatuz bezala.

—Pentsa ezazu, besterik ez. Beti izan zara antolatzailea. Badakit zaila izanen litzatekeela, baina zure bizian beti hala ibili izan zara. Badakit zuretzat zaila izanen litzatekeela emakume gisa antolaketa lanetan ibiltzea. Beharbada aukera izanen duzu. Zure ondoan izanen nauzu denbora guztian. Eta nik uste beste batzuk ere ondoan izanen zenituzkeela. Eta oso gogorra bazaizu, esaten ahal didazu nola egin nahi duzun, eta hitzematen dizut ez dudala hanka sartuko.

Duffyk eskuaz jo zuen mahaia.

—Sekulako boterea daukazu, kasik erabili gabea. Baina ezin duzu bakarrik lortu. Egiaz uste dut badela jendea zure ondoan egoteko prest dagoena. Uste dut ulertarazten ahal diegula.

Hasperen egin nuen, mantso.

—Ez dakit, Duffy. Esperantzaren kontu hau berria da niretzat. Beldur pixka bat dut, bat-batean itxaropen handiegiak ote ditudan.

Duffyk ezezko keinua egin zuen.

—Ez naiz esaten ari biziko garela halako paradisu bat ezagutzeko. Baina gauzak aldatzeko borrokatzeak indartsuago egiten zaitu. Batere itxaropenik ez izateak akabatuko zaitu, seguru. Baliatu aukera, Jess. Zure baitan jadanik galdegiten ari zara ea mundua alda daitekeen. Saiatu zaitez irudikatzen mundu bat non bizitzea merezi duen, eta galdegin zerorren buruari ea merezi duen horren alde borrokatzeak. Urrutiegi iritsi zara esperantzari uko egiteko, Jess.

—Uau —izan zen esaterik nuen guztia—. Horretaz denaz pentsatu beharra dut.

Irribarre egin zuen.

—Hartu behar duzun denbora. Oraingoz pentsatu, ba-karrik. Lanera itzuli behar dut —esan zuen—. Bihar gaua libre baduzu, afaltzera gonbidatuko zaitut. Gehixeago hitz eginen dugu.

—Utzi nire agenda begiratzera. —Begiak estutu nituen—. Bai ba. —Ireki nituen—. Libre nago. Hitzordua egina.

Duffyk liburu bat eman zidan, *Langileen historia kontatu gabea*. Azaletik ireki nuen. Barnean idatzia zuen: *Jessentzat, espektatiba handiekin*.

—Beti eman nahi izan dizudan liburua da —azaldu zidan—. Zorionez, idazmahaiko tiraderan neukan deitu duzunean.

Urteak lehenago emana zidan Mother Jonesen autobiografiar oroitutik; eskaintza bera zuen.

—Honek esan nahi du beste aukera bat dudala? —nik.

Irribarre beroa egin zidan.

—Oraindik ez zara hasi zure aukerak xahutzen, Jess.

Zutitu, eta elkarri eskua eman genion. Alde egiteko biratzen hasi zen.

—E, Duffy. Behin galdera bat egin nizun eta ez zenidan sekula erantzun. Komunista al zara?

Duffy niregana itzuli zen, mantso.

—Ez dakit zer esan nahi duen hitz horrek zuretzat. Beraz, ez dakit baietz batek zer esan nahiko lukeen. Zer iruditzen zaizu:

afaria aurrean dugula, azalduko dizut nire ustez nola dagoen mundua eta zein den hartan dudan lekua.

Baietz esan nion.

—Ederki.

•••

Gau hura beroa zen, kasik lo egiteko jasanezina. Aire pisu eta hezeak arnas hartzea eragozten zuen. Ostotsa aditzen zen urrutian. Pentsatzen ari nintzen nola aldatzen ari zen nire bizia, gauza txikietan eta handietan.

Eta Theresaz pentsatzen ari nintzen. Sekula ez nion idatzi eskatua zidan gutuna. Noizbait, laster, idazterik izanen ote nuen? Zer esanen nioke? Nora bidaliko?

Euriak indartsu jotzen zituen nire leihoak. Gutunean pentsatzen lokartzen ari nintzela, tximistek zerua argitzen zuten. Gauetz, amets hau izan nuen:

Zelai gaitz batean barna oinez nenbilen. Zelaiaren bazterretan zeuden emakumeak, gizonak eta haurrak niri begira, irribarrez eta buruaz baietz egiten. Borobil formako etxola txiki baterantz abiatu nintzen. Oihanaren ertzetik hurbil zegoen. Sentitu nuen aurretik ere egona nintzela han.

Nire gisa desberdina zen jendea zegoen han. Zirkulu hartan eserita geundenek, geronen isla ikusten genuen parean genuenaren aurpegian. Ingurura begiratu nuen. Ez zen erraza esatea nor zen emakumea, nor gizona. Haien aurpegiek beste edertasun bat erakusten zuten, nire bizian telebistan eta aldizkarietan goretsi denaz bestelakoa. Jaiotzetikoa ez den edertasuna da, borroka eraikitzen dena sakrifizio handiz.

Haien artean egoteaz harrotu nintzen. Haietako bat izateaz harro nengoan.

Su bat genuen gure bilkuraren erdian. Zirkuluko pertsona zaharretako batek begietara begiratu zidan. Ezin nuen jakin emakume hura jaiotzean gizona edo emakumea izan zen. Objektu bat goratu zuen. Ulertu nuen objektu horren egiazkotasuna onar nezala espero zela. Hobeki begiratu nuen. Dineh emakumeek haurra nintzela oparitu zidaten eraztuna zen.

Premia sentitu nuen jauzi egin eta eraztuna itzul ziezadatela erregutzeko. Nire bulkadari eutsi nion.

Eratzunak lurrean proiektatzen zuen zirkulua seinalatu zuen. Baiezko keinua egin nuen, jakinik itzala eratzuna bezain egiazkoa zela. Irribarrez, eskuarekin keinu egin zuen eratzunaren eta haren itzalaren arteko tartean. Distantzia hori ere ez al zen egiazkoa? Gure zirkulura seinalatu zuen. Nire inguruko aurpegiei begiratu nien. Emakumearen eskuak etxolako paretan egiten zuen itzalari segitu nion, hura mugitu bitartean, eta, hala, lehenbiziko aldiz ohartu nintzen inguratzen gintuzten itzalez.

Emakumeak orainerantz deitu zidan. Gero nire gogoa iragane-rantz lerratu zen, gero aurrera etorkizunerantz. Ez al daude elkarrekin konektaturik, galdetu zidan hitzik gabe.

Sentitu nuen nire bizi osoak zirkulua ixten zuela. Hautzaroan hain desberdina, armairutik ateratzea mari-mutil gisa, gizon gisa bizi-tzea, eta azkenik nire bizia taxutu zuen galderara itzultzea berriz: emakumea edo gizona?

Karrikako eztabaida batek, frustraziotik jaioa, iratzarri ninduen. Ez nuen mundu honetara itzuli nahi. Ametsera itzul-tzeko eginahalak egin nituen, baina arrunt iratzarria nengoen. Egunsentia zen kasik. Logelako leihoa ireki, eta su-eskaileretara atera nintzen. Aire freskoa atsegina zen. Begiak itxi nituen.

Oroitu nintzen Theresak eta biek harremana moztu ge-nuen gauaz, nola zeruari begira-begira gelditu nintzen, neure burua behartzen neure etorkizunaren arrastoren bat ikustera. Denboran mezu bat bidaltzerik banu esne kutxa hartan eseritako mari-mutil gazte harentzat, hauxe izanen litzateke: Auzotarrak, Ruthek, berriki galdegin dit ea nire bizia berriz bizi behar banu erabaki berak hartuko ote nituzkeen. «Bai,» erantzun diot zalan-tzarik gabe, «bai.»

Asko sentitzen dut hain gogorra izan izana. Baina bide hau egin ez banu, nor izanen nintzen? Une horretan neure biziaren erdi-erdian sentitzen nintzen, ametsa oraindik nire oroitzape-nean txirikordatua, bisonte belarra bezala.

Duffyren erronkaz oroitu nintzen. Irudikatu bizitzea merezi duen mundu bat, borroka merezi duen mundu bat. Begiak itxi, eta nire esperantzei hegaldatzen utzi nien.

Hegalen hotsak aditu nituen hurbil. Begiak ireki nituen. Hurbileko teilatu batean gizon gazte batek usoak askatu zituen, ametsak bailiran, egunsentian.

Liburu honen edizio lanak
2018ko apirilaren 15ean bukatu genituen.
100 urte lehenago John Maclean eskolako maisu
eta iraultzaile eskoziarra atxilotu zuten sedizioagatik:
ez zuen Lehenengo Mundu gerran hartu nahi.
Epaiketan esan zuen bera «ez zegoela hor
salatu gisa: baizik eta burutik oinetara odolez
zikindutako kapitalismoaren salatzaile gisa».



